

Marcel PROUST

Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik

ARO GALDUAREN BILA

(IV)

ARO BERREDIRENA

(Le temps retrouvé)

Enuen bertzela ere Combray-ko ondoan egin nuen egonaldi hortan, eta behar bada ene bizian Combray gutienik gogoan ukan nuen dembora izan zenean gelditze beharrik ukanen, ezpalauta hortik, hain zuzen, egiaztatze bederen anarteko bat ekharri lehenik Guermantes-ko aldean ukanak nituen ideia batzuendako, eta ere Méséglise-ko aldean ukanak nituen bertze batzuen. Berriz hasten nituen arrats bakoitz, bertze alde batera, Combray-n egiten ginituen ibilaldiak, arratsaldean, Méséglise-ko aldera joaiten ginenean. Orai Tansonville-en lehenago Combray-n aspaldidanik lo izaiten zen orenean auhaltzen zen. Eta urtaro beroaren gatik, eta ere arratsaldean Gilberte margotzen ari zelakotz jauregiko kaperan, ezkinen ibiltzera nunbait han bi oren auhaltzen zen. Eta urtaro beroaren gatik, eta ere arratsaldean Gilberte margotzen ari zelakotz jauregiko kaperan, ezkinen ibiltzera nunbait han bi oren auhaltzen zen. Sartzean Galbarioa inguratzen zuen edo Vivonne-an mainatzen zen gorrindolezko zeruaren ikustea zen lehengo atseginari jarraikitzen zizakon gaua jin ondoan abiatzea, gehiago etzelarik sartzen ari zen artaldearen hirur-kantoin urdinaran, araugabe 'ta higikorra baizik herrixkan aurkitzen. Landetako erdi batean ilunabarra itzaltzera zoan; bertzearen gainean phiztua zen jadanik berehala osoki mainatuko zituen ilargia. Gertatzen zen Gilberte-ek uzten ninduela hura gabe joaitera, eta banindoan, ene itzala giblean utziz, bere bidean jarraikitzen den untzixka bat bezala eremu lilluratueta hara; gehienetan enekin jiten zen. Horrela egiten ginituen ibilaldiak, ainitzetan haurra nintzanean behiala egiten nituen hek berak ziren: nolaz bada enuen ukanen lehenago Guermantes-ko aldean baino ontsa

bizitasun gehiagorekin ehoiz idazteko gai izanen enintzalako sendimendua, ene asmamena eta sendikortasuna ahulduak zirelako gainera emaiten zizakolarik, zein guti nintzan Combray-ren ikusateaz zein guti nintzan gutiziatua ikusi nuenean? Lehenagoko urteak zein guti berbizitzen nituen ikusiz lastimatua nintzan. Vivonne-a mehar eta itsusi edireiten nuen zirgatzeko bidearen bazterrean. Ez batere orhoitzen nintzanean ezperdintasun biziki handiak aurkitzen nituelakotz. Baina, haien berriragaitea gertatzen zizatan lekuetarik bertze bizi oso batez urrundua, haien eta ene artean etzen, handik, ohartua izaiten den ene baino lehen, orhoitaren zartada berehalako, hauteko eta osoa sortzen den hurbiltasun hartarik. Haren natura ezpainukeen gogoan ontsa hartzen, trixtatzen nintzan ene senditzeko eta asmatzeko antzea ttipitua zatekeela gogatuz ibilaldi horietan atseginik gehiago sendi ez ukaiteko. Gilbertek berak, nihaurek egiten nuen ere baino gutiago hartzen baininduen, ene trixtezia handitzen zuen ene ustegabetzean parte hartuz. « Nolz etautzu ezer sendi-arazten, erraiten zautan, lehenago igaiten zinuen pattar horren hartzeak? » Eta bera hainbat zen bertzelakaturik nun ezpainuen gehiagorik eder aurkitzen, ezpaitzen gehiagorik batere hala. Baginabilan batean, ikusten nuen eskualdea aldatzen, munhoak behar ziren igan, gero malda batzuei beheiti bazoazen. Gilberte-rekin solastatzen ginen, enetako biziki gozagarriki. Ez alta nekerik gabe. Hainbertze jendetan badira berdinak ez tiren sail batzuei, aitarekin jitea, amarekin jitea; bat zeharkatzen da, gero bertzea. Baina biharamunean sailen ordenua gain-azpikatua da. Eta azkenean alderdiak nork bereziki dituen ezta jakina, erabakiarendako nori fidatzen ahal den. Usuegi gobernuz aldatzen direlaket haiekin elgertasun egitera mentura eztaitekeen erresuma hek bezala zen Gilberte. Baina ororen buruan ogen bat da. Jende jarraikiaren orhoitak haren baitan halako berdintasun bat ezartzen du eta orhoitzen den agiantzer elukeela huts egin nahi egiten, azpi-sinadura emana ukan ezpalaue ere. Adimenduaz den bezainbatean, Gilberte-ren baitan, bere amarekin arrazoingabekeria batzuekin, bizi-bizia zen. Baina, zuen balio bereziari eratxikia eztena, orhoit nize elgarrekin ibiltzean ginituen solasaldietan, aldi batzuei ainitz ustegabetu ninduela. Batean, lehenbizikoan, hau erranez: « Gosegi ezpazine eta berantegi ezpaliz, bide hau ezker hartuz eta gero esku-nera itzuliz, oren laurden bat gabe Guermentes-en izanen ginen. » Izan zen erran balu bezala: « Itzul zaite ezker, harrazu gero eskun, eta ezin ukan dena

hunkiko duzu, ezin helduak diren eta hetaz lurlean ehoiz nun diren baizik, « aldea » - hori bakarrik bainuen Guermantes-etik ezagutzen ahalko nuela uste ukana lehenago, eta behar bada, erran-nahi batean, enuen huts egiten -, « aldea » baizik ezagutzen ezten urrunetara helduko zira. Ene bertze ustegabetzetarik bat « Vivonne-aren ithurburuaren » ikustea izan zen, Ifernuetako Athea bezain Lurretik haratagoko gauza bezala asmatzen nuena, eta han hampulu batzu igaiten ziren halako latsatoki laurkantoineko baten idurikoa baizik etzena. Eta heren aldia izan zen Giberte-ek erran zautanean: « Nahi baduzu, arratsalde batez atheratzen ahalko gira hala ere 'ta Guermantes-ko aldera joaiten, Méséglise-tik hartuz, molde pollitena da », ene haurzaroko ideia guziak itzulipurdikatuz erranaldi horrek ikasi baitzautan bi aldeak etzirela uste ukana nuen bezain elgar ezin akomeagarriak. Baina gehienik jo ninduen, izan zen zenbat guti nituen, egonaldi hortan, haurzaroko urteak berriz bizi ukan, Combray-ren ikustea berriz gutiziatu, Vivonne-a mehar eta itsusi aurkitu. Baina Méséglise-ko aldean ukanak nituen asmamenak egiaz-tatu zituen ordua, oro har gauazko ibilaldi horietan batean izan zen, nahiz auhal-aitzin egiten ziren - baina hain berant zen hura auhaltzen! Ilargi xuriak tapizatzen zuen ibar biribil barnatu bateko mixteriora jausteko orduan, ephe batez gelditu ginen, kalitza urdinaran baten bihotzera sartzera doazen bi mamutxa bezala. Orduan Gilberte-ek ukan zituen, behar bada zu laster joanen zirela urriki duen eta estimatzen duzula iduri duzun herriko ohoreak egin nahi ukanen zauzkitzun etxekandere baten garazia onez bakarrik, he-tan ixilaz, lañotasunaz, sendimenduen erraiteko molde begiratuaz baliatzen badakien munduko emazte baten arteziak nehork har elezakeen leku bat badadukazula haren bizian sinets-arazten dautzuten elhe batzu. Aire goxa-garriak, haize xuriak hartaz betetzen ninduten xamurtasuna bapatez haren baitara ixuriz, erran naukona: « Pattarra aiphatzen zinuen joan den egunean. Nola maite zindutan orduan! » Ihardetsi zautan: « Zergatik etzinautan er-raiten? Enitzan hortaz jelostua. Nik maite zindutan. Eta ere bi aldiz zure gana aitzinatu niz. - Noiz bada? - Lehen aldian Tansonville-en, bazinindabilan zure familiarekin, sartzera nindoan, enuen ehoiz hoin mutiko pollit bat ezagutu. Ohitua nintzan, gaineratu zuen itxura uher eta ahalgeti batekin, muttiko lagun batzuekin Roussainville-ko jaudorreko hondakinetan jostat-zer joaiten. Eta biziki gaizki ikasia nintzala erranen dautazu, baitziren han

ilunbeaz baliatzen ziren mota orotako nexka eta muttikoak. Combray-ko elizako beretterra, Théodore, biziki gixakoa baitzen, erran behar da (Jainkoa! zein pollita zen!) eta hain itsusi bilakatua (orai Méséglise-en botikario da), han jostatzen zen auzoko laborarisa ttipi guziekin. Bakarrik jalgitzera uzten baininduten, ihes egin nezakeen orduko hara laster egiten nuen. Eztezauzuket erran zenbait nahiko zindutan hara jiten ikusi; biziki ontsa orhoit niz, zer gutiziatzen nuen zuri entzun-arazteko minuta bat baizik ez ukanez, zure aitamek eta neurek ikusia izaiteko irriskuan, molde hain gordinean erakutsi dautzutala nun ahalgetzen bainiz orai. Baina hain ara gaixtoan dautazu so egin nun etzinuela nahi hartu baitut. »

Eta bapatez, neure baitan egin nuen egiazko Gilberte, egiazko Albertine, lehen aldian bere behakoan eman zirenak zirela, bata elhorri goraxta hesiaren aitzinean, bertzea ondartzan. Eta nik, horren hartzen ez jakinik, ene orhoitean berantago baizik ez berriz harturik, ene solasaldiez lehen minutan bezain zintzoak izaiteaz beldurr-araziak zituen sendimenduetako bierarte oso bateko artearen ondoan, nik nuen ene moldegaizkeriaz oro andeatua. « Huts eginak » nituen - nahiz egia erraiteko haiekin zatizko gaizki heltzea gutiago arrazoiingabea zen - Saint-Loup-ek Rachel huts egina zuen arrazoin beren gatik.

« Eta bigarren aldia, hasi zen berriz Gilberte, izan da, urte ainitz berantago, zure athean aurkitu zitutalarik, Oriane ene izabaren etxean berrediren zitutan eguneko bezperan; etzitut berehala ezagutu, edo izaitekotz jakingabea ezagutzen zindutan Tansonville-ko gutizia bera nuenaz geroz. - Artean izanak ziren alta Champs-Élysées-ak. - Ba, baina hor gehiegi maite ninduzun, egiten nuen guzian inkesta bat senditzen nuen. » Etzizatan gogoratu Champs-Élysées-etako ethorbidea harekin jausten zuen mutiko gazte hura nor zen galdegitea, ikustera joana nindakon egunean, ordu zeno harekin baketuko nintzanean, ene bizia behar bada aldatuko zuen egun hartan, bi itzalak aurkitu ezpanitu ilunabarrean elgarren ondoan aitzinatzen ari. Galdegin baldin banauko, egia erranen zautan behar bada, Albertinek berphiztua izan baliz bezala. Eta alabaina gehiago maite eztiren eta urteak berantago aurkitzen diren emazteren eta zure artean, eztea herioa, gehiago mundu huntan ezpalire bezain ontsa, gure maitasunik ez izaiteak, ordu hartan zirenez, edo gu ginenez, hil batzu egiten dituenaz geroz? Zer nahi den, horren jaki-

teak etzuen gehiago enetako muntarik, ene bihotza Gilberte-ren begitartea baino ere gehiago aldatua baitzen. Hau etzizatan orai biziki gustatzen, baina oroz gainerik enintzan gehiago zorigaitzean, enuen asmatu ahalko, berriz go-goan ukan banu, hainbertze hala izan ahala nintzala Gilberte-ren aurkitzeaz urhats ttipika ibilki mutiko gazte baten ondoan, eta neure baitan erraiteaz: « Egina du, berriz haren ikusteari ukho egiten dut. » Urte urrundu hartan, toleamendu luze bat baizik izana etzen ene gogo izanaratik, jeus etzen gelditzen. Ezen, oro higatzen, oro hiltzen den mundu huntan, bada hondamenera erortzen den gauza bat, beteginkiago oraino suntsitzen den bat, Edertasunak ere baino hatz gutiago utziz: Bihotz-mina da.

Champs-Élysées-etan norekin jausten ari zen hari orduan ez galdegina ukanik ezpaldin baniz, alta, ustegabetua, Aroak ekharri ez jakin nahi ukaite horren behazun sobera ikusia bainuen jadanik, apur bat hala niz Gilberte-ri ez errana ukanik egun hartan hura aurkitu baino lehen xina zaharrezko murko bat saldua nuela hari lili batzuen erosteko. Galdatu naukon. Lea zen gizonez jantzia. Albertine ezagutzen zuela bazakien, baina etzezakeen erran. Horrela jende batzu edireiten dira beti gure bizian gure atseginen eta oinazen moldatzeko. Alabaina jarraiki ziren dembora hain trixtetan, egun batez xede hoin amultsua erranen naukola izana zen ene konsolamendu bakarra. Urte bat baino gehiago berantago, karrosa bat enearen koskatzera zoala ikusten baldin banuen, ez hiltzeko nuen gutizia bakarra Gilberte-ri horren erraiteko zen. Konsolatzen nintzan erranez: « Lehia ezkaiten, bizi guzia aitzinean dut hortako. » Eta horren gatik bizia enuen galdu nahi. Orai hori erraiteko guti gozagarri idurituko zizatan, abantzu irriegarri, eta « bultzagarri ». « Bertzela, jarraiki zuen Gilberte-ek, zure athean aurkitu zitutan egunean ere, hain zinen Combray-n zinen bera gelditua, zein guti aldatua zinen bazinaki! » Gilberte ene orhoitean berrikusi nuen. Iguzkiak elhorrien azpian bazegien laur kantoinekoa marrazkitu ahalko nuen, nexkato ttipiak eskuan zuen palaharra, nitan lotu zen behako luzea. Bakarrik uste ukan nuen, laguntzen zuen jestu arruntaren gatik, erdainuzko behako bat zela, agiantzatzen nuena nexka ttipiek ezagutzen etzuten eta ene idurimenean, ene gutizia bakartuetako ore-netan, baizik etzegiten zerbait iduritzen zizatalakotz. Are gutiago nuen uste ukanen, hoin errexki, hoin lehiatuki, abantzu aitatxiren begien aitzinean, hetarik batek ukana zuela horren itxuratzeke ausartzia.

Enaukon galdegin Champs-Elysées-etan norekin zabilan murkoa saldua nuen arratsean. Ordu hartako itxura-pean egiazkorik zer izana zen osoki berdin bilakatua zizatan. Eta bizkitartean, zenbat gau eta egunez eniz oinazkatua izan nor zen nihauri galdeka, enituen behar ukan, lehenago Combray hortan berean amari gauon erraitera ez itzultzeko ere gehiago behar bada, ene bihotzaren jauziak galdi-arazi! Badiote, eta horrek du zainetako eritasun batzuen ahultze gero eta gehiagokoa adi-arazten, gure zaineria zahartzen dela. Ezta hori egia bakarrik gure ni iraunkorrarendako, gure bizi guzian egoiten baita, baina ere bat bertzeari jarraiki gure ni guziendako, hura ondarrean zatiz osatzen baitute.

Behar ukan nuen beraz, hoinbertze urteren buruan, hain ontsa orhoitzen nintzan iduri hari zuzenaldi bat jasan-arazi, aski zoriondun ezarri ninduen egintza orduan ene 'ta ile urreztatuekilako nexka mota berezi baten artean bazela uste ukana nuen leze ezin iragana Pascal-en lezea bezain idurimenezkoa zela eni erakutsiz, eta poetikoa aurkitu nuena haren zolan egin behar zen urte lerro luzearen gatik. Gutizia eta urrikizko jauztaldi bat ukan nuen Roussainville-ko lurpetaz gogatzean. Zoriontsu nintzan alta neure baitan niolarik ene indar guziak orduan hartara ari ziren zorion hura, eta gehiago jeusek itzul etzezatakeena, ene gogamenetik bertze nunbait izana zela, hain usu aiphatzen nuen Roussainville hartan, lirioa usaintzen zuen gabinetetik ikusten nuenean. Eta jeus enuen jakina! Hainbat sukarrekin orduan agiantzatzen nuena, gogoan hartzen eta aurkitzen jakina ukan banu bakarrik, jasta-arazter ukana zautan gaxtetasunean berean. Uste ukana nuen ere baino gehiago, Gilberte, ordu hartan, zinez Méséglise-ko aldean zen.

Athari baten azpian aurkitua nuen egun hartan ere, nahiz etzen Orgeville-ko Andereñoa, Robert-ek emategietan ezaguna zuen hura (eta zer gauza bitxia hain zuzen nor zen argitzea nik haren senargaiari galdegina ukana nuela!), haren behakoaren erran-nahiaz enuen osoki huts egina, ez eta zen eta izana zela orai aithortzen zautan emazte motaz. « Hori guzia ontsa urrunda, erran zautan, harekin ezkongaitua izana nizanetik ehoiz eztut Robert baizik gogoan ukan. Eta, badakusazu, hetaz gehienik erasiatzen nizana eztira haren haur burukeriak ere... »

Egun osoa, bi ibilaldien artean edo erauntsian etzanaldi egiteko lekua iduri zuen egoitza soberaxko baserritar hartan, saloin bakoitzak berdulazko gabinet baten itxura duen eta han, gambaretako erridauerietan, batean baratzeako arrosak, bertzean zuhatzetako xoriak zureganatuak diren eta, mundutik berexirik, kompainia badatxikatzuten egoitza hetarik batean - erridaueria zahar batzu baitziren hetan arrosa bakoitza, bizia izan baliz, bildua izan ahal ukaiteko aski berexia zena, xori bakoitza kaiolan ezar eta hezteko, gaurregungo gambara handietarik ezer ukan gabe hautan zilharrezko zola batean, Normandiako sagartze guziak jinak baitira estilo xaponesean orrazez ohean deramazkizun orenen lilluratzera -, egun osoa, ene gambaran eremaiten nuen, parkeko orstail eder eta sartzeko liletara emaiten zuenean, ur bazterrean zuhatz handien orsto muskerretara, iguzkitara dirdiran, eta Méséglise-ko oihanera. Enuen oro har hori guzia atseginekin ikusten neure baitan « Hoinbertze berdula ene gambarako leihoan ukaitea pollit da » banielakotz baizik, muskerrarako margazki zabalean ezagutu nuen arteo, hura aldiz urdin ilunez margotua, urrunago zelakotz bakarrik, Combray-ko elizaren ezkiladorrea. Ez ezkiladorre horren itxura bat, baina ezkiladorrea bera, ethorria zena, ene begietan leku eta urten urruntasuna horrela ezarriz, berduleria dirdiratu eta osoki bertze margo batekoaren erdian, hain iluna nun abantzu iduri baitzuen bakarrik marrazkitua, ene leihoko berinan grabatzera. Eta ephe batez gambaratik jalgitzen nintzan, barne-bidearen buruan banakusan, bertze moldez aldekatua baitzen, gorri-bizizko xerra bat bezala, musulina xoil bat baizik etzen saloin ttipi bateko erridaueria, baina gorria, eta iguzki arrai batek joiten bazuen sutzera ekharria.

Ene orhoitak, nahigabeko orhoitak berak, galdua zuen Albertinere-
ren amodioa. Baina badiduri soinadarretako orhoit nahigabeko bat badela, bertzearen kopia hits eta antzua, luzazago bizi dena, adimendu gabeko ihizi eta landare batzu gizona baino luzazago bizi egoiten diren bezala. Zangoak, besoak orhoitzapen zurrunduez beteak dira.

Gilberte aski goizik utzia nuenean, Tansonville-ko gambaran gauaren erdian atzartzen nintzan, eta oraino erdi lotarik hel egiten nuen: « Albertine. » Etzen hura gogoan ukana nuelakotz, ez hartaz amets egina, ez hura Gilberte-rendako hartzen: hori zen ene besoan jeiki orhoitaldi batek bizkar-

raren giblean xilintxa bila-arazia zautalakotz, Parisko ene gambaran bezala. Eta, hura ez aurkituz, hel egina nuen: « Albertine », ustez eta ene adixkide zena ene ondoan etzanik zagon, arratsetan usu bazegien bezala, elgarrekin lokhartzen baiginen, atzartzean, ethorri baino lehen Françoise-ek behar ukannen zuen demboran fidatuz, aurkitzen enuen xilintxa Albertine-ek zuhurtzia eskasik jo ahal zezan.

Ibilaldi horietan, Giberte mintzo zizatan Robert-ez, haren ganik baztertzen ari bezala, baina bertze emazte batzuen ondora joateko. Eta egia da haren bizian ainitz metatzen zirela, eta, emazteak maite dituzten gizonendako gizonen lagungo batzu bezala, etxe gehienetan jeusetako balia eztaitezkeen gauza batzuek duten debaldeko zaintze 'ta bortxaz auherretan hartu duten lekuaren berezitasun harekin.

Aldi batzuez Tansonville-ra jin zen han nintzanean. Ezaguna nuenetik ontsa bertzelakoa zen. Biziak etzuen loditua, emekitua, Charlus-ko Jauna bezala, osoki kontra zen, baina haren baitan bertze alderako aldakuntza bat eginez, zalduneriako aitzindari baten itxura arinegia emana zaukon - nahiz ezkontzeko orduan kargua utzia zuen - egundano ukana etzuen hein baterano. Charlus-ko Jauna phizutua zen arau, Robert (eta biziki gazteagoa zen dudarik gabe, baina sendi zen adinarekin etzela xede goren hortara gehiago hurbiltzen baizik ariko), begitarte delibaratuki bere gerriari sakrifikatzen duten eta ordu batetik hara Marienbad-etik gehiago baztertzen ez tiren emazte batzu bezala (ustez eta, aldi berean gaztaro bat baino gehiago ez atxiki ahalean, soinararena bertzeren itxuratzeko gai izanen den oraino), lirainago, zaluago bilakatua zen, bizi ber baten ondorio kontrakoa. Zalutasun horrek bazituen bertzela ere zikologiako arrazoin batzu, ikusia izaiteko beldurra, beldur hori etzuela iduri ukaiteko nahikaria, nor bere buruaz khexu izaitetik eta asperretik sortzen den ezin egona. Bazuen leku txarr batzuetara joateko ohidura han, nahi baitzuen sartzen ez atheratzen ikus etzezaten, izan zaitzkeen ibiltzalen soer ahal bezain eremu guti eskaintzeko, lehiaka sartzen baitzen, jaukitera igaiten den bezala. Eta haize ukhaldi itxura hori gelditua zizakon. Itxurapenean emaiten zuen ere behar bada beldur eztela erakutsi nahi duen eta gogatzeko astirik hartu nahi eztuen norbaiten izigaiztasun ageria. Guziaren erraiteko, khonduian hartu behar lizatezke, zahartzen ari zen arau, are gehiago gazte iduritzeko gutizia, eta ere deramaten bizi hein

batean auherrarendako eta hartan haien dohainak baliatzen eztirenarendako jende adimendunegiak diren gizon beti aspertu, beti soraiotuen ezin egona. Dударik gabe horien auhertasuna bera axolagabeaz adi-araz daiteke. Baina, oroz gaineratik gorputzaren ibil-arazteko jokoan arrakastaz geroztik, auhertasunak indar jokoetako itxura bat hartua du, joko horietako orduz hara ere, asperrari hedatzeko dembora ez lekua uzten eztaukola uste duen ernetasun sukardun baten bidez adi-arazten dena.

Biziki idorrago bilakatuz - bederen aldi atsekabegarri hortan -, etzuen gehiago abantzu batere bere adixkiden aldera, behazunez ene aldera, sendikortasunik erakusten. Eta bazituen aldiz Gilberte-rekin sendikeriazko alegia-egin batzu komediarano eremanak, ez gustagarriak. Etzen hori egiazki Gilberte orobat zizakolakotz. Ez, Robert-ek maite zuen. Baina beti gezurrez ari zizakon; haren bikuntasunezko izpiritua, gezurren zola bera ezpazen, beti agerian ezarria zen; eta orduan etzuen uste Gilberte-ri bihotzmin emaitiaz zuen trixtezia arau irrieginarri batzuetan handituz baizik athera ahal zaitkeela. Tansonville-ra ethortzen zen, zionaz, biharamun goizean egiteko batendako berriz joaitera bortxatua Parisen igurikatu behar omen zuen herriko jaun batekin, hain zuzen arrastirian Combray-ko ondoan aurkitua, horrek nahigabetarik agertzen baitzuen Robert hari jakin-arazteaz axolatua etzen gezurra, herrira ilabete batendako atsedean hartzera jina zela erranez eta Parisera etzela arte hortan berriz itzuliko. Robert gorritzen zen, Gilbert-ren irriño gogoilundi eta xorrotxa ikusten zuen, hutsegile izaitetik libratzen zen hura laidoztatuz, emaztea baino lehen sartzen, hitz etsitu bat eman-arazten zaukon hartan erranez gezur hori bihotzminik ez emaiteko egina zaukola, erran etzezakokeen arrazoin baten gatik abiatzen ikusiz, etzuela maite uste ukan etzezan (eta hori guzia, nahiz gezur bat bezala izkiriartzen zuen, ororen buruan egia zen), gero haren gana sartzen ahal zenez eskatzen zaukon eta hor, ala egiazko trixtezia, ala bizi hortaz zaintsueria, ala egun bakoitz alegia egite ozarragoa, hipaka artzen zen, ur hotzez urztatzen, heriotze hurbilduaz mintzatzen, batzuetan bere burua tauladara aurdikitzen zuen aldixartua izan baliz bezala. Gilberte-ek etzakien zein neurritan behar zuen sinetsi, aldi berezi bakoitzean gezurti zela uste zuen, baina orotara maitatua zela, eta heriotze hurbildu hortaz grñatzen zen, behar bada etzakien eritasun zenbait bazuela

gogoan, eta horren gatik etzizakon kontra egitera ausartzen eta bere bidaiak utz zitzen galdegitera. Are gutiago nuen horiek zergatik egiten zituen gogoan hartzen nun Morel etxeko haurra bezala hartua baitzen Bergotte-rekin Saint-Loup familia han zen leku guzietan, Parisen, Tansonville-en.

Françoise-ek, jadanik ikusia baitzuen Charlus-ko Jaunak Jupien-endako egina zuen guzia eta Saint-Loup-eko Robert-ek Morel-endako bazegien guzia, etzuen hortik Guermentes-tarren gizaldi batzuetan berriz agertzen zen berezitasun bat zela ondorioztatzen, baina izaitekotz - Legrandin-ek Theodore ainitz laguntzen baitzuen - , hark jende hain moraleko eta aitzin-gogamenez betea bezala, orotakotasunak errespetagarri egiten zuen ohidura bat zela sinetsia zuen azkenean. Bazion beti mutiko gazte batez, izan zadin Morel ala Theodore: « Jaun bat aurkitu du beti hartaz axolatu dena eta ontsa lagundu duena. » Eta holako aldietan gerizatzeak maite dutenak baitira, sofritzen dutenak, barkatzen dutenak, Françoise, haien eta bidez aldaratzen zituzten adingabekoen artean, haier egitate ederraren emaiteko eta « bihotz ainitz » bazutela edireiteko etzen dudan egoiten. Zalantzarik gabe Theodore erasiatzen zuen Legrandin-i gaixtakeria ainitz egina ukanik, eta iduri zuen bizkitartean haien adixkantza motaz dudarik batere etzezakeela ukan, gaineratzen baitzuen: « Orduan muttikoak gogoan hartu du beretik eman behar zuela eta erran dauko: Zurekin har nezazu, ontsa maitatuko zitut, ontsa balakatuko, eta alafe Jaun hark hainbat bihotz badu nun alabaina Theodore segur baita haren ondoan merexi duena baino biziki gehiago ukanen duela, buru bero bat baita, baina jaun hori hain ona da nun usu erran baitaukot Janetari (Theodore-ren emaztegaia): Haurra, sekula nahigabeen bazira zoaz Jaun horren gana. Lurrean etzan nahiago luke eta bere ohea eman lezauzuke. Muttikoa (Theodore) sobera maitatua du. Segurki eztu nehoiz utziko ». Jendetasunez haren arrebari galdegin naukon Theodore-ren deitura, orai Hegoaldean bizi baitzen. « Baina *Figaro*-ko ene artikulua rendako hark zautan izkiriatua! » egin nuen Sanilon deitzen zela ikastean.

Berdin ere Françoise-ek Saint-Loup Morel baino gehiago estimatzen zuen eta uste zuen, mutikoak (Morelek) eginak zituen gaixtakeria guziak izanik ere, markesak ehoiz etzuela nahigabeen utziko, bihotz sobera duen gizona baita, edo berari behargabe ainitz gertatuak behar lizazkoke.

Tansonville-en egon nindadin hisitzen zen eta aldi batez agertzera utzi zuen, nahiz etzuen batere eni atsegin emaita bilatzen, ene ethortzea halako bozkarioa izana zela haren emaztearendako nun egona baitzen, errana zaukonaz, arrats oso batez zoratua, hain trixte gertatzen zen arrats batez nun, ustegabetarik jinez, mirakuluz salbatua bainuen, « behar bada gaixtoenetik » gaineratu zuen. Galdegiten zautan maite zuela hari sinets-araztera entsea nindadin, maite zuen emaztea berea baino gutiago maite zuela erranez eta laster harekin hautsiko. « Alta, gaineratzen zuen - halako handi-ustearekin eta segetu erraiteko beharrarekin nun artetan uste bainuen Charlie-ren izena, Robert-ek ez nahi ukanik ere, « jalgiko » zela loteriako zenbaki bat bezala -, banian burgoi izaitekoa. Maite ninduelako hainbertze phorogu eman zautakan eta Gilberte-ri sakrifikatza noakan emazte hura, nehoiz etzian gizon batez axolaturik izana, uste zian bera etzela amoros izaiteko gai. Lehenbizikoa nuk. Banakian mundu guziari hainbaterano eza emana zakokala, nun, zorionik etzezakeela enekin baizik ukan erraiten zautan eskutitz ezin maitagarriagoa ukan diatararik, balditua bainindian. Ageriki, ene xoratzekoa balizatekek Gilberte gaixo horren nigarretan ikusteaz gogatzek ezin jasana ezpalizatak. Rachel-etik zerbait badikala etzaika iduritzen? » erraiten zautan. Eta orduan nahi bada haien artean aurki zaitekeen egite nahasi batek joa ninduen alabaina. Hori egiazko egite bati lotua zen behar bada aurpegi-ko itxuretan (ethorki hebrear alta Gilberte-ren baitan hain guti markatuak emanak behazunez) horren gatik Robert, familiak ezkon zadin nahi ukan zuenean, Gilberte-ren gana, fortunaz berdin izaitekotan, gehiago erakharria senditua baitzen. Lotua zen ere Gilberte-ek, haren izena ezagutzen ere etzuen Rachel-en argazki batzu ustegabetarik hatzemanik, Robert-i gustatzekoa bilatzen baitzuen, jokariak maite zituen ohidura batzu bilatu nahi ukaitari, hala nola iletan floka gorri batzuen ezartzea, besoan balusa ubelezko xingola bat, eta beltzaran iduritzeko ileak thindatuak ukaita. Gero, griñek aurpegi hitsa emaiten zaukotela sendituz, erremediatzea bilatzen zuen. Hori batzuetan neurririk gabe egiten zuen. Robert-ek Tansonville-ra hogei-ta laur orenendako jin behar zuen egun batez, harritua izan nintzan Gilberte mahian jartzen ikusiz hain bitxiki bertzelakoa, ez bakarrik lehenago zenetik, baina ohiko egunetan ere, ene aitzinean andere jokari bat ukana banu bezala,

halako Theodora bat. Sendi nuen, ez nahi ukanik ere sobera geldiki so nindagokola, aldaturik zer zuen ene jakin nahian. Jakin nahi hori bertzela ere berehala askietsia izan zen zintzatu zenean, eta hortan ezarri zituen oharpen guziak izanik ere. Mokanesean, paleta aberats bat eginez, gelditu ziren margo guzietarik osoki thindatua zela ikusi nuen. Horrek zaukon egiten aho odolt-su eta arrai bilakatzen indar egiten zuen hura, ustez ontsa emaiten zaukon, treinen orena hurbiltzen ari zen batean, Gilberte-ek senarra zinez ethorriko zenez jakin gabe ala Guermantes-ko Jaunak izpirituekin molde jarria zuen depexa hetarik bat ez ote zuen igorriko: « Jitea ezina, gezurra gibeletik », horrek matelak thinduaren giblean histen eta begiak inguruan ubeltzen.

« Ha! badakusak, ziotan Robert-ek, - itxura bere nahitara xamur batekin lehenagoko haren xamurtasun bere baitarikakoaren hain kontrakoa zena, alkolari eman mintzo batekin eta jokari baten doinu batzuekin -, Gilberte zorionean, jeus eztuk horrendako eman enezakeenik. Hainbat egina dik enetako. Eztezake jakin. » Eta hortan guzian gozagaizkarriena zena bere alderako amodioa zen ere, Gilberte-ek maitatua izaiteak lausengatzen baitzuen eta, Charlie zuela maite aithortzera ausartu gabe, bazematzen bizkitartean arrabitalariak ustez harendako zuen amodioaz xehetasun batzu bere jakinean handiegituak osoki berak asmatuak ezpada, Charlie-ek egun oroz diru gehiago eskatzen zaukolarik. Eta Gilberte ene gomendioan ezarriz zoan berriz Parisera. Ukan nuen bertzela ere (apur bat aitzinera joaiteko, oraino Tansonville-en nizanaz geroz) aldi batez han munduan ikusteko aldia, urrundik, haren elheak, halere bizi eta xoragarri, berriz iraganaren ediren-araztea emaiten baitzautan; zenbat aldatzen ari zen joa izan nintzan. Bazuen gero eta gehiago amaren egitea; haren ganik ukana zuen lerdentasun urgoia eta hark betegina zela bazakiena, Robert-en baitan, zuen ikustate ezin hobeari esker, handiegitzen zen, gogortzen; Guermantes-tarren so bereziaren sarkortasunak bazemon hetan iragaiten zen ingurune guzien ikhertzeko itxura, baina molde abantzu ohargabea, halako ohidura eta ihizen berezitasun batez. Geldi-geldirik ere, Guermantes guziena baino gehiago harena zen margoak, urrezko egun gogortu baten iguzkiztatzea bakarrik izaiteak, bazemakon halako lumatze bat hain bitxia, bazegien hartaz gauza bat hain arraroa, hain baliosa, nun hegaztin bilduma bateko hartaz jabetu nahi ukanen baitzen. Baina, gainera, hegaztinera aldatu argi hura higitzen hasten zenean, behazu-

nez han nintzan arratsaldi batez Saint-Loup-eko Robert sartzen banakusanean, ile apur bat biphilduen kukuruxta urrezkoaren azpian bazituen zetaz burgoiki lumaztatu buruaren goititze batzu, lephoaren mugimendu batzu gizakiek dituztenak baino hain burgoiakoak eta aphainagoak, nun, emaiten zautzun ikusi nahiaren eta mireste erdi mundutar erdi ihizietakoren aitzinean, galdez baitzinagon hea Saint-Germain bazter-hirian zinenez ala Landaretako Baratzean, eta saloinaren zeharkatzen edo bere kaiolan ibilki jaun handi bat zenez ikusten ala hegaztin bat. Idurimen apur bat emaiten zen ber, kantua etzen luma baino gutiago argipen hortara jartzen. « Mende handi » zirela uste zituen erranaldi batzuetan hasten ari zen eta hortik Guermantes-tarren arak imitatzen zituen. Baina halako zer ezin mugatu batek egiten zuen Charlus-ko Jaunaren arak bilakatzen zirela.

« Ephe batez uzten haut, erran zautan Marsantes-ko Anderea urrunago zen arratsaldi hartan. Banoak amari gorte izpi baten egitera. » Ethen-gabe aiphatzen zautan maitasun hartaz zen bezainbatean, etzen bakarrik Charlie-rendako zuena, nahiz balioa emaiten zaukon bakarra hau zen. Zer izan dadin ere gizon baten maitasunetako mota, haiekin atxikimenduak dituen jenden zenbatean huts egiten da beti, adixkidantza batzu hutsez atxikimendutzat hartzen direlakotz, hori emendiozko huts bat baita, baina ere uste baita atxikimendu phorogatu batek bertze bat kampleatzen duela, bertze huts mota bat dena. Bi jende elgarri erran dezakete: « Urliaren andere maitalea, ezagutzen dut », bi izen berezi eman, eta ez batean ez bertzean huts egin. Maite den emazte bat bekan da gure behar guziendako aski eta maite ezten emazte batekin trompatzen da. Saint-Loup-ek ondorez Charlus-ko Jaunaren ganik ukana zuen maitasun mota, ixuria hartara duen senarrak ohiki bere emaztearen zoriona badagi. Guermantes-tarrek salbuespen egiteko bidea aurkitzen zuten erregela orotako bat da, hetan gustu hori zutenek aldiz emazterena zutela sinets-arazi nahi zutelakotz. Batekin eta bertzearekin agerian emanez berea etsipenean ezartzen zuten. Courvoisier-tarrak zuhurkiago ari ziren. Courvoisier-ko bizkondeak uste zuen lurrean eta munduaren sortzetik bakarra zela bere sesu motako norbaitez gutiziatua. Ixuri hori debrutik heldu zizakon ustez, kontra gudukatu zuen, emazte xoragarri bat ezkondu, hari haur batzu egin. Gero bere gusi batek ixuri hori aski hedatua zela ikasi zaukon, ukan zuen ase zezakeen leku batzuetara eremaiteranoko

onezia. Courvoisier-ko Jaunak etzuen bere emaztea gehiago baizik maitatu, haur ainizteko kharra bikunduz, eta biak Parisko senarr-emazte hoberenak bezala aiphatuak ziren. Etzen Saint-Loup-ez gauza bera erraiten, Robert-ek gizakoi izaitean gelditzeko orde, emaztea jelosiaz hil-aratzen baitzuen emazte ohaide batzu atseginik gabe atxikiz.

Izan daiteke, Morel, ezin gehiago beltza baitzen, beharrezkoa zela Saint-Loup-endako iguzki arraiarendako itzala den bezala. Familia hoin zahar hortan, biziki ontsa asmatzen da jaun handi urretzatu, adimendun bat, ospe guziez dohatua eta soto zolan badadukana gizon beltzendako segere-tuzko gustu bat, nehork ezagutzen eztena.

Robert-ek, bertzela ere, etzuen ehoiz solasa berea zuen maitasun mota hortara joaitera uzten. Hitz batez aiphatzen banuen: « Ha! eztakiat, ihardesten zuen axolagabe hain barnatuarekin nun begitako bakuna erortzera uzten baitzuen, gauza horietaz eztiat aierurik ere. Xehetasunak hortaz bahi badituk, maitea, bertze nunbaitera joaita aholkatzen deat. Ni soldado bat nuk, horra guzia. Gauza horietaz axolatzen enukan bezainbat, berdin nuk Balkanetako gerleri suharki jarraikitzen Lehenago gogoia hortaz eratxikia huen, gudutaldietako etimologiaz. Erraiten naukan orduan berriz ikusiko zirela, gertaldi ezperdinenetan ere, moldeko gudutaldiak, behazunez hegaletik inguratzeko entseu handia, Ulm-eko gudua. He bada! Balkanetako gerla horiek diren bereziak izan daiten, Lülé-Burgas Ulm duk oraino. Horra aiphatzen ahal dauzkatan gaiak. Baina aieru egiten dukan gauza motetako, sanskritean bezain guti ezagule nuk. »

Robert-ek erdainatzen zituen gai horiek, Gilberte-ek aldiz, hura joana zenean, gogotik aiphatzen zituen. Ez segurki bere senarrari zoakonaz, jeus ezpaitzakien edo alegia ez jakina egiten. Baina bertzeak hunkitzen zituzten bezainbatean gogotik horietan hedatzen zen, ala hor Robert-endako halako desenkusa zehar bat bazakusalakotz, ala hunek, bere osaba bezala gai horien aldera ixil garratz baten eta ixurtzeko eta gaitzerraiteko beharraren artean erdizkatua, ainitzez jakinduru egina zuelakotz. Guzien artean, Charlus-ko Jauna etzen gupidetsia; hori zatekeen Robert, Gilberte-ri Charlie-z mintzatu gabe, egon etzaitkeelakotz, arrabitalariak - ongiegile ohia hastiatzen baitzuen - ikasia zaukona, molde batean edo bertzean, hari errepikatu gabe.

Solasaldi horiek, Gilberte-ri laket baitzizazkon, haizu utzi ninduten hari galdegiteko, mota berdin batean, Albertine-ek, izena haren ganik bainuen lehen aldian entzuna, ikasketako adixkide zirenean, gostu horiek bazituenez. Xehetasuna etzautan eman ahal ukan. Bazen aspaldi gainera enetako balio zerbaiten ukaitetik gelditua zela. Baina jakin nahi ukaitean jarraiki nintzan ohargabeki, orhoita galdua duen zahar bat, eta noiztenka galdua duen semearen berri galdatzen duena bezala.

Bitxi dena, eta hortan heda enaitekeena, hau da: aro hartan, Albertine-ek maite zituen jende guziek, nahi zutena egin-arazi ahalko zaukoten guziek, galdegin zutela, othoi-othoitzez, ausart nindaiteke erraitera eskatu, enekin adixkidantza egitea. Etzen gehiago Bontemps Andereari berriz Albertine igor zezatantzat diru igortze beharrik izanen. Biziaren itzultze hori jeusetako baliatzen etzizatanean gertatzen baitzen barnatuki trixtatzen ninduen, ez Albertine-ren gatik, atseginik gabe hartuko nuena ez gehiago Touraine-tik baina bertze mundutik itzulia izan balizata, baina maite nuen eta berrikus-tera hel enindaitekeen emazte gazte baten gatik. Banion neure baitan, hiltzen baliz, edo gehiago maite ezpanu, haren gana hurbiltzen ahalko ninduten guziak ene oinetara eroriko zirela. Anartean, hetan eragin ukaitera debalde-tan entseatzen nintzan, ezagutua nuenak ezpaininduen sendatua, ikasi behar ukanen baitzatan - zerbait ehoiz ikasten baldin bazuen - maitatzea ipuinetan direnak bezalako zori gaixto bat dela, haien kontra jeus ezpaiteke egin en-kantamendua gelditua den arteo.

- Hain zuzen, hor datxikatan liburuak gauza horiek aiphatzen ditu, erran zautan. Balzac zahar bat da ene osaben heinean jartzeko derabilatana, Neska begi urrea. Baina arrazoingabea da, itxurarik eztuena, amets gaixto eder bat. Bertzela ere, emazte bat bertze batez horrela zaindua izan daiteke behar bada, nehoiz gizon batez. - Huts egiten duzu, emazte bat ezagutu dut maite zuen gizona zinez hetsirik haren atxikitza heldua zena; ehor etze-zakeen ikus, eta bakarrik zerbitzari fidagarri batzuekin athera zaitekeen. - He bada, horrek laztatu behar zinduke, zu hoin ona zirena. Hain zuzen Robertekin baginion ezkondu behar zinukeela. Zure emazteak senda zindezake eta zuk haren zoriona egin. - Ez, jitea gaixtoegia dut. - Zer ideia! - Segurtatzen zitut. Bertzela ere, ezkongaiturik izana niz...

Trixe nintzan, ene gambarara igaitean, Combray-ko elizaren ikusten aldi batez enintzala izana gogoan, lehio ubel-ubeldu batean orstailen erdian igurikatzen ninduela iduri zuelarik. Banion neure baitan: « Hainbat gaixto, bertze urte batendako izanen da, hemendik hara hiltzen ezpaniz », ene herioaz bertze trabarik ezpainakusan eta elizarena ezin asmatuz iduri baitzizatan ene herioaren ondotik luzaz iraun behar zuela, luzaz ni sortu baino lehen egina zuen bezala.

Egun batez alta Gilberte-ri Albertine aiphatu naukon eta hunek emazteak maite zituenez galdegin. « Ho! ez batere. - Baina lehenago bazinion ara gaixtoa zuela. - Hori errana dut, nik? huts egiten dukezu, mutiko gazte batzuekilako maitekeriez mintzo nintzan aldiz. Adin hartan, bertzela ere, etzoakeen hori biziki urrun. » Gilberte-ek hori erraiten zautana berak, Albertine-ek errana zautanaz, emazteak maite zituela gordetzeko eta Albertine-ri eskaintza batzu eginak zauzkola? Edo (bertzek gure biziaz uste dugun baino xehatasun gehiago baitakite) bazakiena Albertine maitatua nuela, Albertine-ek bekaizti izana nintzala eta (bertzek gutaz uste dugun baino egia gehiago jakin baitezakete, baina ere urrunago heda, eta uste soberakinez hutsean izan baitaitezke, uste ukaite gabeaz hutsean zirela itxarotua ginuelarik) eta oraino hala nintzala asmatzen zuena eta begien aitzinean ezartzen zautana, oneziaz, bekaiztiendako beti prest-presta daukagun xerlanga? Dena den, Gilberte-ren elhek, lehengo « ara gaixto »-tik egungo bizi molde oneko zertifikaterano, Albertine-ek erranen bide kontrakoa hartzen zuten, hunek azkenean aithortuak baitzautzan Gilberte-rekin erdi elgarrekilako batzu. Albertine-ek hortan ustegabetua ninduen, Andrée-ek errana zautan guziak bezala, ezen multxo ttipi harendako, lehenik, ezagutu aitzinean, haren gaitzera emanean sinetsia baldin banuen, ene uste hutsezkoez ohartua nintzan, usu gertatzen den bezala neska onest bat edireiten denean eta maitasuneko gauzetan abantzu ez jakina, gaixtatuen zela zuzenkontra uste ukan ginuen ingurunean. Gero berriz egina nuen kontrako bidea, hastepenako ene usteak berriz egiazat hartuz. Baina Albertine-ek hori zen baino jakinagoa zela iduri ukaiteko erran nahi ukana zautan behar bada eta Parisen bere gaitzera emanaren ospeaz ene lilluratzeko, lehen aldian Balbec-en bere bertuteaz bezala, eta xoil-xoilki, emazteak maite dituzten emaztez mintzatua nindakonean, hori zer zen etzakia

ez iduri ukaiteko, solasaldi batean Fourier edo Tobolsk-ez mintzo denean itxura jakinduru bat hartzen den bezala, zer den ezpadakigu ere. Vinteuil Andereño eta Andrée-ren adixkidearen ondoan bizi izana zen behar bada, « hetarik etzela » uste zuten haietarik artesi ezin-iragan batez berezia, gero etzen xehetasun bila izana - leteretako gizon bat ezkontzen duen emazte batek ikasia izaitzea bilatzen duen bezala - eni gustatzekotan ene galder ihardesteko gai bilakatuz, bekaizkeriaz sortuak zirela gogoan hartu eta gibelara egina ukan zuen egunerano. Gezurrez ari zizatana ezpazen Gilberte. Ideia jin zizatana ere, baliagarri zizakon aldera eremana ukanen zuen amoroskeria batean, - bertze nunbait hartzen zituenaz geroz haren baitan aurkituak etzituzkeen atsegin batzuen itxaropenean - emazteak etzituela hastio Gilberte-ren ganik ikasia ukanik zuela Robert-ek esposatua. Uste horietarik bat etzen arrazoingabea, ezen Odette-ren alabaren edo multxo ttipiko neska gazteak bezalako emazteren baitan, aldizkatzen diren gostuetan - aldi berekoak ezpadira ere - hainbertzeranoko molde-ainiztasuna bada, halako metatzea, nun emazte batekilako adixkidantzatik gizon batendako maitasun handi batera errexki iragaiten baitira, eta beraz gustu egiazkoaren eta nagusi denaren mugatzea neke gelditzen baita, enintzan Albertine-rekin ezkontzera deliberatu (eta ene jite dudakor eta nardatzalearen gatik hori berak baztertu du): molde xoilegi hortan nuen, alabaina, Albertine-rekilako ene maitaldia jujatzen, ezpainuen orai maitaldi hori kampotik baizik ikusten.

Enaukon Gilberte-ri bere Neska begi urrea prestuz hartu nahi ukan irakurtzen ari zuenaz geroz. Baina utzi zautan lokhartu baino lehen irakurtzeko, haren etxean ereman nuen azken arrats hartan, sendimendu aski bizi eta nahasi bat, bertzela ere iraunkor izan behar etzuen bat eman zautan liburu bat. Goncourt anaiei egunkari ez argiratuko liburu bat zen.

Eta, ezkargia iraungi baino lehen, behean ezartzen dutan zatia irakurri nuenean, leteretako ene dohain eskasa, lehenago Guermantes-koldean aitzinetik senditua nuena, azken arratsa - abiatze bezperetako arratsa, urhenduko diren ohiduren kukuldura gelditzen denean, nor bere buruaren jujatzera entseatzen baita - zen egonaldi hortan baieztatua, zerbait gutiago urrikagarri iduritu zizatana, literaturak egia barnaturik agertzen ezpalu bezala; eta aldi berean trixte aurkitzen nuen literatura etzadin uste ukana nuena

izan. Bertzalde, eritegi batean egoitera bortxatzen ninduen osagarri eskasa gutiago urrikalgarri iduritzen zizatan, liburuek aiphatzen dituzten gauza ederrak ezpaldin baziren ikusia nuena baino ederrago. Baina kontra egite bitxi batean, liburu horrek aiphatzen zituenaz geroz, horien ikusteko gura nuen. Huna irakurri nituen orstoak akhidurak begiak hetsi ukan zauztan arteo:

« Herenegun hunara deror, bere etxera auhaltzera ene eremaiteko, Verdurin, Agerkaria-ko kritikalaria ohia, Whistler-ez liburu haren egilea, han zinez jatorrizko Amerikarraren egitea, margotze artixta, usu xorroxtasun handi batekin emana baita Verdurin den gauza margotuaren xotiltasun guzien, pollitasun guzien maitaleaz. Eta hari jarraikitzeke janzten ari nizan batean, huna, haren aldetik, ixtorio oso bat noiztenka aithormen baten hizkikatzeko beldurtu bat bezala Fromentin-en « Madalena »-rekin egin duen ezkontzaren ondotik idaztearen uzteaz, morfinaren hartzeko ohidurari zor lizatekeen uztea eta ondoriotzat ukana lukeena, Verdurin-ek dionaz, haren emaztearen saloineko ohitu gehienek senarrak ehoiz idatzi duenez ere elakiketela, eta Charles-Blanc-ez, Saint-Victor-ez, Sainte-Beuve-ez, Burty-z mintza lakidioketela, hura hek baino osoki beheragokoa dela uste duten jende batzuek bezala. « Hea, zuk Goncourt, babakizu bada, eta Gautier-ek ere bazakien, ene Saloinak ene emaztearen familian, nagusi-lan batzu direla uste den Lehengo nagusi urrikalgarri horietaz bertzerik zirela. » Gero, Trocadero-ko dorren ondoan leinuru baten azken sutzea bezala baden ilunabar batez, lehenagoko pastizarien mahaxuxagorri seleraz estali dorren osoki berdinak egiten baititu, solasaldia jarraitzen da haien hotela han den Conti kaiara ereman behar gituen karrosan, jabeak baitio hotel hori Venezia-ko Embaxadoren hotel izana dela eta baduela omen Verdurin-ez, hala nola Mila eta bat Gau-etan, zen bezala ekharria den sala bat bezala aiphatzen dautan pipatzeko sala bat, izena ahatzia dutan palazzo aiphatu batetik, palazzo hortako ithurri hegiak Birjinaren koronamendu bat erakusten baitu Verdurin-ek Sansovino ederrenetik dela diona eta baliatzen omen dena, haien gomiten zigarroetako hautsaren egozteko. Eta alafe, heltzen girenean, margolaritza klasikoak Venezia hartaz gerizatzen duena bezalako ilargi xuri baten hedoi urdin-berdean, hartan Institut-eko gopoila orrazetuak gogoratzen baitu Salute-a Guardi-ren

margazkietan, badut apur bat Urhodi Handiaren bazterrean nizalako lilluramendua. Hotelaren eraikuntzak eman-arazi lilluramendua, lehen estaiatik ezpaita kaia ikusten, eta etxeko nagusiaren erran gogoragarriak baitio Baceko karrikaren izena - etzata hori sekula debru gogoratu - lehenago serorak, Miramionesak, hartan Andredona-Mariako ofizioetara bazoazen gabarratik lethorkeela.

Ene haurzaroa astiz ibilia den auzoalde oso bat ene izaba « de Courmont » han bizi zelarik, eta bermaitatzen hasten ari nizana berredirenez, abantzu Verdurindarren hotelari lotua, « Petit Dunkerque »-ko ikurra, Saint-Aubin-go Gabrielen kraiun-marrazki eta margo-thorraduretako aphain-gailuetarik bertze nunbait bizi diren saldegi bekanetarik bat, hara XVIII-garren mende jakin-nahia baitzethorren bere asti orduen jartzera polliteria frantzesen eta atzerritarren eta « ederlanek badematen berrienik den guziazrendako », Petit Dunkerque hortako faktura batek dion bezala, bakarrak baigira, nik uste, Verdurin eta ni, kopia baten jabeak eta Luis XV-garrenaren erreinuak bere khonduak hartan egiten zituen paper aphainduzko nagusi-lan airekoetarik batenak, itsaso bat uhainetan, untziez betea erakusten duen aitzin-marrazkiarekin, « Ostrea eta Auzilariak »-eko grabadura baten itxura duten uhainekilako itsasoa, Zerga Biltzalen Argitaldian. Etxekandereak, bere ondoan jarr-araziko bainu, erraiten dauta maitagarriki mahia eztuela urrelore xaponesez baizik loreztatua, baina nagusi-lan arraroenak lizatezkeen untzi batzuetan ezarriak, bertzeren artean bat, burdin-horiz egina, hartan burdin-gorritzko loreki batzuek iduri bailukete lorearen orstokatze biziduna. Badira hor Cottard medikua, haren emaztea, Viradobetski zizelkatzale polonesa, Zuan bildumatzalea, andere handi erruso bat, gogoan eztutan izen -of-ekilako prinzesa bat, eta Cottard-ek erraiten daut beharrira harek lukeela ondo-ondotik Rodolphe arkidukeari tiro egina eta hark dionaz banukeela Galizian eta Polonia iphar guzian arrakasta bat osoki ohigabekoa, neska gazte batek ezpaitu bere eskua hitzemaiten ezkongai La Faustin-en mireslea denez jakin gabe. « Hori eztezakezue har, zuek, Sartaldekoek - botatzen du bururatzeko moldean prinzesak, emaiten baitaut, alafe, adimendu osoki goien baten iduripena -, idazle batek emazte baten gogo barnera sartzeko duen ahala. » Bidarr-ezpainetan bizar moztuarekilako gizon bat, mateletako bizar mahi-nagusi batenarekin, San Karlos Handiaren bestan maileko lehen-

bizikoekin dabilan bigarreneko erakasle baten goratik egiteko doinu batean
 irrisolas batzuen erasten ari, eta Brichot da, unibersitatekoa. Verdurin-ek er-
 ran duen ene izenean hitz bat eztu gure liburuak ezagutzen dituenik, eta
 bada ene baita etsipen haserretu bat gure kontra Sorbonak moldatzen duen
 zimarku horrek phiztua, besta egiten zaitan etxe maitagarri hortarano ekhart-
 zen dituela ixil deliberatu baten kontra-egitea, etsaia. Bagoaz mahira eta
 bada orduan onez onean porzellanariaren nagusi-lanak diren azieta andana
 baten jarraikitze ohigabekoa, hautuko aphairu batean, ezagule baten ohar-
 pen kilikatuak lausenguz baitantzuz haren elhasturia antzeduna, - Yung-Ts-
 ching-en azietak, bere bazterretako kapuxina kolorean, liringorrien urdinka-
 ran, hampatu orstokatuan, urxori eta lertsun hegaldatzeko baten argi hasteaz
 zeharkatzean, zinez aphaingarri, argi-haste horrek badituelarik osoki ene at-
 zartzeak egun oroz, Montmorency karrika handian, erdikara ikusten dituen
 margo goiztiarrak, - Saxe-ko azieta batzu eginarako garazian fazointxuago,
 bere arrosa ubelera itzulien lokhartzean, ahulduran, tulipa baten urradura
 xirtzikatu gorri-ubelean, julufre edo orhoit-lore baten errokoan, - Sèvres-
 ko azieta batzu bere ozkadura luze xurietako zizel-ukhaldikatzeko mehean, ur-
 rez erhaztunduan, edo urrezko xingola baten goititze galantak, pastaren za-
 bal-molde gaintetik, estekan dadukanean, - azkenik zilharrerria bat hartan
 baitabiltza Dubarry-sak ezagun lezazkeen Luciennes-ko mirtoak. Eta berdin
 arraro dena behar bada, barne horietan zerbitzatuak diren gauzen kalitate
 zinez ohargarria, janari bat ximenki eta eztiki egosia, saltsaki bat osoa Paris-
 tarrek, gora-gora erran behar da, barazkari handienetan ehoiz jan eztuten
 bezalakoa, eta Jean-d'Heurs-en kordoin urdin batzu gogoratzen dauztana.
 Gibel gizenak ere ikustekorik jeus eztu izen hortan ohiki saltzen den hagin
 gezarekin; eta leku ainitz eztakit lursagar enselada lañoa horrela bolizko bo-
 toin xaponesen bermea, harrapatu duten arrainaren gainera Xinako emaztek
 ura haiekin ixurtzen duten kullera ttipien leuna duten lursagarrez egina de-
 nik. Aitzinean dutan Veneziako basoan, gorrizko joieria aberats bat emana
 du Montalivet Jaunaren salpenean erosi « léoville » ohigabeko batek; eta
 jostaldi bat da begiaren idurimeneko eta ere, eniz erraiteko beldur, lehenago
 « gula » ziotenaren idurimeneko, errondo baten ekhartzen ikustea ezer ez-
 paitu mahi handizki aberatsenetan zerbitzatzen diren errondo zahartuenik

eta bidaiaiko berantaldietan hexurren moldea bizkarrean hartua dutenetik; errondo bat zerbitzatzen dena ez etxe handietako hainbertze koziner handiek saltsa xuri izen-pean prestatzen duten pasta kolarekin, baina egiazko saltsa xuriarekin, liberak bortz libera balio dituen burrarekin egina; errondo horren ekartzen ikustea miragarriko plat Tching-Hon batean iguzki etzate baten marradura gorrindolez zeharkatua langutzina andana baten igerika jostagarria badiragan itsaso batean, tittakadura pikornatu hain ohigabeki emanean nun kusu bizietan moldatuak iduri baitute, plat horren barne inguruan badelarik Xinatar ttipi batek amu-harian arrain baten harrapatzea, sabeleko zilharreztatze zero koloreaz margo nakarazko enkantamendu bat dena. Verdurin-i baitiot hautuko bazka hori guzia zein atsegin xorrotxa datekeen harendako gaurregun printze batek ere bere berinapetan gehiago eztuen baxera bilduma hortan: « Ageri da bada eztuzula ezagutzen », igortzen daud etxeandereak gogoilunduran. Eta senarraz bitxi aldikoi batez bezala mintzo zata, polliteria horiez guziez ez axolatua, « aldikoi bat, errepikatzen du, ba, hori ber-bera, sagarno botoila baten gura lukeen aldikoi bat izaitekotz, laboretxe normandiar baten hoxtura apur bat xirtxilduan edateko. » Eta herrialde bateko margoztadurez elhe egiazki amonatuarekilako emazte xoragarria mintzo zaiku khartsutasun gairikatzale batekin han bizi izanak diren Normandiaz, neurrigabeko baratze angeles bat lizatekeena, Lawrence-ren arako zuhazti goren usain onean, bazterretan hortensia arrosa-kolorez porzelanaztatu soropil naturaletako hortensia arrosa-koloren balusan, arrosa sofre-koloren ximurkadurak laborari baten athe gainera erortzean, hartan bi udaretze elgar artekatuen lotzeak ikur osoki aphaingarri bat itxuratzen duela, aldaxka loreztatatu baten erortze laxoa gogoratzen baitu Gouttière-ren harresi-argi burdinhorizko batean, lanartetan Paristarrek hartaz aieru hastapenik ere ukanen etzuten Normandia bat eta hango alhor hetsi bakoitzaren hexilak gerizatzen duena, Verdurin-darrek aithortzen baitautate hexila horien goititzea eztutela huts egin. Egun ondarrean, margo ororen iraungitze lora eman batean argia elizatekeelarik gazuraren urdinararekilako itsaso abantzu gogortu batez baizik emana (« Baina ez, ezagutzen duzun itsasotik jeus eztu, diharduka goratik sukarreroan ene auzoko andereak, Flaubert-ek, anaia eta ni, Trouville-ra eremanak ginituela nik erranari ihardetsiz, jeus eta jeus, gurekin jin beharko

duzu, hori gabe eztuzu sekula jakinen ») etxera sartzen ziren, zuhatzarrosek bazegizkiten egiazko oihan tula gorraxtaz loratuetan gaindi, senarrari izigarriko hats-behar gaitzaldiak emaiten zauzkoten xardinerien usainaz o s o k i burxoratuak - « bai, hisitzen zen, egiazko hats-behar gaitzaldiak ». Hortan, ondoko urtean, berriz itzultzen ziren, edergile kolonia oso bat ezartzen zutela berek alokatu kalostra zahar batek egiten zauen ertaroko egoitza miragarri batean. Eta alafe, emazte horren entzutean, hoinbertze ingurumen zinez aphainetarik iragan eta, bere elhean jende xoileko emazte baten elheko gordinetik apur bat atxikia duena bizkitartean, gauzak zure idurimenak hentan ezartzen duen margoarekin erakusten dauzkun elhe bat, ahogozoa heldu zait han eremana ukan duela aithortzen dautan biziaz, bakoitza bere gelan lanean, eta han, saloin hain handian nun bi khebide baitzituen, mundu guzia heldu baitzen bazkal-aitzin solasaldi osoki goien batzueko, josteta ttipi batzuez artekatuak, Volland Andereñoari Eskutitzak Diderot-en nagusilan hark aiphatzen duena gogora-arazten dautatela.

Gero, bazkaritik landa, erauntsi egunetan ere, mundu guzia atzeratzen zen, iguzki ukhaldian, uhar baten irradiatzean, bere irezte argiaz ehun urteko phagoen abiatze miragarri bateko abarrondoak lerrokatzen zituela, burdin-sarearen aitzinean ezartzen baitzuten XVIII-garren mendeari laketzizakon landare ederra, eta botoin lilitutzat, bere aldaxken dilindan, euri xortak zituzten zuhaxkak. Gelditzen zen xorigorri baten xalapastatze arin, hoxturaz amaratuen entzuteko, arrosa xuri baten lore-korona den Nymphenbourg-eko mainuntzi ñimiño pollitean. Eta Verdurin Andereari mintzo bainauko hango eskualde 'ta lore Elstir-ek hain berazki pastelduez: « Baina nik daukot hori guzia ezagun-arazi, egozten du buruaren goititze haserre batean, ontsa entzuten duzu, dena, xoko bitxiak, gai guziak, guzia begitartera egotzi daukot utzi gituenean, eztea hala Auguste? margotu dituen gaiak oro. Gauzak, beti ezagutu ditu, zuzen izan behar baita, aithortu behar da. Baina liliak, ehoiz etzituen ikusiak, althea bat malbarrosa batetik nola berex etzakien. Nik daukot erakutsi, enauzu sinetsiko, jazmin baten ezagutzen. « Ba, diot, jazmina, egin dituen arrosa guziak, ene etxean egin da, edo nik nauzkon ekhartzen. Gure etxean etzizakon Tiche Jauna baizik erraiten; galdegiezu Cottard-i, Brichot-i, bertze guzier, hemen gizon handi bezala hartzen zenez.

Hortaz berak irri eginen zuen. Bere lilien antolatzen erakasten naukon; has-tepenean etzaitkeen bururatzer hel. Nehoiz eztu floka baten egiten jakin. Hautatzeko etzuen jitezko gostutik, erran behar naukon: « Ez, hori etzazula margoza, eztu balio, egizu hau. » Ha! bere biziaren antolatzeko ere lilien egiteko bezala entzunak ukan baginitu, eta ezkontza zikin hura egina ukan ezpalu! » Eta bapatez, iraganera itzuli ametseria batean iretsia izaiteaz begiak sukarretan, erhi-hexurren luzatze aldikoian, gorpotxaren mahungetako fluxaren luzatze bitxiko khitxikatze zaintsuarekin, duen egonara minberaren ingurukatzean, behin ere uste dut egina ezten margazki miragarri bat bezala da, hartan irakur bailaitazke emaztearen herabean, beraztasunetan laidoz-tatu adixkide baten jazartze begiratu guzia, minberatasun errabiatu guziak. Hortan aiphatzen dauku Elstir-ek harendako egina duen potret miragarria, Cottard familiaren potreta, hark margolariarekin nahasmenduko orduan Luxembourg-era emana duen potreta, aithortuz hark daukola margolariari emana jantzi handitan gizonaren egiteko ideia oihaleriaren irakidura eder ha-ren ukaiteko, eta emaztearen balusa hautatua, bermagune bat emaiten duen zaia tapizen, lilien, fruituen, nexka ttipien gazazko zaia dantzarien tutuak idurikoen berexkuntza argien papillotatze guziaren erdian. Hark omen luke ere orraztatze horren ideia emana, gero ohorea edergileari eman izana zakon ideia, ideia hori oro har emaztearen margotzean zatzana, ez agerraldi batean hatzimana baina egun orotako biziko etxekotasunean. « Erraiten naukon: Baina orraztatzen den emaztean, begitarte xukatzen duenean, zangoak berotzen, ikusia dela uste eztuelarik, badira mugimendu ohargarri batzu, garazia osoki leonardar bateko mugimenduak! » Baina sumintze horien at-zartzea haren emaztea funtsean lizatekeen zaintsu handiarendako kaltekor bezala zerakutsan Verdurin-en khein u batean, Zuanek mirets-arazten dauta etxekandereak dakharren perla beltzezko lepho-gatina, xuri-xuria erosi zitue-nak, Angeleterrako Henriette-ek hari emanak omen zauzkon La Fayette-ko Anderearen ondoko baten salpen batean, beltz bilakatu ziren perlak Verdu-rin-darrak izenaz orhoit enizan kartika batean bizi ziren etxeko zati bat erre zuen sute baten ondotik, gero ediren baitzen perla horiek hartan zauden untxia, baina osoki beltz bilakatuak. « Eta perla horien potreta badazagut, La Fayette-ko Anderearen soin gainean berean, bai, zin-zinez, horien po-treta, hisitzen da Zuan gomit apur bat baldituen oihuetan, egiazko potreta,

Guermantes-ko dukearen bilduma». «Munduan berdinik eztuen bilduma», dio goraki Zuanek, eta nik ikustera joan behar nukeena, duke aiphatuak ondorez ukana duen bilduma bat Beausergent-eko Andere bere izabaren ganik, geroztik Hatzfeld-eko Andere bilakatu den Beausergent-eko Anderea, Villeparisis-ko markestsaren eta Hanobre-ko prinzesaren ahizpa, «han ene anaiak eta nik hainbat maitatu duguna lehenago Basin haur xoragarriaren itxuran, hori baita alabaina dukearen izena». Hortan, Cottard medikua, haren baitan gizon osoki ikustatekoa agerr-arazten duen xorroxtasun batekin, jauzten da berriz perlen ixtoriora eta ikasten dauku horrelako ixtripuek jenden burumunetan aldakuntza batzu egiten dituztela bizigabeko gauzetan ikusten direnen berdin-berdinak, eta aiphatzen du mediku ainitzek egin lezaketen baino molde zinez filosifikoago batean Verdurin Anderearen gambarazaina bera, suntsitzekotan izana zen sute hortako izialduran, bertze gizon bat bilakaturik zena, izkirio hainbat aldatu batekin nun orduan Normandian ziren haren nagusiek gertakaria iragartzen zuen lehenbiziko eskutitzean, trufari baten enganioa zela uste ukan baitzuten. Eta ez bakarrik bertze izkirio bat, Cottard-en arabera, baitio gizon hura jan-edale ttipia izaitetik hain itsuski mozkortzale bilakaturik zela nun Verdurin Anderea haren haizatzerat bortxaturik izana baitzen. Eta hitzaldi gogoragarria jateko salatik iragaiten da, etxekanderearen kheinu garaziadun batean, pipatzeko sala veneziarrera han Cottard-ek erraiten baitauku egiazko nortasun bikuntze batzuen lekuko izana dela, bere erietarik baten gertaldia guri aiphatuz, gixakoki ene etxera haren ekhartzea eskaintzen duela eta pholsuak hunki zitzaion aski lukeela bigarren bizi batera haren phizteko, bizi hortan lehenbizikotik ezpaitzen jeusez orhoituko, hala nola nun, hartan biziki gizon zuzena izanik, huntan aldi bat baino gehiagotan preso harturik izana omen zen bertzean egin ohointza batzuen gatik han xoil-xoilki zital laztagarri bat bailizateke. Hor Verdurin Andereak xorroxki oharr-arazten du medikuntzak gai egiazkoago batzu eman lezozkeela antzokiari hetan egintza nahasmenduko bitxikeria irrigarria eritasunezko huts batzuetan oinarritua lizatekeena, horrek, haritik orratz, baitakhar Cottard Anderea erraitera nola gauza berdin-berdin bat eginik izana den haren haurren arratsaldietako hautetsia den ipuinlari batez, Stevenson eskoziarra, izen horrek ezartzen baitu Zuanen ahoan hitz ezin iharduki hau: «Baina hala ere idazle handi bat da Stevenson, segurtatzen dautzut, Goncourt-eko Jauna,

handi-handi bat, handienen heinekoa. » Eta, han pipatzen ari giren salaren tronadurako kaxoin erredolaztatuez ene mirestasunean, palazzo Barberini zaharretik jinak, ene urrikia agertzeroa uzten baitut gure « londrès »-etako hautsak belzten ari duen aska batez, Zuanek errana ukanik Napoleon Lehenarenak izanak ziren liburuetan, Guermantes-ko dukeak, aburu kontrabonapartixtak ukanak gatik, dituen liburuak, mota bereko orbain batzuek phorogutzen dutela emperadoreak tabakoa mustatzen zuela, Cottard-ek, gauza orotan zinez jende jakin-nahi bat sarkorra agertzen baita, dio orbain horiek ez tirela batere hortik heldu - « baina hor, ez batere », hisitzen da lardeki - baina, beti, gudugunetan ere, eskuan errekaliza pastilla batzuen ukaiteko zuen ohizatik, gibleko oinazen ez titzeko. « Ezen gibleko eritasun bat bazuen, eta hortarik da hil », bururatu zuen medikuak. »

Hor gelditu nintzan, biharamunean abiatzen bainintzan; eta bertzelera ere, egun bakoitz, gure demboraren erdi bateko, haren zerbitzuan giren bertze nagusi batek galdegiten ninduen oreana zen. Hartara bortxatzen gituen lana, begiak hetsirik egiten dugu. Goiz guziez gure bertze nagusira itzultzen gihu, jakinez hori gabe haren lana gaizki egin ginezakeela. Gure izpirituak begiak berrideki dituenen, egiteko lehiatu batean ezarri baino lehen bere esklaboak etzaten dituen nagusiaren etxean zer egin ahal dukegun jakin nahian, abilenak, lana bururatua den orduko, ebaska so egitera entseatzen dira. Baina loa haiekin lehiaz gudukatzen da ikusi nahi lituzketen hatzen ezabatzeke. Eta hainbertze mendez geroztik, hortan gauza handirik eztatigu.

Hetsi nuen beraz Goncourten egunkaria. Literaturaren ospe indarduna! Cottard-tarrak berrikusi nahiko nituen, Elstir-ez hainbat xehetasun galdegin, Petit Dunkerque-ko saldegiaren ikustera joan han baldin bazen oraino, han auhaldua nintzan Verdurin-darren hotel haren ikusteko baime-na galdegin. Baina halako nahasmendu bat sendi nuen. Eiki, enuen ehoiz entzuten enakiela neure buruari gordea ez eta, bakarrik enintzan orduko, so egiten. Emazte zahar batek etzauen ene begier perlazko lephoko motarik batere erakusten eta hartaz erraiten zena etzen ene beharrietara sartzen. Hala ere, izaite horiek, egun orotako ene bizian ezagunak nituen, usu haiekin auhaldua nintzan, Verdurin-darrak ziren, Guermantes-ko dukea, Cottard senar-emazteak, hetarik bakoitza amatxiri Basin hura - ezpaitzuen Beausert-

gent-eko Anderearen iloba maitatua, gizandi gazte ezin goxoagoa zela batere gogoari emaiten - bezain arrunta iduritua zizatan, hetarik bakoitza nardagarri iduritua; bakoitzak zituen arruntasun guzietz orhoitzen nintzan...

Eta horrek guziak badagiela gauan izar bat!!

Deliberatu nuen anartean bazterrera utziko nituela Tansonville-tik abiatzeko bezperan irakurri Goncourt-en orstoek nitan sor-arazi ahalak zituzten kontra-arrazoinak. Orhoitzapenlari horren baitan ohargarri den lañotasunezko araua bazterra emanaz ere, ikuspide batzuetarik segurta nindaitekeen. Lehenik, nihauri zoatanaz, so egiteko eta entzuteko ene ahalgabea, aiphatu egunkariak enetako hain mingarriki agertua zuena, etzen alta osoa. Norbait bazen nitan guti edo aski ontsa so egiten bazakiena, baina jende artekatu bat zen, izantza orotako bat, gauza batzuek elgarrekin zutena agertzen zenean baizik berphizten etzena, haren hazkurria eta bozkarioa baitzen. Orduan norbait harek so egiten zuen eta entzuten, baina barnatasun berezi batean bakarrik, hala nola nun ikhermena ezpaitzen hortaz baliatzen. Lur-neurle bat bezala, gauzer bere gaitasun sendigarriak ekhenduz, eztuenean haien egitura xoila baizik ikusten, jendek erraiten zutenak ihes egiten zautan, ohargarri zizatana ezpaitzen erran nahi zutena, baina erraiteko moldea, haien nortasunaren eta irriegingarrien agertzale zen bezainbatean; edo izaitekotz, izaite batek eta bertze batek zuten elgarrekilakoa, berezikiago ene ikhermenaren gaia izana zen beti, berezia zen atsegin bat emaiten zautalakotz. Etzen ohartzen nindakonean baizik ene gogo - ordu arteo lotan, ene solasaldiaren itxurazko lanean ere, horren biziak bertzendako gordetzen baitzuen izpirituko kukuldura oso bat -bapatean bozkarioz ihizin abiatzen, baina haren ondotik nindabilana, behazunez Verdurin saloinaren berdintasuna leku eta aro batzuetan, erdi-barnatsunean jarria zen, iduritik beratik haratago, gune apur bat gibelatuagoan. Beraz izaiten itxurazko xoragarria, kopia daitekeena, enuen senditzen hartan gelditzeko antzea enuelakotz, barber batek, emazte baten sabel leunaren azpian, barnetik jaten duen gaitza ikus lezakeen bezala. Hirian auhal nindaitekeen, gomitak enituen ikusten, so egiten nauean radiografiatzen nituelakotz. Ondorioz, auhari batean gomitez eginak ahal nituen ohar guziak bilduz, ene marrazkiak zikologiako lege bilduma bat itxuratzen zuen hartan gomitak bere hitzaldietan ezarria zuen balio bereziak abantzu lekuri batere etzadukana. Baina horrek mereximendu oro

ekhentzen zauena ene potreter horrelakotzat emaiten enituenaz geroz? Batek, margolaritzako gaian, egia batzu argira emaiten baldin baditu izariaz, argiaz, mugimenduaz, horrek egiten dua hori jende beraren bertze potret batekin iduririk batere ez-tuen horrelako bat baino balio gutiagokoa dela baitezpada, hortan lehenbizikoan emanak ez-tiren mila xehetasun ximenki erakutsiak izanen direnean, bigarren potret hortarik modela xoragarria zela ondorioztatzen ahalko baita lehenbizikotik itsusia zela eginen zelarik, horrek lekukotasunezko eta ixtoriozko ere balio zenbait ukan bailezake, baina ez-paita baitezpada ederlaneko egia bat? Eta gero ene gogo arinak, bakarrik enintzan orduko, gustatzeaz gutiziatua egiten ninduen, solastatzean jostatzeaz entzutean ikasteaz baino gutiziatuagoa, nun enintzan mundura joana gogo aitzinean harturik atxikia zautan ederlaneko puntu zenbaitez edo aieru bekaizti zenbaitez galdekatzeko. Baina irakurtze zenbaiten nitan haren gutizia atzarria etzuenaren, aitzinetik gero egiarekin erkidatu nahi nuen itxura nihaurek marrazkitua enuenaren ikusteko, ezinean nintzan. Zenbat aldiz egona nizan, Goncourt-en orrialdeak ikasia ukan ez-palauta ere hori banakien bada, gauza edo jende batzuetara ene oharpenaren emaiteko ezinean, gero, haien iduria erdergile batez bakartasunean eman izana zizatanen, haien ikusteko lekoak eginen nituelarik, hiltzea irristatuko! Orduan ene idurimena abiatua zen, margotzen hasia. Eta iragan urtean haren aitzinean aharrausiaka egona nintzana, aitzinetik hari behatuz, hura gutiziatuz, banion neure baitan: « Zinez haren ikustea ezina izanen dea? Hortako zer enezake eman! » Jende batzuez artikuluak irakurtzen direnean, xoilki munduko jende batzuez ere, « gehiago haren lekukorik ezten gizarte bateko azken jendeak » izendatuez, erran daiteke dudarik gabe: « Jende hoin guti ohargarriaz dela hoin nasaiki eta hoinbertze laudoriorekin mintzatzen! Hori ez eza-gutu ukaiteaz nintzan deiturako, ez-panu egunkari eta agerkarien irakurtzea baizik egin eta gizona ikusia ez-panu! Baina izaitekotz, egunkarietan horrela orrien irakurtzean, gutizia banuen gogatzeko: « Zer zorigaitza - Gilberte-tan Albertine-ren berraurkitzea nuelarik bakarrik gogoan - jaun horri ez-paitut gehiago ohar emana! Munduko tartaila batendako hartua nuen, itxuratzale batendako; Norbait zen. » Gaitasun hortaz, irakurri nituen Goncourt-en orstoek urriki-arazi ninduten. Ezen behar bada hetarik ondorioztatu ahalko

nuen biziak irakurtzearen balioa aphaltzen duela, eta idazleak goraiphatzen daukunak etzuela gauza handirik balio; baina berdin ontsa ondoriozta nezakeen aldiz irakurtzeak ikasten daukula biziaren balioaren goratzen, estimatzen jakina eztugun balioa eta liburutik bakarrik zenbat handia zen gogoan hartzen duguna. Azkenean, Vinteuil baten, Bergotte baten ondoan ez laketurik konsola gaitezke. Baten burjestasun ahalgetiak, bertzearen huts ezin jasanek, hastapenetan Elstir baten arruntasun handi-nahiak ere - Goncourt-en egunkariak jakin-arazia zautanaz geroz Zuani lehenago, Verdurindarren etxean, hain hitzaldi sumingarriak atxikiak zauzkon « Tiche Jaunaz » bertzerik etzela - eztute haien kontra ezer phorogatzen, haien jeinua ageriki haien lanetan denaz geroz. Haiendako, hutsean izan daiten Orhoitzapenak, ala gu, gustatu etzaikun haien lagunartea gozagarri aurkitzen dutenean, balio gutiko gauza da, horrek, hutsean Orhoitzapenen egilea baldin bazen ere, ezer elezake phoroga horrela jeinuak emaiten dituen biziak duen balioaren kontra. Baina zein gizon jeinudunek eztitu bere multzoko mintza molde sumingarriak hartu, gostu on goien batera (Elstir-endako gertatu zen eta usu hala egiten den bezala) heldu baino lehen? Balzac-en eskutitzak, behasunez, eztirela Zuanek hek erabili baino hamarretan hil nahiago ukanen itzuli arruntez ihautuak? Bizkitartean itxura badu Zuan, hain xorrotxa, irrigarritasun hastiagarriez hain garbia, etzela Bette gusia eta Tursko erretora-ren idazteko gai izanen.

Ezagutua denaren bertze buruan, ikusten nuelarik gertakari xehe bitxienak, Goncourt-en Egunkariko gai ezin agortua badagitenak, irakurlearendako arratsaldi bakartuetako libertimendua, haren orrialdetan zehar ezagutzea gutiziatuko ginuen gomit horiez erran izanak zizazkola, eta eni orhoitzapen ohargarri baten hatzik utzia etzautatenez, hori ere etzen sobera ezin argigarri. Goncourt-en xintxotasuna izan arren, gertakari xehe horien ohargarritik erraiten zituen gizonak gogo xorrotxa zukeela ondorioztatzen baitzuen, izan zaitekeen bada gizon bierarteko batzuek gauza ohargarri batzu bere bizian ikusiak zituztela, edo erraiten entzunak, eta bere aldian erraiten. Goncourt-ek entzuten bazakien, ikusten bazakien bezala; nik enakien. Bertzela ere gauza horiek guziek bederazka jujatuak izan behar ukanen zuten. Guermantes-ko Jaunak etzautan segurki emana amatxik hainbertze ezagutu nahiko zuen gaztetasuneko garazien molde adorgarria eta Beausergent-eko

Anderearen Orhoitzapenen arabera molde ezin imitatua bezala eskaintzen zautana. Baina gogoan ukan behar da Basin-ek orduan zazpi urte zituela, idazlea haren izaba zela, eta zenbait ilabete berantago ezkontza hautsi behar duten senarrek ere bere emaztearen laudorio handi bat badagizutela. Sainte-Beuve-ren olerki pollitenetarik bat egina da dohain eta garazia guziez koronatu den haur gazte baten agertzeaz ithurri baten aitzinean, Champlâtreux-ko Anderauren gaztea, hamar urte ezpaitzitukeen. Noailles-ko kondesa den poeta jeinudunak bere amaginarreba, Noailles-ko dukesa Champlâtreux sortuarendako zuen adei xamur guzia izanik ere, izan daiteke, haren potreta egin behar ukan balu, Sainte-Beuve-ek berrogei-ta-hamar urte lehenago marrazkitzen zuenaren aski azkarki kontramoldekoa izanen zela.

Gogoetagarriago izanen zena behar bada, bitartea zen, hetaz erraiten denak haien baitan gertakari bitxi baten atxikitzen jakina duen orhoita baino gehiago entzutera uzten duten jende hek ziren, ukan gabe hala ere, Vinteuil-en, Bergotte-rendako bezala, bere lanaren bidez haien estimatzeko ahala, ezpaitute egin; bakarrik - hain bierartekoak aurkitzen ginituen gure ustegabetze handian - dituzte sustatu. Onhar dadila, erakustokietan, Berphizteko margazki handinez geroz aphaintasunaren iduripen handiena emanen duen saloina izan dadin burjesia ttipi irriegin garrienarena, margazkiaren aitzinean amestuko bainuen, ezaguna ukan ezpanu, egiazki hurbildu ahal ukaitea, haren ganik margazkiak emaiten etzauztan margolariaren segetu baliosenen ezagutzeko itxaropenean, eta haren balusaz eta dentelazko zaia-buztan ospatsua Titien ederrenekin erkidagarri den margazki bat baita. Behin gogoan hartua baldin banuen ez gizonetan izpiritudunena, ikasiena, hobekienik adixkidetua, baina mirail bilakatzen eta horrela biziaren itxuratzan, bierartekoa baliz ere, badakiena dela Bergotte bilakatzen (arokidek Zuan baino gutiago izpirituko gizon eta Brichot baino gutiago jakintsun eduk balezate ere), gauza bera arrazoin gehiagorekin erran zaitekeen edergilearen modelez. Oro margo dezakeen edergilearen baitan edertasuna atzartzen denean, modela hura bera baino jende apur bat aberatsago batzuek hornituko daukote, hetan aurkituko baitu margazkiak berrogei-ta hamar liberetan saltzen dituen eta ezaguna ezten gizon jeinudun bezala bere landegian ohiki eztuena: zeta zaharrez estali mublekilako saloin bat, girisailu

ainitz, lili ederrak, fruitu ederrak, zaia ederrak, jende hein batean lañoak, edo distiratuago batzuer (badirela ere ezpaitaikite) hala iduriko zizezteenak, baina, horren gatik, edergile ez ezagunaren ezagutzeko, estimatzeko, gomitatzeko, haren margazkien erosteko, bere burua margolari akademikoer margo-arazten duten arixtokraziako jendeak - hala nola Aitasaindua eta Estatu buruzagiak - baino heinekoagoak direnak. Etxe aphain baten eta gure aroko jantzi ederren poesia eztea izaitekotz izanen, ondokoendako, Renoir-ek egin duen Charpentier argiratzalearen saloinean, Sagan-go prinzesaren edo La Rochefoucauld-eko kondesaren potret Cotte-en edo Chaplin-enean baino lehen? Aphaintasunezko ikuspen handienak emanak dauzkuten edergilek gaiak bekan hartu dituzte bere aroko jende aphain handiak zirenetan, horiek bekan baitute haren margazkietan ezin berex dezaketen edertasun bat ekhartzen duen ez ezagun batez bere burua margo-arazten, eder hori gordea baitago publikoaren begian dagon noizpaiteko garazia ohitu bat artean jarri delakotz, hala nola eriak zinez haren aitzinean emanak direla uste duen ikuspen bere baitakoak. Baina ezagunak nituen modela bierarteko hek gainera sustatuak zituztela, xoratua ninduten antolamendu batzu aholkatuak, margazkietan hetarik norbaiten izaitea modela batena, bere margazkietan itxurara-azazi nahi den adixkide batena baino gehiago lizateela, bazen hortan nor bere buruari galdegitekoa hea, Balzac-ek bere liburuetan erakusten zituen edo haier miresmenezko gizamenak eskaintzen zezteenak, hetaz Sainte-Beuve edo Baudelaire-ek neurtitz pollitenak egin zituztenak, arrazoin gehiagorekin Récamier guziak, Pompadour guziak, etzizaztanez jende guti ohargarri batzu bezala agertuko; ala ene jiteko narrio baten gatik, horrek orduan eri izaiteaz eta gaitzetsiak nituen jende guzien ikustera ez itzuli ahal ukaiteaz errabiarazten baininduen, ala bere aiphamena etzuelakotz literaturako mirakulu lilluragarri batetik baizik, horrek irakurtzeko hiztegi aldatzera bortxatzen baitzuen, eta egun batetik bertzera, ene eritasunak bazegitzan aitzinatzen gatik, gizartearekin hautsi behar ukaiteaz konsolatzen baininduen, bidaiari, erakustokier ukho egin beharraz, eritegi batean artha hartzera joaiteko.

Idea horiek, batzu literaturako dohainik ez ukaiteaz nuen urrikiaren ttipitzera, bertzeak handitzera emanak, nehoiz etzizaztan gogora jin idar-

zteko xedeari bertzela ere osoki ukho egina nuen urte luzetan eta, arthatzen ereman nituenetan, Paristik urrun, eritetxe batean, hunek, 1916-ko hastape-nean, medikuntzako jenderik aurkitu ahal etzuen arteo. Orduan sartu nintzan lehen aldian jadanik, 1914-ko agorrilean, hara itzulia nintzanetik, sarri ikusiko den bezala, ontsa bertzelakoa zen Paris batean, mediku ikherraldi baten ukaiteko, gero berriz eritetxera itzuli bainintzan.

Ene itzultze berriko lehen arratsetarik batez, 1916-an, orduan gogo-
goa eratxikitzen zautan gauza bakarraz, gerlaz, mintzatzen entzuteko na-
hian, auhal-ondoan athera nintzan Verdurin Anderearen ikustera joaiteko,
hura baitzen, Bontemps Anderearekin, « Directoire »-a gogora-arazten zuen
gerlako Paris hartako erreginetarik bat. Altxagarri izari ttipi baten ereitetik
bezala, iduriz bere baitarikako sortzez, andere gazte batzu bazabiltzan egun
osoan buruzinta gora birikil batzu Tallien Anderearen aroko emazte batek
ukanen ahalko zituen bezalakoak buruan ezarririk, herrikoitasunez soingai-
neko egiptiar zuzen, ilun, biziki « gerlako » batzu jantzirik, zaia labur-labur
batzuen gainetik; oinetakoetan Talma-ren arabera kothurnoa gogarutzen
zuten hede batzu ezarten zituzten, edo gure gudari maitek zituztenen iduriko
zango-galtxoin gora batzu; ziotenaz, gudarien begiak bozkariatu behar zituz-
tela ahazten etzutelakotz ziren oraino aphaiztzen, ez bakarrik jantzi « nahasi»
batzuez, baina ere bere gai aphaingarririk armadak gogoratzen zituzten joiez,
ezpazen ere haien ekhaia armadetarik heldu, edo armadetan landua. Egip-
toko gerlaldiaz orhoit-arazten zuten aphaingailuen orde, erhaztun edo ukha-
raiko batzu baziren 75-eko obuz edo gerriko zati batzuez eginak, zigarrata
phizteko batzu bi sos angelese moldatuak eta soldado bat heldua zizaien,
bere atherbean, leundura hain ederraren emaitera nun Victoria erreginare-
n orrazeak iduri baitzuen Pisanello-k marrazkitua; hura ethengabe gogoan
zutelakotz zen ere, ziotenaz, haien jendakiatik norbait eroria zenean haren
dolua doi-doi atxikitzen baldin bazuten, « urgoitasunez nahastekatua » ze-
lako estakuru, horrek krepa angeles xurizko bonet bat haizu uzten baitzuen
(garazia pollitenekoa eta alde bateko irabaztearen segurtasun ezin garhaituan
« itxaropen osoa uzten zuena »), satinaz eta zetazko musulinez lehenagoko
kaxemiraren ordaintzea, eta ere nork bere perlen atxikitzea, « andere frantses
batzuer hetaz orhoit-araztea debalde den artezia eta jendetasuna begiratzen

diren batean. »

Louvre-a, erakustoki guziak hetsiak ziren; eta egunkari artikulua baten izenburuan irakurtzen zenean: « Erakustaldi baldigarri bat », segur izan zaitekeen erakustaldia etzela margazkiez baina arropez, bertzela ere « emazte paristarrak aspaldiegitik gabetuak ziren ederlaneko bozkario hautukoetako » begiratuak ziren arropez. Horrela ziren aphaintasuna eta atsegina berriz hasiak; aphaintasunak, ederlanen eskasean, desenkusa bilatzen zuen, hauek 1793-an bezala, urte hartan iraultzako Saloinean erakusle ziren edergilek baitzioten goraki zuzenkontra zizeela idurituko « errepublikar garratz batzuer ederlanez axola gaiten Europa elgartuak libertatearen eremua setiatzen due-nean. » Horrela bazegiten jostunek 1916-an aithortzen baitzuten, erdegilen konzienzia urguludun batekin, « berritasunaren bilatzea, ohikotik baztertzea, nortasun baten erakustea, garhaipenaren prestatzea, gerlaren ondoko gizaldiendako ederraren erranbide berri baten emaita, hori zela oinazkatzen zituen nahikaria, ondotik zabilzkion ametsa, haien saloinen ikustera jinez ohar zaitekeen bezala, ... delako karrikan ezin goxokiago jarriak, hango manua nota argi alai batekin orduko trixtezien ezabatzea baita iduriz, hala ere gertaldiek nahi duten begiratuarekin. Orduko trixteziek », egia da, « gemen emeak menpera lezazkete gogoetatzeko ezipaginitu kuraia eta iraupenezko hainbertze behazun. Horrela etxean utzi duten maitearendako bere ziloaren zolan gozo eta aphaintasun gehiagoz amets badagiten gure gudariak gogoan, orduko beharrer diharduten arropen egitean beti bilaketa gehiagoren ekhartzetik ezkira geldituko. Arrakasta », hori asma daiteke, « jostetxe angelesetara doa gehienik, beraz gurekin elgartuetara, eta jendea aurten barrika-zaiaz erotua da duen joaitera uzte pollitak emaiten baitauku aphaintasun arraro bateko nota jostagarri bat. Gerla trixte horren jarraipen zorionezko bat izanen da ere», gaineratzen zuen gazetalari goxagarriak (igurikatzen zen: « herrialde galduen berriz hartzea, sendimendu herritarraren atzartzea »), «gerla trixte horren jarraipen zorionezko bat izanen da ere aphaintzeko gaian ondorio pollit batzuetara heldu izaitea, aberaskeria soberakinik eta behar ez bezalakorik gabe, biziki gauza gutirekin, ezteus batzuekin aphaintasuna egina ukaitea. Jostun handiaren zaia aldi bat baino gehiagotan eginari, hautesten dira orai etxean egin diren zaiak, bakoitzaren gogoa, gostua, ixuriak hobeki erakusten dituelakotz. »

Garitateaz den bezainbatean, jaukituzko sartzetik sortu miseria guziez gogatzean, hainbertze gerlako hebainduetz, « oraino antzedunago » izaitera bortxatua izaita ontsa natural zen, horrek bortxatzen baitzituen buruzinta gorarekilako andereak karta jokoko mahi baten iguruan « the » batzuetan arratsalden iragaitera guduguneko berriez solastatuz, athean beribilek igurikatzen zituztelarik mutil-jantziarekin solasean ari zen sodaldo eder bat alkian. Etziren bertzela ere bakarrik aurpegien gaineko tuta zut bitxiekilako burukoak berri zirenak. Begiarteak hala ziren ere. Andere xapel beridun horiek, aphaintasuneko lorean, nork daki nundik ethorri emazte batzu ziren, batzu sei ilabete danik, bertzeak bi urte, bertze batzu laur urte danik. Ezperdintasun horiek bazuten bertzela ere haiendako munduan abiatu nintzanean Guermantes eta La Rochefoucauld-en artean hiruzpalaurre mendeko zahartasun egiaztatuek bezainbat munta. Guermantes-tarrak 1914-az geroztik ezagutzen zituen andereak 1916-an haien etxean onhartua zena aberats berri batentzat zadukan, atso-alhargun baten agurra egiten zaukon, esku-begitakoekin goratik behatzen, eta mutur eginez aithortzen zuen ander hori ezkondua zenez ere ala ez etzakitela zuzen. « Hori guzia aski okaztagarri da », bururatzen zuen 1914-ko andereak, nahiko baitzuen onhartze berriak haren ondotik geldituak izan zaiten. Jende berri horiek, gaztek ontsa zaharrak aurkitzen zituztenak, eta bertzela ere mundu handikoak baizik izanak etziren agure batzuek ez hain zaharrak bezala ezagutzen bada, etzauzkon bakarrik jendeari etxeko etxeko politikaz eta musikaz solastatzeko libertimenduak eskaintzen; behar zen oraino hek zitzaten eskain, zeren gauzek zaharrak baldin badira berriak iduri ukan dezatentzat, eta berriak badira ere, edergintzan, medikuntzan bezala, mundutarkerian bezala, izen berri batzu behar dira. (Gauza batzuetan berriak ziren bertzela ere. Horrela Verdurin Anderea gerla demboran Venezian izana zen, baina, bihotz-minez eta sendimenduez mintzatzea baztertu nahi duten jende bezala, loriagarri zela zionean, miresten zuena etzen Venezia, ez San-Marko, ez palazioak, hainbertze gustatua zizatana eta hark merkerik uzten zuena, baina argi-igorgailuek zeruan bazegiten ondorioa, argi-igorgailu horietaz xehetasun batzu emaiten baitzituen zenbakiez lagunduak. Horrela adinez adin errealixma berri bat sortzen da ordu arteo miretsi den ederlanari kontra egitez.)

Sainte-Euverte saloinaren etiketa histua zen, edergile handienen, minixtro indardunen han izaiteak nehor etzuen erakharriko. Laster egiten zen, aldiz, batzuen segetariak edo bertzeren bulegoko azpi-buruzagiak erran hitz baten entzuteko, haien hedatze hegalez tatu eta kalakariak Paris betetzen zuen buruzintekilako andere berrien etxera. Directoire leheneko anderek erregina bat bazuten gazte 'ta ederra zena eta Tallien Anderea deitzen. Bigarrenekoek bazituzten biga zaharrak eta itsusiak zirenak eta Verdurin Anderea eta Bontemps Anderea deitzen. Nor aihor izanen zizakon Bontemps Andereari, haren senarrak Dreyfus aferan L'Echo de Paris-ek saminki kritikatu egitate bat ukanik? Ordu batez Gambara guzia auzi berritzearen aldeko bilakaturik, lehengo berritzearen aldekoetan nahitez, lehengo zozialixtetan bezala, bildu behar izana zen ordenu zozialaren, erlisionean gogo-zabaltasunaren, soldadogora prestatzearen alderdia. Lehenago Bontemps Jauna hasiatuko zen, aberritarraren etsaiek dreyfustiarren izena zuelakotz. Baina izen hori laster ahatzirik izana zen eta hirur urteko legearen kontrakoarenaz ordaindua. Bontemps Jauna lege horren egiletarik bat zen aldiz, beraz aberritarr bat. Munduan (eta gizarteko gertakari hori ezta bertzela ere zikologiako lege biziki orotakoago baten erabilpena baizik) berritasunek, ogendun ala ez, eztute hastioa sortzen gauza segurtagarriez inguratuak eta hetara bilgarriak eztiren neurrian baizik. Dreyfusixmaz Odette-ren alabarekin Saint-Loup-en ezkontzaz bezala zen, ezkontza horrek lehenik oihuka-arazia baitzuen. Orain Saint-Loup-en etxean « ezagutzen ziren » jende guziak ikusten zirenaz geroz, Gilberte-ek ukanen ahal zituen Odette-ren beraren bizimoldeak, hori izanik ere hara « joanen » zen eta atso-alhargun batek eginen zituen bezala onhartuak etziren moraleko berritasunen gaizkitzeaz Gilberte baietsiko zen. Dreyfusixma gauza errespetagarri eta ohiko batzuetan sartua zen orain. Bereaz zer balio zuen galdatzeaz den bezainbatean, hori nehork etzuen gogoan, orain onhartzeko lehen kondenatzeko baino gehiago. Etzen gehiago shocking. Behar zen guzia hori zen. Hala izana zela doi-doia zen orhoitzen, dembora zenbaiten buruan, nexka gazte baten aita ohoin izana zenez ala ez jakiten ezten bezala. Beharrez erran daiteke: « Ez, koinataz, izen bereko norbaitez zira mintzo. Baina hortaz ezta nehoiz erraitekorik izan. » Berdin ere izana ziren segurki dreyfusixma eta dreyfusixma, eta Montmorency-ko dukesaren

etxera zoana eta hirur urteko legea onharr-arazten zuena etzaitkeen gaixtoa izan. Zer nahi den, bekatu orori barkamena. Dreyfusixmari emana zizakon ahazte hori egina zizeen ere a fortiori dreyfustiarrer. Politikan, gainera, etzen gehiago, gobernuko izan nahi bazuten guziak ordu batez hala izanak zirenez geroz, deyfusixma, bere berritasun ofensagarrian (Saint-Loup malda gaixto batean zen aroan), izana zenaren, herrikoitasunaren, erlisio-negabearen, anarkiaren eta bertze guzien kontrakoa itxuratzen zutenak ere. Beraz Bontemps Jaunaren dreyfusixma, gizon politikari guzietan bezala ezin ikusia eta barnekoa, etzen hezurak larru-pean baino gehiago ageri. Nehor etzen dreyfustiarr izana zela orhoituko, munduko jendeak ohargabeak baitira eta ahazkor, eta geroztik dembora luze bat joana zelakotz, luzeago zela alegia egiten baitzuten ere, ezen ideia gehienik modan zirenetarik bat zen gerla-aitzina gerlatik lurreko aroaldi bat bezain barnatua zen, iraupen bera itxuratzen zuen zerbaitez berexia zela erraitea, eta Brichot-ek berak, nazionalixta hark, Dreyfus aferaz aieru bazegienean erraiten zuen: « Aitzin-ixtorioko aro hetan ». (Egia erraiteko, gerlak egina zuen aldapen barnatu hori hunkitzen zituen izpirituen balioaren arau kontramoldekoa zen, hein batetik hara bederen. Behere-beherean zozo hutsak, atseginkoi hutsak, etziren gerlaz axolatzen. Baina gain-gainean, barneko bizia ingurumenetik moldatua dutenek gertakariaren handitasunaz axola guti dute. Haiendako gogamenen antolamendua barnatuki aldatzen duena, berez muntarik batere eztuen zer-bait da bada izaitekotz eta haiendako aroetako lerroa aurdikitzen duena bere biziko bertze aro baten arokideak eginez. Hortaz ohar daiteke ageriki sustarazten dituen idazkien edertasunetik: Montboissier-ko oihanean xori kantu bat, edo orikai usainez betea den haize xuri bat, Iraultzako eta Imperioko urte handienak baino gertakari ondorioz ttipiagoak dira ageriki. Eman-arazi dituzte alta Chateaubriand-i Hilobiaz haraindiko Orhoitzapen-etan orrialde batzu balio mugagabeen handiagokoak.) Dreyfustiar eta Dreyfusen kontratiar hitzek erran-nahirik etzuten gehiago, zioten jende batzuek, baldituak eta suminduak izanen zirelarik errana izan balezee mende zenbaiten buruan, edo gutiagotan, « boche » hitzak etzuela « sans-culotte » ala « chouan » ala « bleu » hitzek baino gehiago berezitasunezko balio bat baizik ukanen.

Bontemps Jaunak etzuen bakeaz mintzatzen entzun nahi Alemania

ertaroan zen zatikatze berera hertsatua izan zadin baino lehen, Hohenzollern-go etxearen aurdikitzea erabakia, eta Gillomek hamabi bala ukanak. Hitz batez, Brichot-ek « bururano joaile » bat zeritzona zen, hori zen emaiten ahal zizakon herritartasunezko ageri hoberena. Lehenbiziko hirur egunetan, dudarik gabe, Bontemps Anderea apur bat arrotzurik izana zen Verdurin Andereari haren ezagun-araztea galdegina zaukoten jenden artean, eta doinu arinki samin batekin zuen Verdurin Andereak: « Kondea, andere gai-xoa » ihardetsi, « Haussonville-ko dukea dautazu bada aitzineratu » erraiten zaukon Bontemps Andereari, ala jakingabe osoan eta Haussonville izena eta edozein titulu elgarri batere lotu gabe, ala aldiz jakite handiegian eta « Duxen Alderdia »-rekin gogamen elgarteaz errana baitzaukoten Haussonville-ko Jauna hortako alderdikidea zela Akademian. Laurgarren egunetik hara, bermuki jartzen hasia zen Saint-Germain bazter-hirian. Batzuetan ikusten ziren oraino haren inguruan ezagutzen etzen mundu bateko ondarkin arrotz batzu, Bontemps Anderea handik jalgia zen arraultzeaz jakinduru zirenak ezpaitzituzten xitoaren inguruan arraultze porroxka batzuek baino gehiago ustegabetzen. Baina hamaborzkarren eguneko, inharrosiak zituen, eta lehen ilabete azkena baino lehen, bazionean: « Banoa Lévy-tarren etxera », jende guziak hartzen zuen, hark xehetasunik eman behar ukan gabe, Lévis-Mirepoix-tarrez ari zela, eta dukesa bat etzen etzatera joanen Bontemps Anderearen edo Verdurin Anderearen ganik jakina ukan gabe, telefonaz bederen, zer zen arratseko abisuan, zer etzen ezarri, Greziarekin zertan ziren, zein jaukitaldi prestatzen ari zuten, hitz batez publikoak biharamunean edo berantago baizik ikasiko etzuen, eta horrela jostunen halako errepikaldi bat bezala emaiten zena. Solastatzean Verdurin Andereak, berrien emaiteko, Frantziatz mintzo zenean « gu » erraiten zuen. « Ha bada huna: Greziako erregeren ganik nahi dugu baitezpada Peloponezotik ekhen ditzan, eta bertze; igortzen daukogu, eta bertze. » Eta haren erranetan beti heldu zen « G.Q.G. » (« G.Q.G.-ra telefonatu dut »), erraiten entzuna zuen laburpena lehenago Agrigente-ko printzea ezagutzen etzuten emaiten atsegin berarekin, irriño batekin galdatzeko, hura aiphatzen zenean eta jakinduru zirela erakusteko: « Grigri? », aro guti nahasietan mundutarrez baizik ezaguna ezten atsegina, baina aldi gaixtoetan jendeak ezagutzen duena ere. Gure mahi-nagusia, beha-

zunez, Greziako errege aiphatzen bazen, egunkarier esker Gillome II-garrena bezala « Tino? » erraiteko gai zen, ordu arteo erregerekilako haren etxekotasuna arruntagoa gelditua zelarik, berak asmatua baitzuen, lehenago Espainiako Erregez mintzatzeko « Fonfonse » erraiten zuen bezala. Ohar daiteke bertzela ere Verdurin Andereari aitzin-urhatsak egin zauzкотenn jende dis-tiratuen zenbata handitu zen arau, « aspergarriak » deitzen zituenena ttipitu zela. Halako aldakuntza mirazko baten bidez, ikustaldi baten egitera jina zizakon eta gomitatze bat ezkatua zuen « aspergarri » oro bapatez norbait goxagarri, adimendun bilakatzen zen. Hots, urte baten buruan, aspergarrien zenbata arau hain azkarrean ttipitua zen nun « aspertzeko beldurra eta ezina », hain leku handia ukana zutenak Verdurin Anderearen solasean eta hain egitate handia haren bizian, abantzu osoki ezeztatuak baitziren. Erranen zen aspertzeko ezin horrek (lehenago bertzela ere segurtatzen baitzuen bere gatzaro lehenean etzuela senditua) zahartzera gutiago oinazkatzen zuela, buruko min batzuek, hats-behar zaintsu batzuek bere indarra zahartzen denean galtzen duten bezala. Eta aspertzeko lastak dudarik gabe Verdurin Andereak osoki utzia ukanen zuen, aspergarri eskasean, ezpalitu, neurri ttipi batean, gehiago hala etzirenak bertze batzuek, lehengo leialetan bilduez, ordaindu.

Gainera, orai Verdurin Anderearen etxean zabiltzan dukesekin bururatzeke, hara jiten ziren, berak hortaz ohartu gabe, zuzen-zuzena lehenago dreyfustiarrek egiten zutenaren bilatzera, erran nahi da atsegin mundutar baten, halako moldez egina nun haren jastatzeak ase behar baitzituen politikako jakin-nahiak, eta egunkarietan irakurri gertakariez bere artean solastatzeko beharra. Verdurin Andereak erraiten zuen: « Jinen zira 5 orenetan gerlaz solastatzera », lehenago « Aferaz mintzatzera » bezala, eta bien artean: « Jinen zira Morel-en entzutera. »

Morel-ek bada etzuen hor izan beharko, erreformatua etzelako arazoinez. Bakarrik etzen armadara joana eta desertur zen, baina nehork etzakien.

Saloinetako izarretarik bat « Dans les choux » izengoitikoa zen, indar jokoko zuen gostua izanik ere bere burua erreforma-arazia baitzuen. Hainbertzetarano zen enetako beti gogoan nuen lan miragarri baten egilea bilakaturua nun ustegabeen bainuen gogatzan, bi orhoitzapen lerroen artean lotura

zeharkatu bat jartzen nuenean, ene etxetik Albertine-ren joaita ekharria zuen hura bera zela. Eta ere hari zeharkatu horrek, Albertine-ren orhoitzapenetako ondar horier behatzen zueneko, bazeraman urte andana bat urrunago larre betean gelditzen zen bide batera. Nechoiz ezpainuen gehiago hura gogoan. Orhoitzapenetako bide bat zen, gehiago nehoiz hartzen enuen liña bat, « Dans les choux »-en lanak berriak zirelarik eta orhoitzapen liña hori ene izpirituaz beti hartua eta erabilia.

Erran behar dut Andrée-ren senarraren ezagutzea etzela ez errexerrea ez egiteko biziki gozagarria, eta emaiten zizakon adixkidantza ainitz nahigabetara hitzemanen zen. Alabaina ordu hartan ontsa eri zen jadanik eta behar bada atsegin emaiten zaukotela iduritzen zizakonetakik bertze akhidurak baztertzen zituen. Etzituen bada horietan oraino ezagutzen etzituen jendekilako hitz hartzeak baizik ezartzen eta zuen idurimen sutsuak bertzeak ez bezalakoak bezala itxuratzen zauzkokeenak. Baina jadanik ezagutzen zituenendako, sobera ontsa bazakien nola ziren, nola izanen, etzizakon gehiago akhidura beretako lanjeros, behar bada hilgarri bat balio zutela iduritzen. Oro har, adixkide biziki gaitz bat zen. Eta jende berri batzueendako zuen gustuan berraurkitzen zatekeen lehenago, Balbec-en, indar-jokoendako, joakoendako, mahiko gaingidura guziendako zuen ausartzia sukarrerotutik zerbait.

Verdurin Andereaz den bezainbatean, aldi oroz nahi zuen Andrée-ren ezagutza egin, ezagutzen nuela ezin onhartuz. Andrée ainitz ikusi nuen aro hartan. Elgarri zer erran ezkinakien, eta aldi batez gogoan ukan nuen Albertine-ren orhoitzapeneko zolatik lore mixteriozko bat bezala igana zen Juliette izen hura; mixteriozkoa orduan, baina jeus atzartzen etzuen orai. Hainbertze aiphatzen nituen gauza ezpaikoen artean, hura ixildu nuen, ez bertzeak baino gehiago hala zelakotz, baina sobera gogoan ukan diren gauzez bada halako bete-gaingitze bat. Badateke hortan hainbertze mixterio ikusten nituen aldi hura zela egiazkoa. Baina aldi horiek ezpaitute beti iraunen, egun batez ohargarri izanen eztiren mixterio batzuen aurkintzari etzazko osasuna, fortuna sakrifikatu behar. Bertzela ere Andrée bekan jiten zen bere senarra-ekin. Adixkide miragarri eta zintzo bat zen enetako, eta Dantza-ikuskarri Errusoan kontrakoa zen senarraren ezthetikari leial, Polignac-eko markesaz bazion: « Etxea Bakst-ez aphaindua du; nola lo egin dateke hor! Dubuffe

nahiagoko nuke. » Bertzela ere Verdurin-darrak, ezthetizmaren aitzinatze halabehartuaz, azkenean bere buztana jaten baitu, bazioten « modern style »-a (gainera Munchen-goaz) etzezaketela jasan ez eta bizitegi zuriak, etzituzten ere gehiago muble zahar aphaindura ilunekoak baizik maite.

Verdurin Andereak etxean nahi zuena ukan zezakeen aro hartan, jendea biziki ustegabetua izan zen haren ikustean aitzin-urhats batzuen egiten begietarik osoki galdua zuen emazte bati, Odette-ri. Multxo ttipia bilakatua zen ingurune distiratuari jeus etzezokeela ekhar iduritzen zen. Baina berexete luze batek, gorromiak ezitzen dituen aldi berean, adixkantza atzartzen du batzuetan. Eta gero ez bakarrik hiltzera doazanak lehen etxekotuak zizezteen izenen baizik ez ahozkatzera, baina ere zaharrak haurzaroko orhoitzpenetan baizik ez gustatzera ekhartzen dituen gertakariak badu gizartean bere ordaina. Etxera Odette-ren itzul-arazteko lanean ongi heltzeko, Verdurin Andereak etzitzen bada « bortitzenera eremanak » zirenak erabili, baina ohitu gutiago leielak, saloin batean eta bertzean oin bat atxikia zutenak. Erraiten zauen: « Eztakit zer gatik ezten hemen ikusten. Samurtua da behar bada, ni ez; ororen buruan, zer egin daukot? Ene etxean ditu bi senarrak ezagutu. Itzuli nahi badu, dakiela atheak idekiak zaskola. » Elhe horiek Etxekandeari gostako zizazkonak ezipalazko bere idurimenak eman-araziak, errepikatuak izan ziren, baina ondorio onik gabe. Verdurin Andereak Odette igurikatu zuen ethortzen ikusi gabe, urrunago ikusiko diren gertakari batzuek ekharri zuten arteo, osoki bertze arrazoin batzuen gatik, utzlen embaxada alta suharrak egin ahala etzuen. Hainbat da ongi heltze errex guti, eta aldebateko gaizki heltze.

Gauzak hainbat ziren beti berak nun ezin naturalkiago aurkitzen baitziren lehengo hitzak: « ontsa gogatzaleak, gaizki gogatzaleak. » Eta ezperdinak iduri baitzuten, lehengo komunatiarrak auzi berritzearen kontrakoak izanak ziren bezala, dreyfustiarr handienek jende guzia tiroka-arazi nahi zuten eta bazuten jeneralen laguntza, hauk Aferako aroan Galliffet-en kontra izanak ziren bezala. Bilkura horietara, Verdurin Andereak gomitatzen zituen andere doi bat berri batzu, bere garitateko lanetarik ezagunak, eta lehen aldietan jantzi distiratu batzuetan jiten zirenak, perlazko lepho-gatina handi batzuekin, Odette-ek, berdin ederra zen bat baitzuen berak agerian sobera

erabilia zuena, orai « gerlako jantzian » izanez, Bazter-hiriko anderek bezala egiteko, garraztasunekin ikusten zituenak. Baina emaztek egokitzen bada-kite. Hirurzpalaurren aldien buruko ohartzen ziren aphain uste ukanak zituzten jantziak hain zuzen hala ziren jendez bahituak zirela, bere zaia urreak baster-rera uzten zituzten eta lañotasuneko etsia hartzen zuten.

Verdurin Andereak erraiten zuen: « Lastimagarri da, Bontemps-i telefonatuko daukot biharko behar dena egin dezan, Norpois-en artikuluko azken zati guzia moztu dute xoilki Percin limojatu dutela entzutera utzi due-lakotz. » Ezen ohiko zozotasunak bazegien itzuli ohituen erabiltzeaz bakoitza hoilatzen zela, eta modan zela uste zuela burjestsa batek bazegien bezala er-raitean, Bréauté-ko, Agrigente-ko eta Charlus-ko Jaunez mintzo zirenean: « Nor? Bréauté-ko Babal, Grigri, Charlus-ko Mémé? » Duke sek berdin egiten dute, bertzela ere, eta atsegin bera zuten « limojatu » erraitean ezen, dukesen baitan - apur bat poetak diren jende xoilendako - izena da aldatzen, baina hartakoak diren eta hartan burjes elementia baden izpiritu motaren arau mintzatzen dira. Izpiritu motek eztute sotzearen errespeturik.

Verdurin Anderearen telefonaldi horiek etziren bertzela ere eragoz-karri zenik gabe. Nahiz erraitea ahatzi dugun, Verdurin « saloina », izpirituan eta egian jarraikitzen bazuen, ephe batez Parisko hotel handienetarik batera aldatua zen, ikhatz eta argi eskasak Verdurin-darren gomitaldiak nekeago egiten baitzituen Veneziako Embaxadoren egoitza zahar, biziki hezean. Sa-loin berriak, bertzela ere, etzuen gozagarritasun eskasik. Venezian lekuak, uraren gatik neurtuak, palazioen moldea manatzen duen bezala, Parisen ba-ratze puxka batek probizian parke batek baino gehiago loriatzen, Verdurin Andereak hotelean zuen jateko sala hertsia egiten zuen halako zeharki bat oiha baten iduriko harresi zuri dirdiratuekin, hartan azteazken bakoitzez, eta abantzu egun guziez agerian emaiten baitziren jende ohargarrien guziak, ezperdinenak, Parisko emazte aphainenak, Verdurin-darren aberaskeriaz baliatzeaz loriatuak, hori handitzen ari baitzen aberatsenek bere mozkinak ezin ukanez gastuak ttipitzen zituztelarik. Gomitaldier emana zizeen moldea aldatua gertatzen zen Brichot-en loriatzetik gelditu gabe, hunek, Verdurin-darren ezagutzak hedatzen ari ziren arau, atsegin berri batzu edireiten bait-zituen eremu ttipi batean metatuak Eguberriko xapin batzuetan ustegabeko gauzak bezala. Egun batzuez, hainbertze auhaltiar bazen nun bizitegi bere-

ziko sala ttipiegi baitzen, auharia beheko sala handi-handian emaiten zen, han leilak, alegia gaineko etxekotasuna deitoratzen zutela eginez, bere baitan loriatuak baitziren - bazter multzo bat egiten zuten batean, lehenago burdinbide ttipian bezala - ondoko mahiendako ikuskarri eta gutizia gai izateaz. Dudarik gabe, bakezko dembora ohikoetan, *Figaro* edo Gaulois-era ebaska igorri ohar mundutar batek Majestic-eko salak eduk ezakeen baino jende gehiagori jakin-araziko zaukon Brichot Duras-ko dukesarekin auhaldua zela. Baina gerlaz geroztik, berriketari mundutarrek (irabazia ehortzez, aiphameenez eta aphairu frantses-amerikarrez egiten bazuten) berri mota hori bazterera utzia ukanik, jakin-arazterik etzaitkeen gehiago izan bide haurrarako eta hertsia, aro lehenetako eta Gutenberg-en aurkintzaren aitzineko gai zen hortarik baizik: Verdurin Anderearen mahian ikusia izaitetik. Auhalduekin Etxekanderearen saloinetara igaiten zen, gero telefonaldiak hasten ziren. Baina aro hartan hotel handi ainitz beteak ziren Bontemps-ek telefonatu berriak hartzen zituzten ainitz zelatariez, berri horien segurtasun gabeak, gertakariak gezurtatzen baitzituen beti, zorionez, zuzentzen zuen ausartasun batekin.

Arratsaldeko theak bururatzen ziren orena baino lehen, egunaren erortzean, zeru oraino argian, urrundik ikusten ziren titta beltzaren batzu, arrats urdinean, eltzo edo xori batzuek hartzen ahalko baitziren. Horrela mendi bat biziki urrundik ikusten denean hedoi bat dela uste izan laiteke. Baina hunkia izaiten da hedoi hori neurrigabea dela jakina delakotz, ez urtua, eta ihardukitzeko gai. Horrela nintzan hunkia udako zeruan tita beltza ezpaitzen ez eltzo bat, ez xori bat, baina aireko bat barnean Pariseren begiratzen zauden gizon batzuekin. (Albertine-rekin gure azken ibilaldian, Versailles-ko ondoan, ikusiak nituen airekoen orhoitzapena deusetako etzen bihotz-hunkidura hortan sartzen, ibilaldi horren orhoitzapena orobat bilakua baitzizatan.)

Auhaltzeko orduan ostatuak beteak ziren, eta karrikan iragaitean, permisioneko soldado gaizo bat ikusten baldin banuen, sei egunendako heriotzearen betiko irriskutik atheraia, ephe batez berina argiztatuen aitzinean begien gelditzen, Balbec-eko hotelean bezala arraintzari batzuek auhaltzen so egiten zaukutenean min nuen, baina gehiago min nuen soldadoaren miseria behardunarena baino handiagoa dela banakielakotz, guziak bateratzen bai-

titu, eta hunkigarriago oraino etsituagoa delakotz, nobleagoa, eta burua filosofikoki higituz, herrarik gabe, berriz gerlara abiatzekotan, itzalean jarrien ikustean elgar bultzakatzen bere mahien atxikitzeko erraiten baitzuen: « Eztu iduri gerla dela hemen. » Gero 9-ak eta erditan, nehork etzuelarik oraino auhariaren bururatzeke astia ukana, poliziaren manuen gatik bapatez argi guziak iraungitzen ziren, eta permisione arrats batez Saint-Loup-ekin auhaldua nintzan ostatuko mutil-jantzier bere soingainekoen hartzean itzalekoen bultzakada berria 9-ak eta 35-etan gertatzen zen, mirazko lanterna han erakusten den gambarako erdi-itzal mixteriozko batean, gizon eta emazte auhaltzalek hara laster eginen zuten zinemetarik bateko filmen erakusteko erabiltzen den ikuskarriko sala batekoan.

Baina oren horren ondotik, diotan arrats hartan, ni bezala, auhaltzen etxean egonak zirenendako, Paris, bederen auzoalde batzuetan, ene haurzaroko Combray-a zen ere baino beltzago zen; elgarri egiten ziren ikustalziek baserriko auzoen ikustaldi itxura bat hartzen zuten. Ha! Albertine bizi izan baliz, zein goxo izanen zen, hirian auhaldua izanen nintzan arratsetan, harekin kampoan hitzartzea, arkuen azpian! Lehenik, ezer enuen ikusiko, hitzartzea huts egina zuela uste ukaiteko hunkidura ukanen nuen, noiz ere bapatez ikusiko bainuen harresi beltzean haren zaia hautsaran maite hetarik bat agerian jartzen, eni ohartuak zizaztan begiak irriñotan, eta ibili ahalko ginen elgarren besoetan tinkan nehor guri ohartu gabe, nehork desarrañatu gabe eta gero etxera sartuko. Ondikotz, bakarrik nintzan eta baserriko auzo ikustaldi baten egitera joaiteko itxura nuela iduritzen zizatan, Zuan auhalduta eta egitera jiten zizaikun ikustaldi hetarik bat bezalako baten, Tansonville-ko ilunbean, zirgabide ttipitik Sant-Izpirituko karrikarano ibiltzalerik aurkitu gabe, orai larreko bide itzul-ingurukari batzu bilakatu karriketan aurkitzen nuen baino gehiago, Ste-Clotilde-tik Bonaparte karrikara. Bertzela ere, ari den aroak bidaia-arazten dituen eskualde zati horier ezpaitzizeen ezin ikusia zen kadre batez kontra egiten, haizeak uhar hormatu bat urruntzen zuen arratsetan, Balbec-en senditua nintzan baino ontsa gehiago nuen lehenago hartaz amets egina nuen itsaso erotuaren bazterrean nintzala uste; eta ere ordu hartarano Parisen etziren naturako bertze gauza batzuek sinets-arazten zautzuten, treinatik jaustean, lanartetako baserriaren erdira heldua zinela: behazunez nork bere ondoan lurean zuen itzal eta argiaren kontramoldeak

ilargi xurizko arratsetan. Hunek emaiten zituen hiriek, negu betean ere, ezagutzen etzituzten ondorio batzu; haren arraiak hedatzen ziren edozein langilek gehiago ekhentzen etzuen elhurrean, Haussmann karrika handian, Alpetako hormagune batean eginen zuten bezala. Zuhatzen orrazeak garbirik leinurutzen ziren urrezko elhur urdinez tatu hortan, margazki xapones batzuetan edo Raphaël-en margo-zola batzuetan duten arintasun batekin: lurrean luzatuak zauden zuhartzaren oinean berean, iguzki etzatean kampoan usu ikusten diren bezala, zuhartzak arte berdinetan zutitzen diren phentzeak iguzkiak gainditzen dituenen eta mirail bilakatzen. Baina, arintasun goxagarri bateko xorroxtasun batez, zuhatz itzal horiek, arimak bezain arin, hedatzen ziren phentzea, parabisuko phentze bat zen, ez musker baina xuri hain distiratu batekoa jada zko elhurrean irradiatzen zena, nun erranen baitzen phentze hori josia zela bakarrik madari-ondo lilikatu etako lorekiez. Eta plazetan, ithurri publiko etako jainkoek horma xirrixta bat eskuan bazuten haien moldatzeko edergileak bakarrik burdin-horia eta krix taila ezkondu nahi ukanak zituen gai bikuneko gizaiduri batzuen itxura. Ohigabeko egun horietan etxe guziak beltzak ziren. Baina kontrako primaderan, batzuetan noiztenka, polizako erregelamenduak desafiatuz, hotel berezi bat, edo bakarrik hotel bateko estaia, leihoak ez hetsiak ukanik, agertzen zen, ilun ezin hunki batzuen gainean bera bakarrik zutik zagola iduri, argi hutsezko igortze bat bezala, goritasunik gabeko agertze bat bezala. Eta begiak goitituz erdi-ilunbe urrez tatu hortan ontsa gora ikusten zen emazteak, hartzen zuen galdua zinen eta berak hetsi bakartia iduri zuen gau hortan, Orienteko ikuspen baten xoragarritasun mixteriozko eta oihalez estalia. Gero iragaiten zen eta jeusek etzituen gehiago ilunbean urhats baserritar garbitasunezko eta beti berdinak hausten.

Aspaldidanik gogoan nuen liburu huntan aiphatzen diren jendetarik bakar bat enuela berriz ikusia. 1914-an bakarrik, Parisen eremanak nituen bi ilabatetan, ikusiak nituen, Charlus-ko Jauna urrundik, bai ere Bloch eta Saint-Loup, hau bi aldiz bakarrik. Saint-Loup Balbec-etik itzultzen zen. Berantago zeharka ikasi nuen zeharka ostatuko Buruzagiaren ondoan debaldeko entsegu batzu eginak zituela. Azken hunek bere kargua zor zaukon Nissim Jaunaren ganik ondorez ukana zuenari. Etzen alabaina Bloch-en

osabak « gerizatzen » zuen zerbitzari gazte hura baizik. Baina aberastasunak ekharria zaukon bertutea. Hala nola nun Saint-Loup haren biltzera debaldetan entseatua baitzen. Horrela, gazte berdutedun batzuek, adina jinik, azkenean gogoan hartu dituzten jaidura batzuetara bere burua joaiten uzten dutelarik, ordaintzez, gazte errex batzu prinsipioekilako gizon batzu bilakatzen dira, haien kontra, Charlus bezalakoak, ixtorio zahar batzuetan fidatuz jinak baina berantegi, gozagaizki joiten baitute. Guzia aro-mugatzeari dago. Bigarren aldia zen segurki zen bezala gehienik agertu zena: aiphatu berria dutan Tansonville-ko egonaldian emanak zauztan zintzotasun gabeko iduripen guziak osoki ezabatuak zituen, eta haren baitan berriz ezagunak nituen lehenagoko kalitate eder guziak. Gerla deklaratu eta ikusia nuen lehen aldian, erran nahi da jarraiki zen lehenbiziko astean, Bloch-ek aldiz sendimendu alderdikarienak erakusten zituelarik, Saint-Loup-ek, Bloch-ek utziak ukan ginituenean, zerbitzua berriz hartzen etzuen bere buruaz etzuen aski irkaitz, eta haren doinuko bortiztasunaz abantzu ofensaturik izana nintzan. « Ez, egin zuen indar eta alaitasunekin, gudukatzen eztirenak oro, zer nahi arrazoin eman dezaten, hiltzeko gutiziarik eztutelakotz duk, beldurrez duk. » Eta bertzeren beldurra hartaz azpimarratua zuen baiestezko berjestu oraino gementsuagoarekin, gaineratu zuen: « Eta nik zerbitzua ezpadiat berriz hartzen, onez onean beldurrez duk, hara! » Ohartua nintzan jadanik jende batzuen baitan alegiaz sendimendu laudagarri batzuen ukaita eztela bakarrik gaixto batzuen estalgia, baina gaixto horien agerian ezartzea alegia egite berriago bat dela, hala nola nun ezapaita bederen gordetzen direla iduri. Gainera, Saint-Loup-en baitan, ixuri hori, ausarkeria bat, behargabe bat egina zuenean, eta hortaz erasiatua izaiten ahalko zenean, espes egina zela goraki oihukatzen zuen ohiduraz azkartua zen. Ohidura hori, uste dut, haren etxekotasunean bizi izana zen eta harendako mireste handia bazuen Gerlako Eskolako erakasle zenbaiten ganik jiten zizakokeen. Enuen beraz eragozpenik batere ukan atheraldi horren hartzeko, Saint-Loup-en eginara eta hasten ari zen gerlan ez sartzea manatuak zituen molde berean, goraki erran nahiago zuen sendimendu baten hitzezko aithor bat bezala. « Erraiten entzuna duka, galdegin zautan abiatzean, Oriane ene izabak ezkontza hauts lezakeela? Nik hasteko jeus eztakiat. Hori noiztenka erraiten die, eta

hain usu diat iragartzen entzuna nun egina izana dadin igurikatuko baitiat. Gaineratzen diat ontsa adigarri lizatekeela; ene osaba gizon bat goxagarria duk, ez bakarrik munduan, baina adixkendako, ahaidendako. Eta ere, molde batean, badik ene izabak baino ainitz bihotz gehiago, hau saindu bat baituk baina izigarriki sendi-arazten baitakek. Baina senar bat izigarria duk, emaztearen trompatzetik gelditu eztukana, laidoztatzetik, bortizki egitetik, diruz gabetzetik. Utz dezan hain natural lizatekek nun egia delako arrazoin bat baituk, baina hala etzelako ere, hori gogora dadin eta erran dadin arrazoin bat delakotz. Eta gero, hain luzaz jasana dikanaz geroz! Orai badakiat bada hutsez iragartzen den, gezurtatzen den hainbertze gauza badela, eta geroago egiazkoak bilakatzen direnak. » Horrek gogora-arazi zautan Guermantes-ko Andereñoa ezkon zezan ehoiz aiphatu izana zenez galdegitea. Jauzi zen eta ezetz segurtatu zautan, noiztenka zergatik jakin gabe sortzen diren munduko erran-merran, berdin ezeztatzen direnetarik bat baizik etzela, eta gezurrezko izaiteak, erran-merran berri bat, ezkon xedez, senar-emazte berextez, edo politikaz sortzen den orduko, hura sinetsia ukanik eta hedaturik, sinetsi zutenak ezpaititu zuhurrago bilakatzen.

Etziren berrogei-ta zortzi oren iraganak jakin nituen egintza batzuek phorogatu zautatenean osoki huts egina nuela Robert-en hitzen erran-nahian: « Gerlagunean eztiren guziak, beldur direlakotz duk. » Hori errana zuen solasean distiratzeko, zikologiako berezitasun emaitako, bere engaiamendua onhartua izanen zenez segur etzeno. Baina, bitartean, hala izaiteko egin-ahal guziak egiten zituen, hortan gutiago berezia izanez, hitz horri eman behar zizakola uste zuen erran-nahian, baina barnatukiago Saint-André-des-Champs-eko Frantses, ordu hartan Saint-André-des-Champs-etako Frantzesen baitan hoberena zen guziarekin gehiago berdintasunean, jaun, burjes eta jaunen errespetua zuten ala jaunen kontra jazartu ziren menpeko, familia bereko bi zati berdin frantsesak, azpi abarkadura Françoise eta azpi-abarkadura Morel, hortik bi marra-puntta baitzoazen, berriz elgarretartzeko, alde berera, hori muga baitzen. Bloch loriatua izana zen nazionalixta baten (bertzela ere hain guti hala zenaren) beldurtikeriazko aithorren entzutean eta, Saint-Loup-ek galdegin baitzaukon berak ere joan behar zuenez, aitaso baten aurpegia hartua zuen ihardesteko: « Lauso. » Baina

zenbait egun berantago Bloch aburuz osoki aldatua zen, ikustera jin baitzizatan erotua. « Lauso » izanik ere, zerbitzuko on ezagutua izan zen. Bere etxera laguntzen nuen Saint-Loup aurkitu ginuenean Gerlako minixteriora hitzartua baitzen, koronel bati aitzineratua izaiteko, aitzindari ohi batekin, « Cambremer-ko Jauna » erran zautan. « Ha! baina egia duk, ezagutza zahar batez natzaik mintzo. Cancan nik bezain ontsa ezagutzen duk. » Ihardetsi naukon ezagutzen nuela alabaina eta haren emaztea ere, etzizaztala erdikara baizik gustatzen. Baina hainbat nintzan ohitua, lehenbiziko aldian ikusiak nituenaz geroztik, emaztearen estimatzen jende osoki ohargarri bat bezala, Shopenhauer errotik ezagutzen zuena, eta oro har haren senar arruntari hetsia zizakon adimenduko mundu batean sartzea bazuena, nun ustegabetua izan bainintzan, Saint-Loup-en entzutean eni ihardesten: « Emaztea zozoa dik, uzten deat. Baina hura hauteko gizona duk dohatua ziana eta biziki gozagarri gelditua. » Emaztearen « zozotasunaz » Saint-Loup-ek entzuten zukeen hark mundu handian ibiltzeko zuen gutizia erotua, mundu handiak garrazkienik jukatzen duen gauza; senarraren gaitasunez, haren iloba andereak ezagutzen zauzkonetarik zerbait, familiako hoberena zela uste zuenean. Gizona bederen etzen dukesez axolatzen, baina egia erran hori da « adimendu » bat gogatzalenetik bertzelakoa dena, jendeak holako gizon aberatsari « bere fortunaren egiten jakina ukaiteaz » ezagutzen daukon « adimendua » bezainbat. Baina Saint-Loup-en hitzak laket zizaztan handi-ustekeria zozotasunaren auzo dela orhoit-arazten baitzautaten eta lañotasunak baduela gustu bat apur bat gordea baina gozagarria. Cambremer-ko Jaunarenaren jastatzeko aldia enuen, egia erran, ukana. Baina hori da hain zuzen izaite bat jukatzen duten jenden arau hainbertze izaite ezperdin izan dadin badagiena, jujamenduko ezperdintasunetarik kampo ere. Cambremer-ko Jaunaz enuen azala baizik ezaguna. Eta haren gostua, bertze batzuez ere baieztatua izan zizatana, enuen ezagutzen. Bloch-ek utzi gininduen bere athearen aitzinean, Saint-Loup-en kontra gogo saminez gaingitua, hari erranez, hek « seme eder » galoneztatuek, Aitzindaritegieta bere buruen erakusten, ezer etzutela irriskatzen, eta hark, bigarren klasako soldado xoil, etzuela batere « Gillomez larruaren zila-arazteko » gutiziarik. « Larriki eri omen da Gillome Emperadorea », erantzun zuen Saint-Loup-ek. Bloch-ek, Moltsari hurbildik atxikiak

diren jende guziek bezala berri baldigarriak errextasun berezi batekin hartzen baitzituen, gaineratu zuen: « Ainitzek diote ere hila dela. » Eri den errege oro, izan dadila Eduard VII-garrena ala Gillome II-garrena, Moltsan hila da, setiatzera doan hiri oro hartua. « Ezta gordetzen, gaineratu zuen Bloch-ek, Boxetan jendearen gogoaren ez ahultzeko baizik. Baina atzo gauan hila da. Aitak lehen lehen maileko ithurburu batetik daduka. » Lehen-lehen maileko ithurburuak Bloch aita hetaz axolatzen zen bakarrak ziren, haiekin, « ezagutza gora » batzuer esker, harremetan izaiteko zuen zoriaz, « Extérieure » iganen eta « de Beers » jautsiko zelako berri oraino segetetuzkoa ukaiten zuelakotz ala. Bertzela ere, ordu hartan zuzen « de Beers »-ean igaite bat gertatzen bazen edo « Extérieure »-ko « eskaintza » batzu, eta leheneko merkatua « azkar » eta « ari » baldin bazen, bigarrenekoa « dudan », « ahul », eta « begirantz » egoiten, lehen maileko ithurburu berdin lehen mailekoa gelditzen zen hala ere. Bloch-ek Kaiser-aren hiltzea itxura mixteriozko eta gotor, baina ere errabiatu batekin iragarri zaukun beraz. Bereziki sumindua zen Robert-en entzutean: « Gillome Emperadorea » erraiten. Uste dut gillotinako marrazaren azpian Saint-Loup eta Guermantes-ko Jauna etzirela bertzela mintzatzen ahalko. Bi gizon mundutar bakarrik bizi geldituek nehor gabeko irla batean, nehirendako ikustaterik erakutsi ukan beharko etzutenean, jendetasunezko hatz horietan bere burua ezagun lezakete, bi latinixtek Virgilio zuzen aipha lezaketen bezala. Saint-Loup-ek ehoiz etzuen, Alemanek torturatua izanik ere, « Gillome Emperadorea » baizik erranen ahalko. Eta jendetasun hori hala ere izpirituko traba handi batzuen seinalea da. Horien baztertzen ez-takiena munduko gizon bat gelditzen da. Bierartekotasun aphain hori ezin goxoago da bertzela ere - oroz gainetik horrekin diren bihotzontasun gorde guziarekin eta kuraia ixilduarekin - Bloch-en arruntasun, aldi berean ihabale 'ta espantukariaren ondoan, Saint-Loup-i oihu egiten zaukola: « Ehezake erran Gillome labur-laburra? Hori duk, izitua hiz, hemen jadanik, ahuspez emaiten hiz haren aitzinean! Ha! muga soldado ederrak emanen dauzkuk horrek, Boxen botak milikatuko 'tie. Zaldizko besta batean zuen buruaren erakusten badakizien galoindun batzu zirezte. Eta horra guzia. »

« Bloch gaizo horrek nahi dik baitezpada neure buruaren erakusten baizik eztakiatan », erran zautan Saint-Loup-ek irriño eginez, gure laguna

utzia ukan ginuenean. Eta ontsa senditu nuen Robert-ek nahi zuena etzela batere bere buruaren erakustea, nahiz orduan enintzan haren xedeak zer ziren ohartzen berantago egin nuen bezain zuzen, zaldizkoeriak egitekorik etzuenean, oinezkoetako aitzindari bezala zerbitzatzeko baimena ukan zuenean, eta gero oinezko ihiztarietako, eta azkenik urrunago irakurriko den gaineratekoa ethorri zenean. Baina Bloch etzen Robert-en aberritiartasunaz ohartzen Robert-ek etzuelakotz batere sendi-arazten. Bloch-ek eginak baldin bazauzkun armaden kontrako aithormen gaixtoenak behin « on » bezala onhartua izan eta, aitzinean elhe alderdikarietak ukanak zituen « lauso » bezala erreformatua zela uste zuenean. Baina Robert aithormen horien egiteko ezinean izanen zen; lehenik sendimendu barnatuegien eta naturalak iduritzen direnen erraitea debekatzen duen halako ikustate moraleko batez. Ama lehenago etzen bakarrik amatxirendako biziaren emaiteko zekunda batez dudan egonen, baina debekatua izan balizako itsuski oinazkatua izanen zen. Hala ere gibeletik ikusiz haren ahoan « Amarendako bizia eman nezake » bezalako erranaldi bat eztezaket asma. Frantziarendako zuen amodioan, Robert, berdin ixila zen, ordu hartan Guermantes baino biziki gehiago Saint-Loup aurkitzen bainuen (haren aita itxura nezakeen bezainbatean). Sendimendu horien erraitetik begiratua izanen zen ere bere adimenduaren gaitasun zerbait moldez moralezkoaz. Langile adimendun eta zinez serioetan bada halako gorromio bat badagitena literaturan ezartzen dutenendako, eta baliarazten. Ezkinen elgarrekin izanak ez lizean ez Sorbonan, baina berexirik erakasle beren ikastaldiak ukanak ginituen, eta gogoan dut Saint-Loup-en irriñoa, bertze batzuek bezala erakaspen ohargarri bat emaiten duten eta bere burua jeinuko gizon batzuendako harr-arazi nahi dutenendako, bere theorier izen handi-nahi bat emanez. Aiphatzen baginuen, Robert-ek gogo onez irri egiten zuen. Naturalki gure mirestea etzoan oldez Cottard eta Brichot-etara, baina azkenean errespetu zerbait baginuen greka edo medikuntza erro-tik bazakiten eta horrengatik tartarikari izaitea haizu zizaiela uste etzutenen jendendako. Errana dut, amaren egintza guziak lehenago bere amarendako bizia emanen zuelako sendimenduan jarriak baldin baziren, sendimendu hori nehoiz etzuela berari hitzetan emana, eta zer nahi den etzuela bertzer erraitea ez bakarrik debalde 'ta irriegangarri aurkituko, baina ofensagarri eta

ahalgegarri. Berdin ere ezin dezaket asma Saint-Loup-en ahoan, bere zaldikarrosez, egin behar zituen lasterraldiez, garhaitzeko ginuen zoriaz, armada errusoaren balioaz, Angeleterrak eginen zuenaz mintzo zizatanean, Minixtro gustagarrienak berak deputatu zutitu eta khartsuer erraiten ahal zauen elhe ederrena ere. Eztezaket bizkitartean erran zituen sendimendu ederren erraitetik debekatzen zuen alderdi gaixto hortan, « Guermantes-tarren izpirituak » eragin zerbait etzela, Zuanen baitan hainbertze ikusi ditugunak bezalakoa. Ezen oroz gainetik Saint-Loup zela iduritzen bazizatan, Guermantes gelditzen zen ere, eta hortik, haren kuraia sustatzen zuten arrazoin ainitzen artean baziren haren Doncières-ko adixkiderenak berak etzirenak, arrats bakoitz haiekin auhaldua nintzan gazte bere ofizioaz hartu hek eta hainbertzek bere burua Marne-ko guduan edo bertze nunbait bere gizonen eremaiten hilarazi baitzuten.

Han nintzanean Doncières-en izan zaitezkeen zozialixta ainitzek, baina ezagutzen enituenak Saint-Loup-en ingurunean ibiltzen etzirelakotz, ohartu ahal ziren ingurune hortako aitzindariak etzirela batere « arixto » batzu, « populuak », lerrotik jalgi aitzindariak, framazonek hartzen duten erran-nahi gorati eta aphalki atsegalean. Eta berdin ere, aberritiartasun hori bera, aitzindari aitoren semek osoan aurkitu zuten « aberrigabe » izaiteaz salatzen entzunak nituen zozialixten baitan, Doncières-en nintzanean, Dreyfus afera betean. Armadakoen aberritiartasunak, hain zintzoa, hain barnatua, hartua zuen ezin hunkia uste zuten eta hartara « desohorea » egozten ikustez sumintzen ziren itxura berezi bat, zerbait moldez ohargabeko aberritiarrek aldiz, aberriaren erlisionerik gabeak ziren erradikal-zozialixtek, erran-molde huts eta herrati batzu zirela uste zutenetan zer egia barnatua bizi zen gogoan hartzen jakina etzutelarik.

Dudarik gabe hek bezala Saint-Loup jarria zen, bere alderdi egiazkoena bezala, jokabide 'ta irabazpidetako manubra hoberenen bilatze 'ta gogatzearen hedatzeari bere baitan, hala nola nun, harentzat haientzat bezala, soineko bizia hein batean munta gutikoa baitzen, barneko alderdi horrendako errex sakrifika zaitekeena, hori zinez biziko hexurra baitzen haien baitan, inguruan nor beraren izaiteak baliorik etzuelarik larrazal begirale bat bezala baizik. Saint-Loup-en kuraian baziren ekhai bereziago batzu, hetan

errex ezagutuko baitziren hastapenean gure adixkidantzaren gozagarria egina zuen bihotzontasuna, eta ere berantago haren baitan atzarria zen ethorkizko bizioa, eta, gairiditua etzuen adimenduko hein batekin loturik, ezpaitzaukon bakarrik kuraia mirets-arazten, baina ere emakarako izaitearen hastioa gizakitasunaren hunkitzean halako xoramendu baterano ereman-arazten. Aurkitzen zuen, garbiki dudarik gabe, bere biziaren sakrifizioa noiz nahi bazegiten Zenegaldar batzuekin kampoan bizitzen, hartan « jaunxkila muskudunendako » gaitzespen ainitz sartzen zen burumunetako atsegin bat, eta, hain kontrakoa iduri izanik ere, Tansonville-en gehiegi hartua zuen kokaina hark bazemakonetik biziki bertzelakoa etzena, kuraia - bertze bat ordaintzen duen erremedio batek bezala - hortarik sendatzen baitzuen. Bazen lehenik haren kuraian jendetasunezko ohidura bikun hura, alde batetik bertzeak lauda-arazten zauzkona baina bera hitzik erran gabe ontsa egiteaz askietsa izanez, Bloch baten kontra-moldera, gure aurkitaldian errana baitzaukon « Naturalki amor eman zinezakete » eta jeusik ezpaitzuen egiten; eta, bertze aldetik, berea zuenaren, fortunaren, lerroaren, biziaren ere ezteusetako edukitzerera, eta emaitera bazeramana. Hitz batez, haren jitezko noblezia egiazkoa.

« Luzazko baduguia? » erran naukon Saint-Loup-i. « Ez, uste diat gerla biziki laburra izanen dela », ihardetsi zautan. Baina hemen, beti bezala, haren arrazoinak liburuetakoak ziren. « Moltke-ek iragarriak gogoan ditukan batean, irakurrak berriz, erran zautan, ja irakurria ukan banu bezala, 1913-eko urri 28-ko erabakia erreximendu handien erabiltzeaz, ikusiko duk bake aroko erresalbuen ordaintzea eztela moldatua, ez aitzinetik ikusia ere, egitea huts eginen etzena gerlak luzea izan behar balik. » Iduri zizatan delako erabakia har zaitekeela ez gerla laburra izanen zelako phorogu bat bezala, baina hala izanen zela eta izanen zenaz axolagabea bezala, idatzia zutenen baitan, eta ez gerla geldi batean tresnen erabilpen izigarria izanen zenaz, ez gudu-gune guzietako elgertasunaz aierurik etzutenenean.

Homossexualitateaz kampo, jitez gehienik horren kontrakoak diren jendetan, bada gizatasuneko ideal mota ohiko bat, homossexualak, jende gorenatarik bat ezpaldin bada, bere eskuan dadukana, denetik aldatua izaiteko bertzela ere. Ideal hori - armadetako batzuena, diplomata batzuena - bereziki sumingarria da. Molde arruntenean, hunkia dela iduri nahi eztuen bihotz

urrezkoaren idortasuna da xoilki, eta behar bada hila izanen den adixkide baten uzteko orduan, bere baitan nehork uste eztuen nigar egiteko gura baduenarena, handitzen ari den haserre batez estaltzen duelakotz, elgar uzten den orduan atheraldi huntan bururatzen denaz: « Goazen, Jainkoaren arraia! putil ergela, besarka nezak eta harrak bada trabatzen naikan molsa hau, gaizo zozoa. » Diplomatak, aitzindariak, bakarrik erresumaren aldeko lan handi batek duela balio sendi duen gizonak, baina hala ere atxikimendua ukana duenak ordaritzan edo batailunean zen « ttipiarendako » eta sukarretarik edo bala batez hil denarendako, gizakitasuneko gostu bera badu molde trebeago, jakindunago, baina oro har berdin hastiagarri den molde batean. Eztu nahi « ttipiaz » nigar egin, badaki laster eztirela hartaz orhoituko, emazteño eri khotsudun baten hiltzean, bizkitartean, duen bihotzmina erraiten eztuen bihotz oneko barber bat baino gehiago. Diplomata idazle izan dadin eta heriotze hori khonda dezan ber, eztu bihotzminik ukan duela erranen; ez; lehenik « gizatasunezko herabez », gero hunkia izaitea gordez sortarazten duen aphaintasunezko arteziaz. Hark eta lagun batek hiltzera doana beila-tuko dute. Nehoiz eztute bihotzmin dutela erranen. Ordaritzako edo batailuneko gauzez mintzatuko dira, ohian baino xehetasun gehiagorekin ere.

« B.-ek erraiten daut: « Bihar jeneralaren erakustaldi bat badela ez-tuzu ahatziko; zure gizonak garbi izan daiten egizu. » Hark ohiki hain ezti zenak bazuen doinu bat ohian baino idorragoa, ohartu nintzan eni so egite-tik begiratzan zela, nihaure ere zaintsu zendi nintzan. » Eta irakurleak hartzen du doinu idor hori, bihotzminik badutela iduri ukan nahi eztuten jenden baitako bihotzmina dela, xoilki irrieginagarri bailizateke, baina etsigarri eta itsusi baita ere, bihotzminak baliorik eztuela uste duten jenden bihotzmin ukaiteko ara delakotz, bizia berexeteak baino seriozago delakotz, eta bertze, hala nola nun heriotzetan emaiten baitute urthatsez, zuri gaztain hormatu batzuen ekhartzean, « Ona eta zorionezkoa agiantzatzen dautzut » murrikatuz erraiten baina hala ere erraiten dautzun jaunak emaiten duen gezurraren, ezteusaren iduripen hori.

Zauritua, hiltzera doana kampotik ekharri delakotz burua estalirik beila dagiten aitzindari eta diplomataren ixtorioaren bururatzeko, oru be-tean guzia bateko bururatua da: « Hau gogoan nuen: behar da garbiltaldiko gauzen prestatzera itzuli; baina zinez eztakit zergatik, medikuak pholtsua

utzi zuen orduan, gertatu zen, B.-ek eta nik, elgar adituak izan gabe, gertatu zen, iguzkiak zuzen joiten baitzuen, bero ginen behar bada, ohearen aitzinean zutik, gure kepiak ekhendu ginituela. » Eta irakurleak ontsa senditzen du eztirela beroaren, iguzkiaren gatik, baina herioko maiestatearen aitzinean bi gizon azkarrak, behin ere xamurtasun edo bihotzmin hitza ahoan eztutenak, buru-has jarri.

Saint-Loup-en arako homosesualen gizakitasunezko ideala ezta berdina, baina berdin ohidurazkoa eta berdin gezurrezkoa. Haiendako gezurra gorputzeko gutizia bertze ethorki bat emaiten daueten sendimenduen oin-harria dela ez ohartu nahi ukaitean datza. Charlus-ko Jaunak emakarako izaitea hastio zuen. Saint-Loup-ek gizon gazten kuraia miresten du, zalduneriaren jaukitaldietako xoramendua, gizonez gizoneko adixkidantza osoki garbietako noblezia adimendu eta moralekoa bizia hetan elgarri sakrifikatzen baita. Emazterik baizik ezten hiri-nagusiez homosesualen etsipena badagien gerla, aldiz, homosesualen elhaberri gartsua da, ametseko izaite batzuen moldatzeko aski adimendunak baldin badira, ez aski argira haien emaiteko, nundik sorten diren ezagutzeko, bere buruen jujatzeko. Hala nola nun gizon gazte batzu bakarrik indar jokoetan bezala egiteko engaiatu ziren orduan, urte batez jende guzia « diabolito » jokoan artzen den bezala, Saint-Loup-endako gerla bere gutizia biziki gauzazkoago baina hedoeztatueta jarraikitzen zizakola asmatzen zuen ideal hura bera izan baitzen gehiago, hautesten ziztuen izaitekin batean zerbitzatu ideal hura, zaldun ordena osoki gizonezko batean, emaztetarik urrun, han bere soldado-mutilarendako bizia irriskutan ezar baitzezakeen, eta bere gizoner maitasun amorratu bat sustatuz hil baitzaitekeen. Eta horrela, bertze gauza ainitz izanik ere haren kuraian, jaun handi izaitea han zen, eta han ere, itxura ezin ezagutu eta idealeratu baten azpian, emakarakorik ezer ez ukaitea gizon baten izantzakoa zela Charlus-ko Jaunaren ideia. Bertzela ere filosofian eta edergintzan bi ideia berdintsuek balioa zabalduak diren moldetik baizik hartzen eztuten bezala, eta handizki ezperdinak izan baitaitezke Xenofonek ala Platonek emanak baldin badira, berdin ere horrela eginez zenbat elgarri atxikiak diren aithortuz, Saint-Loup leku lanjerosenera joaitearen eskatzen miresten dut, Charlus-ko Jauna lephoko argi batzuen ezartzearen baztertzen baino ezin gehiago.

Saint-Loup-i aipatu naukon Balbec-eko Hotel Handiko buruzagi

ene adixkidea, errana baitzuen, omen, erreximendu frantses batzuetan izanak zirela gerla hastapenean « eskasgoak » zeritzeen ihesgo batzu, eta horiek egin-araziak ukanik salatua baitzuen « militarixta prusiarra » zeritzona; uste ukana zuen ere, ordu batez, Xaponesak, Alemanak eta Kozakak betan Rivebelle-en lurreratuko zirela, Balbec mehatxatuz, eta etzela gehiago « lekuen uztea » baikik gelditzen. Bordelera gobernuaren joaitea apur bat lehiatuegia iduritzen zizakon eta bazion hoin laster « lekuak utziz » ogendun izana zela. Alemanen hastiatzale harek irriz bazion bere anaiaz: « Trantxetan da, Boxetarik hogei-ta bortz metretan! » hura ere ihesle zela eta bortxazko kampamendu batean ezarria zutela ikasi zuen arteo. « Balbec-ez mintzatzeko, hoteleko igangailu-mutilaz orhoit hiza? » erran zautan abiatzean Saint-Loup-ek nor zen sobera etzakuela iduri zuen eta argitzeko eni zagon norbaiten doinuarekin. « Engaiatzen duk eta izkiriatu datak airekoetan sarr-araz dezatan. » Dudarik gabe mutila igangailuko kaiola hetsian igaiteaz unhatua zen, eta Hotel Handiko mailadien goratasunak etzizazkon aski. « Galonak hartuko » zituen etxezain-gotik bertze moldez, gure zoria ezpaita beti uste ukana ginuena. « Haren galdea segurki lagunduko diat, erran zautan Saint-Loup-ek. Goizean oraino erraiten nakean Gilberte-ri, sekula eztiaguk aireko aski ukanen. Horrek diaguk ikusiko etsaiak zer ari dikan antolatzen. Horrek daukok jaukitze baten abantail handiena ekhenduko, ustegabetzearena, armadarik hoberena begi hoberenak ukanen ditikana izanen duk behar bada. He bada, eta Françoise gaixoa, bere ilobaren erroforma-araztera heldua duka? » Baina Françoise-ek, aspaldidanik indar guziak eginak zituena iloba erreformatua izan zadin eta, gomendio bat eskainia izana zizakolarik, Guermantes-tarren bidez, Saint-Joseph-ko jeneralarendako, doinu etsitu batean ihardetsia zuena: « Oi! ez, debalde lizateke, jeus ezin da egin gizon zahar harekin, orotan den gaitzena da, aberritiarra da », Françoise-ek, gerla aiphatua izan zen orduko, eta zein bihotzmin sendi zezan ere, uste zuen etzirela « gaixo Errusoak » utzi behar, « elgarrekilakoan » ginenaz geroz. Mahi-nagusia, gerlak hamar egun etzuela iraunen eta Frantsesen irabazte ageritik bururatuko zelako ustean, etzen aitzinetik gerla luze 'ta dudazko baten iragartzera ausartuko, gertakariez gezurtatua izaiteko beldurrean, etzuen ere hortako aski idurimen ukanen. Baina irabazte oso eta berehalako hortarik, entseatzen zen bederen aitzinetik Françoise-ri min egin-araz zezokeen guziaren agertzera. « Gaizki egin ahal

lezake bada, joan nahi eztuten ainitz ba omen delakotz, hamasei urteko mutiko batzu nigarretan. » Eta horrela « gaitzitzeko » hari gauza gozagaitz batzuen erraitea, hori zen « hexur baten botatzea, hel-egin baten bidaltzea, atheraldi baten igortzea » deitzen zuena. « Hamasei urtekoak, Maria Birjina! » zion Françoise-ek, eta, ephe batez mesfidan: « Bazioten alta etzirela hogei urte beterik baizik hartzen, haur batzu dira oraino. - Naturalki egunkariek horren ez erraiteko manua dute. Gainera gazteria guzia da aitzinean izanen, ezta metarik itzuliko. Alde batetik on egingen du, odol-ixurtze on batek, noiztenka baliagarri da, salerospena erabil-araziko du. Ha! bada, haur batzu baldin badira beratzegiak duda-muda bat badutenak, berehala tirokatzen dira, hamabi bala soinean, zamp! Hori behar da, alde batetik. Eta gero, aitzindarier, zer egiten ahal dee? Bere pezetak hunkitzen dituzte, galdegiten duten guzia hori da. » Françoise hainbat zen solasaldi horietan orotan zuritzen nun beldur baiginen mahi-mutilak bihotzeko min batez hil-araz zezan.

Etzituen bere akatsak horrengatik galtzen. Nexka gazte bat ikustera jiten zizatanean, zenbat zangoetako min ukan zezan ere sehi zaharrak, ephe batez ene gambaratik atheratzea gertatzen bazizatan, ikusten nuen zurubi baten puntan, jantzitegian, ari zela, zion, ene maripulis baten bilatzen biphia jakin nahia ez iduri ukaiteko. Azkenean, gehienik maite ditugun sehiak - eta oroz gainetik bere karguko zerbitzua eta adeia ezpaldin badauzkute abantzu gehiago emaiten - ondikotz, sehi batzu gelditzen baitira, eta bere kastako mugak nahi ginukeen baino garbikiago erakusten baitituzte gehienik gurean sartzen direla uste duten arau, Françoise-ek bazituen ene aldera (« ene xixtatzeko », erranen zuen mahi-nagusiak) munduko jende batek ukanen etzituen elhe bitxi batzu: bozkario gorde baina eritasun handi bat izana baliz bezain barnatu batekin, bero baldin banintzan eta izerdia bekokian ageri: « Baina lapetan zira », erraiten zautan, gertaldi bitxi baten aitzinean bezala us-

tegabetua, behar ez bezalako zerbaitek (« atheratzen zira, baina lephokoaren ezartzea ahatzi duzu ») badagien erdeinuarekin irriñotan, alta norbait bere izanaraz khexu ezarri behar duenaren mintzo arranguratua hartuz. Erranen zen ni baizik enintzala nehoiz mundu osoan izerdi lapetan izana. Azkenik etzen gehiago lehen bezain ontsa mintzo. Ezen, bere lañotasunean, bera baino ezin gehiago aphilagoak ziren jende batzuendako zuen mireste xamurrean, haien mintzamolde itsusia beretzen zuen. Egun batez haren alabak eni zinkurina eginik eta erranik (egiten nola ikasia zuen eztakit): « Beti badu zerbait erraiteko, eta atheak gaizki hesten ditutala, eta patatipatati eta patatipatala », Françoise-ek uste ukan zuen bere ikaskuntza eskasak zuela bakarrik ordu arteo ohidura eder hortaz gabetua. Eta lehenago hizkuntza garbiena loratzen ikusia nuen haren ezpainetan egunean aldi bat baino gehiagotan entzun nuen: «Eta patatipatali eta paratipatala». Bitxi da bertzela ere ez bakarrik erran-moldeak baina ere gogoetak zenbat guti diren jende ber baten baitan aldatzen. Mahi-nagusiak Poincaré Jauna xede gaixtokoa zela erraiteko ohidura hartua ukanik, ez diruko, baina baitezpada gerla nahi ukana zuelakotz, hori egunean zazpi-zortzi aldiz errepikatzen zuen ohiko entzuleria beti berdinarene eta berdin axolatuaren aitzinean. Hitz bat etzen aldatua, jestu bat, doinu bat. Horrek ezipazuen ere bi minuta baizik irauten, beti berdin zen, erakustaldi bat bezala. Hizkuntzako hutsek Françoise-ren mintza-moldea andeatzen zuten haren alabarenek bezainbat. Mutil-nagusiak uste zuen egun batez Guermantes-ko dukeari « Rambuteau etxolak » deitzen entzutean Rambuteau-ko Jauna hain ofensaturik izana zen hek, « pixtegi » izena zutela. Dударик gabe haurzaroan etzukeen « a » entzuna, eta hori gelditua zizakon. Hitz hori gaizki ahozkatzen zuen beraz baina gelditu gabe. Françoise-ek, lehenik jenatua, hori erran zuen ere azkenean, gizonen bezala emaztendako horrelako gauzarik ez izaiteaz zinkurina egiteko. Baina haren xumetasunak eta mahi-nagusiaren miresteak bazegiten ehoiz etzuela pixategiak erraiten baina - ohidurari amor emaita arin batekin - pixetagiak.

Etzuen geihago lo egiten, gehiago jaten, mahi-nagusiari irakurratzen zauzkon hetan ezer hartzen etzuen abisu batzu, hetan guti gehiago hartzen zuenari, eta hunen baitan Françoise-ren oinazkatzeko gurari usu alaitasun aberritiar bat nagusitzen zizakon; irri gozo batekin erraiten zuen

Alemanez mintzatzean: « Berotzen ari dateke, gure Joffre zaharra ari zee izar adardunetan xede atheratzen. » Solasa zein izar adardunez zen Françoise-ek etzuen sobera gogoan hartzen, baina etzuen hobeki baizik senditzen erranaldi hori jende ontsa ikasi batek, ikustatez, omore onean ihardetsi behar zauen bitxikeria goxagarri eta berezietan barne zela, eta soingainak goitituz « Beti bera da bada » erraiteko itxuran, bere nigarrak irriño batez eztatzen zituen. Zorionean zen bederen harakin mutil berria, zuen ofiziokoa izanik ere aski beldurtia zena (hildegietan hasia zen alta jadanik), abiatzeko adinean izan etzadin. Hori izan ezpaliz Gerlako Minixtroaren ikustera joaiteko gai izanen zen haren erreforma-arazteko.

Mahi-nagusiak etzuen abisuak etzirela hoberenak eta ezkinela Berlin-era hurbiltzen ari asamatu ahal ukanen, hau irakurtzen zuenaz geroz: « Gibela-arazi dugu, etsaiaren galtze azkarrekin, eta bertze », irabazte berri batzu bezala ospatzen zituen egintzak. Laztatua nintzan alta irabazte horien lekua Parisera hurbiltzen ari zen lasterraz, ustegabetua izan ere mahi-nagusiak, egintza bat Lens-ko ondoan gertatua zela abisu batean ikusirik, etzadin khexatuagoa izan biharamuneko egunkarian ikustean haren ondoriak gure abantailera itzuliak zirela Jouy-le-Vicomte-en, hunen inguruak bermuki atxikitzen baiginituen. Magi-nagusiak ontsa ezagutzen zuen bada Jouy-le-Vicomte-ren izena, ezpaitzen Combray-tik hain urrun. Baina egunkariak irakurtzen dira maitatzen den bezala, oihal bat begien gainean. Ezta egintzen argitzea bilatzen. Egunkariko idazle nagusiaren elhe eztiak nork bere maitearen elheak bezala entzuten ditu. Bat garhaitua izaiten da eta askietsia ezpaitu garhaitua dela uste baina irabazle dela.

Enintzan bertzela ere Parisen luzaz egona eta berriz aski laster eritexera joana nintzan. Nahiz zuzenez medikuak berexkuntzan egoiteaz arthatzen zinduen, bi ordu berezietan Gilberte-ren eskutitz bat eta Robert-en bat emanak izan zizaztan. Gilberte-ek izkiribatzen zautan (nunbait han 1914-ko buruilean zen), Parisen egoiteko gutizia ukana gatik errexago Robert-en berrien ukaiteko, Parisko gainera taub-en jautsaldi jarraikiek halako izialdura emana zaukotela, oroz gainetik bere alaba ttipiarendako, nun Paristik ihes egina baitzuen Combray-ra oraino zoan azken treinan, treina etzela ere Combray-rano joana eta etzela Tansonville-ra heldu ahal izana bidaiaria

laztagarri bateko hamar oren hartan eginak zituen laborari baten orgari esker baizik! « Eta hor, asma ezazu zerk zuen zure adixkide zaharra igurikatzen, izkiribatzen zautan bururatzean Gilberte-ek. Paristik joana nintzan airekoer ihes egiteko, ustez eta Tansonville-en orotarik gerizatua izanen. Bi egun etzen han nintzala, zer zethorren ezpaituzu asmatuko: Alemanak, gure tropak La Fère-ko ondoan garhaiturik herrialdearen hartzen ari baitziren, eta aitzindari aleman andana bat erreximendu bat ondotik Tansonville-ko athera jiten ari, ostatatzera bortxatua nintzana ere, eta ihes egiteko biderik ez, ez trein bat, jeus ez. » Aleman aitzindari andana ontsa gobernatua zena alabaina, ala Gilberte-ren eskutitzean behar zena khotsuz Guermantes-tarren izpirituaren ondorio bat ikusi, hek ethorki baviarrekoak baitziren, Alemaniako arixtokrazia handienaren ahaideak? Gilberte etzen aitzindarien ikustate beteginaz ixiltzen, eta solado batzuenaz ere, « phutzu ondoan jiten ziren orhoit-loretarik baten biltzeko baimena » eskatua baitzuten bakarrik, ikustate hori ihesle frantsesen bortizkeria nahasiarekin kontra emaiten zuela, etxaldea oro xehakatzuz iragana baitzuten, jeneral alemanak ethorri baino lehen. Zer nahi den, Gilberte-ren eskutitza alde batzuetarik Guermantes-tarren izpirituaz betea baldin bazen - bertze batzuek hori balerrakete erresumartekotasun juduaz, itxura guzien arabera zuzen izanen etzena, ikusiko den bezala -, ilabete andana bat berantago Robert-en ganik ukan nuen eskutitza, hura, Guermantes baino biziki gehiago Saint-Loup zen, gainera bildua zuen kultura liberal guzia eta, oro har, osoki gustagarria itxuratzen zuen. Zorigaitzez etzizatan Doncières-ko solasaldietan bezala gerla-moldakuntzaz mintzo eta etzautan erraiten zein neurritan zuen estimatzen gerlak baieztatzen zituela edo ezeztatzen orduan agertuak zauztan erregelak. Gehien-gehienik erran zautan 1914-az geroztik gerla bat baino gehiago zirela egiazki elgarri jarraikiak, bakoitzaren erakaspenak ondokoaren eremaiteko eragin ukanez. Eta, behazunez, « sartze egiteko » teoria osaturik izana zen, sarze egin baino lehen, etsaiak zadukan eremua artilleriaz osoki irauli behar zelako thesiaz. Baina gero ohartu zen aldiz iraulaldi horrek oinezkoeriaren eta artilleriaren aitzinatzea ezin egina bilakatzen zuela milakako obuz ziloek bertze hainbertze traba egina duten lurretan. « Gerla, erraiten zautan, ezta gure Hegel zaharraren legetarik baztertzen. Betiereko bilakatze batean duk. » Jakin nahiko nuenaren ondoan

guti zen. Baina gehiago gaitzitzen ninduen oraino, eni jeneralen izenaren aiphatzeko dretxorik etzuela zen. Eta bertzela ere, egunkariak erraiten zautan gutiaren arabera, hunen buru zirenak, etziren gerla batean balio gehienik erakutsiko zutenen jakiteaz Doncières-en hainbertze axolatua nintzanak. Geslin de Bourgogne, Gallifet, Négrier hilak ziren. Pau-ek zerbitzua abantzu gerla hastean utzia zuen. Joffre-ez, Foch-ez, Castelnau-z, Pétain-ez ehoiz ekinen mintzatuak.

« Haurra, izkiribatzen zautan Robert-ek, aithor diat « eztira iragannen », « ukanen ditugu » bezalako hitzak eztitukala gozagarri; luzaz eman dautatek « poilu » eta gaineratekoak bezainbat hortzetako min, eta dudarik gabe aspergarri duk epopea baten eraikitzea gramatikako edo gustu oneko huts bat baino gaitzagoak diren hitz batzuetan, gauza kontra-erranezko eta gaixto hauk, hainbatetarano hastio ditiagun alegia-egin, handi-nahi arrunt batzu direnetan, hala nola behazunez « kokaina »-rendako « koko » erraitea izpirituko dela uste duten jendeak. Baina mundu hori guzia ikusten bahu, oroz gainetik jende xoilak, langileak, salerosle ttipiak, bere baitan zadukaten kuraia guziaz jelosten etzitukanak eta bere ohean hilen baitzitukan hortaz aierurik ukan gabe, balen azpian lagun baten urgaztera laster egiten, buruzagi zauritu baten eremaitera, eta, berak joak, hiltzera doazen orduan irriño egiten phezoina Alemanen berriz hartua dela mediku-buruak ikasten daue-lakotz, segurtatzen dauiat, haur maitea, horrek bademakala Frantsesez ideia gora bat eta gure ikastorduetan apur bat ohi ez bezalakoak iduritzen zizazkun ixtorioko aroak adi-arazten ditikala. Epopea hain duk ederra nun nik bezala aurki baihezake hitzek eztiela gehiago jeus egiten. Rodin edo Maillol-ek nagusi-lan bat egin lezaketek ezagunen elizatekeen gai laztagarri batekin. Horrelako handitasunaren hunkitzean, « poilu » bilakatua duk enetako aieru bat edo irri-solas bat hastapenean eduki ahal dikanez senditzen ere eztiatan zerbait, behazunez « chouans » irakurtzen diagunean baino gehiago. Baina « poilu » senditzen diat jadanik poeta handi batzuendako prest, hala nola déluge, edo Christ, edo Barbares hitzak jadanik handitasunez orhatuak baitzitukan Hugo-k, Vigny-k eta bertzek erabiliak ukan baino lehen. Erraiten diat populua, langileak, den hoberena hori dela, baina jende guzia ona duk. Vaugoubert gaixoa, embaxadorearen semea, zazpi aldiz zauriturik izana duk hil

baino lehen, eta gudutaldi batetik joa izan gabe itzultzen zian aldi bakoitz, desenkusutzen zela iduri zian eta erraiten zian etzela haren hutsez. Jende xoragarri bat zian. Biziki adixkidetuak ginitukan, guraso gaizook ehorztera jiteko baimena ukan die doluko jantzitan ez izaitekotan eta bombardamendua-
ren gatik bortz minuta baizik ez egoitekotan. Amak, behar bada ezagutzen dukan kankaila handi bat, bihotzmin ukan ahal zezakekan, jeusi etzizakokan ohartzen. Baina aita gaizoa halako izanaran zian nun segurtatzen baiteat nik, osoki sorgor bilakatua nukana mintzo zatan lagun baten burua bapatez torpilla batez iraulia edo ere gorputz-gainetik berexia ikusten ohituaren bortxaz, enindaikean neure buruaren jabe egon philda bat baizik etzian Vaugoubert gaizoaren hondamendua ikusiz. Jeneralak erraiten ahal zakean Frantziaren-dako zela, semea gizandi bat izana zela, horrek etzitian semearen gorputzetik berexten ahal etzukan giza-gaizoaren hipak bikuntzen baizik. Azkenean, eta hortako duk « eztira iraganen »-ari jarri behar, jende horiek guziek, ene gambarako mutilak bezala, Vaugoubert-ek bezala, Alemanak iragaitetik trabatu ditie. Iduritzen zaik behar bada ezkiela biziki aitzinatzen, baina eztik arrazoinkatu behar, armada bat garhaile senditzen duk bere baitako iduripen baten bidez, hiltzera doan bat galdua dela sendi den bezala. Irabaziko dugula badakiaguk bada eta hori nahi diaguk bake zuzen baten manatzeko, eztiat guretako zuzena erran nahi bakarrik, zinez zuzena, Frantsesendako zuzena, Alemanendako zuzena. »

Egia da, « helgaitzak » etzuen Saint-Loup-en adimendua zen baino gorago goititua. Izpiritu bierarteko eta arrunt batekilako gizandi batzu, eriondoan poema batzuen idaztean, gerlaren erakusteko jartzen baldin badira ez gertakarien heinean, berez ezer ezpaitira, baina ordu arteo haier jar-raikiak zizezteen ezthetika bateko erregelenean, hamar urte lehenago egina ukanen zuten bezala « ozkorri odol-kolorea », « irabaztearen hegaldatze ikharatua » eta gaineratekoak aiphatuz, Saint-Loup, hura, ainitzez adimenduna-go eta edergileago zen eta hala gelditzen, eta gostuz hartzen zituen enetako eskualde batzu, oiha aintzitsu baten bazterrean gelditua zagolarik, baina ahate ihizin izana baliz bezala. Eni « goizeko xoramendua » izanak ziren itzal eta argi kontra-eman batzuen harr-arazteko, batek eta bertzeak maite ginituen margazki batzu aiphatzen zauztan eta Romain Rolland-en orrialde

bati aieru egiteko etzen beldur, berdin ere Nietzsche-ren bati, izen aleman baten erraiteko giblekoen beldur bera etzuten guduguneko jenden libertate harekin, eta ere etsai batez mintzatzeko, behazunez, Zola auzitaldiko lekukoen salan Du Paty de Clam koronelak zuen aphaintasunezko puntta harekin, Pierre Quillard, poeta dreyfustiar bortiztasun handienekoaren eta bertzela ere ezagutzen etzuenaren aitzinetik iragaitean, haren Esku moztuekilako Neska drama simbolixteko neurtitz batzuen erraitean. Saint-Loup-ek aiphatzen zautana Schumann-en melodia bat, izenburua etzuen alemanez baizik emaiten, eta etzuan itzul-ingururik batere hartzen, goizaldean lehenbiziko gurguria oihan bazterrean entzuna zuenean, xoraturik izana zela eni erraiteko gerla ondoan bada entzutea itxarotzen zuen « Siegfried ezin ederago » hartako xoria mintzatua izana balizako bezala.

Eta orai, Parisera ene bigarren itzultzean, ukana nuen, heldu eta biharamunean berean, Gilberte-ren eskutitz berri bat, jadanik hemen ezarri dutana, edo bederen haren erran-nahia ahatzia baitzukeen, ezen Paristik haren abiatzea 1914 ondarrean gibeletik ikusiz molde aski ezperdinean ezarria zen. « Eztakizu behar bada, adixkide maitea, erraiten zautan, badela laster bi urte Tansonville-en jarria nizala. Hara Alemanekin batean heldua niz; mundu guziak nahi ninduen abiatzetik trabatu. Ero deitzen ninduten. « Nola, zioten, Parisen segurrean zira eta herrialde hartu horietara bazoaz, jende guziak handik ihes egitea bilatzen duen orduan zuzen. » Enintzan arazoinamendu horrek zuzenik zuen guzia jakin gabe. Baina zer nahi duzu, kalitate bat baizik eztut, eniz beldurtia, edo, nahiago baduzu, leiala niz, ene Tansonville maitea mehatxatua jakin dutanean, ene etxe-gizon zaharra haren zaintzeko bakarrik egon zadin eztut nahi ukan. Iduritu zata ene lekua haren ondoan zela. Eta bertzela ere delibero horri esker dut jauregia nunbait han salbatu ahal ukan - bertzeak oro auzoan, bere jabe zoratuek utzirik, abantzu guziak azpitik gora suntsituak izan direlarik - eta ez bakarrik jauregia salbatu, baina Aita gaixoa haier hainbertze atxikia zen bilduma baliosak. » Hitz batez, Gilberte segur zen orai Tansonville-ra etzela joana, 1914-an izkiribatua zautan bezala, Alemaner ihes egiteko eta gerizalekuan izaiteko, baina aldiz haien aitzinera joaiteko eta haien kontra bere jauregiaren zaintzeko. Etziren Tansonville-en egonak, bertzela ere, baina hura etzen gehiago armadakoen

harat-hunat ethengabearen ukaitetik gelditua, ainitzez gaintitzen baitzuen Françoise-ri Combray-ko karrikan nigarrak jalgi-arazten zauzkona, bazera-matelakotz, zion bezala, aldi huntan egia osoan, guduguneko bizia. Beraz egunkarietan haren eginara mireskarria laudorio handienekin aiphatzen zen eta hari ohore ageri baten emaitiaz ari zen jendea. Eskutitzeko bururapena osoki egia zen. « Gerla hau denaz ideiarik eztuzu, adixkide maitea, eta bide batek, zubi batek, mendixka batek hartzen duten balioaz. Zenbat aldiz etzitut gogoan ukan, ene ibilaldietan, zuri esker ezin goxoago bilakatueta, elgarrekin egiten ginituenak orai fundikatua den herri huntan guzian, gaitzeko guduak egiten ari direlarik maite zinuen holako bidearen, holako muñoaren hartzeko, hain usu hara izanak baigira elgarrekin! Itxuraz zuk nik bezala etzinuen asmatzen Roussainville iluna eta Méséglise nardagarria, gure eskutitzak handik ekhartzen baitzauzkiguten, eta eri zinelarik medikuaren bila han izanak baitziren, nehoiz leku aipatu batzu izanen zirela. He bada, adixkide maitea, behin betikotz ospean sartuak dira Austerlitz eta Valmy-ren lerro berean. Méséglise-ko guduak zortzi ilabete baino gehiago iraun du, Alemanek han sei ehun mila gizonez goiti galdu dituzte, Méséglise suntsitu dute, baina ez hartu. Hain maite zinuen bide ttipiak, elhorri-xurietako pattarra deitzen ginuena eta han haurzaroan nitaz amoros gertatua zinela baitzinion, zin-zinez segurtatzen zitutalarik ni nintzala zutaz amoratua, eztezauzuket erran zer balioa hartua duen. Hara heltzen den gaitzeko gari landa, haren izena abisueta hain usu itzultzen ikusi dukezun «zenbaki 307» aipatua da. Frantsesek Vivonne-ko zubi ttipia jauz-arazi dute, baitzinion zure haurzaroa etzauzula nahi ukanen zinuen bezainbat orhoit-arazten, Alemanek bertze batzu ezarri dituzte; urte bat eta erdiz Combray-ren erdi baten jabe izanak dira, eta Frantsesak bertze erdiaren. »

Eskutitz hori ukana nuen eguneko biharamunean, erran nahi da, ilunbean ibilki, neure urhatsak joiten entzunak nitueneko bezperagoan, Saint-Loup-ek, gudugunetik ethorria eta hara itzultzerakoan, bakarrik zekunda zenbaiteko ikustaldi bat egina zautan, haren iragartze bakarrak bortizki hunkia baininduen. Françoise-ek nahi ukana zuen tarrapatan haren gana abiatu, urte baten buruan haren klasak joan behar zuen harakin mutil herabea er-reforma-araziko zuelako itxaropenean. Baina urhats horren debaldeaz bera

geldi-arazia izan zen, ezen aspadidanik abere hiltzalea harakindegiz aldatua zen. Eta gureak, ala bere erosleria gal beldurrez, ala fede onez, Françoise-ri erran zaukon mutiko hori, behin ere harakin on bat eginen etzuen bertzela ere, lanean nun ari zen etzakiela. Françoise-ek orotan ontsa bilatua zuen. Baina Paris handia da, harakindegiak ainitz, eta andana batean sarturik izana ahal zen, mutiko gazte herabe 'ta odoldua ezin zuen aurkitua.

Saint-Loup ene gambaran sartu zenean, hurbildua nindakon permisioneko guziek ondarrean bazematen herabetasunezko sendimendu, naturaz goitiko iduripen harekin eta gaitz hilgarri batez hartua eta bizkitartean oraino jeikitzen, janzten, ibiltzen den norbaiten ondora eremana izaiten denean senditzen denarekin. Bazidurien (oroz gainetik hastapenean iduri ukana zuen, ezen ni bezala Paristik urrun bizi izana etzenarendako, aldi batzuez ikusiak ditugun gauzer bere sentsu egiazkoa emaiten dauen iduripen barnatuaren eta gogoetaren erroa mozten duen ohidura ethorria zen), bazidurien abantzu abrekeriazko zerbait bazela gudarier emaiten zizezteen permisione horietan. Lehenbizikoetan, erraiten zen: « Berriz eztute joan nahiko, desertatuko dira. » Eta alabaina etziren egunkarietarik baizik aiphatzen entzunak ezkinituelakotz, eta norbait gudu izigarri hetan barne izana ahal zatekeela eta hetarik soingainean uspel batekin bakarrik itzul zatekeela ezkin ezakeelakotz asma ere, izaita gabekoak iduritzen zizazkun leku batzuetarik ethortzen bakarrik; herioaren hegietarik zen, hetara berriz itzultzeko, zethorzen ephe batez gutartera, guretako gogoan ezin hartuak, betetzen ginituztela xamurtasunez, laztaz, eta mixterioeko sendimendu batez, hel egiten dauegun hil hek bezala, zekunda batez agertzen baitzaizku, haien galdekatzera ezpaigna ausartzen eta bertzela ere gehien gehinik ihardets bailezagukete: « Ezin dezakezu itxura. » Zeren miragarri da zer heinerano, sutik eskapatuak diren permisionekoen baitan, bitarteko batek loizunean sarr-arazten dituen edo hel egiten dauen bizi edo hilen baitan, mixterioaren hunkitzeko ondorio bakarra, solasen ezteustasunaren, ahal bada, handitzea den. Horrela nintzan Robert-en gana hurbildu oraino bekokian orbain bat baitzuen, zigante baten oinak lurrean utzi hatza baino adeigarri eta mixteriozkoagoa enetako. Eta enindaukon galde batzuen egitera menturatua eta etzauztan elhe xoil batzu baizik erranak. Etziren ere gerla aitzinean izanen zirenetarik biziki bertze-

lakoak, jendea, gerla izan arren, zen bezala izaiten jarraitzen baliz bezala; solasaldietako doinua berdina zen, gaia zen bakarrik bertzelakoa, eta oraino!

Ustez hartu nuen armadetan edirenak zituela harekin Morel osabarekin bezain gaizki gobernatua zela apurka apurka ahatz-arazia zaukoten jalbide batzu. Bizkitartean adixkidantza handi bat atxikitzen zaukon eta berriz haren ikusteko gutizia bapateko batzuez hartua zen, beti gibelatzen zituenak. Gilberte-ren aldera eragozkarriago iduritu zizatan berriz Morel-en edireiteko Verdurin Anderearen etxera joaitea aski zuela ez erraitea.

Robert-i erran naukon xumetasunekin Parisen gerla zenbat guti zen senditzen. Erran zautan Parisen ere « aski ezin sinetsia » zela. Aieru bazegien bezperan izana zen « zeppelin »-en jauste bati eta ontsa ikusia nuenez galdegina zautan, baina lehenago edertasun handiko ikuskarri zenbaitez mintzatu izanen zizatan bezala. Gogoan hartzen da nahi bada gudugunean halako aphainkeria bat izan daitekeela « Miragarri da, zer arrosa-kolorea! eta musker arin hori! » erraiten denean, noiz nahi hila izan daitekeen orduan; baina holakorik etzen Saint-Loup-en baitan, Parisen, ezteusko jauste batez mintzatzean, gure galerian, zinezko besta bat bapatez izana zen gau batez, zirrita baliagarri eta gerizatzeale batzuekin, bakarrik mustako emaiten etziren tuta joite batzuekin... Gauan igaiten ziren airekoen ederraz mintzatu nindakon. « Eta behar bada oraino gehiago jausten direnenaz, erran zautan. Aithortzen diat igaiten ari diren ordua biziki eder dela, izar multzo egitera doazena, eta hortan izar multzoak manatzen ditikan bezain lege zorrotz batzuer obeditzen, ezen ikuskarri bat iduritzen zaikana eskudren elgarretaratzea duk, emaiten zezteen manamenduak, ihizira haien abiatzea eta gaineratekoak. Baina eztuka maiteago, behin betikotz izarrak bezalakaturik, ihizira abiatzeko edo geldisoinuaren ondotik sartzeko hetarik berexten diren ordua, apokalipsia egiten diena, izarrak berak ezpaitituk bere lekuan egoiten? Eta zirena horiek, etzükana aski wagneriar, hori, gainera, Alemanen ethortzearen agurtzeko aski natural zialarik, biziki herri-kantu emaiten zian, egongia imperialean Konprinzarekin eta prinzesekin, Wacht am Rhein; airekolariak zirenez bada eta ez izaitekotz Walkiriak igaiten ari galdez egoitekoa bazian ». Airekolarien eta Walkirien berdintze hortan atsegin zuela bazidurien, eta arrazoin garbiki musikako batzuez argitu zuen bertzela ere: « Bada, zirenen musika Zaldi-

laster batena baitzian! Alemanen ethortzea behar duk zinez, Parisen Wagneretik entzun ahal ukaiteko. » Ikuspegi batzuetan, erkidatzea etzen hutsezkoa. Hiriak eremu beltz baten itxura zuen, eta bapatez, gautik eta ilunbetarik, argira eta zerura iragaiten zen, han zirenen deiadar erdiragarrian airekolaria banazka oldez abiatzen baitziren, argi-igorgailuak aldiz mugimendu eztiago, baina azpikariago, asaldagarriago batean, behako horrek bilatzen zuen gauza oraino ezin ikusia eta behar bada jadanik hurbila gogoratzen baitzuen, gelditu gabe higitzen zirelarik, etsaia usnatuz, bere argiez inguratuz, aireko bidatuak ihizian haren hatzemaiteko jauziko ziren ordurano. Eta, eskudra eskudraren ondotik, airekolari bakoitza horrela bazoan oldez orai zerura eremana zen hiritik, Walkiria bat iduri. Bizkitartean lurreko zoko batzu, etxen arrasean, argitzen ziren, eta Saint-Loup-i erran naukon, bezperan etxean izan baliz, lurrean ikusi ahalko zuela, zeruan apokalipsiari beha zagon batean (Greco-ren Orgazko kondearen Ehorztean bezala, hartan ikuspegi ezperdin horiek ara berdinean baitira), egiazko komedia arin bat gau-athorrekilako jokari batzuek emana, hauek bere izen aiphatuen gatik, Ferrari haren ondoko zenbaiten gana igorriak izaitea merezituko baitzuten, haren nota mundutarrek hain usu jostatuak baiginituzten, Saint-Loup eta ni, nun guharendako halakoen asmatzen jostatzen baiginen. Eta hori zen egun hartan ere egina ginuena, gerla izan ezpaliz bezala, nahiz azkarki « gerlako » gai batez, Zeppelin-en beldurraz: « Ezagutu: Guermantes-ko dukesa gau-athorran ezin ederrago, Guermanes-ko dukea ohe-jantzi gorraetan eta mainuko jantzian urragarri, eta gainerakoak... »

- Segur nuk, erran zautan, hotel handi guzietan ikusi direla andere judu amerikarrak mantarrean, bere bulhar histuetan duke hondatu baten ezkontzera hel-araziko dituen lephoko perlazkoaren tinkatzen. Ritz hotelak, arrats horietan, trukatzeko libroker Hotelaren itxura ditek.

- Orhoit hiz, erran naukon, Doncières-ko gure solasaldiez. - Ha! Aro ona zian. Nolako lezeak gitikan hartarik berexten. Egun eder hek choiz bersortuko ote dituk

gure sunder debekatu osinetik,
Iguzki berrituak zerura igaiten diren bezala
Itsaso barnatuen zolan ikuziak izanik?

- Eztitzagun solasaldi horiek gogo ukan zuten ezti az orhoitzeko

baizik, erran naukon. Egia mota batera heltzea nian hetan bilatzen. Oraiko gerlak guzia iraulia baitik, eta oroz gainetik, erraiten dautak, gerlaz den ideia, eror-arazten dika orduan gudutaldi horietaz erraiten naukana, behazunez geroko gerletan imitatuak izanen lizateen Napoleonen gudutaldiez? - Ez batere! erran zautan; gudutaldi napoleonarra beti berriz gertatzen duk, are gehiago gerla huntan Hindenburg izpiritu napoleonarrak hartua baituk. Egiten zitikan lekuz tropen aldatze lehiatuak, amarruak, noiz indar guziak bildurik bertzearen gainera erortzeko etsai baten aitzinean erridau arin bat baizik ez utziz (1814-an), noiz bazterrera egite bat ondorano eremanez bere indarren atxikitzea beharrena ezten gudugunean etsaia bortxatzen baitik (horrela Hindeburg-en jokoa Varzoviako aitzinean hari esker Erruso enganatuak bere ihardukitzea horrara ekharri baitziten eta Mazuriako aintziretan garhaituak izan), noiz Austerlitz, Arcole, Eckmühl hetarik hasi ziren bezalako gibelera egiteak, guzia haren baitan napoleonarra duk, eta eztuk oraino bururatua. Gaineratzen diat, nitarik urrun, arauka gerla huntako gertaldien argitzera entseatzen bahiz, ehadila gehiegi fida bakarrik Hindenburg-en eginara berezi hortan egiten dikanak zer erran nahi dikan jakiteko, eta eginen dikanaren giltzaren aurkitzeko. Jeneral bat idazki berezi bat, liburu berezi bat egin nahi dikan idazle bat bezala duk, liburuak berak, hemen agertzen ditikan ustegabeko ahalekin, hor erakusten dikan atherabide gabearekin, aitzinetik asmatu den langaitik bidez ezin gehiago baztertzen dik. Bidez baztertze batek, behazunez, ezpaitik egin behar izan berez balio aski handia dikan gauza batez baizik, baztertze hori uste den guzia baino gehiago ongi hel dadin nahi baitik, egintza nagusia aldiz gaizki heltze batean bururatzen denean; bidez baztertzea egintza nagusi bilaka daitekek. Hindenburg-en aiduru nagok gudutaldi napoleonarreko mota batean, bere bi etsaien, Angelesen eta gure, elgarretarik bereztean. »

Erran behar da alta gerlak ezpazuen Saint-Loup-en adimendua handitua, adimendu horrek, ondoretasuna hartan zati handiz sartzen zen aldapen batek eremana, nehoiz ikusia enaukon distira bat hartua zuela. Lehenago emazte aphaineak edo hala bilakatzeko nahikunde zutenek gorte egiten zaukoten gaxte ile horiaren, eta hitzekin jostatzetik gelditzen etzen mintzariaren, dotrinalariaren artean, zer eremua! Bertze gizaldi batez, bertze abar batean, lehenago Bressant edo Delaunay-k eman jokagaia berriz hartzen

duen jokari bat bezala, Charlus-ko Jaunaren ondoko bat zen, arrosa-kolore, hori eta urreztatu, hura erdizka beltz-beltza eta zuri-zuria zelarik. Gerlaz bere osabarekin entzun ezpazaitkeen bada, ororen aitzinean Frantzia ezartzen zuen arixtokraziako zati hartan jarria izanez, Charlus-ko Jauna bere baitan garhaipenaz etsitua zelarik, « jokagaiaren egilea » ikusia etzuenari erakus zezokeen arrazoinkariaren ofizioan norbait nola hoberena izan zaitekeen. « Hindenburg ustegabekoa agertzen omen duk, erran nuen. - Ustegabeko zahar bat, ihardetsi zautan hitza hitzari, edo geroko iraultza bat. Beharko zian, etsaia gupidetsi orde, Mangin egitera utzi, Austria eta Alemania aurdiki eta Turkia europeartu Frantzia montenegratu orde. - Baina Estatu-Batuen laguntza ukanen diaguk, erran naukun. - Anartean, eztituk hemen estatu berexiak baizik erakutsiak. Zergatik ez uzte zabalago batzu eman Italiari Frantzia girixtino izaitetik geldi dadin beldurraren bidez? - Hire osaba Charlus-ek entzuten bahindu! erran naukun. Orogen buruan Aitasaindua oraino gehixago bat ofensa baladi ehindaik gaitzitua, eta hura François-Joseph-en tronuari egin daitekeen gaitzaz etsipenekin gogutzen duk. Hori erraiten die bertzela ere Talleyrand-en eta Vienako Kongresoaren jarraipenean. - Vienako Kongresoaren aroa iragana duk; segetuzko diplomaziari, kontra-eman behar duk diplomazia egiazkoa. Ene osaba funtsean monarkixta gogortu bat duk, Molé Anderea bezalako arrain-latz batzu irets-araz lezoketena eta Arthur Meyer bezalako gaixtagin batzu, arrain ala gaixtagin « à la Chambord » izan laiten ber. Hirur margotako ikurrinaren herraz, uste diat izaitekotz Bonet gorriaren philtzar-pen jar laitekekala, fede onez Bandera zuriarentzat har bailezakek. » Eiki, hitz batzu baizik etziren eta Saint-Loup urrun zen bere osabaren berezitasun aldi batzuez barnatuaren ukaitetik. Baina jitez bertzea aierutsu eta jeloskorra bezain gixakoa eta goxagarria zen. Eta Balbec-en bezala xoragarri eta arrosa-kolore gelditua zen, bere ile urreztatu guzien azpian. Bere osabak hartan aitzindua etzuen gauza bakarra Saint-Germain bazter-hiriko izpiritu mota hura zen hartarik baztertu direla uste dutenak baitira hartaz gehienik hartuak eta sortzez lerrorik eztuten gizon adimendunen errespetua (noblezian baizik egiazki loratzen eztena eta iraultzak hain zuzenkontrakoak egiten baititu) emaiten baitaue aldi berean norberaz askietsia izaite zozo batekin nahasirik. Lañotasun eta urgulu, bildu diren izpirituko jakin-nahi eta

jitezko burupe horien nahasteari esker, Charlus-ko Jauna eta Saint-Loup, bide ezperdin batzuetarik, eta elgarren kontrako aburu batzuekin, gizaldi bateko artean, ideia berri orok gogoa eratzikitzen dauen eta mozten dituen nehork ixil-araz eztezaskeen elhekari batzu bilakatuak ziren. Hala nola nun bierartekoa zen norbaitek bata eta bertzea aurki baitzezazkeen, zuen gogoaren arabera, lilluragarri ala aspergarri.

Saint-Loup-en ikustaldiaz horrela orhoitzen nintzan batean, urhats egina nuen, itzuli bat luzegia egina; abantzu Embaldietako zubian nintzan. Argiak, « gotha » delakoen gatik aski guti, phiztuak ziren, apur bat goizegi « oren aldatzea » hala egina baitzen, gaua oraino aski goiz jiten zelarik, baina sasoin eder guziko jarria (berogailuak egun batetik hara phiztuak eta iraungiak diren bezala), eta, hiri gauazko moldean argituaren gainean, zeruko zati oso batean - udako eta neguko orenaz ezer etzakien zerukoan, eta zortziak eta erdia bederatziak eta erdia bilakatua zela jakin nahi etzuenean - zeru urdinaraneko zati oso bat doi bat argian zen oraino. Trocadero-ko dorreak gainetik dituen hiriko zati oso batean, zeruak bazuen gaitzeko itsaso harri-uridin koloreko baten itxura, gibelera ari denean, harroka beltz lerro arin bat guzia jalgitzera utziz, behar bada ere arraintzari sare xoil batzu elgarren ondoan lerrokaturik, hedoi ttipi batzu zirenak. Itsaso ordu hortan harri urdin kolorekoa eta berekin, hek ohartu gabe, gizonak lurraren gaitzeko itzulian baderamatzana, aski eroak baitira han bere iraultzetan jarraikitzeke, eta debaldeko gerletan, Frantzia orduan odoltzen zuen hartan bezala. Gainera, zeru auher eta ederregiari so eginaren bortxaz, orenez aldatzea beretako aski errespetagarri iduritzen etzizakonari eta zeru argituaren gainean, margo urdinaran horietan berantzen zen bere eguna guriki luzatzen zuenari, burxo-roak hartzen zininduen: etzen itsaso zabaldu bat, baina hormagune urdin batzuen mailkatze zut bat. Eta harri urdin koloreko mailetarik hain hurbil iduri zuten Trocadero-ko dorreak hetarik biziki urrun zatezkeen, Suizako hiri batzuetako bi dorreak bezala uste bailizateke urrunean mendietako maldaren auzoan direla.

Gibelera abiatu nintzan, baina Embaldietako zubia utzia ukan orduko zerua etzen gehiago argitan, hirian ere etzen gehiago argi handirik eta han hemenka zikin-untzietan behaztopatuz, bide bat bertze batendako har-

tuz, ustegabetarik gertatu nintzan, karrika ilun batzuetako galguneari ohargabeen jarraikiz, karrika handietara heldua. Hor, ukan berria nuen Orienteko iduripena berritu zen, eta bertzalde Directoire-ko Paris-eren gogoratzeari jarraiki zizakon 1815-eko Pariserena. 1815-ean bezala tropa elgartuetako jantzi berezien zerrenda ezperdina zen; eta hetan, Afrikar batzu galtza-zaia gorrietan, Indiarr batzu buruzinta zurietan aski ziren nindabilan Paris hortarik asmamenezko hiri urrun oso baten egiteko, aldi berean jantzietan eta aurpegi margoan ximenki egiazkoa, eta aphainduran nahi bezain ametsetakoa zen Oriente batean, bizi zen hiritik Carpaccio-k Jerusalem edo Konstantinopoli bat egin zuen bezala haren nabardura miragarria hau baino margoztatuagoa etzen jendalde bat han bilduz. Hartaz guti axolatzen zirela iduri zuten bi zuaben gibeletik ibilki, ikusi nuen gizon handi lodi bat, feldro xapel guritan, soineko luzean, haren aurpegi malba-koloreari eskandala zodomita ezin zenbatu batzuetarik berdin ezagunak ziren jokari baten ala magolari baten izena eman bahar naukonez dudan egon bainintzan. Zer nahi den segur nintzan ibiltaria enuela ezagutzen; ontsa ustegabetua izan nintzan beraz, haren soek eneak aurkitu zituztenean, etzuela jenatua iduri eta espesuki gelditu zela ikustean, eta ene gana jin segeretuzkoa utzi nahiagoko zuen egiteko batean eztuzula batere ustegabetarik hatzemaiten erakutsi nahi duen gizon bat bezala. Zekunda batez egon nintzan hea nork zautan egunon erraiten galdez: Charlus-ko Jauna zen. Erran daiteke haren gaitzaren aitzinamendua edo bizioaren itzulia jendearen nortasun ttipi jitezkoa, arbasoetarikako gaitasunak, haien aitzinetik laguntzen dituen akatsaren edo motako gaitzaren iragaitiaz osoki hartuak diren azken heinera heldua zela. Charlus-ko Jauna bere ganik ahal zen bezain urrun heldua zen, edo izaitekotz bera zen zen bilakatua zenaz eta berea etzuenaz, baina bertze ainitz homosesualena zenaz hain beteginki maskatua, nun lehen minutan hetarik batendako hartua bainuen, zuaba horien gibeletik, karrika handi betean, Charlus-ko Jauna etzen norbaitendako, jaun handi bat etzenarendako, ez idurimen eta adimenduko gizon bat, eta baroinarekin egite orotako haien guziena zen itxura hori baizik etzuena, orai horrek, haren baitan, hari ontsa so egitera gogo emana ezpazen, oro estaltzen baitzuen.

Horrela nuen Verdurin Anderearen etxera joan nahi ukanik Char-

lus-ko Jauna aurkitua. Eta eiki enuen lehen bezala haren etxean aurkitua ukanen; haien arteko nahasmenduak etzuen larritzera baizik egina eta Verdurin Anderea oraiko gertakariez ere baliatzen zen gehiago haren omenaren galtzeko. Aspaldi danik erranik higatua aurkitzen zuela, leher egina, bere delako ausartasunetan jende hantuenak baino desmodatuagoa, kondena-mendu hori laburpenez emaiten zuen eta idurimenak oro hartaz higuntzen zituen « gerla aitzineko » zela erranez. Gerlak ezarria zuen haren eta oraiaren artean, batasun ttipiak zionaz, iragan hilenerano gibelatzen zuen hauskune bat. Bertzela ere - hau politikako munduarendako zen, gutiago jakina baitzen - munduko egonaran adimenduko balioan bezain falsu erakusten zuen, ezteus. « Nehor eztu ikusten, nehork eztu hartu nahi », zion Bontemps Jaunari, eta hari errex sinets-arazten. Charlus-ko Jaunaren izanara aldatua zen. Munduaz gero eta gutiago axolatuz, jite aldikariaren gatik jendeekin nahasia, eta, bere gizarteko balioaren ezagutzaz, gizarteko lorea ziren jende gehienera baketzea gutietsia ukanik, hein bateko bakartasunean bizi zen, arrazointzat etzuen, Villeparisis-ko Anderea hartan hila zenak bezala, arixtokraziak bahitua izaitea, baina jendearen begietan gaitzagoa iduri zuena bi arrazoinen gatik. Charlus-ko Jaunaren aiphamen gaitz orai ezagunak jende guti jakiner sinets-arazten zauen hortako zirela harekin ez ibiltzen hark haiekin berainik ibili nahi etzuen jendeak. Hala nola nun haren omere gogo-ilunaren ondorioa zenak iduri baitzuen omere hori haien kontra itzulia zenen gaitzespenarena. Bertze alde batetik Villeparisis-ko Andereak gerizagailu azkar bat alde ukana zuen: familia. Charlus-ko Jaunak nahasmenduak gehituak zituen haren eta bere artean. Bertzela ere etzizakon gustagarri iduritua, oroz gainetik Baster-hiri zahar aldetik, Courvoisier aldetik. Eta guti zuen uste, hark ederlanaren aldera, Courvoisier-tarren kontra moldez, aitzinatze hain ausartak eginak zituenak, Bergotte-ek haren baitan ohargarrienik aurkituko zuena, Bazter-hiri zahar guzi horrekin zuen ahaidegoa zela, haren andere gusiek, La Chaise-ko karrikatik Palais-Bourbon-go plazara eta Garancière karrikara ereman bizi abantzu probinziarra hari erakutsi ahal ukaitea izanen zela.

Eta gero, ikuspegi gutiago gora eta gehiago gauzetako batean jarriz, Verdurin Andereak etzela Frantsesa sinesten balu bezala egiten zuen. « Her-

ritargo zuzena zein du, ez ote da Austriarra? galdegiten zuen maleziarik gabe Verdurin Jaunak. - Baina ez, batere, ihardesten zuen Molé kondesak, lehen mogimendua zentzu onetik baitzuen aiherkunderetik baino gehiago. - Baina ez, Prusiara da, zion Etxekandereak. Erraiten dautzut, hori badakit, aski errepikatua dauku ondorez Prusiako eta Durchlaucht-eko Jaunen Bilzarrekide zela. - Alta Neapoli-ko erreginak errana zautan... - Badakizu espiun itsusi bat dela, egiten zuen Verdurin Andereak arrats batez haren etxean tronua galdua zuen erreginaren egonara ezpaitzuen ahatzia. Hori badakit eta molde zuzenean, etzen hortako baizik bizi. Gobernu gementsuago bat baginu, horrek guziak bortxazko bilgune batean izan behar luke. Eta joan aitzina! Zer nahi den, mundu pollit hori onhartzen ezpaduzu ontsa eginen duzu, Barneko Minixtroak begian dauduzkala badakitalakotz, zure hotela barrandaturia lizateke. Jeusek eztauta gogotik ekhenduko Charlus eztela bi urtez ene etxean zelatatzeetik gelditua. » Eta gogoan baitzukeen gobernu alemanarendako batasun tipiko antolamenduak ukan zezakeen muntaz duda zenbait ukan zaitkeela, Verdurin Andereak, itxura ezti eta oharti batekin, erraiteko mintzoa hantzen ezpadu dionaren balioa eztela handiago baizik idurituko badakien norbaitek bezala: « Erranen dautzut lehenbiziko egunean berean senarrari erran daukotala: Eztoa ontsa, gizon hori gure etxean sartu den moldea. Bada hor argi ezten zerbait. Etxalde bat baginuen itsas-adar baten zokoa, leku biziki gora batean. Badu itxura Alemanez kargaturik izana zela han haien urpekoendako abigune baten prestatzeko. Gauza batzu baziren ustegabetzen nindutenak eta orai hartzen ditutanak. Horrela, hatsarrean, etzuen ene bertze ohituekin treinan ethorri nahi. Nik, gixakoki gambara eskainia naukon jauregian. He bada ez, nahiago ukana zuen han tropa ainitz eta ainitz baden Doncières-en egon. Horrek guziak bazuen ezpiungoaren usain bat gaitza. »

Charlus-ko baroinaren kontra emanak ziren salatzetako lehenean, desmodaturia zelakoan, munduko jendek etzaukoten Verdurin Andereari errexegiki baizik arrazoin emaiten. Egiaz eskergabeak ziren, Charlus-ko Jauna zerbait moldez haien poeta baitzen, ingurumen mundutarretik hartan zerbait ixtoriotik, edertasunetik, margoztagarritik, irrigarritik, aphainkeria arinegitik sartzen zen halako poesia baten argiratzen jakina zuena. Baina munduko jendek, poesia horren hartzeko ezinean, etzuten bere bizian hortarik batere

ikusten, bertze nunbait bilatzen zuten, eta Charlus-ko Jaunetik mila hegi gorago ezartzen zituzten mugagabeki beheragokoak zizazkon gizon batzu, baina mundua gutiesten zutela ziotenak eta aldiz zoziologiako eta ekonomia politikako teoria batzu goraki aithortzen. Charlus-ko Jauna loriatzen zen nahigabeki berezitanuezkook ziren hitz batzuen erraiten, eta Montmorency-ko dukesaren jantzi jakitaterekin garaziadunak nola ziren erakusten, emazte goren-gorena zela erranez, horrek Montmorency-ko dukesa baliorik gabeko zozo bat zela, zaiak jantziak izaiteko eginak direla baina hetaz axolatzen dela iduri ukan gabe uste zuten munduko emazte batzuer halako ergel bat bezala harr-arazten baitzauen, hek aldiz, adimendunago, Sorbonara laster egiten zutelarik, edo Gambarara Deschanel-ek mintzatu behar baldin bazuen.

Hots, munduko jendeak Charlus-ko Jaunaz hartuak izaitetik geldituak ziren, ez adimenduko haren balio arraroa gehiegi zilatua ukanik, baina hura behin ere zilatua ukan gabe. « Gerla aitzineko » iduritzen zen, desmodatua, mereximenduen estimatzeko ahal gutiena dutenak baitira haien lerrokatzeko modaren erregela gehienik onhartzen dutenak. Gizaldi batean ziren mereximenduko gizonak eztituzte agortu, ez hortara hurbildu ere, eta orai behar dira oro batean kondenatu, hori baita gizaldi berri baten etiketa, hobeki endelgatua izanen eztena.

Bigarren salatzeaz den bezainbatean, germaniar zelakoa, munduko jenden arte zuzeneko gogoak bazterr-arazten zauen, baina joile ezin akhitu eta bereziki abre bat aurkitua zuen Morel-en baitan hunek, egunkarietan eta munduan ere Charlus-ko Jauna, bi aldiz hainbertze neke hartuz, harendako ukaitera - baina ez gero ekhentzera - heldua zen lekuaren atxikitzen jakina ukanik, baroinari ekhartzen zaukon herra bat are gehiago ogenduna nun, zer izana bazen ere zuzen baroinarekin ukana zuen adixkidantza, Morel-ek haren baitan ezaguna baitzuen hainbertze jender gordetzen zuena, haren onezia barnatua. Charlus-ko Jauna arrabitalariarekin hain ezkuzabalekoa izana zen, hain gixakoa, bere hitzari ez ukho egiteaz hainbat arranguratu agertua zizakon, nun utzi zuenean Charlie-ek hartaz eremana zuen ideia ezpaitzen batere gizon biziodun batena (gehien-gehienik baroinaren bizioa eritasun bat iduritzen zizakon), baina nehoiz ezagutua zuen gizon gogoeta gora gehienik zuenarena, ohigabeko sendikortasuna zuen gizon bat, halako

saindu bat. Hain guti zuen ukhatzen, harekin samurtu eta ere, nun guraso batzuer zintzoki erraiten baitzauden: « Semea haren gomendiotan ezartzen ahal duzue, eztezake haren baitan eragin on bat baizik ukan. » Beraz, bere artikuluez min egin nahi zaukonean, bere gogoz haren baitan erdeinatzen zuena etzen bizioa, bertutea zen. Apur bat gerlako aitzinean, berri ttipi batzu, segetukoak zeritteenendako argi zirenak, hasiak ziren Charlus-ko Jaunari kalte handienaren emaiten. Izenburutzat « Deituran -us-ekilako atso baten nahigabeak » zuen batetik, Verdurin Andereak berrogei-ta hamar erosiak zituen bere ezaguner prestatu ahal ukaiteko, eta Verdurin Jaunak, Voltaire-ek berak etzuela hobeki idazten erranez, gora-gora irakurtzen zuen. Gerlaz geroz doinua aldatua zen. Baroinaren gizakoitasuna etzen bakarrik salatua, baina ere haren herritartasun ziotenaz germaniarra: « Frau Bosch », « Frau van den Bosch » ziren Charlus-ko Jaunaren izengoiti ohituak. Poesia moldeko idazki batek bazuen Beethoven-en dantzako aire batzuer hartu izenburu hau: « Alemantsa bat ». Azkenik bi ipuinek, « Amerikako osaba eta Frankfurt-eko Izaba » eta « Gibelmuturra » izenekoek, batzarre ttipian moldizki entseguan irakurririk, Brichot-en beraren bozkarioa egina zuten eta errana zuen: « Anastasia andere guziz gora eta boteredunak moztzen ezpagitu bederen! » Artikuluak berak izenburu irigarri horiek baino xorrotxago ziren. Haien idatzara Bergotte-renetik zethorren, baina ni bakarrik, hala bada, hunkitzen ninduen molde batean, eta huna zergatik. Bergotte-ren idazkiek etzuten eraginik batere ukana Morel-en baitan. Ernaltzea molde osoki berezi batean egin izana zen eta hain bekanean nun horrengatik baitut bakarrik hemen aiphatzen. Aldi zenean ezarria dut Bergotte-ek, mintzo zelarik, hitzen hautatzeko eta ahozkatzeko zuen molde hain berezia. Morel-ek, luzaz aurkitua baitzuen Saint-Loup-tarren etxean, orduan haren « imitazione » batzu eginak zituen, haren mintzoaren sinoa hetan beteginki emaiten baitzuen, hark hartuko zituen hitz berez baliatuz. Orai bada, Morel-ek, idazteko, Bergotte-ren arako solasaldi batzu izkiriartzen zituen, baina Bergotte-ren idazkitik eginen zuten aldakuntzak haier jasan-arazi gabe. Jende guti solastatuak izanik Bergotte-rekin, doinua etzen ezagutzen, estilotik bertzelakoa baitzen. Ahozko ernaltze hori hain bekana da nun aipatu nahi ukan baitut hemen. Eztu, bertzela ere, lore antzurik baizik emaiten.

Morel-ek, gazeteriako bulegoan baitzen, odol frantsesa haren zai-
netan Combray-ko mahatsen jusa bezala irekitan baitzen, gerla ari zenean
bulego batean izaitea gauza guti zela aurkitzen zuen bertzela ere, eta engaiatu
zen azkenean, nahiz Verdurin Andereak ahal zuen guzia egin zaukon Parisen
egon behar zuela sinets-arazteko. Eiki, anderea sumindua zen Cambremer-
ko Jauna, zuen adinean, aitzindarietan baitzen, bere etxera jiten etzizakon gi-
zon oroz baziolarik: « Nun gordetzeko bidea hatzeman du oraino, horrek? »
eta hori lehenbiziko egunetik gudumarra lehenean zela erraiten bazen, gezur
erraiteko arrangurarik gabe edo behar bada huts egiteko ohiduraz ihardesten
zuen: « Baina ez batere, Paristik ezta higitu, nunbait han minixtro baten ibil-
araztea bezain lanjerosa den zerbeit egiten du, nik erraiten dautzut, segur-
segurretik, ikusia duen norbaiten ganik dakit ». Baina, leialendako, etzen
gauza bera, etzituen joaitera utzi nahi, gerla hek bazterr-arazten zituen « as-
pergarri » handi bat bezala zadukan. Beraz egon zaitentzat behar ziren urhats
guziak egiten zituen, horrek emaiten baitzaukon auhaltzen haien ukaiteko,
eta, oraino jinak etzirenean edo jadanik joanak, haien auhertasunaren iraint-
zeko atsegin bikuna. Itzalean leialen egoite hori onhar zezan behar zen hala
ere, eta Morel hortara bihurri agertzen zelakotz lastimatua zen; luzaz errana
zaukon beraz eta debaldetan: « Baina bai, bulego huntan zerbitzatzen duzu,
eta gudugunean baino gehiago. Behar dena, baliagarri izaitea da, zinez ger-
lan barne izaitea, hartan izaitea. Badira hartan direnak, eta itzalekoak. He
bada zu, hartan zira, eta zaude gostuan, mundu guziak badaki, harria ne-
hork eztautzu botatzen. » Horrela, bertze gertaldi batzuetan, gizonak alta
hain bekanak etzirenean eta etzelarik orai bezala gehienik emazte batzuen
ukaitera bortxatua, hetarik batek ama galtzen baldin bazuen, emaiten zituen
gomitaldietara eragozkarri zenik gabe jin zaitekeela hari sinets-arazteko etzen
dudan egoiten: « Dolua bihotzean ekhartzen da. Dantzaldi batera joan nahi
zinukea, horren ez konseilatzeko lehenbizikoa ninzateke, baina hemen, ene
asteazken ttipietan edo antzokiko egongia batean, nehor ezta ustegabetuko.
Jakina da bada, bihotzmin duzula... » Gizonak orai bekanago ziren, doluak
usuago, mundura atheratzetik debekatzeko debaldekoak ere, aski baitzen
gerla. Verdurin Andereak gelditzen zirener lotzen zizaien. Sinets-arazi nahi
zauen Frantziarendako baliagarriago zirela Parisen egonez, libertitzen haien

ikustean zendua zoriondunago izanen zela lehenago segurtatuko zauen bezala. Hala ere gizon guti zuen; urriki zukeen behar bada Charlus-ko Jaunarekin gina ukanik hartara berriz itzultzerik etzen hauste bat.

Baina, Charlus-ko Jaunak eta Verdurin Andereak ezpazuten gehiago elgar ikusten, etziren gutiago jarraikitzen, Verdurin Andereak gomitatzeari, Charlus-ko Jauna bere atseginetara joaiteari - munta handirik etzuten ezperdintasun ttipi batzuekin: behazunez, Verdurin Anderearen etxean, Cottard orai gomitaldietan « Ametsaren Irla »-ko koronel jantzi batean zen, amiral haitiar batenaren aski idurikoan eta oihalean xingola urdin arin zabal batek « Mariaren Haurrena » orhoit-arazten zuenean; Charlus-ko Jaunak, orai arteo haren gostukoak izanak ziren gizon adinekoak handik joanak ziren hiri batean izanez, Frantses batzuek bezala egiten zuen, emazteko Frantzian eta kolonietan bizi: beharrez hartua zuen lehenik mutiko ttipien ohidura, eta gero gostua.

Ezagugarri berezi horietan lehena aski laster ezabatu zen alta, Cottard berehala hil baitzen « etsaiari bekoz », erran zuten egunkariek, nahiz etzuen Paris utzia, baina egiaz bere adineko sobera akhitu baitzen, laster Verdurin Jaunaz jarraikia, hunen heriotzeak jende bakar bat baitzuen griñatu - sinets laitekea? -, Elstir. Haren lana ikhertu ahal ukana nuen ikuspegi zer bait molde oso batean. Baina, zahartzen ari zen arau oroz gainetik, sineskeriaz bere lana modelak emanak zauzkon gizarteari lotzen zaukon eta, horrela, sendimenduetako alkimiaren bidez, haren baitan ederlanera aldaturik, publiko bat, ikusle batzu emanak zauzkonari. Gero eta gehiago ekharria molde materialixtean edertasuneko zati handi bat gauzetan datzala sinestera, has tapenean, Elstir Anderearen baitan itsuki maitatua zuen bezala, bere margazkietan haren ondotik ibilia zen, tapizerietako edertasun mota apur bat phizua pherekatua zuen, bazakusan orai Verdurin Jaunarekin itzaltzen ederlan bat laguntzen, haren egiatasuna segurtatzen duten gizarte molde iraungaitzeko - hartan barne diren jantzietako modak berak bezain laster zahartua - azken ondarkinatarik bat, Iraultzak XVIII-garren mendeko aphaintasunak suntsituz Besta galantetako margolari bat lastima-arazi ahalko zuen bezala, edo Montmartre-ren eta Moulin de la Galette-ren itsabasteak Renoir atseka betuko. Baina oroz gainetik, Verdurin Jaunaren baitan, bere margazkietako

ikuspen zuzenena ukana zuten begiak, buru-munak, hetan margazki horiek zerbait moldez, orhoitzapen maitatu baten izanaran, bizi zirenak itzaltzen ikusten zituen. Margolaritza maite zuten jende gazte batzu agertuak ziren dudarik gabe, baina bertze margolaritza bat, eta etzituzten, Zuanek bezala, Verdurin Jaunak bezala, ukanak gostuan Whistler-en erakaspentak, egian Monet-enak, zuzentasunekin Elstir-en jujatzera uzteko. Hau hortako Verdurin Jauna hil ondoan bakartuago sendi zen harekin alta hainbertze urtez geroz samurtua zelarik, eta harendako bere lanaren edertasunetik apur bat zen itzaltzen edertasun horren ezagutzatik, munduan, oraino gelditzen zena-rekin. Charlus-ko Jaunaren atseginak hunkiak zituen aldakuntzaz zen bezainbatean, artekatua gelditu zen: « gudugunearekin » eskutitzeria nasai bat bazatxikan aldi berean, permisioneko aski adinekorik etzuen eskas. Orogen buruan Verdurin Andereak gomitatzen jarraikitzen zuen eta Charlus-ko Jaunak bere atseginetara joaiten ezer aldatua izan ezpaliz bezala.

Erraiten zena sinesten nuen aroan, Alemaniaren entzutean, gero Bulgariaren, gero Greziaren, bere bakezko xeden goraki aithortzen, haien sinestera ekharria izanen nintzan. Baina, Albertine eta Françoise-rekin bizitzeak ohitua ninduenaz geroztik hek erraiten etzituzten gogoeta, xede batzuez aieru ukaiten, enuen Gillome II-garrenaren, Ferdinand Bulgariakoaren, Konstantin Greziakoaren hitz bat, iduriz zuzena izanik ere, ene asmuaren enganatzera uzten, hetarik bakoitzak gordeka muntatzen zuena ikusten baitzuen. Eta dudarik gabe ene liskarrak Françoise-rekin, Albertine-rekin etziren gure liskar berezi batzu baizik izanak, jende bat den zelula ttipia baizik hunkitzen etzutenak. Baina, ihizien soin batzu, giza-soin batzu badiren bezala, erran nahi da hetarik bakoitza zelula multzoka bildu batzu, hetarik bakoitza zelula bakar baten araura Mendi Zuria bezain handi baita, berdin ere badira gaitzeko jende meta elgarrekin apailatu batzu erresumak deitzen direnak; haien biziak ezto osatzen dituzten zelulen bizia hedatuz errepikatzen baizik; eta hunen mixterioaren, ihardukitaldien, legen hartzeko gai eztenak, ezto hutsa den hitzik ukanen erresumen arteko guduez mintzatuko denean. Baina jende bakoitzaren zikologian ezagule baldin bada, orduan buruz-burukatzen diren jende elgarri lotu horien meta gaitzekoek hartuko dute haren begietan edertasun bat bi nortasunen etsaitasunetik bakarrik sortzen

den gudua baino indardunagoa; eta alde milimetrakoa duen seialdetako baten betetzeko hamar mila baino gehiago behar lizaketeen ureko ihizi xehe batzuek gizon handi baten gorputza ikus lezaketen neurri-arauan ikusiko ditu. Horrela, zenbait dembora hartan, molde ainitzetako poligona ttipi miliun eta miliunez betea den Frantziaren itxura handiak, eta oraino poligona gehiagoz betea den itxurak, Alemaniak, aharra horietarik biga bazituzten bien artean. Eta, ikuspegi hortan, Alemania gorputza eta Frantzia gorputza, eta gorputz elgartuak eta gorputz etsaiak neurri batean jende xoil batzu bezala ari ziren. Baina elgarri emaiten zituzten ukaldiak Saint-Loup-ek haren erregelak erakutsiak zauztan ezin zenbatuzko borrokak arautzen zituen; eta, jende xoilan ikuspegitik behatuz ere, horietaz egin gaitzeko bateratze batzu zirelaketz, aharrak molde izari gabeko eta ezin ederrago batzu hartzen zituen, hala nola mende 'ta mendetako itsas-ezponda batzuen lerroaren haustera indar badagien miliun uhainekilako itsaso handi bat, hala nola gaitzeko hormagune batzu bere zalantza ezti eta suntsitzaletan hetan hetsiak dauden mendietako inguruaren haustera entseatzen. Hori izan arren, biziak abantzu berdin jarraitzen zuen ixtorio huntan agertuak diren ainitz jendendako, eta bereziki Charlus Jaunarendako eta Verdurin-darrendako, Alemanak hetarik hain hurbil, guhauri itxuratzen ezpadugu osoki axolagabeen uzten gituen lanjer baten iraupen mehatxagarria, nahiz orai geldi-arazia, izanak ezpalire bezala. Jendeak badoaz ohiki bere atseginetara, gogoan ehoiz hartu gabe, eragin ahultzale 'ta eztitzaleak gelditzera heldu balire, ureko ihizi xeheren ainiztea bere goienara helduz, erran nahi da zenbait egun barne miliun lekoa batzuetako jauzi bat eginez, milimetra bateko seialdekotik iguzkia baino miliun aldiz handiago batera iragan laitekeela, otzigena guzia eta hetaz bizi giren gauza guziak aldi berean suntsituak ukanik, eta elizatekeela gehiago ez gizalderik, ez ihizirik, ez lurrik, edo gogatu gabe hondamen ezin hutsegin eta itxura handiena duen bat ekharria izanen ahal dela iguzkiaren aldaezin idurizkoak gordetzen duen lan ethengabe 'ta eroaz: bere egitekotan ari dira, bi mundu horiek gogoan ukan gabe, gure gainera ekhartzen dituzten mundu zabaleko mehatxuez ohartu ahal ukaiteko bat ttipiegia, bertzea handiegia.

Verdurin-darrek horrela auhari batzu emaiten zituzten (gero laster Verdurin Andereak bakarrik, hortik dembora zenbaitetan Verdurin Jauna hil baitzen), eta Charlus-ko Jauna bazoan bere atseginetara, Alemanak - hesi

odoleztatu beti berritu batez geldituak egia erran - Paristik beribilez oren baten bidean zirela guti gogoan ukanez. Verdurin-darrek hori gogoan zuten alta, erranen da, politikako saloin bat bazutenaz geroz, hartan arrats bakoitz ez bakarrik armadaren, baina itsas-untzieriaren izanaraz ere solastatzen baitzen. Erreximendu suntsituen, itsas-iragaile ithoen izigarriko hiltzeak gogoan zituzten alabaina; baina kontra-moldeko egintza batek hainbertzetarano du gure gozoa hunkitzen duena gehitzen eta hunkitzen eztuena zenbaki hain izigarrikoaz zatitzen, nun miliun ezezagunen hiltzeak doi-doia baigitu kilikatzen eta abantzu aire aldi laster batek baino gutiago gozagaizki. Verdurin Andereak, bere buruko minendako kafesnean bustitzeko kroizantik ez gehiago ukaiteaz pairatzen baitzuen, Cottard-en ganik ordonanza bat ukana zuen azkenean aipatu dugun ostatu batean hetarik egin-arazteko baimena eman zaukona. Gobernuaren ganik horren ukaitea jeneral baten izendatzea bezain neke izana zen. Lehen kroizanta berriz hartu zuen egunkariak Lusitania-ren hondamena emaiten zuten goizean. Kroizanta kafesnean bustitzen zuen batean, eta bere egunkariari atxik-arazteko erhi-kixka batzu emanaz bertze eskua bustitzetarik baztertu gabe, erraiten zuen: « Zer izigarrikeria! Izigarrian tragedia itsusienak gainditzen ditu. » Baina itho haien guzien herioa etzizakokeen miliargarrenera ttipiturik baizik agertzen, ezen ahoa beterik gogoeta lastimatu horiek egiten zituen batean, haren begitartean ageri zen itxura, guzien arabera buruko minendako hain baliosa zen kroizantaren zapoak horrara ekharria, askietsia izaite goxo batena zen izaitekotz.

Charlus-ko Jaunaz zen bezainbatean, haren aldia apur bat bertzelakoa zen, baina gaitzagoa oraino, Frantziaren garhaipenaren suharki ez agiantzatzea baino urrunago baitzoan, agiantzatzen zuen izaitekotz, bere buruari aithortu gabe, Alemania garhaile izan zadin, bederen etzadin jende guziak nahi zuen bezala lehertua izan. Horren arrazoina zen aharra handi horietan erresumak zeritzeeten jende multzo handiak berak jende xoil batzuek bezala badagitela hein batean. Bidatzen dituen arrazoin zuzena osoki barnekoa da, beti eta beti jaidurarekin urtua, maitasuneko edo etxeko aharra batean buruz-burukatzen direnena bezalakoa, hala nola seme baten aharra aitarekin, kosinera batena etxekanderearekin, emazte batena senarrarekin. Ogenean denak arrazoin duela uste du bizkitartean - Alemaniarekin gertatzen zen bezala - eta arrazoin duenak badematza batzuetan bere zuzen onaz

arrazoinaldi batzu bere jaidurari ihardesten dutelakotz baizik ezin ukatuak iduritzen zauzkonak. Jenden arteko aharra horietan, alderdietako edozeinen zuzen onaren sinesteko, segurrena alderdi hortakoa izaita da, ikusle batek ehoiz eztu hoin osoki baieztatuko. Baina, erresumetan, jende bakar bat, zinez erresuman barne baldin bada, ezta erresuma-jendeko zelula bat baizik. Burumunen betetzea erran-nahiz hutsa den hitza da. Frantseser garhaituak izanen zirela errana izan balizaie, Frantses bakar bat etzen bertha-ez hila izanen zela errana ukan balizako baino gehiago etsitua izanen. Burumunen betetze egiazkoa, nor berak egiten du itxaropenaren bidez, erresuma batean nork bere buruaren zaintzeko asmuaren itxura bat baita, zinez erresuma hortako zati bizi bat baldin bada. Jende-Alemanian auziak zuzengaitzetik duenaren ez ikusteko, jende-Frantziaren auziak zuzenik zer duen ordu oroz aithortzeko, Aleman batendako segurrena etzen jujamendurik ez ukaita, Frantses batendako ukaita, segurrena bat eta bertzearendako aberritiar izaita zen. Charlus-ko Jaunak, moraleko gaitasun arraro batzu bazituenak, urrikalmendura ekharria zenak, ezkuzabala, adixkidantzako, zerbitzu emaitako gai, aldiz, arrazoin ezperdin batzuen gatik - horietan Bavierako dukesa zen ama bat ukana izaitaek zerbait egin zezakeen - aberritiartasunik etzuen. Alemania-gorputzekoa bezala, Frantzia-gorputzekoa zen beraz. Nihaur heritiartasunik gabea izana baninz, Frantzia-gorputzeko zeluletarik bat nintzala senditzeko orde, iduri zait aharraren jujatzeko ene ara etzela lehenago izanen ahal zen hura bera izanen. Ene gatzaro lehenean, erraiten zizatana zuzen zuzena sinesten bainuen, gobernamentu alemanaren entzutean bere fede onaz segurtamen emaiten, dudan horren ez emaitera ekharria izanen ninzatekeen; baina aspaldi danik banakien gure gogoetak eztirela beti gure elhekin akomeatzen; enuen bakarrik egun batez, mailaldeko leihotik, hartaz airerurik enuen Charlus bat aurkitua, baina oroz gainetik, Françoise-ren baitan, ondikotz gero Albertine-ren baitan, jujamendu batzu, xede batzu moldatzen ikusiak nituen haien elhen hain kontrakoak, nun ezpainuen, ikusliar xoil izanik ere, Alemaniako emperadorearen, Bulgariako erregeren hitz, iduriz hain zuzenatarik bakar bat ene asmuaren engantzera utziko, berehala sendituko baitzuen Albertine-rendako bezala zer ari zuten segetuetan apailatzen. Baina azkenean egile izana ezpaninz, Frantzia-egilearen zati bat izana ezpaninz, egi-

nen nuenaz eztezaket aieru egin baizik, Albertine-rekilako ene liskarretan ene so trixtea eta zintzur hertsatua ene auziaz suharki axolatzen zen nihauren zati bat ziren bezala: atxikimenduz gabetzera enindaitekeen hel. Charlus-ko Jaunarena osoa zen. Bada, hura ikusle bat baizik etzen ordutik, orok Alemaniaren alde izaitera ekharri behar zuen, zinez Frantzesak ez izanez, Frantzian bizi zenaz geroz. Biziki xorrotxa zen, baina herri orotan zozoak dira gehienak: dudarik ezta Alemanian bizi izan baliz, zozo alemanek alderdi zuzengaitz bat zozoki eta suharki zainduz suminduko zutela; baina, Frantzian biziz, zozo frantsesek alderdi zuzen bat zozoki eta suharki zainduz etzutela gutiago sumintzen. Jaidura bizi baten arrazoinkatzea, zuzen hoberenaren alde izanik ere, ezta nehoiz jaidurarik eztuenarendako ezin ezetsia. Charlus-ko Jaunak aberritarraren arrazoinamendu falsu bakoitza xorroxtasunekin hartzen zuen. Ergel bati bere zuzen onak bademakon askiespenak eta ongi heltzeko segurtasunak bereziki sumindua uzten zituzte. Charlus-ko Jauna hala zen Alemania eta hunen indarra hark bezain ontsa ezagutzen eztuten jenden hoberako gogo triunfariak, ilabete bakoitz ondoko ilabeteen lehertua izanen zela uste baitzuten, eta urte baten buruan aitzin-uste berri baten emaitan ezpaitziren gutiago segur, berdin hutsezkoak, bertze hainbertze segurantzarekin, emanak ukan ezpaltuzte bezala, baina ahatziak zituztenak, orhoit-arazten balizeztee, etzela gauza bera ziotela.

Azkenik Charlus-ko Jauna urrikalkor zen, garhaitu batez gogatzak min egiten zaukon, ahularen alde zen beti, auzietako berriak etzituen irakurtzen kondenatuaren antsiez bere baitan ez oinazkatua izaiteko, jujearen, burreuaren, « justizia emana zela » ikustez loriatua zen jendearen ezin erhaiteaz. Zer nahi den segur zen Frantzia etzaitkeela gehiago garhaitua izan, eta bazakien aldiz Alemanek gosetea pairatzen zutela, egun batean edo bertzean amor eman beharko zutela. Ideia hori ere, Frantzian bizi izaitak gozagaitzago bilakatua zaukon. Alemaniaz zituen orhoitzapenak hala ere urunduak ziren, Alemaniaren lehertzeaz gustatzen etzizakon bozkario batekin mintzo ziren Frantsesak aldiz, haien hutsak ezagutzen zituen, itxura aihargarri zizakon jende batzu ziren. Aldi horietan, ezagutzen eztirenez, asmatzen direnez, egun orotako bizi arruntean gure ondo-ondoan direnez baino gehiago urriki ukaiten da, osoki hauetarik bat ez izanez bederen, hauekin

haragi bat baizik ez eginez; aberritiartasunak badagi mirakulu hau, nor bere herriaren alde izaiten da, maitasunezko liskar batean nor bere buruaren alde izaiten den bezala. Beraz gerla Charlus-ko Jaunarentzat haren baitan bapatez sortzen ziren, iraupen biziki laburra zuten, baina hetan bortizkeria orotara emana izanen zen herra haien lantze ohigabeki emankor bat zen. Egunkarien irakurtzean, Alemania aurdikia, « Ihizia ezindua » bezala emaiten zuten gazetalarien itxura triumfariak, kontrakoa sobera baizik egia etzelarik, bere zozotasun alai eta abrearen gatik errabiaz erotzen zuen. Egunkariak, ordu hartan, « berriz zerbitzu hartzeko » ara bat hor aurkitzen zuten jende batzuek idatziak ziren, Brichot, Norpois, Morel ere eta Legrandin batzuek. Charlus-ko Jaunak haiekin gertatzea amesten zuen, trufa saminenen azpian haien erhausteaz. Sesuko narrioez beti bereziki jakinduru, ezagutzen zituen, ustez eta haien baitan etziren ezagunak, « Imperio ebasle »-tako erregeren baitan, Wagner-enean eta bertzetan, haien salatzea laket zizaien batzuen baitan. Haiekin buruz buru gertatzeko gutizia gorrian zen, mundu guziaren aitzinean haier bere bizioan sudurraren ezartzekoan eta garhaitu baten laidoztatzale horien uztekoan desohoraturikk, hats-bahiturik.

Charlus-ko Jaunak bazituen ere azkenean Alemanen alde izaiteko arrazoin bereziago batzu. Bat zen munduko gizon izanez, munduko jendean artean ainitz bizi izana zela, ohorezko gizonen artean, gizatza bati eskua tinkatuko eztaukoten jenden: haien beraztasuna eta gogortasuna ezagutzen zituen, bazakien bilkura batetik haiza-arazten duten edo harekin gudukatu nahi eztuten gizon baten nigarrer sorgor zirela, haien garbitasun moralak jende hastiatuaren ama hiltzera ekharri behar ukan balu ere. Bere nahigabea, zenbat mireste bazuen ere Angeleterrarendako, gerlan sartzeko ukana zuen ara miragarriaren gatik; hutsik egiten etzuen Angeleterra hura, gezurreko ahalik gabea, garia eta esnea Alemanian sartzera uzten etzituena, ohorezko gizon, lekuko ageri, ohorezko egitatetako jujari zen erresuma hura zen hein batean; bazakielarik aldiz Dostoïevsky-ren elhaberrietan bezalako jende ustel batzu, gizatza batzu hobeak izan daitezkeela, eta nehoiz eztut hartu ahal ukan zergatik zituen Alemanak hetan ezagutzen, gezurra eta amarrua ezpaitira aski bihotz on batez aitzinetik jujamendu emaiteko, Alemanek halakorik erakutsi dutela iduri eztuena.

Azken ezagugarri batek osatu du Charlus-ko Jaunaren germanofi-

lia hori: zor zaukon, eta gibel-oldar bitxi-bitxi batez, bere « xarlixmoari ». Alemanak biziki itsusiak iduritzen zizazkon, behar bada bere odoletik hurbilxko zirelaketz; Marokarrez erotua zen, baina oroz-gainetik hetan Phidias-en gizaiduri bizi batzu bezalakoak ikusten zituen angeles-amerikarrez. Bada haren baitan atsegina etzoan orduan haren indar guzia oraino ezagutzen enuen abretasuneko ideia zenbait gabe: maite zuen gizona burreu ezin goxoago bat bezala agertzen zizakon. Uste ukanen zuen, Alemanen alderdia hartuz, atsegineko orduetan egiten zuen bezala ariko zela, erran nahi da bere jite urrikalkorretik kontrako aldera, gaitz gustagarriira suhartua eta itsutasun bertuteduna lehertuz. Horrela izan zen oraino Raspoutine hil zuten orduan, hiltze hortan bertzela ere jendea ustegabetua izan baitzen margo errusoko seinale hain azkarraren aurkitzean, Dostoïevsky-ren moldeko auhari batean (ontsa azkarragoa oraino izanen zen iduripena, jendeak hortan Charlus-ko Jaunak osoki bazakien guzia ezagatua ukan balu), biziak hainbaterano nahigabeen uzten gituelaketz nun azkenean uste baitugu literaturak eztuela haren idurikoa denik batere 'ta baldituak baigira liburuek erakutsiak dauzkuten ideia baliosak agertzen direla ikustean, andeatzeko beldurrik gabe, urrurik, naturalki, egunorotako bizi betean, eta behazunez auhari batek, hiltze batek, gertakari errusoak, erruso den zerbait badutela.

Gerla mugarik gabe luzatzen ari zen eta duela jadanik urteak bakezko solasak hasiak zirela ithurburu segurretik iragarria zutenek, antolamenduko artikulu bereziak zein ziren erranez, zurekin mintzo zirenean etzuten bere berri falsuez desenkusatzeko axolarik hartzen. Ahatziak zituzten eta bertze batzuen zintzoki hedatzera prest zauden, berdin laster ahatziko zituztenak. Ethengabe gotha jautsaldiak baziren dembora zen; airea beti eta beti xirtakatzen ari zen aireko frantsesen dardarika begirale 'ta ozenaz. Baina batzuetan zirenak joiten zuen Walkure baten deiadar erdiragarri batek bezala - gerlaz geroztik entzuna zen musika aleman bakarra - su hiltzalek lanjer abisua gelditua zela iragartzen zuten ordurano haien ondoan geldi-soinuak, ikus etzaitkeen haur batek bezala, berri ona arte berdinetan errepikatzen zuelarik eta bere bozkariozko oihua airera botatzen.

Charlus-ko Jauna ustegabetua zen ikusiz gerla aitzinean militarixtak izanak ziren Brichot bezalako jende batzuek ere Frantzia oroz gainetik erasiatzen zutela ez aski hala izaitez, - etzizeela bere militarixmako soberant-

zez Alemaniaren erasiatzea aski, baina ene armadarendako zuen miresteaz. Dudarik gabe Alemaniaren kontrako gerlaren eztitzea aiphatzen zen orduko aburuz aldatzen ziren eta baketiarrak arrazoinekin salatzen zituzten. Baina behazunez Brichot-ek onhartua ukanik, begiak zituen bezala izan arren, bilkura batzuetan alderdigabekoetan agertu liburu batzuez mintzatzea, Sui-zatar baten elhaberria goraiphatu zuen, hartan militarixmaren hazia bezala trufatzen baitira herensuge baten aitzinean mireste sinboliko batera erortzen diren bi haur. Trufa horrek bertze arrazoin batzuen gatik bazuen Charlus-ko Jaunari ez gustatzekoa, herensuge bat biziki gauza ederra izan daitekeela estimatzen baitzuen. Baina oroz gainetik Brichot-en miresmena etzuen gogoan hartzen, ez liburuaren gatik, baroinak ezpaitzuen irakurria, baina bederen izpirituaren a ldetik, gerla aitzinean Brichot-en baitan zenetik hain bertzelakoa. Orduan, armadako batek egiten zuen guzia ontsa zen, Boisdreffre-ko jeneralak zuzenkontra eginak ere, Du Paty de Clam koronelaren falsuke-riak eta jukutriak, Henry koronelaren gezurrezko paperrak. Zein ohigabeko itzultzeaz (eta tirria biziki noble beraren, tirria aberritarraren bertze itxura bat baizik etzena egiazki, ixuriz antimilitarixta zen dreyfusixmaren kontra gudukatzen zenean militarixta izanik, abantzu antimilitarixta izaitera bor-txatua orai Germania militarixtaren kontra gudukatzen zuenaz geroz) egiten ote zuen Brichot-ek: « Oi ikusgarri mirazkoa, eta mende osoki abretasunezko, indarraren errespetua baizik eztueneko gazteriaren erakhartzeko gai dena: herensuge bat! »? Hortako Spitteler-ek, « ororen gainetik sabrea » dion gogamen ezin itsusiago horren kontra eman nahi ukanik, oihanen barneko zolarano haizatu du sinbolikoki, trufatu, gaizki salatu, bakartasunean, Ikasle Zorua deritzon ameslaria, hartan idazleak ezin pollikiago baitu bakezko aroetako eztitasun adoragarria itxuratu, eztitasun ondikotz desmodatua, laster ahatzia erranen datekeena haien Jainko zaharraren erreinu laztagarria hautsia ezpaldin bada.

« Dakusagun, erran zautan Charlus-ko Jaunak, Cottard eta Cam-bremer ezagutzen dituzu. Ikusten ditutan aldi oroz, Alemaniaren zikologia eskas ohigabekoaz mintzo zaizkit. Gu bien artean, hunarano zikologiaz bizi-ki axolatu direla uste duzu, eta orai ere berek badutela erakusteko gai direla. Sinetsazu bada eztiotala sobera. Izan dadin Aleman handienaz, Nietzschez, Goethe-z, Cottard entzunen duzu erraiten: « arraza teutonika ezagun-aratzen

duen zikologia eskas ohiakoarekin ». Badira gerlan ageriki ainitz bihotzmin gehiago egiten dautaten gauza batzu, baina aithorrazu khexagarri dela. Norpois xorrotxago da, aithor dut, nahiz ezten hastapenetik hutsean izaitetik gelditu. Baina mundu osoaren gogo-berotzea sustatu nahi duten artikulu horiek zer erran nahi dute? Ene Jaun maitea, nik bezain ontsa badakizu Brichot-ek zer duen balio, biziki maite dut, haren eliza ttipitik berezia nauen xizma izanik ere, horren gatik ainitz gutiago ikusten baitut. Baina azkenean halako ikustate bat badut kolegioko erreient mintzari eder eta biziki argitu harendako, eta aithor dut biziki hunkigarri dela, duen adinean, eta den bezala ttipitua, ezen zenbait urtez geroz ohargarriki hala baita, berriaz hasia izan dadin, dion bezala, « zerbitzatzen ». Baina azkenean xede ona bat da, antzea bertze bat, eta Brichot-ek ezto nehoiz antzerik ukan. Aithor dut haren mirestean barne nizala gerla huntako handitasun batzuetako. Gehien-gehienik bitxi da Brichot bezalako Aro Zaharraren alderdikariitsu bat, langile familia batean, minan, palazio ixtorikoetan baino poesia gehiago bazela aurkitzen zuen Zola-rendako trufa gaixtorik aski etzuen, edo Diderot Homero baino eta Watteau Raphaël baino gorago ezartzen zituen Goncourt-endako, etzaukula gelditzen Thermopyle-ak, Auzterlitz bera, Vauquois-en ondoan jeus etzirela errepikatetik. Aldi huntan bertzela ere publikoa, literaturako eta edergintzako « modernixter » ihardokia zuena, gerlakoer jarraitzen zaie, horrela gogatzela onhartua den moda bat delakotz eta gero izpiritu ttipiak lehertuak direlakotz ez edertasunaz, baina egintzaren izigarriaz. « Kolossal » hitza ezta gehiago (frantsesez) k batekin izkiriatzen, baina ororen buruan haren aitzinean belhaunikatzen den gauza zinez ezin handiagoa da. Brichot-ek mintzatzean, ikusi duzua Morel? Ikusi nahi nauela erraiten dautate. Lehen urhatsen egitea aski du, zaharrena niz, hastera eztago eni. »

Zorigaitzez, biharamunean berean, derragun aitzinatzeko, Charlus-ko Jauna karrikan Morel-ekin bekoz-beko gertatu zen; hunek haren bekaizkeriaren sustatzeko besotik hartu zuen, erran zauzkon ixtorio batzu guti edo aski egiak, eta Charlus-ko Jauna galdua, arrats hartan Morel haren ondoan egon zadin beharretan, ustez eta mehatxu horrek, nehoiz ere beteko etzuen erran gabe doa, Morel egon-araziko zuen, erran zaukon: « Guardi emak, mendekatu nuk », eta Morel, irriz, abiatu zen bere lagun ustegabetua lephoan xartakatuz eta gerritik inguratuz.

Charlus-ko Jaunak Morel-endako erraiten zauztan elhek erakusten zuten dudarik gabe maitasunak - eta baroinarenak ontsa iraunkor izan behar zuen - zenbat sineskorrago eta gutiago burgoi egiten duen, eta aldi berean asmudunago eta minberago. Baina Charlus-ko Jaunak gaineratzen zuenean: « Emaztez erotua den mutiko bat da eta buruan hori baizik ez-tuena », uste zuen baino gehiago egia zion. Bere alderako amodioz erraiten zuen, maitasunez, bertzek sinets ahal ukan zezaten Morel-ek harendako zuen atxikimendua etzela molde bereko bertze batzuez jarraikirik izana. Segurki hortarik jeus enuen sinesten, ikusia bainuen, Charlus-ko Jauna beti ezagutu gabe egon zen gauza, Morel bortz liberarendako Guermantes-ko printzeari bere gauetarik baten emaiten. Eta, iragaiten Charlus-ko Jaunaren ikustean, Morel-ek (salbu, aithormen beharretan, ofensatzen zuen egunetan hari trix-teki « Ho! Barkatu, aithor dut zurekin okaztagarriki ari izana nizala » erraiteko aldiaren ukaiteko), bere lagunekin ostatu bateko karrikaldean jarri-rik, haiekin oihu ttipi batzu egiten zituenean, baroina erhiaz erakusten eta homosesual zahar batez trufatzeko korokatze hetarik emaiten, segur nintzan bere jokoaren gordetzeko zela, baroinak berex harturik, salatari ageri ho-rietarik bakoitzak hark galdeginen zaukon guzia eginen zuela. Huts egiten nuen. Olde berezi batek homosesualitatera ekharriak baldin bazituen - eta hori mail guzietan - hartarik urrunenak ziren Saint-Loup bezalako jende batzu, kontra-alderako batek egintza horietarik baztertuak zituen hetan ho-riek ohikoenak zirenak. Batzuen baitan aldakuntza erlisisoneko arrangura berankor batzuek egin-arazia zuten, eskandala batzu agertuak zirenean ukan ziren bihotz-hunkidurek, edo izaiterik etzuten eritasun batzuen beldurrak, hauetan zintzotasun osoarekin sinets-araziak batzituazten ainitzetan etxezain edo gambarazainak ziren guraso batzuek, edo zintzotasunik gabe maitale be-kaizti batzuek horrela hetarik bertzetarik bezain ontsa baztertua zuten mu-tiko gazte bat beretako atxikiko zutela uste ukanik. Horrela zituen Balbec-eko iragangailu-mutil ohiak ez gehiago onhartuko ez urre ez zilharretan orai etsaiarenak bezain larriak iduritzen zizazkon eskaintza batzu. Morel-ez den bezainbatean, haren eza jende guziari, salbuespenik gabe, hortan Charlus-ko Jaunak bera ohartu gabe aldi berean haren lilluramenduak baieztatzen eta itxaropenak aurdikitzen zituen egia bat errana baitzuen, huntarik heldu zen: Charlus-ko Jauna utzi eta bi urteren buruan harekin bizi zen emazte batez

amoratua zen eta, hark baino borondate gehiago ukanez, leialtsun osora haren bortxatzen jakina zuenaz. Hala nola nun Morel-ek, Charlus-ko Jaunak hainbertze diru emaiten zaukon demboran gau bat Guermantes-ko printzeari emana zukolarik berrogei-ta hamar liberetan, ezpaitzuen horren beraren edo bertze nor nahiren ganik jeus onhartuko, berroegi-ta hamar mila libera eskaini balizazko ere. Ohore 'ta abantail nahigabe orde, bere « emazteak » hein bateko giza-errespetua sarr-arazia zaukon, desafiorano eta kondizone berezi batzuetan eskainia bazizakon munduko diru guziaz axolarik etzuela erakustera eremaiterano joaita hastio etzuen. Horrela zikologiako legen jokoak giza-arrazaren loratzean behar dena egiten du, alde batera edo bertzera, haren soberakina edo suntsitzea ekhar lezakeen guziaren ordaintzeko. Horrela ditu loretan zuhurtzia ber batek, Darwin-ek agerian eman duena, bat bertzearen ondotik elgarri kontrakatuz ernaltzeko moldeak arautzen.

« Gauza bitxia da bertzela ere, gaineratu zuen Charlus-ko Jaunak noiztenka hartzen zuen mintzo mehe xorrotzarekin. Egun guzia zorian osoan direla iduri duten jende batzu entzuten ditut, hauteko koktelak hartzen dituztenak, gerlaren bururano joanen ahal eztirela erraiten, haien bihotzak eztuela indarra ukanen, bertzerik eztezaketela gogoan ukan, bapatez hilen direla. Eta ohigabekoenik dena, hori alabaina gertatzen dela da. Zein bitxi den! Janariarekin ikusteko duen zerbait dea, gauza gaizki antolatuta batzu baizik eztituztelakotz gehiago iresten, ala, bere kharraren erakusteko, debaldekoak diren baina begiratzen zituen osabidea suntsitzen duten lan batzuer lotzen direlakotz? Baina azkenean heriotze bitxi goiztiar horietako zenbaki ustegabeko batez ohartzen niz, hiltzen denaren araura bederen goiztiarrak. Eztakit gehiago zer nautzun erraiten, Norpois-ek gerla hau miresten zuela. Baina zer aiphatzeko molde berezia! Ohartu zirela lehenik erran-molde berrien populkatze horri, egun oroz erabiliaren bortxaz azkenean higatu dirrelarik - ezen Norpois akhitz-ezina da zinez, uste dut ene izaba Villeparisis-en heriotzeak daukola bigarren gatzaro bat eman -, berehala bertze leku arrunt batzuez ordainduak baitira? Orhoit niz lehenago jostatzen zinela agertzen, egoiten, eta gero ezeztatzen ziren hizkuntza molde horier ohartzen: « haizea ereiten duenak ekaitza du biltzen »; « zakurrek ehausia, bidaritaldea aitzina »; « politika ona egitazu eta diru onak egingen daukitzut, zion Louis baroinak »; « badira hor tragikoki hartzea sobera lizatekeen seinale batzu baina serioSKI

hartu behar direnak »; « Prusiako erregerendako lan egitea » (hori bertzela ere berphiztu da, ezin hutsegina baitzen). He bada, geroztik, ondikotz, zenbat ikusi dutan hiltzen! ukan ditugu « paperrezko philtzarra », « Imperio hart-zaleak », « emazten eta zainduak eztiren haurren hiltzean datzan delako Kultur aiphatua », « garhaitzea, Xaponesek dioten bezala, bertzeak baino oren laurden bat gehiago pairatzen dakienarena da », « Germano-Turaniarrak », « jakitateko abretasuna », « gerla irabazi nahi badugu, Lloyd George Jaunaren hitz azkarraren arabera », azkenean ezin zenbakatua da, eta « tropen gemena », eta « tropen kalapioa ». Norpois hautekoaren sintasiak berak jasaiten du gerlaren gatik ogiaren egiteak eta garraioetako lehiak bezain aldatze barnatu bat. Ohartu zirela gizon hautekoa, gauza bilakatzera doan egia bat bezala bere nahiakarien oihukatzen atxikia, eztela hala ere ethorkizun garbi eta xoilaren erabiltzera ausartzen, gertakariez kontraktua izaita irriska bailezake, baina aro huntako ikur bezala jakite aditza erabiltzen duela? » Aithortu naukon Charlus-ko Jaunari zer erran nahi zuen enuela ontsa hartzen.

Ezarri bahar dut hemen Guermantes-ko dukeak etzuela batere anaiaren gogo gaitzerakoa. Charlus-ko Jauna kontra bezain Angelesen alde zen. Azkenik Caillaux Jauna mila aldiz tirokatua izaita merezi zuen traidore batendako zadukan. Anaiak tradimendu hortako lekukotasunak galdatzen zauzkonean, Guermantes-ko Jaunak ihardesten zuen paper bat sinatzen dutenak edo « aithortzen dut » diotenak baizik kondenatu behar ezpalire, traditzeko gaixtaginkeria nehoiz elizatekeela zigortua izan. Baina berriz hortara itzultzeko aldia ukaiten ezpanu ere, hemen ezarriko dut Guermantes-ko dukeak, bi urte berantago, Caillaux-en kontra izaita garbienaz sustatua, armadako buruzagi-lagun angeles bat eta haren emaztea aurkitu zituela, haiekin adixkidetu zen senarr-emazte bereziki leteradunak, Dreyfus aferako aroan hirur andere xoragarriekin bezala; eta, lehenbiziko egunean berean, balditua izan zela, haren kondenamendua segur eta gaixtaginkeria agerian zirela estimatzen zuten Caillaux-ez mintzatzean, senarr-emazte leteradun xoragarriaren entzutean erraiten: « Baina itxura guzien arabera xuritua izanen da, ezta den gutienekorik haren kontra. » Guermantes-ko Jauna entseatu zen erraitera Norpois-ko Jaunak, auzian zin eginez, Caillaux harrituari behatuz errana zuela: « Frantziako Giolitti-a zira, bai, Caillaux Jauna, Frantziako

Giollitti-a zira. » Baina senarr-emazte leteradun gixakoek irriño egina zuten, Norpois-ko Jauna irriegingarrira itzulia, haren ttupiduraz lekukotasun batzu emanak, eta bururatua erranez « Caillaux Jaun harrituaren aitzinean » errana zuela hori, Figaroak zionaz, baina egiazki izaitekotz Caillaux Jaun maltzuraren aitzinean. Guermantes-ko dukearen aburuek etzuten aldatzeko luzatu. Emazte angeles baten eraginari aldatze horren emaita ezta iduriko ukanen zuen bezain ohigabekoa, 1919-etik ikusia izana baliz ere, orduan Angelesek ezpaitzituzten Alemanak « Hunak » baizik deitzen eta ogendunen kontra kondenamendu ezin bortitzago bat galdegiten baitzuten. Haien aburua ere aldatua zen, aitzinean Frantzia trixtatzen eta Alemania lagutzen ahal zuen deliberamendu oro hetaz onhartua zelarik.

Charlus-ko Jaunaren gana itzultzeko: « Baina bai, ihardetsi zuen hartzen enuelako ene aithorrari, baina bai: « jakitea » Norpois-en artikulue-tan ethorkizunaren seinalea da, erran nahi da Norpois-en gutizien seinalea eta gu guzien gutiziena ere, gaineratu zuen ez behar bada zintzotasun oso batekin. Hartzen duzu bada « jakitea » ethorkizunaren seinale xoilak bilakatua ezpaliz, aditzaren egilea erresuma bat izan daitekeela hartuko ahal izanen zela azkenean. Behazunez Norpois-ek « Amerikak elakike zuzenbidearen hauste errepikatu horien aitzinean axolagabea egoiten », « biburuetako monarkiak elakike amor emaitera jiteari huts egiten » erraiten duen aldi oroz, argi da erranaldi horiek Norpois-en nahikariak emaiten dituztela (eneak, zureak bezala), baina azkenean hor, aditzak hala ere bere erran-nahi zaharra atxik dezake oraino, ezen erresuma batek « jakiten » ahal du, monarkia « biburuetakoak » berak « jakiten » ahal du (beterieko « zikologia eskasa » ukanik ere). Baina dudarik ezin da gehiago ukan Norpois-ek idazten duenean « Xehakatze orotako horiek elakikete alderdigabekoer sinets-arazten », « Aintziretako herrialdeak elakike ephe laburrez Elgartuen eskuetara ez erortzen », « bozkatzeko alderdigabetzale horiek elakikete herriaren aburu nagusiaren itxuratzeko ». Segur da bada xehakatze horiek, herrialde horiek eta bozkatzetako ondorio horiek « jakin » ezin dezaketeko gauza bizigabe batzu direla. Erranbide hortaz Norpois-ek alderdigabekoer emaiten daue bakarrik bere ez alde ez kontra izaite hortarik jalgitzeko manua (eztutela iduriz horri obeditzen ohartzeaz urrikian bainiz) eta Aintziretako herrialdeari ez gehiago « Boxen

» eskuan izaitekoa (Charlus-ko Jaunak emaiten zuen « Boxe » hitzaren ahozkatzean lehenago Balbec-eko treinan gostua emaztendako eztuten gizonez mintzatzeko zuen ausartasun mota bera). Bertzela ere, ohartu zirela Norpoisek beti nolako maltzukeriekin hasiak dituen, 1914-tik beretik, alderdigabe-koendako artikulua? Hasten da erranez segurki, Frantziak eztuela Italiako (edo Errumaniako edo Bulgariako eta b.) politikan sartze beharrik. Erresuma handi horier dago, bakar-bakarrik, beregaintasun osoan eta herriaren abantailari baizik ez behatuz deliberatzea, behar dutenez ala ez alderdigabe egotetik athera. Baina artikuluko lehen hitz horiek (lehenago etsorta deituko zena) hoin abantail nahigabeak baldin badira, jarraikitzen dena gehienetan biziki gutiago hala da. « Bizkitartean, dio gero laburtuz Norpoisek, argi da guduko abantail gauzazko bat bilduko dutela bakarrik Zuzenbidearen eta Justiziaren aldera jarriak izanen diren erresumek. Ezin igurika daiteke Elgartuek sarizta ditzaten, mendez geroz handik haien anaia menperatuen auhena igaiten den herrialdeak haier emanez, bere ezpata, indar ttipieneko legearen araura, Elgartuen zerbitzuan ezarri eztuten jendaldeak. » Arte sartzerako lehenbiziko urhats hori eginik, jeusek eztu gehiago Norpoisek geldiarazten; eztitu bakarrik artera sartzeko ideiaz baina aroaz aholku gero eta gutiago gorde batzu emaiten. « Egiki, dio berak « apostolu ona » leritzokeena eginez, Italiari, Errumaniari dago, bakarrik, egoki den orduaz deliberatzea eta barne sartzeko egoki izanen den moldeaz. Ezin daitezke alta duda-mudan sobera egonez orduaren joaitera uztea irriskatzen dutela jakin gabe izan. Jadanik zaldizko errusoen kaskoek ikhara-arazten dute lazta ezin erran batez hertsatua den Germania. Ageria da bada, haren goiz distiratuia jadanik ikusten den garhaipenaren laguntzera joaitea baizik egina ukanen eztuten jendaldek, eztutela lehiatuz oraino ukan dezaketen sari hortako dretxorik batere ukanen eta b. ». Antzokian bezala da erraiten denean: « Gelditzen diren azken lekuek eztute hartuak izaiteko beranduko. Berantiarer abisu! » Arrazoinamendu are gehiago zozoa nun Norpoisek sei ilabete guzietz berregiten baitu, eta Errumaniari aldika erraiten: « Errumaniarendako bere nahikunde herritarak gauzatu nahi dituenek ala ez jakiteko ordua ethorria da. Igurika beza oraino, berantegi izaiteko irriskua da. » Hori egiten duen hirur urtez geroztik bada, « berantegi » hori ezta bakarrik ez ethorri, baina Errumaniari egiten

diren eskaintzen gotortzetik eztira gelditzen. Berdin ere Frantzia eta bertzeak erresuma handi gerizatze bezala Grezian sartzea gomitatzen ditu, Grezia Zerbiari lotzen zuen hitzarmena atxikia izan eztelakotz. Bada, onez onean, Frantzia gerlan izan ezpaliz eta Greziaren laguntza edo alderdigabe izaite onginahia agiantzatzen ezpalu, erresuma gerizatze bezala sartzeko ideia ukan lezakea? eta jazartzera ekharzen duen sendimendu morala Greziak Zerbiarekilako agiantza atxiki eztuelakotz, eztea ere ixiltzen Errumaniak eta Italiak egin duten hauste berdin ageriaz ari den orduko, hauek ezpaitutze, uste dut arrazoinekin, Greziak bezala ere, Alemaniarekin elgartuen eginbideak, erraiten den baino gutiago baitezpadakoak eta hedatuak, bete? Egia dena jende oro bere egunkarietarik ikusten dutela da, eta bertzela nola egin lezake aiphu diren jendeak eta gertakariak berez ezagutzen eztitutzenaz geroz? Hain bitxiki suhartzen zinduen Aferako demboran, hartarik mende batzue berexiak girela erraitea onhartua den aro batean, gerlako filosofoek sinetsarazia baitute iraganarekilako lotura oro moztua dela, ofensatua nintzan ene familiako jende batzuen ikustean bere egunkariak Dreyfusen kontrakoak bezala erakutsiak zezteen komun-aldetiar ohi aphezen etsai batzuer bere estimu guziaren emaiten, eta jeneral ongi sortu eta katolikoa baina auzi berritzearen aldeko baten hastiatzen. Eniz gutiago hala Frantzes guzien ikustean ohoratzen zuten - arrazoinekin diotzut, nik ainitz ezagutu baitut eta eni «gusi» erraitea onhartzen baitu - François-Joseph enperadorearen gaitzesten. Ha! gerlaz geroztik eztaukot izkiriatu, gaineratu zuen ezin erasia zaitekeela biziki ontsa bazakien huts bat atrebituki aithortuz bezala. Bai, lehenhiziko urtean, eta aldi bakar bat. Zer nahi duzu, horrek eztu harendako dutan errespetuari jeus aldatzen, baina baditut hemen ahaide gazte batzue gure lerroetan gudukatzen direnak eta osoki gaizki aurki lezaketanak, hori badakit, eskutitzeria jarraiki bat atxik dezatan gurekin gerlan den erresuma bateko buruzagiarekin. Zer nahi duzu? kritika nezala nahi duenak, gaineratu zuen ene erasiene ukaiteko irriskuan atrebituki jarritz bezala, Charlus izenpetu eskutitz bat orai Vienara hel ladin eztut nahi ukan. Monarka zaharrari igor nezokeen kritika handiena hau da: haren lerroko jaun batek, Europako etxe zaharren eta omen handienekoetarik baten buruzagiak, bere burua utzia ukan dezan jaunxka hortaz, bertzela ere biziki adimenduna, baina azkenean Gillome Hohenzollern-go

bezalako heldu berri xoil batez eremaitera. Ezta gerla huntako araugabetasun gutienik ofensagarrienetarik bat. »

Eta aitorensemegoko ikuspegian berriz jartzen zen orduko, harendako ororen buruan guzia horrek manatzen zuelakotz, Charlus-ko Jauna ohigabeko haurkeria batzuetara baitzoan, erran zautan, Marne-az edo Verdun- ez mintzatuko zizatan doinu berean, gauza batzu bazirela baitezpadakoak eta biziki bitxiak gerlako ixtorioaz idatziko zuenak bazterrera utzi behar ukanen etzituenak. « Horrela, erran zautan, behazunez, jende guzia hain da ezjakina nun ezpaitu nehork gauza hoin seinalatuaz oharr-arazi: Malte-ko ordenako nagusi handiak, boxa huts bat denak, Erroman bizitzen jarraikitzen du hala ere han, gure ordenuko nagusi handi bezala, erresumez kampo izaiteko eskubideaz gozatzen baitu. Ohargarri da », gaineratu zuen, « Ikusten duzu ni aurkituz eztuzula zure arratsaldia galdu » erraiten balaut bezala. » Eskertu nuen eta saririk nahi eztuen norbaiten itxura xumea hartu zuen. « Zer erraiten ari nitzazun bada? Ha! ba, jende orai François-Joseph hastiatzen zutela, bere egunkariaren arabera. Greziako Constantin erregez eta Bulgariako kzarrendako, publikoa zalantzan egon da, aldi batzuetan, gorromioaren eta adixkidantzaren artean, aldizka erraiten baitzen Elgargoaren edo Brichot-ek Imperio erdikoak deritzeenen alde jarriko zirela. Brichot-ek noiz nahi « Venizelos-en orenak joren du » errepikatzen daukunean bezala da hori. Venizelos Jauna estatu-gizon gaitasunez bete bat dela eztut dudatzen, baina nork erraiten dauku Greziarren Venizelos hoinbertzetarano nahi dutela? Nahi zuen, diogutenaz, Greziak Zerbiaren alderako bere agintzak atxik zitzen. Jakin behar lizateke oraino agintza horiek zer ziren eta Italiak eta Errumaniak hausten ahal zituztela uste ukan dutenak baino hedatuagoak zirenez. Greziak bere hitzarmenak egiten eta konstituzioa errespetatzen dituen moldeaz badugu axola bat gure abantailetan ezpaliz ukanen ezkinuena. Gerla izana ezta dila, uste duzua « berme » diren erresumak Gambaren barreatzeaz ohartuko zirela ere? Badakusat bakarrik Greziako erregeri zurkaitzak banaka ekhentzen zazkola kampa egotzi edo preso hartu ahal ukaiteko haren zaintzeko gehi- go armadarik izanen ezten egunean. Erraiten nautzun publikoak eztituela Greziako errege eta Bulgariarren errege gazeten araura baizik jujatzen. Eta nola lezakete hetaz goga gazetetz bertze molde batean, ezagutzen eztituztenaz

geroz? Nik ainitz eta gehiago ikusiak ditut, ainitz ezagutu dut, diakoka zenean, Greziako Constantin, mira bat hutsa baitzen. Uste ukan dut beti Nicolas emperadoreak gaitzeko sendimendu bat ukana zuela harendako. Onez onean, erran gabe doa. Christian prinzesak agerian aiphatzen zuen, baina phozoin bat da. Bulgariarren kzarraz den bezainbatean, ematxar bat hutsa da, egiazko afixa bat, baina adimendu handikoa, gizon miragarri bat. Biziki maite nau. »

Charlus-ko Jauna, hainbat goxagarri izan zaitekeena, gauza horietan hasten zenean hastiagarri bilakatzen zen. Hortan ezartzen zuen beti eta beti bere osasun onaz mintzo zaizun eri baten baitan jadanik okaztatzen duen satifamendua. Beti uste ukan dut Balbec-eko treinxkan, beti baztertzen zituen aithormenak hainbat agiantzatzen zituzten leialek, bitxikeria baten erakutsinahi mota hori etzutela behar bada jasaiten ahalko eta, ez ontsa sendituz, eri gamera batean edo bere xiringa zure aitzinean athera lezakeen morfina-hartzale baten aitzinean bezala hatsa gaizki hartuz, hek berek zitutzela ustez gutiziatzen zituzten segeretu aithortzeak geldituko. Gainera, hartan barne zela alta jakina zen eta bertzeak hain gogotik han ezartzen zituen mota berezitik bere burua baztertzen zuen baten ganik mundu guziaren salatzen entzuteaz, eta itxura guzien arabera ainitzetan phorogantzarik batere gabe, okaztatua izaiten zen. Azkenik, hark, hain adimenduna, hortako filosofia ttipi hertsu bat egin zuen (haren zolan baitzen behar bada Zuanek « bizian » aurkitzen zituen bitxikerietarik lipar bat) guzia arrazoin berezi horien bidez argituz eta hartan, norbait bere hutsera erortzen den aldi oroz bezala, etzena bakarrik bera baino beherago, baina bere buruaz ohigabeki askietsia. Horrela zuen ukan, hark hain seriosa, hain noblea, irriño ñukuena erranaldi hunen bururatzeko: « Mota bereko uste azkar batzu baitira Cobourg-eko Ferdinand-endako Gillome Emperadorearen aldera, Ferdinand kzarra « Imperio hartzalen » alde jarria delako arrazoina hori izan laiteke. Orogen buruan bada, biziki adigarri da, arreba batendako barkakor izaiten da, jeus etzako ezesten. Alemania eta Bulgariaren arteko batasunaren argibitzeko aski pollit lizatekeela iduritzen zata. » Eta argibide zozo hortaz Charlus-ko Jaunak luzaz irri egin zuen zinez biziki antzekoa aurkitua ukan balu bezala: egia batzuetan oinarritua izana baliz ere, argibide hori Charlus-ko Jaunak

gerlaz egiten zituen gogamenak bezain haurkeriazkoa zen, feodal bezala edo Jondoni-Johane Jerusalengo zaldun bezala jujatzen zuenean. Ohar zuzenago batekin bururatu zuen: « Ustegabetzekoa dena, erran zuen, horrela gizonetz eta gerlako gauzez gazetatarik baizik jujatzen eztuen publiko hori bere baitarik jujatzen duela segur dela da. »

Hortan Charlus-ko Jaunak arrazoin zuen. Forcheville-ko Andereak zituen ixileko eta duda-mudako epheak ikusi behar zirela erran dautate, nork bere aburu baten, ez bakarrik erraiteko baina moldatzeko behar diren bezalakoa, sendimendu min baten doinuarekin erran baino lehen: « Ez, Varsovia hartuko dutela eztut uste »; « bigarren negu bat iragan ahalko dugula etzait iduritzen »; « nahi enukeena, bake maingu bat da »; « izitzen nauena, erran dezatzutan nahi baduzu, Gambara da »; « bai, uste dut hala ere aitzinera egin dezakegula. » Eta horren erraiteko Odette-ek itxura faxointsu bat hartzen zuen ezin urrunago bazeramana erraiten zuenean: « Eztut erraiten armada alemanek eztutela ontsa gudukatzen, baina eskas dutena kalapioa deritzotana da. » « Kalapioaren » (eta ere xoilki « bixitasunaren ») ahozkatzeko bazegien eskuaz orhatzeko jestua eta begiez landegiko hitz bat derabilan margolari gazte batek dagien begi klixkatzea. Haren mintzarak bizkitartean, lehen ere baino gehiago, bazadukan Angelesendako zuen mirestearen hatza, ezpaitzen lehen bezala « Mantxaz haraindiko gure adixkideak » heien deitzera bortxatua, edo gehien-gehienik « gure adixkide Angelesak », baina « gure elgartu leialak ». Eztu balio erraitea noiz nahi fair play itzuliaren aiphatzea etzuela huts egiten Angelesek Alemanetan ikustate gabeko jokari batzu aurkitzen zituztela erakusteko, eta « behar dena gerlaren irabaztea da, gure elgartu bihoztunek dioten bezala ». Gehien-gehienik bere suhiaren izena lotzen zuen aski moldegaizki soldado angelesak hunkitzen zituen guziari eta harek Australiarrekin, Eskoziarrekin, Neo-Zelandarrekin eta Kanadiarrekin etxekotasunean bizitzean aurkitzen zuen atseginari. « Saint-Loup ene suhiak ezagutzen du orai tommies bihoztunen azpi-erdara, dominions urrunenekoek bere buruaren adi-arazten badaki eta, abiagunean manatzen duen jeneralarekin bezain ontsa, private xumerenekin anaiatasunean da ».

Forcheville-ko Andereaz den arte-hitz hunek, Charlus-ko Jaunaren ondoan karrika handietan jausten nizan batean, bertze bat haizu utz dezatala,

luzeagoa oraino, baina aro haren erakusteko baliagarria, Verdurin Anderearen eta Brichot-en arteko harremanez. Alabaina, Brichot gaizoa horrela urrikal-mendurik gabe jukatua baldin bazen Charlus-ko Jaunaz (hau biziki xorrotxa zelakotz eta aldi berean guti edo aski ohargabea germanofila), oraino gazkiago erabilia zen Verdurindarrez. Dudarik gabe hauk alderdikariak ziren, horrek Brichot-en artikuluetan laket-arazi behar ukanen baitzituen, artikulak ezpaitziren ere bertzalde Verdurin Andereak hetan atsegin hartzen zuen ainitz idazkien azpikoak. Baina lehenik orhoitzen da behar bada Raspelièreean jadanik, Brichot Verdurin-darrendako, lehenago uste ukana zuten gizon handitik, Saniette bezalako trufagaia ezpada, bederen haien nausa doi-doi maskatuen gaia bilakatua zela. Ordu hartan bederen leialen artean leial bat gelditzen zen, horrek batasun ttipiko ide oinarritzale edo elgartu guziendako ixilean deliberatuak ziren abantailatarik zati bat segurtatzen baitzaukon. Baina, gerlari esker behar bada, edo hain luzaz gibelatu, baina haren beharrezko osagailu hain aspaldidanik ezin ikusiak geldituek Verdurin-darren saloina aspaldidanik bete-betetzen zuten aphaintasun baten krixtailtze lehiatuaz, saloin hori mundu berri batera idekirik izana zen eta leialak, lehenik mundu berri hortako amuzkiak, azkenean gero eta gutiago gomitaturik izanak ziren arau, ara berdineko gauza bat gertatzen zen Brichot-endako. Sorbona izan arren, Institut-a izan arren, gerlarano haren omenak etzituen Verdurin saloinaren mugak iraganak. Baina hasi zenean abantzu egun oroz leialen artean hain usu ixurtzen ikusi den dirdira falsu hartaz aphaindu artikulua batzuen idazten, bertze alde batetik zinezko jakitate batez aberatsak eta egiazko sorbonatar bezala gordetzea bilatzen etzuenaz, zein itxura jostagarriez ingura bazezan ere, « mundu handia » garbiki lilluratua izan zen. Aldi batendako hunek bere fagorea hetan ezartzen zuen ezteusetarik bat izaitetik urrun zen bertzela ere eta norbaiten baitan bere adimenduaren emankortasunaz eta orhoitmenaren ahalez oharpena atxik zezakeen. Eta hirur dukesa arratsaldia-
ren iragaitera Verdurin Anderearen etxera zoazen batean, bertze hirur etxean gizon handi baten ukaiteko ohoreaz burkidegoan ziren, hunek baten etxera joaitea onhartzen baitzuen, are gehiago libro sendituz nun Verdurin Ande-
reak, haren artikuluek Saint-Germain bazter-hirian aurkitzen zuten arrakas-
tez sumindua, etxean ehoiz Brichot-en ez ukaiteari ohar emaiten baitzuen

oraino ezagutzen etzuen eta haren erakartzera lehiatuko zen norbait distiratuak han gertatu behar zuenean. Horrela zuen gazetalaritzak (Brichot-i aski zizakon hartan, oro har, ohoreekin eta lan-sari miragarri batzuen ordainez, bizi guzian urrik eta segetuan Verdurin-darren saloian xahutua zuen guziaren berantean emaita, artikuluek ezaitezakoten, hain zen elhakar eta jakintsun, bere solasek baino gehiago gostatzen) Brichot ospe ezin ukatu batera eremanen, eta ordu batez iduritu zen ere eremaiten zuela... Verdurin Anderea izan ezaiz. Eiki, Brichot-en artikulua urrun ziren jendeak uste zuen bezain ohargarriak izaitetik. Gizonaren arruntasuna ordu oroz agertzen zen leteradunak zuen jakintsunkeriaren azpian. Eta ezer erran nahi etzuten itzuli batzuen ondian (« Alemanek ezaite gehiago Beethoven-en gizaiduriari aitzinetik so egin ahalko; Schiller ikharatu dateke bere hil-hobian; Belgikaren alderdigabea sinatu zuen urbeltza etzen oraino idortua; Lenine mintzo da, baina haizeak bertze hainbertze baderama »), baziren arrunkeria batzua hala nola: « Hoge mila preso, ainitz da; gure buruzagitaldeak begiaren idekitzen jakinen du, eta onaren; garhaitu nahi dugu, horra guzia. » Baina, horri guziari nahasirik, hainbertze adimendu, arrazoinamendu hain zuzenak!

Verdurin Andereak bada nehoiz etzuen Brichot-en artikulua bat hasten hartan gauza irrieginarri batzua aurkituko zituela gogatzeko satifamendua aitzinetik ukan gabe, eta oharpen indartuenarekin irakurtzen zituen huts eginen etzituela segur izaiteko. Batzua bazirela bada ondikotz segurra zen. Hek aurkitu ukaitea ere etzen igurikatzen. Idazle zinez guti ezaun baten aiphamena, Brichot-ek hartara hel egiten zuen lanean bederen, jakintsunkeria ezin jasanenaren phorogu bezala ogendatua zen, eta Verdurin Andereak ezin egonean auhal-ordua igurikatzen zuen bere gomiten irri-karkailen libratzeko. « He bada, gaurko Brichot-az zer errana duzu? Gogoan ukana zitut Cuvier-en aiphamenaren irakurtzean. Ala fe, uste dut erotzen ari dela. - Eztut oraino irakurria, zion Cottard-ek. - Nola, eztuzu oraino irakurria? Baina zein atsegin goxoak baztertzen dituzun ezaiz. Urratzeko irrieginarri da. » Eta, norbaitek oraino Brichot-a ez irakurria ukaiteaz ororen buruan askietsia berak irrieginarri horien argira emaiteko aldiaren ukaitekotan, Verdurin Andereak mahi-nagusia erraiten zaukon Le Temps ekhar zezan, eta irakurtzea berak goratik egiten zuen erranaldi xoilak hanturarekin jo-araziz. Auhal-

ondoan, arratsaldi osoan, Brichot-en kontrako gerla hori jarraitzen zen, baina alegiako begirune batzuekin. « Eztut goregi erraiten hantxetan, zion Molé kondesa erakutsiz, hori aski miresten dela beldur bainiz. » Molé Andereak, aski gora mintzatuz hartaz mintzo zirela entzun-arazi nahi baitzizakon, mintzo aphaltze batzuez entzun zezan etzela nahi ukanen erakusteko indar egiten zen batean, Michelet-en heinean ezartzen zuen Brichot herbailki arnegatzen zuen. Verdurin Andereari arrazoin emaiten zaukon eta, ezin ukhatua iduritzen zizakon zerbaitetik bururatzeko bizkitartean, bazion: « Ezin ekhen dakidiona, ontsa idatzia dela da. - Ontsa idatzia aurkitzen duzu hori, zuk? zion Verdurin Andereak, nik urde batek bezala egina dela aurkitzen dut », munduko jendeari irri egin-arazten zaukon ausartzia; are gehiago nun Verdurin Andereak, urde hitzaz bera ohildua baliz bezala, murmurikatuz ahozkatua baitzuen, eskua ezpainetara emanik. Brichot-en kontra zuen erabilia are gehiago handitzen ari zen nun hunek bere arrakastaz satifamendua xintxoki erakusten baitzuen, debekatzeak bere baitan sortzen zaukon omore gaixtoa izanik ere, etzela sobera unibersitaria erakusteko hitz berrien erabiltzeko bere ohidurarekin zion bezala, haren artikuluko zati bat « kabiardatua » zuen aldi oroz. Haren aitzinean Verdurin Andereak, gizon ohartiago bat abisatuko zuen mutiritasun batez salbu, etzuen « Chochotte »-ek izkiriatzen zuenaz bere estimu gutia gehiegi agertzera uzten. Aldi batez bakarrik erasiatu zuen « ni » hain usu idazten zuelakotz. Eta bazuen alabaina gelditu gabe horren idazteko ohidura, lehenik, erakasle ohi bezala, beti erabiltzen baitzituen « nik onhartzten dut » bezalako erran-molde batzu, eta ere « nahi dut bada », « nahi dut »: « Nahi dut gudugunetako hedatze gaitzekoa, eta b. »; baina oroz gainetik, gerla baino ontsa lehenago gerlaren apailamendu germaniarra usnatzen zuen Dreyfusen kontrako alderdikari izanaz, gertatua baitzen ainitzetan izkiriatzen: « 1897-tik beretik salatua dut »; « 1901-ean iragarri dut »; « gaurregun ezin gehiago bekandua den liburuxkan (habent sua fata libelli) seinalatu dut », eta gero ohidura gelditua zizakon. Doinu samin batean egin zizakon Verdurin Anderearen oharraz azkarki gorritu zen. « Arrazoin duzu, Anderea. Jesuistak Combes Jaunak baino gehiago maite etzituen norbaitek, huts ezipadagit ... Uholde aitzinean ene kontrakoa izan zen Anatole France, dudakortasunean gure nagusi eztiaren aitzin-solasik ukan ezipadu ere, Nia hastiagarri dela errana du. » Ordutik Brichot-ek dut da-z ordaindu zuen, bai-

na idazlea bere buruaz ari zela ikustea irakurleari etzizakon debekatzeko, eta idazlea bere buruaz mintzatzen ez gelditzera utzi zuen, den erranaldi ttipienaren aztertzerako, « ez » bakar batez artikulua baten egitera, beti da-ren gerizari. Behazunez Brichot-ek, bertze artikulua batean bazen ere, armada alemanek bere baliotik galdua ukaiteaz errana zuena, hunela hasten zen: « Hemen egia ezta gordetzen. Armada alemanek bere baliotik galdua zutela erran da. Ezta etzutela gehiago balio handi bat erran. Are gutiago da etzutela baliorik batere idatziko. Ezta erranen ere irabazi den eremua, ezpaldin bada eta b. » Hots, errana etzuen guziaren aiphatzean bakarrik, zuela zenbait urte errana zuenaz orhoit-araztean, eta Clausewitz-ek, Jomini-k, Ovidio-k, Tyane-ko Appoloniuz-ek eta bertzek zuela zenbait mende errana zutenaz, Brichot-ek errex egin ahal ukana zuen liburu gotor baten gaia. Eztuela argiratu urrikitzeko da, artikulua hain mamitsu horiek ezin aurkituak baitira. Saint-Germain bazter-hiria, Verdurin Andereak eskolaturik, Brichot-ek irri egiten hasi zen haren etxean, baina, behin batasun ttipitik jalgi eta, Brichot-en miresten jarraiki zuen. Gero haren trufatzea moda bat bilakatu zen mirestea izana zen bezala, eta haren artikulua irakurtzen zutenean segetuetan gogo eratxikitzen jarraikitzen zituen andereak berak, gelditzen ziren eta bakarrik etziren orduko irri egiten zuten, bertzeak baino gutiago xorrotzak zirela ez iduri ukaiteko. Batasun ttipian nehoiz etzen aro hartan bezainbat Brichot-ek mintzatu, baina nausaz. Jin berri ororen adimenduko erizpidetzat Brichot-en artikuluez gogatzeko zuena hartzen zen; lehen aldian gaizki ihardesten bazuen, jendeak adimendunak direla zertarik ezagutzen den hari erakatea etzen huts egiten.

« Azkenik, adixkide gaixoa, hori guzia laztagarri da eta deitoratzeko eztitugu gehiago artikulua aspergarri batzu baizik. Andeatzalekeriaz mintzo dira, gizaiduri suntsituez. Baina hoinbertze gizon gazte miragarrien suntsitzea, margo ainitzetako gizaiduri paregabeak baitziren, eztea ere andeatzalekeria? Gizon ederrik ukanen eztuen hiri bat eztea hartan gizaiduri guziak suntsituak izanen ziren hiri bat bezala izanen? Zer atsegin ukan dezaket auhaltzeko ostatura joaiten han Didon Aitaren egitea duten jostalari zahar haguntsu batzuez zerbitzatua nizanen, Duval saldategian sartua nizala sinets-arazten dautaten emazte kornetadun batzuez ezpada? Zin-zinez, gaixoa,

eta horrela mintzatzeko eskubidea badutala uste dut Ederra gai bizidun batean Ederra delakotz hala ere. Atsegin handia, jende makal batzuez zerbitzua izaitea, betorde batzuekin, soldado zerbitzutik libratuak direla haien begitartean irakurtzen baita! Lehen beti gertatzen zenaren kontra, ostatu batean begiak nahi badira ontsa den norbaiten gainera eman, ezta gehiago mutilen artera so egin behar, baina jan-edaletara. Baina zerbitzale bat berriz ikus zaitekeen; zoaz bada behar bada lehen aldian jiten den eta bihar hila izaiten ahal den lotinent angeles hori noiz itzuliko den jakitera! Poloniako Auguste-ek, Morand xoragarriak, Clarisse-en egile ezin goxoagoak khondatzen duen bezala, bere erreximenduetarik bat murko xinatar bilduma batekin ordainkatu zuenean afera txar bat egin zuen ene ustez. Gogoari emazu bi metra gora ziren eta gure andere adixkiden mailadi gaitzekoak aphaintzen zituzten mutil-jantzi handi horiek guziak hil izan direla, gehienak engaiaturik gerlak bi ilabete etzuela iraunen errepikatzen zizeelakotz. Ha! etzakiten nik bezala Alemaniaren indarra, arraza prusiarraren bertutea », erran zuen ohargabea. Gero, bere ikuspegia agertzera sobera utzia zuela ohartuz: « Eniz Frantziarendako Alemaniaren beldur, gerlaren beraren bezainbat. Gibelego jendek asmatzen dute gerla gaitzeko ukhabil-joko bat dela bakarrik, urrundik ikusten dutena, egunkarier esker. Baina ezta batere berdin. Eritasun bat da, alde batean garhaitua dela uste denean, bertze batean berriz hasten dena. Egun Noyon liberatua izanen da, bihar ezta gehiago ez ogirik ez xokoletik izanen, etzi ontsa geldian uste zena eta beharrez asmatzen eztuen bala bat onhar zezakeena, egunkarietan haren klasa deitua dela irakurtzean erotuko da. Eraikuntzez den bezainbatean, kalitatez Reims bezalako nagusi-lan bakar bat ezta haren itsabasteak hainbertze laztatzen nauena, oroz gainetik Frantziako den herrixka ttipiena eraskaskarri eta xoragarri egiten zuten hainbertze multzo bizidunen suntsitzea da. »

Berehela Combray gogoratu zizatan, baina lehenago ene familiak Combray-n zuen izanara ttipia aithortuz Guermantes-ko Anderearen begietan neure burua ttipitzen nuela uste ukana nuen. Galdez nindagon ez ote zenez Guermantes-tarrer eta Charlus-ko Jaunari agerturik izana, ala Legrandin-ez, ala Zuanez, ala Saint-Loup-ez, ala Morel-ez. Baina errangabe hori bera gibelera behatzuko argipen horiek baino gutiago mingarri zen enetako.

Agiantzatu nuen bakarrik Charlus-ko Jaunak Combray aipha etzezan.

« Eztut Amerikarrez gaizkirik erran nahi, Jauna, ezin agortuki esku-zabalak omen dira, eta gerla huntan ezpaita orkeztrako buruzagirik, bakoitza jantzara sartua baita luzaz bertzearen ondotik, eta Amerikarrak guk abantzu bururatua ginuenean hasi baitira, gutan laur urte gerlek jabaldu ahal duten suhartasun bat ukan dezakete. Baina gerla aitzinean gure erresuma maite zuten, gure ederlanda, gure nagusi-lanak biziki khario ordaintzen zituzten. Ainitz haien herrian dira orai. Baina hain zuzen bere erroetarik urrundu ederlan hori, Barrès Jaunak erran lezakeen bezala, Frantziako goxagailu ezin hobe egiten zuenaren osoki kontrakoa da. Jauregiak argitzen zuen eliza, hunek berak, beila leku bat izana zelakotz, egintza kantua argitzen zuen. Ene ethorki eta ahaidegoen aiphamena eztut behar gehiegitu, eta bertzela ere ezkira hortaz ari. Baina berriki, intresetako gauza baten bururatzeko, eta senarr-emazte 'ta ene artean baden hozte bat izanik ere, behar ukan dut ber-riz Combray-n bizi den ene andere iloba Saint-Loup-i ikustaldi bat egin. Combray hainbertze baden bezalako hiri ttipi-ttipi bat baizik etzen. Baina gure arbasoak emaille bezala itxuratuak ziren eliza-berina batzuetan, bertze batzuetan gure harmeriak grabatuak. Eliza hori Frantsesek eta Angelesek barreatu dute Alemanendako behatokitizat baliatzen zelakotz. Frantzia zen ixtorio zahar eta ederlaneko nahaste hori guzia suntsitzen ari da, eta ezta bururatua. Eta erran gabe doa, familiako arrazoin batzuen gatik, Combray-ko elizaren eta Reims-ko kathedralearen hondamenduaren erkidatzeko irriegin-garria ezta enea, hau arozaharreko gizaideriaren garbitasuna, edo Amiens-koarena naturalki berraurkitzen zuen kathedrale gothiko baten mirakulua baitzen. San Ferminen beso goititua egun hautsia denez eztakit. Hala bada fedearen eta gemenaren baieste goren mundu huntarik itzali da. - Haren itxurapena, Jauna, ihardetsi naukon. Eta zuk bezainbat miresten ditut itxurapen batzu. Baina arrazoingabe lizateke itxurapenari itxuratzen duen egiaren sakrifikatzea. Kathedralearak miretsi behar dira, haien begiratzeko, erakasten dituzten egia ukhatu behar lizatezkeen egunerano. San Ferminen esku goititua manamendu abantzu soldado batenean erraiten zuen: Hautsiak izan gaitela, ohoreak baitezpada nahi badu. Haien ederra hain zuzen egia gizatar batzu ordu batez finkatuak ukaitetik heldu den harri batzuer etzezteezula

gizon batzu sakrifika. - Zer erran nahi duzun hartzen dut, ihardetsi zautan Charlus-ko Jaunak, eta Barrès Jauna, beila sobera egin-arazi daukularik, ondikotz, Strasbourg-eko gizadurira eta Déroulède Jaunaren hil-hobira, hunkigarri eta garaziadun izana da Reims-ko kathedralea bera gure oinezkoen bizia baino gutiago maitagarri zizaikula idatzi duenean. Hitzerran horrek aski irriegingarri egiten baitu gure egunkarietako haserrea han manatua duen jeneral alemanaren eta Reims-ko kathedralea soldado aleman baten bizia baino gutiago baliosa zizakola zionaren kontra. Hori da bertzela ere sumingarri eta deitoragarri dena, erresuma bakoitzak gauza bera erraiten duela. Alemaniako batzarre industrialek Belfort-en jabe izaitea gure ordaintzezko gogoe-tetarik haien erresumaren begiratzeko baitezpadakoa dela erraiteko dituzten arrazoinak, Barrès-enak berak dira Mayence nahi duenean Boxek jaukituz sartzeko dituzten nahikarietarik gure begiratzeko. Zergatik zako Frantziari Alzazia-Lorrenaren itzultzea gerlaren egiteko ez aski iduritu, baina gerlan jarraikitzeak aski, eta urte bakoitz berriz deklaratzeko? Garhaipena engoitik Frantziari hitzeman delako uste duzula iduri duzu, bihotz guziaz agiantzatzen dut, etzazula duda. Baina azkenean, zuzenez ala arrazoinaz, Elgartuak garhaitzeaz segur uste dutenez geroztik (neure aldetik ondorio hortaz loriatua ninzateke, baina garhaipen ainitz ikusten dut oroz gainetik paperretan, Pyrrhus-en arako garhaipen ainitz errana etzaukun gastu batekin) eta garhaitzeaz Boxak gehiago segur eztirenetik, badakusat Alemania bakera lehiatzen, Frantzia gerlaren luzatzen, zuzenean den Frantzia eta zuzenbideko elhe batzuen entzun-araztean arrazoin duena, baina ere Frantzia ezti dena eta urrikalmenduko elhe batzu entzun-arazi behar lituzkeena, bere haurrendako baizik ezpaliz ere eta uda lehen guziez bersortuko diren liliek argitzeko hil-hobiez bertze zerbait ukan dezaten. Zintzo izan zaite, adixkide maitea, teoria bat egin daukazu kreazione beti ete beti berriz hasi batez baizik izaiterik eztuten gauza batzuez. Munduaren kreazionea ezta behin betikotz aldi batez egin, zinautan erraiten, egun oroz egiten da baitezpada. He bada, fede onekoa baldin bazira, teoria hortarik gerla eztezakezu bazter. Gure Norpois hautekoak izkiria dezake (« garhaipenaren goizaldea » eta « Negu Jenerala » bezain maite dituen erretorikako tresna hetarik bat atheraz): « Orai Alemaniak gerla nahi ukan baitu, jokoa egin da », egin dena goiz bakoitz gerla berriz deklaratzeko dela da. Beraz jarraiki nahi duena hasia duena bezain

ogendun da, gehiago behar bada, lehenbiziko hark ezpaitzituen izigarrikeria guziak aitzinetik ikusi. Jeusek eztu bada erraiten gerla hoinbertze luzatu bat, garhaipenezko bururapen bat ukan behar badu ere, eztela lanjerrik gabe. Aitzinekorik eztuten gauza batzuez mintzatzea neke da eta lehen aldiko entseatzen den egintza batek gorputzean dituen ondorioez. Gehienetan, egia da, hetaz asaldatzen den berrikeriak biziki ontsa joaiten dira. Errepublikatar zuhurrenek uste zuten Elizatik berextearen egitea ero zela. Hori eskutitz bat postan bezala joan da. Dreyfus xuritua izan da, Picquart gerlako minixtro, nehork hitzik erran gabe. Bizkitartean zertaz ezta beldur izan behar urte andana bateko gerla batek bademana bezalako akhidura handiegi batetik! Itzultzean gizonek zer eginen dute, akhidurak hautsiak ukanen ditua ala erotuak? Hori guzia gaizki itzul laiteke, Frantziarendako ezpada, bederen gobernamenduarendako, behar bada ere gobernuaren moldeko.

Irakurr-arazi dautazu lehenago Maurras-en Aimée de Coigny miragarria. Azkarki ustegabetua ninzateke Coigny-ko Aimée zenbaitek Errepublikak badagien gerlaren luzatzetik igurika ezpalezake Imperioak bazagien gerlatik 1812-an Coigny-ko Aimée-k igurikatu zuena. Oraiko Aimée bat baldin bada, haren itxaropenak gauzatuko lizatezkea? Eztut gutiziatzen. Gerlara berera itzultzeko, hasia duen lehenbiziko hura Gillome emperadorea izan dea? Azkarki dudan emaiten dut. Eta hura baldin bada, behazunez Napoleonek egin duenaz bertzerik zer egin du, higungarri aurkitzen dutan gauza, baina Napoleonen insensarier hoinbertze itsuskeria erran-arazten ikustez ustegabetzen nizana, eta gerlaren deklaratzeko egunean Pau jeneralak bezala hau erran dutener: « Bazen berrogei urte egun hunen aiduru nindagola. Ene biziko egun ederrena da. » Jainkoak daki nehork nik baino gorakiago iharduki duenez gizartean nazionalixter, militarixter leku araugabeko bat eman denean, ederlanen adixkide oro aberritarrendako hilgarri ziren gauza batzuetan ari zela salatua zenean, gerlatiar etzen kultura oro kaltekor izanez! Doi-doia zen munduko gizon egiazko batek jeneral baten ondoan baliorik baldin bazuen. Emazte ero batek Syveton Jaunaren gana aitzineratzer nau. Erranen dautazu atxikitsera indar banagienak etzirela erregela mundutarrak baizik. Baina duten itxura arinegia izanik ere, soberakeria ainitz debekatuko zuten behar bada. Gramatika edo logika zaintzen dutenak beti ohoratu ditut. Ohartzen da, berrogei-ta hamar urte berantago, lanjer handi batzu baz-

tertu dituztela. Bada gure nazionalixtak Alemanen hastiale handienak dira, gizonetan bortitzenera emanak. Baina hamabortz urteren buruan haien filosofia osoki aldatu da. Egiaz gerlaren jarraikitza indar egiten dute bada. Baina ezta arraza gerlari baten suntsitzeko baizik eta bakearen amodioz. Ezen gerlara emana den kultura bat, duela hamabortz urte hain eder aurkitzen zutena, hastio dute: eztute bakarrik gauza militarixta bere baitan nagusi ezarria ukanik Prusia gaizkitzen, baina uste dute aro guzietan, kultura gerlariak, ez bakarrik ederlanetan, baina galankerian ere orai baliosa dadukaten guziaren suntsitzale izan zirela. Haien arteko kritikarietarik bat nazionalixmara konbertitua izan dadin aski da aldi berean bakearen adixkide bilakatua izaiteko. Uste du, kultura gerlari guzietan, emazteak egitate xume 'ta aphal bat zuela. Zaldunen « Andereak » ertaroan eta Dante-ren Beatriz Beccue Jaunaren emalehenak bezain tronu gora batean jarriak zatezkeela ihardestera etzazko ausartzen. Beha nago egun hautarik batez iraultzalari erruso baten edo xoilki gerlaren hastioz eta berek duela hamabortz urte bizkorgarri bakarra uste zuten ideal baten atxikitzeaz jendalde baten zigortzeko gerla badagien jeneral baten ondotik mahian ezarria izaitera. Kzar zorigaitzekoa duela zenbait ilabete ohoratua zen oraino La Haye-ko bilzarrea egina zuelakotz. Baina orai Errusia libroa agurtzen denean, haren ospatzera eremaiten zuen arrazoina ahazten da. Horrela itzulikatzen da Munduko Errota. Eta bizkitartean Alemaniak hainbaterano ditu Frantziaren erran-molde berak erabiltzen nun errepikatzen duela sineskarri baita, « izaiteko gudukatzen duela » erraitetik ezta gelditzen. Irakurtzen dutanean: « Urrikalmendurik gabeko etsai abre baten kontra gudukatzen dugu ethorkizuneko jaukitze orotarik segurtatuko gituen bake bat ukanen dugunerano eta gure soldako bihoztunen odola debaldetan ixuria izana eztadintzat », edota: « Guretako eztena gure kontra da », eztakit erranaldi hori Gillome Emperadorearena denez ala Poincaré Jaunarena, ezen, aldakuntza zenbait ezpada, batek eta bertzeak hoge aldiz errana dute, nahiz egia erraiteko aithortu behar dutan Emperadorea aldi hortan Errepublikako Presidentaren imitatzailea izana dela. Frantzia etzen behar bada gerlaren luzatzera hoinbertzetarano atxikia izanen ahul gelditua izan baliz, baina oroz gainetik Alemania etzen bururatza hoin lehiatua izanen azkar izaitetik gelditu ezpaliz. Berdin azkar izaitetik, ezen azkar, oraino hala dela ikusiko duzu.

»

Mintzatzean azkarr-azkarki oihu egiteko ohidura hartua zuen, zaintsueriaz, airekolari bat bere bombez bezala hetaz arindua izan behar zen iduripen batzuetako - ederlanik batere nehoiz ez landua ukanik - atherabide bilatzez, landa baten erdian izanik ere, haren elhek nehor hunkitzen etzuten lekuan, eta oroz gainetik munduan, han nun nahi erortzen baitziren eta handi-ustekeriaz, konfienxiaz entzuna baitzen, eta erran daiteke, hain zituen entzuleak hertsatzen, bortxaz eta ere beldurrez. Gerhiago dena karrika handietan pherediku hori iragailen alderako erdainu seinale bat zen, ezpaitzuen haiendako bidez aldatuko zen baino gehiago mintzoa aphaltzen. Baina han gaizki joiten zuen, eta ustegabetzen, eta oroz gainetik itzultzen ziren jendendako garhaipenaz etsitu batzuendako harr-arazten ahal ginduzten solas ezin adigarri batzu bilakatzen ziren. Charlus-ko Jauna hortaz oharr-arazi nuen, haren irriaren sustatzera baizik heldu izan ahal gabe. « Ontsa jostagarri lizatekeela aithor ezazu, erran zuen. Orogen buruan, gaineratu zuen, batere eztakigu, gutarik bakoitza arrats oroz biharamuneko gertakariaren gaia izaiteko irriskuan da. Hots zergatik eniz Vincennes-ko izaketan tirokatua izanen? Gauza bera gertatua da bada ene osababitxi Enghien-go dukearendako. Odol noblearen egarriak jende xeheria bat erotzen du hortan lehoinak baino xorrotxago agertzen baita. Badakizu ihizi horiendako aski lizatekeela, gainera jauzi egin zezotentzat, Verdurin Andereak sudurrean karamixka bat ukan lezan! » Eta karkailaka irriz hasi zen saloin batean bakarrik izan bagine bezala.

Artetan, Charlus-ko Jaunaren iragaiteak itzaletik jalgi-arazi hala-holako gizon batzuen ikustean hartarik zenbait urhatsetan elgarretara biltzen, galdez nindagon bakarrik utziz gozagarriago izanen nindakonez ala haren ganik ez urrunduz. Horrela erorteko minaren iduriko gaitzaldi usu batzu dituen agure bat aurkitu duena eta haren urhatsaren araugabeaz bat hurbilhurbila datekeela ikusten duena, galdez dago haren han izaita laguntza bat bezala, ala gaitzaldia gorde nahi lakidiokeen lekuko batena bezala agiantzatua denez, eta haren han izaita bera behar bada, gaitzaldiaren baztertzeke geldi osoa aski lizatekeelarik, lehiatzeko aski izanen baita. Baina hartarik baztertu behar denez ala ez eztakigun gertaldia izan daitekeela agertua da, eriaren baitan, gizon mozkor batek bezala egiten dituen itzul-inguruetarik;

Charlus-ko Jaunarendako aldiz, elgarren kontrako egonara horiek, ene han izaiteak gertatzea traba zezakeela beldur zenez ala agiantzatzen zuenez ontsa segur enintzan gertakizun baten seinale, hartuak ziren, ager-joko artex baten bidez bezala, ez zut-zuta zoan baroinaz beraz, baina inguruko itxuratzaile guziez. Hala ere, uste dut nahiago zuela aurkitaldia baztertu, zeharbide batera ereman baininduen, karrika handia baino ilunagora, eta bizkitartean hura erresuma eta harma orotako soldado ixurtzetik gelditzen etzizakonera, ez-paziren alta metan karrika handira jiten: armadara deitzeko lehen orduetan airetegi baten moldean Parisen hutsa egina zuen gizon horien guzien mugara ixurpeneneko uhain-itzultze gaztea, Charlus-ko Jaunarentzat ordainkari eta konsolagarria. Gure aitzinetik iragaiten ziren soldado-jantzi distiratuak mirestetik etzen gelditzen, eta Parisez portu bat bezain mundu osoko hiri bat bazegienaren, margolari baten aphaindura bezain izaite gabea, eraikuntza batzu eztituenean ezarri jantzi ezperdin eta leinurudunenen biltzeko estakuru baizik. Bere errespetu guzia eta atxikimendu guzia garhaipenaz etsitu bezala salatuak ziten andere handi batzuendako atxikitzen zituen lehenago dreyfustiar izaitez salaturik izanak zirenendako bezala. Urriki zuen bakarrik politika egitera aphaiduz « gazetalariei eztabadez » hartzera utziak izan zirelaketz. Haien aldera, jeus etzen aldatua harendako. Ezen haren arinkeria hain zen orotara emana nun jaiotzea, edertasunari eta bertze ospe batzuer baturik, zen gauza iraunkor bakarra baitzen - eta gerla, Dreyfus aferra bezala, moda arrunt eta iheskor bat. Guermantes-ko dukesa tirokatua izan baliz ere Austriarekilako bake bereziko entsegu bezala, beti berdin nobletzat edukiko zuen eta ez Marie-Antoinette buru moztera kondenatua izanik gaurregun agertzen zaukun baino aphaiduago. Ordu hartan mintzatzean, Charlus-ko Jauna, halako Saint-Vallier edo Saint-Mégrin bat bezain noble, zut zagon, tente, ospetsu, larriki mintzo zen, etzuen ephe bateko haren motakoak agertzen dituzten fazoinetarik batere. Bizkitartean, zergatik ehoiz eztaiteke bat izan mintzoa osoki zuzen duenik? Aphaiera gehienik hurbiltzen zen ordu hartan ere, makurra zen oraino eta zuzentzalea behar ukanen zuen. Bertzela ere Charlus-ko Jaunak etzakien hitzez-hitzez buruaz zertara eman, eta ainitzetan goititzen zuen ikusgailurik ez ukaiteaz urrikitan, nahiz guti baliatuko zuen, ezen ohian baino gehiago, gobernuaren begirantza atzarria zuen

bezperagoko zeppelinen jautsaldiaren gatik, soldadoak baziren zeruan ere. Zenbait oren lehenago arrats urdinean mamutxa batzu bezala tita beltzaran batzuen egiten ikusiak nituen airekoak, orai karrikargien zatiz iraungitzeak oraino ilunagotzen zuen gauan iragaiten ari ziren, su-untzi argi batzu bezala. Gizonekilako izar ihesle horiek eman-arazten zaukuten edertasunezko sendimendu handienak oroz gainetik zerura so egin-arazten zaukun, ohiki begiak hara guti goititzen baitira. 1914-an zuen edertasun abantzu gerizapen gabea hurbiltzen ari zen etsaiaren mehatxuaren igurikatzen ikusia nuen Paris hartan, bazen segurki, orai orduan bezala, ilargi bortizki, mixteriozki zohar baten betiereko argi handizki ederra; baina 1914-an bezala, eta 1914-an baino gehiago ere, bertze zerbait bazen oraino, argi batzu ezperdinak, su artekatu batzu, edo aireko horienak, edo Eiffel Dorreko argi-igorgailuenak, jakina baitzen borondate adimendun batek zituela manatzen, Saint-Loupen gambaran, gaztaro betean, egun batez zalantzarik gabe bere sakrifizioa egin baino lehen, hainbertze bihotz sutsu eta hezi ari ziren soldado kalostra hartako gelan sendituak nituen eskerron eta jabaldura mota hura bera sorrarazten zuen, sendimendu mota hura bera emaiten zuen begirantza adixkide batek.

Bezperagoko jautsaldiaren ondotik, zerua, orduan lurra baino inharrosiagoa izana baitzen, itsasoa ekaitz baten ondotik bezala jabaldua zen. Baina, itsasoa ekaitzaren ondotik bezala, etzen oraino bere geldi osora itzulia. Aireko batzu zirrita batzu bezala igaiten ziren oraino izarrekin batzera, eta argi-igorlek bazerabiltzaten emeki, zeru zatikatuan, izar erhauts hits bat iduri, esnebideterratu batzu. Bitartean airekoak bazoazen izar-multzoen erdian jartzera eta « izar berri » horien ikustean bertze borobil-erdi batean uste izanen ahal zen alabaina. Charlus-ko Jaunak erran zautan airekolari horiendako zuen miresmena, eta bere germanofiliari bertze jaidurer baino gehiago libertate osoa eman gabe ezpaitzaitekeen egon, bata eta bertzeak ukhatzen zituen batean: « Badiot ere, egin zuen, gothaetan igaiten diren Alemanak berdin miresten ditutala. Eta zeppelin batzuetan, gogoari emazu zer kuraia behar den! Baina gizandi batzu dira, xoil-xoilki. Zibil batzuetara tiratzen badute zer axola du, bateriek hetara egiten dutenaz geroz. Baterien eta kanoien beldur ote zira? » Ezetz aithortu nuen eta hutsean nintzan behar bada. Dudarik

gabe ene auherkeriak emana baitzautan, ene lanarendako, egunez egun bi-haramunera gibelatzeko ohidura, herioarendako berdin izanen zela iduritzen zizatan. Nolaz izan laiteke egun hartan hunkiko etzituela segur den kanoi baten beldur? Bertzela ere, berezirik moldatuak, bomba egotzietako, gerta daitekeen heriotzeko ideia horiek, etzaukoten aireko alemanen iragaitiaz banagien iduriari tragikorik jeus gaineratu, ikusi ukan nueno, arrats batez, hetarik batetik, ene begiendako zeru nahasi bateko lanhoen uhainez bimbilikatu, zatikatutik, nahiz hiltzale zela banakienetik, izarretakoa eta zerukoa baizik asmatzen enuen airekotik, gutara botatu bomba baten jestua. Ezen lanjer baten egia berezia ezta hautemana izaiten gauza berri, jadanik jakina denera ezin bildua den eta iduripena zeritzon hortan baizik, eta ainitzetan, aldi hortan izan zen bezala, marra batera biltzen dena, xede bat erakusten zuen marra, moldegaitzen zuen egintza baten indar gordea bazuen marra; Konkordiako plazan aldiz, aireko mehatxatzale 'ta bortxatuaren inguruan, eta Champs-Elysées-tako, Konkordiako plazako eta Teilerietako ithurriak hedoietan mirailatuak izan balire bezala, argi-igorgailuen xirrixta argiak zerruan uztaitzen zirelarik, marra xedez beteak ere, xede aitzinetik ikusle 'ta gerizalez, haiendako eskerroneko nintzan gizon boteredun eta zuhur batzue-nez, gau batez Doncières-ko kasernan, haien indarrak zuzentasun hain ederr harekin gure gerizatzeko nekearen hartzea onhar zezan eskerroneko nintzan bezala.

Gaua 1914-an bezain eder zen, Paris berdin mehatxatua zen bezala. Ilargi xuriak bazuen azken aldikotz Vendôme plaza, Konkordiako plaza bezalako alde ederretako iduri gauazko batzuen hartzera uzten zuen magnezium ezti baten itxura, hauer behar bada suntsituko zituzten obusez nuen laztak kontra moldez emaiten baitzauen, bere edertasun oraino osoan, halako bete bat, eta aitzinera egiten balute bezala, bere eraikuntza gerizapenik gabeak ukhaldier eskainiz. « Etzira beldur? errepikatu zuen Charlus-ko Jaunak. Paristarrak eztira ohartzen. Erraiten dautate Verdurin Andereak bilkurak egun guziez egiten dituela. Eztakit hori erran-merranetarik baizik, baina hetaz jeus-jeusik eztakit, osoki hautsi dut », gaineratu zuen beheitituz ez bakarrik begiak telegrafixta bat iragana baliz bezala, baina ere burua, soingainak, eta besoa goitituz « eskuak garbi ditut » ezpada, bederen « jeus eztezaket erran

» (nahiz enaukon ezer galdatzen) erran nahi zuen jestuan. « Morel hara beti ainitz doala badakit », erran zautan (lehen aldia zen berriz aiphatzen zautala). « Badiote iraganaz ainitz urriki baduela, ene gana hurbildu nahi », gaineratu zuen, erakutsiz aldi berean « Frantzia Alemaniarekin noiz nahi baino gehiago solastatzen dela erraiten da eta bake-solasak abiatuak direla ere » dion Bazterhiriko gizon baten sineskortasuna, eta esker gaixtoenek sinets-arazia eztuten amoros batena. « Dena den, nahi badu, erraitea aski du, lehen urhatsen egitea eztago eni. » Eta dudarik gabe erraitea debalde zen, hain zen nabari. Baina gainera etzen zintzo ere, eta hortako zen Charlus-ko Jaunarendako hain jenatua izaiten, sendi baitzen lehen urhatsen egitea etzagola hari erraiten, aldiz bat egiten zuela eta neure gain hurbiltzearen hartzea eskaini nezan igurikatzen.

Eiki, norbait maite duten, edo xoilki norbaiten etxean onhartuak ez tiren, eta bizkitartean, othoitz akhigarri batzu eginik ere, agertua eztuten gutizia hori norbait horren gain ezartzen duten jenden sineskortasun xintxo edo alegiazko hori ezagutzen nuen. Baina Charlus-ko Jaunak hitz horiek neurkatu zituen doinu bapatez ikharatuan, begien zolan durdurikatzen zizakon so nahasian, iduritu zizatan hisi arrunt batez bertze zer bait bazela. Enuen huts egiten, eta berehala erranen ditut gibelera behatuz hori phorogatu zautaten bi gertakariak (bigarrenarendako ainitz urtez aitzinera noa, Charlus Jauna-ren heriotze ondokoa baita. Etzuen bada biziki berantago baizik gertatu behar eta Charlus-ko Jauna aldi bat baino gehiagotan berrikusiko dugu, ezagutu dugunetik ontsa bertzelakatua, eta bereziki azken aldian, Morel osoki ahatzia zuen aro batean). Lehenbizikoaz den bezainbatean, karrika handiak horrela Charlus-ko Jaunarekin jausten nituen arratsetik bizpahirur urteren buruan bakarrik gertatu zen. Beraz arratsaldi hortarik bi urte ondoan nunbait han, Morel aurkitu nuen. Berehala Charlus-ko Jauna gogoan ukan nuen, arrabitariaren berrikustez ukanen zuen atsegina, eta ikustera joan zakidion erraiten hisitu nintzan, aldi bat baizik ezpaliz ere. « Ona da zure tako, erran naukon Morel-i, jadanik zahartua, hiltzen ahal da, liskar zaharak behar dira garbitu eta nahasmenduen hatzak ezabatu. » Morel-ek osoki ene aburuko zela iduritu zuen agiantzagarri zen baketzeaz, baina Charlus-ko Jaunari ikustaldi bakar baten egitea ezin garbikiago ezetsi zuen hala ere. «

Hutsean zira, erran naukon. Burugogorkeriaz dea, auherkeriaz, gaixtakeriaz, nor bere baitako amodio gaizki ezarriaz, bertutez (eztela jaukitua izanen segur izan zaite), aphainkeriaz? » Orduan arrabitarriak, iduriz ezin gehiago gostatzen zizakon aithor baten egiteko begitartea bihurtuz, ihardetsi zautan ikharan: « Ez, ezta horren guziaren gatik; bertuteaz futitzen niz; gaixtakeria? ez hartaz urrikitzen hasten ari niz; ezta aphainkeriaz, debalde lizateke; ezta auherkeriaz, egun osoak badira jeus ere egin gabe nagonak. Ez, ezta horren guziaren gatik; hori da, hori da, nehoi etzazula sekulan erran eta zuri erranez eroa niz, hori da... beldurrez! » Gorputz osoaz ikharatzen hasi zen. Aditzen enuela erran naukon. « Ez, etzatazula galdegin, eztezagun gehiago aipha, eztuzu nik bezala ezagutzen, erran dezaket eztuzula batere ezagutzen. - Baina zer kalte egiten ahal dautzu? Are gutiago du, bertzela ere, zuri kalte egitea bilatuko nun ezpaita zuen artean gorromiorik izanen. Eta gero funtsean, biziki ona dela badakizu. - Alaintso! badakitanez, ona dela! Eta gixakotasuna, eta zuzentasuna. Baina utz nezazu, eztezatazula gehiago aipha, othoizten zitut, erraiteko ahalgegarri da, beldur niz! »

Bigarren gertakaria Charlus-ko Jauna hilez gerozkoa da. Utzia zautan orhoitzapen batzu ekharri zauztaten eta estalgi hirurkunarekilako eskutitz bat, haren heriotzea baino urte bat bederen aitzinean idatzia. Baina larriki eri izana zen, bere antolamenduak eginak zituen, gero sendatua zen berantago Guermantes-ko prinzesaren goizaldi bateko egunean ikusiko dugun izanarara berriz erori baino lehen - eta eskutitza, bere adixkide batzuer uzten zituen gauzeekin burdin-khutxan gelditua, zazpi urtez hor egona zen, Morel osoki ahatzia zuen zazpi urtez. Eskutitza, izkirio mehe 'ta bermu batean egina, hunela egina zen:

« Adixkide maitea, Probidenziaren bideak eztira ezagunak. Batzuetan bierarteko izaite baten eskasaz da baliatzen huts egitetik norbait zuzenen goren-gorentasunaren baztertzeko. Morel ezagutzen duzu, nundik atheraia den, zein hegirano goititu nahi ukan dutan, derragun ene heinerano. Badakizu nahiago ukan duela berriz itzuli ez gizon oro, erran nahi da egiazko fenitza, handik berjaio daitekeen hautsera eta erhautsera, baina suge bipera herrestatzen den iztilera. Erortzera utzi da, horrek lerrotik jaustetik begiratu bainu. Badakizu ene harmek badadukatela Gure Jaunaren beraren ikurbu-

rua: Inculcabis super leonem et aspidem, heraldikako oinarritzat, lehoin bat eta suge bat oinen zolan itxuratua den gizon batekin. Horrela bada nihaur nizan lehoina bera oinazpikatu ahal badut, sugeari eta zuhurtziari esker da, arestian arinkiegi huts bat deitzen nuena, Ebanjelioko zuhurtzia barnatuak hartaz bertute bat egiten baitu, bertute bat bederen bertzerendako. Lehenago xixtuak harmoniarekin emaiten zituen gure sugea, xarmatzale bat bazuenean - gainera biziki xarmatua -, etzen bakarrik musikari eta herrestari, bazuen beldurkeriarano orai jainkotar dadukatan bertute hori, Zuhurtzia. Zuhurtzia jainkotar horrek dauko ene ikustera jiteko hel-arazi dauzkotan deier ihardukarazi, eta bakerik eztut ukanen mundu huntan eta barkamendu itxaropenik bertzean aithortzen baldin badautzut baizik. Hura da izan hortan Zuhurtzia jainkotarraren tresna, ezen, erabakia nuen, ene etxetik etzen bizirik jalgiko. Gutarik batek behar zuen itzali. Haren hiltzera deliberatua nintzan. Jainkoak zuhurtzia aholkatu dauko erahiltze batetik ene begiratzeko. Eztut dudarik Mikael Arkanjeluaaren arartekotasunak, ene patroin sailduak, hortan egiteko handi bat ukan duela eta othoizten dut urte ainitzez hainbaterano utzia ukaittea eta eman dauztan ongiegin ezin zenbatuer, bereziki gaitzaren kontrako ene guduan, hoin gaizki ihardetsi ukaitea barka dezaztan. Jainkoaren Zerbitzari horri zor daukot, ene sinestearen eta adimenduaren betean diot, Aita zerukoak Morel ez jitera sustatu duela. Beraz, ni niz orai hiltzen ari. Zuri leialki atxikia. Semper idem. P. G. Charlus. »

Orduan Morel-en beldurra gogoan hartu nuen; eiki urgulu eta literatura ainitz bazen eskutitz hortan. Baina aithorra zinezkoa zen. Eta Morel-ek bazakien nik baino hobeki Guermantes-ko Andereak bere koinataren baitan aurkitzen zuen « alde abantzua eroa » etzela, ordu arteo uste ukana nuen bezala, azaleko eta debaldeko errabiaren itxura ephe bateko horietan mugatzen.

Baina gibelera behar da itzuli. Karrika handietan jausten ari niz Charlus-ko Jaunaren ondoan, halako ararteko bat bezala hartua bainau bere eta Morel-en artean baketzeko aitzin-urhats batzuetako. Ihardesten enaukola ikusiz: « Eztakit, gainera, zergaitik eztuen joiten, gerla dela estakuru musikarik ezta gehiago egiten, baina dantzatzen da, hirian auhaltzen, emazte bere larruarendako « Ambrine »-a asmatzen dute. Alemanak oraino aitziz-

natzen baldin badira, gure Pompei-ko azken egunak izanen direnak bestek betetzen dituzte behar bada. Eta arinkeriatic salbatuena hori da. Vesubio aleman bateko botakinak (haien itsasoko harmak eztira sumendi bat baino gutiago laztagarri) bere aphainketan hatzemaiten dituen eta haien jestua geldituz betierekotzen duen ber, geroago haurrek ikasiko dute liburu marrazkiztatu batzuetan Molé Anderearen ikustean, andere koinata baten etxean auhaltzera joan baino lehen azken larru-thindi xafla baten ezartzen, edo Guermantes-ko Sosthène bere bekain falsuen thindatzen bururatzen ari; gero-koendako Brichot ikastaldi gaia izanen da; aro bateko arinkeria, gainetik hamar mende iraganak zazkonean, jakitate serioseneko gaia da, oroz gainetik sumendi jauzte batez ala bombardamenduek egotzi botakinez osorik atxiki izana baldin bada. Zer lekukotasunak gero-ko ixtorioarendako, Vezubioak emaiten zituenen iduriko gaz haskabetzale 'ta Pompei ehortzi zuten bezalako hondamendu batzuek atxikiko dituztenean osorik bere margazkiak eta guzaiduriak oraino Baionara igorr-arazi eztituzten andere zuhurtzia gabe azkenak! Bertzela ere, urte batez geroztik, eztirea jadanik Pompei zatikatu bat, arrats oroz, sotoetan gerizatzen doazen jende horiek, ez handik « mouton rothschild » edo « saint-émilion » botoila zahar baten ekhartzeko, baina berekin baliosenik dutenaren gordetzeko, Herculanium-eko aphezak bezala untzi sakratuen eremaiten ari zirenean herioak hatzemanak? Gauzarendako atximenduak du beti jabearen herioa ekhartzen. Paris, hura, etzen Herculanium bezala Herkules-ek jarria izan. Baina zenbat egite ikusi behar diren! Eta emana zaikun gogo-argitasun hau ezta bakarrik gure arokoa, orok ukan dute. Bihar Vezubioko hirien zoria ukan dezakegula gogatzen baldin badut, hauek Bibleko hiri madarikatuak zoriaz mehatxatuak zirela sendi zuten. Pompeiko etxe baten harresietan idazki agerrarazle haur aurkitu da: Sodoma, Gomora. » Eztakit hea Sodoma izen horrek eta haren baiten atzartu zituen gogoetek, ala bombardamenduarenak, egin zuten Charlus-ko Jaunak ephe batez begiak zerura goititu zituela, baina laster berriz lurrera ekharri zituen. « Gerla huntako gizandi guziak miresten ditut, erran zuen. Oizu, adixkide maitea, gerla hastean soldado angelesak apur bat arinki fobalako jokari xoil batzu bezala ikusi baldin baditut, ofiziokoekin - eta zer ofiziokoekin! - heinkatzeko aski handinahiak, he bada, ezthetikoki bakarrik Greziako gudu-jokolari batzu dira, entzuten duzu bada, adixkidea, Platonen gizon gazteak dira

xoil-xoilki, edo izaitekotz Espartar batzu. Bere kampamendua han duten Erruanen izana den adixkide bat badut, mirak ikusia ditu, hetaz ideiarik ere ezten mira hutsak. Ezta gehiago Erruan, bertze hiri bat da. Erran zaharra ere bada, alabaina, kathedraleko saindu mehartuekin. Ederra da ere, erran gabe doa, baina bertze zerbait. Eta gure gerlariak! Eztezauduket erran zer zaporea aurkitzen dauetan gure gerlariak, Paristar ttipier, oizu, hor diragan hori bezala, bere itxura ernearekin, aurpegi atzarri eta jostakinarekin. Usu gertatzen zata geldia-arazten ditutala, solas izpi bat haiekin egiten, zer xorroxtasuna, zer zentzu ona! eta probinziako mutikoak, zein jostagarri diren eta gixako bere dardaratuarekin eta hizkuntza mordoilarekin! Ni, baserrian ainitz bizi izana niz beti, baina Frantsesendako dugun mirak eztauzku gure etsaiak gutiatsarazi behar, guhauren ttipitzea lizateke. Eta soldado alemana zer soldadoa den eztaukizu, zuk nik bezala mustrako urratsean lerroan ibilki ikusi eztuzunak, antzara urhatsean unter den Linden ». Eta Balbec-en marrazkitzen hasia zautan gizatasuneko idealera itzuliz eta demborarekin haren baitan ara filosofikoagoa hartua zuenerea, arrazoinamendu zentzugabe batzu erabiliz, hauek arteka, gorena izana zenean ere, agertzera uzten baitzuten gizon mundutararen bilbe argalegia, nahiz gizon mundutar adimenduna zen: « Badakusazu, erran zautan, putiko miragarria den soldado boxa jende azkarra da, sanoa, bere erresumaren handitasuna baizik gogoan eztuena, Deutschland über alles, hori ezpaita hain zozo, gu aldiz - hek gizakitasunean prestatzen ari zirelarik - ezaguletasun arinean hondatu girelarik. » Hitz horrek Charlus-ko Jaunarendako literatura bezalatsuko zerbait erran nahi zukeen, ezen berehala leterak maite nituela orhoituz agian eta ordu batez hetara emaiteko xedea ukana nuela, soingaina jo zautan (jestuaz baliatuz eni lehenago, soldado zerbitzua egiten nuenean, lephuztaian 76-aren gibel-ukhaldiak bezainbat min egiterano han zapatzeko), erran zautan erasiaren ezititzeko bezala: « Ba, ezagulekeria arinean hondatu gira, gu guziak, zu ere, orhoit zaite, nik bezala zure mea culpa egiten ahal duzu, ezagule arinegiak izanak gira. » Erasiaren ustegabeaz, ihardesteko gogo eskasez, ene solaskidearendako adeiez, eta haren adixkidantzazko oneziarendako beraztasunez, ihardetsi nuen, hortara gomitatzen ninduen bezala, nik ere bulharra jo behar banu bezala ihardetsi nuen, osoki zozo zena, ezagule arintasun izpi batez dolu ukaiterik ezpainuen. « Goazen, erran zautan, uzten zitut (urrundik inguratua zuen multzoak az-

kenean utziak ginduen), jaun zahar-zahar bat bezala banoa etzatera, gerlak gure ohidurak aldatuak dituenaz geroz, Norpois-ek maite dituen labur-hitz zozo horietarik bat. » Banakien gainera etxera sartzean Charlus-ko Jauna etzela horrengatik soldadoen erdian izaitetik gelditzen, bere hotela soldadoen ospitale egina baitzuen, amor emanez, uste dut, idurimenaren baino gehiago bere bihotz onaren beharrer.

Gau bat argala zen eta ufa bat gabea: asmatzen nuen Zekuanak, zubitako tauladak eta urean haren leinuruak moldatzen zuten inguruen artean joanki, Buzfora iduri zuela. Eta, ala Charlus-ko Jaunaren garhaipen etsiak aitzinetik iragartzen zuen jaukituzko sartzearen, ala Frantziako armadekin gure anaia mahometanoen lankidetzaren itxurapen, ilargi hertsia eta zekino bat bezala makotuak zeru paristarra ilargi-adarraren ikur ekhaldekoaren azpian ezartzen zuela iduri zuen.

Bizkitartean, ephe batez oraino, goraintzi erraitean eskua xehatzerano tinkatu zautan, hori berezitasun alemaniar bat baita baroinak bezala senditzen duten jenden baitan, eta ephe batzuez oraino haren orhatzen jarraikiz, Cottard-ek erranen zuen bezala, Charlus-ko Jaunak ene junturer galdua etzuten malgua eman nahi ukan balaue bezala. Itsu batzuen baitan hunkitzeak hein batean ikustea ordaintzen du. Hemen zein sentsuen lekua hartzen zuen eztaikit. Uste zuen behar bada eskua tinkatzen zautala bakarrik, ilunean zoan eta miretsia zela ohartu nahi ukan etzuen Zenegaldar bat etzuela ikusten baizik uste ukan zukeen bezala. Baina bi aldi horietan baroina hutsean zen, bazuen hunkitze 'ta so egite soberantza. « Decamps-en, Fromentin-en, Ingres-en, Delacroix-en Oriente guzia ez ote da hortan? erran zautan, Zenegaldarraren iragaiteaz oraino balditua. Badakizu, ni nehoiz eniz gauzez eta jendez margolaritzan eta filosofian baizik axolatzen. Bertzela ere, zaharregia niz. Baina zer zorigaitza, margazkiaren osatzeko, gutarik bat eztadin odalizka bat izan! » Etzen Decamps-en Orientea ez eta Delacroix-ena ere ene idurimenean ibiltzen hasi zena baroinak utzia ukan ninduenean, baina hainbat maitatuak nituen Mila eta bat Gau-etako Oriente zaharra, eta karrika beltz horietako sarean emeki emeki galtzen nintzala, Harun Al Raxid kalifa Bagdad-eko auzoalde galduetan maitaldi bila gogoratu zizatan. Bertzalde aroaren eta ibiltzeko beroak egarritua ninduen, baina edandegi guziak aspaldidanik hetsiak ziren, eta ezanza eskasaren gatik, aurkitzen nituen

tatzi bakarrek, Ekhaldetar edo beltz batzuek zeramatzateneke, etzuten ene kheinuer ihardesteko nekea ere hartzen. Edatarea zerbitza-araziko eta etxera sartzeko indarrak berriz hartu ahalko nituen leku bakarra hotel bat izanzen. Baina hiri-barnetik aski urrun heldua nintzan karrikan, gothek Pariseren gainera bere bombak egozten zituztenez geroztik, oro hetsiak ziren. Saleroslen abantzu saldegi guziez berdintsu zen, hauek, langile eskasez edo berak beldurak harturik, baserrira ihes egina baitzuten eta ohiko abisamendu bat athean utzia, eskuz izkiriata eta berridekitzea iragartzen zuena aro urrundu, eta gainera dudazko bateko. Oraino iraun ahal ukana zuten bertze saletzek molde berean iragartzen zuten aste bat edo bien buruan baizik etzutela idekitzen. Sendi zen miseria, utzia eta beldurra zirela auzoalde hortan guzian egoiten. Enintzan gehiago baizik ustegabetua izan ikustean etxe utzi horien artean bazela bat hartan biziak, kontra-moldera, lazta eta hondamena garhaituak zituela, lana eta aberastasuna atxikitzen zituela iduri zuena. Leiho bakoitzaren kampoko hetsien giblean argiak, polizaren manamenduen gatik ahulduak, ekonomiaz axolagabe osoa agertzera uzten zuen alta. Eta noiz nahi athea idekitzen zen sartzera edo jalgitzera ikusle berri zenbaiten uzteko. Auzoko salerosle guzien jelosia (jabek irabazten zuketena diruaren gatik) sustatzen zukeen; eta ene jakin-nahia ere hala izan zen jalgitzen ikusi nuenean lasterrez, nitarik hamabortz bat metretan, erran nahi da ilun beltzean ezagutu ahal ukaiteko nitarik urrunegi, aitzindari bat.

Ikusten enuen haren begitartea ez eta soineko luze handi batean gordea zen solado-jantzia etzen zerbaitek jo ninduen bizkitartean, baina haren soina iragan zen une berezien ainiztasun ohigabekoaren eta, setiatu batek entseatzen duen jalgitzearen idurikoa baitzen, atheratze hori egin zen sekunda gutien arteko araugabeak. Hala nola nun gogoan ukan bainuen, garbiki ezagutu ezpanuen ere, eztut erranen ere Saint-Loup-en ibilara, ez lerdena, ez soinara, ez zalutasuna, baina hain berezia zizakon bi leketan izaite mota hura. Hoin arte gutian eremuan hainbertze izanmolde ezperdinen hartzeko gai zen soldadoa itzalia zen, eni ohartu gabe, zehar karrika batean, eta galdez egon nintzan sartu behar nuenez ala ez itxura lañoak Saint-Loup zenez jalgia azkarki duda-arazi zautan hotel hortan. Nahigabetarik orhoitu nintzan Saint-Loup zuzengaitzki salatutik izana zela espiun ixtorio batean barne izanik aitzindari aleman bati hartu eskutitz batzuetan haren izena aurkitua ze-

lakotz. Zuzenbide osoa armadako buruzagiez itzulirik izana zizakon bertzela ere. Baina hala ere orhoitzapen hori ikusten nuenera hurbildu nuen. Hotel hori espiun batzuek hitzar-lekutako baliatzen zena?

Bazen ephe bat aitzindaria itzalia zela harma bat baino gehiagotako soldado xoil batzu sartzen ikusi nituenean, horrek ene ustea azkartu baitzuen oraino. Ezin gehiago egarri nintzan gainera. Itxura bazuen hemen edatera aurkituko nuela, eta baliatu nintzan, hortan nahasten zen goganbearra izana gatik, ene jakin-nahiaren asetzera entseatzeko. Eztut beraz uste aurkintza hortako jakin-nahia zela izan mailalde ttipiaren igaitera deliberatu ninduenaren buruan halako sargune bateko atea idekia baitzen, beroaren gatik dardarik gabe. Lehenik uste ukan nuen jakin-nahi hori enuela satifatu ahalko, ezen, han itzalean egon nintzan mailaditik, jende batzu ikusi nituen gambara baten galdatzera jiten, bakar bat librorik etzela ihardetsi baitzizeen. Etzuten bada ageriki kontrakoa zutenik espiun kafiran barne ez izaitea baizik, ezen itsasturi xoil bat agerturik ephe bat berantagho, hari 28-aren emaitera lehiatu baitziren. Ilunbean ikusia izan gabe solado batzuer ohartu ahal nindeen eta bi langileri barne itxo batean gozoki solastatzen, agerkari eta aldizkari marrazkitu batzuetan moztu emazte potret margotu batzuez handinahiki aphainduan.

Jende horiek gozoki solasean ari ziren, ideia aberritiar batzuen emaiten: « Zer nahi duk, lagunek bezala eginen diaguk », zion batek. « Ha! segur eztiatala hila izaitea gogoan », erantzuten zuen, entzuna enuen agiantza bati, bertze batek, hura hartu nuenaz, biharamunean gudugune lanjeros batera baitzoan. « Behazunez, hogeita bi urtetan, sei ilabete baizik ez oraino emanik, azkar lizatekek », oihukatzen zuen, luzaz bizitzekoa baino ere gehiago, zuzen arrazoinkatzeko konzienzia agertzen zuen doinu batean, eta hogeita bi urte baizik ez ukaiteak hila ez izaiteko zori gehiago eman behar balauko, eta hala izan zadin gauza ezina izan baliz bezala. « Parisen loriagarri duk, zion bertze batek; gerla badela ezтик iduri. Eta hi, Kulio, engaiatzen hiz beti? - Segur engaiatzen nukala, Boxe zikin horier guzier metan apur bat zampatzera joaiteko gura diat. - Baina Joffre, minixtroen emaztekin etzaten den gizon bat duk, eztuk zerbait egina dikan gizon bat. - Horrelako gauza batzuen entzutea zorigaitzeko da », erran zuen airekolari adinekoago batek, eta, solas

hori entzun-arazia zuen langilearen aldera itzuliz: « Enezauzuke eman aitzineko lerroan horrela mintzatzeko aholkua, gerlariak laster zutaz egina lukete. » Solas horien arruntasunak etzautan gehiagoren entzuteko gutizia handirik emaiten, eta sartzera edo jaustera nindoan ene orobatasunetik atheraia izan nintzanean ikharatu ninduten hitz hauk entzun nituelarik: « Loriagarri da, nagusia ez itzultzen, bada, ordu huntan eztakit sobera gatina batzu nun hatzemanen dituen. - Baina bertzea jadanik estekan baldin bada. - Estekan da, segurki, estekan eta ez estekan, ni horrela estekan baninz libratzen ahal nintake. - Baina giltzerrapoa hetsia da. - Egia hetsia dela, baina idek daite azken beltzean. Hau da, gatinak eztirela aski luzeak. Eztautak argituko eni zer den, zampatu diat atzo gau guzian odola eskuetan zariotanerano. - Hik duk gaur zampatuko? - Ez, ez nik. Morizek. Baina ni izanen nuk igandean, nagusiak hitzeman datak. » Orduan hartu nuen itsasturiaren beso azkarren beharretan zer gatik izanak ziren. Burjes maltso batzu urrunduak baldin baziren, hotel hori etzen beraz bakarrik espiun kafira bat. Erahiltze izigarri bat egina izanen zen han, aurkitzeko ezpazen hara ordu zeno heltzen eta preso ogendunen harr-arazteko. Horrek guziak alta, gau baketsu eta mehatxatu hortan bazadukan amets baten, ipuin baten itxura, eta aldi berean justizialari baten urgoitasunarekin eta poeta baten atseginarekin nintzan deliberatuki hotel hartan sartu.

Xapela arinki hunki nuen eta han zirenek, desarrañatu gabe, ene agurrari guti edo aski jendetasunekin ihardetsi zuten. « Erranen ahal zinautena ote nori behar dutan hel egin? Gambara bat nahi nuke eta hara edatera igan dezataten. - Zaude minuta bat, nagusia atheraia da. - Bana buruzagia gainean da, egin zuen artetik solastari batek. - Bana ontsa badakik ezin daitekeela desarraña. - Gambara bat emanen dautatela uste duzu? - Nik uste. - 43-a libro dateke », erran zuen hogeita bi urte zituelakotz etzela hila izanen uste zuen mutiko gazteak. Eta zofaren gainean doi bat baztertu zen eni lekuaren egiteko. « Leioa apur bat idekitzen baliz, bada hemen khe bat! » erran zuen airekolariak; eta alabaina bakoitzak bazuen bere pipa edo zigarreta. « Ba, bana orduan, heskitzue lehenik kampokoak, argi ukaitea debekatua dela badakizue zepelinen gatik. - Ezta gehiago jinen zepelinik. Egunkariak aieru bademate ere guziak jautsiak izanak direla. - Ezta gehiago jinen, ezta

gehiago jinen, hik zer dakik? Nik bezala guduguneko hamabortz ilabete ukanen ditukalarik eta hire borzkarren aireko boxa aurdikia ukanen dukalarik, mintzatzen ahalko hiz. Egunkariek ezte sinetsi behar. Atzo Compiègne-en izanak dituk, ama familiako bat bere bi haurrekin hila die. - Ama familiako bat bere bi haurrekin! » erran zuen begi sutsu batzuekin eta urrikalmendu barnatu bateko itxurarekin hila ez izaitea itxarotzen zuen mutiko gazteak eta bertzela ere begitarte gementsu, ideki eta gustagarrienetarik bat zuenak. « Kulio handiaren berririk ezta. Haren amatxiak eztu zortzi egunez geroztik haren eskutitzik ukan, eta lehen aldia da eman gabe hoin luzaz dagola. - Nor da haren gerlako amatxia? - Olympia baino beheraxago den komoditatea atxikitzen dikan anderea. - Elgarrekin etzaten dira? - Zer diok hor? Emazte ezkondua duk, guziz seriosa. Aste guziez dirua igortzen dakek bihotz ona dikalakotz. Ha! Emazte bat gixakoa duk. - Beraz, ezagutzen duk Kulio handia? - Ezagutzen diatanez? egin zuen suhartasunekin hoge-ta bi urteko mutiko gazteak. Ene adixkide minenatarik bat duk. Hura bezainbat estimatzen diatanik eztuk ainitz, eta lagun ona, beti zerbitzu egitera prest, ha! jakik zerbait gertatua balizakek zorigaitz handi bat lizatekeela. » Norbaitek xorte partida baten egitea aipatu zuen eta, hoge-ta bi urteko mutiko gazteak laur-kant-toinekoak itzultzen zituen eta ondorioa oihukatzen zuen lehia ezin egonean, begiak burutik atheraiak, jokolari baten jitea bazuela ikustea errex zen. Enuen ontsa hartu norbaitek gero zer erran zaukon, baina urrikalmendu barnatu bateko doinuan egin zuen: « Kulio, makael bat! Erran nahi diat makael bat dela erraiten dikala. Bana hala izaiteko kalipurik eztik. Nik emaztearen ordaintzen ikusia diat, ba, ordaintzen. Eztiat erran nahi Gana aljeriarrak etzakokala zerbait emaiten, bana ez bortz libera bano gehiago, etxe batean zian emazte bat, egunean berrogei-ta hamar libera bano gehiago irabazten ziana. Bortz libera baizik ez eman-araztea! gizon batek zozeogia izan behar dik. Eta orai emaztea gudugunean baita, bizi nekea dik, hori ba, bana nahi dikana irabazten; he bada, jeus eztakek igortzen. Ha! makael bat, Kulio? Anitz balizatekek orduan makael erraiten ahal lizatezkeenak. Eztuk bakarrik batere makael bat, bana ene ustez ergel bat duk aitzina. » Multzoko zaharrenak, eta, adinaren gatik, nagusiak bertzeari jendetasun zerbaiten atxik-arazteaz kargatua zukeenak, ephe batez komoditatera joana izanik, etzuen solasaldiaren

azkena baizik entzun. Baina eni so egin gabe ezin egon zen eta nitan egina ahal ukana zukeen ondorioaz ageriki nahigabetua iduritu zuen. Maitasun ordainduaren teoria hori alta agertu berria zuen hogeita bi urteko mutiko gazteari bereziki mintzatu gabe, erran zuen, orotako molde batean: « Sobera mintzatzen zirezte eta sobera azkar, leihoa idekia da, lo diren jendeak badira oren huntan. Badakizue bada nagusia zartzen baliz eta horrela mintzo entzuten bazininduzte, elizatekeela kontent. »

Ordu hartan hain zuzen athea idekitzen entzun zen eta jende guzia ixildu zen, baina etzen beribilzain atzerritar bat baizik eta guziek ongi-ethorri handi bat egin zaukoten. Baina beribilzainaren maripulisean hedatzen zen sakel-oren gatina handizki eder bati ohartzean, hogeita bi urteko mutiko gazteak begi-ukhaldi galdekari eta irrikor bat igorri zaukon, ondotik bekain zimurtze 'ta begi-klixka batekin ene aldera. Eta hartu nuen lehenbiziko behakoak erran nahi zuela: « Zer duk hori, ebatsi duk? Ene goresmen guziak. » Eta bigarrenak: « Ezagutzen eztiagukan putiko horren gatik etzakala jeus erran. » Bapatez nagusia sartu zen, galeriano andana baten estekatzeko gai ziren gatina lodi metra batzuez kargatua, izerditan, eta erran zuen: « Badutala karga bat, hoin auherrak ezipazinezte, enuke nihaurek bila joaitera bortxatua izan behar. » Gambara bat galdegiten nuela erran naukon: « Zenbait ore-nendako bakarrik, karrosarik eztut aurkitu eta apur bat eri niz. Nahi nuke edatera igan dezataten. - Piarreño, hoa satora kaziz bila, eta errak 43-a behar den bezala ezar dezataten. Horra 7-ak oraino joiten duela. Eri direla diote. Eri, uste diat, koko hartzeko gai ditukan jende batzu, erdi eroak direla iduri, kampa haizatu behar die. Mihise pare bat ezarri dea 22-an? Ongi! horra 7-ak joiten, ikustera laster egik. Hea, Moriz, zer ari hiz hor? ontsa badakik igurikatzen hautela, 14 biz-era igan hadi. Eta lasterrago. » Eta Moriz lasterrez jalgi zen, nagusiari jarraikiz, hau, nik haren gatinak ikusiak ukanik apur bat nahigabetua, hek eremanez itzali baitzen. « Zertako heldu hiz hoin berant? » galdegin zaukon hogeita bi urteko mutiko gazteak beribilzainari. « Nola, hoin berant? oren batez aitzinean nuk. Bana ibiltzeko beroegi. Eztiat hitzartzea gauerdiko baizik. - Norendako heldu hiz bada? - Pamela xarmatzalearen-dako », erran zuen beribilzain ekhaldetarrak irriak bere hortz zuri ederrak agertzen zauzkola. « Ha! » egin zuen hogeita bi urteko mutiko gazteak.

Berehala gambara 43-ra igan-arazi ninduten, baina airea hain zen gozagaitza eta ene jakin-nahia hain handia nun, ene « kaziza » edanik, mailadia berriz jautsi bainuen, eta gero, bertze ideia bat jinik, berriz igan eta, 43 gambarako estaia baino urrunago joanez, gainerano joan nintzan. Bapatez, barne-bide baten buruan berex zen gambara batetik auhen ahuldu batzu heldu zirela iduritu zizatan. Alde hortara urhats egin nuen bizi-bizia eta beharria atheari eman. « Othoi-othoizten zitut, othoi, othoi, urrikal, laxa nezazu, ez hoin azkarki jo, zion mintzo batek. Oinak besarkatzen dauzkitzut, aphaltzen niz, eniz berriz hasiko. Urrikal zaite. - Ez, zirtzila, ihardetsi zuen bertze mintzo batek, garrasian ari hizanaz geroz eta belhauriko herrestatzen, ohe gainean estekatua izanen hiz, urrikirik ez », eta azote baten klaska entzun nuen, itxura guzien arabera itzez zorroztua, oinaze auhen batez jarraikia izan baitzen. Orduan ohartu nintzan gambara hartan bazela haren erridauaren hestea ahatzia zen bazterreko argizilo bat; itzalean ixil-ixila ibiliz, argizilo hartarano aitzinatu nintzan, eta hor, Prometheo bere harrokan bezala ohe batean gatinaztatua, hartzen zituela Morizek emaiten zauzkon azote alabaina itzez landatu baten ukhaldiak, ikusi nuen, jadanik dena odoletan, eta gaz-tigua etzela lehen aldian egiten erakusten zuten uspelez estalia, ikusi nuen neure aitzinean Charlus-ko Jauna.

Bapatez athea ideki zen eta norbait sartu zen zorionez ikusi eninduena, Jupien zen. Baroinaren gana hurbildu zen itxura errespetuzko batekin eta entzumenezko irriño batekin: « He bada, ene beharrik eztuzu? » Baroinak Jupien othoiztu zuen Moriz ephe batez athera-araz zezan. Jupien-ek kampa igoz zuen ezin ozarkiago. « Ezkituzte etzuten ahal? » erran zaukon baroinak Jupien-i. Bazakien Jupien-ek, leteretako gizon bezala, etzuela gauzetako izpiriturik batere, axolatuak zirenen atzinean beti mintzo zela nehor enganaten etzuten azpi-entzun batzuekin eta orok ezagutzen zituzten izen-goiti batzuekin.

« Zekunda bat », moztu zuen Jupien-ek, xilintxa bat joiten entzuna baitzuen gambara 3-an. « Action Libérale »-ko deputatu bat zen jalgitzen ari. Jupien-ek etzuen taularen ikusteko beharrik haren xilintxa ukhaldia ezagutzen baitzuen, alabaina deputatua egun guziez bazkal-ondoan jiten zen. Egun hartan bere orenen aldatzera bortxatua izana zen, alaba eguerditan ezkondua

baitzuen Chaillot-eko Jondonipetrin. Arratsean jina zen beraz, baina goizik joan nahi zuen bere emaztearen gatik, berant sartzen zenean berehala khexu, oroz gainetik bombardamenduetako egun horietan. Jupien haren jalgitzearen laguntzera atxikia zen ohorezko lerroarendako zuen adeiaren erakusteko, beretako abantail-nahirik batere gabe hala ere. Ezen deputatu hori, Action Française-ko soberakeriak onhartzen etzituenak (Charles Maurras edo Léon Daudet-en lerro baten hartzeko ahalik etzuen bertzela ere), minixtroekin ontsa izan arren, haren ihizietara gomitatuak izaitez lausengatuak baitziren, Jupien etzizakon den gutieneko laguntzaren eskatzera ausartuko polizarekin zituen liskarbidetan. Bazakien legegile aberats beldurtiari hortaz mintzatzera irriskatu izan baliz, « jauste » lanjerrik gabekoena etzuela huts egingen, baina ordu berean galduko zuela bere ohituetan emankorrena. Deputatua atherano lagundu eta, xapela bere begietara behekitua zuena, lephoingurukoa goititua, eta, bere bozketako programetan bazegien bezala laster lerratzuz, begitarte gordetzen zuela uste baitzuen, Jupien berriz Charlus-ko Jaunaren gana igan zen eta erran zaukon: « Eugène Jauna zen. » Jupien-en etxean eritetxetan bezala, jendeak etziren bataio-izenetik baizik deitzen aldi berean beharrira, ohituen jakin-nahiaren satifatzeko, ala etxeko omenaren handitzeko, egiazko izenaren erraiteko artha hartuz. Batzuetan alta Jupien-ek etzakien bere ohituen nortasun zuzena, asmatzen zuen eta erraiten holako molsalaria zela, holako aitorensenea, holako artixta, zuzengaizki izendatzen zirenendako huts iragankor eta goxagarriak, eta azkenean Victor Jauna nor zen betikotz ez jakitera etsitzen zen. Jupien-ek bazuen horrela, baroinari laket izaiteko, bilkura batzuetan egoki denaren kontrakoaren egiteko ohi-dura. « Lebrun Jauna aitzineratuko dautzut » (beharrira: « Lebrun Jauna iduriadeit-arazten da, baina egiazki Errusiako duke handia da »). Kontrako aldera, Jupien-ek sendi zuen Charlus-ko Jaunari esnekari mutil baten aitzineratzea etzela oraino aski. Begiaz kheinu eginez murmurikatu zaukon: « Esnekari mutil da, baina ondarrean Belleville-ko gaixtagin lanjerosenatarik bat » (Jupien-ek « gaixtagin » hitzaren erraitean zuen doinu ausarta entzun behar zen). Eta xehetasun horiek aski ezpalire bezala, « aiphamen » batzuen emaitera entseatzen zen. « Aldi andana batez kondenaturik izana da « villa » batzuetan ohointza eta ebaste gatik, Fresnes-en izana da erdi makhaldu

dituen ibiltari batzuekin (itxura ausart bera) joka ari izanik eta Afrikako baitailunean egona da. Bere sardienta hila du. »

Baroina Jupien-i arinki aihar zizakon ere, baitzakien beretako eros-teaz eta buru azpiko baten ezartzeaz bere lan orotako gizona kargatua zuen etxe hortan, Mundu osoa, k Oloron-go Andereñoaren errebeskerien bidez, guti edo aski ezagutzen zituela haren nortasuna eta izena (ainitzek uste zu-ten bakarrik izengoiti bat zela, eta gaizki ahozkatuz, moldegaiztua zuten, hala nola nun baroinaren begirabidea haien beren zozokeria izana baitzen eta ez Jupien-en zuhurtzia). Baina haren erranez bere buruaren segurtatzea er-rexago zizakon, eta ezin entzun zaitezkeela jakiteaz sosegatua, baroinak erran zaukon: « Enuen ttipi horren aitzinean mintzatu nahi, biziki gixakoa baita eta hobekienik ari. Baina eztut aski bortitz aurkitzen. Begitarteak laketa zata, baina zirtzila erraiten dautu ikasia duen zerbait bezala. - Ho! ez, nehork ez-tauko jeus erran, ihardetsi zuen Jupien-ek, hitz horrek itxurarik etzuela ohar-tu gabe. Villette-ko etxezain baten hiltzean barne izana da bertzela ere. - Ha! hori aski ohargarri da, erran zuen irriño batekin baroinak. - Baina hain zuzen badut hori iduri hiltzalea, hura iduria den hildegietako gizona; halabeharrez he-mendik iragan da. Nahi duzue entseatu? - Ha! bai, gogotik. » Ikusi nuen hil-degietako gizona sartzen, bazuen alabaina « Morizen » iduri apur bat, baina, gauza bitxiagoa, bi-biek bazuten nihaurek ehoiz berexia enuen, baina Mo-rel-en begitartean biziki ontsa ohar-tu nindakon itxura mota batetik zerbait, iduri bat bazuten Morel-ekin nik ikusia nuen bezala ezpada, bederen Morel-nitaz bertzela bazakusaten begi batzuek haren itxurarekin moldatua ahal zu-ten begitarte bereziarekin. Morel-en aurpegiaz nituen orhoitzapener hartu gauza batzuekin bertze norbaitendako itxuratzen ahal zuen molde hori neure baitan egin ukan nuen orduko, ohar-tu nintzan bi mutiko gazte horiek, bat joiagile mutil bat zena eta bertzea hotel bateko langilea, Morel-en halako ordain batzu zirela. Hortik ondorioztatu behar zena Charlus-ko Jauna, bere maitasunetako mota berezi batean bederen, beti itxura ber bati atxikia zela eta bat bertzearen ondotik bi mutiko gazte horiek hauta-araziak zauzkon gutizia, Doncières-ko garako kaian Morel gelditara zaukon hura bera zela? hirurek bazutela apur bat, haren itxura Charlus-ko Jaunaren begiak ziren za-firraren barnean zizelkatua zen mutilederraren iduria, eta haren soari Balbec-

en laztatua ninduen zerbait hain berezi hura emaiten zaukona? Ala, Morel-endako zuen amodioak bilatzen zuen itxura mota aldatua ukanik, haren huts egitetik konsolatzeko haren eitea zuten gizonen ondotik zabilala? Ukan nuen uste bat izan zen ere nehoiz etzela behar bada haren eta Morel-en artean, itxura guzien kontra, adixkidantzazko harremanik baizik izana, eta Charlus-ko Jaunak Morel-ekin eite aski ukan behar zuten mutiko gazte batzu Jupien-en etxera ekharr-arazten zituela haien ondoan harekin atsegin hartzen zuelako lilluraren ukaiteko. Egia da Charlus-ko Jaunak Morel-endako egina duen guzia gogoan ukanez, uste hori itxura gutikoa idurituko zela jakina ez-paliz maitasunak bultzatzen gituela ez bakarrik maite dugun jendearendako sakrifizio handienetara, baina batzuetan gure nahikariaren sakrifikatzerano, are gutiago errexki onhartua dena bertzela ere nun maite dugunak gehiago maite dugula senditzen baitu. Horrelako usteari lehen behakoan iduriz duen itxuragabea ekhentzen daukona (nahiz eztatekeen egiaren araukoa) Charlus-ko Jaunaren jite zaintsuan da, haren nortasun barnatuki suharrean, hortan Saint-Loup-ena bezalakoa, eta hastapenean Morel-ekilako adixkidantzan ukana ahal zukeena, molde begiratuagoan, eta kontrakoan, Rachel-ekin haren ilobaren adixkidantzako hastapeneko egitate bera.

Maite den emazte batekilako adixkidantza (eta hori mutiko gazte batendako den maitasunera heda daiteke) gogo hutsezkoa gelditzen ahal da emaztearen bertuteaz edo sustatzen duen maitasunaren natura guti atsegin-koiaz bertze arrazoin baten gatik. Arrazoin hori izan daiteke maitaleak, bere maitasunaren soberantzaz beraz sobera ezin egonean, gutiziatzen duena ukanen duen orduaren igurikatzen eztakiela axolagabe aski alegiazko batean. Beti eta beti jaukitera itzultzen dea, maite duenari izkiribatzetik ezta gelditzen, beti eta beti ikusi nahi du, hark eza emaiten, etsitua da. Ordutik hark hartua du bere kompainia emaiten baldin badauko, adixkidantza, gabe utzia izanen dela uste ukana duenari ongi horiek hain handiak idurituko zazkola, nun gehiagokorik eman gabe egon baitaiteke, eta maitaleak haren ez ikus-tea gehiago jasaiten ahal eztuen ordu batez, gerla nahi den sarian bururatu nahi duen batez balia baitaiteke, bakearen lehen kondizonetako adixkidantzetan «platoniko» izaitera hura bortxatuz. Bertzela ere, antolamendu horren aitzineko dembora guzian, maitalea beti antsian, ethengabe eskutitz baten, behako baten aiduru, haren gutiziak lehenbizian oinazkatua zuen gorputzaz

jabetze bat gogoan ukaitetik gelditua da, baina igurikatzean gutizia higatu da eta lekua bertze mota bateko behar batzuer utzia daue, satifatuak ezpadira mingarriagoak bertzela ere. Orduan lehen egunean pherekuetarik itxarotua izana zen atsegina, berantago ukaiten da, osoki bertzelakaturik, adixkidantzazko elhe batzuen itxurapean, han izaiteko agiantza batzuenean, hauek, dudaren eraginen ondotik, batzuetan xoilki hoztazunezko lanho guziez lambrotu behako baten ondotik eta maite dena hain urrun gibelatzen duenetik nun uste baita nehoiz eztela berrikusiko, atsedean ezin goxoagoak ekhartzen baitituzte. Emaztek hori guzia asmatzen dute eta bere buruaren ehoiz ez emaiteko abantaila hartzen ahal dutela badakite, hetaz gutizia ezin sendagarria badutela senditzen dutener, lehenbiziko egunetan horren gordetzeko zaintsuegiak izanak baldin badira. Zaintsu handiek horrela bere jainkosaren bertutean sinesten dute. Eta haren inguruan ezartzen duten urre-korona haien maitasun soberakinaren emaitza bat da, baina ikusten den bezala azkarki zeharkaturik. Bada orduan emaztearen baitan ustegabetarik - lokhargarriak eta morfina diren bezala - amarrutsu diren erremedioetan dena. Eztira loaren atsegina edo egiazko ontsa-izan bat emaiten dauetenendako baitezpada beharrezkoak; elezazkete horiek urre preziotan eros, eriak duen guziarekin ordainka; baina bertze eri haiendako (aitzineko hek berak behar bada, baina, zenbait urte berantago, bertzelakaturik), erremedioak lokharr-arazten eztituenak, atseginik batere emaiten eztauenak, baina, hura eztuteno, nahi den prezioan, bere burua hilez baliz ere, geldi-arazi nahi duten nahasmen batek hartuak dituenak.

Charlus-ko Jaunari doakonaz, haren aldia, oro har, sesuaren berdintasunak badagien berezitasun arinarekin, maitasuneko lege orotakoetan sartzen baita, Kapetianoak baina familia zaharrago batekoa izan zaitekeen, aberatsa, jendalde aphain batez debaldetan bilaturik izana, eta Morel jeus ez, Morel-i erraiten ahal zaukon, nihuri egina zautan bezala: « printze niz, zure ona nahia dut », amor eman nahi ezpazuen Morel-ek zuen hala ere garhaipena. Eta ez eman nahi ukaiteko, maitatua zela senditzea aski zen behar bada. Handiek bortxaz bada bortxaz haiekin adixkidantzan sartu nahi duten handi-usten aldera duten hastioa, gizon den gizonak badu gizakoiaren aldera, emazteak amoresegi den gizon orenera. Charlus-ko Jauna etzen bakarrik abantail guzien jabe, baina Morel-i ezin handiagoak eskainiko zauzkon. Baina izan daiteke hori guzia borondate baten kontra hautsiko zela. Aldi hortan

Charlus-ko Jaunaz Aleman batzuez bezala izanen zen, ethorkiz hetarik baitzen bertzela ere, eta, ordu hartan ari zen gerlan, baroinak apur bat gogotikegi errepikatzen zuen bezala, gudugune guzietan garhaile baitziren bada. Baina bere garhaipena zertako baliatuko zizaien, aldi bakoitzaren ondotik, Elgartuak aurkitzen zituztenez geroz, hek Alemanek, ukaitea agiantzatzen zuten gauza bakarraren, bake 'ta baketzearen ez onhartzera deliberatuagoak? Napoleon horrela Errusian sartzen zen eta gogo-handitasunekin buruzagier galdegiten zauen haren gana ethor zaiten. Baina nehor etzen agertzen.

Jautsi nintzan eta sartu han Moriz, berriz deituko zutenez dudan eta Jupien-ek igurika zezan erran zaukona, bere lagun batekin karta partida batean ari zen aitzin-gambara ttipian. Lurrean hatzemanik izana zen gerlako gurutze batez jendea biziki khexu zen, eta etzakiten nork zuen galdua, nori itzuli behar zen jabearen ganik gaztigu baten baztertzeke. Gero soldadomutilaren salbatzeko bere burua hiltzera utzia zuen aitzindari baten oneziaz mintzatu ziren. « Bada onik hala ere aberatsetan. Nik nihauren burua gogotik hil-araz nezake hori bezalako putil batendako », erran zuen Morizek, bere azotaldi izigarriak ezpaitzauzkon ageriki ohidura hutsez baizik baroinari emaiten, erakaspen eskastu baten ondorioz, diru beharrez eta lanak baino neke gutiago emaiten zuela uste zen eta behar bada gehiago emaiten zuen irabazteko molde baterako jaiduraz. Baina, Charlus-ko Jauna beldurtua zen bezala, bihotz biziki on bat zen behar bada eta, omen, kuraia miragarri bateko mutikoa. Aitzindari horren hiltzeaz mintzatzean abantzu nigarra begietan zen, eta hogei-ta bi urteko mutikoa etzen gutiago hunkia. « Ha! ba, putil gixakoak dituk. Gu bezalako miseraule batzuek, ez tie galtzeko gauza handirik, bana mutil andana bat badikan jaun bat, egun oroz 6 orenetan bere apeatifaren edatera joaiten ahal dukana, zinez polit duk. Nahi den bezainbat jostatzen ahal duk, bana holako putil batzu hiltzen ikusten direnean, zerbait egiten dik zinez. Jainko onak elezazkek holako aberats batzu hiltzera utzi behar; lehenik langilearendako baliagarriegi dituk. Holako heriotze baten gatik bakarrik, Boxe guziak azkenerano garbitu beharko 'tie. Eta Louvain-en egina diena, eta haur ttipi batzuer ukharaien moztea! Ez, nik eztakiat, enuk bertze bat bano hobea, bana muturrera pikor batzuen igortzera utz nezakek, holako salbai batzuer obeditu baino lehen; ez tituk gizonak, egiazko salbaiak dituk,

kontrakorik eztautak erranen. » Mutiko horiek guziak oro har aberritiarrak ziren. Bakar bat, besoan arinki zauritua, etzen bertzeren heinakoa izan, ezen erran zuen laster berriz joan behar baitzuen: « Bada, ezta zauri ona izan » (erreforma-arazten duena), Zuan Andereak lehenago « Marranta nardagarriaren biltzeko bidea hatzeman dut » erraiten zuen bezala.

Athea berriz ideki zen aire hartzera joana zen karrosazainera. « Nola, jadanik egina da? ezta luze izan », erran zuen, aro hartan agertzen zen gazeta bati aieru eginez « Gizon gatinaztatua » izengoitia emana zizakonaren joiten ari zela uste zuen Morizen ikustean. « Aire hartzen izan hizan hiretako ez-tuk luze izan, ihardetsi zuen Morizek gain hartan etzela gustatu ikus zezaten gaitzitua. Baina ni bezala bero hunekin besagainka joitera bortxatua bahintz! Emaiten ditikan berrogei-ta hamar liberak ezpalire... - Eta gero, ontsa mintzo den gizon bat duk; ikasia dela ageri duk. Laster bururatua izanen dela erraiten dika? - Eztitugula garhaitu ahalko erraiten dik, nehork irabazi gabe bururatuko dela. - Debrientxoa, baina Boxa duk beraz... - Jadanik errana dautzuet goregi mintzo zireztela, erran zauen bertzer zaharrenak eni ohartzuz. Gambararekin bururatua duzu? - Ha! ixil hadi, ehiz nagusia hemen. - Ba, bururatua dut, eta ordaintzeko heldu nintzan. - Nagusiari ordaintzea hobe duzu. Moriz, hoa bada haren bila. - Bana etzituztet desarrañatu nahi. - Enau desarrañatzen. » Moriz igan zen eta itzuli eni erranez: « Nagusia jausten da. » Desarrañamenduarendako bi libera eman nauzkon. Atseginez gorritu zen. « Ha! milesker. Presoner den ene anaiari igorriko dauzkot. Kampamenduetako arak ainitz egiten du. »

Bitartean, bi ohitu biziki aphain, bere soigainekoaren azpian jantzi handitan eta lephoko xurian - bi Errusiar, zizatan iduritu haien doinutik - alharzean zauden eta sartu behar zutenez deliberatzen. Horrara jiten ziren lehen aldia zen ageriki, lekua seinalatua zaukoketen, eta gutziaren, tentamenduaren eta beldur ezin handiago baten artean dudan iduri zuten. Bietarik batek - mutiko gazte eder bat - bi minuta guziez bertzeari errepikatzen zaukon irriño erdi galdekari, erdi sinets-araztera eman batekin: « Zer? ororen buruan futitzen gituk! » Baina hortik erran nahi ukan zezakeen ororen buruan ondorioez zela futitzen, badu itxura etzela hainbertzetarano futitzen, elhe hori ezpaitzen sartzerako mugimendu batez ere jarraikia, baina bert-

zearen aldera bertze behako batez, ondotik irriño beraz eta ororen buruan futitzen gituk beraz. Orogen buruan futitzen gituk hori, mintzara handizki eder, ohian mintzo dugunetik hain bertzelakoaren lekuko bat zen bertze milen artean, hortan bihotz-hunkidurak erran nahi duguna bere bidetik bazterr-arazten baitu eta haren lekuan osoki bertzelako erranaldi bat zabal-arazten, gogamenarekin loturarik eztuten eta hortik beretik hura agertzen duten mintza-molde horiek han bizi diren aintzira ezezagunetik jalgia. Orhoit niz aldi batez, Françoise, entzuna ezkinuena, ene adixkidea ene kontra osoki buluzia zen orduan sartzen ari baitzen, berak nahigabea Albertine-ek erran zuela, ene abisatzeko: « Ori, horra Françoise ederra. » Françoise, ezpaitzuen gehiago biziki ontsa ikusten eta ezpaitzuen gutarik aski urrun barnearen iragaita baizik egiten, deusi etzatekeen ohartuko. Baina « Françoise ederra » hitz hain itxuragabeok, Albertine-ek bizian ehoiz erranak etzituenak, bere ethorkia berek erakutsi zuten; Françoise-ek bihotz-hunkiduraz edonun bilduak senditu zituen, ororen hartzeko etzuen batere so egite beharrik ukan, eta bere erdaran « putana » murmurikatuz joan zen. Bertze aldi batez, ontsa berantago, Bloch-ek aita-familiako bilakaturik alabetarik bat katoliko batekin ezkondua ukan zuenean, jaun gaizki ikasi batek nexkari erran zaukon judu baten alaba zela entzun ukana uste zuela eta haren izena galdegin. Emazte gazteak, sortzetik Bloch Andereñoa izana baitzen, ihardetsi zuen, Guermantes-ko dukeak eginen zuen bezala aleman aran ahozkatuz, « Bloch » (ch-a ez c bat edo k bat bezala eginez baina ch germaniarrarekin).

Nagusia, hotelera itzultzeko (bi Errusok hara sartzea deliberatua zuten: « ororen buruan futitzen gituk »), etzen oraino jina Jupien sartu zenean azkarregi mintzo zirela deitoratzeko eta auzoek zinkurina eginen zutela. Baina eni ohartzean balditua gelditu zen. « Zoazte guziak salara. » Guziak jadanik zutitzen ari ziren, erran naukolarik: « Gizon gazte horiek hor egon daiten errexago lizatake eta ephe batez zurekin kampa joan nadin. » Jarraiki zizatan, biziki nahasia. Argitu naukon zergatik jina nintzan. Ohitu batzu entzuten ziren nagusiari galdegiten mutil-jantzi bat etzauenez ezagun-arazten ahal, beretter bat, karrosazain beltz bat. Ofizio guziek axolatzen zituzten ero zahar horiek, tropan harma guziek, eta erresuma guzietako elgartuek. Batzuek nahi zituzten oroz gainetik Kanadiarrak, behar bada Frantzia za-

harrekoa ala Angeleterrakoa denez jakina ezten doinu arin baten xoramenaz ohartu gabe hartuak. Bere zaiaren gatik eta gutizia horier aintziretako amets batzu lotzen baitzeztee ainitzetan, lehentasuna Eskoziarrek zuten. Eta, erokeria orok gertaldietarik ezagugarri berezi batzu ukaiten baititu, larritze bat ezpada ere, jakin-nahi guziak satifaturik izanak zituzkeen agure batek hisirekin galdegiten zuen gerlak hebaindu baten ezagutza egin-arazten ahal etzaukotenez. Urhats ezti batzu mailadian entzun ziren. Jitez zuen ausarkeria batez, Jupien ezin egon zen baroina zela jausten ari eni erran gabe, zer nahi gosta ere eninduela ikusi behar, baina mutiko gazteak zauden sargunearen ondoko gambaran sartu nahi banuen, leihoxka idekiko zuela, ikusia izan ahal gabe baroinak ikus eta entzun zezantzat asmatua zuen jokoa, eta, ziotan, haren kontra ene fagoretan itzuliko zuena. « Bakarrik, higi etzaitela. » Eta ni ilunera bultzatu ondoan, utzi ninduen. Bertzela ere eni emaiteko bertze gambararik etzuen, haren hotela, gerla izana gatik, betea izanez. Nik utzi berria nuena Courvoisier-ko bizkondeak hartua zuen, X-ko Gurutze-Gorria bi egunendako utzia ahal ukanik, oren batez Parisen libertitzera jina baitzen Courvoisier-ko jauregian bizkondesaren berraurkitzera joan baino lehen, hari erranen baitzaukon etzuela treina ona hartu ahal ukana. Etzen batere jelosten Charlus-ko Jauna hartarik zenbait metretan zela, eta hau ere ez gehiago, bere gusia Jupienen etxean behin ere ez aurkitua ukanik, hunek ezpaitzuen bizkondearen nortasun arthoski gordea ezagutzen.

Berehala baroina sartu zen alabaina, aski nekez ibiliz zaurien gatik, hauen ohidura bazukeelarik alta. Nahiz haren atsegina bururatua zen eta etzen Morizi zor zaukon diruaren emaiteko baizik sartzen, mutiko gazte bildu horier guzier inguruan so xamur eta jakin-nahi bat igortzean zauen eta bazuen bada bakoitzarekin egunon osoki platoniko baina amultsuki luzatu baten ukaiteko xedea. Berriz aurkituko nauzkon, abantzu herabetzen zuela iduri zuen emategi horren aitzinean erakutsi zuen arinkeria bixian, arratsean La Raspelière-ra haren lehenbiziko sartzean hainbat joa ninduten soin eta buruaren higitzeak, soaren xorroxtasunak, ezaguna enuen amabitxi zenbaiten ondorez ukanak zituen garaziak, eta biziko ohiduretan haren begitartean itxura gizatarrago batzuek gordetzen zituztenak, baina, ingurumen aphilago bati gustatu nahi zuen gertaldi batzuetan, andere handi agertzeko gutiziak

han zabalitzen.

Jupien-ek baroinaren ongi-nahiari gomendatuak zituen, guziak Belleville-ko «barbeaux» batzu zirela eta luis batendako bere arrebarekin ibiliko zirela zin eginez. Jupien-ek aldi berean egia zion eta gezurra. Baroinari erraiten zaukon baino hobeak, sendikorrakoak ziren, ez arraza basa batekoak. Baina hala zirela uste zutenak fede on osoenean mintzatzen zizetean bizkitartean, izigarri horiek berdina ukana behar balute bezala. Zadika batek hiltzale batekin dela uste ukan dezake, haren arima garbia, zadikarena, ezta hortakotz aldatua, eta jende horien gezurraren aitzinean harritua dago, batiere hiltzaleak eztirenak, baina bortz soseko bat errex irabazi nahi dutenak, eta solasetan haien aita edo ama edo arreba aldzika phizten baita edo berriz hiltzen, laket izan nahi zazkoten ohituarekin duten solasaldian nahasten diraket. Ohitua, bere xintxotasunean, balditua da ezen, maitale ordainduaz duen ideia berak nahi bezalakoarekin, ogendun dela uste den erhaite aintzez xoratua, haren elhetan hatzemaiten dituen kontra-erran batez eta gezur batez haztoratzen da. Orok ezagutzen zutela iduri zuten, eta Charlus-ko Jauna bakoitzean luzaz gelditzen zen, haien hizkuntza zela uste zuena mintzatuz, aldi berean lekuan lekukoaren egiteko fazoin handinahiz eta ere bizi zirtzil batean barne izaiteko atsegin zadikaz. « Hi, okaztagarri duk, Olympia-ko aitzinean ikusi haut bi kartoinekin, « xox » eman-arazteko duk. Horra nola trompatzen naukan. » Erranaldi hori igorria zaukonarendako zorionez, emazte baten ganik « xoxik » ehoiz onhartuko etzuela erraiteko astirik etzuen ukan, horrek Charlus-ko Jaunaren sua ttipituko baitzuen, eta bere ihardukitzea erranaldi ondarrarendako atxiki zuen: « Ho! ez, etzitut trompatzen. » Hitz horrek Charlus-ko Jaunari atsegin bizi bat eman zaukon, eta, berak nahi gabe, jitez zuen adimendu mota agertzen baitzen alegia egiten zuenean gaindi, Jupien-en gana itzuli zen: « Hori eni erranez gixakoa da. Eta zein ontsa erraiten duen! Egia dela iduri du. Orogen buruan egia izan dadin ala ez zer balio du, du eni sinets-araztera heltzen denaz geroz? Zer begiño pollitak dituen! To, egina dukanarendako bi musu gotor emanen dezteat, puttil. Gogoan ukanen nuk trantxetan? - Ha bada, egun batzu badira, grenada bat ondolik joaiten zautzularik... » eta mutiko gaztea hasi zen grenaden, airekoen eta bertze harrabotsen egiten. « Baina bertzek bezala egin behar da bada, eta bururano joanen girela segur baino segurregi izan zaite. - Bururano!

Zein burutarano baginaki bederen! erran zuen gogo-ilunduran baroinak « gaiztean sineslea » baitzen. - Eztuzu ikusi Sarah Bernhardt-ek egunkarietan errana duela: Frantzia, bururano joanen da. Frantsesak azkenerano hil-ara-ziko dira izaitekotz. - Eztut batere dudatzen Frantsesak azkenerako hil-ara-ziko direla », erran zuen Charlus-ko Jaunak munduko gauza errexena izan baliz bezala eta nahiz berak etzuen jeusen egiteko gogorik, baina ahazten zenean bazeman baketiar izaiteko iduripena horrela zuzentzen zuela uste baitzuen. « Eztut hortaz dudatzen, baina galdez nago Sarah Bernhardt Anderea norano den Frantziaren izenean mintzatzeko gai... Baina iduritzen zata mutiko gazte xoragarri, hautuko hau eztutala ezagutzen », gaineratu zuen berrezagutzen etzuen edo behar bada nehoiz ikusia etzuen bertze bati ohartuz. Versailles-en printze bat egina ukanen zuen bezala agurtu zuen, eta osagaitzat atsegin urru baten ukaiteaz baliatzeko - hala nola ttipia nintzanean eta amak Boissier edo Gouache baitan eros-manu bat eman berria zuenean, hartzen nuelarik, haien artean ospez zauden sal-mahiko anderetarik baten eskaintzan, berinazko untzietarik hartu onon bat -, mutiko gazte xoragariaren eskua hartuz eta luzaz tinkatuz, prusiar aran, lehenago argia gaixtoa zenean argazkilariek geldirik zure egon-arazten emaiten zuten ethengabeko demboran begiez irriñotan itzatuz: « Jauna, xoratua niz, zure ezagutzeaz loriatua. » « Ile pollitak ditu », erran zuen Jupien-en gana itzuliz. Gero Morizen gana hurbildu zen berrogei-ta hamar liberen emaiteko, baina lehenik hura gerritik hartuz: « Enaukan ehoiz errana etxezaintsa bat garbitua huela Belleville-en. » Eta Charlus-ko Jauna gogo-erautzaldizko khorronkan zen eta begitarte Morizenera hurbiltzen zuen. « Ho! Jaun Baroina, erran zuen mutiko ordainduak, haren abisatzea ahatzia baitzuten, holako gauza bat sinesten ahal duzua? » Ala gauza gezurra izanez, ala, egia bazen, hala ere egileak laztagarri eta ukhatuak izan behar zutenetarik zela aurkitzen zuelakotz: « Nik ene urkoaren hunkitzea? Boxe bat, ba, gerla delakotz, bana emazte bat, eta oraino emazte zahar bat! » Bertutezko prinsipio horien aithortzeak ur hotz turrusta baten ondorioa ukan zuen baroinaren baitan Morizen ganik idorki urrundu baitzen, dirua emanez bizkitartean, baina hatzemana izan den, ixtorriorik nahi eztuen, ordaintzen duen, baina loriatua ezten norbaiten aurpegi nahigabetuarekin. Baroinaren iduripen gaixtoa handitua izan zen bertzela ere abantailduak eskertu zuen moldeaz, erran baitzuen: « Hau ene zaharrer

igorriko deet eta doi bat atxikiko dut gudugunean den anaiarendako. » Sendimendu hunkigarri horiek Charlus-ko Jauna nahigabetu zuten haien erran moldeak, baserritartasun apur bat ohidurazkoak nardatu zuten bezainbat. Jupien-ek batzuetan abisatzen zituen gaizkira gehiago emanak izan behar zutela. Orduan bat, debruzko zerbaiten aithortzeko itxuran, menturatzen zen: « Errazu bada, baroina, enauzu sinetsiko, bana haurra nintzanean, gako xilotik so egiten nuen aitamer besarkatzen ari. Biziodun da, ez? Buru betetze bat dela uste duzula iduri duzu, bana ez, zin egiten dautzut, diotzutan bezala da. » Eta Charlus-ko Jauna hainbertze zozotasun eta inozenziaren agertzera baizik heltzen etzen gaizkirako indar alegiazko hortaz aldi berean etsitua zen eta sumindua. Eta ere ohoin, erhaile deliberatuenean etzuten askietsiko, ez-paitira bere gaixtaginkeriaz mintzatzen; bada bertzela ere zadikaren baitan - hainbat ona izan ahal dadin, eta gehiago, are hobea izanik ere - gaizkiaren egarri bat bertze helburu batzu dituzten gaixtaginek ezin ase dezaketena.

Gizon gazteak, bere hutsa berantegi hartuz, erran ahal ukan zuen kaxketadunak etzituela usaintzen ahal eta ausartzia ereman baroinari erraiterano: « Hitzartze bat ematak », xoramena ezeztatua zen. Fazoinkeria sendi zen, azpi-erdaraz mintzatzen indar badagiten idazlen liburuetan bezala. Debaldetan zituen gizon gazteak bere emaztearekin egiten zituen « zikintsueria » guziak xeheki erran; Charlus-ko Jauna ohartu zen bakarrik zikintzueria horiek zein gauza gutitan mugatzen ziren. Gainera, etzen bakarrik zintzotasun gabez. Jeus ezta atsegina eta bizioa bezain mugaturik. Erran-nahi hortan, zinez erran daiteke beti biziozko inguru berean itzulikatzen dela.

Charlus-ko Jauna printze zela uste baldin bazen, urriki ainitz bazen aldiz, etxe hartan, mutiko ordainduek « Haren izena eztaikit, baina baroina omen da » hartaz erraiten zutenaren heriotzea, eta Foix-ko printzea bera zenarena (Saint-Loup-en adixkidearen aita). Bere emaztearen etxean bilkuran ainitz bizi zenarendako hartua izanez, Jupien-en etxean elhekatzen, xirtxil batzuer munduko ixtorio erraiten egiazki orenak emaiten zituen. Gizon handi eder bat zen semea bezala. Charlus-ko Jaunak, dudarik gabe betidanik ezagutua zuelakotz, elgarrekin gostu berak zituztela jakin etzezan ustegabetzekoa da. Lehenago bere seme (Saint-Loup-en adixkidea) oraino ikaslerano ekharriak zituela erraiterano bazoazen, gezurra zatekeena. Al-

diz, aintzek ezagutzen eztituzten bizimolde batzuetan biziki argitua, bere semearen ezagutzetara azkarki guardi emaiten zuen. Egun batez gizon bat, ethorki aphalekoa bertzela ere, Foix-ko printze gazteari jarraikia izainik aitaren hotelerano, han paper bat leihotik botatua baitzuen, aitak hau bildua zuen. Baina jarrailea, nahiz etzen, arixtokratikoki, Foix-ko Jaun aitaren mundu berekoa, bertze alde batetik hartakoa zen. Nekerik etzuen ukan gogo bereko lagunkide batzuetan ararteko baten aurkitzen hunek Foix aita ixilarazi baitzuen mutiko gazteak berak zuela adineko gizon baten ausartzia hori sustatua phorogatuz. Eta hori izan zaitekeen. Ezen Foix-ko printzea ezagutza gaixtoetarik semearen begiratzera heldu ahal izana zen kampoan, baina ez ethorkitik. Gainera Foix-ko printze gaztea, bere aita bezala, alde hortan bere munduko jendez ez ezaguna gelditu zen, nahiz bertze batekoekin ehor baino urrunago zoan.

« Zein ximplea den! ehoiz elaitke erran baroin bat dela », erran zuten ohitu batzuek Charlus-ko Jauna jalgia izan zenean, Jupien-ek behererano lagundurik, huni mutiko gaztearen bertuteaz deitoratzetik ezpaitzen baroina gelditu. Jupien-en itxura gaitzitutik, mutiko gaztea aitzinetik ontsa eskolatua baitzukeen, senditu zen erhaile falsuak perrexilaldi gaitza ukanen zuela sarri Jupien-en ganik. « Errana dautakaren osoki kontrakoa duk », gaineratu zuen baroinak Jupien leitzoneaz balia zadintzat bertze aldi bateko. « Jite onekoa iduri du, bere familiarendako errespetuzko sendimenduak erraiten ditu. - Alta aitarekin ezta ontsa, kontra ihardetsi zuen Jupien-ek, elgarrekin bizi dira, baina zerbitzuan biak bi ostatu berezietan. » Hiltzearen ondoan gaixtaginkeria ahula zen ageriki, baina Jupien ustegabetarik hatzimana zen. Baroinak jeus etzuen gaineratu, ezen, atseginak apaila ezazkoten nahi baldin bazuen, nahi zuen ere apailatuak etzirela sinesteko lillura bere buruari eman. « Zinezko mandil bat da, hori zure bairatzeko errana dautzu, xintxoegia zira », gaineratu zuen Jupien-ek bere buruaren xuritzeko, Charlus-ko Jaunaren bere alderako amodioaren gaitzitzea baizik ez ginez.

« Ba omen du egunean miliun bat xahutzeko », erran zuen hogei-ta bi urteko mutiko gazteak, emaiten zuen hitzerrana ezpaitzizakon itxura gabea iduritzen. Berehala entzun zen Charlus-ko Jaunaren bila ethorria zen beribilaren burrumba. Ordu hartan sartzen ikusi nuen emeki ibiliz, ageriki

ondoko gambara batetik harekin jalgitzen ari zen soldado batekin, andere aski adineko bat iduritu zizatan norbait, zaia beltzean. Ene hutsa berehala ezagutu nuen, aphez bat zen. Aphez gaitz bat den gauza hain bekan hura, eta Frantzian osoki ohi ez bezalakoa dena. Soldadoa ari zen ageriki bere lagunari trufaz haren eginarak jantziarekin zuen egokitasun gutiaren gatik, ezen hunek, itxura larri batean, eta bere aurpegi ezin itsusiagora theologiako dotore baten erhi bat goitituz, zuhur-hitz moldean erran zuen: « Zer nahi duzu eniz (« saindu bat »-i nindagon) aingeru bat. » Etzuen bertzela ere joaitea baizik egiteko eta Jupien despeditu zuen, hau, baroina lagundurik igan berria baitzen, baina xoriburukeriaz aphezak ordaintzea ahatzi zuen. Jupien-ek, bere izpirituak ehoiz ezpaitzuen uzten, hartan ohitu bakoitzaren ordaintza ezartzen zuen arkila inharrosi zuen, et jo-arazi erranez: « Zeremoniako gastuendako, Jaun apheza! » Jende itsusia desenkusatu zen, bere monera eman zuen, eta itzali zen.

Jupien bila jin zizatan mugimendu baten egitera ausartzen enintzan zoko ilunera. « Sar zaite ephe bat ene mutikoak igurikan dauden barnera, gambararen hestera noan batean; alokari zirenaz geroz zuzen da. » Nagusia han zen, ordaindu nuen. Ordu hartan sartu zen gizon gazte bat ezmokinetan eta doinu larde batez nagusiari galdegin zaukon: « Leon ukaiten ahalko duta bihar goizean hameken orde hamekak laurden gutitan, hirian barazkaltzen bainiz? - Hori, ihardetsi zuen nagusiak, aphezak zenbat dembora atxikiko duen. » Erantzun horrek etzuen iduriz ezmokinetan zen gizon gaztea askiestsi, aphezaren kontra ahapaldikatzera prest iduri baitzuen jadanik, baina haren haserreak bertze bide bat hartu zuen ohartu zizatanean: « Nor da? Zer erran nahi da? » Nagusiak, biziki nahigabetua, argitu zuen ene hor izaiteak etzuela muntarik batere erranez, alokari bat nintzala. Ezmokinarekilako gizon gazteak etzuen batere argipen hortaz ematua iduritu. Etzen errepikatze-tik gelditzen: « Ezin gehiago gozagaitz da, gertatu behar eluketen gauza batzu dira, hori hastio dutala badakizu, eta hain ontsa eginen duzu nun ezpaitut gehiago hemen zangorik sartuko. » Mehatxu horren ondorioa etzen alta hurbil-hurbila iduritu, gizona haserre gorrian joan baitzen, baina Leon libro izan ahal zadin hamekak laurden gutitan gomendatuz, ahal bazen hamar eta erditan. Jupien ene bila itzuli zen eta enekin karrikarano jautsi.

« Gaizki juja nezazun enuke nahi, erran zautan, etxe hunek ez-tauta uste duzun bezainbat diru ekhartzen, alokari onest batzuen ukaitera bortxatua niz, egia da haiekin elizatekeela diru jatea baizik egin. Hemen Karmelen kontrakoa da, bizioari esker da bertutea bizi. Ez, etxe hau hartu badut, edo izaitekotz ikusi duzun nagusiari harr-arrazi badaukot, baroinari zerbitzu egiteko da bakarrik eta haren zahar egunen libertitzeko. » Jupien-ek etzuen bakarrik ikusiak nituen zadizmakoe egintzez mintzatu nahi eta baroinaren biziokoez berez. Hau, solastatzeko bereko, kompania ukaiteko, karta jokoetako, etzen gehiago hartaz baliatzen ziren jende xehekoekin baizik gustatzen. Dударик gabe zirtzileria handi-ustea bertzea bezain ontsa adi daiteke. Bertzela ere luzaz baturik izanak ziren, bata bertzearekin aldizkatuz, bere ezagutza mundutarretako nehor aski aphain, ez eta bertzetako gaizkietik azki hurbil iduritzen etzizakon Charlus-ko Jaunarendako. « Arteko mota hastio dut, zion, burjes komedia ttinkia da, behar ditut edo tragedia klasikoko prinzesak edo trufa-joko gizona. Arterik ez, edo Phèdre edo Les Saltimbanques. » Baina azkenen bi handi-ustekeria horien arteko hein berdina hautsirik izana zen. Behar bada agurearen akhidura, ala ezagutza arruntenetara atsegalekeriaren hedatzea, baroina etzen gehiago « beheragoko » batzuekin baizik bizi, horrela berak jakin gabean La Rochefoucauld-eko duke baten, Harcourt-eko printzearen, Berry-ko dukearen ondoriotasuna hartuz, San-Simunek erakusten baitauzku lekaioekin bere biziaren eremaiten, gaitzeko dirutzeak biltzen zauetzteelarik, haiekin jokoan, jaun handi horiendako, ikustera joan behar zizaienean, eragozpenean izaiten baitzen, bere mutileriarekin kartetan ari edo edaten etxekoki jarriak ikustean. « Hori da oroz gainetik, gaineratu zuen Jupien-ek, haren ganik nahigaben baztertze-ko, baroina, badakusazu, haur handi bat delakotz. Orai ere hemen gutizia dezazkeen guziak badituelarik, badoa oraino gertaldi bila itsusiaren egitera. Eta bihotzona den bezala, diragaiten aroetan horrek ondorioak ukan lezazke. Eztea izan joan den egunean hoteleko mutil-jantzi bat beldurrez hartua zena baroinak bere etxera jiteko eskaintzen zaukon diru guziaren gatik? (Bere etxera, zer zuhurtzia gabea!) Mutiko hori, emazteak baizik maite ez-tuena bizkitartean, segurtatua izan da haren ganik zer gutiziatzen zen jakin duenean. Diru agiantza horien guzien entzutean, baroina espion batendako

hartua zuen. Eta ontsa goxoan aurkitu da ikusi duenean etzizakola aberriaren saltzea galdegiten, baina bere soinarena, moralekoagoa ezten gauza behar bada, baina gutiago lanjeros eta oroz gaineretik errexago. » Eta Jupien-en entzutean, banion neure baitan: « Zer zorigaitza Charlus-ko Juana elhaberrilaria edo olerkaria izan eztaidin! Ez batere ikusi duenaren erakusteko, baina Charlus bat bere inguruan eskandalen sorr-arazteko gutiziaren eretzean den heinak, biziaren serioski hartzera bortxatzen du, atseginen sendimenduen ezartzera, gauzetako bizi irkaiztun eta azaleko batean gelditzetik eta egoitetik debekatzen, ethengabe haren baitan ixurpen mingarri bat idekitzen. Hitzageri bat igortzen duen abantzu aldi oroz, laido bat jasaiten du, ezpadu oraino presondegia irriskatzen. » Ezta bakarrik haurren ikaskuntza, poetena da ere zartaka egiten. Charlus-ko Jauna elhaberrigile izan baliz, Jupien-ek antolatua zaukon etxea, irriskuak hainbertzetarano ttipituz, bederen (ezen polizia jauste batez beldurtzeko zen beti) baroina, karrikan, haren omoreaz segurtatua izanen etzen norbaiten ganikako irriskuak, zorigaitz bat izanen zizakon. Baina edergintzan Charlus-ko Jauna etzen maitale arin bat baizik, idaztea gogoan etzuen eta hortako dohainik gabea.

« Bertzela ere, aithortuko nautzun, egin zuen berriz Jupien-ek, irabazte mota hunen ukaiteaz eztut arrangura handi bat. Hemen egiten den gauza bera, maite dutala eztezaizuket gorde, ene biziko gostua dela. Bada, ogendun jujatzen eztiren gauza batzuetako sari baten ukaitea debekatua dea? Ni baino ikasiagoa zira, eta erranen dautazu dudarik gabe Zokratez-ek bere ikastaldiendako sari bat ukan zezakeela etzuela uste. Baina, gure adinean, filosofiako erakaslek eztute horrela gogatzten, ez eta medikuek, ez margolariak, ez antzerlariak, ez antzokietako buruzagiek. Etzazula uste ukan ofizio hunek etzuela gizatzar batzuekin baizik ibil-arazten. Dudarik gabe mota huntako etxe baten buruzagiak, andere ordaindu handi batek bezala, eztu gizonik baizik ukaiten, baina gizon batzu gauza orotan seinalatuak eta orotara, lerro berdinean, bere ofizioko xorrotxenetarik, sendikorretenarik, gixakoenetarik. Etxe hau laster, segurtazen zitut, izpirituko bulego bat eta berritegi bat bilaka laiteke. » Baina Charlus-ko Jaunari emaiten ikusiak nituen ukhaldietako bihotz-hunkiduran nintzan oraino.

Eta egia erraiteko, Charlus-ko Jauna ontsa ezagutzen zenean, haren urgulua, atsegin mundutarrez zuen asebatea, azken lerroko eta mota gait-

zeneko gizonendako haren burutaldi amodio suharretara errexki aldatuak, biziki ontsa har daiteke, fortuna gotor berak, aberats berri baten gana eroririk, hau xoratuko zuelarik duke batekin bere alabaren ezkontzeko eta bere ihizietara Goientasun batzuen gomitatze ahala emanez, Charlus-ko Jauna haren ukaiteaz gozoan zela, haiekin gustatzen zen mutiko gazte batzu beti bazauden etxe bat edo gehiagotan esku gehienaren ukaiteko ahala emaiten zaukolakotz. Hortako etzen behar bada haren bizioaren beharrik ere izanen: hainbertze jaun handi, odoleko printze ala dukeren ondokoa zen, San-Simunek hetaz erraiten baitauku etzirela « izenda zaitkeen » ehorekin ibiltzen eta bere astia bazeramatela haier gaitzeko dirutaldeak emaiten zezteeten mutilekin karta jokoetan!

« Anartean, erran naukon Jupien-i, etxe hau osoki bertze zerbait da, ero etxe bat baino gehiago, hemen dauden buru galduen erotasuna ikusia izaiteko moldatua denaz geroz, berregina, ikuskarri, egiazko « pandemonium » bat da. Uste ukana nuen Mila eta bat gau-etako kalifak bezala joiten ari zuten gizon baten sokorrira ordu onean heltzea, eta mila eta bat gau-etako bertze ipuin bat dut ene aitzinean gertatzen ikusia, emazte batek, zakurreme batera aldaturik, lehenbiziko moldearen berraurkitzeko nahitara bere burua jo-arazten duen hura. » Jupien-ek ene elhez azkarki nahasia iduri zuen, baroina joiten ikusia nuela hartzen baitzuen. Ephe batez ixilik egon zen, bazaragan fiakre bat gelditzen nuelarik; gero bapatez, bera egina zen gizon haren baitan beti hain usu ohartua nindakon izpiritu pollitarekin, eni edo Françoise-ri ongi-ethorri egiteko, gure etxeko korroilan, hain elhe eskerdunak zituenean, erran zautan: « Mila eta bat gau-etako ainitz ipuinez mintzo zira. Baina bat ezagutzen dut, baroinaren etxean ustez ikusia dutan liburu baten izenburuarekin loturarik gabe eztena (aieru bazegien Charlus-ko Jaunari igorria naukon Ruskin-en *Sésame et les Lys*-en itzulpen bati). Behin ikusi nahi badituzu, arrats batez, eztiot berrogei, baina hamar bat ohoin, hunara jitea aski duzu; hor nizanek jakiteko, aski duzu gaineko leihoari so egitea, ene leiho ttipia beti idekirik eta argitan uzten dut, horrek ethorria nizala erran nahi du, sar daitekeela; ene « *Sésame* » berezia da; badiot bakarrik « *Sésame* ». Ezen « *les Lys* », hek baldin badituzu nahi, bila bertze norapait joaiteko aholkua emaiten dautzut. » Eta ni aski ozarki agurtuz, arixtokraziako erosleria batek eta itsas-lapur batek bezala zerabilan gizon gazte andana batek

halako etxekotasun bat emana baitzaukoten, ene despeditzera zoan, tiro baten harrabotsak, zirenek aitzindua etzuten bomba batek egin baitzuen ephe bat harekin egon nindadin aholkatu zautala. Laster kontra-tiroak hasi ziren, eta hain bortitz nun sendi baitzen hurbil-hurbila, gure gainean zuzen, zela aireko alemana.

Berehala karrikak osoki beltz bilakatu ziren. Batzuetan bakarrik, aski ahal zabilan aireko etsai batek bomba bat hara egotzi nahi zuen gune bat argitzen zuen. Neure bidea enuen berriz aurkitzen. Gogoan ukan nuen, La Raspelière-rakoan, ene zaldia ukan zuti-arazia zuen jainko bat bezala, aireko bat aurkitua nuen egun hura. Orai aurkintza bertzelakoa izanen zela uste nuen eta gaitzaren jainkoak hilen ninduela. Hari ihes egiteko urhatsa lehiatu nuen uhain luzeak lasterkatzen duen bidaiari batek bezala, plaza beltzetan inguruka nindabilan, handik ezpainindaikkeen jalgi. Azkenean sute baten garrek argitu ninduten eta neure bidea berriz aurkitu ahal nuen bitartean kanoi ukhaldiek gelditu gabe zartakatzen zutelarik. Baina ene gogoan bertze gauza batera itzulia zen. Gogoan nuen Jupien-en etxea, behar bada orai erhauts bilakaturik, handik jalgia baizik enintzan orduan bomba bat ene ondo-ondoan eroria baitzen, gainean Charlus-ko Jaunak profetikoki « Zodoma » izkiriatu ahal ukanen zuen etxe hura, Pompeiko biziliar ez ezagunak egina zuen bezala, ez geroaren jakite gutiagokoarekin edo behar bada sumendiko jauzte 'ta ixtripu jadanik abiatuaren hatsarrean. Baina zirenaz eta gothaez zer axola zuten bere atseginaren bila jinak zirenek? Gure amoreak inguratzen dituen gizarteko, naturako ingurumena, eztugu abantzu batere gogoan ukaiten. Ekaitza errabian da itsasoan, untzia alde guzietarik kulunkan, zerutik burrustan jausten dira haizeak bihurtu erauntsiak, eta gehien-gehienik zekunda bateko oharra daukogu emaiten, egiten daukun eragozpenetik gerizatzeko, gu eta hari hurbiltzera entseatzen giren gorputza hain gauza guti giren neurrigabeko ingurumen horri. Bombak iragartzen zituen zirenak etzitzen Jupien-en ohituak horma-mendi batek egiten zituen baino gehiago nahasten. Ontsa gehiago, gorputzetako lanjer mehatxatzaleak aspaldidanik erikorki bortizki hertsatuak ziren beldurretik liberatzen zituen. Beldurretako neurri-araua sortzen dituen lanjerrena bera dela sinestea huts egitea da bada. Ez lokhartzearen beldur izan daiteke eta ez batere buruz-buruko gudu baten, garratoin baten eta ez lehoin baten.

Zenbait orenez poliziako gizonak etziren jenden biziaz baizik axolatuko, gauza hain munta gutikoa, eta etzituzten desohoreko irriskuan ezarriko. Batzuek, bere libertate moralaren berraurkitzera egin baino lehen, karriketan bapatez egina zen ilunbera joan nahiago ukan zuten. Jadanik zeruko sua gainera erortzen zizaien Pompeiar horietarik zenbait ere metroko barne-bide, lupeko hilerriak bezain beltzetara jautsi ziren. Bazakiten alabaina etzirela han bakarrak. Alabaina berri den zerbaitek bezala gauza oro hartzen duen ilunbeak ondorioztat du, jende batzuek ezin ihardokizko moldez tentatzalea baita, atsegineko lehen mailaren ekhentzea eta ohiki zenbait demboraren buruan baizik hetara joaiten ezten phereku batzuetara zuzen sarr-araztea. Gutiziaren gaia izan dadin emazte bat ala gizon bat, hurbiltzea errex dela, eta saloin batean (egun betean bederen) luzaz iraunen zuten jostakeriak debaldekoak direla uste izanik ere, bada bederen hartan begiek bakarrik garia belarrean jaten duten aitzin-urhats bat, ibiltzalen beldurrak, bilatzen den jendearenak berak, so egitea, mintzatzea baino gehiago egitea debekatzen dutena. Ilunbean, joko zahar hori guziaz ezeztatua gertatzen da, eskuak, ezpainak, soina jokoan sartzen lehenak izaiten ahal dira. Ilunbeto bereko desenkusa da gelditzen, eta egin-arazten dituen hutsena, gaizki hartua izaiten baldin bada. Ontsa egina izaiten bada, gibelatzen ezten, hurbiltzen den soinaren berehalako ihardespene horrek emaiten dauku, ixilean hel egiten daukogunaz, aitzin-gogamenik gabe delako ideia bat, bizioz bete, ideia horrek emendio bat ekhartzen baitauko begiez gutiziatu gabe eta baimenik eskatu gabe fruituan berean ausikia ahal ukaiteko zorionari. Bitartean ilunbeak irauten du; gauza berri hortan murgilduak, Jupien-en ohituek bidaiatua zutelako ustean, uhain luze bat edo itzalaldi bat bezalako gertakari naturako baten ikustera ethorriak zirela, eta atsegin aitzinetik antolatu eta barneko baten orde ez ezagunean ustegabeko aurkintza baten jastatzera, segetuzko zeremonia batzu egiten zituzten, bomben burrumba sumendietakoan, leku gaitz pompeiar baten oinean, lupeko hilerrietan zeremonia segetuzko batzu.

Jupien-en etxeko margazki pompeiarrek ontsa zoazen bertzela ere, Frantziako Iraultza azkenaz orhoit-arazten zutenean, hastera zoan aro Directoire-aren aski idurikoarekin. Jadanik, bakea aitzinatuz, agerikiegi polizaren manamenduen ez hausteko ilunbean gordez, orotan jantza berri batzu anto-

latzen ari ziren, gau osoan eroki egiten. Horren ondoan, edergintzako aburu batzu, gerlako lehen urtetan baino gutiago Alemanen kontrakoak, abiatzen ari ziren izpiritu ithoer berriz hatsaren emaiteko, baina haien erakustera auzartzeko herritartasuneko ageri bat behar zen. Erakasle batek liburu ohargarri bat idazten zuen Schiller-ez eta egunkarietan aiphatzen zen. Baina, liburuaren egileaz mintzatu baino lehen, imprimatzeko baimen bat bezala Marnean, Verdun-en izana zela izkiriartzen zen, bortz aiphamen ukanak zituela, bi seme hilak. Orduan goraiphatzen ziren Schiller-ez egina zuen liburuaren argia, barnatasuna, handi zela erraiten ahal baitzen, « Aleman handi hura »-ren orde, « Boxe handi hura » erraiten zen ber. Artikuluarendako legezko hitza zen, eta berehala agertzera uzten zen.

Sala ber batean, ihes egin nahi ukana ezpaitzuten, ainitz gizon bilduak ziren. Etzuten elgar ezagutzen, baina ageri zen alta mundu aberats, arixtokrata bertsukoak zirela. Bakoitzaren itxurak bazuen atsegin desohoragarri batzuer ez ihardukitzea zatekeen zerbeit higungarri. Batek, gaitzeara, begitartea orbain gorri batzuez estalia zuen mozkortzale batek bezala. Hastapenean etzela hala ikasi nuen eta bere atsegina mutiko gazte batzuer edan-arazten hartzen zuela bakarrik. Baina mobilizatuia izaiteaz laztatua (nahiz iduri zuen berrogei-ta hamar urteak iraganak zituela), azkarki lodia baitzen, gelditu gabe edateari emana zen ehun kiloak gaintitu nahiz, hortik goiti erreformatua izaiten baitzen. Eta orai, karkula hori jaidura bizira aldaturik, nun ere uzten bazen, goaitatzen zen ber, arno saltzale baten etxean edireiten zen. Baina mintzatu zen orduko ikusi nuen, adimenduz bierarte-koa izanik ere, jakitate, erakaspen eta kultura handiko gizona zela. Bertze gizon bat, mundu handikoa hura, biziki gaztea eta soinara ezin aphainago batekoa, sartu zen ere. Haren baitan, egia erraiteko, etzen oraino bizio baten ere kampoko hatzik, baina, gogoetagarriago zena, barneko batzuen. Biziki handia, begitartez xoragarria, haren elhakatzeak bere auzo edalerenetik osoki bertzelako adimendu bat agertzen zuen, eta, ez gehiegi erranez, egiazki ohargarria. Baina erraiten zuen guziari bertze erranaldi batendako egoki izanen zen mintza-molde bat emana zizakon. Giza-begitarteko itxura mota guzien jabe zen batean, bertze mundu batean bizi izana baliz bezala, itxura horiek behar etzen ordenuan agertzera emaiten zituen, iduri zuen entzuten zituen solasekin loturarik batere gabeko irriño eta behako batzu nola nahi

orstokatzen zituela. Oraino bizi dela segur baita, ez eritasun iraunkor batez, baina gaitz iragankor batez hartua zela agiantzatzen daukot. Itxura badu gizon horier guzier ikustaldiko karta galdegin balizaie, gizarteko mail gora batekoak zirela ikustean ustegabetua izanen zela. Baina bizio zenbaitek, eta orotako handienak, bati ere ez ihardoki ahal ukaiteko borondate eskasak, hor biltzen zituen, gambara berex batzuetan egia da, baina erran zautaten arrats oroz, hala nola nun haien izena munduko emaztez ezaguna baldin bazen, haien aurpegia apurka galdukea baitzuten, eta nehoiz ezpaitzuten haien ikustaldiaren ukaiteko aldirik. Hek gomitaldi batzu ukaiten zituzten oraino, baina ohidurak leku gaitz nahastekatura berriz ekhartzen zituen. Gainera guti gordetzen ziren, haien atseginetako baliatzen ziren mutil-jantzi, langile 'ta bertzen kontrara. Eta asmatzen diren arrazoin ainitzetarik kampo, hori hunen bidez hartzen da: industriako langile batendako, mutil batendako, horrra joaitea, bertuteduna dela uste den emazte batendako emategi batera joaitea bezala zen; han izanak zirela aithortzen zuten batzuek hara berriz ehoiz itzuliak izaitea ukhatzen zuten, eta Jupien-en berak, haien omenaren gerizatzeko ala burkideatza batzuen baztertzeko, bazion: « Ho! ez, ezta nehoiz ene etxera jiten, eluke jin nahi. » Munduko gizon batzuendako, gutiago larri da, are gehiago nun hara eztoazen bertzek zer den ezpaitakite, eta zure biziaz ezpaitira axolatzen. Aldiz airekoeriako etxe batean, burdin-moldatzale batzu han izan badira, hek barandatzen dituzten lagunek, munduan deusetako elukete hara joan nahi hori jakina izan ladin beldurrez.

Neure egoitzara hurbiltzen ari nintzan batean, gogoan nuen gure atseginetan barne izaitetik konzienzia zein laster gelditzen den, hedatzera uzten baititu hetaz gehiago axolatu gabe, eta ordutik zenbat ustegabetuak izanen ahal ginen, eta jende osoa hartzen dutela uste ukanez, haien moraleko edo adimenduko balioa alde osoki bertze batera librokiko hedatzen ahal den gizon batzuen egintzak kamputik bakarrik ikusten baginitu. Ikaskuntzako huts bat zen ageriki, edo ikaskuntzarik gabe izaitea, molde gutienik nekagarrian ezpada (ezen oro har lan ainitz eztiagoak zatezkeen, baina behazunez eriak ez ote du, bitxikeria, gabezia eta erremedio batzuez, bizi bat eritasunak balegikeen baino biziki nekeagoa ehaiten, horrela haren kontra gudukatzea uste duelarik?), bederen ahal bezain guti dorpean diru irabazteko jaidura bati loturik, « mutiko gazte » horiek, hala erraiteko ogengabetasun oso batean eta

sari bierarteko batendako, atseginik batere emaiten etzaueten gauza batzuen, eta hastapenean higundura bizi bat emana zauketenen egitera eremanak zituen. Hortarik funtsez gaitzak zirela sinetsi ahal ukanen zen, baina etziren bakarrik gerlan soldado miragarri batzu izan, « bihoztun » paregabeko batzu, bizi zibilean bihotz on batzu izanak ziren ere ainitzetan, ezpada jende osoki gozo batzu. Zeramaten biziak moralekorik ala moralgabekorik zer ukan ahal zezakeen etziren gehiago aspaldidanik ohartzen, haien ingurumenekoa zelakotz. Horrela, ixtorio zaharreko une batzu ikhertzen ditugunean, ustegabe-tuak gira bakarka onak diren jende batzuen ikustean arrangurarik gabe metan ehaite batzuetan barne izaiten, gizaki sakrifizio batzuetan, itxura guzien arabera gauza natural batzu iduritzen zizezteenak. Gure aroak dudarik gabe, haren ixtorioa bi mila urteren buruan irakurriko duenarendako, eztu hala ere konzienzia xamur eta garbi batzu bazaduzkala iduri ukanen orduan it-suski kaltegarria agertuko den eta onhartzen zuen biziko ingurumen batean. Bertzalde, gizon guti nuen ezagutzen, erran dezaket ere gizonik enunela eza-gutzen, adimenduaren eta sendikortasunaren aldetik Jupien bezain dohatua zenik; ezen haren solasen izpirituko sarea bazegien « bildu » ezin goxoagoa etzizakon ikastetxetako erakaspenetik heldu, hartaz nehor ez bezalako gizon bat eginen ahal zuen Unibersitateko kulturetarik, munduko hoinbertze jende gaztek eztutelarik abantailik batere horietarik biltzen. Haren jitezko zentzu xoilak, gostu naturalak, edonun egin irakurtze bekan batzuetarik, gidaririk gabe, arte galduka, zaukoten hartan hizkuntzako arau zuzen guziak agertzera uzten ziren eta bere edertasuna erakusten zuten mintzara hain zuzen hura molda-arazia. Egiten zuen ofizioa bada, arrazoinekin irabazkarrienetarik bat bezala har zaitekeen segurki, baina guzietan azkena bezala ere. Charlus-ko Jaunaz zen bezainbatean, « erran-merrana »-rendako zer erdainu bere urgulu arixtokratikak emana ukan ahal zezon ere, nolaz etzuen bere handitasunaren eta bere alderako errespetuaren sendimendu batek bere atseginkoitasunaren-dako iduriz desenkusatzat erotasun osoa baizik ukan etzaitekeen satifamen-du batzuen ez onhartzera bortxatua? Baina haren baitan, Jupien-en baitan bezala, bertze egintza mota orotarik moralitatearen berexteko ohidura (ofizio ainitzetan gertatzen datekeena bertzela ere, batzuetan jujearenean, batzuetan Estatuko gizonarenean, eta bertze ainitzetan oraino) hain aspalditik hartua zatekeen nun ohidura (moraleko sendimendua gehiago galdekatu gabe) egu-

netik egunera larrituz joana baitzen, Prometheo onhartzale horrek bere bu-
rúa Materia hutseko aitzean Indarraz itza-arazia zuen egunerano.

Sendi nuen dudarik gabe hori Charlus-ko Jaunaren eritasuneko
mail berri bat zela, horrek ohartua nindakonaz geroztik, eta neure begien
azpian ikusiak nituen aldi guzietarik gogatz, bere atzinamendua jarraikia
baitzuen laster gero eta gehiago handi batean. Baroin gaizoa etzatekeen orai
bururapenetik biziki urrun, heriotzetik, hau ezpazen ere, Verdurin Ande-
rearen aitzin-erranen araura, haren adinean bertzela ere herioa lehia baizik
etzazakeen preso hartze batez aitzindua. Bizkitartean zuzengaitzki erran dut
behar bada: Materia hutseko aitzia. Izan daiteke Materia huts hortan Izpiritu
apur batek bazirauela oraino. Ero hark ontsa bazakien, hala ere, erotasun
baten bazka zela - hartan Charlus-ko Jaunaren nortasunetik apur bat sart-
zen zen erotasunarena -, bazakienaz geroz joiten zuena etzela gudu jokoetan
xorteak « Prusiarra »-ren egiteko hautatua duen muttikoa baino gaixtoago,
guziak hartara oldartzen baitira aberritiartasun egiazko eta alegiazko herra
bateko suhartasunean. Erokeria horietan ere, gizakiak, gure maitasunetan,
bidaietan bezala, sinespenaren beharra salatzen du oraino egiaren behar zor-
rotz batzuetarik. Françoise-ek, Milango elizez mintzo nindakonean - itxura
guzien arabera nehoiz joanen etzen hiria - edo Reims-ko kathedralez - Ar-
ras-koaz baizik ezpaliz ere! -ikusiko ahal etzituenak guti edo aski aurdikiak
zirenaz geroz, horrelako gauza baliosen ikustea ordain ahal dezaketen aberat-
sak gutiziatzen zituen, eta urriki gogo-ilundu batekin egiten zuen: « Ha! zein
eder zatekeen! », etzuelarik, hoinbertze urtez geroz Parisen bizi izanez, An-
dredona-Mariaren ikustera joateko gogoia nehoiz ukana. Andredona-Maria
hain zuzen Pariskoa baitzen, Françoise-ren egunorotako bizia han eremaiten
zen hirikoa eta han ondorioz gure sehi zaharrari neke baitzizakon - eni izanen
zizatan bezala eraikuntzaren ikasteak ezpalizazta gai batzuetan Combray-ko
jaidurak zuzendu - bere ametsetako gauzer leku emaita. Maite ditugun jen-
detan bada, hetan beretan, beti ohartzen ezkitzazkon amets berezi bat baina
guk ere baduguna. Bergotte-ren baitan, Zuanen baitan nuen sinesteak zau-
tan Gilberte maita-arazia, Gilbert Gaixtoan nuen sinesteak Guermantes-ko
Anderea maita-arazia. Eta zein itsas-eremu zabala zen ene maitasun mingar-
rienean ere, bekaiztienean, iduriz bakoiztuenean, Albertine-rendako begi-
raturik izana! Bertzela ere, hortan amorratzen den bakoiztasunaren gatik,

jendendako diren maitasunak apur bat arrazoi ngabekeria batzu dira jadanik. (Eta gorputzeko eritasunak berak eztirea, apur bat hurbildik zaineriari lotuak direnak bederen, gure soineko alderdiek, junturek bildu dituzten halako gostu berezi edo beldur berezi batzu, gertatzen baita horrela aro-mota batzuen-dako hastio bat hartua dutela, behazunez betorde bat duten edo zaldizkoak diren emaztendako gizon batzuek salatzen duten ixuria bezain burutia eta ezin argigarria? Gutizia hori, zaldizko emazte baten ikusteak aldi bakoitz atzartzen duena, nork ehoiz erranen du zein amets iraunkor eta ohargabekoari lotua den, behazunez bizi guzian hats-beharreko gaitzaldiak pairatu zituen norbaitendako hiri berezi, iduriz bertzeak bezalako baten, baina hartan lehen aldikotz libreki hats-hartzen duenaren eragina den bezain ohargabeko eta mixeriozkoari?)

Arrazoi ngabekeriak bada eritasuneko narrioak oro estalia, oro hartua dauen maitasun batzu bezala dira. Eroenean ere, maitasuna ezagutzen da oraino. Zango eta eskuetan azkartasun phorogatuko erhaztun batzu ezar zezozten galdatzean Charlus-ko Jaunaren hisitzea, justiziako makilaren galdegitean eta, Jupien-ek erran zautanaz, itsasturi batzuer hel eginez ere - untzietan, larderia garratzena den lekuetan ere haien emaita debekatua den gatzigu batzuen jasan-arazteko erabiltzen baitziren - ukaiteko neke handiena zen tresna abre batzuen, horren guziaren zolan baziren Charlus-ko Jaunaren baitan gizakitasunezko amets hura guzia, beharrez egintza abre batzuez baieztatua, eta gogoko margazkieria guzia, guretako ezin ikusia, baina handik haren idurimen ertarotarrak aphaintzen zituen leinuru batzu, justiziako gurutze, tortura feodal, horrela kaporatzen zituena. Sendimendu berean zion Jupien-i, jiten zen aldi oroz: « Gaur lanjer abisurik ezta bederen izanen, neure burua hemendik ikusten baitut Zodomako jende bat bezala zeruko suaz errezipildua. » Eta alegia gothaen beldur zela egiten zuen, ez haien beldur izpirik sendi zuelakotz, baina, zirenek joiten zuteneko, metroko atherbetara laster egiteko estakuruaren ukaiteko han gauan hunkitzetarik atsegin zenbait itxarotzen baitzuen, lurpe ertarotar eta in pace-tako amets uher batzuekin. Oro har gatinaztatua, joa izaiteko gurak, bere itsustasunean, amets bat salatzen zuen, bertze batzuen baitan Veneziaren ikustera joaiteko edo dantzaria batzuen ordaintzeko gutizia bezain poesiazkoa. Eta Char-

lus-ko Jaunak hainbat zuen nahi amets horrek egiaren lilluramendua eman zezon, nun Jupien-ek gambara 43-an zen ohezura saldu behar ukan baitzuen eta gatinekin hobeki zoan burdin-ohe batez ordaindu.

Azkenean geldi-soinuak jo zuen etxera heltzen ari nintzanean. Mutiko baten mintzoak laguntzen zuen su-hiltzalen harrabotsa. Françoise aurkitu nuen mahi nagusiarekin sototik igaiten ari. Hila nintzala uste zuen. Saint-Loup izana zela erran zautan, desenkusatus, etzuenez, goizean egina zautan ikustaldian, gerlako gurutzea erortzera utzia ikusteko. Galdua zuela ohartu berria baitzen eta, biharamun goizean bere erreximendura joan beharrez, zer gerta ere etzenez ene etxean ikusi nahi ukana zuen. Françoise-rekin orotan bilatua zuen eta jeuz etzuen hatzeman. Françoise-ek uste zuen ene ikustera jin baino lehen galdua zuela, ezen, zion, iduri zizakon bada, ikusia zuenean etzuela zin egiten ahalko zuela. Hortan huts egiten zuen. Eta horra lekukotasunen eta orhoitzapenen balioa! Horrek etzuen gainera munta handirik. Saint-Loup bere aitzindarietz estimatua zen bere gizonez maitatua zen bezainbat. Berehala senditu nuen bertzela ere, hartaz mintzatu ziren molde guti kartsutik, Françoise-ren eta mahi nagusiaren baitan sendimendu bierarteko bat utzia zuela. Dudarik gabe mahi-nagusiaren semeak eta Françoise-ren ilobak itzalean egoiteko eginak zituzten indar guziak, Saint-Loup-ek indar berak kontrako aldera eta ondorio onarekin eginak zituen lanjer betean izaiteko. Baina hori, bere gogoaren araura jujatuz, Françoise-ek eta mahi-nagusiak etzezaketan sinets. Aberatsak beti atherbean jarri izanak direla segur ziren. Gainera, Robert-en kuraia bihoztunaz egia jakin ukan balute, etzituen hunkiko. Mahi-nagusiak etzuen « Boxak » erraiten, Alemanen kuraiaren laudorioa egina zauen, lehenbiziko egunetik ezkinela irabazle izanak, etzuen trahimenduaren gain emaiten. Entzun nahi ukanen zutena hau zen bada, hau zen kuraiaren seinalea idurituko zizeena. Beraz, nahiz gerlako gurutzearen bilatzen jarraitzen zuten, Robert-i zoakonaz hotz aurkitu nituen. (Arrats hartan Saint-Loup horrela libertitua baldin bazen, etzen igurikan egoitez baizik, ezen berriz Morel-en ikusteko guraz hartua, bere armada dako ezagutza guziez baliatua zen Morel zein erreximendutan zen jakiteko, haren ikustera joan nahiz, eta etzuen ehunka ihardespén kontra-erranezkorik baizik ukana.) Ni gurutze hura nun zen jelostua bainintzan, Françoise 'ta

mahi nagusiari eman nauen etzatera joaiteko aholkua. Baina hau nehoiz etzen François-eren uztera lehiatua, haren oinazkatzeko bide bat aurkitua zue-naz geroztik, gerlari esker, seroren haizatzea eta Dreyfus afera baino eragin-garriagoa. Arrats hartan, eta bertze eritetxe batera joan baino lehen Parisen oraino eman nituen egun bakarretan aldi oroz, mahi nagusia entzuten nuen François lastatuari erraiten: « Eztira lehiatzen, hori ba, madaria ondua izan dadin igurikatzen dute, baina egun hartan Paris hartuko dute, eta orduan urrikalmendurik ez! - Jauna, Birjina Maria! egiten zuen François-ek, Belgika gaixoa beretua ukaitea etzee aski. Pairatu du, hark, jaukitzez sartu diren orduan. - Belgika, François, baina Belgikan egin dutena horren ondoan jeus ezta izanen! » Eta ere, gerlak jende xehearen solaseko merkatura, begiez baizik, egunkarien irakurtzetik baizik ezaguna etzuen hitz meta bat egotzia baitzuen, eta beraz ezpaitzuen haien ahozka-moldea ezagutzen, mahi-nagusiak gaineratzen zuen: « Eztezaket har nolaz den mundua aski zozoa... Ikusiko duzu, François, jaukitze berri bat antolatzen ari dute bertze guziak baino enverjura handiagokoa. » Jazarturik, François-rendako urrikiaren eta gerla jokabideko zentzu onaren izenean ezpada, bederen gramatikarenean, eta envergura ahozkatu behar zela erranik, sukaldean sartzen nintzan aldi bakoitz François-ri erranaldi izigarrikoaren errepika-araztea baizik enuen irabazi, ezen mahi-nagusiak, abantzu bere lagunaren lastatzeaz bezainbat, zorion zuen bere nagusiari erakustez, nahiz Combray-ko baratzezain ohia eta mahi-nagusi xoilaren, hala ere Saint-André-des-Champs-ko erregelaren arauara Frantses ona, Giza-zuzenbidetako Hitzageritik bazadukala bere gaintasun osoan enverjura ahozkatzeko dretxoa, eta haren zerbitzuan barne etzen gauza batean bere buruaren manatzera ez uztekoa, eta hortan, ondorioz, Iraultzaz geroztik, ene berdina zenaz geroz, nehork etzaukola jeus erran behar.

Ukan nuen beraz François-ri enverjura handiko gudutaldi batez mintzatzen haren entzuteko griña, ahozkamolde hori etzela jakitate gabearen ondorioa, baina borondate serioski gogoetatu batena zela eni phorogatzeko xedatua zen hisi batekin. Gobernamentua, egunkariak mesfidantzaz bete « hek » ber batean nahasten zituen, baziola: « Hek Boxen galtzez mintzo zaizku, ez gurenez, hamar aldiz handiagoak omen dira. Badiogute azken heinean direla, jatekorik jeus eztutela gehiago, nik uste dut ehun aldiz guk

bezainbat badutela, jateko. Etzaiku hala ere buruan zer nahi sakatu behar. Jatekorik jeus ezpalute, elaitzke joan den egunean bezala guduka, hogeï urte gabeko ehun mila mutiko gazte hil baitaukute. » Noiz nahi horrela Alemanen garhaipenak handiegitzen zituen, lehenago erradikalenak eginak zituen bezala; aldi berean haien abrekeriak emaiten zituen garhaipen horiek Françoise-rendako oraino mingarriago izan zaitentzat, hau etzelarik gelditzen « Ha! Aingeruen Ama Saindua! Ha! Maria Jainkoaren Ama! » erraitetik, eta batzuetan, bertze molde batez huni gozagaitz izaiteko, bazion: « Bertzela ere, eztugu hek baino gehiago balio, Grezian egiten duguna ezta hek Belgikan egina dutena baino ederrago. Jende guzia gure kontra ezarriko dugula ikusiko duzu eta erresuma guziekin gudukatu beharko dugula », zuzen-zuzena kontrakoa gertatzen zelarik. Berriak onak ziren egunetan, ordaina hartzen zuen gerlak hogeï-ta hamabortz urte iraunen zuela Françoise-ri segurtatuz, eta, gerta zaitekeen bakearen aitzin-iragarmenez, segurtatzen zuen hunek etzuela zenbait ilabete baizik iraunen eta hauk haien ondoan haur joko bat baizik etziren gudutaldiez jarraikia izanen zela, eta haien ondotik jeus ezpaitzen Frantziatik geldituko.

Elgartuen garhaipenak, hurbila ezpazen, bederen nunbait han segurtatua iduri zuen, eta zorigaitzez aithortu behar da mahi-nagusia hortaz lastimatua zela. Ezen, «munduko» gerla ttipitua ukanik, gainerateko guzia bezala, azpiz Françoise-ren kontra zeramanera (hori izanik ere, gainera, maite zuen, egun guziez dominoetan garhaituz haren errabia-arazteaz loriatzen giren norbait maita daitekeen bezala), Garhaipena haren begietan Françoise hari « Azkenean bururatu da, 70-an emana daueguna baino gehiago eman beharko daukute » erraiten entzuteko oinazea ukanen zuen lehen solasaldiko itxura-pean gauzatzen zen. Beti uste zuen bertzela ere hala-beharrezko muga hori heldu zela, ezen ohargabeko aberritiartasun batek sinets-arazten zaukon, eri nintzanez geroz nuen lilluramendu beraz hartuak ziren Frantses guzier bezala, garhaipena - ene sendatzea bezala - biharamuneko zela. Aitzina hartzen zuen Françoise-ri iragarritz garhaipen hori jinen zela behar bada, baina hortaz bihotza odoletan zuela, berehala iraultza jarraikiko baitzen, gero jaukituz erresuman sartzea. « Ha! gerla debru hortarik, berriz zutitzen Boxak bakarrak izanen dira, Françoise, miliarrak ehunka irabaziak dituzte jadanik. Baina guri sos bat ixur dezaguketela, zer trufa! Gazetetan ezarriko da

behar bada, gaineratu zuen zuhurtziaz eta zer gerta ere, jendearen eztitzeko, gerla bihar bururatua izanen dela hirur urtez geroztik erraiten den bezala. » Françoise are gehiago zen hitz horietaz nahasia nun, alabaina, hobetzearen aldekoak mahi-nagusia baino lehen sinetsi ondoan, baitzakusan gerlak, « Belgika gaixoan jaukituz sartzea » izan arren hamabortz egunez bururatua izan behar zuela uste ukanik, beti bazirauela, ezkinela aitzinatzen - zer erran nahi zuen gaizki hartzen zuen gudugunen gelditzeko gertaldia -, eta azkenik gure etxean irabazten zuen guzia emaiten zauen « semabitxi » elemeniatic batek erraiten baitzaukon horrelako gauza, eta halakoa gorderik izana zela. « Hori guzia langilearen gainerat eroriko da, bururatzen zuen mahi-nagusiak. Zure alhorra hartuko dautzute, Françoise. - Ha! Jainko Jauna! » Baina zorigaitz urrun horier, hurbilagoko batzu hautesten zezteen eta egunkariak iresten zituen Françoise-ri galpen baten iragartzeko itxaropenean. Berri txararak igurikatzen zituen Bazkoko arraultzeak bezala, Françoise-ren laztatzeko gauzak aski gaizki joanen zirelako esperanza, baina berak materialki oinazkatua izan behar ukaiteko ez aski. Horrela zuen zeppelin-en jauste batek loriatuko Françoise-ren ikusteko sotoetan gordetzen, eta zinez uste baitzuen Paris bezain hiri handi batean bombak etzirela zuzen gure etxearen gainera eroriko.

Gainera Françoise hasia zen berriz Combray-n zuen bakearen alde izaiteaz hartua izaiten. Abantzu dudak bazituen « abrekeria alemanez », « Gerla hastean erraiten zaukuten Aleman horiek hiltzale batzu zirela, gaxtagin batzu, egiazko mandil batzu, bbboxak... » (Boxe-tan b andana bat ezartzen bazuen, hori zen Alemanak hiltzale batzu zirela salatzeak ororen buruan itxura bazuela iduritzen baitzizakon, baina Boxak izan zaitezkeela abantzu itxura gabea hori izigarriegi zelakotz. Bakarrik zein erran-nahi mixteriozki laztagarria zaukon Françoise-ek « Boxe » hitzari emaiten hartzea aski neke zen gerlaren hasteaz ari zenaz geroz, eta ere hitz horren ahozkatzeko zuen dudazko itxuraren gatik. Ezen Alemanak erahiltzale batzu zirelako duda gaizki jarria zela izan zaitekeen, baina etzuen bere baitan, arrazoinaren aldetik ikusiz, kontra-erranik. Baina Boxak zirela nola duda, hitz horrek, jendearen hizkuntzan, preseski Aleman erran nahi duenaz geroz? Etzuen behar bada orduan entzunak zituen eta hetan gemen berezi batek boche hitza

azkartzen zuen solas bortitzen errepikatzea baizik zehar moldean egiten). « Hori guzia sinetsi dut, zion, baina orai berean hek bezain frikunak ezkirenez galdez nago. » Blasfemiozko gogamen hori Françoise-ren baitan azpika mahi-nagusiak moldatua zuen, hau, bere lagunak Greziako errege Constantinen alderako ixuri zerbait bazuela ikusiz, amor emanen zuen egunerano guk hazkurritz gabeturik ginadunakala erakustetik ezpaitzizakon gelditua. Hor-takotz monarkaren kargu uzteak Françoise azkarki hunkia zuen, baitzoan erraiterano: « Eztugu hek baino gehiago balio. Alemanian bagine, hek be-zainbat egin ginezake. »

Guti ikusi nuen, bertzela ere, egun guti horietan, amak hetaz egun batez « Baina gu baino aberatsago direla badakik » errana zautan gusi haien etxera usu joaiten baitzen. Gauza hainbat eder hau ikusirik izana zen bada, aro hartan erresuma guzian hain usu izan zena eta, ixtoriolari bat baliz orhoitzapenari iraupen emaiteko, Frantziaren handitasunaz lekukotasun eman lezakeena, haren arimako handitasunaz, haren handitasunaz Saint-André-des-Champs-en araura, eta gibelean iraun zuten hainbertze zibilek Marnean erori soldadoek baino gutiago agertzero eman etzutenaz. Françoise-ren iloba bat Berry-au-Bac-en hila zen, haren gusi miliunari haien iloba zena ere, kafezain ohi handi batzu fortuna eginik aspaldidanik erretiratuak. Hila zen, hura, fortunarik gabeko kafezain ttipi-ttipia, mobilizatzean hogei-ta bortz urtetan joanik, emazte gaztea bakarrik utzia zuena zenbait ilabete berantago hara itzuliko zela uste zuen ostatu ttipiaren atxikitzen. Hila zen. Eta orduan hau ikusia izan zen: Françoise-ren gusi miliunariak, eta bere semearen alhar-gun emazte gaztearendako jeus etzirenek, hamar urtez geroz han bizi ziren baserria utzia zuten eta berriz kafezain jarriak ziren, sos bat hunki nahi ukan gabe; goiz guziez sei orenetan, emazte miliunaria, egiazko andere bat, bere « andereñoa » bezala jantzia zen, biak iloba ezkontzaz gusiaren laguntzeko prest. Eta hirur urtez geroztik hurbil, basoak horrela garbitzen zituzten eta edatekoak zerbitzatzen goizetik arratseko bederatziak eta erdi arteo, egun bat phausaldirik gabe. Alegiazkoa ezten egintza bakar bat eztuen liburu huntan, «giltza-pean»gordeka itxuratu jende bakar bat eztuenean, oro neure erakuspeneko beharren araura nik asmatua izana denean, ene herriaren laudorioko erran behar dut bakarrik laguntzarik gabeko ilobaren ondora joaiteko bere

erretreta utzia zuten Françoise-ren ahaide miliun ainitzekoak, hek bakarrik direla egiazko jendeak, bizi direnak. Eta haien lañotasuna etzela ofensatua izanen segurrik, liburu hau nehoiz irakurriko eztutelako arrazoinez, haur baten atseginarekin eta bihotz-hunkidura barnatu batekin dut, molde berean egin zuten eta Frantziak haier esker iraun duen bertze hainbertzeren izenak ezin aiphatuz, haien egiazko izena hemen ezartzen: izendatzen dira, izen bertzela hain frantsesaz, Larivière.

Mahi-nagusia, Françoise-ren goganbeharren sustatzeko, berriz aurkituak zituen Lectures pour tous zahar batzu erakusten zauzkon haien estalian (gerla aitzineko batzu ziren) ageri baitzen « Alemaniako familia imperiala ». « Horra gure biharko nagusia » erraiten zaukon mahi-nagusiak Françoise-ri, « Guillaume » erakutsiz. Hunek begiak handi-handia idekitzen zituen, eta gero ondoan zen emaztekiaren gana zoan eta bazion: « Horra Gillomesa! » Alemanendako zuen herra ezin gehiagokoa zen eta etzen gure minixtroek emaiten zukotenez baizik eztitua. Eztakit ere suharkiago agiantzatzen zuenez Hindenbourgen heriotzea ala Clémenceau-rena.

Paristik ene abiatzea, eman zautan bihotzminaren gatik, zenbait demboraz bideari lotzeko ahal ezina egin ninduen berri batez gibelatua gertatu zen. Ikasi nuen alabaina Saint-Loup-en heriotzea, gudugunera itzuli zen biharamunagoan, bere gizonen erretiraren gerizatzean hila. Nehoiz gizon batek etzuen hark bezain guti ukan jendalde baten herra (eta emperadoreaz den bezainbatean, arrazoin berezi batzuen gatik, eta behar bada hutsezkoen, uste zuen Gillome II-garrenak nahiago ukana zuela gerla bortizki hasi baino gehiago trabatu). Germanixmaren herrarik ere ez; haren ahotik jalgitzen entzunak nituen azken hitzak, zuela sei egun, Schumann-en aire bat hasten dutenak ziren eta ene mailaldean ahapeka kantatzen zauztanak, alemanez, hain ontsa nun auzoen gatik ixil-arazia bainuen. Erakaskuntza ezin goragoko batez ohitua gorets-hitz oroz, ahapaldi oroz, erranaldi oroz bere eginaren xedarratzen, etsaiaren aitzinean baztertua zuen, mobilizatzeko orduan bezala, bizia segurtatuko ahal zukona, bere ara guziek itxuratzen zuten bertzeren aitzinean gibelera egoite hartaz, ene fiakrako athexkaren hesteko molderano laguntzen ninduenen, buru has, haren etxetik jalgitzen nintzan aldi bakoitz.

Egun zenbaitez gambaran hetsirik egon nintzan, hura gogoan. Balbec-era haren ethortzeaz orhoitzen nintzan, lehen aldian, ilezko jantzi xurailetan, bere begi musker-ñabar eta itsasoa bezain higitzailekin, haren berinaldek itsasora bazematen jateko sala handiaren ondoko ezkaratza iragana zuenean. Orhoitzen nintzan orduan iduritua zizatan izaite hain bereziaz, ene aldetik haren adixkide izaiteko agiantza hain handia izana baitzen. Agiantza hori nehoiz uste ahal ukanen nuenetik haratago beterik izana zen, orduan abantzu atseginik batere eni eman gabe bizkitartean, eta gero itxura aphain hark gordetzen zituen merezimendu handiez ohartua nintzan eta bertze gauzez ere. Hori guzia, ona gaitza bezala, nasaiki emana zuen, egun oroz, eta azkenik phezoin baten jaukitzera joaitean, bihotzontasunez, zuen guzia bertzeren zerbitzuko ezarriz, arrats batez ez ene desarrañatzeko ostatu bateko kanapen gainetik laster egina zuen bezala. Eta oro har hain guti ikusia ukaiteak, leku hain ezperdinetan, Balbec-eko ezkaratz hartan, Rivebelle-ko ostatuan, Doncières-ko zaldizkoen kasernan eta armadako auharietan, gazetalari bat zartatua zuen antzokian, Guermantes-ko prinzesaren etxean, etzautan haren biziaz ikuskai ohargarriago, garbiago batzuen emaita baizik egiten, haren heriotzeaz ainitzetan gehiago maitatu ditugun jende batzuendako baino dolumin bat argituagoa, baina haiekin hain jarraikian ibili girenendako nun hetaz atxiki dugun iduria ezpaita gehiago mila iduri arinki ezperdinetan uhain mota arteko bat baizik, eta ere gure atxikimendu asebateak ezpaitu, aurkitaldi hek eta guk nahi gabea bururatu gabeko ephe labur batzuetan baizik ikusi eztitugunendako bezala, gertaldiek baizik gabetuak ukanen ezkininduten atxikimendu bat izan zaitekeelako lilluramendua.

Bere begitako bakunaren gibeletik lasterka ikusia nuen egunetik guti berantago, eta orduan hain gorati zela asmatuz, Balbec-eko ezkaratz hartan, bazen lehen aldian Balbec-eko ondartzean ikusia nuen eta orai hura ere gehiago orhoitzapen moldean baizik etzen bertze itxura bizidun bat, Albertine zen, lehenbiziko arrats hartan ondartzean ibilki, ororendako axolarik gabe, eta itsastiar, antxeta bat bezala. Hura, hain laster nuen maitatua nun egun oroz harekin jalgi ahal ukaiteko nehoiz ezpainintzan, Balbec-en, Saint-Loup-en ikustera joana. Eta bizkitartean harekilako ene adixkidantzaren ixtorioak bazeman ere ordu batez Albertine-ren maitatzetik gelditua

nintzalako lekukotasuna, dembora zenbaitez Robert-en ondora joana baldin banintzan, Doncières-era, Guermantes-ko Anderearendako nuen sendimendua itzulia etzizatala ikusiz baitzen. Haren bizia eta Albertine-rena, nik hain berant ezagutuak, biak Balbec-en, eta hain laster bururatuak, doidoia gurutzatuak ziren; hura zen, nion berriz neure baitan, ikusiz urtetako joan-jin zaluek hariak josten dituztela hastean berexienak iduri zuten gure orhoitzapenen artean, hura zen Bontemps Anderearen etxera igorria nuena Albertine-k utzia ukan ninduenean. Eta gero gertatzen zen haien bi biziak bazutela bakoitzak ohartua enindakon ara berdineko segetu bat eta hartaz aierurik ukana enuena. Saint-Loup-enak bazematan orai behar bada Albertine-renak baino trixtezia gehiago, hunen bizia hainbat arrotz bilakaturik baitzizatan. Baina enindaitekeen konsola harena Saint-Loup-ena bezala hain labur izanaz. Biek ainitzetan erraiten zautaten, nitaz artha hartuz: « Zu eri zirena ». Eta hek ziren hilak, haien azken iduriak, arte oro har hoin labur batez bereziak, bat phezoinaren aitzinean, bertzea ur errekan, nituen lehenbiziko iduriaren aitzinean ezartzen ahal, hunek etzuelarik gehiago enetako, Albertin-rentzat ere, itsasoan iguzki etzatearekin lotua izaitetik baizik balio.

Haren heriotzea Françoise-en ganik Albertine-rena baino urriki gehiagorekin hartua izan zen. Berehala hartu zuen bere nigarregile jokia eta zenduaren orhoita auhenez eta hil-kantu etsituez lagundu. Bere bihotz-mina agerian emaiten zuen eta aurpegi idorra ez hartzen, burua bazterrera itzuliz, nihaurek nahigabea neurea agertzera uzten nuenean baizik, ikusia etzuelako itxura ukan nahi baitzuen. Ezen, jende zaintsu ainitz bezala, bertzeren zain-oldeak, gehiegi berearen iduriak, nardatzen zuen. Den gutiene-ko bere lepho-bihurdurer, burxoratze bati, kaskatua izaiteari oharr-araztea maite zuen orai. Baina ene gaitzetarik bat aiphatzen baldin banuen, berriz soraio eta larri bilakaturik, entzuna ukan ezpalu bezala egiten zuen. « Gaixo Markesa », zion, ez joaiteko, eta mobilizatu ondoan, lanjerraren aitzinean ihes egiteko ahal ezina egina zuela gogatzetik bere burua zaintzen ahal ezpazuen ere. « Gaixo anderea, zion Marsantes-ko Anderea gogoan, zenbat nigar egin dukeen bere mutikoaren heriotzea jakin duenean! Berriz ikusi ahal ukan balu bederen, baina egina ahal ukan eztezan hobe da behar bada, sudurra bi zatitan moztua baitzuen, aurpegi guzia andeatua. » Eta Françoise-ren begiak

nigarrez betetzen ziren, baina hetan zehar laborarisaren ikus-nahi bortitz guzia agertzeraz emaiten zen. Dударik gabe Françoise-ek bihotz guziaz deitoratzen zuen Marsantes-ko Anderearen pena, baina bihotzmin horrek hartu zuen itxuraren ez ezagutzeaz dolu zuen eta hori ezin ikusi ahal ukaiteaz eta hortaz penatua ez izaiteaz. Eta nigar egitea ontsa nahiko baitzuen eta nigar egiten ikus nezan, hortara entseatzeko erran zuen: « Zerbait egin data! » Nitane ere bihotzminaren hatzak zelatatzen zituen Robert-ez mintzatzean alegia halako idortasun baten hartzera ekharri ninduen gutizia amikatu batekin. Eta, iduriz gehiago imitatze gogoz eta hori erraiten entzuna baitzuen, ezen klixek badira bilkuretan bezala sukalde-ondoetan, errepikatzen zuen, ez alta behardunaren satifamendua hortan ezarri gabe: « Bere aberastasun guziek bertze bat bezala hiltzetik eztute trabatu, eta etzazko gehiago jeusetako zerbitzatzen. » Mahi-nagusia aldiak baliatu zen Françoise-ri trixte zela dudarik gabe erraiteko, baina gobernamentuak horren gordetzea egiten zituen indar guziak izan arren egun oroz miliunka erortzen ziren gizonen ondoan guti zela. Baina aldi hortan mahi-nagusia etzen uste ukana zuen bezala Françoise-aren penaren handitzera heldu. Hunek ihardetsi baitzuen: « Egia da hek ere Frantziarendako hiltzen direla, baina eztira ezagunak: ohargarriago da beti ezagutuak diren xende batzuek direnean. » Eta Françoise-ek nigar egitean atsegin baitzuen, gaineratu zuen oraino: « Ene abisatzeko guardi eman beharko da markesaren heriotzea gazetan aiphatzen baldin bada. »

Robert-ek trixteziarekin ainitzetan errana zautan, gerla baino ontsa lehenago: « Oi! ene bizia, eztezagun aipha, aitzinetik kondenatu gizon bat nuk. » Ordurano jende guziari gordetzera heldua zen baina ezagutzen zuen bizioaz, eta larritasuna behar bada handiegitzen zaukonaz ari zena hitz-erdika, lehen aldikotz maitatzen duten, edo ere hori baino lehen atsegina berek bilatzen duten haurrak bezala, gero berehala hil gabe bere hazi-irina ixur eztezakeen landarearen berdinak direla asmatuz? Handiegitze hori, Saint-Loup-endako ala haurrendako, oraino hari jarria ezten bekatuaren ideia bezala, sendipen berri-berri batek gero ahulduz joanen den indar abantzu laztagarri baten ukaitari lotua zena behar bada? ala berak ba ote zuen, beharrez aita aski gazterik joanaren heriotzean jarriarik, bere hiltze goizegi gertatuko zenaren aitzin-sendimendua? Horrelako aitzin-sendimendu bat ezina

dela uste da dudarik gabe. Herioak alta lege batzuen menean jarria iduri du. Ainitzetan erran laiteke, behazunez, biziki zaharturik ala biziki gazterik hil diren guraso batzuetarik sortu diren jendeak abantzu bortxatuak direla adin berean hiltzera, lehenbizikoek griña eta eritasun ezin sendatu batzu ehungarren urterano luzatzen dituztelarik, bertzeak, bizi zori ondun eta sano bat ukanik ere, egun ezin hutsegin eta goizegi gertatuan gaitz hain behar den orduko eta hain ustegabeko batez eremanak direnean (zein erro barnatuak ukan ditzan ere haien jitean) nun heriotzeko urhats beharrezkoa dela baitu bakarrik iduri. Eta ezin izan laitekea ustegabeko herioa bera - Saint-Loupena bezala, haren jiteari lotua bertzela ere, erran behar nuela uste ukan dutan baino gehiago moldez behar bada -, hura ere, aitzinetik markatua zela, jainkoez bakarrik ezaguna, gizonentzat ezin ikusia, baina trixtezia erdi ohargabe, erdi ohartu batez agertua (eta ere, azken arau hortan, bertzer errana, nork bere baitan ihes eginen zauela uste duen eta bizkitartean gertatuko diren zorigaitzen iragartzeko emaiten den zintzotasun osoarekin), ekhartzen duenaren berarena denaz eta bere baitan ethengabe badakusanaz, ikurburu bat, halabeharrezko gertakari bat bezala?

Azken oren horietan ontsa ederra izana zatekeen. Hura, bere bizian beti, jarririk ere, saloin batean ibilki ere, jaukitaldi bateko oldea gibelera zaxkikala iduri ukana zuena irriño batekin gordez, haren buru hirur kantoinekoan zen borondate ezin hezia, jaukitua zen azkenean. Bere liburuez husturik, dorrexka feodala berriz armadakoa bilakatua zen. Eta Guermantes hori gehiago bera hila zen, edo izaitekotz gehiago bere arrazakoa, hartan urtzen baitzen, hartan ezpaitzen gehiago Guermantes bat baizik, haren ehortzean itxuratuki ikusi ahal izan zen bezala Combray-ko San-Hilario elizan, guzia oiheria beltzez hedatua hetan agertzen baitzen gorritz, korona hetsiaren azpian, bataio-izen ez titulu hats-hizkirik gabe, herioaz berriz bilkatua zen Guermantes-ko G.

Haren ehortzera joan baino lehen ere, ezpaitzen berehala egin, Gilberte-ri izkiribatu naukon. Egin behar ukanen naukon ere behar bada Guermantes-ko dukesari, banion neure baitan haren biziari hain hertsiki atxikia iduri izana zen bertze hainbertzerenarendako erakusten ikusia naukon ezaxoltasun berarekin hartuko zuela behar bada Robert-en heriotzea, eta

behar bada ere, bere Guermantes izpiritu moldearekin, odoleko loturetan sineskeriarik etzuela erakustera entseatuko zela. Guzier izkiribatzeke eriegi nintzan. Lehenago uste ukana nuen dukesak eta Robert-ek elgar aski maite zutela munduan hori erraiten den moldean, erran nahi da batek eta bertzeak etzutela elgarri ordu hartan sendi zituzten gauza xamur batzu baizik erraiten. Baina, haren ganik urrun, Robert etzen zozoa zela erraiteko dudan egoiten, eta dukesak haren ikustean batzuetan atsegin berekoi bat sendi bazuen, den gutieneko nekerik hartzeke ezinean ikusia nuen, hari zerbitzu emaiteko zuen ahalaz hain arinki baliatzen, eta haren ganik zorigaitz baten baztertzeke ere. Haren aldera erakutsia zuen gaixtotasunak, Saint-Joseph-ko jeneralari haren gomendatzea ez onhartuz, Robert Marrokara berriz abiatzera zoanean, phorogutzen zuen ezkontzako erakutsia zaukon atxikimendua etzela guti gostatzen zizakon ordaintze mota bat baizik. Ontsa ustegabetua izan nintzan beraz jakitean, Robert hila izan zenean eri baitzen, egun andana batez bortxatuak izan zirela, aitzaki gezurrezkoenekin, heriotze hori ikasiko zaukoten egunkarien gordetzeraz, hortaz sendituko zuen ukhaldiaren baztertzeke. Baina ene ustegabea handitu zen ikasi nuenean egiaren erraitera azkenean bortxatuak izanan zirenean, dukesak egun oso batez nigar egin zuela, eritu zela, eta luzaz - aste bat baino gehiago harendako ainitz baitzen - konsolatzen egon. Dolu hori ikasi nuenean, hunkia izan nintzan. Egin zuen mundu guziak erran ahal ukan zuela, eta segurta dezaket, adixkidantza handi bat bazela haien artean. Baina zenbat gaitzerran ttipi, elgarri zerbitzu emaiteko borondate gaixto horrek edukiak zituen orhoitzean, gogoan dut adixkidantza handi bat munduan zein gauza guti den.

Bertzela ere, apur bat berantago, gertaldi ixtorikoki gotorrago batez, bihotza gutiago hunkitzen baldin bazautan, Guermantes-ko Anderea itxura oraino hobe batean agertu zen ene ustez. Hura nexkato gaztean, orhoitzen baldin bada, Errusiako familia imperialaren aldera hainbat ozartasun ausart erakutsia zuena, eta, ezkonduarik, batzuetan artezia eskasaz sala-arazten zuen libertatearekin beti mintzatua zizakona, bakarra izan zen behar bada, Iraultza errusoaren ondotik, dukesa handien eta duke handien aldera mugarik gabeko atxikimendu baten erakusten. Gerla aitzineko urtean berean, Wladimir dukesa handia ainitz nardatua zuen Hohenfelsen-go kondesa Paul

duke handiaren goiz-ezkontidea beti « Paula Dukesa Handia » deituz. Hala ere Iraultza errusoa etzen hasia baizik izana gure Pétersbourg-eko embaxadorea, Paleologue Jauna (diplomazioako munduan « Paléo », bertzeak bezala bere laburpen izpiritudunak ba omen baititu), Guermantes-ko dukesaren depexez setiatua izan zen, Marie Pavlovna dukesa handiaren berriak ukan nahi baitzituen. Eta luzaz prinzesa horrek ukan zituen adixkidantzazko eta errespetuzko lekukotasunak bakar-bakarrik Guermantes-ko dukesaren ganik ethorri zizazkon.

Saint-Loup-ek eman zituen, heriotzetik ezpada, bederen aitzineko astetan egina zuenetik, dukesarena baino pena handiagoak. Alabaina, ikusia nuen arratsetik biharamunean berean, eta baroinak Morel-i « Mendekatuko nuk » errana zaukonetik bi egun berantago, Saint-Loup-ek Morel-en berri-direiteko eginak zituen urhatsak burura helduak ziren, erran nahi da Morel-ek haren manupean izana behar ukanen zuen jenerala desertur zela ohartua zela, bila-arazia zuela eta preso harr-arazia, eta Saint-Loup hartaz axolatzen zen norbaitek jasanen zuen zigorraz desenkusatu nahiz, hortaz abisatzeko Saint-Loup-i izkiribatua zaukon. Morel-ek etzuen dudatu arrastatua izaitea Charlus-ko Jaunaren aiherkundearen ondorioa zela. « Mendekatuko nuk » hitzez orhoitu zen, mendekioa hori zela uste ukan zuen, eta aithormen batzuen egitea galdegin. « Ezta dudarik, erran zuen, desertatu dut. Baina bide gaixtora eremana izan niz, osoki ene hutsa ote da? » Charlus-ko Jaunaz eta Argencourt-ekoaz, hunekin ere samurtua baitzen, bera zuzenean hunkitzen etzuten ixtorio batzu erran zituen, baina hauek, maitalen eta gizakoien bihotz-huste bikunarekin, erranak zauzkotenak, horrek preso harr-arazi baitzituen aldi berean Charlus-ko Jauna eta Argencourt-ekoa. Arrastatze horrek bihotzmin gutiago eman zauen behar bada bi-bier, bakoitzari, ezpaitzakien, bertzea partida zuela jakiteak baino, eta inkestak agertu zuen ainitz eta ainitz bazutela, ez ezagunak, egunean egunekoak, karrikan bilduak. Laster libratuak izan ziren, bertzela ere. Morel ere hala izan zen jeneralak Saint-Loup-i igorri eskutitza hitz hauekin itzulia izan baitzizakon: « Hila, ohorezko kampoan. » Zenduaren ohoretan jeneralak nahi ukan zuen Morel gudugunera igorria izan zadin bakarrik; beldurrik gabe gudukatu zuen, lanjer guzier ihes egin, eta itzuli zen, gerla bururatu eta, harendako behin Charlus-ko Jaunak

debaldetan galdegina zuen gerlako gurutzearekin, eta zeharki Saint-Loup-en heriotzeak ukan-araziarekin. Geroztik aintzetan gogatu dut, Jupien-en etxean galdu gerlako gurutze hartaz orhoitzean, Saint-Loup bizi gelditu baliz, errexki deputatu bozka-arazi ahalko zela gerla ondotik egin ziren bozketan, gerlak utzi zituen ñuñukeriazko hagunean eta loriazko irradiatzean, eta, erhi bat gutiago ukaiteak, aitzin-gogamenezko mende 'ta mendeak ezeztatuz, ezkontza dirdiratu baten bidez arixtokraziako familia batean sartzea haizu egiten baldin bazuen, gerlako gurutzea, bulegoetan irabazia baliz ere, aski zela, hautaldi triunfari batean, Deputaten Gambaran sartzeko, abantzu Akademia Frantsesean. Saint-Loup-en hautatzeak, bere familia « sainduaren » gatik, Arthur-Meyer Jaunari nigar eta ankre uhainak ixur-araziko zauzkon. Baina jende xehea zintzokiegi maite zukeen haren bozen biltzera heltzeko, jende horrek alta, zituen nobleziako kartierren onetan, ideia demokratikak barkatuko zauzkokeen. Saint-Loup-ek dudarik gabe horiek ondorio onarekin agertuko zituen airekolariezko gambara baten aitzinean. Segurki gizandi horiek adituko zuten, izpiritu goren-goren biziki bekan batzuek ere. Baina, « Bloc national »-aren irineztatzeari esker, politikako gizatzar guziak ere salbaturik izanak ziren, beti berriz hautatuak izaiten baitira. Airekolariez egin gambara batean sartu ahal etzirenek eskatu zituzten, Akademia Frantsesean bederen sartzeko, marexalen, Errepublikako president baten, Gambarako president baten baimenak, eta bertze. Etziren Saint-Loup-en aldeko izanen, baina Jupien-en bertze ohitu batendako hala izan ziren, Action Libérale-ko deputatua, burkiderik gabe hautatua izan baitzen. « Territoriale »-ko aitzindari jantzia etzuen uzten, nahiz gerla aspaldidanik bururatua zen. Haren hautatzea bozkariorekin agurtua izan zen haren izenaren gainean « batasuna » egina zuten egunkariez, behar bezalakotasunezko sendimenduz eta zergen beldurrez phildarik baizik janzten etzuten andere aberatsez, Molsako gizonak gelditu gabe diamant erosten ari ziren batean, ez emaztentzat baina edozein jendaldetan konfientzia oro galdurik, aberastasun eskuztagarri hortara gerizatzen baitziren, eta horrela « de Beers »-a mila liberaz goiti-arazten baitzuten. Hoinbertze ñuñukeriak doi bat nardatzen zuen, baina « Bloc national »-ari gutiago aihar izan zizakon, bapatez ikusi zirenean bolxebixmaren bitimak, haien senarrak eskorga batean erhainak zituzten dukesa handi batzu

phildaz jantziak, semeak jatera utzi gabe, oihuen artean lanera bortxaturik harrikatuak, phutzueta egotziak izurritea bazutela eta khotsa ahal zezaketela uste baitzen. Ihes egitera helduak zirenak berriz bapatez agertu ziren...

Sartu nintzan eritetxe berriak eninduen lehenbizikoak baino gehiago sendatu; eta urte ainitz joan zen nik hura utzi baino lehen. Azkenean Parisera sartzeko egin nuen burdinbideko bidaian, literaturan ene dohaingabearen gogamenak, Guermantes-ko aldean behin aurkitu uste ukana nuen bezala, Tansonville-n auhaltzera sartu baino lehen, gau biziki aitzinatuan, Gilberterekin egunean eguneko ene ibilaldietan trixtezia gehiagorekin oraino ezagutua nuenak, eta etxe haren uzteko bezperan, Goncourt-en egunkariko orsto zenbaiten irakurtzean, literaturako hantukeriarekin, gezurrarekin nunbait han bat egina nuenak, gogamen horrek, gutiago mingarri behar bada, baina ilunago oraino arrazointzat emaiten baldin banaukon ez nihauren ahultasuna, baina hartan sinetsia nuen idealaren izaite gabea, gogamen horrek, aspaldidanik berriz itzulua etzizatanak, berriz ere jo ninduen eta nehoiz baino indar deitoragarriago batekin. Orhoit niz, baserri betean treinararen gelditaldi batez zen. Iguzkiak ondoaren erdirano argitzen zuen burdin-bideari jarraitzen zizakon zuhatz lerro bat. Zuhatzak, gogatu nuen, eni erraiteko jeusik eztuzue gehiago, ene bihotz hoztuak etzituzte entzunen. He bada, naturaren erdian niz bizkitartean hemen, hoztasunekin, asperrarekin dute ene begiek zuen kopeta argia itzalezko zuretik berexten duen marra ikusten. Poeta nintzala uste ukana ahal banu, orai badakit enizala hala. Behar bada idekitzen den ene biziko zati berrian, hoin idorrean, gizonak hel laitezke naturak gehiago erraiten eztautanaren asma-araztera. Baina haren kantatzeko behar bada gai izanen ahal nintzan urteak eztira berriz ehoiz itzuliko. » Baina ezina zen asmatze baten orde izan zaitekeen gizakien ikhertze baten konsolamendu hori neure buruari emanaz, banakien nihauri konsolamendu baten emaita nuela bakarrik bilatzen, eta baliorik etzuela banakiena. Edergile baten arima ukan banu zinez, zer atsegina enuen sendituko iguzkiak etzatean argitu zuhatz erridau horren aitzinean, abantzu bagonaren zurubixkarano goititzen diren ezpondako lili ttipi horien aitzinean, horien lorekiak zenbaka ahal bainezazke, eta leteradun on batzuek balegiketen bezala duten margoaren

erakustetik zainduko baininzateke, ezen senditu ezten atsegin bat irakurlerano hel-araziko dela uste ukaiten ahal dea? Berantxago axolagabe berarekin ikusiak nituen iguzkiak etxe baten leihoak hetaz betetzen zituen krixtail urre 'ta iranja-koloreak; eta azkenik, orena aitzinatua baitzen, bertze etxe bat ikusia nuen gorraxta aski bitxi bateko gaiaz egina eduri zuena. Baina ikuste horiek guziak eginak nituen, baratze batean andere batekin ibiltzean berinazko orsto bat, eta urrunxago haren margo ohigabekoak azpertzte langituenetik atherako eninduen harbizi-zurailezko gaiaren iduriko gauza bat ikusiak ukan banitu bezalako ezaxola oso berarekin, baina, anderearendako ikustatez, zerbaiten erraiteko eta ere margo horri ohartua nintzala erakusteko, iragaitean berina margotua eta harbiziduri zatia seinalatu ukan banitu bezala. Ara berean, konzienziako salbuespenez, neure buruari erakusten nauzkon lagundua ukanen ninduen eta hortik nik baino gehiago atsegin hartzen ahalko zuen norbaiti bezala, berinetan suzko leinuruak eta etxearen argaltasun gorraxta. Baina eragin bitxi horietaz oharr-arazia nuen laguna horrelako ikuspen batek xoratzen dituen gogo oneko ainitz jende baino jitez gutiago buru-berotua zen, margo horiek alaitasun mota bat ere gabe ikusiak baitzituen.

Luzaz Parisen ene ez izaiteak etzauen adixkide batzuer debekatua, ene izena haien lixtetan gelditua baitzen, leialki gomitaldi batzuen igortzea eta aurkitu nituenean, etxeratzean, - bat Bermak bere alabaren eta suhiarendako emaiten zuen arratsaldaskari baterako, bertze bat biharamunean Guerantes-ko printzeraren etxean izan beharra zuen goizaldi bateko - treinan eginak nituen gogoeta trixteak etziren hara joaiteko aholkua eman zautaten arrazoin ttipienatarik izan. Eztu zinez balio munduko gizon baten bizia ereman gabe egon nadin, egina nuen neure baitan, hain aspaldidanik hartara biharamunean emanen nizala egun bakoitz itxarotzen dutan « lan » delakoa, enizanaz, edo gehiago enizanaz geroz hari lotzeko egina, eta behar bada ere egiazko izaiterik batere eztuenaz geroz. Egia erran, arrazoin oro osoki ezezkoa zen eta bere balioa xoilki ekhertzen zauen musikaldi mundutar hortarik baztertzen ahalko nindutener. Baina hara ereman-arazi ninduen Guerantes-ko izen hori izan zen, aspaldidanik ene gogotik joana, gomiteko kartan irakurri nuenean, - ene oharpenetik lipar bat iratzarritz ene orhoitaren zolara joan zenean iraganeko zerra baten biltzera, orduan lagunt-

zen zuten jaur-oihanen eta lore goren iduri guziekin - enetako har zezant-
zat Combray-n aurkitzen naukon xoragarritasuna, etxera sartu baino lehen,
Xoriaren karrikan, kampotik banakusanean laka ilun bat bezala, Gilbert
Gaixto, Guermantes-ko Jaunarekilako eliza-berina. Ephe batendako Guer-
mantes-tarrak munduko jendetarik osoki bertzelakoak idurituak zizaztan
berriz, haiekin ezin erkidagarriak, bizidun ororekin, errege baliz ere; izaite
batzu, ene haurzaroa han iragana zen Combray-ko hiri ilun haren aire samin
eta haizetsuaren ernaltzetik jaioak, eta karrika ttipian, eliza-berinaren go-
ratasunean ohartzen zizakon iraganetik. Guermantes-tarren etxera joaiteko
gutizia ukana nuen, horrek ene haurzarora eta han ikusten nuen orhoitaren
barnatasunetara hurbildu ukan behar banindu bezala. Eta gomitaren berri-
rakurtzen jarraikia nintzan, Combray-rena bera bezala izen hain etxekotu eta
hain mixteriozko hori egiten zuten hizkiek, jazarturik, berriz bere gaintasuna
hartua ukan zuten arteo eta ene begi akhituen aitzinean ezagutzen enuen
hitz bat bezalakoa marrazkitua.

Ama hain zuzen Sazerat Anderearen etxean the ttipi batera baitzoan,
bilkura azkarki aspergarria izanen zela bazakiena aitzinetik, Guermantes-ko
prinzesaren etxera joaiteko enuen arrangurarik batere ukan. Karrosa bat har-
tu nuen. Guermantes-ko printzea etzen gehiago bere hotel zaharrean bizi,
baina Oihaneko ethorbidean eraik-arazia zuen handizki eder batean. Mun-
duko jenden ogen bat da, hetan sinets dezagun nahi badute, lehenik berek
behar luketela bere baitan sinetsi ez gogoan hartzea, edo bederen gure sines-
meneko ekhai beharrenak errespetatu behar lituzketela. Guermantes-tarrak
ondorezko zuzenbide batez jauregi batean bizi zirela uste nuen demboran,
kontrakoa baldin banakien ere, sorgin baten edo azti-andere baten jaure-
gian sartzea, mirazko erranbidea ahozkatua ezteno amor emaiten eztuten
athen idek-araztea ene aitzinean, sorginaren edo azti-anderearen beraren
ganik solasaldi baten ukaitea bezain neke iduritzen zizatan. Ezer etzizatan
bezperan engaiatu edo Potel eta Chabot-ek hautatu sahi zaharra Iraultza
baino biziki lehenago familia zerbitzatzen zutenen semabitxia zela neure bu-
ruari sinets-araztea baino errexago, eta borondate on mugagabekoa banuen
aitzineko ilabeteen Bernheim gaztearen etxean erosirik izana zenaz arbaso
potreta zela erraiteko. Baina xoramen bat eztaiteke untziz alda, orhoitzape-

nak ezin uzituak dira, eta Guermantes-ko printzetik, orai berak Oihaneko ethorbidean bizitzera joana izanik ene sinesmeneko lillurak aldean bertze argiratuak zituenaz geroz, etzen gauza handirik gelditzen. Ene izena errana izan zenean erortzen ikusiko nituela beldur izana nintzan tronadurak eta haien azpian enetako lehengo xoramanetik eta lotsetarik ainitz oraino egonen zenak, enetako baliorik etzuen Amerikanosa baten arratsaldiak estaltzen zituzten. Gauzek eztute segurki bere baitan boteretik eta, guk dauegunaz geroz emaiten, ikasle burjes gazte batek bazituzkeen ordu huntan, Oihaneko ethorbideko hotelaren aitzinean, nik behin Guermantes-ko hotel zaharraren aitzinean ukanak nituen sendimendu berak. Hori da sinesmenen adinean zelakotz oraino, baina nik iragana nuelakotz, eta abantail hori galdua, haurrek iresten duten esnearen berexteko zati lixerigarrietan duten ahala haurtzaro lehenaren ondotik galtzen den bezala, horrek adinekoak bortxatzen baititu, zuhurtzia gehiagoz, zati ttipika esnearen edatera, haurrek hatsik hartu gabe ethengabe edoski dezaketelarik. Egoitzaz Guermantes-ko printzearen aldatzeak hau onik ukan zuen bederen eremaiteko bila jina zizatan karrosak, eta hartan gogoeta hauk egiten nituenak, behar ukan zituela Champs-Elysées-tara deramaten karrikak iragan. Ordu hartan biziki gaizki lauzatuak ziren, baina hetan sartu nintzan orduan berean, enintzan gutiago ene gogoetearik baztertua izan, bapatez, karrosa errexago, eztikiago, harrabotsik gabe dabilanean, ukaiten den eztitasun ezin handiago baten sendipenaz, parke bateko burdin-atheak ideki direnean, ondartz xehe 'ta orsto zimelduez estali bidexketan lerratzen denean bezala. Egiatzki holakorik jeus etzen, baina kampoko traba guzien ekhentzea senditu nuen bapatez enetako etzelakotz gehiago, hortaz ohartu gabe ere, gauza berrien aitzinean egiten dugun arautzeko eta oharpeneko indarririk: orduan iragaiten ari nituen karrikak, aspaldidanik ahatziak, behin Françoise-rekin Champs-Elysées-tara joaiteko hartzen nituenak ziren. Zolak bazakien bere baitarik nora joan behar zuen; haren ihardokitzea garhaitua zen. Eta, ordurano lurreen nekez ibilia den airekolari baten bapateko « airatzean » bezala, emeki ari nintzan orhoitzapenaren hegi ixiletara goititzen. Parisen, karrika horiek enetako bertzeak ez bezalako gai berezi batekoak agertuko dira beti.

Françoise-ek maite zituen argazkien saltzale kampokoa lehenago

han zen Erret-karrikako izkinara heldu nintzanean, iduritu zizatan karrosak, lehenago egin ehun eta ehun itzuliez eremana, etzuela berak itzulikatzeaz bertzela eginen ahal. Enituen egun hartan kampoan ziren ibiltzalen karrika berak zeharkatzen, baina iragan lerrakor, trixte 'ta ezti bat. Hainbat iragan ezperdinez egina zen bertzela ere nun ene gogoilunduraren arrazoinaren eza-gutzea neke baitzizatan, Gilberte-ren aitzinerako ibilaldi hek emana zutenetz eta jin etzadin beldurrean, Albertine hara Andrée-rekin joana zela errana zautaten etxe baten hurbilak, ala irauten eztuen eta ondoriorik ukan eztuen suhartasun batekin mila aldiz iragan den bide batek, bazkal-ondoan, Phèdre edo Domino noir-en iragarki oraino kolaz hotx-hotxen ikusteko laster hain lehiatuak, hain sukartsuak egiten nituen hura bezalakoak, hartzen duela iduri duen filosofiazko hutsaleriaren erran-nahiak. Champs-Élysées-tara heldu eta, ezpainintzan Guermantes-tarren etxean emaiten zen musikaldi osoaren entzuteko biziki gutiziatua, karrosa geldiarazi nuen eta oinez urhats batzuen egiteko jaustera nindoan hura ere gelditzen ari zen karrosa baten ikustean joa izan nintzalarik. Gizon bat, begiak gelditu, bizkarra konkortua, barnean ezarria zen jarria baino gehiago, eta zuzen egoiteko egiten zituen pherestua izaitea gomendatua ukanen zizakon haur batek eginen zituen indarrak. Baina haren lastozko xapelak agertzera uzten zuen ile abantzu oro zurizko oiha ezin hezi bat; bizar zuri batek, elhurak hiriko baratzetan ibaien gizadurier egiten dauena bezalakoak bazarion haren bidarretik. Harendako egin ahala ari zen Jupien-en ondoan, Charlus-ko Jauna zen ezaguna enuen odol-ukhaldi batetik sendatzen ari (ikustea galdua zuela errana zautaten bakarrik; etziren bada uherdura iragankor batzu baizik izanak, berriz biziki ontsa ikusten baitzuen); eta horrek, ordurano thindaturik izana ezpazen bederen eta akhidura horren hartzen jarraikitzea debekatua ezpazaukoten, ikuskarri eta dirdiran ezarria baitzuen izaitekotz, kimiako gogortze mota batek bezala, haren adatseko eta bizarreko xerloek, orai zilhar hutsezkoek, igortzen zuten eta hartaz, bertze hainbertze xirrista zut batzu bezala, bete-beteak ziren metalki guzia, printze zahar eroriari errege Lear baten maiestate shakespearriarra emaiten zaukon batean. Begiak etziren nahasmendu oso hortarik, buruaren aldatze metalekizko hortarik kampo egonak, baina, kontramoldeko gertakari batez, bere argia galdua zuten. Hunkigarriena alta, argi galdu hori urgoi-

tasun moralekoa zela senditzea zen, eta hortik ordu batez haiekin bat zirela uste ahal ukana ziren Charlus-ko Jaunaren gorputzeko biziak eta gogokoak ere urgulu arixtokrataren ondotik bizi irauten zutela. Ordu hartan karrosa ideki batean, hura ere Guermantes-ko printzearen etxera joaiten zatekeela, iragan zen Sainte-Euverte-ko Anderea, baroinak beretako aski aphain aurkitzen etzuen. Jupien-ek, haur batez bezala hartaz artha hartzen baitzuen, beharrira erran zaukon jende ezagun bat zela, Sainte-Euverte-ko Anderea. Eta berehala, neke ezin handiago batekin baina oraino mingarri zizazkon mugimendu guzien egiteko gai dela erakutsi nahi duen eri baten arthamendu guziarekin, Charlus-ko Jauna buru-hastu zen, gurtu, eta Sainte-Euverte-to Anderea agurtu zuen Frantziako erregina izana baliz bezalako errespetuarekin. Horrelako agur baten egiteko Charlus-ko Jaunak zuen nekean berean, hortako arrazoin bat bazen behar bada, eri batendako mingarri zen egintza batez gehiago hunkiko zuela jakinez, egiten zuenaren aldetik bietan merezigarri bilakatzen baitzen eta igortzen zizakonarendako lausengagarri, eriek ikustatea handiegitzen dutelakotz, erregek bezala. Bazen ere behar bada oraino baroinaren mugimenduetan buru eta bizkar munen nahasmenen ondoriozko lotura eskas hura, eta zuen xedea haren jestuek gainditzten zuketen. Neure aldetik, hetan abantzu gorputzeko eztitasun mota bat ikusi nuen izaitekotz, biziko gauzez axolagabe bat, herioak jadanik bere itzalean sarr-araziak dituenen baitan hain ohargarria. Adatseko zilhar minen agerian ezartzeak salatzen zuen aldapen bat, gizarteko harremanak oro aldizkatzen zituen, urgoiena iduri zuen handi-ustea Sainte-Euverte-ko Anderearen aitzinean aphaltzen zuen, Amerikanosetan azkenaren aitzinean (hunek bere buruari eskain-arazi ahalko baitzaukon ondarrean baroinaren ikustatea, ordurano beretako ezin onetsia) aphalduko zuen ohargabeko lañotasun mundutar horrek baino gutiago barnatua. Ezen baroina beti bizi zen, beti gogatzten zuen; haren adimendua etzen hunkia. Eta Zofoklen koro batek Ediperen urgulu aphalduaz egina ukanen zuen baino gehiago, herioak berak ere eta herioaz hil-pherediku orok baino gehiago, Sainte-Euverte-ko Andereari Charlus-ko Jaunaren agur lehiatu xumeak goraki erraiten zituen lurreko handitasunen maitatzeak uxter eta iraungaitzetik duena eta giza-urgulu guzia. Charlus-ko Jaunak, ordurano Sainte-Euverte-ko Anderearekin auhaltzea onhartuko etzuenak, orai

lurrerano agurtzen zuen. Agurtzen zuen jendearen lerroa ez ezagutuz behar bada (orhoiteko bertze zati oro bezala gizarte-legeko artikulua odol-ukhaldi batez eremanak izan baitaitezke), baziragan anderea nor zen ez segur izaite, hori gabe handikariak aphaltasun idurira aldatzen zuen jestuen gaizki arautze batez behar bada. Agurtzen zuen herabeki jende handier egunon erraitera herabeki heldu diren haurren ikustatearekin. Eta haur bat, haurrek duten urgoitasunik gabe, hori zen bilakatua.

Charlus-ko Jaunaren gizamenaren ukaitea handi-ustekeria guzia zen anderearendako, ez hari emaita baroinaren handi-ustekeria guzia izana zen bezala. Bada bere baitan hain izaitezkoa zela Sainte-Euverte-ko Andereari sinets-araztera heldua zen nortasun ezin hurrandu eta prezios hura, Charlus-ko Jaunak aldi bakar batez ezteustu zuen, Bossuet baten errankortasunarekin adeiez burua hasik utzi zuen ephe guzian handik zilharrezko adatsaren uhaitzak xuri baitziren, xapelaren ekhentzeko ukan zuen suhartasun beldurtiaz. Baroina, Jupien-ek jausten lagundua ukan zuenean eta nik agurtua, biziki laster mintzatu zizatan, mintzo hain ezin hautemanaz nun erraiten zautana ezpainuen hartu ahal, horrek, hirugarren aldian errepika-arazi naukonean, ezin-egoneko jestu bat egin-arazi baitzaukon, ustegabetu ninduen lehenik haren begitarteak erakutsia zuen sorgortasun eta paralesiako ondar baten ondorioa zatekeenaren gatik. Baina azkenean « pianissimo » hari jarria izan nintzanean, ohartu nintzan eriak adimendua oso-oso zuela. Baziren bi Charlus-ko Jaun, bertzeak bertze. Bietarik, adimendunak dembora iragaiten zuen elhe-galtzera zoala lastimatzen, beti hitz bat bertze baten orde erraiten zuela, hizki bat bertze baten. Baina horren egitea gertatzen zizakon orduko alabaina, bertze Charlus-ko Jaunak, ohartu gabeak, bertzeak urriki bezainbat hunek gutizia eman nahi baitzuen eta bertzeak gaitzetsi aphainkeria batzu baitzituen, erranaldi hasia berehala geldiarazten zuen, musikariak nahasiak diren orkestrako buruzagi batek bezala, eta antze ezin handiago batek gero heldu zena egiazki bertze baten orde errana zen hitzari baina hautatua zuena iduri zuenari lotzen zuen. Baina orhoita oso zuen, hortik ezartzen baitzuen ere aphainkeria bat, indar ezin nekeago baten akhidurarik gabe etzoana, holako orhoitzapen zahar baten jalgi-arazten, munta gutikoa, ni hunkitzen ninduen eta izpirituko argitasun guzia atxikia edo berrarkitua zuela erakus-

ten zautana. Buru ez begirik higitu gabe, mintza-moldea doinu bakar batez aldatu gabe, erran zautan behazunez: « Huna phaldo bat Avranches-en, ez huts egiten dut, Balbec-en haren aitzinean ikusi zindutan lehenbiziko aldian bezalako iragarki bat baduena. » Gauza berarendako erreklama bat zen alabaina.

Hastapenean doi-doia nuen erraiten zuena hautemana, erridau guziak hetsiak diren gambara batean hastapenean tuntik ikusten ezten bezala. Baina, begiak erdi ilunbean bezala, ene beharriak « pianissimo » hartara berehala jarri ziren. Uste dut ere gero eta gehiago azkartua zela baroina mintzatzen ari zelarik, ala zatiz mintzoaren ahulezia, norbaitek hartarik urruntzen zuenean, gogoan etzuelarik ezeztatzen zen lotsa zaintsu batetik heldu zelakotz; ala aldiz ahulezia hori egiazko izanararen araukoa zelakotz eta solastatzean zuen indar ephe batekoa suhartasun falsu, iragankor eta ere ilun batek emana zaukolakotz, arrotzer « Hobeki da jadanik, eztu bere gaitza gogoan ukan behar » erran-arazten zauenak, baina hau aldiz handitzen zue-nak eta berehala berriz abia-arazten. Dena den, ordu hartan baroinak (eta ni hortara jarria izanik ere) bere elheak azkarkiango emaiten zituen, itsasaldiak, ekaitz egunetan, bere uhain ttipi bihurtuak bezala. Eta azken odol-ukhaldit-ik gelditzen zizakonak haren elhen zolan entzun-arazten zuen harri pirripit-iatuen hotsa bezalako bat. Bertzela ere, eni iraganaz mintzatzen jarraitzean, dudarik gabe orhoita etzuela galdua eni ontsa erakusteko, molde ilun batean gogoratzen zuen, baina trixteziarik gabe. Zenduak ziren bere familiako edo munduko jende guzien izendatsetik etzen gelditzen, gutiago, iduriz, bizi et-zirelako trixtezi-az, bera haien ondotik bizi zelako satisfamenduz baino. Haien heriotzeaz orhoitzean bazidurien osasunera bere itzultzea gogoan hobeki hartzen zuela. Idortasun abantzu triunfari batekin, doinu berdin arinki moteldu eta hilhobietako oiharzun ilun batekilakoan zuen errepikatzen: « Bréauté-ko Hannibal, hila! Mouchy-ko Antoine, hila! Charles Zuan, hila! Montmorency-ko Adalbert, hila! Talleyrand-eko Boson, hila! Doudeauville-ko Sosthène, hila! » Eta aldi bakoitz, « hila » hitz horrek iduri zuen zendu horien gainera lur phizuago bateko phalatara bat bezala erotzen zela, bere hobian barnago haien sartzera atxikia zen ehorzle batek botarik.

Létourville-ko dukesa, Guermantes-ko prinzesaren goizaldira ez-

paitzoan, luzaz eri egon berria zelakotz, orduan oinez gure ondotik iragan zen, eta baroinari ohartuz, berriki ukhana zuen odol-ukhaldia ezpaitzakien, hari egunon erraiteko gelditu zen. Baina ukan berria zuen eritasunak etzuen bertzeren eritasuna hobeki hartzen zuela egiten, baina ezinegon gehiagorekin jasaiten zuela, hartan urrikalmendu ainitz bazen omore gaixto batekin. Baroinaren entzutean nekez ahozkatzen eta hitz batzuetan gaizki, nekez besoaren higitzen, begiak inguruan aldizka Jupien-en eta ene gana eman zituen hoin gertaldi gozagaizkarriko argipenaren galdatzeko. Jeus ezpaiginakon erran, Charlus-ko Jaunari berari zaukon eman behako luze trixtezia, baina ere erasiaz bete bat. Iduri zuen harekin kampoan izaiteaz gaitzerraiten zaukola, lephoko edo oinetakorik gabe jalgia izan baliz bezain egonara ohigabekoan. Baroinak egin zuen ahozkatzeko huts berri batean, dukesaren oinaze 'ta sumintzea elgarrekin handitzen baitziren, hunek erran zaukon: « Palamède! » minuta batez ezin igurika dezaketen jende zaintsuegien doinu galdekari suminduan eta, berehala sarr-arazten baldin badira ikustaldiaren bururatzeaz desenkusatzuz, saminki erraiten baitautzute, ez desenkusatzeko baina salatzeke: « Baina beraz, desarrañatzen zitut! » desarrañatzen denaren ganik gaizki bat baliz bezala. Azkenean utzi ginituen itxura gero eta gehiago lastimatuan, baroinari erranez: « Etxera sartzea hobe zinuke ».

Hunek atsedean hartzeko jargia batean jartzea galdegin zuen Jupien-ek eta nik urhats zenbait eginen ginituen batean, eta sakelatik nekez athera zuen othoitzekoa iduritu zizatan liburu bat. Jupien-en ganik baroinaren osagarriko izanaraz xehetasun batzu jakin ahal ukaiteaz enintzan samurtua. « Zurekin solastatzeaz ontsa askietsia niz, Jauna, erran zuen Jupien-ek, baina ezkira Itzulgunea baino urrunago joanen. Jainkoari esker, baroina ontsa da orai, baina bakarrik uztera eniz ausartzen, beti bera da, bihotz onegia du, duena oro bertzer eman lezake; eta gero ezta hori guzia, mutiko gazte bat bezain maitakari gelditua da, eta begien idekitzera bortxatua niz. - Are gehiago nun berak berriz bildu baititu, nuen ihardetsi; ikustea galdua zuela erranez biziki trixtatua ninduten. - Paralesia alabaina horrara joana zizakon, jeusik etzuen ikusten. Gogoari emazu, bertzela ere hainbat ongi egin daukon arthamenduan, ilabete andana bat egona da sortzezitsu batek baino gehiago ikusi gabe. - Horrek zure zaingoa zati handi batez debaldekoa egiten zukeen be-

deren? - Ez den gutienik, hotel batera doi-doia heldu eta, zerbitzuko holako jendea nolakoa zen galdegiten zautan. Itsuskeriarik baizik etzela segurtatzen naukon. Baina sendi zuen bada hori etzaitekeela orotakoa izan, batzuetan gezurra erraiten nukeela. Ikusazu, ihiziño hori! Eta gero halako asmu bat bazuen, mintzotik behar bada, eztakit. Orduan lehiaz erosketa batzuen egi-tera ene igortzeko akomeatzen zen. Egun batez - horren erraiteaz desenku-satuko nauzu, baina ustegabeen Lizunkeriako Templora ethorri zira, jeus eztautzut gorde behar (bertzela ere, zabalera bazaduzkan segetueten emaiten satifamendu aski guti gustagarri bat bazuen beti) - erosketa zionaz lehiatu horietarik batetik sartzen ari nintzan, are gehiago lasterrez nun ontsa ohart-zen bainintzan espesuki antolaturik izana zela, noiz ere baroinaren gamba-rara hurbiltzen ari nintzanean, mintzo bat entzun bainuen: « Zer? - Nola, ihardetsi zuen baroinak, lehen aldia zen beraz? » Jo gabe sartu nintzan, eta nolakoa etzen izan ene izialdura! Baroina, adin hortan ohi dena baino azkar-ragoa zen mintzoaz alabaina enganatua (eta ordu hartan baroina osoki itsu zen), hura lehenago jende izaitekotz adinekoak maite zituen, hamar urte etzituen haur batekin zen. »

Errana izan zata ordu hartan abantzu egun bakoitz gogo ahuldurako gaitzaldi batzuek hartzen zutela, ez garbiki erokeriatik ezagugarriak, baina, haiek han zirela edo haien larderia ahazten zuen jende batzuen aitzinean goratik egin aithormenetik, gordetzera ohitua zen aburu batzuez, behazunez germanofiliaz. Hoin luzaz gerla ondoan, Alemanen galpenaz auhenkatzen zen, bere burua hetan ezartzen baitzuen, eta bazion urgulurekin: « Eta bizki-tartean gure ordaina har eztezagun ezin dateke, ihardukimendu handieneko gai gu ginela phorogatua baitugu eta antolamendu hoberena dugunak. » Edo haren segetetu aithortzek bertze doinu bat hartzen zuten, eta errabiatuki egi-ten zuen: « Lord X. edo **ko printzea eztadila jin atzo ziotenaren errepikat-zeza, ezen nekez egon bainiz haier ihardestetik: Ni bezainbat bederen heta-rik zireztela ontsa badakizue. » Gaineratzea eztu balio Charlus-ko Jaunak horrela, dioten bezala biziki « han » etzen orduetan egiten zituen Alemanen aldeko edo bertze aithormenak, haren ingurunean gertatzen ziren jendeak, izan zadin Jupien edo Guermantes-ko dukesa, zuhurtziarik gabeko elhen mozteko ohidura bazutela eta han ziren gutiago etxekotuer eta mihiluzegier

hetaz argipen bortxatu baina onhargarri baten emaitakoa.

- Baina, ene Jainkoa! egin zuen Jupien-ek, urrun ezkinindaiten nahi ukaitean ontsa arrazoin nuen, horra baratzezain mutil batekin solasean sartzeko bidea hatzemaña duela jadanik. Goraintzi, Jauna, utz zindezatan hobe da eta ene eria ephe batez ere bakarrik utz eztezatan haur handi bat baizik ezpaita.

Karrosatik jaitsi nintzan berriz Guermantes-ko prinzesaren etxera heldu baino apur bat lehenago eta, Frantziako baserri aiphatuenetarik batego zuhatzetan, bezperan, itzala argitik berexten zuen marraren hartzera entseatzeko ukanak nituen akhiduraz eta asperraz gogatzten hasi nintzan berriz. Eiki, hortik hartuak nituen adimenduko ondorioek etzuten gaurregun ene sendimendua hain bortizki hunkitzen. Berdinak gelditzen ziren; baina, ene ohitzetarik atheraia gertatzen nintzan aldi oroz bezala, bertze oren batez jalgitzen, leku berri batera joaiten, atsegin bizi bat sendi nuen. Atsegin hori egun hartan atsegin osoki arin bat iduritzen zizatan, Guermantes-ko prinzesaren goizaldi batera joaitekoa. Baina orai atsegin arin batzuetara baizik hel enindaitekeela banakienaz geroz, haien ez onhartzek zer balio zuen? Banion berriz neure baitan enuela, erakuspen hortara entseatzean, antzearen berexpide ez bakarra baina lehenbizikoa den gogo-berotze hartarik deus senditua. Ene orhoitetik bertze « iduri berehalako » batzuen hartzera entseatzen nintzan orai, bereziki Venezian hartuak zituen iduri berehalako batzu, baina hitz bakar horrek argazki erakustaldi bat bezain aspergarria egiten zautan, eta lehenago ikusia nuenaren orai erakusteko enuen, atzo, orduan berean, begi ximen eta ilun batekin beha nindagokonaren egiteko baino gostu gehiago, antze gehiago senditzen. Ephe baten buruan, hain aspaldidanik ikusiak enituen hainbertze adixkidek galdeginen zautaten dudarik gabe enindadin gehiago horrela bakarturik egon, neure egunak haier eman nezezteen. Haier ezaren emaitako arrazoinik batere enuen, orai jeuseteko on enintzalako phorogantza banuenaz geroz, literaturak etzeketala gehiago bozkariorik batere eman, ala neure faltaz, gutiegi dohatua izanez, ala harenaz, uste ukana nuen baino egia gutiagoz bete bazen alabaina.

Bergotte-ek errana zautana gogoan nuen: « Eri zira, baina ezin daiteke zutaz urrikal izpirituko bozkarioak baitituzu »; zenbat zuen nitaz huts egina! Zein bozkario guti zen gogo-argitasun antzu hortan! Gaineratzen

dut ere batzuetan atsegin batzu baldin banituen (ez adimendukoak) emazte ezperdin batendako gastatzen nituela beti; hala nola nun, Halabehararak ehun urte bizi gehiago emana ukan balaut ere, eta hebaundurarik gabe, etzuen oro luzetanezko bizi bati luzagai andana baten emaita baizik egina ukanen, gehiago luza zadineko abantaila ikusten ere etzelarik, are gehiago oraino luzaz. « Adimenduko bozkarioez » den bezainbatean, ohar hotz horiek, ene gogo argiak edo ene arrazoinamendu zuzenak atseginik batere gabe ikusten zituenak eta antzurik gelditzen zirenak, horrela izenda nezazkeena?

Baina oro galdua iduritzen zaikun orduan da batzuetan salbatzen ahal gituen gaztiapena ethortzen; jeusetara eztematen athe guzietan jo da, eta hetarik sar daitekeen eta ehun urtez debaldetan bilatuko zen bakarra, hartan jakin gabe joiten da, eta idekitzen da. Arestian erraiten nituen gogoeta trixtetan nintzalarik, Guermantes-ko hoteleko korroilara sartua nintzan, eta ene ohar eskasean aitzinatzen ari zen karrosa bat enuen ikusia; karrosazainaren oihuan enuen bizi-bizia baztertzeko astia baizik ukan, eta aski gibelatu nintzan hetarik haratago atherbe bat bazen lauza oraino gaizki laurkatu batzuetan nahigabea joiteko. Baina, berriz plomuan jartzean, aitzinekoa baino apur bat gutiago gora zen lauza oina ezarri nuen orduan, ene etsipen guzia ezeztatu zen, ene biziko aldi batzuetan, Balbec-eko inguruan karrosaz ibilaldi batean ezagunak uste nituen zuhatzen ikusteak, Martinville-ko ezkiladorren ikusteak, tisana batean busti madalena baten gostuak, aiphatu ditutan hainbat sendipenek eta Vinteuil-en azken lanek batera moldatzen zituztela iduritua zizatanek emana zautaten zorion oso beraren aitzinean. Madalena jatatzen nuen orduan bezala, geroaz goganbehar oro, adimenduko duda oro ezeztatua zen. Arestian literaturako ene dohainen izaiteaz, eta literaturaren egiaz beraz setiatzen nindutenak, mirakuluz bezala joanak gertatzen ziren. Arrazoinamendu berririk batere egina ukan gabe, baitezpadako arrazoinik batere aurkitua ukan gabe, arestian ezin ezeztatuak ziren eragozpenek indar guzia galdua zuten. Baina, aldi huntan, zergatik zen jakingabea egoiteko etsiaren ez hartzera ontsa deliberatua nintzan, tisanan busti madalena bate-tik jatatua nuen egunean egina nuen bezala. Senditu berria nuen zoriona madalenaren jatean ukana nuen hura bera zen alabaina, eta haren arrazoin barnatuaren bilatzea gibelera utzia nuena. Ezperdintasuna, osoki gauzetakoa, gogoratuak ziren idurietan zen; zeru-kolore barnatu batek ene begiak xorat-

zen zituen, hoxtura bateko, argi lilluragarri bateko sendipenak itzulika zabiltzan ene ondoan eta, haien eskuratzeko nuen gutizian, nitarano orhoitzen zautanaren jin-araztera indar eginez madalenaren gostua jastatzen nuenean baino gehiago higitzera menturatu gabe, banindagon, karrosazain multzoari irri egin-arazteko irriskutan, arestian egina nuen bezala haldamaldaka, oin bat lauza gorenean, bertzea beheragoan. Urhats hori bera zen bezala berriz egiten nuen aldi bakoitz, debaldekoa zizatan; baina heltzen nintzan, Guermantes goizaldia ahatziz, oinak horrela ezarriz senditua nuenaren berraurkitzera, ikuspen lilluragarri guti argia berriz ondo-ondora jiten zizatan, erran ukan balaut bezala: « Iragaiten har nezak, hortako indarra baduk, eta eskaintzen dauiatan zorioneko mixterioaren argitzera entsea hadi. » Eta abantzu berehala, ezagutu nuen, Venezia zen, haren erakusteko ene indarrek eta ene orhoitak hartu delako iduri berehalakoek hartaz ehoiz ezer errana etzautaten Veneziarena, eta San-Markoko bataio-harriko bi lauza ezperdinetan lehenago ukana nuen sendipenak itzulia zautana egun hartan hari lotu bertze sendipen guziekin eta, bere lekuan, igurikan egonekin, handik bapateko halabehar batek bortxaz jalgi-araziak baitzituen, egun ahatzietako zerrendan. Berdin ere Madalena ttipiaren gostuak Combray orhoit-arazia zautan. Baina zergatik Combray-ko eta Veneziako iduriek zautaten, ordu bietan, segurtamen baten iduriko bozkario bat emana, aski zena, bertze phorogantzarik gabe, herioaz ene axolagabetezko?

Galde hortan nindagola eta egun berean ihardespenaren edireitera deliberatua, Guermantes-ko hotelean sartu nintzan, egiteko dugun barneko eginbeharraren aitzinean beti ezartzen dugulakotz badagigun jokaldi itxurazkoa, eta, egun hartan, gomit batena zen. Baina lehen estaiara heldu eta, mahi-nagusi batek galdegin zautan ephe batez sar nindadin janari-mahiko ondoan zen saloin-liburutegi ttipi batera, joiten ari zen musika bururatua izan arteo, joiten ari zen artean atheak idek zitzaten prinzesak debakatua ukanik. Bada, ordu hartan berean, bigarren gaztiapen bat jin zizatan bi lauza ezperdinek emana zautatenaren azkartzera eta ene egitekoari jarraikitzean sustatzera. Alabaina mutil batek, harrabotsik ez egiteko bere indar debaldekoetan, kulera bat azieta baten kontra jo berria zuen. Lauza ezperdinek emana zautaten bozkario berak hartu ninduen; sendipenak bero handikoak ziren oraino,

baina osoki bertzelakoak: beroa khe usain batez nahasia zen, oihan inguru-
meneko usain frexkoaz eztitua; eta ezagutu nuen hoin goxagarri iduritzen
zizatana ikusteko eta erakusteko hain aspergarri aurkitua nuen zuhatz lerro
bera zela, eta, bagonean nuen sagarno kanetaren idekitzean, haren aitzinean
nintzala uste ukana nuen ephe batez, halako burxoratze batean, hain zau-
tan kulleraren harrabots berdinak emana, neure baitaratzeko dembora ukan
baino lehen, oihan ttipi haren aitzinean geldituak ginelarik treinaren errotan
zerbait antolatua zuen langilearen mailu ukhaldiaren lilluramendua. Orduan
erranen zen, egun hartan, ene etsipenetik athera behar ninduten eta literatu-
ran sinestea itzuli behar zautaten seinalek gehitu nahi zutela, ezen, aspaldida-
nik Guermantes-ko printzearen zerbitzuan zen mahi-nagusi batek ni ezagu-
turik eta nindagon liburutegira, janari-mahira joan enindadin, bixkotxaño
hautu bat eta iranjada baso bat ekharriarik, ahoa xukatu nuen emana zautan
oihalarekin; baina berehala, Mila eta bat Gau-etan berak jakin gabe hain zu-
zen zeremonia egiten zuen jende hark bezala, agerr-araziz, beretako bakarrik
ikuskarri, urrunera eremanen zuen jeinu manukor bat, agerpen berri zerutar
bat iragan zizatan begien aitzinetik; baina garbia zen eta gazi, urdinkarako
ugatz batzuetan hantu zen; bihotz-hunkidura hain azkar izan zen nun bizi
nuen ordua oraia bera iduritu baitzizatan; Guermantes-ko prinzesak egiazki
hartuko ninduenek ala oro hondatuko zenez neure buruari galdez nindagon
egunean baino zozotuagoa, uste nuen mutilak leihoa ondartzara idekia zuela
eta guziak gomitatzen ninduela itsas-goran kaiaren luzaran ibiltzeko jaus-
tera; ahoaren xukatzeke hartua nuen oihalak bazuen hain zuzen, Balbec-era
ene heltzeko lehen egunean, leiho aitzinean harekin idortzeko hainbat neke
ukana nuenaren gogordura eta aminureztatu bera, eta, orai, Guermantes-ko
hoteleko liburutegi horren aitzinean, zabaltzen zuen, bere hegal eta haus-
turetan banakaturik, hegazterren baten buztana bezalako itsaso musker eta
urdin baten lumatzea. Eta enintzan bakarrik haren margoez gozatzen, baina
hek altxatzen zituen ene biziko ordu oso batez, hetarako nahikunde bat izana
zatekeena, Balbec-en hetaz gozatzeke behar bada akhidura edo trixteziako
sendipen zenbaitek trabatua ninduen, eta orai, kampoko hautemaiteak
duen eskasaz gabeturik, garbi eta arin, alaitasunez hantzen ninduen.

Joiten ari zen musika noiz nahi burura zaitekeen, eta saloinean sart-

zera bortxatua izan nindaikeen. Indar egiten nuen beraz zenbait minutetan hirur aldiz senditu berriak nituen atsegin berdinak zer ziren lehen bai lehen argiki ikusteko, eta gero hetarik hartu behar nuen erakaspenaren atheratzeko. Gauza batez ukan dugun egiazko iduripenaren eta nahikundez guhauri haren itxuratzerantz entseatzen girenean hartaz dugun iduripen alegiazkoaren artean den ezperdintasun ezin handiagoan, enintzan gelditu. Zuan lehenago maitatua izana zen egunez nolako axolagabe neurtuan mintzatu ahal izana zen sobera gogoan bainuen - hitz horien azpian hetarik bertze zerbaite ikusten zuelakotz -, eta egun hek berak behin sendituak zituen bezala hari itzuliz Vinteuil-en aire ttipiak emana zaukon bapateko oinazea, sobera hartzen nuen lauza ezperdinetako sendipenak, mahi-oihalaren gogodurak, madalenaren gostuak neure baitan atzarria zutenak, ainitzetan molde bakuneko orhoit baten laguntzaz Veneziatik, Balbec-etik, Combray-tik orhoitzea bilatzen nuenarekin ikustekorik ezer etzuela; eta hartzen nuen bizia bierartekoa jukatua izan laitekeela, nahiz ordu batzuez hain eder iduri zuen, lehebizian bera denaz osoki bertze zerbaite, hartarik ezer eztaixikaten iduri batzuetarik delakotz jukatzen eta gutiesten. Gehien-gehienik nintzan gainera ohartzen egiazko iduripen bakoitzak duen berezitasuna - biziaren erakuste molde bakuneko bat iduria izan eztaitekeela argitzen baitu - arrazoin huren ondorioa zatekeela: gure biziko une batean errana dugun den gutieneko elheak, egina dugun jestu ezteusenak, inguruan baitzuen, gainean baitzuen arrazoinez hari atxikiak etziren gauza batzuen leinurua, bere arrazoinamenduaren beharretako hetaz jeus egitekorik etzuen adimenduaz bazterturik izanak direnena, baina haien erdian - hemen baserriko ostatu baten harresian arratseko leinuru arrosa-kolorea; hor itsaso goiztiarreko ingurubil urdinak ur-anderen soingainak bezala handik zatiz jalgitzen diren musika batzuen inguratzen - jestua, egintza den xoilena hetsirik baitago bakoitza margo, usain, bero-neurri osoki ezperdinekilako gauzez betea lizatekeen mila untzietan bezala; ahatzi gabe untzi horiek, ametsez edo gogamenez baizik ezpaliz ere aldatzetik gelditu ezkiren urte horien guzien gainean ezarritik, goratasun ontsa ezperdin batzuetan jarriak direla, eta bademagutela aro bereziki ezperdin batzuen sendipena. Egia da aldapen horiek, senditu gabe egin ditugula; baina bapatean heldu zaikun orhoitzapenaren eta gure oraiko izanararen ar-

tean, urte, leku, oren ezperdin batzuen artean bezala, urruntasuna halakoa da nun hori aski bailizateke, berexkarritasun oro bazterrera utziz ere, batzu bertzer ezin erkidagarri egiteko. Bai, orhoitzapenak, ahazteari esker, lokarri-rik batere, artekorik batere ezarri ahal ukan ezpadu beraren eta oraiko minutaren artean, bere lekuan gelditu baldin bada, bere orduan, bere urruntasuna atxiki baldin badu, ibar baten askan edo hegi baten punttan bere bakartasuna, bapatez aire berri batez hats-harr-arazten dauku, lehenago hartu den aire bat delakotz hain zuzen, poetek Parabisuan izan-araztera auherretan entseatu direna, eta berritzezko sendipen barnatu hori eman elezakeena jadanik hartua ukana baliz baizik, egiazko parabisuak galdu diren parabisuak baitira.

Eta orduan ohartzen nintzan izanen zirela hor, jakinean hortara deliberatua izan gabe jadanik hastera prest sendi nintzan ederlandean, neke handi batzu. Ezen beharko nituen haren zatiak bat bertzearen ondotik egin itsaz-bazterreko goizetako edo Veneziako arratsaldetako orhoitzapenentzat egoki izanen zenetik ontsa bertzelako gai batean, Rivebelle-ko arrastiri hek itxuratu nahi baldin banituen, han, baratzeria ideki jateko salan, beroa zatikatzen hasten ari zenean, erortzen, pausatzen, azken leinuru batek ostatuko harresian arrosak argitzen zituenean eguneko azken ur-margazkiak zeruan oraino ikus zaitezkeelarik - gai berezi, berri batean, argaltasun, ozentasun bereziakilakoa, tinkian, hoxtera eman eta gorraxtan.

Hortan guzian lasterrez lerratu nintzan, indar gehiagorekin oraino helatua bainintzan zorion hori emana zuenaren, eta harekin nagusitzen zen segurtasunezko arrazoinaren bilatzera, lehenago gibelatua nuen bilaketa. Arrazoin hori bada, zorionezko iduripen horien guzien erkidatzean asmatzen nuen, elgarrekin hau bazutenak ere aldi berean oraian eta ordu urrun batean sendituak ukaitea, oraiaren gainera iraganaren sartzerano, bietarik zeintan nintzan jakiteko zalantza-arazterano; egiaz, nitan iduripen hori orduan jastatzen zuen izaiteak egun iragan batean eta oraian berdinek zuenean jastatzen zuen, aroaz haratagotik zuenean; izaite bat, oraiaren eta iraganaren arteko berdintasun horietarik baten bidez, han bizi zaitekeen, gauzen izantzaz goza zaitekeen leku bakarrean izaiten ahal zenean baizik agertzen etzena, erran nahi da arotik kampo. Horrek argitzen zuen neure heriotzeaz nituen arrangurak ohargabeen geldituak zirela madalena ttipiaren gostua ezaguna

nuenean, ordu hartan izana nintzan izaitea aroaz kampoko izaite bat zenaz geroz, ondorioz geroko gora-beherez axolagabea. Izaite hori nehoiz etzen nitarano ethorria, nehoiz ez agertua, egintzatik, berehalako gozatzetik kampo baizik, berdintasun bateko mirakuluak oraitik ihes egin-arazia zautan aldi oroz. Horrek bakarrik zuen eni egun iraganen, aro galduaren berrediren-arazteko ahala, ene orhoitaren eta adimenduaren indarrek hortan beti hutsegiten zutelarik.

Eta, behar bada, arestian iduritzen bazizatan Bergotte-ek izpiritua-
ren biziko bozkarioez mintzatzean gaizki errana zuela, hori zen « izpirituko
bizia » deitzen nituelakotz, ordu hartan, harekin, orduan nitan zenarekin
ikustekorik etzuten logikako arrazoinamendu batzu - mundua eta bizia
aspergarri aurkituak ukan ahal nituen bezala egarik gabeko orhoitzapen
bartzuen arabera jujatuak nituelakotz, halako bizitzeko gura nuelarik orai,
hirur aldiz, iraganeko ordu egiazko bat nitan berphiztu berria zenean.

Iraganeko ordu bat baizik ez? Biziki gehiago, behar bada; aldi be-
rean iraganekoa eta oraikoa, hauk biak baino baitezpadakoagoa den zerbait.
Hainbat aldiz, ene bizian, egiazko gauzek nahigabeturik utzia ninduten,
hautemaiten nituen orduan, ene asmamena, ederraz gozatzeko nuen alderdi
bakarra, hetara eman etzaitekeelakotz, hor eztena baizik asma etzaitekeelako
lege ezin hutseginaren indarrez. Eta horra nun bapatez lege garratz horren
ondorioa ezteusturik gertatua zen, hautsia, naturako atherabide mireskar-
ri baten bidez, sendipen bat - kulleraren eta mailuaren harrabotsa, liburu
izenburu berdina, eta bertze - argira ekharr-arazia baitzuen aldi berean ira-
ganean, horrek ene asmamena uzten baitzuen hartaz gozatzera, eta oraian,
huntan harrabotsaz, oihalaren hunkitzeaz eta b. ene sentsuen inharrosteak
asmamenaren ametsen gainera emana baitzuen ohian hartaz gabetuak di-
rena, izaiteko ideia, eta, joko horri esker, utzia baitzuen ene gogo nehoiz
edireiten eztuenaren ukaitera, berextera, - zimiztaren iraupenean - geldi-ara-
ztera: aro huts lipar bat. Nitan berjaioa zen izaitea, halako zorion ikharatz
batean, azieta hunkitzen duen kullerak eta errota bat joiten duen mailuak
badagiten harrabotsa entzuna nuenean, urhatsetan Guermantes-ko korroi-
lako eta San Markoko bataio-harriko lauzen ezperdintasuna senditua, eta b.,
izaite hori ezta gauzen izantzaz baizik hazten, hartan ditu bakarrik bere gaia,

bere atsegin goxoak aurkitzen. Sentsuek hura ekhar eztezakoketen oraiari beha ahitzen da, adimenduak agortzen daukon iragan bati gogo emaiten, nahiak oraiaren eta iraganaren zati batzuekin moldatzen duen ethorkizun baten igurikatzean, horier bere egiazko izaitetik ekhentzen daularik oraino emaiten dauen helburu baligarriari, hertsiki gizatarrari doakona baizik ez atxikiz. Baina hots bat, usain bat lehenago jadanik entzuna edo hartua, ber-
riz egina izan dadila, aldi berean oraian eta iraganean, oraikoa izan gabe egiazkoa, gogo hutsekoa izan gabe ideala, berehala gauzen izantza betierekoa eta ohian gordea liberatua gertatzen da, eta gure egiazko ni-a, batzuetan aspaldidanik hila iduri zuena, baina osoki hala etzena, atzartzen da, ekharri zakon hazkurri zerutarraren ukaitean phizten. Aroko ordenutik libre jarri den minuta batek gure baitan berregin du, haren senditzeko, aroko ordenutik liberatu gizona. Eta hunek, bere bozkarioan sineste baduela hartzen da, madalena baten gostu xoilak ezipadu ere zuzenez bozkario horren arrazoinak badaduzkala iduri, « herio » hitzak horrendako erran-nahirik eztuela hartzen da; arotik kampo jarria, gerotik zeren beldur izan ahal laiteke?

Baina iraganeko ordu oraiarekin ezin akomeagarri bat ene ondoan ezartzen zuen lilluragai horrek, etzuen irauten. Eiki, nahizko orhoitak eman ikuskarriak luza daitezke ezipaititu guharen indarrak iduriekilako liburu baten orstokatzeak baino gehiago hartzen. Horrela behin, behazunez Guer-
mantes-ko prinzesaren etxera lehenbiziko aldian joan behar nuen egunean, Parisen gure etxeko korroila iguzkitsutik auherki so egona nintzan, neure hautura, noiz Combray-ko elizako plazara, noiz Balbec-eko ondartzara, izana nintzan lekuetan hartu ur-margazki bilduma bat orstokatuz ari zen aroa iduriztatuko nuen bezala; eta, bildumatzale baten atsegin berekoiarekin, horrela ene orhoiteko iduriaren ordenatzean neure baitan erran nuen: « Hala ere ene bizian gauza ederrak ikusiak ditut. » Orduan ene orhoitak sendipe-
nen arteko ezperdintasuna erraiten zukeen; baina etzuen gai bereko gauza batzuen antolatzea baizik egiten. Ukan berriak nituen hirur orhoitzapenetan etzen berdin izana eta hetan, neure buruaz ideia abantailgarriago baten hart-
zeko orde, « ni » horren izaite oraikoaz abantzu dudan egon nintzan. Berdin ere tisana beroan madalena bustia nuen egunean, gertatzen nintzan lekuan berean, leku hori izan zadin, egun hartan bezala, Parisko ene gambara, ala,

egun huntan bezala, Guermantes-ko prinzearen liburutegia, apur bat lehenago, hoteleko korroila, nitan izana zen, ene inguruko une ttipi batera hedatzen zela, sendipen bat (madalena bustiaren gustu, burdinki harrabots, urhatsaren senditze), gertatzen nintzan leku horrek eta ere bertze batek (izaba Octave-ren gamera, burdinbideko bagona, San-Markoko bataio-harria) elgarrekilakoa zutena. Eta horrela arrazoinkatzen nindagon orduan, ur-hodi baten hotsak, arratsean Balbec ondoko itsaso zabalean itsas-astietako untziek udan aldi batzuez entzun-arazten zituzten oihu luzeak bezala-bezalakoak, ukan-arazi zautan (Paris-en jadanik aldi batez, ostatu handi batean, jateko sala aberats, erdi huts, udatiar eta bero baten ikusteak egina zautan bezala) arratsalde ondarrean Balbec-en nuen sendipena xoilki bezalako bat baino biziki gehiago, noiz ere, mahi guziak jadanik bere oihala eta zilharrerria guziaz estaliak izanez, leiho zabal berinaztatuak oso-osoan kaiara idekiak gelditurik, arte bat ere gabe, berinazko edo harrizko gunek bakar bat, iguzkia emeki jausten zen batean han untziak oihuz hasten ari ziren itsasora, kaian zabiltzan Albertine eta haren adixkekin batzeko, ene aztal-beharria baino doidoia gorago zen zurezko kadrearen ixtapekatzea aski bainuen, hotelaren aireztatzeko haren ophoan berina luzeak oro betan lerra-araziak zituztelarik. Baina Albertine maitatua ukaneko orhoitzapen mingarria etzen sendipen horrekin nahasten. Orhoitzapen mingarrikerik ezta hilenik baizik. Hauk bada laster suntsitzen dira, eta haien hilhobi inguruan eztira naturaren edertasuna, ixila, airearen garbia baizik gelditzen. Etzen bertzela ere bakarrik oiharzun bat, ur-hodiak eman berria zautan iragan sendipen baten iduriko bat, baina sendipen hura bera. Aldi hortan aitzineko guzietan bezala, sendipen berdinak bere inguruan lehengo lekua berregina nahi ukana zuen, hura ordaintzen zuen oraiko lekuak bere phizua indar guziaz ondartz normandiar bateko hotel batera edo burdinbide bateko ezpondara sartze horri kontra egiten zaukon batean. Balbec-eko jateko sala itsastiarak, aldare oihala batzu bezala iguzki etzatearan hartzeko apailatu bere oihaleria damasatuarekin, Guermantes-ko hotelaren azkartasuna durdurikatu nahi ukana zuen, hango atheak bortxatu, eta ephe batez haren kanapeak ene inguruan kordoka-araziak zituen, bertze egun batez, Parisko ostatuko mahiak eginak zituen bezala. Beti, berphizte horietan, sendipen berdineko inguruan sortu leku urruna, ephe batez, borrokari bat bezala, oraiko lekuarekin birazkatua zen. Oraiko lekua garhaile

izana zen beti; garhaitua zizatan beti ederrena iduritua; hain ederra nun lauza ezperdinaren aitzinean the kikeraren aitzinean bezala gogo-erautzaldian egona bainintzan, ihes egina zautaten orduko, agertzen ziren orduetan haien atxikitzea, berriz agerr-araztea bilazen nuen Combray hura, Venezia hura, Balbec hura, hartzale 'ta gibelera igorriak, gero leku berri baina iragana sartzera utz zezaketen horien erdian ene uztera ethortzen zirenak. Eta oraiko lekua ezpaldin bazen berehala garhaile izana, uste dut aldixartuko nintzala; ezen iraganaren berphizte horiek, badirautek zekundan, hain osoak dira nun ezpaitutze bakarrik gure begiak ondoan duten gambararen ahaztera bortxatzen zuhatzez bazterkatu bideari ala itsas-goratzeari so egiteko; gure sudurrak ere leku alta urrun batzuetako airearen hartzera bortxatzen dituzte, gure borondatea eskaintzen dauzkiguten xehe guzien artean hautatzera, gure nortasun osoa hetaz inguratua dela uste ukaitera, edo bederen haien eta oraiko lekuen artean behaztopatzera, batzuetan, lokhartzerako orduan, ezin erranezko agerpen baten aitzinean senditzen dena bezalako duda bateko burxoratzean.

Hala nola nun hirurzpalaurre aldiz nitan berphiztu izaiteak jastatu berria zuena, biziko zati aroari ebatsi batzuez egina baitzen behar bada, baina beha egoite hori, nahiz betierekoa, iheskorra zen. Eta sendi nuen bizkitartean ene bizian, arte bekan batzuetan, emana zautan atsegin, emankorra eta egiazkoa zen bakarra zela. Bertzeren izaitegabeko seinalea eztea aski agertzen, ala gure askiesteko duten ezinean - hala nola behazunez gehien-gehienik janari okaztagarri batek eman-arazi janondo gaixtoa badematen atsegin mundutarrak, alegia egite bat den adixkidantza, edergile batek, laneko oren bat baztertzen duelarik adixkide batekin oren batez solastatzeko, zein ere izan daiten horren egiteko dituen moraleko arrazoinak, izaiterik eztuen gauza batendako egiazko zerbait sakrifikatzen duela badakienaz geroz (adixkideak ezpaitira adixkideak bizian zehar dugun erotasun ezti hortan baizik, hortara emaiten baigira, baina gure adimenduaren barnetik baitakigu mubleak bizi direla uste lukeen eta haiekin solasta laitekeen ero baten hutsa) -, ala haien satifamenduari darraikon tristezian, Albertine-ri aitzineratua izana nindakon egunean ukana nuena bezalakoan, neke bat alta ontsa ttipia hartua ukana nuelakotz baizik ttipia iduritzen etzizatan gauza baten - nexkato gazte baten ezagutzearen - ukaiteko? Atsegin barnatuago bat ere, Albertine maite nue-

nean senditu ahal ukanen nuena bezalakoa, etzen egiazki kontrako moldera baizik senditua hor etzelarik nuen antsiaz, ezen, ethorriko zela segur nintzanean, Trocadero-tik itzulia zen egunean bezala, etzizatan azpertzeh ahul bat baino gehiago senditua nuela iduritu, gero eta gehiago gogo-berotzen nintzalarik barnatzen ari nuen arau, enetako handitzen ari zen bozkario batekin, ganibetaren harrabotsa edo ene gambaran Léonie izabaren gambara, eta haren ondotik Combray guzia, sarr-araziak zituen tisanaren gostua. Beraz, gauzen izaite hutsari beha egoite horri lotzera deliberatua nintzan orai, geldirik horren atxik-araztera; baina nola? zeren bidez? Dударik gabe, mahi-oihalaren gogordurak Balbec itzulia zautan orduan, ephe batez ene idurimena pherekatua zuenean, ez bakarrik goiz hartan zen bezala itsasoaren ikustez, baina gambararen usainez, haizearen lehiaz, bazkaltzeko guraz, ibilaldi guzien artean dudan izaiteaz, hori guzia aingeruen mila hegialak bezalako oihalaren senditzeari lotua, - dударik gabe, lauzen ezperdintasunak Veneziaz eta San-Marcoz nituen iduri idor eta meheak luzatuak zituen orduan, alde orotara eta neurri orotara, han ukanak nituen sendipen guziez, eliza plazari lotuz, kaia urbideari, eta gogoaz baizik ikusia ezten gutzien mundutik begiek badakusaten guziari, - nahi ukana nuen, urtaroaren gatik, Veneziaiko ur enetako primaderatarretan berriz ibiltzera joan ezpada, bederen Balbec-era berriz itzuli.

Baina enintzan ephe batez ere gogamen hortan gelditu. Enakien bakarrik herriak ez tirela izenek erakusten zauztaten bezalakozak, eta etzen gehiago ene ametsetan baizik, lo egitean, ene aitzinean hedatzen den leku bat ikusten, hunkitzen diren, eta itxuratzen nituenean haiena izana zen gauza ohikoetarik osoki bertzelako gai hutsaz egina; baina, bertze mota bateko iduri hetaz ere, orhoitzapenarenez, banakien Balbec-en edertasuna, enuela han nintzanean aurkitua, eta hartaz utzia zautan iduria bera, etzen ene bigarren egonaldian berraurkitua nuena. Egiazko gauzetan neure golko zolan zenera heltzea ezina zela sobera ezaguna nuen; enuela San-Markoko plazan Balbec-eko ene bigarren bidaian izana zen baino gehiago, edo Gilberte-ren ikusteko Tansonville-ra ene itzultzean, Aro galdua berriderenen, eta bidaia, ezpaitzautan aldi bat gehiago iduripen zahartu horiek nitarik kampo bazirelako lillura baizik eskaintzen, etzaitekeela bilatzen nuen bidea izan. Eta enuen aldi bat gehiago neure burua bairatua izaitera utzi nahi, lekuen eta jenden

aitzinean beti nahigabetua izana nintzan bezala (nahiz aldi batez Vinteuil-en musikaldian jo zen musikak kontrakoa erraiten zautala iduritua zizatan) ezin egina zela uste ukana nuenera zinez hel zaitekeenez jakitea baitzen azkenean ene egitekoa. Enuen beraz nehora etzeramala aspaldidanik banakien bidean entseu bat gehiago eginen. Haien atxikitzea bilatzen nuen iduripe-nak bezalakoak ezeztatu baizik etzaitezkeen haien sorrarazteko ahalgabea izana den gozatze zuzen baten hunkitzean. Gehiago haien jastatzeko ara bakarra, osokiago haien ezagutza entseatzea zen, ziren lekuan, erran nahi da nitan berean, zuten barnatasunerano argian ezartzea. Atsegina enuen Balbec-en ezagun ahal ukana, Albertine-rekin bizitzeko baina gehiago, ezpaitzizatan berantegi baizik sendigarri izana. Eta ene biziko nahigabez, eta haren izaita egintzatik bertze nunbait zagokeela sinets-arazten zautatenez banagien errepikaldiak, etzuen osoki halabeharrezko molde eta ene biziko gertaldier jarraikiz nahigabe horietara guzietara hurbiltzen. Sendi nuen bada bidaiako nahigabea, maitasuneko nahigabea etzirela nahigabe berezi batzu, baina gauzetako atseginen, egintza egiazkoan beteki izaiteko dugun ezinak hartzen dituen itxurak. Eta, arotik kampoko bozkario haren berriz gogoratzean, ala kulleraren harrabotsaz, ala madalenaren gostuaz, erran nuen neure baitan: « Hori zena, zonatako aire ttipiak Zuani eskaini zorion hura, hartan maitasuneko atseginaren ezagutzean huts egina baitzuen eta ederlaneko egintzan haren aurkitzen ez jakina, zonatako aireak ere baina gehiago lurraz goragokoa zela Zuanek ezagutu ahal ukana etzuen zaspikuneko dei gorri mixteriozkoak aitzinetik sendi-arazia zautan zorion hura, bertze hainbat bezala heiendako egina zen egia agertua izan baina lehen hila baitzen? Bertzela ere, etzizakon baliagarri izanen ahal, erranaldi horrek dei bat itxura baitzezakeen, baina ez indarrik eman ez eta Zuanetik etzen idazlea egin. »

Bizkitartean, ephe baten buruan ohartu nintzan, orhoitaren berphizte horiek gogoan ukan ondoan, iduripen ilun batzuek, bertze molde batez, jadanik Combray-n Guermantes-ko aldean, ene gogamenari hel egina zaukotela, orhoitaldi horien moldean, baina ez lehenagoko sendipen bat baina iduri balios bat gordetzen zutenek, zerbaitez orhoitzeko egiten direnen molde bereko indar batzuen bidez horren agertzera entseatzen bainintzan, gure ideia ederrenak behin ere entzunak ukan gabe gutara itzul laitezkeen musikako aire batzu bezalakoak izan balire bezala, eta haien entzutera, izki-

ribatzera entseatuko ginenak. Atseginekin orhoitu nintzan, horrek orduan jadanik berdina nintzala erakusten zautalakotz eta ene jitearen berezitasun bat bazadukalakotz, trixteziarekin ere geroztik hobetua enintzala gogatzean, Combray-n jadanik behatzera bortxatua ninduen iduri zenbaiti ene izpirituairen aitzinean oharpenekin geldirik so nindagokola, hedoi bati, hirurkantoineko bati, ezkiladorre bati, lili bati, harri bati, seinale horien azpian bazela behar bada agerian ezartzera entseatu behar nuen osoki bertzelako zerbait, bakarrik gauza baztu itxuratzen dituztela uste lizatekeen hieroglifetako hizki-molde haien aran. Argira emaite hori dudarik gabe nekea zen, baina egia zenbait irakurtzera bazeman bakarra. Ezen adimenduak argi beteko munduan argalki zuzenean hartzen dituen egiek badute, biziak, guk ez nahi ukanik ere iduripen batean, gauzazkoan gutan sentsuetarik sartua denaz geroz, baina izpiritutik duena berexen ahal daukogunean, ezagun-araziak dauzkunek baino zerbait gutiago barnatua, gutiago beharrezkoa. Oro har, aldi batean bertzean bezala, izan dadin Martinville-ko ezkiladorren ikusteak emana zautana bezalako iduripen batzuez, ala bi mailen ezperdintasuna edo madalenaren gostua bezalako orhoitaldiez, indar egin behar zen sendipenen argitzeko bertze hainbertze lege 'ta ideia batzuen seinale bezala, gogatzera entseatzuz, erran nahi da ertilunbetik senditua nuenaren jalgi-araztera, izpirituko gauza berdina batera itzultzera. Bada, bakarra iduritzen zizatan bide hori, ederlan batez bertzerik zer zen? Eta horren ondorioak jadanik ene gogoan metatzen ari ziren; izan zaitela kulleraren harrabotsaren ala madalenaren gostuaren motako orhoitaldi batzu izan zaitela, ala haien erran-nahia neure gogoan - han, ezkiladorrez, basa-belarrez, gauza ezin argitu batzuen eta loreztatu bat baitzegiten - bilatzen nuen iduri batzuen bidez izkiriatu egiak, haien lehenbiziko berezitasuna enintzala heien hautatzeko libro baitzen, ziren bezala emanak zizaztala. Eta sendi nuen haien egiazkotasunaren marka hori izan behar zela. Han behaztopatua nuen korroilako bi lauza ezperdinen bila enintzan joana. Baina hain zuzen sendipena aurkiturik izana zen halabehar ustegabekoak, ezin hutseginak, berphizten zuen iraganaren, abia-arazten zituen idurien egia segurtazten zuen, argira buruz igaiteko haren indarra senditzen dugunaz geroz, eta gauzetako egia berraurkituko bozkarioa. Sendi den guziaren egiaztagarria da ere, egiak bere ondotik ekhartzen dituen aro

bereko iduripenez egina, orhoitzapena ala gogo argiz ohartzea beti jakingabea izanen diren argi eta itzal, goratze 'ta ixiltze, orhoitze 'ta ahazteko arau ezin hutseginarekin.

Seinale ez ezagunez egina den barneko liburuaz den bezainbatean (agerian ezarri seinalez, iduri zen, ene oharpenak, gogo-gordearen ikhertzean, bilatzen zituenak, joiten, ingurukatzen, zundatzen ari den pulumpari batek bezala), haien irakurtzeko nehork edozein moldez lagun ezipaindeakeen, irakurtze hori nehork hartan ordaintzen ez eta ere laguntzen ahal ezkituen kreaktzeko egintza bat zen. Zenbat diren beraz idaztetik baztertzen direnak! Horri ihes egiteko zenbat lan eztu nork bere gain hartzen! Gertakari bakoitzak, izan zadin Dreyfus afera, izan zadin gerla, idazler liburu horren ez argira emaitako bertze estakuru batzu emanak zezteen; nahi zuten Zuzenbidea segurtatu, erresumaren batasun morala berregin, literaturaz gogatzeko astirik etzuten. Baina horiek etziren estakuru batzu baizik, berek jeinurik etzutelakotz edo ez gehiago, erran nahi da asmurik. Ezen asmua du eginbidea manatzen eta adimenduak hari itzuri egiteko estakuruak emaiten. Bakarrik estakuruak eztira ederlandean sartzen, xedeak eztira khondutan hartzen: ordu oroz edergileak behar du bere asmua entzun, horrek egiten baitu egiazkoenik dena ederlanda dela, biziko eskola garratzena, egiazko azken Judizioa. Liburu hori, irakurtzeko guzietan nekagarriena, gauzetako egiak emana daukun bakarra da ere, gutan haren «iduripena» egia horrek berak egina duena. Biziak gutan utzi zein ere gogamenez ari izan dadin, haren itxura gauzazkoa, egina daukun iduripenaren hatza, haren baitezpadako egiaren bermea da ere. Adimendu hutsak moldatu ideiek arrazoin hutsezko egia bat, izan daitekeen egia bat baizik eztute, haien hautua nola nahikoa da. Hizki itxuratuekilako liburua, guk hautatu eztitugunekilakoa, gure liburu bakarra da; ez moldatzen ditugun ideia horiek arrazoinaz zuzenak ezin izan daitezkeelakotz, baina egiak direnez eztaigu. Iduripena bakarrik, haren gaiak hain ahula iduri badu ere, haren hatzak hain ezin hautemana, egiaren berex-pide bat da, eta horren gatik bakarra da gogoaz hartua izaitea merezi duena, bakarra baita, hortan den egiaren agerr-arazten baldin badaki, beteginzarre handiago batera eremaitako gai eta bozkario huts baten emaitako. Iduripena idazlearendako jakintsunarendako entseu egitea dena da, jakintsunarendako

adimenduren lana aitzinean dela eta idazlearendako gero heldu delako ezperdintasunarekin. Irakurtzeko beharrik ukan eztuguna, gure baitako indarraz argitzekorik, gu baino lehen argi zena, ezta gure baitan. Guhauren baitarik ezthor gutan den ilunetik hartzen duguna baizik eta bertzek ezagutzen ez-tutena.

Sartaldeko arrai zeharkatu batek ehoiz gogoan berriz ukana enuen aro bat berehala orhoitzen daut eta ene haurzaro ttipian, Léonie izabak sukar bat bazuelarik Percepied medikua tifoida izan zadin beldur izana baitzen, aste batez egon-arazia ninduten Eulaliak Elizako plaza aldera zuen gambara ttipian, han ezpaitzen lurlean espartzu bat eta leihoan perkalazko erridau bat baizik, beti hari ohitua enintzan iguzki batez burrumban. Eta sehi ohi baten gambara ttipi horren orhoitzapenak bapatez nola ene bizi iraganari hedamen luze bat gainerakotik hain ezperdina eta hain goxagarria emaiten zaukon ikustean, kontra-moldez gogoan ukan nuen ene bizian besta handienek hotel printzetarrenetan ekharria zuten iduripenetako ezteusa. Eulaliaren gambara hortan apur bat trixte zen gauza bakarra zen arratsean, bidazubiaren hurbilaren gatik, treinen uhuria entzuten zela. Baina marruma horiek mekanika erregelatu batzuetarik jalgitzen zirela bainakien, eninduten laztatzen, ixtorio aitzineko aro batean, bere ibiltze libro eta nahasian auzoko mamut baten orroek eginen ahal ninduten bezala.

Horrela ondorio huntara heldua nintzan jadanik: ederlanaren aitzinean ezki-rela batere libro, eztugula gure nahitara egiten, baina, gu baino lehenago hor baita, behar dugula, aldi berean baitezpadakoa delakotz eta gordea, eta naturako lege batentzat eginen ginuen bezala, aurkitu. Baina ederlanak egin-araz lezagukeen aurkintza hori, etzena, ororen buruan, baliosenik izan behar zizaikunetik dena, eta ohiki betikotz ez ezaguna gelditzen zaikuna, gure egiazko bizia, gauzetako egia senditua dugun bezala eta uste dugunetik hain bertzelakoa, nun halabehar batek egiazko orhoitzapena ekhartzen daukunean hain zorion handi batez beteak baigira? Hortaz segurtatu nintzan delako « art réaliste » haren falsutasunetik beretik eta hoin gezurrezkoa elizatekeenetik senditzen dugunari denetik hoin bertzelakoa den erran-molde baten emaiteko ohidura ezpainu bizian hartu, eta dembora zenbaiten buruan egia-berarendako hartzen duguna. Sendi nuen ordu batez durduzatua ninduten literaturako theoriez trabatua izaiterik enuela

ukanen, bereziki Dreyfus aferaren orduan kritikak hedatuak zituenez eta gerla demboran berriz hartuak, « bere bolizko dorretik idazlearen jalgi-ara- ztera » baitzeramaten, eta gai ez arinegiez ez sendimendukoez artzera, baina langileriako mugimendu handi batzuen erakustera, eta, jendalde faltaz, be- deren ez ere auher ezteus batzuen (« debaldeko horien erakustea aski orobat zata » zion Bloch-ek), baina adimendun ohoragarri batzuez, edo gizandiez. Bertzela ere, zuten eduki arrazoinezkoa eztabadatu ere baino lehen, idurit- zen zizatan theoria horien aldeko zirenen baitan azpikotasunezko lekukota- sun bat sala zezaketela, haur zinez ontsa ikasi batek, bazkariz haien etxera igorri duten jendeak « Oro aithortzen dugu, jende zintzoak gira » erraiten entzutean, horrek ongi-egin huts eta lañoaren azpikoa den kalitate moral bat salatzen duela senditzen duen bezala, ezer erran nahi eztuena. Ederlan egia- zkoak hoinbertze aithormenez eztu zer egin eta ixilean egiten da. Bertzela ere, theoria horietan ari zirenek erran-molde aitzinetik egin batzu bazera- biltzaten iraintzen zituzten zozo batzuenen bereziki idurikoak. Eta ezthetika motatik baino gehiago hizkuntzaren kalitatetik dateke izaitekotz adimen- duko eta moraleko lana eremana izana den heinaz jujatzen ahal. Eta jiteko legen ikhertzeko ere, gai serioz ala arin bat hartuz berdin ontsa egin daiteke, ebaki prestatzale batek anatomiako legeak zozo baten gorputzean ala antze handiko gizon batenean berdin ikher dezazkeen bezala, moraleko lege han- diak, odolaren ibiltzekoak ala giltxurrinetako hustekoak bezain ontsa, guti baitira jenden adimenduko balioaren arau aldatzen. Baina kontrako aldera theorialariak hortaz elika daitezkeela uste duten hizkuntzako kalitate hor- rek, theorialariak miresten dituztenek errexki uste dute eztuela adimenduko balio handi bat phorogatzen, balio horren hautemaiteko, zuzenean emana ikusi behar baitute eta ezpaitute iduri baten edertasunetik ondorioztatzen. Hortik dathor idazle batentzat adimenduko lan batzuen idazteko tentazione arrunta. Jendetasungabe handia hori. Theoriak badituen idazlan bat prezioa gainean uzten zakon gauza bat bezala da. Arrazoinkatzen da, erran nahi da han-hemenka ibiltzen, iduripen baten gelditzera, erran-moldera ekhartzera helduko diren molde guzietarik haren iragan-araztera nork bere buruaren bortxatzeko indarrik eztuen aldi oroz. Erran behar zen egia, hori gogoan orai nuen hartzen, etzagon gaiaren itxuran, baina itxura horrek han balio guti zuen barnatasun batean, azieta batean kulleraren harrabotsak, mahi

oihalaren gogordura amiruneztatu hark, ene izpirituko berritzearendako hainbertze solasaldi gizatiar, aberritiar, erresumarteko eta metafisikako baino baliosagoak izanak zizaztanek itxuratzen zuten bezala. « Estilorik ez gehiago, nuen orduan entzuna, literaturarik ez, bizia! » Goga daiteke Norpois-ko Jaunaren theoria xoilak berak « xirularien » kontra gerlaz geroztik zenbat ziren berloratuak. Ezen ederlaneko jiterik - erran nahi baita barneko egiaren meneko jartzerik - gabe diren guziak ederlanaz ikus ahala urrun arrazoinkatzeko ahalaz dohatuak izan daitezke. Gainera diplomatak ala dirulariak izan daiten ber, oraiko « gauzetan » barne sartuak, gogotik uste dute literatura izpirituko joko bat dela ethorkizunean gero eta gehiago ezeztatzeria ekharria. Batzuek nahi zuten elhaberria halako gauzen zerrenda zinema moldeko bat izan zadin. Gogamen hori zentzugabea zen. Ikusi dugunetik jeus ezta zinema moldeko ikuspegi hori baino urrunago.

Hain zuzen, liburutegi hortan sartzean, badaduzkan argitaldi lehen ederrez Goncourt anaiek diotenaz orhoitua bainintzan, hor hetsirik nindagolarik so eginen nauela hitzemanen nuen neure baitan. Eta ene arrazoinamendua jarraitzen nuen batean, liburu baliosak banazka hartu nituen, gehiegi behatu gabe gainera, noiz ere, ohar eman gabe bat idekitzen ari nuen orduan, George Sand-en François le Champi, ene oraiko gogoetekin sobera gaizki zoan iduripen zenbait bezala gozagaizki joa senditu bainintzan, iduripen hori haiekin zein ontsa zoan ezagutu nuen arteo, nigar egin-arazterano ninderaman bihotz-hunkidura batekin. Hil-gambaran ehortzetako langileak khutxaren jaustera prestatzen direlarik, eta aberriari zerbitzuak eman dituenaren semeak lerroan doazen azken adixkider eskua tinkatzen daularik, leihoen azpian bapatez fanfarra batek joiten baldin badu, haserretzen da, haren bihotzmina laidotzen duten trufa zenbait dela uste baitu; baina, hark ordurano bere buruaren jabe egona denak, eztezazke bere nigarrak atxik, entzuten duena haren doluari batzen den erreximendu baten musika dela hartu baitu eta haren aitaren gorputzari ohore bademakola. Horrela nuen ezagutu berria Guermantes-ko printzearen liburutegiko izenburu horren ikustean senditua nuen iduripen mingarria zein ontsa zoan oraiko ene gogoetekin; izenburu horrek emana baitzautan hartan gehiago aurkitzen enuen mixteriozko mundu hori literaturak zinez eskaintzen zaukulako ideia. Eta bizkitartean etzen liburu biziki ohi ez bezalakoa, François le Champi zen. Baina izen

hori, Guermantes-ko izena bezala, etzen enetako geroztik ezagutuak nituenak bezalakoa. Amak George Sand-en liburua irakurtzen zautalarik François le Champi-ren gaian ezin argigarria iduritua zizatan orhoitzapena, izenburu hortaz iratzarria zen (François le Champi-k baitzadukan elhaberriaren izantza, Guermantes-tarrak enituenean aspaldidanik ikusiak, Guermantes izenak enetako hainbertze feodalitate bazadukan bezain ontsa), eta ephe bateko ordainkatzen zuen George Sand-en Berry-aldeko elhaberriez den ideia biziki ohikoa. Auhari batean, gogamena beti azalean dagolarik, François le Champi-z eta Guermantes-tarrez mintzatuko ahal nintzatekeen bata ez bertzeak ez Combray-ko hek izanik ere. Baina bakartik nintzanean, ordu hartan bezala, barnatasun handiago batean nintzan sartua. Orduan, munduan ezagutza egina nuen holako jendea Guermantes-ko Anderearen gusia zelako ideia, erran nahi da mirazko lanterna bateko jende batena, ezin aditua iduritzen zizatan, eta molde ber-berean, irakurriak nituen liburu ederrenak François le Champi miragarri haren berdinak zirela - eztut ere erraiten goragoak, hala zirelarik alta. Iduripen ontsa zahar bat zen, haurzaroko eta familiako orhoitzapenak hartan xamurki nahasiak ziren eta enituen berehala ezagutuak. Lehenbizian haserrerekin egona nintzan min egitera heldu zizatan arrotza nor zen nihuri galdez. Nitán liburuak sorrarazi berria zuen arrotz hori, ni-haur nintzan, orduan nintzan haurra zen, zeren, haur hura baizik ezagutzen etzuen nitarik, liburuak haur hura zuen berehala deitua, haren begiez baizik ikusia nahi ez izanez, haren bihotzaz baizik ez maiatatua, eta hari baizik ez mintzatu. Beraz Combray-n, goratik, abantzu goizerano amak irakurria zautan liburu horrek, gau hartako xoramen guzia atxikia zuen enetako. Eiki, George Sand-en « luma », Brichtot-en erran-molde bat hartuz, liburu bat « luma erne » batez idatzia zela erraitea hain baitzuen maite, etzizatan batere, hain luzaz amari iduritua zizakon bezala literaturako bere gostuak enetara emeki moldatu baino lehen, mirazko luma bat iduritzen. Baina nahi ukan gabe eletrikatua nuen luma bat zen, eskolierrak egiten ainitzetan jostatzen diren bezala, eta horra nun Combray-ko mila ezteusek, aspaldidanik hautemaiten enituenek, berainik arinki jauzi egiten zuten, eta lerro-lerro moko erakharr-arazlean dilindan jartzera jiten ziren, orhoitzapenetako gatina ezin bururatu eta daldarari batean.

Mixerioa maite duten izpiritu batzuek nahi dute gauzek so egina

zaueten begietarik zerbait badatxikatela sinetsi, eraikuntzak eta margazkiak etzaizkula agertzen, hainbertze adoratzalen amodioak eta behamenak, mende 'ta mendetan, ehoa dauen oihal sendimenduzkoaren azpian baizik. Amets hori egia bilaka laiteke bakoitzarendako egia bakarra den eremura aldatzen baldin balute, nork bere sendikortasuneko eremura. Bai, erran-nahi hortan, eta hortan bakarrik (baina ontsa zabalagoa da), lehenago so egina daukogun gauza batek, berriz ikusten badugu, ekhartzen dauzku, hartan ezarria dugun soarekin, orduan betetzen zuten iduri guziak. Hori da gauzak - bertzeak bezala liburu bat bere estalgi gorriaren azpian -, gutaz hautemana diren orduko, gutan materiari gabeko zerbait bilakatzen direlaketz, aro hartako gure arrangura edo sendipenen gai bereko zerbait, eta ezin berexizko moldez elgarrekin nahasten. Behin liburu batean irakurri holako izenak, badaduzka bere silaben artean irakurtzen ginuenean ari ziren haize lasterra eta iguzki dirdiratu. Hala nola nun « gauzen erakustea », bakarrik haien marra eta azaletako izari miseriazkoaren emaita aski duen literatura, hura da, bera « errealixta » deitzen den batean, gauzen egiatik urrunena dena, gehienik behartu bilakatzen eta trixtatzen gituena, gauzek haren izaite hutsa bazadukaten iraganaren eta gure oraiko nortasunaren arteko bide oro moztzen baitu, eta hartan berriz izaite haren jastatzera gomitatzen gituzten ethorkizunarekilakoa. Egia hori du edergintza izena merezi duenak sendi-arazi behar, eta, hortan huts egiten badu, haren ahalgabetik erakaspen bat athera daiteke oraino (« errealixmoaren » ongi heltzetarik bat ere egiten eztelarik), erran nahi da izantza hori zatiz bakoitzak berea duela eta ezin jakin-arazia.

Gehiago oraino, ordu batez ikusi ginuen gauza, irakurri ginuen liburua eztira betikotz gure inguruan zenari batuak gelditzen; leialki hala gelditzen zako ere guhaur orduan ginenari, eztaiteke berriz gure sendikortasunaz baizik gogatua izan, orduan ginen jende hartaz. Liburutegian François le Champi berriz hartzen baldin badut, bakarrik gogamenaz, berehala nitan jeikitzen da ene lekua hartzen duen haur bat, François le Champi izenburu horren irakurtzeko zuzenbidea baduen bakarra dena, eta orduan irakurri zuen bezala irakurtzen duena, baratzean ari zen aroaren iduripen berarekin, orduan herriez eta biziaz moldatzen zituen amets berekin, biharamunaren antsia berarekin. Bertze aro bateko gauza bat berriz ikus dezatala, mutiko gazte bat da orduan jeikiko. Eta orai nizana ezta utzia den harroki bat baizik,

badadukan guzia beti berdina dela uste duena, baina handik orhoitzapen bakoitzak, Greziako zizelkatzale batek bezala, ezin zenbatuzko gizaiduriak atheratzen dituen. Berrikusten dugun gauza bakoitzak, diot, hortan liburuek gauza horiek bezala egiten baitute: haien bizkarra zabaltzen zen arak, paperraren pikorrak bere baitan atxikia ahal dute Venezia asmatzen nuen moldeaz eta hara joateko nuen gutizia biziaz, liburuetako erranaldiek berek bezain orhoitzapen bizia. Biziagoa ere, hauek batzuetan jenatzen baitute, jende baten argazkiek bezala hauen aitzinean ezpaigira gogoan dugunean bezain ontsa hartaz orhoitzen. Eiki, ene haurzaroko liburu ainitzendako, eta, ondikotz, Bergotte-ren beraren liburu batzuendako, akhidurazko arrats batzetz haien hartzea gertatzen zatanean, ezta bizkitartean trein bat hartua ukanen nuen bezala gauza bertzelako batzu ikusiz eta lehengo aireaz hats hartuz atsedean hartzeko itxaropenean. Baina gertatzen da bilatu den gogoratze hori aldiz liburuaren irakurtze luzatuaz trabatua izaiten dela. Bada Bergotte-ren bat (printzearen liburutegian lausengueria eta gezatasun ezin gehiagokoekilako eskaintza bat bazadukana), Gilberte ezin ikus nezakeen negu egun batzetz behin irakurria, eta hartan hain maite nituen erranaldien berraurkitzera hel enindaitekeena. Hitz batzuek hek direla sinets-araz lezatakete, baina ezin da. Aurkitzen nauen edertasuna nun lizateke bada? Baina liburutik beretik irakurri nuen egunean estaltzen zuen elhurra ezta ekhendua izan, badakusat beti.

Eta hortako da, Guermantes-ko printzea zen bezala, liburu maitale izaiteaz gutiziatua izan banintz, enintzala molde berezi batean baizik hala izanen, gutietsi gabe ez alta liburu baten balio berezitik baina maitalendako iragan den liburutegien ezagutzetik heldu den edertasun hori, holako gertakarian, holako errege batek holako gizon aiphatuari emana izan zela jakitetik, bere bizian zehar salpenez salpen hari jarraikia izaitetik; liburu baten edertasun hori, zerbait moldez ixtoriokoa, elizateke galdua enetako. Baina nihauren biziko ixtoriotik, erran nahi da ez ikusle xoil bezala, nezake hori gogotikago agerr-araz; eta enezoke ainitzetan gauzari berari eratxik, baina liburu izaiteari, hala nola lehen aldikotz Combray-ko ene gambaran behatu François le Champi hari, behar bada ene biziko gau eztieta eta trixtena izana zen hartan (Guermantes-tar mizteriozkoak ontsa ezin helduak iduritzen zizaztan aro batean), ondikotz, ene aitamen ganik lehenbiziko amor emaitea

ukana bainuen, eta handik has-araz bainezazkeen ene osagarriaren eta borndatearen beherapena, lan neke bati lotzearen uzte egun bakoitz larritua - eta gaurregun hain zuzen Guermantes-tarren liburutegian berredirena, den eguraldi ederrenean eta huntaz ez bakarrik ene gogameneko haztamu zaharrak, baina ene biziko helburua bera eta beharbada ederlana bapatez argitzen zirenean. Liburuez berez, hetaz axolatzeko gai izanen nintzan, bertzela ere, erran-nahi bizidun batean. Lehen argitaldiko liburu bat bertzeak baino baliotsago izanen zizatan, baina hortarik entzunen nuena lehenbiziko aldian irakurri nuena zen. Lehen argitaldien bila ibiliko nintzan, erran nahi dut liburu hortaz iduripen berezi bat ukan nuenen. Ezen ondoko iduripenak ez tira bereziak. Elhaberrietako bilduko nituen jostura zaharrak, lehenbiziko elhaberriak irakurri nituen arokoak eta aita hainbat aldiz « Ago zut » eni erraiten entzuten zutenak. Lehen aldian emazte bat harekin ikusi ginuen zaiak bezala, orduan nuen maitasunaren berredireiten lagunduko ninduten, haren gainean hainbertze iduri gero eta gutiago maitatu ezarri dutan edertasunaren, lehenbizikoa berriz aurkitu ahal ukaiteko, ni hura ikusi dutan nia enizana eta orduko niari lekua utzi behar daukotana, ezagutu zuen gauzari hel egiten baldin badauko eta orai nizan niak ezagutzen ez-tuenari.

Horrela moldatuko nuen liburutegia balio oraino handiagokoa izanen zen ere; zeren, behin Combray-n, Venezian irakurri nituen liburuak, San-Hilario eliza, zafir dirdiratzuek emokatu Hodi-Handian Sant-Iurge-Nagusaren elizako oinean estekatu gondola itxuratzen zituzten hizki margazkitu zabalekin orai ene orhoitzak aberastuak, « iduriekilako liburu » haien heinekoak bilakatuko ziren, bibla itxurez aphaindu, othoitz-liburu, haien maitaleak irakurtzeko nehoiz idekitzen eztituenak, baina Foucquet-en lehia-kide zenbaitek eman dezteen eta haien balio guzia badagiten margoez aldi bat gehiago xoratzeko. Eta bizkitartean, behin irakurri liburu haien idekitzea orduan aphaintzen etzituzten idurier so egiteko baizik ezipalitz ere, hain lanjeros idurituko zizatan oraino, nun, erran-nahi hortan ere, gogoan har ahal dezaketan bakarra, enindaike liburu-maitale izaiteaz gutiziatua izan. Sobera badakit izpirituak utzi iduri horiek zein errex diren izpirituaz ezabatuak. Lehenagokoak berphizteko indar bera gehiago eztuten berri batzuez ordainkatzen ditu. Eta ene bestako amaxik eman behar zautan liburu pake-

tatik arrats batez amak athera zuen François le Champi oraino baldin banu, nehoiz enezoke so egin; emeki emeki hartan gaurregungo ene iduripenen sartzeaz beldurregi nintzateke, hainbaterano oraiko gauza bat bilakatzen haren ikusteaz eta, Combray-ko gambara ttipian haren izenburua irakurri zuen haurraren berriz ere sorraraztea galdeginen naukonean, haurrak, bere doinua ez ezagutuz, haren deiari etzezon ihardets eta behin betikotz ahazpenean ehortzia.

Edergintza jendetar baten ideia, aberritiar batena bezala, ezpaliz ere lanjerosa izan, irrieginarri iduritzen zizatan. Moldeko xorroxtasunak - « auher batzuendako onak » - bazterrera utziz, jendeari helgarri egiteaz ari baziren, munduko jendekin aski ibilia nintzan egiazko ikastegabeak hek direla jakiteko, eta ez langile eletrikariak. Alde hortarik, moldez edergintza jendetar bat Jockey-ko lagunendako egina lizateke CGT-koendako baino lehen; gaiez den bezainbatean, elhaberri jendetarrek irakurle jendetarrak aspertzen dituzte, haurrak haiendako idatziak diren liburuek bezainbat. Irakurtzean lekuz aldatzea bilatzen da, eta langileak printzez jakin nahiak dira printzeak langilez bezainbat. Gerla hasi orduko Barrès Jaunak errana zuen edergileak (hortan Tizianok) behar duela oro baino lehen bere aberriko ospea zerbitzatu. Baina edergile geldituz baizik eztezake zerbitza, erran nahia da, lege horiek ikhertzen, entseu horiek jartzen eta jakitatekoak bezain xorrotxak diren aurkintza horiek egiten dituen orduan, aitzinean duen egiaz bertzerik - aberriaz baliz ere - ez gogoan ukaitekotan. Eztezagun iraultzalariek bezala egin, « herrikoitasunez » gutiesten baitzituzten, suntzitzen ezpaldin bazituzten, Watteau eta La Tour-en lanak, Iraultzako guziek baino gehiago Frantzia ohoratzen duten margolariak. Anatomia ezta behar bada bihotz xamur batek hauta lezakeena, hautua ukaiten baldin baliz. Choderlos de Laclos-i eztauzko bere bihotz bertutedunaren oneziak, ontsa handia baitzen, Les Liaisons dangereuses idatz-arazi, ez eta Flaubert-i burjesia ttiti eta handiarendako zuen gostuak Madame Bovary edo L'Education sentimentale-ren gaiak hauta-arazi. Batzuek badiote lasterrezko aro bateko edergintza labur lizatekeela, gerla aitzinean hori laburra izanen zela iragartzen zutenek bezala. Burdinbideak behar zuen horrela behamena hil, karrosa handien aroaz urrikitzea debalde

zen, baina beribilak haien ofizioa egiten du eta turixtak baderamatza berriz eliza utzietara.

Biziak eskaini iduri batek ekhartzen zauzkigun egiazki, ordua hartan, sendipen ezperdin ainitz. Irakurri den liburu baten estalgiaren ikusteak, behazunez, haren izenburuko hizki moldetan josi ditu udako gau urrun bateko ilargi arraiak. Goizeko kafesnearen gostuak ekhartzen dauku, hain usu lehenago, esne gogortua iduri zuen porzelana xuri, krematsu eta ixurkatuzko gatilu batean edaten ginuen batean, eguna oraino garbi zenean eta betea, egun hasteko duda argian irriño egiten hasi zizaikun eguraldi bateko itxaropen nahasi hura. Oren bat ezta oren bat, untzi bat da usainez, soinu, xedez eta aro-motaz betea. Errealitatea deritzoguna aldi berean inguratzen gituzten sendipen eta orhoitzapen horien arteko arau berezi bat da - hartan mugatu nahi duen egiatik are gehiago urruntzen duen zinema moldeko ikuspen xoil batek ekhentzen duen araua - betikotz bere erranaldian berdintasunik gabeko bi hitzen elgarri lotzeko idazleak berriz aurkitu behar duen arau bakarra. Erakuspen batean ethengabe elgarri jarraik-araz daitezke erakutsi lekuan ageri ziren gauzak, egia ezta hasiko idazleak bi gauza ezperdin hartuko dituen orduan baizik, haien arteko araua jarriko duenean, jakitaterako munduan arrazoineko legea den arau bakarraren berdina baita edergintzako munduan, eta idatzara eder baten erhaztun beharrezkoetan hetsiko ditue-nean; eta ere, biziak bezala, berezitasun ber bat duten bi sendipen elgarretara hurbilduz, aroko gertakizunetarik haien baztertzeako elgarrekin duten izantza agerr-araziko duenean bata bertzearekin batuz, hitzordain batean. Naturak berak eninduen, ikuspegi hortan, edergintzako bidean ezarria, bera etzena edergintzako hastapen bat, eninduelarik, ainitzetan, gauza baten edertasunaren ezagutzero bertze batean baizik utzia, Combray-ko eguerdi hango ezkilen hotsean, Doncières-ko goizaldiak gure berogailuko uraren zotinetan? Lotura hori guti ohargarria izan daiteke, gauzak bierartekoak, idatzara gaitza, baina hori izana ezteno, jeusik ezta.

Baina gehiago bazen. Gauzetako egia ezagutu denaren ondarkin mota hori baldin bazen, bakoitzarendako berdintsua, « ekaitz bat, gerla bat, karrosa geldileku bat, ostatu bat argitan, baratze loratu bat » diogunean, mundu guziak badakielakotz zer dugun erran nahi; hori baldin bazen gauze-

tako egia, gauza horien filma bezalako zerbait aski lizateke dudarik gabe eta horien « idatzara », horietaz xoilki emana denetik bazterrera egin lezakeen « literatura », arte-gai artifizial bat. Baina hori zena bada, gauzetako egia? Gauza batek bihotz-hunkidura berezi bat emaiten daukun orduan gertatzen denaz ohartzera entseatzen baldin banintzan alabaina, ala, Vivonne-ko zubiaren iragaitean, hedoi baten itzalak bozkarioz jauzi eginez « Zer bada! » oi-huka-arazia zautan bezala, ala, Bergotte-ren erranaldi baten entzutean, neure baitan senditua nuena guzia bereziki hari egoki etzakon hau izan zelarik: « Miragarri da! », ala, egintza gaixto batez sumindua, Bloch-ek gertaldi hoin arruntarekin batere egoki etziren hitz hauk erran zituelarik: « Horrela egin dadin, hala ere, mmirazkoa aurkitzen dut », ala noiz ere, Guermantes-tarren etxean onhartua izaiteaz lausengatua, eta bertzela ere haien arnoez doi bat moxkortua, haien uztean, erdi-ahapeka, bakarrik, « hala ere haiekin biziaren iragaitea goxo lizatekeen jende hauteko batzu dira » erraitetik enindagokeelarik, ohartzen nintzan baitezpadako liburu hura, egiazko liburu bakarra, idazle handi batek, erran-nahi ohikoan, haren asmatze beharrik eztuela, gutarik bakoitzaren baitan bizi denaz geroz, baina behar duela adi-arazi. Idazle baten eginbidea eta lana, itzultzale batenak dira.

Bada, nork bere aldera duen amodioak derabilan elhe zuzentasan gabeaz ari denean behazunez, gogo barneko solas zehartuaren zuzentzea (lehenbiziko iduripenetik gero eta gehiago urrunduz baitoa) hartarik abiatu behar ukanen zuen marrarekin bat egin dezan arteo, zuzentze hori gure auhertasunak muttur egiten daukon gauza nekea baldin bada, bertze aldi batzu badira, maitasunaz ari den hura behazunez, zuzentze hori bera hetan mingarri bilakatzen denak. Gure axolagabe alegiazko guziak, gezur hain natural, guhaurek egiten ditugunen hain berdin horien kontrako gure sumindura guzia, zorigaitzean edo trahituak ginen aldi bakoitz, ez bakarrik maiteari, baina ere, haren ikusteko igurikan guhauri, batzuetan goraki, erraitetik gelditu ezkiren guzia, « Ez, zinez, horrelako egitateak ezin jasanak dira », eta « Azken aldi batez onhartu nahi ukan haut eta horrek penatzen ninala eztinat ukhatuko » batzuek uhertzen zuten gure gambarako ixilean, horren guziaren ekhartzzea hartarik hainbat baztertua zen egia senditua, baitezpa-

dakoena zizaikun guziaren ezteustea da, guhaurekin butuz-buru, eskutitz eta urhats batzuen egiteko xede sukartsu batzuetan, guhaurekilako solas gartsua egina duenaren suntsitzea.

Edergintzako bozkarioetan ere, badematen sendipenaren ukaiteko bilatzen direnetan, ahal bezain laster akomeatzen gira hain zuzen sendipen hura bera denaren baztertzeko ezin errangarri bezala, eta hura ondorano eza-gutu gabe bademan atseginaren senditzera uzten gituenari lotzeko eta haiekin solastatuko ahal den bertze maitatzale batzuer sendi-arazten dela uste ukaiteko, haien eta guretako bera den gauza batez mintzatuko gatzazkeelakotz, guhauren iduripeneko erro berezia ezabatua izanez. Naturaren, gizartearen, maitasunaren, eta edergintzaren ikusle abantailnahi gabekoenak giren orduetan ere, iduripen oro bikuna baita, gauzaz erdi inguratua, guhaurek bakarrik ezagun ginezakeen bertze erdi batean gure baitan hedatua, hortaz ez axolatzeraz lehiatzen gira, erran nahi da hari lotu behar ginaukokeen gauza bakarraz, eta ezkira bertze erdiaz baizik axolatzen ezpaitauku, gutarik kampo delakotz ezin barnatua izanez, akhidurarik batere emanen: elhorri xuri edo eliza baten ikusteak gure baitan zilatua duen ildo ttipiaren hautemaiteko indar egitea zailegi iduritzen zaiku. Baina sinfonia berriz joiten dugu, elizara itzultzen gira - hari so egiteko kuraiarik eztugun guhauren bizitik urrun ihes egite hortan, eta jakitatea deitzen denean -, musika edo arkeologia maitale jakintsunenak bezain ontsa, molde berean ezagun ditzagun arteo. Zenbat dira beraz hortan gelditzen direnak bere iduripenetik ezer athera gabe, debalderik eta askietsiak izan gabe zahartzen direnak, Edergintzako donado batzu bezala! Badituzte neskasoen eta auherren gríñak, emankortasunak eta lanak senda lezazketenak. Ederlanez egiazko erdergileak baino gogo-berotuagok dira, ezen, haien gogo-berotzea barnatzeko lan gogor baten gaia ez izanez, kampa hedatzen da, haien solasak suhartzen ditu, begitarte gorribizitzen; maite duten lan bat eman denean mintzo hausterano « Biba, biba » oi-hukatuz egintza bat bagaditela uste dute. Baina egintza horiek eztituzte bere amodioaren natura zer den argitzera bortxatzen, eztute ezagutzen. Bizkitartean hori, debalde utzia, haien solasaldi lañoenatarano sartzen da, ederlanaz mintzo direnean jestu handi, ihakin, buru-higitze batzu egin-arazten deztee: « Izan niz (laurkun) bat joiten zen musikaldi batean. Eninduela loriatzen aithortuko dautzut. Laurkuna hasten dute. Ha! baina, brientxo! ezta berdin

(ordu hartan maitalearen aurpegiak khexu antsiadun bat erakusten du: « Baina phindarrak ikusten ditut, errezipil usaina bada, sua! » gogatzten balu bezala). Jainkoaren ortzia, hor entzuten dutana sumingarri da, gaizki izkiriatur, baina baldigarri, ezta nor nahiren lana. » Nahiz, diren bezain irriegingarri izanik ere, eztiren osoki gutiesteko. Edergilea moldatu nahi duen naturaren lehenbiziko entseuak dira, oraiko moten aitzinean izan ziren eta irauteko eginak etziren ihizi hek bezain guti egoiteko gai. Maitale nahi-ahuleko eta antzu horiek hunki behar gituzte lurra utzi ahal etzuten lehenbiziko airekoek bezala, hetan baitzen, ez oraino airatzeko bide gorde 'ta aurkitzeko gelditzen zena, baina gutizia. « He, gaizoa, gaineratzen du maitaleak zu besotik hartuz, nik entzuten dutan zortzigarren aldia da, eta eztela azkena zin egiten dautzut. » Eta, alabaina, edergintzan zinez hazkurri dena ezpaitute beretzen, nehoiz ere asetzen eztituen janiza batez hartuak, badute beti edergintzako bozkarioen beharra. Badoaz beraz jarraikian gauza beraren luzaz esku-zartatzera, gainera haien han izaitea eginbide bat, egingta bat dela ustez, bertze jende batzuek administraziooneko konseilu batean, ehorzte batean izaitea bezala.

Gero lan bertzelako eta kontra-moldeko batzu ere jiten dira, izan dadin literaturan, margoralitzan ala musikan. Ezen ideia batzuen, sistima batzuen emaitako antzea, eta oroz gainetik bakoitzak haien beretzeko duena, egiazko gostua baino biziki usuagoa izana da beti, baina hedamen gotorrago bat hartzen du agerkariak, literaturako berrikariak gehitu direnaz geroztik (eta hauekin idazle 'ta edergile izaiteko dei ez egiazkoak). Beraz gazteriako zati hoberenak, adimendunenak, abantail-nahi gutienekoak, etzituen gehiago maite moralean, gizarte-jakintzan, erlisionean ere helburu gora batekilako lanak baizik. Uste zuen ederlan bateko egiaren berexpidea hor zela, David, Chenavard, Brunetière eta bertzeren hutsa horrela berrituz. Bergotte-ri, haren erranaldi pollitek bere baitara sartze ontsa barnatuagoa bat baitezpada galdegina zutelarik egiazki, barnatuagoak iduri ziren idazle batzu hautesten zizazkon, xoilki gutiago ontsa idazten zutelakotz. Haren idatzararen batzuntasuna etzen munduko jendendako baizik egina, zioten munduko jender ohore ez merezitu bat horrela egiten zaueten demokrata batzuek. Baina adimendu arrazoinak ederlan jukatzen hasi nahi duen orduko, jarria denik, segur denik ezer ezta gehiago: nahi den guzia erakuts daiteke. Antzearen izaite

egiazkoa ongi bat delarik, mundu osoak eskuratu duena, haren hor izaitea gogameneko edo idatzarako modu agerietan ikusi behar dena oroz gainetik, azken hauetan da kritika gelditzen idazlen estimatzeko. Profeta konsekratzen du bere doinu ezin ihardukiaren gatik, aitzineko idazletaldearendako duen erdeinu ageriaren gatik, mezu berririk batere ekhartzen ez-tuen idazle bat. Kritikaren betiko arrazoi-gabekeria hori halakoa da nun idazle batek jende guziaz jujatua izaitea behar bailuke abantzu hautetsi (hori ez-paliz ez-agutzen ez-tituen bilaketa mota batean edergile batek entseatu duenaz ohartzeko ere ahalik gabe). Ezen jendearen asmuzko biziaren eta idazle handi baten antzearen artean (hau ez-paita gainerateko guziari manatua zakon ixilaren erdian erlisione-ko bildutasun batean entzun den asmu bat baizik, asmu betegindu eta aditu bat), bada juje ofizialen arau aldakorrarekin eta hitzeria azalekoarekin baino berdintasun gehiago. Haien elhasturia hamar urtetarik hamarera berritzen da (ezen margotaldea ezta bakarrik multzo mundutarrez egina, baina gizarteko, politikako, erlisione-ko ideiez, ephe bateko zabaldua bat hartzen baitute meta hedatu batzuetan zeharkatze-ari esker, baina hori izanik ere haien berritasunak phoroguetan izpiritu guti zorrotz batzu baizik bildu ahal ez-tituen ideien bizi laburrera mugatuak gelditzen baitira). Alderdiak eta eskolak horrela ziren batzu bertzer jarraikiak, hetan beti izpiritu berak hartzera uzten zirelarik, adimenduz bierarteko gizonak, izpiritu arranguratuago eta phoroguetako behakorrangoak hetarik elikatzen diren gostuetara beti emanak. Zorigaitzez, bertzeak izpiritu-erdi batzu baizik ez-tirelaketz hain zuzen, egintzan bere buruaren osatzeko beharrean dira, horrela izpiritu goragoek baino gehiago badagite, jendea beregana ekharr-arazten dute eta bere inguruan egiten dituzte ez bakarrik omen handiegi-ituak eta erdeinu zuzen-kontrakoak, baina gerla zibilak eta atzerriekilakoak, nork bere aldera Port-Royal-en arako kritika apur batek hetarik begiratu behar lukeelarik.

Eta izpiritu beteki zuzen bati, bihotz zinez bizidun bati, nagusi baten gogamen ederrak bademakon atseginaz den bezainbatean, osoki sanoa da dudarik gabe, baina zinez jastatzen duten gizonak diren bezain baliosak izanik ere (hogei urtez zenbat da?), bertze norbaiten konzienzia osoa baizik ez izaite-ari ttipitzen ditu hala ere. Gizon batek oro egina ukan baldin badu dohakabe baizik bilakatuko ahal ukanen etzuen emazte baten maitatzeko,

baina, urtez eta urtez indar bikundu guziak egin arren, emazte horren ganik hitzartze baten ukaitera ere ezpaldin bada heldu, bere bihotzminen eta itzuri den lanjerraren erraitea bilatu orde, « miliun bat hitz » eta bere biziko orhoitzapen hunkigarrienak hartan ezarriz ethengabe irakurtzen du La Bruyère-ren gogoeta: « Ainitzetan gizonek maitatu nahi dute eta elakite hortara heltzen, bere galpena bilatzen dute aurkitu ahal ukan gabe, eta, horrela erraitera ausart banadi, libre gelditzeraz bortxatuak dira. » Idatzi zuenarendako gogoeta horrek erran-nahi hori ukana dezan ala ez (ukan zezantzat, eta ederrago lizateke, « maitatu »-ren orde « maitatuak izan » behar luke), segur da haren baitan leteradun sendipera horrek bizi-arazten duela, leherr-arazterano erran-nahiz hantzen, eztezake bozkarioz gaindituz baizik errepika, hain du zuzen eta eder aurkitzen, baina hala ere eztauko jeus gehiago eman, eta La Bruyère-ren gogoeta da bakarrik gelditzen.

Oharpenez egin literaturak nolaz lezake edozein balio ukan, hartzen dituen gauza ttipiak bezalako batzuen itxura-pean denaz geroz edukia gauzetako egia (handitasuna aireko baten harrabots urrunean, San-Hilario-ko ezkiladorrearen orrazean, iragana madalena baten zaporean, eta bertze) eta ezpada hetarik jalgi-arazten berenaz erran-nahirik gabe direnaz geroz? Apurka, orhoitak begiraturik, egiazki senditu dugunetik ezer gelditzen ezten erran-molde zuzentasun gabeko horien guzien gatinak dauzku egiten gure gogamena, bizia, egia, eta gezur horrek elezake ederlan diotenaz « bizitu », bizia bezain laño, edertasunik gabeko baten itxuratzea baizik egin, gure begiek badakusaten eta gure adimenduak hartzen duenaren erabiltze bikuna eta hain debaldekoa nun hortan ari denak bozkariozko phindar eragilea, haren abia-arazteko eta bere lanean aitzina-arazteko ahala duena nun aurkitzen duen jakiteko galdez baigaude. Egiazko ederlanaren handitasuna, aldiz, Norpois-ko Jaunak « maitale arin » baten jokoa deituko zuenarena, hartarik bizi giren gauzetako egia berredireitea zen, berriz eskuratzea, guhauri ezagun-araztea, hartarik gero eta gehiago urruntzen girelarik haren orde ezartzen dugun ezagutza ohidurazkoa loditzen eta gogortzen den arau, ezagutua ukan gabe hiltzeko irrisku handitan izanen ginen egia hura, eta xoilki gure bizia dena. Bizi egiazkoa, bizi azkenean ediren eta argitua, beraz egiazki bizitu den bizi bakarra, literatura da; ordu bakoitz, erran-nahi batean, gizon guzien bai-

tan edergilearen baitan bezainbat baden bizia. Baina eztute ikusten, haren argitzea eztutelakotz bilatzen. Eta horrela haien iragana, adimenduak « hedatu » eztituelakotz, debaldekoak gelditzen diren klixe ezin zenbagarriez bete da. Gure bizia, eta bertzerena ere; ezen idazlearendo idatzara, margolariarendako margoa bezala, ezta lan-moldezko gauza bat baina ikuspenezkoa. Mundua agertzen zaikun moldean diren balio ezperdinen argiratzea da, bide zuzen eta ohartu batzuez ezina lizatekeena, ezperdintasun hori, edergintzarik ezpaliz, bakoitzaren betiereko segetetua gelditi bailizateke. Ederlanaz bakarrik gaitzke guhauren ganik jalgi, gurea bera ezten mundu hotarik eta hortako eskualdeak ilargian izaiten ahal direnak bezain ez ezagunak geldituko zizazkunetik bertze batek badakusana jakin dezakegu. Ederlanari esker, mundu bakar bat ikusi orde, guhaurena, ainizten ikusten dugu, eta, zeinbat ere edergile berezi baden, hainbertze mundu badugu gure eskuan, mugagagean itzulika dabilzan munduak baino batzu bertzetarik ezperdinagoak eta, handik sortzen zen sua, Rembrandt ala Ver Meer izenda zadin, mendeak eta mendeak iraganik iraungia izan den ondoan, bere arrai berezia igortzen daukute oraino.

Edergilearen lan hori, gaiaren azpian, phorogatu denaren azpian, hitzen azpian bertzelako zerbaiten ikustea, minuta oroz, guhauren baitarik itzuri eginik bizi girenean, gure alderako amodioak, jaidurak, adimenduak eta ohidurak gutan badagiten lanaren kontra-moldekoa da, gure egiazko iduripenen gainean, guri hauen osoki gordetzeko, izendegiak metatzen dituztenean, zuzengaizki bizia deitzen ditugun helburu baliagarriak. Orogen buruan, ederlan hoin batzuz hori da hain zuzen ederlan bizidun bakarra. Bakarrik du bertzerendako gure bizia erraiten eta guhauri ere ikus-arazten, «ohartzen» ahal etzakokeen bizi hori, ohartzen zazkon itxurek adi-araziak izan behar baitute, gibelera itzuliz usu irakurriak eta nekerekin argira emanak. Guhauren alderako amodioak, gure jaidura biziak, gure gogo imitatzaileak, gure adimendu hutsak, gure ohidurek eginga zuten lan hori, hori bera du erderlanak barreatuko, kontralderako urhatsa, egiazki izana dena gutaz ezagutua izan gabe han datzan barnetara itzultzea dauku egin-araziko. Eta egiazko biziaren berregitea, iduripenen gatzetzea tentazione handi bat zen dudarik gabe. Baina hortako behar zen mota orotako kuraia, eta sendimenduzkoa ere. Ezen oro baino lehen nork bere lilluramendu maitatuenean haus-

tea zen, nor berak landua duenaren egiatasunean sinestetik gelditzea, eta, ehungarren aldian « Anderea ontsa gixakoa zen » hitzez bere burua leriatsu orde, zeharka « Haren aphabetean atsegin nuen » irakurtzea. Eiki, maitsunezko oren horietan senditua nuena, gizon guziek senditzen dute ere. Senditzen da, baina senditu dena argi baten ondoan ezarri eztireno beltza baizik erakusten eztuten argazki batzuen berdina da, hek ere ginperrez ikusi behar baitira: zer den eztakigu, adimendura hurbildua eztuguno. Orduan bakarrik, argitua duenean, adimenduratua duenean, berexten da, eta zenbat nekerekin, senditua denaren itxura.

Baina ohartzen nintzan ere bihotzmin hori, lehenik Gilberte-rekin ezagutua nuena, gure amodioa eztela eman-arazten duen jendearen eskuan, salbagarri dela, gaineragarriki ararteko bezala (ezen, gure biziak hain guti iraun behar badu ere, oinazkatuak girenen baizik eztute gure gogoetek, zer-bait moldez mugimendu jarraiki eta aldakorrez inharrosirik, lege batzuez arautua den mugagabe hori guzia, galerna batean bezala, handik ikusten ahal eztugun hein baterano igan-arazten, hortara, leiho gaizki jarri batean emanik, ikuspenik ezpaitugu, ezen zorioneko geldiak berdinean uzten du eta heinez beheregi; izan daiteke mugimendu hori jeinu handi batzuendako bakarrik beti badela, haientzat oinazearen nahasmenduen beharrik izan gabe; nahiz ezten segur, haien bozkariozko lanen hedamen zabal arautuari beha gaudenean, ezki-rela gehiegi ekharriak laneko bozkariotik bizikoaz aieru egitera, hau behar bada aldiz beti mingarria izana baita) - baina gehienik, gure maitasuna ezpaldin bada bakarrik Gilberte batena (hainbat oinazkatzen giotuena), ezpaita Albertine batena ere delakotz, baina gure arimako zati bat delakotz, gure baitan bat bertzearen ondotik hiltzen diren eta berekoiki hura atxiki nahi luketen ni bereziak baino iraunkorragoa, eta, zenbait gaitz (gaitz baliagarria bertzela ere) horrek egin badezaku ere, izaitetarik baztertu behar duena horier duten orotakotasunaren itzultzeko eta orori, mundu osoko izpirituari maitasun horren, eta horren aditzearen emaiteko, eta ez jarraikian izanak girenetarik halakoak eta gero holakoak hetan urtu nahi luketen holako eta gero halako emazteari.

Inguratzen ninduten seinale den gutienekoer (Germantes, Albertine, Gilberte, Saint-Loup, Balbec eta b.) behar nauen ohidurak enetako

gal-arazia zauen erran-nahia itzuli. Eta gauzetako egia helduak izanen girenean, horren erraiteko, begiratzeko, hortarik bertzelakoa dena eta ohidurak bildu duen lehiak gelditu gabe ekhartzen daukuna baztertuko dugu. Oro baino gehiago baztertuko nituen izpirituak baino lehen ezpaineak hautatzen dituzten elheak, elhe jostatzeko gogoaz bete horiek, solastatzean erraiten diren bezalakoak, eta bertzerakilako solasaldi luze baten ondotik alegiaz nork bere buruari erraiten jarraitzen girenak eta gogoaz gezurrez betetzen daukutenak, izkirioz haien emaitera aphaltzen den idazlearen baitan erdi-irriñoak - behazunez Sainte-Beuve baten erranaldi elhezkoa ordu oroz uhertzen duen eskarnio ttipiak - laguntzen dituen elhe osoki gorputzekoak, egiazko liburuek izan behar luketelarik aldiz ez egun betearen eta solastatzearen haurrak, baina ilunbearen eta ixilarenak. Eta ederlanak bizia berriz zuzen-zuzena hasten baitu, nor bere baitan hetara heldu den egien inguruan, egonen da beti poesiazko giro bat, iragan behar ukan dugun erlunbearen hatza baizik ezten mixterio baten eztitasuna, lan baten barnatasunaren erakuspena, goratasun neurtzeko batena bezain zuzen markatua. (Ezen barnatasun hori ezta gai berezi batzuen baitan, elhaberrilari materialki izpiritualixta batzuek uste duten bezala itxurapenetako mundutik haratago jausten ahal ez tirenaz geroz, eta haien xede noble guziek, oneziazko egintza den ttipienaren egiteko gai ez tiren jende batzuen baitan athermaldi bertutedun ohikoen idurikoek, ezpaigituzte imitatzetik bildu arruntasun guzien uzteko gemenik ere ez tutelatzen ohartzetik trahatu behar.)

Adimenduak - izpiritu gorenenetan ere - argalki, bere aitzinean, argi betean, biltzen dituen egiez den bezainbatean, haien balioa biziki handia izan daiteke; baina inguru idorrako batzu dituzte eta zapal dira barnatasunik gabe, hetara heltzeko ezpaita barnatasunik iragan behar ukan, ezpaitira berriz eginak izan. Ainitzetan haien baitan egia mixteriozko horiek gehiago agertzen ez tiren idazle batzuek ez tute adin batetik hara bere adimenduarekin baizik idazten, gero eta gehiago indar hartu baitu; adin bateko haien liburuek, horren gatik, gaztarokoek baino indar gehiago badute, baina ez tute balusa bera.

Sendi nuen bizkitartean adimenduak gauzetarik zuzen atheratzen dituen egia horiek ez tirela osoki gutiesteko, gai gutiago garbi batean, baina oraino izpirituz hartuan sar bailezazkete arotik kampo lehengo eta oraiko

sendipenen elgarrekilako izantzak ekhartzen dauzkun iduripenak, baina, baliosagoak izanez, ederlanda bakarrik haiekin moldatua izan dadintzat bekanagoak direnak ere. Egia andana bat sendi nuen nitan metatzen ari, jaidura biziez, jitez, bizi-moldez, hortako balia zaitezkeenak. (Oinazka-arazten gituen jende bakoitza lotzen ahal dugu haren leinuru zati bat eta azken maila baizik ezten jainko bati, jainko (Ideia) horri beha egoiteak ginuen bihotzminaren orde berehala bozkarioa emaiten baitauku. Bizitzeko antze guzia, oinazka-arazten gituzten jendez haien jainkozko moldera heltzea emaiten daukun mail batez bezala baizik ez baliatzea da eta horrela alegeraki jainkokiez gure biziaren jendeztatzea.) Haien hautemaiteak bozkariatzen ninduen; orhoitzen nintzan alta, iduriz, hetarik bat baino gehiago oinazea aurkitua nuela, bertze batzu atsegin ontsa bierarteko batzuetan. Orduan, ederlanda Aroaren berridireiteko bide bakarra zela ikus-arazia zautana baino dudarik gabe gutiago bizia, argi berri bat nitan phiztu zen. Eta hartu nuen literaturako lanaren ekhai horiek oro, neure bizi iragana zirela; hartu nuen ene gana jinak zirela nitan bilduak nituen atsegin arinegietan, auherkerian, xamurtasunean, bihotzminean, haien helgunea, iraupena bera nik asmatua ukan gabe, landarea haziko duten hazkurri guziak erresalbu ezartzen dituen bihiak baino gehiago. Bihia bezala, landarea sortua izanen zenean hiltzen ahalko nintzan, eta gertatzen zen jakin gabea harendako bizi izana nintzala, idatzi nahiko nituen, eta, lehenago batzuetan ene mahian jartzen nintzalarik haiendako gairik aurkitzen enuen liburu hek, behin ere ene biziak hunkiko zituela uste ukan gabe. Horrela egun hartaranoko ene bizi osoa izenburu huntan laburtua izan zaitekeen eta etzaitekeen huntan baizik laburtua izan: Dei bat. Etzen literaturak ene bizian egitekorik batere ukana etzuelako erran-nahian laburtua izanen ahal. Izanen ahal zen bizi horrek, hortako bihotzminen, bozkarioen orhoitzapenek bazegitelakotz landaren arraultzean jarria den albuminaren eta bihi bilakatzeko bere hazkurria hartan hartzen duenaren iduriko erresalbu bat, landare baten umekia handitzen dela jakina ezten aro batean, hori kimiako eta hats-hartzeko gertakari segetutzko baina biziki erne batzuen lekua delarik alta. Horrela ene bizia ontzera ekharriko zuenari lotua zen. Eta gero hartaz biziko zirenek, hazkurritako bihiak jaten dituztenek bezala, etzuten badaduzkaten gauza aberatsak haien hazkurriko eginak izan direla jakinen, lehenik bihia hazia zutela eta zohitzera ekharria.

Gai hortan, erkidatze ber-berak, hetarik abiatzen baldin bada hut-sezkoak direnak, hetara bada heltzen egiak izan daitezke. Literaturagileak margolaria gutzizatzen du, marrazki laburrak hartu nahi lituzke, notak, hori baldin badagi galdua da. Baina idazten ari denean, ezta erakusten dituen jenden kheinu bat, doinu bat haren asmura orhoitak ekharria eztuenik; eta ezta asmatu den jende izen bakar bat haren azpian ikusi dituen jenden hiruretan hogeï izen ezar eztezazkeenik, bat molde izan baita kheinuko, bertzea begitako bakuneko, hori haserreko, hura besoko jestu abantailgarriko eta b. Eta orduan idazlea ohartzen da margolari izaiteko zuen ametsa ezpazen molde ohartu eta nahizkoan egingarri, egina gertatzen dela bizkitartean eta idazleak, hark ere, jakin gabeen egina duela marrazki lasterrekilako bere karneta. Zeren, bere baitan zuen asmuak eremana, idazleak, egun batez hori bilakatuko zela uste ukan baino ontsa lehenago, bertzek ikusten dituzten hainbertze gauzer so egitea erregulariki baztertzen zuen, horrek bertzeren ganik ohargabea izaiteaz sala-arazten baitzuen, eta bere ganik ikusten ez entzuten ez jakiteaz; baina ordu hortan bere begier eta beharrier manatzen zauen betikotz atxik zitzaten bertzer haurkeriazko ezteus batzu iduritzen zizezteenak, erranaldi bat emana izan zen doinua, eta hartaz behar bada bertzerik jeus eztakien norbaitek ordu berezi batez ukanak zituen begitarteko itxura eta soingainetako mugimendua, hortaz duela ainitz urte, eta doinu hori, jadanik entzuna zuelakotz, edo berriz entzun zezakeela senditzen, berri zaitkeen, iraunkor zen zer bait zela; orotakoaren sendimenduak du, geroako idazlearen baitan, orotakoa dena berak hautatzen eta ederlanean sartzen ahalko dena. Ezen bertzeren entzuten ezta egon, ziren bezain zozo ala ero, jite berdineko jendek diotena perruket batzuek bezala errepikatuz, hortik zikologiako lege baten xori profetak, elhe-ordariak bilakatuak zirenean baizik. Ezta orotakoaz baizik orhoitzen. Horrelako doinuez, aurpegiko mugimenduez, bere haurzaro urrunenean ikusiak ukan balitu ere, bertzen bizia haren baitan itxuratua zen eta, geroago idatziko zuenean, ainitzena zen soingainetako mugimendu batez jende baten(*) moldatzera ekharriko zuen, anatomixta baten kahierean hartua baliz bezain egiazkoa, baina hemen zikologiako egia baten erraiteko, eta haren soingainetara sartuz bertze batek egin lephoko mugimendua, bakoitzak bere egonaldi ephea emana ukanik.

(*) Italiketako hitzek esku-idazkiko huts bat betetzen dute. (Itzult-

zalearen oharra).

Ezta gauza segurra, literaturako lan baten egiteko, idurimena eta sendikortasuna ezterela gaitasun aldizkagarriak eta bigarrena eztaitekeela behargabe handirik gabe lehenari ordezkaturia izan, urdaila lixeritzeko ahalik gabe duten jende batzuek ofizio hori hertzeari bademoten bezala. Sendikortu den gizon batek eta idurimenik elukeenak hori izana gatik elhaberri miragarriak idatz lezazke. Bertzek eman lezoketen oinazeak, hortaz begiratzeko bere indarrek, berak eta bigarren jende abre batek ukan zezazketen aharrek, horrek guziak, adimenduak argiturik, balegike ez bakarrik liburu osoki asmatua baliz bezain eder baten gaia, baina ere libertate osoan eta zorionean izana baliz bezain idazlearen ametseriatik kampakoa, idurimenaren ustegabeko siska bat bezain harendako baldigarria, ustegabekoa.

Jende zozoenek, bere jestuez, solasez, nahigabetarik erran sendimenduez, agertzen dituzte hautemaiten eztituzten lege batzu, baina edergileak hetan hatzemaiten dituenak. Oharpen mota horren gatik, jende arruntak uste du idazlea gaixtoa dela, eta hortan huts egiten, irriegingarri batean edergileak orotakotasun eder bat baitu ikusten, eztauko so egona zakon jendeari gaizkitzat emaiten medikuak odoleko ibiltzean aski usu den nahasmendu batez eri izaiteko gutiets lezakeen baino gehiago; nehor baino gutiago da beraz irrigarritasunez trufatzen. Gaixtoa den baino gehiago zorigaitzean da zorigaitzez: bere jaidurez ari denean, horien orotakotasuna berdin ontsa ezagutzen duen aldi berean, gutiago errexki da emaiten dauzkoten oinaze bereziez liberatzen. Dударik gabe, ozar batek laidoztatzen gituenean, lauda gindezan nahiago ukanen ginuen, eta oroz gainetik maite-maite dugun emazte batek trahitzen gituenean, bertzela izan dadin zer ezkinezake eman! Baina laidoko erresumina, utzia izanaren bihotzminak orduan ehoiz ezagunak ukanen ezkinituen eremuak izanen ziren, eta horien aurkitzea, den bezain mingarria izanik ere gizonarendako, edergilearendako baliosa bilakatzen da. Beraz gaixtoak eta eskergaitzak, hark nahi gabe, berek nahi gabe, haren lanean itxuratuak dira. Jaukidazkilariak nahigabetarik bere omenari lotzen du salatua duen zirtzileria. Ederlan orotan ezagun daitezke edergileak gehienik hastiatuak dituenak, eta, ondikotz, gehienik maitatuak dituen emazteak ere. Berek eztute idazlearendako molde izaitea baizik egin, hunen nahigabe handitan, gehienik oinazkatzen zuten orduan berean. Albertine maite nuenean,

ohartua nintzan bada eninduela maite, eta bihotzminaren, maitasunaren, eta ere, hastapenean, zorionaren senditzea zer den ezagun-araz zezatan bakarrik onhartzera bortxatua izana nintzan.

Eta gure bihotzminaren orotakotasuna agerr-arazi nahi dugunean, hortaz idatzi, apur bat konsolatuak gira behar bada hemen emaiten ditutan guzietarik oraino bertze arrazoin batez, eta molde orotakoan gogoetatzea, idaztea, haren egiteak zoriondun bilakatzen duen ofizio sano eta beharrezkoa denaz idazlearendako, gorputzeko gizonendako soinen ibil-araztea, izerdia eta mainua bezala. Egia erraiteko, horren kontra apur bat jazartzen nintzan. Biziazen egia gorena ederlanean dela sinets ahal nezakeen, ahalik ukan enezakeen, bertze alde batetik, oraino Albertine-ren maitatzeko behar ukanen nuen orhoitzapeneko indarraren ukaiteko, amatziz oraino nigar egiteko baino gehiago, hea hartaz jakingabea lizatezkeen ederland bat haiendako, hil gaixo haiendako, beteginzarrera heltze bat izanen zenez hala ere galdez nindagon. Amatzia ikusia nuena, hainbat axolagaberekin, neure ondoan azken hatsetan eta hiltzen! Oi, medeapenez, ene lana bururatua izanen zenean, erremediorik gabe zauritua, guziez utzia, oren luzetan paira ahal badezat, hil baino lehen! Bertzela ere, urrikalmendu mugagabea banuen jende gutiago maite batzuez ere, orobat zizaztanez ere, eta ene gogoak haien hartzera entseatuz, haien bihotzmina, edo ere bakarrik haien irrigarritasunak, ororen buruan, baliatuak zituen. Egia batzu agerr-araziak zauztaten jende horiek guziak eta orai bizi etzirenak, eni baizik baliagarri izana etzizatan bizi bat ukana zutenak bezala agertzen zizaztan, eta enetako hilak balire bezala. Trixte zizatan gogoan ukaitea, hain atxikia izana nindakon ene maitasuna, jende berezi batekin hain esteka gabea izanen zela ene liburuan nun irakurle batzuek bertze emazte batzuendako senditua zutenari zuzen eratxikiko baitzaukoten. Baina hil ondoko leialtasungabe hortaz gaitzitu behar nuena eta hunek ala horrek ene sendimenduer gaitako emazte ez ezagun batzu eman ahal zezeen, leialtasungabe hori, jende ainitzetan maitasunaren zatitze hori bizi nintzanean hasia zelarik, ni idazten hasi ere baino lehenago? Jarraikian pairatua ukana nuen bada Gilberte-rendako, Guermantes-ko Anderearendako, Albertine-rendako. Jarraikian ahatziak nituen ere, eta bertze izaite batzuer eskainia nuen maitasuna zen bakarrik iraunkor izana. Irakurle ezezagun batzuez ene orhoitzapenatarik baten profanatzea, hek baino lehen egi-

na nuen. Enintzan nihauren hastiatzetik urrun, alderdi nazionalixta zenbait bere hastiatzetik behar bada izanen etzen bezala haren izenean etsaigoak jar-raiki balire, eta hainbat bitima noblek pairatu eta bizia galdu zuten gerla bat harendako bakarrik baliagarri izana baliz, guduaren atherabidea (ene amaxirendako bederen hain sari handia izanen zena) jakin ere gabe. Azkenean lanari emaiten nintzala hark ez jakiteaz ene konsolamendu bakarra hau zen: ene aitzinamenduaz ezin goza baldin bazaitekeen, harendako halako pairamena izanak ziren ene auhertasunaz, ene bizi hutseginez konzienzia ukaite-tik (hori da hilen zoria) aspaldidanik gelditua zela. Eta segurki etzen bakarrik amatxi izanen, ez bakarrik Albertine, baina bertze ainitz ere haien elhe bat, so bat, neuretu ahal nituenak, baina hetaz gehiago orhoitzen enintzan jende berezi batzu bezala; liburu bat ilherri handi bat da hobi gehienetan izen eza-batuak ezin irakur daitezkeena. Batzuetan aldiz izenaz biziki ontsa orhoitzen da, baina hura ukan zuen jendetik zerbaitek orrialde horietan irauten duenez jakin gabe. Begi nīnika barna sartu haiekilako, mintzo herrestariarekilako nexka gazte hura, hemen ote da? eta hemen baldin badatza alabaina, zein za-titan? nehork eztaki, eta lore-pean nun aurki? Baina jende berezietarik urrun bizi girenaz geroz, gure sendimendu azkarrenak, amaxirendako, Albertine-rendako ene maitasuna izan zen bezala, urte zenbaiten buruan berriz ezagut-zen eztitugunaz geroz, eztirenaz geroz guretako gogoan hartu ezten hitz bat baizik, hil horietaz mintza gaitezkeenaz geroz haien etxean izaiteaz oraino atsegin dugun munduko jendekin, maite ginuen guzia hila delarik alta, hitz ahatzi horien hartzen ikasteko bide bat baldin bada orduan guretako, bide hori eztugua erabili behar, hortako lehenik mundu zabaleko hizkuntza ba-tean baina bederen iraunkor izanen denean ezarri behar baliz ere, gehiago bizi ez tirenez egin bailezake, bere izantza egiazkoenean, arima guziendako betiereko eskuratze bat? Eta ere, hitz horiek ezin adigarri eginak dauzkun al-dameneko lege horren argitzera heltzen baldin bagira, gure hebaindura eztea indar berri bat bilakatzen?

Bertzela ere, gure bihotzminak hartan barne izanak diren lana hartua izan daiteke gure ethorkizuneko aldi berean pairameneko seinale galgarri eta zorionezko seinale konsolagarri bezala. Alabaina, bere amorez, grīñez poeta baliatu dela erraiten baldin bada, bere lanaren eraikitzen lagundu dutela, hortaz gutienik jelosten ziren andere ez ezagunek, batek gaixtakeria batez,

bertzeak nausa batez, ekharri dutela bakoitzak bere harria ikusiko eztuten eraikuntzaren moldatzeko, ezta aski gogoari emaiten idazlearen bizia eztela lan horrekin bururatu, haren lanean sartu diren horrelako oinazeak ukan- arazi dauzkon naturaleza hura bera bizitzen jarraikiko dela lana bururatu ondoan, bertze emazte batzu maita-araziko dauzkola berdinak lizatezkeen izanara batzuetan, aroak gertaldietan, jendea berean aldatzen duen guziak, haren amodiozko gutizian eta oinazeari ihardokitzean doi bat bihurtzen ez- palitu ere. Lehenbiziko ikuspegi hortan idaz-lana zorigaitzeko maitasun bat bezala hartu behar da bakarrik, halabeharrez bertze batzu aitzinetik iragart- zen dituen eta lana biziaren idurikoa egin-araziko duena, poetak idazteko beharrik ere abantzu ukanen eztena, hainbat du idatzia duenean gertatuko denaren itxura aitzinetik aurkitu ahal ukanen. Horrela Albertine-rendako ene maitasuna, hartarik hain ezperdina izanik ere, Gilberte-rendakoaren bar- nean ezarria zen jadanik, hartako egun zorionezkoen erdian entzuna bainuen lehen aldikotz haren izabaz Albertine-ren izena erraiten eta potreta egiten, gogoari eman gabe hozi guti ohargarri hori handituko zela eta egun batez ene bizi osora hedatuko.

Baina bertze ikuspegi batean, idazlana zorioneko seinale da, ikasten baitaiku maitasun guzietan orotakoa bereziaren ondoan datzala, eta lehen- bizikotik bigarrenera iragaiten bihotzminaren kontra azkartzen duen indar- joko baten bidez haren emaileaz ez axola-araziz egiazki zer den barnagotik ikusteko. Alabaina, geroago phorogatu behar nuen bezala, maite den eta oinazkatua den orduan ere, deitua denora norbait heldua baldin bada azke- nean, lanean ari den orenetan, hain ontsa senditzen da maite dena gauzetako egia zabalago batean urtzen nun artetan haren ahaztera heltzen baita eta ez- paita gehiago haren maitasunaz oinazkatua izaiten, lan egitean, hartan maite dena jeusetako ezten gorputzeko min xoil zenbaitez bezala baizik, bihotzeko eritasun mota batez bezala. Egia da ephe labur bateko gauza dela, eta iduriz ondorioa kontrakoa dela, lana apur bat berantago egiten baldin bada. Ezen bere gaixtakeriaz, ezteusaz, guk nahi ukan gabe gure lilluraren aurdikitza helduak ziren jendeak, berak deusetaratuak zirenean eta moldatua ginuen amorezko ametsetik berexiak, orduan lanean hasten baldin bagira, gure ari- mak berriz goititzen ditu, eta, guhauren argitzeko beharrez, maitatuak uka-

nen ginduten batzuendako ezagutzen, eta aldi hortan literaturak, amorezko lilluraren lan barreatua berriz hasiz, gehiago etziren sendimendu batzuer emaiten daue halako hilondoko bizi bat. Eiki, gure pairamen bereziaren berriz jasaitera bortxatuak gira pikura lanjerosa bere soinean berriz hasten duen medikuaren kuraiarekin. Baina aldi berean hartaz hertsatuak izaitetik hein batean ihes egin-arazten daukun molde orotako batean behar dugu hura gogatu, guziak gure bihotzminaren partaideak egiten dituenen, eta bozkario zenbait ukan gabe etzenean ere. Biziak harresiztatzen duen gunean, adimenduak atherabide bat zilatzen du, ezen elgarregilakoa ezten maitasun batean erremediorik ezpaldin bada, oinaze baten senditzetik atheratzen gira, ekhartzen dituen ondorioak gogoan hartuz baizik ezpaliz ere. Adimenduak eztitu ezagutzen atherabiderik gabeko bizi baten izanara hetsi horiek.

Etsitu behar nuen beraz, deusek irauten ahal eztuenaz geroz orotakoa bilakatuz baizik eta izpiritua bere baitarik hiltzen baldin bada, idazlearendako maitatuenak izan ziren izaitek berek ororen buruan harendako margo-larien etxean bezala molde izaitea baizik egina eztutelako gogamenera.

Batzuetan, zati mingarri bat abiamoldean gelditu denean, maitasun berri bat, oinaze berri bat heldu zaizku haren bururatzer, joritzera ekhartzen gitudzenak. Bihotzmin baliagarri handi horiez, eztaiteke zinkurina gehiegi egin, ezpaitira eskas, ezpaitute luzaz igurika-arazten. Maitasunean, gure partida zoriduna, erran daiteke gure etsaia, gure ongiegilea da. Gutan gorputzeko gutizia ezteus bat baizik phizten etzuen norbaiti bademako berehala balio bat neurrigabea, arrotza, baina harekin nahasten duguna. Partaiderik ezpaginu, atsegina elaitheke maitasunera alda; ezpaginu edo ezkinuela uste baginu, egiazki izan dadin ezpaita beharrezkoa. Izaiterik gabeko partaide batzuer gure aieruak, gure bekaizkeriak emaiten daueten bizi lillurazko hori aski da gure oneko. Hala ere hetaz baliatzera lehiatu behar da, ezpaitute bizi ki luzaz irauten: konsolatzen baigira, edo, azkarregiak direnean, bihotzak indarrik aski ezpadu gehiago, hiltzen. Ezen zoriona bera goputzeko salbagarri da, baina bihotzminak ditu izipirituko indarrak handitzen. Bertzela ere, aldi bakoitz lege bat ager ezpalezaku ere, aldi bakoitz berriz egian gure ezartzeko elizateke gutiago baitezpadakoa, seriosean gauzen hartzera bortxatzeko, aldi bakoitz ohidurako, dudakortasuneko, arinkeriako, axolagabeko belar gaix-

toak ekhenduz. Egia hori, zinez, zorionarekin, osagarriarekin akomeagarri eztena, ezta ere beti hala biziarekin. Bihotzminak azkenean hiltzen du. Pena berri azkerregi bakoitzean, sendi dut zainbeltz bat gehiago goititzen, gure pholsuaren luzera, begien azpian, bere itzul-inguruaren hedatzen. Eta horrela dira aurpegi izigarriki marratu horiek apurka moldatzen, Rembrandt zaharrarena, Beethoven zaharrarena, jende guzia hetaz trufatzen baitzen. Eta begipetako sakelak, bekokiko zimurdurak jeus elizateke, bihotzeko oinazea ezpaliz. Baina indarrak bertze indar batzuetara alda daitezkeenaz geroz, badirauen suhartasuna argi bilaka daitekeenaz eta airegaixtoko eletrikak margazkiak har dezazkeenaz geroz, bihotzeko gure oinaze ilunak bere gainean goititzen ahal duenaz geroz, ikurrina bat bezala, bihotzmin berri bakoitzean iduri baten iraupen ageria, emaiten daukun soineko mina onhar dezagun ekhartzen daukun izpirituko ezagutzarako; duztagun gure soina barreatzera, hartarik badoan zati berri bakoitza badatorrenaz geroz, aldi huntan argi eta irakurgarri, haren osatzeko hobeki dohatuek beharrik eztuten oinazen gosituz, bihotz-hunkidurek gure bizia agorr-arazten duten arau haren azkarragotzeko, gure lanaren emendatzera. Ideiak bihotzminen ordain batzu dira; hauk ideietara aldatzen diren orduan, gure bihotzean duten egintza kaltegarriko zati bat galtzen dute, eta ere, lehenbizian, aldakuntzak berak bapatez bozkarioa emaiten du. Ordainak bakarrik aroko munduan, bertzela ere, iduri baitu gai lehena Ideia dela, eta bihotzmina, gutan Ideia batzu lehenik sartzen diren modua bakarrik. Baina Ideien multzoan bada familia bat baino gehiago, batzu berehala bozkarioak dira.

Gogoeta horiek erran-nahi azkarrago eta zuzenago bat aurki-arazten zautaten ainitzetan aitzinetik senditua dutan egian, bereziki Cambremer-ko Anderea galdez zagolarik Elstir bezalako gizon ohargarri bat nolaz utz ahal nezakeen Albertine-rendako. Adimenduari zoakonaz ere hutsean zela sendi nuen, baina enakien zer etzuen ezagutzen: hori zen letera-gizon izaiteko apendizgoa haiekin egiten den ikastaldiak. Ederlanen balio den bezalako gauza guti da hortan; jalgi-arazteko dena, argira ekhartzeko, gure sendimenduak dira, gure jaidurak, erran nahi da ororen jaidurak, sendimenduak. Haren beharra dugun emazte batek, sofri-arazten daukun batek, gutarik sendimendu andana batzu jalgi-arazten ditu, ohargarri zaikun gizon goien batek

baino ainitzez barnatuagoak, baitezpadakoagoak. Jakiteko gelditzen da, bizi giren moduaren arau, hartaz holako emazteak sofri-arazi daukun trahitze bat gauza guti denez trahitze horrek agertu dauzkun egien ondoan eta sofri-arazirik zorionean den emazteak gogoan guti hartu ahal ukanen zituzkeen. Zer nahi den trahimendu horiek eztira eskas. Idazle bat beldurrik gabe eman daiteke lan luze bati. Adimenduak has dezala haren lana, bidenabar bihotz-min aski gertatuko da bada bururatzea bere gain hartuko dutenak. Zorionaz den bezainbatean, eztu abantzu balio bat baizik, zorigaitzaren bilakatzea gertagarri. Zorionean atxikimendu eta konfienziatzko lokailu ontsa eztiak eta ontsa azkarrek moldatu behar ditugu haien hausteak egin dezaukuntzat zorigaitza deitzen den urradura hain baliosa. Zoriondun izanak ezpagine, itxaropenetik baizik ezpazen ere, zorigaitzak bortiztasunik gabe lizatezke eta beraz emaitzarik gabe.

Eta margolariak eliza bakar baten margolatzeko ainitz ikusi ukana behar duen bezala, gehiago idazleak, izari eta goritasunetik, orotakotasunetik, literaturako egiatik ukaiteko, izaite ainitz behar du ere sendimendu bakar batendako. Ezen ederlanda luze baldin bada eta bizia labur, erran daiteke aldiz, gogo argitaldia labur baldin bada, erakutsi behar dituen sendimenduak eztirela biziki luzeago. Gure jaidurek dituzte gure liburuak abiatzen, arteko atsedanak idazten. Berriz phizten denean, lanari berriz lotzen ahal girenean, sendimendu batendako gure aitzinean molde egiten zuen emazteak eztauku jadanik gehiago sendi-arazten. Bertze baten arabera behar da haren itxuratzen jarraiki, eta trahitze batek baldin badu, literaturako aldetik, sendimenduen berdintasunari esker, lan bat aldi berean gure maitasun iragannen orhoitzapena eta gure maitasun berrien profezia dela egiten, ordainkatze horietan ezta kalte handirik. Idazle bat nortaz ari den asmatzera entseatzen diren lanetako hutsaleriaren arrazoinetarik bat hori da. Ezen idazlan bat, aithormen zuzenezkoa ere, idazlearen biziko aldi batzuen artean bederen jarria da, asma-arazia duten aitzinekoenean, gutiago haren iduriak eztiren ondokoenean, geroko maitasunak lehenbizikoen errepikak izanez. Gehienik maitatu dugun norbaitendako ezpaigira guhaurendako bezain leialak, eta goiz edo berant ahazten baitugu - gure berezitasunerik bat hori denaz geroz - berriz maitatzen hasteko. Maitasun horri hainbat maitatu dugun emaz-

teak gehien-gehienik molde berezi bat gaineratua dauko, leialtasun gabezia ere harendako leial izan-araziko gituena. Ondotik heldu den emaztearekin goizeko ibilaldi beren beharra ukanen dugu edo arratsean etxera laguntzekoa, edo ehun aldiz sobera diru emaitzekoa. (Emazter emaiten dauegun diruaren mugimendu hori gauza bitxia da, horren gatik dohaveak egiten baigituzte, erran nahi da liburu idazteko ahala bademagutela: abantzu erran daiteke idazlanak, ur jalgikorretan bezala, are gorago igaiten direla nun oinazeak bihotza barnago zilatua baitu.) Ordainkatze horiek bademakote lanari zerbait abantail nahigabeko, orotakoago, jender atxikiak izan behar eztugulako ikastaldi garratz bat dena ere, izaite egiazkoa dutenak eztirela jendeak eta, ondorioz, zerbait erran nahi ukaiteko gai direnak, baina ideiak. Behar baita ere lehiatu eta modela horiek eskuan dituguno aroa ez galdu, ezen guretako zorionaren molde direnek eztute egonaldi ainitzik emaiteko, ez eta ondikotz, hura ere laster iragaiten denaz geroz, bihotzminarendako molde direnek. Bertzela ere, gure lanaren gaia, agerian ezarritik, emaiten eztaukunean ere, hartara sustatuz baliagarri zaiku. Idurimena, gogamena mekanika berez miragarriak izan daitezke, baina geldiak. Orduan oinazeak ibil-arazten ditu. Eta guretako minaren molde daudenek egonaldi hain usuak emaiten daukute, aldi horietan baizik hara joaiten ezkiren eta guhauren baitan den landegi hortan! Aldi horiek gure biziaren iduri bat bezala dira bere oinaze guziekin. Ezen horiek ere ezperdinak badaduzkate, eta oro eztitua zela uste zen orduan, huna berri bat. Berri bat hitzaren erran-nahi orotan: behar bada ustegabeko gertaldi horiek guhaurekin harremanetan barnago sartzera bortsatzen gituztelakotz, maitasunak ordu oroz jartzen daukun hautu mingarri horiek ikas-arazten daukutelakotz, hartaz eginak giren gaia jarraikian agertzen. Beraz Françoisek, Albertine-ren ikustean etxean zakur bat bezala athe orotarik sartzen, orotan desordenu ezartzen, ene hondatzen, hainbertze bihotzmin emaiten, erraiten zautanean (orduan jadanik artikulu batzu eta itzulpen batzu eginak baintuen): « Ha! dembora guzia gal-arazten daukon neska horren orde Jaunak hartzen balu Jaunaren paperxka guziak lerrokaturuko lauzkon mutiko segetari ontsa ikasi bat! » zuhurki mintzo zela aurkitzean huts egiten nuen behar bada. Dembora gal-araziz, bihotzmin emanez, Albertine, literaturako ikuspegian ere, ene paperxkak lerrokatu zituen segetari bat baino baliagarriago izana zizatan behar bada. Baina hala ere, izaite

bat hain gaizki arautua denean (eta behar bada izaite hori gizona da) nun sofritu gabe maita ahal ezpaitezake, eta egien ikasteko sofritu behar bada, horrelako izaite baten bizia azkenean aspergarri bilakatzen da. Zorionezko urteak urte galduak dira, oinaze bat igurikatzen da lanean artzeko. Aitzinetik jinen den oinazearen ideia lanaren ideiarekin batzen da, lan berri bakoitzaz beldur izaiten da haren asmatzeko lehenik jasan beharko diren oinazeak gogoan. Eta oinazea bizian aurki daitekeen gauza hoberena dela hartzen baita, herioa lastarik gabe, abantzu liberatze bat bezala gogutzen da.

Bizkitartean, horrek apur bat sumintzen baninduen, ohartu behar zen oraino ainitz-ainitzetan ezkirela biziarekin jostatu, liburuendako ezkirela jendez baliatu, baina osoki kontrakoa izan dela. Werther-en aldia, hain noblea, etzen, ondikotz, enea. Albertine-ren maitasunean zekunda batez sinetsi gabe, nahi ukana nuen hogeitaz harendako hil, hondatua nintzan, harendako osagarria galdua nuen. Idazteaz ari denean, arranguratuak gira, hurbil-hurbildik behatzen da, egia ezten guzia egozten da. Baina biziaz baikirik ari ezteno, hondatzen da, eritzen da, gezur batzuetako bereaz egiten da. Egia da gezur horien azaletik daitekeela bakarrik (poeta izaiteko adina iragana baldin bada) egia apur bat athera. Bihotzminak zerbitzari ilun, hasteratu batzua dira, haine kontra gudukatzen denak, gero eta gehiago haien menara erortzen girenak, zerbitzari lastagarri batzua, ezin ordainduak, eta lupeko bide batzuetarik egia eta heriora eremaiten gituztenak. Dohatsu lehenbizikoa bigarrena baino lehen aurkitu dutenak, eta, elgarri diren bezain hurbil izan behar badute ere, haiendako egia orenak herioarenak baino lehen joa duenak!

Ene bizi iraganetik gogoan hartu nuen ere den gertaldi tipienak ari izanak zizaztala gaurregun baliatuko nuen idealismako ikastaldiaren emaiten. Ene aurkitaldiek Charlus-ko Jaunarekin, behazunez, etzautatena, haren germanofiliak erakasten bera emana ukan zautan ere baino lehen, Guermantes-ko Anderearen edo Albertine-rendako ene maitasunak, Rachel-endaiko Saint-Loup-en maitasunak baino hobeki ere, gaia zenbat orobatekoa den eta hortan oro gogamenaz ezarria izan daitekeela sinets-arazia? emazte emakoi ala gizon gizakoi izaiteak, hain gaizki hartuak, hain debaldetan gaizkituak, maitasunaren gertaldiak, jadanik hain erakasgarriak, baino ere gehia-

go handitzen duen egia. Maitasunak erakusten dauku edertasuna gehiago maite eztugun emaztetik itzuri egiten eta bertzer itsusiena idurituko zizaien, guhaurek egun batez laket ukan ezkinezakeen, laket ukanen eztugun begitartean jartzera jiten; baina ohargarriago da oraino edertasunaren ikustea, onibuz kontrolatzale baten kaxketa-pera joanik, prinzesa eder bat berehala uzten duen jaun handi baten gizamenen ukaiten. Ene ustegabeak, Gilberteren, Guermantes-ko Anderearen, Albertine-ren begitartea Champs-Élysées-etan, karrikan, ondartzan berrikusia nuen aldi bakoitz, etzuen erakusten orhoitzapen bat lehenik harekin bat izan den eta hartarik gero eta gehiago urruntzen den iduripenaren kontrako alde baterta baizik ezten hedatzen?

Idazleak eztu ofensatua izan behar gizon gizakoiak giza-begitarte bat emaiten baldin badaue haren liburuko emazter. Berezitasun apur bat arrazoiingabeko horrek bakarrik du gizon gizakoa irakurtzen duenari gero bere orotakotasun guziaren emaitera uzten. Racine, aro zaharreko Phaedra-ri gero bere balio orotakoaren emaiteko, ephe batez hartaz jansenixta baten egitera bortxaturik izana izan zen; berdin ere, Charlus-ko Jaunak ezpaldin balauko, Musset-ek Urriko gaua-n edo Orhoitzapen-ean deitoratzen duen « trahitzaleari », Morel-en aurpegia eman, etzuen ez nigar eginen ez gogoan hartuko, bide bakar hortarik, hertsu eta baztertutik, zenaz geroz maitasuneko egietara heltzen. Idazleak eztu aitzin-solas eta eskaintzetako hizkuntza zintzotasun gabetan hartu ohidura batez baizik erraiten: « ene irakurlea ». Egiazki, irakurle bakoitza, irakurtzen duenean, bere buruaren irakurlea da. Idazlearen lana ezta irakurleari eskaintzen daukon ikusteko tresna mota bat baizik, liburu hori gabe bere baitan behar bada ikusiko etzuenaren hautemaitera uzteko. Liburuak erraiten duena irakurleak bere baitan ezagutua ukaita, liburuak egia delako phorogua da, eta vice versa, hein batean bederen, bi idazkien arteko ezperditasuna ez idazlearen baina irakurlearen gain eman baitaiteke ainitzetan. Gainera, liburuak jakintsuegi izan daiteke, irakurle xintxo batendako ilunegi, eta harekin irakurri ahalko eztuen berina uher bat baizik eztezakoke eskain. Baina bertze berezitasun batzuek (hala nola homosesualgoak) egin dezakete ontsa irakurtzeko irakurleak molde berezi batean irakurri behar duela; idazleak eztu hortaz ofensatu behar, baina behar dauko aldiz irakurleari libertate handiena utzi erranez: « Zuhaurek ikusazu berina hunekin hobeki ikusten duzunez, ala horrekin, ala bertze harekin. »

Lotarik egiten diren ametsez beti hainbat axolatua baldin banintzan, ez ote da, iraupena indarraz ordainduz, maitasunak, behazunez, bakoitzarenetik zer duen hobeki hartzera laguntzen zituelakotz, zure larrupean emazte baten ezartzea - baina lehia mirazko batean - arrunki deituko zena egiten dutelako arrazoin xoilaz, guri minuta zenbaiteko loan emazte itsusi bat suharki maita-arazterano, horrek egiazko bizian ohidurazko, eratzikitzezko urteak beharko zituelarik, eta, mirakuluko mediku zenbaitek asmatu-rik, oinazekoak ere izan daitezkeen bezain ontsa, maitasunezko pikura zain barnera eman batzu balire bezala? Harr-arazia daukuten maitasunezko ideia lehia berarekin ezeztatzen da, eta zenbait aldiz gauazko maitalea ezta bakarrik guretako horrela izaitetik gelditua, berriz delako emazte itsusi ontsa ezaguna bilakaturik, baina zerbaite baliosago ezeztatzen da ere, xamurtasun, atsegin, urrikiko sendimendu nahasiki arinduzko itxurapen xoragarri bat osoa, untziz Cythère-ra maitasunaren abiatze oso bat, hartarik hartu nahi ginituzkeelarik, atzarr-orduetako, egia ezin goxoago baten leinuruak, baina ezeztatzen baita zen bezala berriz ezin ezar daitekeen margazki histuegi bat iduri. Eta Aroarekin badagien joko izigarritik ninduen ere behar bada Ametsak lilluratua. Ainitzetan enituena ikusiak gau batez, gau bateko minuta batez, aro biziki urrundu batzu, hartan ginituen sendimenduetarik ezer berex eztezekegun gaitzeko urruntasun batzuetara baztertuak, laster handienez gure gainera jausten, bere argiaz gu itsutuz, uste dugun izar histuen orde aireko handi-handi batzu izan balire bezala, guretako edukia zuten guziaren berriz guri ikus-arazten, bere hurbiltasun arterik gabearen bihotz-hunkidura, ukhaldia, argia guri emanez, - berriz hartua baitute, gu iratzarri eta, mirakuluz iragana zuten urruntasuna, sinets-arazterano, bertzela ere zuzen-kontra, Aro galduaren berriedireiteko moduetarik bat zirela?

Ohartua nintzan ikuspen arrunt eta hutsezkoak bakarrik duela oro gauzan ezartzen, oro izpirituan delarik; amatxi galdua nuen egiazki egina nuen baino ilabete andana berantago, jendeak ikusiak nituen nik edo bertze batzuek hetaz zuten ideiarekin arabera itxuraz aldatzen, ikusten zutenen arabera jende bakar bat ainitz izaiten (hastapeneko Zuan guziak behazunez; president lehenarendako Luxembourg-eko prinzesa), bakar baten arabera ere urtetan zehar (Guermantès-ko izena, Zuan guziak enetako). Ikusia nuen

maitasuna jende baten baitan maite duen jendean baizik eztenaren ezartzen. Hortaz are hobekiago ohartua nintzan nun ikusia bainuen gauzetako egiaren eta maitasunaren arteko eremua ezin gehiago hedatzen (Rachel Saint-Loup-endako eta enetako, Albertine enetako eta Saint-Loup-endako, Morel ala onibuz gidaria Charlus-endako edo bertze batzuendako, eta hori izanik ere Charlus-en xamurtasunak: Musset-en neurtitz, eta b.). Azkenik, neurri batean, Charlus-ko Jaunaren germanofiliak, Saint-Loup-en soak Albertine-ren argazkiari, lagundua ninduten, ene germanofobiatik ezpada, bederen hunen egiatasun osoan nuen sinestetik ephe batez atheratzen, eta behar bada Herraz Maitasunaz bezala zela goga-arazten, eta, Frantziak ordu hartan berean Alemaniaren aldera bazeman jujamendu laztagarrian, gizaldetik jalgia estimatzen baitzuen, bazela oroz gainetik sendimenduen gauzetaratze bat, Rachel eta Albertine, bata Saint-Loup-endako, bertzea enetako, hain baliodunak egiten zituztenena bezala. Horrek egin baitzezakeen, alabaina, gaitzera eman hori etzela osoki Alemaniaren barnekoa, eta, nihaurek maitasun batzu jarraikian ukanak nituen bezala, haien ondotik maitatua nuena baliorik gabe iduritzen baitzizatan, ikusiak nituela neure herrian herra jarraiki batzu, Reinach bezalako dreyfustiar batzu, behazunez, traidore bezala agerr-araizak zituztenak - Frantzia haien eskuetan emaiten zuten Alemanak baino mila aldiz gaitzagoak -, harekin batean orai aberritiarrak jende bakoitza nahitez gezurtari bat, abre bat, zozo bat zen erresuma baten kontra ari zirelarik, Frantziaren alderdia hartua zuten Alemanez salbuespen eginik, hala nola Errumaniako errege, Belgiarren errege edo Errusiako emperadorea. Egia da Dreyfus-en kontrakoek ihardetsiko zautatela: « Ezta gauza bera. » Alabaina ezta nehoiz gauza bera, jende bera den baino gehiago: hori gabe, gertaldi beraren aitzinean, horrek hatzeman duenak elezake bere gogoko izanara baizik sala eta gaitasunak ala hutsak gertaldian direla elezake sinets. Adimenduak orduan ezperdintasun hortan teoria baten oinarritzeko nekerik eztu: kongreganixten erakaskuntza naturaren kontrakoa erradikalen arabera, judu arraza ezin herritartua, arraza alemanaren herra arraza latinaren aldera betierekoa, arraza horia ephe bateko ogengabetua delarik. Nork bere baitako gogo hori alderdigabekoen solasetan ageri zen bertzela ere, hor germanofilek, behazunez, ephe batez hartzetik eta entzutetik ere gelditzeko ahala baitzuten Belgikan abrekeria alemanez mintzatzen zizezteenean. (Eta egiazkoak ziren alta: ikus-

penean berean bezala herran nork berea zuenetik ikusten nuenak etzuen gauzak egiazko gaitasunak ala hutsak ukan zitzan debekatzen eta gauzetako egia etzuen batere erlatibotasun huts batean itzal-arazten.)

Eta, hoinbertze urte iraganik eta aro galdurik, eragin baitezpadako hori erresumen arteko gauzetarano senditzen baldin banuen, ene biziko has-tapenean berean enintzana hortaz jelostua Combray-ko baratzean Bergotte-ren elhaberri bat irakurtzen nuelarik, gaurregun ere, hetan gaixto baten zi-markuak ikusten ditutan orrialde ahatzi batzu orstokatu badituz, ezpaitut bururatzeraz uzten, ehun orrialde jauziz, gaixto hori behar bezala gaztigatua dela segurtatua izan ondoan baizik, eta haren xede ilunek hutsegin dutela ikasteko aski bizi dela? Ezen jende horier zer gertatua zizeen enintzan ontsa orhoitzen, horrek ezpaitzitzen bertzela ere arratsalde hortan Guermantes-ko Anderearen etxean zirenetarik ezperdintzan, eta hauen bizi iragana, ainitzendako bederen, elhaberri erdi-ahatzi batean irakurria ukan banu bezain guti argia baitzen enetako. Agrigente-ko printzeak ezkondua zuena azkenean X... Anderaurena? Edo izaitekotz etzena X... Anderaurenaren anaia Agri-gente-ko printzearen arreba ezkondua zuena? Ala nahaste bat egiten nuena irakurgai zahar batekin edo amets berri batekin?

Ametsa ere ene biziko gauza horietarik bat zen, beti gehienik hunkia ninduena, gauzetako egia osoki gogokoa zela eni sinets-arazteko gehienik baliatua zaitekeena, ene lanaren moldatzean ezpainuen horren laguntza gutietsiko. Maitasun batendako bizi nintzalarik, molde gutiago abantail-nahi batean, amets bat heldu zen, aro galduko eremu handi batzu hari iragan-ara-ziz nitara handizki amatxiren hurbiltzera, berriz maitatzen hasia nuen Alber-tine-ren, emana zautalakotz, ene loan, emazte oihal xuritzalearen ixtorioko molde berri bat, bertzela ere arindua. Uste nuen batzuetan horrela ethorriko zizaztala, ene indar bakarrek, edo ere naturalezako aurkintzek eskaintzen et-zauztaten egia batzuen, iduripen batzuen hurbiltzera; nitan iratzarriko zutela izaiterik etzuten gauza batzuen urriki bat, gutizia bat, hori baita lan egiteko behar dena, ohiduratik berexteko, gauzetarik baztertzeke. Bigarren muse hori enuen gutietsiko, batzuetan bertzea ordainkatuko zuen gauazko muse hori.

Ikusiak nituen aitorensemeak arrunt bilakatzen haien izipiritua, Guermantes-ko dukearena bezala, behazunez, arrunta zenean (« Etzira je-

natua », Cottard-ek erranen zuen bezala). Ikusia nuen Dreyfus aferan, gerla demboran, egia gauza berezi bat dela sinesten, minixtroek badutela argitua izateko beharrik ezten bai edo ez bat, horrek egiten baitu boterea duten jendek Dreyfus ogendun zenez ala ez bazakitela, Sarrail-ek Errusoeekin batean urhats egiteko behar zirenak baizituenez ala ez (hortako lekuan berean inkesta egitera Roques-en igortze beharrik gabe) bazakitela.

Segurki, aurpegiari nauzkon, lehen aldikotz itsaso aitzinean ikusia nuen bezala, idatziko nituzkeen gauza batzu lotzen. Erran-nahi hortan hari horien lotzean arrazoin nuen, ezen egun hartan ezpaldin banintz kaiara izan, hura ezpaldin banu ezagutu, ideia horiek oro etziren zabalduko (bertze norbaitek eginak izan ezpalire bederen). Ogendun nintzan ere, ezen emazte aurpegi eder batean, gerotik behatuz, aurkitu behar dugun atsegin bizi-emaile hori gure sentsuetarik heldu da: gauza ontsa segurra zen, alabaina, idatziko nituen orrialde horiek, Albertine-ek, eta oroz gainetik orduko Albertine hark, etzituela idatziak ukanen. Baina hain zuzen hortako ninduen (eta sobera adimenduzkoa den ingurumenean ez bizitzeko seinale bat da), nitarik hain bertzelakoa zelakotz, bihotzminaren bidez ernaldua, eta ere has-tapenean nor beraren ganik bertzelakoa denaren asmatzeko indar xoilarenez. Orrialde horien gogoan hartzeko gai izan baliz, hortako bereko etzituen asma-araziak ukanen.

Oro har, hortaz gogoetatzen baldin banintzan, bizian ikasia nuena, ene liburuaren gaia hori izanen baitzen, Zuanen ganik heldu zizatan, ez bakarrik hari berari eta Gilberte-ri zoakon guziaz; baina hark zautan Com-bray-n berean emana Balbec-era joaiteko gutizia, hori gabe aitamek choiz ezpaitzuten hara ene igortzeko ideiarik ukanen, eta ezpainuen Albertine eza-gutuko, baina Guermantes-tarrak berak ere, amatxik Villeparisis-ko Anderea etzuenaz geroz berraurkituko, nik Saint-Loup-en eta Charlus-ko Jaunaren ezagutza eginen, horrek ezagun-arazia baitzautan Guermantes-ko dukesa eta hunen bitartez gusia, hala nola nun ordu huntan ene izaitea Guermantes-ko prinzesaren etxean, han bapatez ene lanaren ideia jina baitzizatan (horrek egiten zuen Zuani naukola zor ez bakarrik gaia baina deliberoa), Zuanen ga-nik heldu baitzizatan ere. Girtain apur bat mehea zen behar bada ene biziko eremu guziaren jasaiteko (erran-nahi hortan « Guermantes-ko alde »-a hor-

rela gertatua baitzen « Zuanen alde »-tik ethortzen). Baina ainitzetan gure biziko itxuren emaile hori Zuan baino norbait ontsa aphalagoa da, jendetan bierartekoena. Balbec-era joana izan nadintzat, etzena edozein lagunek han ukaiteko neska goxagarri zenbait (itxura guzien arabera nehoiz aurkituko enuena) erakutsi zezatan aski izanen? Ainitzetan horrela gustagarria ezten lagun bat berantago aurkitzen da, eskua doi-doia tinkatzen zako, eta bizkitartean, ehoiz hortaz gogoetatzen baldin bada, airera eman duen hitz batetik, « Balbec-era jin behar zinue » batetik, dira jalgiak gure bizi guzia eta gure lana. Eztaukogu hortako eskerronik batere, hori eztelarik alta eskergabe izaitea. Ezen hitz horien erraitean guretako ukanen zituzten ondorio neurrigabeak eztitu batere gogoan ukan. Gure sendikortasunak eta gure adimenduak dituzte gertaldiak baliatu, horiek, lehenbiziko bultzaldia emanik, batzu eta bertzek elgar sortu baitute, lagun hark Albertine-rekin ene bizitzea aitzinetik ikusia ukan ahal gabe, Guermantes-tarren etxeko gomitaldi maskatua baino gehiago. Dударik gabe haren bultzaldia beharrezkoa izan zen, eta beraz gure biziaren molde ageria, gure lanaren gaia bera haren menekoak dira. Zuan gabe, nehoiz etzuten ene gurasoek Balbec-era ene eremaiteko ideia ukanen. (Etzen bertzela ere berak eman-araziak zauztan bihotzminez ogendun: ene ahuleziatik zethorzen; bereak bera ontsa oinazka-arazia zuen Odette-ren gatik.) Baina eremana dugun bizia horrela mugatuz, hortik beretik horren orde eremanen ahal ginituen bizi guziak baztertu ditu. Zuan ezpalizata Balbec-ez mintzatu, enituen ezagutuko Albertine, hotelean jateko sala, Guermantes-tarrak. Baina bertze norapait joanen nintzan, bertzelako jende batzu ezagutuko nituen, ene orhoita ene liburuak bezala itxura osoki bertzelako batzuez bete izanen zen, asma ere eztezaketanak eta haien berritasuna, ezagutzen ezitutana, gustagarri zait eta urriki-arazten nau haren gana goizago ez joana izateaz, Albertine eta Balbec-eko ondartza eta Rivebelle eta Guermantes-tarrak betikotz ez ezagunak gelditu etzizaztan.

Bekaizkeria biltzale ona da, baitoa, gure marrazkian hutsune bat denean, karrikan guretako behar zen neska ederraren bila. Etzen gehiago ederra, berriz hala bilakatu da, hartaz bekaitz baigira, huts hori beteko du. Behin hilak izanen girenean, margazki hori horrela osatua izanik ezkira bozkariatuak izanen. Baina gogoeta hau ezta batere etsigarri. Ezen sendi dugu

bizia dioten baino apur bat batzunagoa dela, eta gertaldiak ere. Eta batzuntasun horren erakustea behar-beharrezkoa da. Bekaizkeria hain baliagarria ezta baitezpada so batetik sortzen, edo ixtorio batetik, edo gibelera egite batetik. Aurki daiteke, gure xixtatza emana, urtekari bateko orstoen artean - « Tout-Paris » deritzotena Pariserendako, eta baserriko « Jauregietako Urtekaria ». Orobat bilakatua zaikun neska ederraren ganik ohargabeen entzuna ginuen erraiten beharko zuela egun zenbaitendako ahizparen ikustera Pas-de-Calais-en Dunkerque-ko ondora joan; ohargabeen ere gogoan ukana ginuen lehenago neska ederrari behar bada E. Jaunak gorte egina zaukola, hark nehoiz gehiago etzuela hori ikusten, ehoiz ezpaitzen gehiago hori ikusten zuen edandegi hartara joaiten. Haren ahizpa zer zatekeen? gelari behar bada? Begirunez ezkinuen galdegina. Eta gero horra nun Jauregietako Urtekaria ohargabetarik idekiz, aurkitzen dugun E. Jaunak bere jauregia Pas-de-Calais-ean duela, Dunkerque-ko ondoan. Dudarik ez gehiago, neska ederrari laket izaiteko, haren ahizpa gelaritzat hartua du, eta neska ederrak ezpaldin badu gehiago edandegian ikusten, hori da etxera ekharr-arazten duelakotz, abantzu urte osoan Parisen bizi izanez, baina hura gabe ezin egonez Pas-de-Calais-ean denean ere. Pinzelek, haserrez eta maitasunez zoratuak, margolatzten dute, margolatzten. Eta bizkitartean, ezpaliz hori? Zinez E. Jaunak ezpalu gehiago neska ederra nehoiz ikusten, baina, zerbitzu egitez, hunen ahizpa bere anaia bati gomendatua balu, urte osoan Pas-de-Calais-ean bizi denari? Hala nola nun joaiten baita, hala beharr hutsez ere behar bada, ahizparen ikustera E. Jauna han ezten orduan, ezpaitira gehiago bata bertzeaz axolatzten. Eta oraino ahizpa ezpada bederen gambarazain ez jauregian ez bertze nehon, baina jendakiak baldin baditu Pas-de-Calais-ean. Lehen orduko gure oinazeak amor emaiten du bekaizkeria oro eztitzen duten azken aieru horien aitzinean. Baina zer du balio? Bekaizkeria, Jauregietako Urtekariko orstoetan gorderik, ordu onean ethorri da, orai margazkian zen hutsunea betea baita. Eta guzia ongi moldatzen da, gehiago hartaz jadanik bekaizti ezkiren eta maite eztugun neska ederrak phiztu duen bekaizkeriari esker.

*

* *

Ordu hartan mahi-nagusia jin zizatan lehenbiziko musika zatia bururatua izanez, liburutegia uzten ahal nuela erraitera eta saloinetara sartzen ahal nintzala. Horrek nun nintzan orhoit-arazi zautan. Baina hasi berria nuen arrazoinamenduan enintzan batere nahasia izan, bilkura mundutar batek, gizartera itzultzeak emana zautatelakotz bakartasunean aurkitzen jakina enuen bizi berri baterako abiagune hori. Horrek ohigabekorik jeus etzuen, nitan gizon betierekoa berphizten ahal zuen iduripen bat ez lotua izanez baitezpada bakartasunari gizarteari baino gehiago (lehenago uste ukana nuen bezala, lehenago behar bada enetako hala izana zen bezala, oraino hala izaiten ahalko zen bezala ongi aitzinatu baldin banintz, orai bururatzen zela iduri zuen gelditaldi luze hortan egon orde). Ezen, edertasuneko iduripen hori ezpainuen aurkitzen, oraiko sendipen bat, zen bezain ezteusa, halabeharrak emana izanik, sendipen berdin bat, nitan berainik berrituz, aldi berean ordu andana batean lehenbizikoaren hedatzera heldu zenean baizik, eta, hartan sendipen bereziek hainbat huts uzten zuten ene arima orotako izantza batez betetzen zuenean, naturalezan bezain ontsa munduan mota hortako sendipenik ukan enezan arrazoinik etzen, halabeharraz emanak direnaz geroz, sustatze berezi batek lagunduaz dudarik gabe, horrek egiten baitu, ohiko bizi-modutik baztertuak gertatzen giren egunetan, den gauza xoilena ere berriz hasten zaizkula Ohidurak gure zainetarik baztertzen dituen sendipen batzuen emaiten. Sendipen mota hori hain zuzen eta bakarrik zela ederlanera ereman behar zuena, horren arrazoin egiazkoaren edireitera entseatuko nintzan, liburutegian elgarri lotzetik gelditua enintzan gogoetetan jarraikiz, izpirituko biziaren abiatzea saloinean ere jarraiki ahal izaiteko nitan orai aski azkarra zela sendi bainuen, gomiten erdian, liburutegian bakarrik bezain ontsa; iduri zizatan alde hortarik, jendetze hain handiaren erdian ere, ene bakartasunaren begiratzen jakinen nuela. Ezen gertakari handi batzuek kampotik gure izpirituko ahalmenetan eraginik eztuten arrazoin beraren gatik, eta aro epiko batean bizi den idazle bierarteko bat beti berdin bierartekoa geldituko baita, munduan lanjeros zena hara ekhartzen diren gogo mundutarrak ziren. Baina bere baitarik ezta zure bierartekotzeko gai, gerla heroiko bat poeta gaixto batetik ezin hobe baten egiteko baino gehiago. Zer

nahi den, ederlanda horrela moldatua izaitea teorikoki baliagarri izan zadin ala ez, eta egitera nindoan bezala gauza hori ikhertua ukan artean, enezakeen ukha nihaur hunkitzen ninduenaz, iduripen zinez ederrarako batzu jinak zizatzanean, mota hortako sendipen batzuen ondotik gertatua zela beti. Egia da ene bizian aski bekan izanak zirela, baina hartan nagusi ziren, begietarik galtzeko (hemendik goiti egin gogo enuena) ogena ukana nuen hegi horietarik zenbait iraganean berraurkitzen ahal nituen. Eta jadanik erran nezakeen, hartzen zuen balio berezi-bereziaz, nik bakarrik nuen zer bait baldin bazen neure baitan, bizkitartean segurtatua nintzala idazle batzuen baitako itxura gutiago berezi baina ezagugarri batzuen, eta oro har berdintsuen idurikoak zirela ikustean.

Eztea madalenarena bezalako sendipen bati lotua Hilobiaz harata-goko Orhoitzapen-etako zati ederrena? « Atzo arratsean bakarrik nindabilan... ene gogoetatarik atheraia izan nintzan urki baten adar gorenean zagon biligarro baten kantuz. Ordu berean, mirazko soinu hark ene begietara agerr-arazi zuen aitaren etxaldea; haien lekuko izan berria nintzan ixtripu handiak ahatzi nituen, eta, bapatez iraganera eremana, hetan hain usu biligarroa kantatzen entzuna nuen baserri hek berriz ikusi. » Eta Orhoitzapen horietako bizpahirur erranaldi ederrenetarik bat eztea haur: « Pika-belar usain arin goxo bat jalgitzen zen baba lilituekilako taulen ttipi batetik; etzizaikun batere aberriko haize xuriak ekharria, baina Ternuako haize basak, landare herritik urrunduekin loturarik gabe, orhoitaldi eta atseginezko adixkidantzarik gabe. Ederraren usainon ez hats-hartu hortan, haren baitan ez garbituan, haren hatzetan ez ihautuan, ozkorria, kulturara eta mundura aldatu hortan, baziren urrikien, hor ez izaitearen eta gaztaroaren gogoilundura guziak. » Literatura frantzeseko nagusi-lanetarik batek, Gérard de Nerval-en Sylvie-ak, badu, Combours-ek ari den Hilobiaz haraindiko Orhoitzapen-etako liburuak bezala, madalenaren gostuaren eta « biligarroaren gurguria »-ren mota bereko sendipen bat. Azkenik Baudelaire-ren baitan, orhoitaldi horiek, usuagoak oraino, ageriki gutiago ustegabekoak dira, eta beraz, ene ustez, baitezpadakoak. Poetak berak ditu, hautu eta auhertasun gehiagorekin, nahitara bilatzen, behazunez emazte baten usainean, haren adatseko eta bulharrekoan, « zeru neurrigabe 'ta biribilaren urdina » eta « portu bat garrez eta hagez betea » orhoit-araziko dauzkoten berdintasun gogo sustatzaleak.

Oinarritzat sendipen aldizkatu bat horrela duten Baudelaire-ren poesiez orhoitzea bilatuko nuen, ethorki hoin noble batean berriz jartzen bururatzeke, eta hortik haren hasteko duda-mudarik batere gehiago enuen lanak emanen naukon indarra merezi zuela nihuri segurtatzeko, noiz ere, liburutegitik jausten zen mailaldearen beherera heldurik, bapatez saloin handian gertatu bainintzan eta lehenago hetan izana nintzanetarik ontsa bertzelakoa idurituko zizatan besta baten erdian, eta enetako itxura berezi bat eta errannahi berri bat hartuko zituenen. Alabaina, saloin handian sartu nintzan orduko, nahiz beti azkar nadukan neure baitan, nintzan heinean, moldatu berria nuen xedea, ustegabeko zerbait gertatu zen ene lan-xedearen kontrako arrazoinetarik larriena jarriko zuena. Garhaituko nuen kontra-arrazoina zen dudarik gabe, baina, neure baitan ederlanak behar zuen ingurumenaz gogoeztatzen jarraikitzen nintzalarik, ene duda-arazteko egokiena zen ohar ehun aldiz errepikatuaren bidez, ene arrazoinamendua noiz nahi moztuko zuena.

Lehenbizian enuen gogoan hartu etxeko nagusiaren, gomiten eza-gutzeko zergatik zalantzan nindagon, eta zergatik bakoitzak « buru bat egina zuela » iduri zuen, gehienez pudratua eta osoki aldatzen zuena. Printzeak bazuen oraino gomiten hartzean lehen aldian aurkitua naukon mirazko errege baten itxura gozo hura, baina aldi huntan, gomitak hartzera bortxatuak zituen zeremoniaren menara bera ere emana zela iduri, bizar zuri batez bitxiki jantzia zen - muxtatxak zuriak zituen ere, Behatz-Tipi-ren oihaneko hormatik gelditua balizaie bezala; iduri zuten haren aho gogortua jenatzen zutela eta, behin efetua eginik, ekhendu behar ukanen zituen - eta berunezkoak bezalako zola batzu phizutzen zituzten oinetan herrestatuz, bazi-durien « Biziko Adin »-etarik baten itxuratzea bere gain hartua zuela. Egia erran enuen arrazoinamenduaren laguntzarekin baizik ezagutu, eta itxura batzuen eite xoiiletik jende bera zela ondorioztatuz. Eztakit Fezensac ttipiak aurpegian zer ezarria zuen, baina bertze batzuek zirituak zituztelarik, nork bizarraren erdia, nork muxtatxak bakarrik, hark, margo horietaz axolatu gabe, hatzemana zuen zimurdurez aurpegiaren, ile zutez bekainen estaltzeko bidea; hori guzia bertzela ere etzoakon ontsa, haren begitarteak gogortua iduri zuen, belztua, ospean jarria, horrek hainbaterano zuen zahartzen nun ezpaitzen batere mutiko gazte bat zela erranen. Ontsa ustegabetua izan nint-

zan ordu berean embaxadore muxtatx zilharreztatuekilako gizon zahar bat « Châtellerault-eko dukea » deitzen entzutean, haren baitan behako zati ttipitipi berdina gelditu batek bakarrik utzi baininduen aldi batez Villeparisis-ko Anderearen etxean ikustaldiz aurkitua nuen gizon gaztearen ezagutzera. Nor zen jakitera horrela heldu nintzan lehenbiziko jendean, jantziz aldatua izaita ez gogoan hartzera entseatuz eta orhoiteko indar batez naturalak gelditu itxuren osatzera, ene lehen gogamena haren gorestea izan beharko zen, eta behar bada zekunda bat baino ontsa gutiagoz hala izan zen, hain miragarriki thinduztatua izaitiaz, nun lehenbizian, hura ezagutu baino lehen, jokari handiek, jokagai batean berak direnetik bertzelakoak agertzen direnean, egitarauak abisatua izanik ere, esku zartetan hasi baino lehen ephe batez balditua gelditzen den publikoari eman-arazten daukoten zalantza hartan egoiten baitzen.

Alde hortarik, orotako ohi ez bezalakoena ene etsai berezia zen, Argencourt-eko Jauna, goizaldi hortan zinez ohargarriena. Etzuen bakarrik, bizar doidoia gatz-biphertuaren orde, xuritasun ezin sinetsi batekilako bizar bat bitxiki ezarria, baina oraino (hain dute gauzetako aldakuntza ttipi batzuek norbait ttipitzen ahal, edo gotortzen, eta gehiago oraino, haren itxura ageria, nortasuna aldatzen) errespeturik batere sustatzen etzuen eskale zahar bat zen gizon hura bilakatua, haren ospea, gogordura dorpea oraino ene orhoitean zirelarik, eta agure haurtu batena zuen itxurari halako egiatasuna emaiten zaukona nun soinadarrak daldarikatzen baitzizazkon, eta haren aurpegi ohian handikariko itxura laxatua ezpaitzen dohatsutasun ñuku batekin irriño egitetik gelditzen. Hein hortara eremanik, jantziz aldatzeko antzea gehiagoko zerbait bilakatzen da, nortasunaren bermoldatze oso bat. Alabaina, gauza ttipi batzuek segurta ahal zezataten Argencourt-ek zuela bada ikuskarri bitxi baino bitxiago eta margoztagarri hori emaiten, begitarte bateko zenbat izanara jarraikietarik enuen iragan behar ezagutua nuen Argencourt-ena berraurkitu nahi baldin banuen, hartarik hain ezperdina baitzen, menean bere soina baizik ez ukanez alta! Leher egin gabe ereman ahal ukana zuen azken muga zen ageriki; aurpegi urgoiena, soingoren zutiena etziren gehiago philda ahitu bat baizik, han-hemenka inharrosia. Haren goratasuna lehenago batzuetan ephe batez eztitzen zuten Argencourt-en irriño batzuez orhoitzean, hain usu ikusia nuena doi-doia zaitekeen egiazko Argencourt

horren baitan aurki, jantzi saltzale zahar guritu horren irriñoa bazela lehenagoko « gentleman » behar bezalakoa doi-doia zaitekeen har. Baina Argencourt-ek irriño egiteko xede bera zuela uste ukanez ere, haren aurpegiko aldatze mirazkoaren gatik, hori adi-arazten zuen begiko gaia bera hain zen ezperdina, nun itxura osoki bertzelakoa bilakatzen baitzen eta bertze norbaitena ere. Irri ero batek hartu ninduen xoro ezin ederrago haren aitzinean, bere buruaren marrazki trufari nahitara eginean, Charlus-ko Jaun aire gaitxoaz jo eta ikustateduna tragediako aran zen bezain gaizotua. Argencourt-eko Jauna, Labiche-ek soberakindu Regnard baten hilurrandu jostakinaren haragitze hortan, agurtzale bierartekoenaren aitzinean begiratuki buru-hasten zen errege Lear Charlus-ko Jauna bezain hurbil-errex, mintza-errex zen. Bizkitartean eskaintzen zuen ohigabeko ikuspenaz ene mirestearen hari erraiteko gogoia enuen ukan. Hori debekatu zautana etzen ene lehenagoko aihergoia izan, hain zuzen bere ganik hain ezperdina izaitera heldua baitzen nun bertze norbaiten aitzinean nintzalako lilluran bainintzan, Argencourt ohikoa mokor-burgoi, etsai eta lanjerosa zen bezain ongini, eztitu, lanjergabea. Hainbertzetarano bertze norbait, nun jende ezin erranezko moldean sinokari, irriegingarri eta zuri, Dourakine jeneral haurtu bat itxuratzen zuen elhurrezko giza-gaizo horren ikustean iduri baitzizatan gizakiak jasan ahal zezazkeela mamutxa batzuek bezain aldakuntza osoak. Ixtorio naturaleko museo baten berina erakaskarrien giblean mamutxa zaluena, bere itxuretan segurrena zer bilakatu ahal den so nindagola iduritzen zizatan, eta Argencourt-eko Jaunak beti emanak zauztan sendimenduak mamutxa-kuxku guri, higikari baino gehiago daldarari horren aitzinean enezazkeen sendi. Baina ixilik egon nintzan, enuen Argencourt-eko Jauna goretsi giza-soinaren aldakuntzak haien artean egin daitezkeen mugak gibelatzen zituela iduri zuen ikuskarri baten emaitiaz.

Orduan, antzoki-gibelune batean edo dantzaldi beztitu batean, ikustatez, jantziz aldatu jendearen ezagutzeko den nekearen handiegitzera gehiago ekharria izaiten da, abantzu ezin egina dela erraitera. Hemen, aldiz, asmu batek jakin-arazia zautan sendimendu horiek ahal bezainbat gorde behar nituela; sendi nuen lausengari denik gehiago jeus etzutela aldatzea etzelakotz nahitara egina, eta ohartu nintzan azkenean, saloin hortan sartzean gogoan ukana enuena, besta orok, den bezain xumea izanik ere, mundura

joaitetik gelditu ondotik luzaz berantago gertatzen denean, lehenago eza-gutu diren jende beretarik zenbait biltzen dituen ber, besta jantziz aldatu bateko iduripena emaiten dautzula, guzietan hobekienik eginarena, hartan bertze jendez zintzokienik « artegatua » izaiten dena, baina han buru horiek, berek nahi ukan gabe aspaldidanik eginak dituztenak, ez tirela, behin besta bururatu eta, ikuztaldi batez desegitera uzten. Bertzez artegatua? Ondikotz, guhaurek artegatzen baititugu ere. Ezen begitartetan behar zen izenaren ezartzeko sendi nuen neke bera iduri zen hor ziren jende guziek bazutela ere, ezpaitziren, enearen ikustean, ehoiz ikusia ukan ezpalute baino gehiago hartaz axolatzen, edo oraiko itxuratik bertzelako orhoitzapen baten agerr-araztera entseatzen baitziren.

Argencourt-eko Jauna heldu baldin bazen hartaz atxikiko nuen ikuspen bere irrigarritasun bitxian segurki ohargarriena zen «jokaldi» horren egitera, tauladara azken aldi batez sartzen den jokari bat bezala zen, irri karkailen erdian erridaua osoki erori baino lehen. Gehiago aiher ezpaldin banindakon, hori zen haren baitan, lehen adineko inozentzia berridirena baitzuen, nitaz ukanak ahal zituen ideia gaitzezlen orhoitzapenik batere gelditzen etzelakotz gehiago, Charlus-ko Jauna bapatez ene besoaren uzten ikusia ukanik orhoitzapenik batere, ala haren baitan sendimendu horietarik jeus ez izanez gehiago, ala horiek gutarano heltzeko soinean arrai zehartzale hain moldegaitz emailatarik iragaitera bortxatuak izanez nun bidez osoki aldatzen baitziren eta Argencourt-eko Jaunak ona iduri baitzuen, gaitza zela oraino erakusteko eta bere betiereko irritaldi gomitariaren gibelera atxikitze-ko gorputzean ahalik gabez. Jokari batez mintzatzea gehiegi zen eta, arima ohartu oroz gabetua baitzen, ile xurizko bizar falsu batekilako pampina osti-kari bat bezala nuen inharrosia ikusten, saloin hortan ibilia, giñol aldi berean jakitatezko eta filosofiazko batean bezala han, hil-pherediku edo Sorbonako ikastaldi batean bezala, aldi berean orotako ezteusaz orhoitzeko eta ixtorio naturaleko behazunetako baliatzen zen.

Pampina batzu, baina, ezaguna zenaren ezagutzeko hetan, gune bat baino gehiagotan behar zen aldi berean irakurri, haien gibeletik barnatasuna emaiten zauetenetan eta nork bere aitzinean agure ezteus horiek zituelarik gogoko indar baten egitera bortxatzen zutenetan, ezen, begiekin batean,

orhoitarekin haier so egitera bortxatua izaiten zen. Urtetako margo gorputz-gabetan mainan zauden pampinak, Aroa kampa agertzen zuten pampinak, ohian ezin ikusia den Aroa, ikusia izaiteko gorputzak bilatzen dituen eta, aurkitzen dituen leku orotan, hetaz jabetzen baita hetan bere mirazko lanternaren erakusteko. Lehenago Combray-ko ene gambaran Golo atheko bo-toinean bezain gorputz-gabea, Argencourt berria eta hain ezin ezaguna hor zen Aroaren agertzalea bezala, zatiz ikuskarri egiten baitzuen. Argencourt-eko Jaunaren aurpegia eta nortasuna moldatzen zituzten gauza berrietan, urte zenbaki bat irakurtzen zen, biziaren itxurazko iduri berezia ezagutzen ez agertzen zaikun bezala, erran nahi da betikoa, baina egiazkoa, giro hain aldakorra nun hartan jaun burgoia trufa-marrazkitan itxuratzen baita, arrat-sean, jantzi saltzale bat bezala.

Bertze jende batzuetan, aldakuntza horiek, egiazko galpen horiek ixtorio naturaletik jalgitzen zirela iduri zuten, eta ustegabetzen zen, izen baten entzutean, jende ber batek erakuts ahal zitzan, ez Argencourt-eko Jaunak bezala bertzelako mota berri baten berezitasunak, baina bertze jite mota baten itxura ageriak. Argencourt-eko Jaunarendako bezala, ustegabeko gertakizun batzu zituen bada aroak nexka gazte baten baitan bilduak, baina gertakizun horiek, nahiz guziak begitartekoak edo gorputzekoak, moraleko zerbait bazutela iduri zuten. Aurpegia badagitenek, aldatzen badira, bertze molde batean biltzen, ohiki molde baratzago batean arautuak badira, hartzen dute, bertze itxura batekin, erran-nahi bat ezperdina. Hala nola nun gogoia hertsia eta idor ezagutua zen emazte bati, haren baitan ezin ezagunak bilakatu mateletako zabaltze batek, sudurreko makotze aitzinetik ezin asmagarri batek emaiten baitzaukoten, hitz sendikor eta barnatu baten, haren ganik ehoiz igurikatuko etzen egintza kuraiadun eta noble baten ustegabetze bera, ainitzetan ustegabetze on bera. Sudur berri horren inguruan, zabaltzen ikusten ziren uste ukaitera menturatuko enintzan itxurapen batzu. Onezia, xamurtasuna, lehenago ezin izanak, matela horiekin izan ahalak bilakatzen ziren. Bidar horren aitzinean lehengoaren aitzinean erraitea gogoan ehoiz ukanen etzena entzun-araz zaitekeen. Aurpegiko itxura berri horiek guziek nortasuneko bertze batzu asma-arazten zituzten; nexka gazte idor eta mehea atso-alhargun zabal eta barkakor bat bilakatua zen. Etzaitekeen gehiago, Ar-

gencourt-eko Jaunarendako bezala ihizietako erran-nahi batean, baina erran-nahi gizarteko eta moraleko batean, bertze norbait zela erran.

Alde guzi horietarik, han nintzan bezalako goizaldi bat iraganeko iduri bat baino zerbait biziki baliodunago zen, baina eskaintzen zauztan oraia iraganetik berezten duten iduri jarraiki guziak, eta nehoiz ikusiak enituenak bezalakoak, hobeki oraino, oraiaren eta iraganaren artean bazen araua; lehenago argi-jakintzako ikuspena zeritzotena bezala zen, baina urtetako ikuspen bat, ordu bateko ikuspen bat, ez Aroko itxurapen moldez aldatzalean jarria den jende batena.

Argencourt-eko Jauna maitale ukana zuen emazteaz den bezainbatean, etzen biziki aldatua, iragan aroa gogoan hartzen baldin bazen, erran nahi da haren begitarte etzela bere bide guzian hara egotzia den lezean moldegaizten den norbaitenarenera aldatuz osokiegi barreatua, leze hori nora doan ezpaitezagu erkidapen berdin debaldeko batzuen bidez baizik erran, horiek eremuko munduari baizik hartzen ahal eztitauzkogunaz geroz, eta, goititzeko aldera, luzatzekora ala barnatzekora eman ditzagun, abantail bakarretako neurri ezin asmagarri eta sendigarri hori badela guri sendi-araztea baitute. Itxurer izen baten emaiteko urtetako zerrendan goiti joan behar ukaiteak bortxatzen ninduen, kontra egitez, berriz gero, bere egiazko lekua emanaz, gogoan ukanak enituen urten jartzera. Ikuspegi hortan, eta eremuaren izaite ageriaz bairatzera neure buruaren ez uzteko, Argencourt-eko Jauna bezalako norbaiten itxura osoki berria ohiki gogo hutsekoa gelditzen zaikun urteko egia horren agerpen ohargarri bat zizatan, zuhatz ñaño ala gaitzeko baobab batzuen agertzeak lurringuru zutez aldatzea jakin-arazten daukun bezala.

Bizia orduan agertzen zaiku egitaldiz egitaldi ñiña gazte, gizon adineko bilakatzen eta hilobira gurtzen ikusten den mirazko ikuskarria bezala. Eta betiereko aldakuntza batzuen bidez baita urruntasun aski handi batzuetan hartu izaite horiek hain ezperdinak direla ikusten, senditzen da, izaite-tik gelditu gabe, izaitetik gelditu eztirelakotz hain zuzen, elgarren iduririk ez ukaiterano moldez lehenago ikusiak ditugunetik hainbertze aldatu diren gauza horien lege berari jarriki girela.

Lehenago ezaguna nuen emazte gazte batek, orai zuritua eta atso gaizkor batera hautsia, iduriz erakusten zuen, antzerti bateko azken libertimenduan, jendek ezin ezagutuak izaiterano jantziz aldatuak izan zaiten beharrezkoa zela. Baina haren anaia hain zut gelditua zen, beti hain bere idurikoa nun bere begitarte gaztean muxtatx ontsa goititua zurira alda-arazia ukan zezan ustegabetua izaiten baitzen. Bizar ordurano osoki beltzen zati zuriek goizaldi hortako jenden ikustea gogoilungarri egiten zuten, ustez uda luze bat igurika zaitekeelarik oraino zuhatzen lehenbiziko orsto horituek bezala, eta hartaz gozatzen hasi baino lehen jadanik larrazkena dela ikusten denean. Orduan ni, haurzaroaz geroztik, egunetik egunera bizi nintzana, bertzela ere nihauren ganik ala bertzetarik behin betiko iduripen bat hartua ukanik, hauteman nuen lehen aldikotz, jende horietan orotan gertatuak ziren aldakuntzetarik, haiendako iragana zen aroa, horrek zentzordatu baininduen enetako ere iragana zelako agerpenaz. Eta haien zahartasunak, berez orobat zizatanak, nihaurenaren hurbiltzeaz gaztiatuz lastimatzen ninduen. Hau, gainera, oihukatua izan zizatan, bat bertzearen ondotik Judizioko trompetek bezala minuta zenbaitez artekaturik jo ninduten elhe batzuez. Lehenbizikoa Guermantes-ko dukesak errana izan zen; ikusi berria nuen, haien baitan eragin bazuten ezthetika eta aphainketako amarru miragarriak ohartu gabe, buru gorrail, dentela beltzeko bere hegaletarik doi-doia agerian zen gorputz izokin-arako eta joieriaz itho haren aitzinean hunkiak hari so zauden ikusle lerro bikun baten erditik iragaiten, Guermantes-ko familiaren Jainu begiralea hartan itxuratzen zen arrain zahar sakratu, harrieriaz estali zenbaiten aitzinean egina ukanen zuten bezala. « Ha! zer bozkarioa zure aurkitzeaz, ene adixkide zaharrena », erran zautan. Eta nehoiz ordu batez ere haren adixkidetarik batendako, Bréauté-ko Jauna, Forestelle-ko Jauna, Zuan, hilak ziren guziak bezala Guermantes-tarren etxean zeramaten bizi mixteriozkoan zinez barne zenarendako hartua ahal enintzan Combray-ko mutiko gazte baten neure alderako amodioan, hortaz lausengatua izaiten ahalko nintzan, zorigaitzean nintzan oroz gainetik. « Haren adixkide zaharrena! egin nuen neure baitan, sobera air da; zaharrenetarik bat behar bada, baina ote niz... » Orduan printzearen iloba bat hurbildu zizatan: « Zu Paristar zahar bat zirena, » erran zautan. Ephe bat berantago hitz bat eman zautaten. Ethort-

zean Létourville gazte bat aurkitua nuen, dukesarekilako haren ahaidegoaz ontsa orhoitzen enintzana, baina apur bat ezagutzen ninduen. Saint-Cyr-tik athera berria zen, eta, Saint-Loup izana zen bezala lagun gixako bat izan zaitekeela erranez neure baitan, jasanak zituen aldapenen ondotik armadako gauzez argituko ahal ninduen, sarri berriz aurkituko nuela errana naukon eta elgarrekin auhaltzeko hitzartuko ginela, hortaz biziki eskertua baininduen. Baina sobera luzaz egona nintzan liburutegian ametsetan eta enetako utzia zuen hitz ttipia ezin igurikatua ninduela erraiteko zen, eta bere helbi-dea uzten zautan. Lagun amestu horren eskutitza hunela bururatzen zen: « Zure adixkide ttipiaren errespetu guziarekin, Létourville ». « Adixkide ttipia! » Horrela nuen nik baino hogeita hamar urte zituzten jender lehenago izkiriartzen, Legrandin-i behazunez. Nola! Saint-Loup bezala ene lagunetako asmatzen nuen azpi-lotinanta, ene adixkide ttipia erraiten zen. Baina beraz etziren bakarrik armadetako arak geroztik aldatuak zirenak, Létourville-ko Jaunarendako enintzan beraz lagun bat, baina jaun zahar bat; eta Létourville-ko Jaunaren ganik, haren ondoan asmatzen nintzalarik, ni, nihauri agertzen nintzan moldean, lagun on bat bezala, gogoan ukana enuen bipunttako ezin ikusi baten artekaz baztertua nintzana bada eta azpi-lotinant gaztetik hain urrun ezartzen ninduenaz nun iduri baitzuen, ene « adixkide ttipia » erraiten zenarendako, jaun zahar bat nintzala?

Ondotik abantzu berehala norbait Bloch-ez mintzatu zen, galdegin nuen mutiko gazteaz zenez ala aitaz (ezpainuen haren hiltzea jakina, gerla demboran, bihotz-hunkiduraz, zuten errana, Frantzia etsaiak hartua ikusiz). « Haurrak bazituela enakien, ezkondua zela ere ez, erran zautan printzeak. Baina ageriki aitaz ari gira, mutiko gaztearenik deus ezpaitu, gaineratu zuen irri eginez. Berak ja gizonak lizatezkeen semeak ukan ahal lezazke. » Eta ene lagunaz ari zela hartu nuen. Ephe baten buruan sartu zen bertzela ere. Eta alabaina Bloch-en aurpegian ikusi nituen bat bertzearen gainean jartzen itxura ahul eta aburu emaille hura, bere geldigunea berehala aurkitzen zuten buru higitze hek, eta hetan agure gixakoen akhidura jakintsuna ezagutuko nuena, ezpanu bertze alde batetik ene aitzinean adixkidea ezagutu, eta ene orhoitzapenek ezpalute orai gabetua iduri zuen alaitasun gazte 'ta ethengabe hartaz bizi-arazten. Enetako bizian sartzean ezagutua nuena eta ikustetik

ehoz gelditua enintzana, laguna zen, haren gaztetasuna nihauri ohartu gabe emaiten nautanetik, ordutik bizi izana nintzala uste ukan gabe, neurtzen nuen mutiko gazte-gazte bat. Bere adina ontsa emaiten zuela erraiten entzun nuen, ustegabetua haren aurpegian gizon jadanik zahartuen ezagugarria diren seinaletarik batzuer ohartzeaz izan nintzan. Alabaina hala zela hartu nuen eta urte andana aski handi bat irauten duten gaztetarik dituela biziak zaharrak egiten.

Norbaitek, eri nintzala erraiten entzutean, orduan bazabilan gripa har nezan beldur enintzanez galdegin zuen, bertze batek berehala segurtatu ninduen erranez: « Ez, horrek hartzen ditu izaitekotz jende oraino gazteak. Zure adineko jende ez tute gauza handirik irriskatzen. » Eta sehiak bada eza gutua nindutela baieztatu zen. Ene izena ahapetik errana zuten, eta ere « bere hizkuntzan », erran zuen andere batek, entzunak zituen erraiten: « Horra ... aita »; hitz hori ene izenaz lagundua zen eta, haurrik ezpainuen, etzizakokeen adinari baizik eratxik.

« Nola, marexala ezagutu dutanez? erran zautan dukesak. Baina inguru ontsa zabalagoko jende batzu ezagutu ditut, Galliera-ko dukesa, Périgord-eko Pauline, Enejaun Dupanloup. » Haren entzutean, erresuma zaharreko ondar bat deitzen zuena ez ezaguturik xintxoki urriki ukan nuen. Gogatu behar ukanen nuen erresuma zaharra deitzen dela haren azkena baizik ezagutu ahal eztena; horrela du urrunean ikusten dugunak mixteriozko handitasun bat hartzen eta gehiago ikusiko eztugun mundu baten gainera berriz hesten dela iduritzen zaiku; aitzinera egiten dugu bizkitartean, eta laster guhaur gira urrunean giblean ditugun gizaldiendako; artean hedoiertzea gibelatzen da, eta mundua, bururatua iduri zuena, berriz hasten. « Ikusi ahal ukan dut ere, nexka gazte nintzanean, gaineratu zuen Guermantes-ko Andereak, Dino-ko dukesa. Badakizu, bada, eztitutala gehiago hogeita bortz urte. » Azken hitz horiek gaitzitu ninduten: « Hori eluke erran behar, emazte zahar batendako on lizateke. » Eta berehala gogoan ukan nuen alabaina emazte zahar bat zela. « Zu aldiz, gaineratu zuen, zu beti bera zira. Ba, erran zautan, ustegabegarri zira, beti gazte gelditzen zira », erran-molde hainbat gogoilungarria, erran-nahirik eztuenaz geroz, egiazki, itxuraz ezpada, zahartuak baldin bagira baizik. Eta azken ukhaldia eman zautan gaineratuz: « Beti

urriki ukan dut ezpaitzira ezkondu. Orogen buruan, nork daki, hobe da behar bada. Gerlan seme batzuen ukaiteko adinean izanen zinen, eta hilak izan balire, Robert gaixo hura izan den bezala (ainitzetan oraino gogoan dut), sendikor ziren bezala, haien ondotik etzinuen bizirik iraunen. » Eta neure burua ikusi ahal nuen, aurkitua ukanen nuen lehenbiziko mirail egiatian bezala, zahar batzuen begietan, bere ustez gazte geldituenetan, nihaurek neure buruaz uste nuen bezala, eta, ene izena emaiten nauenean, zahar nintzalako gezurtatze baten entzuteko, berak ikusten ziren bezala ikusten ninduten soetan, ezeste bakar bat etzutenetan. Ezen guharen itxura, gure adinak ezkituen ikusten, baina bakoitzak, kontrako mirail batek bezala, bertzearenak ikusten zituen. Eta dudarik gabe, zahartu direla aurkitzean, jende ainitz ni baino gutiago trixte izanen ziren. Baina lehenik zahartasunaz herioaz bezala da. Batzuek axolagabea hartzen dituzte, ez bertzek baino kuraia gehiago dutelakotz, baina idurimen gutiago dutelakotz. Gero, haurzarotik ideia ber bat buruan duen gizon bat, bere auhertasunak berak eta osagarriak ere, egintzak ethengabe gibela-araziz, egun oroz iragan egun galdua ezabatzen daukotena, hala nola nun gorputzeko zahartzea aitzinatzen daukon eritasunak izpirituko gibelatzen baitauko, Aroan bizitzetik gelditua dela ikustez ustegabetua da eta zentzordatua, bere baitan guti bizi den, egutegian arautzen den, eta haien emendatzeari egunetik egunera jarraiki den urteak oro aldi bakar batez aurkitzen eztituena baino gehiago. Baina arrazoin larriago batek argitzen zuen ene antsia; Aroaren lan hondatzale hori aurkitzen nuen arotik kampoko gauza batzu agerian ezarri, ederlan batean adimeneratu nahi nuen orduan.

Jende zenbaiten baitan bertze batzuez zelula bakoitzaren ordaintze jarraikiak, baina nik ikusi gabe eginak, aldakuntza bat hain betegina, hain osoa ekharria zuen, nun ostatu batean ehun aldiz haien aitzinean auhaltu ahalko bainintzan lehenago ezagutuak nituela gogoari eman gabe, ezaguna izan nahi eztuen monarka baten erregetasuna edo ezagutzen enuen norbaiten bizioa asmatu ahalko nuen baino gehiago. Gomparatzea eskasa ere bilakatzen da haien izena entzuten baldin bada, zure aitzinean jarria den ezezagun bat gaixtagin ala errege izan dadin onhar baitaie, hek aldiz ezagutuak nituelarik, edo izaitekotz haien izena zuten jende batzu ezagutuak, baina hain ezperdinak nun hek berak zirela ezpainezakeen sinets. Alta, nagusitasu-

neko edo bizioko ideiaz egina ukanen nuen bezala - ezagutzen eztenari begitarte berri baten emaiteko ezpaita berantzen, harekin, begiak oraino estaliak zirelarik, ozar ala amultsu izaiteko behargabea hain errexki egingen baitzen, eta haren aurpegi berean orai zerbait aphain ala dudazko ikusten baita -, ari nintzan orai emazte ez ezagunaren, osoki ez ezagunaren itxuran, Sazerat Anderrea zelako ideiaren sartzen. Eta azkenean begitarte horren zentzu lehenago ezagutua berriz jartzen nuen, baina enetako zinez arrotzurik geldituko zena, ezagunak nituen berezitasun gizatar guziak, zimino bilakatu gizon batek bezainbat, galdu dituen bertze norbaitena osoki, izenak eta nor zen erraiteak ezpanindute, gauzak zail zuen guzia ukana gatik, argitzeko bidean ezarri. Batzuetan alta lehenagoko iduria berriz sortzen zen gomparatze baten egitera entsea ahal nindadintzat aski argi; eta ikusia duen ogendatu baten aitzinean ezarri den lekuko bat bezala, bortxatua nintzan, hain zen ezperdintasuna handia: « Ez... eztut ezagutzen » erraitera.

Saint-Loup-eko Gilberte-ek erran zautan: « Nahi duzua bi-biak joan gaiten ostatuan auhaltzera? » Ihardesten bainuen: « Mutiko gazte batekin bakarrik auhaltzera jitea ezpazaizu irriskagarri iduritzen », ene inguruan jende guzia irriz ari zela entzun nuen, eta lehiatu nintzan gaineratzera: « edo izaitekotz gizon zahar batekin ». Sendi nuen irri egin-arazia zuen erranaldia amak, harendeko beti haurra nintzan amak, nitaz mintzatzean, erranen ahal zituenetarik zela. Ohartzen nintzan bada neure buruaren jujatzeko haren ikuspegi berean jartzen nintzala. Hark bezala gogoan hartuak baldin banituen azkenean ene haurzaro lehenaz geroz eginak ziren aldatze batzu, aldatze orai biziki urrunduak ziren hala ere. Ordu batez, egintza abantzu aitzinduz: « Orai abantzu mutiko gazte handi bat da » erran-arazia zuen hartan gelditua nintzan. Hori nuen oraino gogoan, baina aldi huntan gaitzeko berantze batekin. Enintzan zenbat aldatua nintzan ohartzen. Baina, egiaz, hek, irri karkaila egin berria zutenak, hortaz zertarik ohartzen ziren? Ile urdin bat enuen, ene muxtatxa beltza zen. Gauza laztagarri hori zertan agertzen zen galdegin nahiko nauen.

Eta orai hartzen nuen zahartasuna zer zen - biziko gauza guzietan behar bada gehienik hartaz ideia garbiki huts bat luzazenik atxikitzen dugun zahartasuna, egutegier behatuz, gure eskutitzak egunkatuz, adixkideak

ezkontzen ikusiz, adixkideren haurrak, gogoan hartu gabe, ala beldurrez, ala auherkeriaz, horrek zer erran nahi duen, ezagutzen ezten itxura bat ikusten dugun egunerano, Argencourt-eko Jaunarena bezalakoa, mundu berri batean bizi girela erakusten baitauku; gure adixkide andere baten semabitxiak, ohartu gabean laguna deituko ginuen mutiko gazteak, irriño bat egiten duen egunerano, hartaz trufatzen bagine bezala, aitatxi bat bezala agertuak gitza-zkolarik. Herioak, maitasunak, izpirituko bozkarioek, oinazearen balioak, deiak eta gainerakoek zer erran nahi zuten hartzen nuen. Zeren izenek bere berezitasunetik galdua baldin bazuten enetako, hitzek bere erran-nahi osoa agertzen zautaten. Idurien edertasuna gauzen giblean dago, ideiena ait-zinean. Hala nola nun lehenbizikoa gure mirestetik gelditzen baita hetera helduak girenean, baina bigarrena ezpaita urrunago joanak girenean baizik gogoan hartzen.

Dudarik gabe egin berria nuen aurkintza bortitza etzizatan baliagarri baizik izanen ahal ene liburuko gaiari berari zoakonean. Deliberatua nuen alabaina etzaitekeela iduripen egiazki beteak zirenez bakarrik egina izan, arotik kampo daudenez; beraz haiekin josi nahi nituen egien artean, aroari, gizonak, gizarteak, erresumak hartan mainan dauden eta aldatzen diren aroari daudenek, leku handi bat ukanen zuten. Enintzan jenden itxurak jasaiten dituen eta minuta oroz behazun berriak banituen aldatzer leku baten emaitiaz bakarrik axolatuko, ezen ene lana gogoan nindagon batean, libertimendu iragankor batzuez baztertzer ez uzteko aski segurki abiatua baitzen, ezagutzen nituen jender egunon erraiten eta haiekin solastatzen jarraikitzen nintzan. Zahartzea, bertzela ere, etzen guziendako molde berean agertzen. Norbait ikusi nuen ene izenaren galdegiten, Cambremer-ko Jauna zela erran zautaten. Eta orduan ezagutua ninduela erakusteko: « Badituzua beti zure hats-behartzeak? » galdatu zautan; eta, ene baiezkoko erantzunean: « Ikusten duzu eztuela horrek adin luzea debekatzen », erran zautan, zinez ehun urtekoa baninz bezala. Ene orhoitzapenen bateratze hortan gogoaz sarr-arazten ahal nituen bizpahirur gauzetan - gaineratekoan osoki bertzelekoa baitzen - eta haren izena emaiten nauenetan begiak loturik mintzatu nindakon. Baina ephe batez burua erdi itzuli zuen. Eta orduan ikusi nuen ahoaren eta begien osoki idekitzea debekatzen zaukoten mateletako sakela gorri gaitzeko

batzuez ezin ezaguna bilakatua zela, hala nola nun zozotua egon bainintzan, lehenik hark aipha zezatan egokiago iduritzen zizatan handitsu mota horri so egitera ezin ausartuz. Baina eri kuraiadun batek bezala, etzuen aiphatzen, irriz ari zen, eta ez galdeginez bihotzez eskasa iduritzeaz beldur nintzan, eta zer zuen galdeginez ikustatez. « Baina adinarekin etzaizkitzu bekanago jiten? » galdatu zautan, hats-behartzez mintzatzean jarraikiz. Ezetz erran naukon. « Ha! ba, ene arrebak lehenago baino ageriki gutiago ditu », erran zautan kontra-egiteko doinu batekin enetako haren arrebarendako bezala izaiten ahal ezpaliz bezala, eta adina, Gaucourt-eko Andereari on egina zukote-nean, osagarriko onak izan etzaizkitan onhartzen etzuen erremedioetarik bat baliz bezala. Legrandin-Cambremer-ko Anderea hurbildurik, haren senarraren begitartean ikusten nuena ez deitoratuz ez sendikor iduritzeaz gero eta gehiago beldur nintzan eta enintzan bizkitartean hortaz lehenik mintzatzera ausartzen. « Haren ikustez atsegin duzu? erran zautan. - Ontsa da? ihardetsi nuen doinu dudazko batean. - Baina gure Jainkoa, ez gaizki, dakusazun bezala. » Ene soa joiten zuen gaitz hortaz etzen ohartua, Aroaren masketarik bat baizik etzenaz eta hunek markesaren begitartean ezarria zuenaz, baina apurka apurka, eta hain emeki hantuz nun markestsak jeus ezpaitzuen ikusia. Cambremer-ko Jaunak ene hats-behartzeaz galdeak bururatuak ukan zituenean, ene aldia izan zen markesaren ama bizi zenez apha-aphala norbaiti berri galdegiteko. Alabaina, iragan aroaren estimatzeko, ezta lehen urhatsa baizik gostatzen. Bihotzmin ainitz senditzen da lehenik hainbertze dembora iragan dela eta gero eztela gehiagokorik iragan gogoari emaiten. XIII-garren mendea hain urrun dela choiz etzen gogoan hartua, eta gero neke da oraino XIII-garren mendeko elizek iraun ahal dutela sinestea, ezin zenbatuak diralarik alta Frantzian. Ephe zenbaitez nitan eginik izana zen, gazte ezagutu duten norbaitek hiruretan hogeit urte dituela nekez harturik, hamabortz urte berantago, oraino bizi dela eta hiruretan hogeita hamabortz urte baino gehiago eztuela jakitean neke gehiago oraino dutenen baitan egiten den lan baratzago hura. Cambremer-ko Jaunari galdegin naukon ama nola zuen. « Beti miragarria da », erran zautan, ahaide zahartuak urrikirik gabe erabiltzen dituzten leinuen kontra moldez, familia batzuetan zahar batzuer emaiten zaien izenlagunaz baliatuz, hetan dohain naturalenen erabiltzeak, hala nola

entzuteak, oinez mezara joaiteak eta sorgortasunekin doluen jasaiteak, hartzen duenean, haien haurren begietan, ohigabeko edertasun moral bat.

Emazte batzuek bere zahartasuna aithortzen baldin bazuten aurpegia thinduztatuz, thindu gabetik argiki agertzen zen aldiz nehoiz ohar-tua enindakon gizon batzuenean, eta hala ere ontsa aldatuak iduritzen zizaztanak, gustatzearen bilatzeaz etsiturik, thindua utzia zuten z geroztik. Horietan zen Legrandin. Ezpain eta mateletako gorrahtaren uzteak, falsua zelako aierurik behin ere ukana enuenak, bazemon haren aurpegiari harriaren itxura hauskarakoa eta ere xorroxtasun zizeldurakoa. Galdua zuen ez bakarrik bere buruaren thindatzeko kuraia, baina ere irriño egitekoa, soaren dirdira-araztekoa, hitzaldi antzetsu batzuen egitekoa. Hain hits, hain aurdikia ikustean ustegatzen ziren, etzuelarik (mahietan) deitzen diren hilek diotenen ezteusa zuten elhe bekan batzu baizik erraiten. Galdez egoiten ziren hea zerk zaukon erne, mintzale eder, goxagarri izaitea debekatzen, galdez egoiten den bezala bizi zeno disdiratua zen gizon baten « berdin-berdin » ezteusaren aitzinean eta izpiritixta batek egiten dauzkonean bizkitartean hedamen xoragarri batzuetara ereman lezaketen galde batzu. Eta erraiten zen Legrandin margodun eta zalua Legrandin-en itxurapen hits eta trixte batez ordainkatua zuena, zahartzea zela. Batzuen baitan ileak ere etziren zurituak. Horrela nuen bere nagusiari hitz baten erraitera jin zenean Guermantes-ko printzearen gambarako mutil zaharra ezagutu. Haren matelak burua bezainbat lazten zituzten ile harroak gorrahtara bazeman gorri batekoak geldituak ziren eta Guermantes-ko dukesa bezala thindatzen zelako aierua ezin ukan zaiteken. Baina etzuen hortako gutiago zahar iduritzen. Sendi zen bakarrik gizonetan badirela, landaretan goroldioak, likenak eta bertze hainbertze bezala, negu hurbiltzean aldatzen eztiren mota batzu.

Bertze batzuek, begitartea garbi zutenak, urhats egin behar zutenean trabatuak iduri zuten bakarrik; uste zen lehenik zangoetan min zutela, eta etzen gero baizik hartzen zahartzeak berunezko zola batzu ezarriak zauezteela. Bertze batzu edertzen zituen, hala nola Agrigente-ko printzea. Gizon luze, mehe, behako hits, betiereko gorrailak egon behar zutela iduri zuten ilekilakoari jarraikia zizakon, mamutxena bezalako aldakuntza batez, haren baitan ile gorriak, luzazegi ikusiak, mahiko tapiza sobera erabili bat bezala, ile

zuriez ordainduak izanak zirena. Haren bulharrak hartua zuen ustegabeko loditasun bat, azkarra, abantzu gerlaria, eta ezaguna nuen mamutxa-kuxku erpilaren egiazko zapartatze bat ukan beharra zukeena; begiak mainan zauden beraz jakina zen larritasun batean, bakoitzaren gana gurtzen zen onginahi berri batez nahasian. Eta, hala ere, oraiko printze boteredunaren eta ene orhoitak hartaz bazadukan itxuraren artean eite bat gelditzen baitzen, Aroak zuen berritzeko indar berezia miresten nuen, baitaki, izaitearen batasuna eta biziko legeak errespetatzen dituen batean, aphainduraren horrela aldatzen eta jende ber baten bi itxura jarraikien artean kontra-molde azkar batzuen sartzen; ezen jende horietan ainitz, berehala ezagutzen ziren, baina bere portret aski gaixto batzu bezala erakustaldi bateko bilduak, han edergile zuzentasun gabe eta gaizki nahi batek norbaiten itxura gogortzen duenean, andere huni larruko frexkoa edo gerriko arina ekhentzen, soa iluntzen. Iduri horiek ene orhoiteko begietan nituenekin erkidatuz, azkenik erakutsiak zizaztanak gutiago maite nituen. Adixkide batek hetan hautatzea galdegin dautzun argazkietarik bat gutiago ona aurkitzen denean eta onhartzten eztenean bezala, jende bakoitzean eta bere buruaz erakusten zuen iduriaren aitzinean erran nahiko nuen: « Ez, hori ez, gutiago ontsa zira, etzira zu. » Enintzan ausartuko gaineratzera: « Zure sudur eder zuzenaren orde nehoiz ezaguna eztautzutan zure aitaren sudur makoa egina dautzute. » Eta alabaina sudur berri bat zen eta familiakoa. Hots edergileak, Aroak, modela horiek oro halako moldez « emanak » zituen nun ezagugarri baitziren; baina etzuten itxura bera, ez edertuak zituelakotz, baina zahartuak. Edergile horrek, bertzela ere, lana biziki baratza du. Horrela Odette-ren aurpegiko iduri hori, Bergotte lehen aldikotz ikusia nuen egunean, Gilberte-ren aurpegian haren lehen lanekai doi-doia hasia ikusia bainuen, Aroak eite beteginerano eremana zuen azkenean, lan bat luzaz badatxikaten eta urtetik urtera osatzen duten margolari hek bezala.

Batzuen baitan, heltzen nintzan azkenean ez bakarrik haien beren ezagutzera, baina lehenago ziren bezala, eta behazunez Ski idortu den lore edo udare bat baino ez gehiago aldatua. Entseu molde gabe bat zen, ederlandeko ene teoriak baieztatzen zituena. (Besotik hartzen nau: « Zortzi aldiz entzuna dut eta b... ») Bertze batzu etziren batere ederlan maitaleak, munduko jendeak ziren. Baina hek ere, zahartasunak etzituen zohituak eta,

lehenbiziko zimur inguru batez eta ile zuri uztai batez inguratzen bazen ere, haien pampina begitarreak bazatxikan hemezortzi urtetako alaitasuna. Etziren zahar batzu, baina hemezortzi urteko gazte ezin gehiago zimeldu batzu. Biziako zimeldura horien ezabatzeko gauza guti aski izanzen zen, eta aurpegi bati gaztetasunaren itzultzeko etzuen herioak, zoldadura apur batek lehengo dirdira debekatzen daukon potret baten garbitzeko behar den baino neke gehiago ukanen. Aitzinetik haren onezian, zuzentasunean, arimako eztitasunean sinesten dugun agure aiphatu batez mintzatzen entzutean bairatuak giren lilluramendua gogoan nindagon beraz; berrogei urte lehenago, hantukeria, falsutasuna, burgoikeria eta amarruak etzituztela atxikiak uste ukaiteko arrazoinik batere etzen gizon gazte izigarri batzu izanak zirela sendi bainuen.

Eta bizkitartean, hauekin kontra-molde osoan, ukan nuen gizon eta emazte batzuekin solastatzeko ustegabea, lehenago ezin jasanak, eta apurka abantzu akats guziak galduak zituztenak, biziak, haien gutuziak bairatuz edo asez, haien handi-ustekieratik edo gogo saminetik zerbait ekhendua balae bezala. Gudua edo ageri-nahia beharrezkoa gehiago egiten eztautzun ezkontza aberats batek, emaztearen eraginak berak, gazteria arin batek sineste bakarrik hetan duenatarik bertze mereximendu batzuen ezagutza emeki bilduak, utziak zituzten bere jitearen eztitzera eta gaitasunen erakustera. Horiek, zahartzean, bertzelako nortasun bat bazutela iduri zuten, larrazkenak, haien margoak aldatuz, motaz aldatzen dituela iduri duten zuhatz batzuek bezala: hetan zaharrarena ageri zen egiazki, baina moraleko gauza bat bezala. Bertze batzuen baitan gorputzekoa zen izaitekotz, eta hain berria nun jendea (Arpajon-go Anderea behazunez) iduri baitzizatan aldi berean ezezaguna eta ezaguna. Ezezaguna, hura zelako aierurik ukan ezpainezakeen; eta ez nahi ukanik ere, haren agurrari ihardestean, enintzan egon ahal izan hiruzpalaurre jenden artean (Arpajon-go Anderea etzen hetan) zalantza-arazten ninduen gogoko indarra erakustera utzi ahal gabe, nori emaiten naukon jakiteko bertzela ere ustegabetu zukeen berotasun batekin, ezen dudan, adixkide min bat baldin bazen hotzegi izaiteaz beldur, soaren ezpaia esku tinkatzearen eta irriñoaren beroaz ordaindua nuen. Baina bertze aldetik, haren itxura berria etzizatan ez ezaguna. Ene bizian ainitzetan emazte azkar adineko batzuer ikusia nauena zen, baina uste ukan gabe orduan, urte ainitz lehenago, Arpajon-go Anderearen eite ukan zezakeela. Itxura hori ezaguna naukonetik

hain zen ezperdina nun kondenatua zela erranen baitzen, mirazko ikuskarri bateko jende bat bezala, lehenik nexka gazte agertzera, gero atso lodi, eta dudarik gabe laster atxo xahar daldaratu eta konkortu. Iduri zuen, ur bazterra urrun handi batean baizik gehiago ikusten eztuen igerikari phizu batek bezala, gainditzen zuten aroko uhainak nekez gibela-arazten zituela. Apurka apurka bizkitartean, haren aurpegi duda-mudakoari, lehengo moldeak gehiago atxik etzezazkeen orhoit trahitzale bat bezala segurtasun gabeari so egin bortxaz, hartarik zerbaiten berraurkitzera heldu nintzan, haren mateler adinak gaineratuak zezteen laurkoen, sei-izkinetakoen baztertzeko joko ttipiari emanek. Bertzela ere, emaztenetan nahasten zituenak etziren bakarrik geometriako iduri batzu. Guermantes-ko dukesaren matela hain berdinak gelditu eta bizkitartean orai nukata bezain nahastekatuetan, berexi nituen berde-gris hatz bat, maxkur xehatuaren gorraxta zatiño bat, zer zen jakitea neke zen hantura bat, mihula pikor bat baino ttipiagoa eta berinazko perla bat baino gutiago argala.

Gizon batzu maingu ziren: sendi zen bada etzela karrosa ixtripu zenbaiten ondorioz, baina lehenbiziko odol ukhaldi baten gatik eta jadanik, erraiten den bezala, zango bat hil-hobian zutelakotz. Erdi-idekia zuten berean, emazte batzuek, abantzu herbailduak, iduri zuten etzezaketela ehorz-lekuko harrian loturik gelditu bere zaia osoki athera, eta etzaitezkeen zutik eman, makotuak baitziren, burua apha, orai biziaren eta herioaren artean zadukaten bezalakoa zen uztaidura batean, azken erorikoa egin baino lehen. Bazeramatzan arku horren mugimenduari jeusek etzezakeen iharduk eta, zutitu nahi zuten orduko, ikharatzen ziren eta haien erhieki jeus etzezaketan atxik.

Aurpegi batzuek bere ile zurizko kapusaren azpian bazituzten jadanik hiltzera doazenen gogordura, betespal tinki hetsiak, eta haien ezpaineak, betiereko daldara batean inharrosiak, hil-urranduen othoitza murmurikatzen zutela iduri zuten. Orrazek lehengo bera zen begitarte bati, bertze bat zela iduritzeko, ile beltz ala horien orde ile zuriak aski zizazkon. Antzokiko beztimendu egilek badakite perruka erhautseztatu bat aski dela norbaiten maskatzeko eta ezin ezagugarri egiteko. Cambremer-ko Anderearen egongian ikusia nuen ...-ko konde gazteak, orduan lotinent, Guermantes-ko Anderea bere gusiaren egongian zen egunean, bazuen beti bere aurpegi berdin

beteginki arautua, gehiago ere, zaingorri gogordurak soinari eman idorrak gehiegitzen baitzuen oraino jauntto aphainaren aurpegiko zuzentasun sorgorra eta haren itxurari emaiten Mantegna-ren eta Michelangelo-ren lan batean ukanen zuten garbitasun bizia, geldiaren bortxaz abantzu ihakinkaria. Haren larrantzea, lehenago gorri gordin-arina, hits ospetsu batekoa zen orai; ile zilharreztatu batzu, gizen izpi bat, doga baten nobletasuna, lo egiteko gurarano zoan akhidura bat, oro betan ari zizakon herioko maiestatearen iduri berri eta profetikaren emaiten. Haren bizar horiko laurki luzearen orde, bizar zuriko laurki berdinak hain beteginki zuen aldatzen zuen, ezagutua nuen azpi-lotinant horrek bortz galoin bazituela ohartzean, ene lehen gogoeta hari komplimendu egitea izan baitzen ez koronelera goititua izanik, baina koronelean hain ontsa emaitiaz, maskadura hortako iduri baitzuen hartua zuela haren aita izana zen aitzindari gorenaren itxura larri trixtea. Bertze baten baitan, bizar horiaren ordeko bizar zuriak, begitarte erne, irriño egile eta gazte gelditua baitzen, agerr-arazten zuen bakarrik gorriago eta gudariago, begien argia azkartzen zuen, eta mundutar gazte geldituari profeta baten itxura goiargitua emaiten. Ile zuriek eta bertze gauza batzuek ere egina zuten aldakuntzak, emazten baitan oroz gainetik, indar gutiagorekin atxikiko ninduen margoz aldatze bat baizik izan ezpaliz, horrek begiak lillura baitezazke, baina, gogoetagarriago dena, jendez aldatze bat zen. Alabaina, norbaiten « berrezagutzea », eta gehiago oraino, ez ezagutu ahal ukanik, nor den hartzea, izen ber baten azpian bi gauza kontrakoez gogatzeta da, hemen zen izaitea, hartaz orhoitzen dena, gehiago eztela onhartzea, eta hemen dena, ezagutzen etzen norbait dela; gogoan ukan behar dela mixterio bat abantzu herioarena bezain durduzagarria eta, gainera, haren aitzin-solasa eta iragarlea bezala dena. Ezen aldakuntza horiek, banakien zer zuten erran nahi, zeren aitzin-musika ziren. Emazten baitan ilen zurtasun horrek, bertze hainbertze aldakuntzeri loturik, hunkitzen zuen beraz. Izen bat erraiten zautaten eta balditua nindagon gogatzean bazoakola aldi berean lehenago ezagutua nuen balzari ile horiari eta dorpeki ene ondotik zoan andere ile zuri phizuari. Larrantzeko arrosa-kolore batekin, izen hori zen behar bada bi emazte horiek (ene orhoitekoak eta Guermantes-ko goizalde hortakoak), antzerti bateko nexka gazte xintxo eta atso alhargun bat bezain eziperdinagoek, elgarrena

zuten gauza bakarra. Biziak, balzariari gaitzeko soin horren emaitera heldu ahal izaiteko, haren mugimendu trabatuak metronoman bezala emekituak ahal zitzan, elgarrekilako zati behar bada bakarretako matelekin, zabalagoak segurki, baina gaztarotik largorrituak, ile hori arinaren orde marexal zipote hori ezarri ahal ukana zezan, dorre-mehe baten orde gopoil baten ezartzeko baino xehakatzeko 'ta berreraikitze gehiago egin behar ukana zuen; eta horrelako lan bat egin zela ez materia geldian baina emeki-emeki baizik aldatzen ezten haragian gogatzeko zenean, oraiko agerpenaren eta orhoitean nuen jendearen arteko kontra-molde zentzordagarriak hau urrun baino urrunagoko iragan batera gibelatzen zuen, abantzu itxuragabeko batera. Bi iduri horien bateratzea neke zen, izen ber batean bi jendez gogatzeko; ezen, hil bat bizi dela edo atzo bizi zena egun hila dela gogatzeko neke den bezala, abantzu berdineke da, eta neke mota berean (gaztaroaren ezeztatzea, indar eta arintasunez bete zen norbaiten suntsitzea lehenbiziko ezteuste bat baita jadanik), gazte izan zena zahar dela gogatzeko, atso zahar horren itxurak, gaztearen ondoan ezarriarik, iduri baitu hainbaterano duela hau haizatzen nun aldizka zaharra, gero gazte, gero berriz zaharra baitzaizkitzu amets bat iduritzen, eta hau nehoiz hori izan ahal dela ezpailaiteke sinets, horren gaia hau bera dela, bertze norapait ihes egin gabe, aroaren lan jakinduruari esker, hau bilakatua, gorputz bera utzia eztuen gai bera dela, izen berdinen seinalea ezipaginu eta adixkiden lekukotasun baiezkoa, horri egia itxura iduri bat emaiten daukolarik bakarrik arrosak, lehenago burutxan artean hertsu, orai elhur-pean zabaldua.

Elhurraren ara berean, iletako zuriaren heina bizi izana zen aroko barnatasunaren seinale bat bezala zen orotara, begietara bertze batzuen lerro berean agertzean ere, bere goratsuneko neurria elhurren zuriko heinetik erakusten duten mendi hegi hek bezala. Eta bizkitartean hori etzen guziendako egia, oroz gaintetik emazten. Horrela Guermantes-ko prinzesaren xerloek, beltzuri eta zeta bezala dirdiran zirenean haren bekoki gupiararen inguruan zilharrezkoak iduri zutenek,

zuritzearen bortxaz ilekiaren eta itxuparen hitsa harturik, horren gatik aldiz bere dirdira galdua duen elhur zikina bezala urdinuak iduri zuten.

Aurpegia aldatua zizaien zaharrek hek, indar egiten zuten hala ere, zekunda batez geldirik egoiteko hartzen diren itxura - hetan betiereko izanaran gelditua - ihesle hetarik baten atxikitzeke, hetaz entseatzen baita, ala kampoko abantail baten hartzera, edo huts baten gordetzera; bere itxura berehalako ezin aldatu batzu bilakatuak iduri zuten.

Jende horiek guziek hainbertze dembora emana zuten bere maskaduraren janzten nun haiekin bizi zirenak ezpaitziren ohiki hortaz ohartzen. Ainitzetan utzia zizeen ere hartan ziren bezala izaiten aski berant jarraik zaitezkeen ephe bat. Baina orduan maskadura demboran luzatua lasterrago egiten zen; nahi den moldean ezin hutsegina zen. Ehoiz enuen eiterik batere aurkitua X... Anderearen eta haren amaren artean, hau ezpainuen zahartua baizik ezaguna, Turko ttipi-ttipitu baten itxurarekin. Eta alabaina X... Anderea xoragarri eta xut ezaguna nuen beti eta biziki luzaz hala gelditua zen, luzazegi, ezen, gaua jin baino lehen, Turkosa baten maskaduraren janzte ahatzi behar eztuen norbaitek bezala, beranta bildua zuen, eta beraz tarrapatzen zen, abantzu bapatez, ttipitua eta zuen leialki behin haren amak jantzia zuen Turkosa zaharraren itxura berriz hartua.

Hor berraurkitu nuen, hamar urtez, abantzu egun guziez ikusia nuen ene lagun ohietarik bat. Elgar berriz aitzineratzea galdegin zaukuten. Haren gana joan nintzan beraz eta erran zautan ontsa ezagutu nuen mintzo batekin: « Bozkario handia da enetako hoinbertze urteren ondotik. » Baina zer ustegabea enetako! Mintzo horrek iduri zuen fonografa betegindu bategen emana, ezen, ene adixkidearena baldin bazen, ezagutzen enuen gizonto lodi urdinzuritu batetik jalgitzen zen, eta ordutik iduritzen zizatan etzela artifiziarki baizik, mekanikako zerbaitez, ene lagunaren mintzoa nolanahiko agure lodi horren barnean ezarri ahal izana. Bizkitartean hura zela banakien: hoinbertze demboraren ondotik elgarri aitzineratuak ginituen jendeak enganatzale batenik jeus etzuen. Berak erran zautan enintzala aldatua, eta bera etzela egina uste zuela hartu nuen. Orduan hobeki so egin naukon. Eta, oro har, hainbat loditua zela ezpada, lehenagoko gauza ainitz atxikia zuen. Alta hura zela enezakeen har. Orduan orhoitzera entseatu nintzan. Gaztaroan begi urdinak zituen, beti arrai, ethengabe higikor, gogoan ukana enuen eta

osoki abantailnahi gabea izan behar zaitekeen zerbaiten bila ageriki, Egiaren dudarik gabe, betiereko dudan jarraikia, halako haur-gogo batekin, fami-liako adixkide guziendako errespetu ibilkari batekin. Bada, eragin han-diko gizon politikari bilakatua baitzen, ahaldun, manukari, bilatzen zutena edirena etzuten begi urdinak, geldi-geldituak ziren, horrek so zorrotz bat emaiten baitzauen, bekain zimur baten azpian bezala. Beraz alaitasuneko, utzidurako, ogengabeko itxura, amarruko eta gordekeriako itxura batera al-datua zen. Segurki, bertze norbait zela iduri zizatan, bapatez, nion gauza bati ihardestean, haren irria entzun nuenean, lehenagoko haren irri eroa, soaren higikortasun alai betierekoarekin zoana. Musikatzale batzuer iduritzen zaie Z...-en musika X...ek orkeztraturik osoki bertzelakoa bilakatzen dela. Jende arruntak hartzen eztituen berexkuntza arin batzu dira horiek, baina haur baten irri itho bat laphiz urdin ontsa xorroxtu, nahiz apur bat zeharkatu bat bezalako begi baten azpian, orkeztratzeko berezitasun bat baino gehiago da. Irria gelditu zen; nahiko nuen bada ene adixkidea berrezagutu, baina, Odi-zea-n Ulizek ama hilaren gana laster egitean bezala, agerr-arazi den baten ga-nik izpiritixta batek nor den ezagun-arazten duen ihardespen bat auherretan igurikatzen duen bezala, eletrikako erakustaldi baten ikusleak, fonografak aldatu gabe emaiten duen mintzoa, hala ere jende batek berainik emana dela sinets eztezakeen bezala, ene adixkidearen ezagutzetik gelditu nintzan.

Erresalbu hau egin behar da bizkitartean, aroko bereko neurriak jende batzuendako lastertuak ala emekituak izan ahal daitezkeela. Halabe-harrez, karrikan aurkitua nuen, bazuela laurzpabortz urte, Saint-Fiacre-ko bizkondesa (Guermantès-tarren andere adixkidearen errena). Bere aurpegi itxura zizelkatuak iduri zuen betiereko gaztetasun bat segurtatzen zaukola. Bertzela ere, gazte zen oraino. Enuen alta, haren irriñoak eta agurrak izanik ere, ezagutu ahal ukan aurpegiko itxura hain xehakatuan nun haren begi-tarteko orrazea zen bezala berriz ezin ezarria baitzen. Hori da hirur urtez geroz kokaina eta bertze droga batzu hartzen zituelakotz. Begiak, barnatuki beltzez inguratuak, abantzu galdu-ohilduak zituen. Ahoak bazuen irri-sino bitxi bat. Jeikia zen, erran zautaten, goizaldi hortako, ilabeteak ohean edo kadera luzean egoiten baitzen. Aroak baditu horrela zaharraro goiztiarregi batzuetara deramaten trein laster berezi batzu. Courgivaux-ko Jauna bere

semearendako hartu nuen, itxura gazteago baitzuen (berrogei-ta hamar urteak iraganak zituzkeen eta hogeit-ta hamarretan baino gazteago iduri zuen). Mediku adimendun bat hatzemana zuen, alkoola eta gatza utziak; berriz hogei-ta hamarrekora itzulia zen eta egun hartan etzela heldua ere iduri. Hori da, goizean berean, ileak motz-araziak zituelakotz.

Gauza bitxia, zahartasuneko gertakariak iduri zuen, izaiteko mol-detan, gizarteko aztura batzuez khondu bazatxikala. Jaun handi batzu, beti al-paga xoilena soinean ukana zutenak, burjes ttipi batzuek ezarri nahi uka-nen etzituzten lastozko xapel zahar batzu buruan, haien artean bizi izanak ziren baratzezainen, laborarien ara berean zahartuak ziren. Orbain beltzaran batzuek hartuak zituzten haien matelak, eta begitartea horitua zizeen, liburu bat bezala ilundua.

Eta gogoan nituen ere hor etziren guziak, hor izan etzaitezkeelakotz, bere segetariak, haien bizi-iraupenaren lillura eman nahiz, desenkusatuak zituelakotz noiztenka prinzesari emaiten zizazkon depexa hetarik baten bi-dez; eriak, urtez geroz hiltzen ari, jeikitzen eztirenak, ez higitzen, eta, turixta batzuen ikusi-nahiak edo beilari batzuen konfienxiak erakharri ikusleren jarraitasun arinegiaren erdian, begiak hetsirik, arrosarioa eskuan, jadanik hil-mihise bat dena gibelera erdi-igorritz, haragi gogortu eta harbizia bezain zurian hezurretarano gaitzak zizelkatu eta hil-hobi gainean etzan dituen gi-zaiduri batzu bezalakoak baitira.

Bertzela ere, berezitasun horiek, hilen zirela erran behar nuena neure baitan? Beti bada gutarik bakoitza, aroko une berezi batean, korai-londo bat bezala ikusia nuen, hartan begiak, beregain izanez nahiz elgar-tasunean, erhauts bat iragaiten bada, adimenduak manatu gabe klixkatzen duena, hartan hertzea, barnean dagon bizkarkina, adimenduak jakin gabe gaizkuntzen dena; baina ere biziko iraupenean, elgarren ondoan lerrokatuak baina bereziak, batzu bertzeren ondotik hilen edo ere elgarrekin aldizkatuko ziren ni batzu bezala, hala nola Combray-en arratsa jiten zenean enetako bat bertzearen lekuan jartzen zutenak. Baina izaite bat egiten duten zelula moral horiek hura baino iraunkorrago direla ikusia nuen ere. Ikusiak nituen Guer-mantes-tarren bizioak, haien kuraia Saint-Loup-en baitara itzultzen, haren beraren baitan nortasuneko akats bitxi laburrak bezala, Zuanen zemitixma

bezala. Hau ikus nezakeen oraino Bloch-en baitan. Bazen zenbait urte aita galdua zuela eta, orduan izkiriatura naukolarik, etzautan lehenik ihardetsi ahal ukana, ezen familia juduetan ainitzetan badiren familiako sendimendu handien gainera, haren aita gizon guziak baino hainbat goragoa zelako ideiak emana zaukon haren amodioari erlisione baten itxura. Haren galtzea etzuen jasan ahal ukana eta urte bat hurbil eritetxe batean hetsirik egon behar izana zen. Ene doluminer ihardetsia zuen doinu aldi berean barnatuki senditu eta abantzu urgoki batean, haren bi zaldietako karrosa ixtorioako erakustoki zenbaiti gogotik emana ukanen zaukon gizon goien hura hurbildua ukanik hainbat ninduen gutiziagarri estimatzen. Eta orai, familiako mahian, Bloch Jauna Nissim Bernard Jaunaren kontra phizten zuen haserre berak phizten zuen aitagarrebaren kontra. Mahian atheraldi berak egiten zauzkon. Cot-tard, Brichot, bertze hainbertze mintzatzen entzutean, kultura eta modaren bidez izurkadura bakar batek lurreko eremu osoan mintza-molde, goga-molde berak hedatzen dituela senditua nuen bezala, berdin ere aroko irau-pen guzian, zolako uhain-olde handi batzuek goititzen dituzte, adinen bar-netarik, haserre berak, trixtezia berak, kuraia berak gizaldi metatuetan zehar, lerro ber batean hartu zati bakoitzak erakusten baitu, oiha hedatu batzuetan itzal andana batzuen bezala, nahiz Bloch eta haren aitagarreba, Bloch aita Jauna eta Nissim Bernard Jauna, eta ezagutuak enituen bertze batzu, aharran ezartzen zituen baino itxurapen gutiago baliogabe baten errepika.

Elgarrekin itxura berdina bat bazutela behin ere gogoan ukan gabe bertze batzuen ahaide zirela banakien gizon batzu baziren: ermita ile zuri bilakatua zen Legrandin miretsiz, ikusi nuen bapatez, erran dezaket aur-kitu nuela zoologixta baten satifamenduarekin haren mateletako zabalkian Cambremer-ko Leonor haren iloba gaztearen egitura, hunek etzuelarik alta haren eite ukaiteko iduririk batere; lehenbiziko elgarren itxura horri gaine-ratu naukon Cambremer-ko Leonor-en baitan ohartua enindakon bertze bat, gero haren gaztetasun osoak ohian eskaintzen zautanetan batere etziren bertze batzu, hala nola nun ukan bainuen berehala hartaz trufa-marrazki bat bezalakoa, garbiki idurikoa izana baliz baino egiazkoagoa, barnatuagoa; haren osaba orai bakarrik zizatan Cambremer gaztea zela iduritzen, egun batez izanen zen agurearen itxurak hartuak ukanik, hala nola nun Aroaren

sendipena hainbat indarrekin emaiten zautana ezpaitzen bakarrik lehengo gazteak zer bilakatuak ziren, baina gaurregungoak zer bilakatuko ziren.

Gaztetasuna ezpada, edertasuna bederen hetan grabatua zen itxurak emazten baitan ezabatuak baitziren, gelditzen zizaien aurpegiarekin bertze bat etzenez egiten ahal bilatua zuten. Bere begitarteko erdigunea, phizukoa ezpada itxurakoa bederen lekuz aldatuz, aurpegia haren inguruan bertze berezitasun baten araura moldatuz, eder mota berri bat hasten zuten berrogeita hamar urtetan, adinean berant ofizio berri bati lotzen den bezala, edo mahastiko gehiago ezer balio eztuen lur bati beterrabak eman-arazten zazkon bezala. Aurpegi berri horren inguruan gaztetasun berri bat lora-arazten zen. Emazte ederregiek bakarrik etzezaketan moldez aldatze hori onhar, edo itsusiegiek. Lehenbizikoak, hartan ezer alda eztaitekeen itxura betierekoa duen harbizi baten aran zizelkatuak, gizaiduri bat bezala phorroskatzen ari ziren. Bigarrenak, aurpegiko moldegaitz zenbait bazutenek, abantail batzu bazituzten ere lehenbizikoen gainean. Berehala ezagutzen ziren bakarrak hek ziren. Parisen bi aho berdinik etzela jakina zen eta haienak ezagun-arazten zituen gehiago nehor ezagutzen enuen goizaldi hortan. Eta gero etzuten zahartuak zirela iduri. Zahartasuna gizakiarena den zerbait da; mustro batzu ziren, eta etzuten balena batzu baino gehiago « aldatuak » zirela iduri.

Gizon batzu, emazte batzu etzizaztan zahartuak iduritzen; haien soinara beti berdin lerdin zen, begitartea beti gazte. Baina haier mintzatzeko aurpegi larruz leun eta inguru garbikoaren ondo-ondoan jartzen baldin bazen, orduan osoki bertzelakoa agertzen zen, landare azal batez, ur, odol xorta batez gertatzen den bezala mikrozkoparen azpian ezartzen baldin bada. Orduan leuna uste ukana nuen larruan orbain urintsu ainitz berexten nituen eta hartaz desgutua emaiten zautaten. Itxurak etzaukon handitze horri ihardokitzen. Hurbildik sudurrarena hausten zen, biribiltzen, gainerateko aurpegia bezalako tita oliotsuez hartua; eta hurbildik begiak, berraurkitzen zela uste ukana zen lehengo begitartekoarekin oraikoaren eitea barreatzen zuten sakela batzuen azpian sartzen ziren. Hala nola nun, gomit horien eretzean, urrundik ikusi eta gazteago zirelarik, haien adina begitartekoa gotortzearekin eta horren gune guziak ikusten ahal zirenean handitzen baitzen; ikuslearen meneko gelditzen zen, hunek aurpegi horien ikusteko behar baitzuen leku

onean jarri eta ezpaitzuen gauza ttipitzen duten so urrunekoetarik baizik horietara eman behar, betorde egileak ikuste-urruneko batentzat hautatzen duen berinakiak bezala; haiendako zahartasuna, ur xorta batean ureko ihizi xehen izaitea bezala, urten aitzinatzeaz baino gehiago, behatzalearen ikuspe-
nean, neurri-araukoren gradoaz ekharria zen.

Emaztek indar egiten zuten bere xoragarritasunean bereziena izana zenari hurbil egoiteko, baina ainitzetan haien begitarteko gai berriak etzuen hori onhartzen. Eta ainitzetan ile horiekilako jantzariak, ile zurizko perru-
ka batekin, etzuten bakarrik lehenago ezagutzen etzituzten dukesa batzuen adixkidantza beretua. Baina behin jantzatzea baizik ez egina ukanik, garaziak bezala ederlandak hunkiak zituen. Eta XVII-garren mendean andere aiphatu batzu erlisionean sartzen ziren bezala, margazki kubixtez betea zen egoitza batean bizi ziren, margolari kubixta batek ezpaitzuen haiendako baizik lan egiten eta hek ez harendako baizik bizi. Izitua izaiten zen, begitarte baten «
geologian » horrelako iraultza bat egina izan baino lehen iraganak zatezkeen aldiez gogatzean, sudurraren luzaran zer higadurak eginak ziren ikustean, matelen bazterrean zer gaitzeko lohitzek zuten begitarte osoa bere meta hits eta hotzez inguratzen.

Emazte batzu dudarik gabe oraino biziki ezagungarri ziren, begitar-
tea abantzu berdina gelditua zen, eta, urtaroarekin egokitu harmonia batez bezala, haien larrazkeneko aphaindura ziren ile zuri-beltzak zituzten bakarrik jantziak. Baina bertze batzuendako, eta gizon batzuendako ere, aldakuntza hain zen osoa, nor ziren hain ezin jarria - behazunez orhoitean zen atsegale amorratu baten eta begi-pean zinuen fraile zaharraren artean - nun jokaria-
ren antzeari baino gehiago ere, haien eredia Fregoli gelditzen den mirazko imitatzaile batzu baitzituzten ametsetako moldez aldatze horiek gogoratzen. Emazte zaharrak nigar egin nahi zuen, haren gozagarria egina zuen irriño berezi eta trixtera emana etzela gehiago zaharraroak ezarria zaukon igelsuzko maska horren azalerano arraikatzen ahal gogoan hartzean. Gero bapatez gustatzeaz lotsatua, etsitzea izpiritukoago zela aurkituz, irri egin-arazteko antzokiko maska batez bezala hartaz baliatzen zen. Baina abantzu emazte guziek adinaren kontra gudukatzeko bere indarrean etzuten geldi-arterik, eta etzatera doan eta haren azken arraiak gartsuki begiratu nahi zituzten iguzki

bat bezala urruntzen ari zen edertasunera itzultzen zuten bere begitarteko miraila. Hortara heltzeko, batzuek nahi zuten hori ordokitu, larru eremu zuria zabaldu, matela-xilo mehatxatuen bixiari, irriño kondenuatu eta jadanik erdi-eztitu baten jazarraldier ukho eginez; bertze batzuek aldiz, edertza behin betikotz itzalia ikusiz eta errankortasunean gerizatzen bortxatuak, mintzo galtzea erranarako antzeaz ordaintzen den bezala, muttur egite bati lotzen ziren, begiko ximur bati, behako uher bati, batzuetan irriño bati hunek, gehiago obeditzen etzuten ginarrien elgarrekilako akomeatze gabearen gatik, emaiten baitzauden nigar egiteko itxura.

Bertzela ere, aldapan arin bat baizik jasana etzuten gizonen baitan ere, muxtatxa zuri bilakatua zizeenetan eta b., senditzen zen aldapan hori etzela garbiki gorputzekoa. Khe margotzale batean zehar, aurpegiko itxura aldatzen zuten berina thindatu batean bezala ikusiak izan balire bezala zen, baina oroz gaineratik, horrek gaineratzen zaukon uherraz, erakusten zuen « egiazko handitasunean » ikustera uzten ginituena egiazki gutarik biziki urrun zela, eremuko neurritik urruntasun, egia da, ezperdin batean, baina haren zolatik, bertze ur-hegi batetik bezala, gure ezagutzeko guk haien egiteko bezainbat neke bazutela senditzen ginuenean. Bakarrik behar bada Forcheville-ko Andereak, ixurgai batez, larrua hantzen duen baina aldatzen uzten etzuten halako parafina batez xiringatua bezala, bazuen lehenagoko lilito behin betikotz « empallatu » baten itxura.

Jendeak berdina geldituak direlako ideiatik abiatzen da, eta zahar-
tuak aurkitzen dira. Baina abiatzen den ideia zaharrak direlako den orduko, ezagutzen dira, eztira hain gaizki aurkitzen. Odette-rendako etzen bakarrik hori; haren itxurak, zuen adina jakina zenean eta atso bat aurkituko zela uste, aro mugatzeko leger egin desafio bat iduri zuen naturakoer irradium-aren begiratzea baino mirakuluzkoagoa. Hura, hastapenean ezagutu ezpaldin banuen, etzen aldatua zelakotz izan baina egina etzelakotz. Aroak jender emaiten zuten berria eta ezagunak nituen bezala haien berraurkitzeko ekhendu behar zauten oren batez geroz gogoan ohartuz, karkula hori orai lasterrez egiten nuen eta, lehengo Odette-ri iragana zizakon urte andana gaineratuz, aurkitu nuen ondorioa begien aitzinean nuena izan etzaitekeena iduritu zizatan jende bat zela izan zen, hori lehengoaren berdina zelakotz hain zuten.

Larru thindatzeak egiten zuena zer zen? Iduri zuen, bere ile urreztatu zabal-zabalduen azpian - apur bat pampina mekanika gotor zenbaiten motto harroa pampina baten ere begitarte ustegabetu eta ezin aldatu baten gainean - lastozko xapel bat hura ere zabala haien gainetik, 1878-ko Erakustaldikoa zela (orduan segurki izanen baitzen, eta oroz gainetik orai zuen adina ukan balu, mira ametsetakoena) urte azkeneko ikuskarri batean bere koplaren erraitera jina, baina emazte oraino gazte batek itxuratuko zuen 1878-ko Erakustaldikoa.

Gure ondoan Boulanger-en dembora aitzineko minixtro bat, eta berriz hala zena, baziragan hura ere, emazter irriño daldarari urrundu bat igorritz, baina iraganeko mila lokarrietan preso hartua bezala, esku ezin ikusi batek bazabilan mamuxka bat bezala, kaizuz ttipitua, gaiez aldatua eta bere itxura laburtu harri-geldozko baten idurikoa. Konseiluko president ohi horrek, Saint-Germain bazter-hirian hain ontsa onhartuak, lehenago gaizkintzako jaukimen batzu ukanak zituen, munduaz eta jendeaz hastiaturik izana zen. Baina bata eta bertzea egiten dituzten jenden berritzeari esker, eta gelditzen direnetan jaiduren eta ere orhotzapenenari, hori gehiago nehork etzakien, eta ohoratua zen. Etsi egin behar ezten desohore aski handirik ezta ere, jakinez urte zenbaiten buruan, gure huts ehortziak ez tirela haren gainera naturalezako bake irriñodun eta loratua jautsiko den erhauts ezin ikusi bat baizik izanen. Jende ephe bateko narriatua, aroko heinkatzearen bidez, harendako adei eta miresmenik baizik ukanen eztuten eta haien gainean errexxki gozatu den gizarteko bi sailen artean hartua gertatuko da. Bakarrik lan hori aroaren gomendioan du ezarria; eta bere nahigabetako orduan, bera « ensalada zarean » sartzen ari zelarik ukabila erakusten zuen jendeaz « xeka biltzale » deitzen aitzineko nexka esne saltzaleak entzuna ukaiteaz deusek eztezake konsola, gauzak aroko eremuan ikusten ez tituen nexka esne saltzaleak, goizeko egunkariak goستن dituen gizonek estimua noizpait galdu zutela eztakienak, eta orai presondegia hurbil duen gizona eta behar bada, esne saltzale gazte hori gogoan, adixkidantza ekharr lezakoketen elhe xumeak ukanen ez tituena, egun batez egunkariez ospatua izanen dela eta dukesez bilatua. Eta aroak molde berean urruntzen ditu familietako aharrak. Guermantes-ko prinzesaren etxean senar-emazte batzu ikusten ziren osabat-

zat bazituztenak bi gizon, orai hilak, elgar zartatzetik gelditu etziren bi gizon, baina hetarik batek, gehiago bertzearen aphaltzeko, lekuko bezala bere etxezaina eta mahi-nagusia igorriak zauzkon, munduko jende batzu harendako sobera ontsa izanen zirela estimatuz. Baina ixtorio horiek duela hogeita hamar urteko egunkarietan lo zauden eta nehork etzazkien gehiago. Eta horrela Guermantes-ko prinzesaren saloina argitan zen, ahazkor eta loratua, bakezko ilherri bat bezala. Aroak etzituen hor bakarrik lehenagoko izaite batzu deseginak, gertakizun eginak zituen, elgertasun berri batzu sortuak.

Politikako gizon hortara itzultzeko, soineko gaian zuen aldapena izan arren, jendetan orai phizten zituen moraleko ideien bermoldatzea bezain barnatua, hitz batez Konseiluko president izana zenez geroztik hainbertze urte iraganik ere, gabinet berrian barne zen, hortako buruzagiak minixtro kargu bat emana baitzaukon, antzokiko buruzagi batzuek bere lehenagoko adixkide andere bati jokaldi bat emaiten daukoten bezalatsu, aspaldidanik erretiratua denari, baina trebeki jokaldiaren emaiteko oraino gazteak baino gaiago estimatzen baitute, baitakite haren diruzko izanara nekea eta hark, lauretan hogeia urtetan hurbil, jendeari erakusten baitu oraino bere antze abantzu osoa, heriotzea baino zenbait egun aitzinean ikusi ahal ukaiteaz us-tegabetzen den biziaren jarraikitzearekin.

Forcheville-ko Anderearendako aldiz, hain zen gauza mirakuluzkoa, nun ezpaitzaitekeen ere gaztetua zela erran, baina izaitekotz bere gorri-bizi eta gorrastura guziekin, berloratua zela. 1878-ko Erakustaldi orotakoaren itxura haragitua baino ere gehiago, gaurregungo landare erakustaldi batean, ikustekoa izanen zen eta ohargarriena. Enetako, bertzela ere, etzuen iduri baziola: « 1878-ko Erakustaldia niz », baina izaitekotz: « 1892-ko Akazietako ibilbidea niz. » Oraino han izaiten ahal zela iduri zuen. Bertzela ere, aldatua etzelakotz hain zuzen, guti zuen bizi zela iduri. Bazuen arrosa idortu baten itxura. Egunon erran naukon, ene izena ephe batez bilatu zuen ene begitar-tean, ikasle batek, errexago bere baitan aurkituko zuen ihardespén bat bere etsaminalariarenean bezala. Izena eman nuen eta berehala, izen enkantagarri horri esker adinak emana ahal zautan kurkutz-ondo edo kanguru itxura galdua banu bezala, ezagutu ninduen eta mintzatzen hasi zizatan mintzo hain berezi harekin, antzoki ttipietan esku-zartatua zuten jendeak, harekin barazkaltzera gomitatuak zirenean haren elhe bakoitzean, solasaldi osoan, nahi zu-

ten bezainbat, mintzo haren berraurkitzeaz hain miretsiak baitziren. Mintzo hura berdina gelditua zen, debaldetan beroa, harkorra, doinu angeles izpi batekin. Eta bizkitartean, haren begiek ur-bazter urrun batetik so egiten zauzaten iduri zuten molde berean, haren mintzoa trixte zen, abantzu othoizle, Odizea-ko hilen bezala. Odette-ek jokutzen ahalko zuen oraino. Bere gazetetasunaz komplimenduak egin nauzkon. Erran zautan: « Gixakoa zira, my dear, eskerrak », eta sendimendu batera nekez emaiten baitzuen, zintzoenera ere, aphain zela uste zuenaren axolaz hunkia etzen erran-molde batera, aldi andana batez errepikatu zuen: « Hainbat esker, hainbat esker. » Baina nik, behin hainbertze bidaldi eginak nituena Oihanean haren ikusteko, haren mintzoaren doinua ahotik erortzen entzuna nuena, haren etxean izan nintzan lehen aldian, balio handiko zerbait bezala, haren ondoan iragan minutak orai ezin bururatuak iduritzen zizaztan hari zer erran ez jakinaren gatik, eta urrundu nintzan neure baitan egiten nuen batean Gilberte-ren elheak, « Ene amarendako hartzen nauzu », etzirela bakarrik egiak, baina ere alabarendako amultsu zenik baizik etzutela.

Bertzela ere, etziren bakarrik azken hunen baitan agertuak begitartean ordu arteo hazi baten barnean plegatu zati batzu bezain ezin ikusiak geldituak ziren eta egun batez kampa eginen duten jalgitaldia ezin asmatua den familiako itxura batzu. Horrela amaren gaitzeko makodura bat bazethorren, bat ala bertzearen baitan, berrogei-ta hamar urte inguruan, sudur ordurano zuzen eta garbi baten aldatzera. Bertze baten baitan, diruzain alaba, larrantzea, baratzezainsa batena bezain frexko, gorraitzen zen, horigorritzen, eta hartzen zuen aita hainbat eskuztatua zuen errearen leinurua. Batzu ere bere auzoaldearen iduri izaitera helduak ziren azkenean, bazuten berekin Arkuko karrikaren, Oihaneko ethorbidearen, Elysée-ko karrikaren leinurua bezala. Baina oroz gainetik berritxuratzen zuten bere gurasoen aurpegia.

Ondikotz, etzuen beti horrela egon behar. Hirur urte baino gutiago ondotik, ikusi behar nuen, ez haurtua, baina apur bat guritua, Gilberte-ek eman arratsaldi batean, maska geldi baten gibelean gogatzten zuenaren (« gogatzten » erraitea ainitz da), sendi zuenaren gordetzeko ahalik gabe bilakaturua, burua higituz, bekainak zimurtuz, sendi zuen iduripen bakoitzean soinganak inharrosiz, mozkor batek, haur batek eginen zuen bezala, inguruan

dutenaz axolatu gabe poeta batzuek badagiten bezala, goiargituak, bere lana munduan ontzen baitute eta, andere ustegabetu baten besoan mahira doazen batean, bekainak zimurtzen, muttur egiten. Forcheville-ko Anderearen sendipenak - bat salbu, arratsaldian izaitera ekharria zuena hain zuten, bere alaba maite-maitearendako xamurtasuna, hunek arratsaldi distiratu bat emaiten zuelako urgulua, gehiago jeus ez izaiteko gogo-ilundurak amaren baitan gordetzen etzuen urgulua - , sendipen horiek etziren bozkariozkoak, eta manatzen zuten bakarrik egiten zizazkon laidoetarik betiereko zaintze bat, zaintze erdian marra batekin haur batena bezala erdian marra batekin. Etziren hitz hauk baizik entzuten: « Forcheville-ko Andereak ezagutzen nauenez eztakit, behar nuke behar bada neure burua berriz aitzinera-arazi. - Hori, bada, egin gabe egon zaiteke, ihardesten zen oihuka, gogoari eman gabe (edo hortaz axolatu gabe) Gilberte-ren amak guzia entzuten zuela. Ontsa debalde da. Emanen dautzun gozatasunaren gatik! Bere zokoan uzten da. Bertzela ere apur bat xoxotua da. » Ebaska Forcheville-ko Andereak so bat igortzen zuen bere begi hain ederrez, solaskide laidatzaletara, berehala gero so hori beregana itzultzen ikustategabe izana beldurrez, eta hala ere irainaz inharrosia, bere sumindura ixilduz, burua ikusten zizakon bimbilikatzen, bulharra goititzen, berriz so egiten zuen bertze entzule berdina gaiski ikasi bati, eta etzen gehiegi ustegabetzen, zeren, zenbait egunez geroz ez ontsan sendi izanez, alabari besta gibela zezan hitz-erdika adi-arazia baitzaukon, baina alabak eza emana. Forcheville-ko Andereak etzuen hortakotz gutiago maite; sartzen ziren dukesa guziek, hotel berriarendako jende guziaren miresmenak bihotza bozkarioz gainditzen zaukoten, eta Sabran-go marketsa sartu zenean, hura baitzen orduan gizarteko mail gorenak hain nekez hartara bazeraman anderea, Forcheville-ko Andereak ama on eta zuhur bat izana zela senditu zuen eta bere ama egitekoa orai burura heldua zela. Gomit berri murrikari batzuek hari so egin-arazi zuten berriz eta hura bakar-bakarrik mintza-arazi, jestukeria batzuez baizik emaiten ezten hizkuntza mutu bat mintzatzea bada. Hain eder oraino, ezin gehiago gustagarri - nehoiz hala izana etzelarik - bilakatua zen; ezen hura, Zuan bairatua zuena, eta jende guzia, mundu osoak zuen orai bairatzen; eta hain ahul bilakatua zen, nun, jokaldiak orai kontraldera itzuliak izanik, gizonen kontra zaintzera ezpaitzen ausartzen. Eta sarri etzen herioaren kontra zainduko. Baina aitzin-ikuspen hunen ondotik, itzul gaiten

hirur urte gibelera, erran-nahi da hartan giren Guermantes-ko prinzesaren goizaldira.

Bloch ene lagunaren ezagutzea neke izan zizatan, orai hartua baitzuen bertzela ere Jacques du Rozier-en ez bakarrik izenordaina, baina izena bera, horren azpian behar ukanen baitzen ene aitatziren usna, ene adixkideak behin betikotz ahatziak zituela iduri zuen Hébron-go « ibar eztiaren » eta « Izrael-go mendi-lerroen » ezagutzeko. Aphain angeles batek alabaina haren itxura osoki aldatua zuen eta ezaba zaitekeen guzia arrabotaz leundua. Ileak, lehenago kuxkulatuak, erdian marra batekin orai zabalera orraztatuak, kozmetikaz dirdiran ziren. Sudurra azkar eta gorri gelditzen zen, baina betiko marranta bat bezalakoaz hein batean hantua iduri, horrek egiten baitzukeen erranaldien nagiki emaiten zuen doinu sudurkaria; ezen aurkitua zuen, bere larrantzeari zoakon orraztatze bat bezala, ahozka moldearendako mintzo bat, hortan lehengo sudur mintzoak hartzen baitzuen haren sudurreko hegala suhartuekin zoan ahozkatzeko erdainu aire bat. Eta bere ileantzeari esker, muxtatxek ekhentzeari, itxuraren aphainari, borondateari, sudur judu hori itzaltzen zen bizkar konkorrak ontsa antolatu bat abantzu zuzen iduritzen den bezala. Baina oroz gainetik, Bloch agertzen zen orduko, haren aurpegiak erran nahi zuena begitako bakun izigarri batek aldatzen zuen. Begitako bakun horrek Bloch-en begitartean sartzen zuen mekanikeriak giza-begitarte bat hetara bortxatua den eginbide neke guzietarik libro uzten zuen, eder izaitekotik, izpirituaren, onginahiaren, indarraren sendi-arazteketatik. Begitako bakun horren izaitea bera Bloch-en begitartean aski zen hori pollita zenez ala ez nor bere buruari galdez egoiteko, hala nola saldegi batean gauza angeles batzuen aitzinean mutil batek diolarik « ezin aphainago » dela, ezpaita gero zuhauri gustatzen zaizunez galdegitera ausartzen. Bertzalde, begitako bakun horren giblean zortzi erresortako karrosa baten miraila izana baliz bezain egonara goratian, urrunduan eta gozatuan jartzen zen, eta, ile zabalduer eta begitako bakunari begitarteraren berdintzeko, haren itxurak etzuen gehiago nehoiz deus erraiten.

Bloch-ek galdegin zautan Guermantes-ko printzeari aitzinera nezon; enuen hortako lehen aldian haren etxean izana nintzan arratsaldian aurkituak nituen eragozpenen hatzik ukan, orduan naturalak idurituak bait-

zizaztan, orai aldiz hari bere gomitatarik baten aitzineratzea hain errexa zizatarik, eta hari berehala gomitatua ukanen etzuen norbaiten eremaitera eta aitzineratzera ausartzea errex idurituko zizatan ere. Hori ote zen, aro urrundu hartaz geroztik, « etxekotu » bat bilakatua nintzalakotz, nahiz aspaldidanik « ahatzia », orduan hain berri nintzan mundu hartan? Hori ote zen, kontra moldera, egiazko gizon mundutar bat ez izanez, haiendako eragozpen badagiten guziak gehiago izaiterik etzuelakotz enetako, herabea eroriz geroztik? Hori ote zen, jende apurka bere lehenbiziko (ainitzetan bigarren edo heren) itxura falsua ene aitzinean utzia ukanik, printzearen goratasun erdainariaren giblean jenden ezagutzeko giza-gutizia handi bat sendi nuelakotz, alegia gutitesten zituen jende haien beren ezagutzekoa? Hori ote zen printzea ere bertzelakatua zelakotz, zaharraroak bere eztitasuna ekhartzen dauen gaztaro-ko eta adin bateko ozar horiek oro bezala (are gehiago nun gizon hasi-berriak eta hauek haien kontra bihur egiten zuten ideia ez ezagunak, ikustez aspaldi danik ezagutzen baitzituzten eta haien inguruan onhartuak zirela baitzakiten), eta oroz gaineratik zaharraroak lagungailutzat bertute zenbait baldin badu, edo adixkidantzak hedatzen dituen bizio zenbait, edo politikaz aldatze batek badagien iraultza, hala nola dreyfusixmara printzearen itzultzea?

Bloch-ek galdekatzen ninduen, nik lehenago munduan sartzean bagenien bezala, egitea oraino gertatzen zizatan bezala, han orduan ezagutuak nituen jende eta zuzenki haien « lekuratzea » hain usu bilatua nuen Combray-ko jende hek bezain urrun, nitarik berdin berex zirenez. Baina Combray-k enetako molde bat hain berezia zuen, gaineratekoarekin hain ezin nahasia, nun behin ere Frantziako kartan sartzera hel enindaitekeen puzzle bat baitzen. « Beraz Guermentes-ko printzeak eztatak ideiarik batere emaiten ahal ez Zuanez, ez Charlus-ko Jaunaz? galdegiten zautan Bloch-ek, mintzatzeko ara luzaz hari hartua naukolarik orai hark usu enea imitatzen baitzuen. - Ez batere. - Baina ezperdintasuna zertan zian? - Haiekin mintza-arazi behar izanen zinezten, baina ezin duk. Zuan hila duk eta Charlus-ko Jaunak eztik biziki gehiago balio. Baina ezperdintasun horiek gaitzekoak zitian. » Eta mirazko jende horiek zatezkeen gogatzean Bloch-en begia dirdiran zen batean, haiekin izaitean ukana nuen atsegina handiegitzen naukola gogoan nuen, hori bakarrik nintzanean baizik nehoiz ez senditua ukanik, eta egiazko berexkuntzen iduripena ezpaita gure idurimenean baizik izaiten. Bloch

hortaz ohartu zena? « Hori behar bada ederregian itxuratzen dautak, erran zautan; horrela hemengo etxekanderea, Guermantes-ko prinzesa, badakiat bada eztela gehiago gazte, baina azkenean eztiak hain aspaldi haren xoragarritasun paregabea aiphatzen hautala, haren edertasun miragarria. Eiki, itxura handi dikala aithor diat, eta baditik bada aiphatzen hauztan ohi ez bezalako begi hek, baina azkenean eztiak bahion bezain ezin sinetsia aurkitzen. Ageriki arraza ainitz badik, baina azkenean... » Etzizatala jende beraz mintzo Bloch-i erraitera bortxatua izan nintzan. Guermantes-ko printzea alabaina hila zen, eta printzeak, galtze alemanaren gatik hondatua, Verdurin Andere ohia zuen ezkontdua. « Huts egiten duk, aurtengo Gotha-n bilatu diat, aithortu zautan xintxoki Bloch-ek, eta Guermantes-ko printzea aurkitu, giren hotel huntan bizi eta ospekoena den guziarekin ezkontdua, ago apur bat orhoit nadin, Sidonie, Duras-ko dukesa, Baux-etakoa jaioarekin ezkontdua. » Alabaina, Verdurin Andereak senarra galdu eta guti ondotik, Duras-ko duke zaharra, hondatua, ezkontdua zuen, hunek egina baitzuen Guermantes-ko printzearen gusi, eta ezkontzatik bi urteren buruan hila baitzen. Verdurin Anderearendako iraganbide azkarki baliagarri bat izana zen, eta orai hau, hirugarren ezkontza batez, Guermantes-ko prinzesa zen eta bazuen Saint-Germain bazter-hirian Combray-n hartaz azkarki ustegabetuak izanen ziren lerro handi bat, han Xoriaren karrikako anderek, Goupil anderearen alabak eta Sazerat Anderearen errenak, azken urte horietan guzietan, Verdurin Andere Guermantes-ko prinzesa izan baino lehen, murrikatuz errana baitzuten « Duras-ko dukesa », Verdurin Andereak antzokian emana ukanen zuen jokagai bat izan baliz bezala. Eta ere, kastetako legeak nahi baitzuen hil zadin « Verdurin Andere », titulu horrek, munduan botererik batere emanen zukola ezpaitzen asmatzen, aski gaizki emaiten zuen. « Bere buruaz mintza-araztea », mundu orotan maitale bat duen emazteari lotua zakon erranmolde hori, Saint-Germain bazter-hirian liburuak agerr-arazten dituztener emana izan zaitekeen, Combray-ko burjesian ezkontza batzu, erran-nahi batean edo bertzean, « araugabeak » egiten dituztener. Guermantes-ko printzea ezkontdua ukan zuenean, Guermantes falsu bat egin zuela erran zuketen elgarri, frikun bat. Enetzat, tituluko, izeneko berdin hortan, Guermantes-ko prinzesa bat oraino bazela egiten baitzuen eta hainbat xoratua ninduenarekin, hor etzenarekin, hori ebatsia izanen zizakon hil bat bezala zenarekin

loturarik batere ezpaitzuen, zerbait bazen Hedwige prinzesarenak izanak ziren gauzen, hala nola jauregiaren, harena izana zen guziaren eta hartaz bertze bat gozatzen zenaren ikustean bezain mingarria. Izeneko ondorea trixte da ondore guziak bezala, jabetasuneko hartze zuzenkontrako guziak bezala; eta beti, gelditzerik gabe, Guermantes-ko prinzesa berrien uhain bat bezalakoa ethorriko zen, milakako bat izaitekotz, adinetik adinera bere ofizioan bertze emazte batez ordaindua, herioa ezagutzen etzuen, aldatzen den eta bihotza zaurtzen duen guziaz ez axolatua, izenak hesten zuela noiztenka hondatzen diren guzien gainera orhoitzerik gabeko bere bakekortasun beti berdina.

Han ziren jenden artean bazen gizon ospe handiko bat, auzi aiphatu batean, balio bakarra moralitate goran zuen lekukotasun bat berriki emana zuena, haren aitzinean jujeak eta abokatak oro betan gurtuak baitziren eta bi jenden kondenamendua ekharria baitzuen. Sartu zenean, ikusi-nahizko mugimendu bat izan zen beraz, eta adeizko bat. Morel zen. Bakarra nintzan behar bada Saint-Loup-ek eta aldi berean Saint-Loup-en adixkide batek ordaindurik izana zela banakiena. Orhoitzapen horiek izan arren egunon erran zautan atseginekin nahiz begirunekin. Balbec-en elgar ikusia ginuen demboraz orhoit zen, eta orhoitzapen horiek bazituzten harendako gazarroko poesia eta gogo-ilundura.

Baina baziren ere ezagunak enituelako arrazoinez berrezagutzen ahal enituen jende batzu, ezen, jendetan beretan bezain ontsa, aroak, saloin hortan, bere kimia erabilia zuen ere gizartearen gainean. Mundu horrek, Europako izen printzetar guziak erakhartzen zauzkon idego batzuez eta arixtokraziakoa etzen oro urruntzen zuen higuntza batez egina zuen natura berezian aurkitua bainuen bere azken izaite egiazkoa emaiten zaukon Guermantes izenarendako gauzazko gerizagune bat bezalakoa, mundu horrek berak, bere izanara minean eta geldia uste ukana nuenean, mundu horrek aldatze barnatu bat jasana zuen. Osoki bertzelako gizarte batzuetan ikusiak nituen eta hortan behin ere sartu behar etzutela iduritua zizatan jende batzuen hor izaitteak, onhartuak ziren etxekotasun minak eta izen ttipiaz deituak izaiteak baino ere gutiago ustegabetu ninduen; handi-ustezko, arixtokraziako usterkeria andana bat, harekin ongi etzoan guzia hutsegin gabe lehenago Guermantes izenetik baztertzen zuena, ari izaitetik gelditua zen. Laxatuak ala hautsiak, gibelera igortzeko mekanikaren erresortak etziren gehiago ari, mila

gauza arrotz hara sartzen ziren, berdintasun oro, egonara on oro, berezitasun oro ekhertzen zaukoten. Batzu, munduan abiatu nintzanean Guermantes-ko prinzesa, Guermantes-ko dukesa, Parme-ko prinzesa baizik hetan onhartzen etzuten auhari handi batzu emaiten zituztenak eta andere horien etxean ohorezko lekua zutenak, orduko munduan hobekienik jarria zen guziarendako hartzen zirenak, eta behar bada hala zirenak, iraganak ziren, hatzik utzi gabe. Atzerritar batzu ote ziren diplomaziako mezulari izanik bere herrira berriz itzuliak? Behar bada eskandala batek, bere buruaz egite batek, bortxaz eremaita batek debekatua zauen mundura berriz agertzea, ala Alemanak ziren? Baina haien izenak bere ospea etzuen orduan zuten kargutik baizik eta nehork etzuen gehiago erabilia, hetaz mintzo banintzan nor erran nahi nuen etzen jakiten ere, eta, haien izenaren erraitera entseatzean nintzanean, razta batzu zirela uste zen. Hor izan behar etzuten jendeak, gizarteko lege zahararren araura, andere adixkide hobetzat bazituzten, ene ustegabetze handitan, jende miragarriki jaio batzu, Guermantes-ko prinzesaren etxean aspertzera bere adixkide berrien gatik baizik jinak etzirenak. Ezen mundu hori gehienik ezagun-arazten zuena, lerrotik jausteko zuen dohain miragarria zen.

Saint-Germain bazter-hiriak, atso alhargun haurtu batek bezala, saloinak betetzen, iranja-edaria edaten eta bere ohaideak aitzineratzen zaukoten mutil ozarrer etzauen irriño herabe batzuekin baizik ihardesten. Aro iraganeko eta neure iraganaren zati ttipi bateko ezteustearen sendipena bizitasun gutiagorekin zizatan oraino Guermantes-ko saloina izana zen jende multzo arau berdineko haren barreatzeaz emana, oraino han zen holakoa ezin naturalkiago han ezaguna zela eta bere lekuan, hura ukhondoaz huntitzen zuen halakoak aldiz berritasun dudazko bat bazuela egiten zuen mila arrazoinen, mila berexkuntzen ezagutzearen ezteustez beraz baino. Ez eza gutze hori etzen bakarrik mundukoa, baina polikakoa, orotakoa. Ezen orhoitak jenden baitan biziak baino gutiago irauten zuen, eta gainera, gazte-gazte batzuek, bertzen baitan ezeztatu orhoitzapenak ehoiz ukan etzituztenek, orai munduko zati bat baitzegiten, zuzen-zuzenki, nobleziako erran-nahian ere, jendeak goititzeko edo erortzeko ziren heinean hartzen zituzten, beti horrela izana zela ustez, Zuan Andereak eta Guermantes-ko prinzesak eta Bloch-ek beti lerro gorena ukana zutela, Clemenceau eta Viviani beti konserbadore izanak. Eta gauza batzuek iraupen gehiago baitute, Dreyfus aferako orhoit-

zapen hastiatuak nahasiki baitzirauen haien baitan aitek errana zauetenari esker, Clemenceau dreyfustiarra izana zela erraiten baldin bazizeen, bazioten: « Ezin da, nahasten duzu, bertze alderdian da zuzen. » Minixtro nariatu batzu eta lehengo emagaldu batzu bertutaren ereditako hartuak ziren. Norbaitek familia handieneko gizon gazte bati galdeginik Gilberte-ren amaz erraiteko zerbait izana etzenez, jaun gazteak ihardetsi zuen alabaina biziko lehen zatian Zuan izeneko jukutre bat ezkondua zuela, baina gero munduko gizon aiphatuenetarik bat esposatua, Forcheville-ko kondea. Dudarik gabe saloin hortan oraino jende batzuek, Guermantes-ko dukesak behazunez, erran hortan (Zuanen aphaina ukhatuz, izigarri iduritzen zizatana, nihaurek lehenago, Combray-n, Zuanek « prinzesarik » baizik ezagutzen ahal etzuela amaxirekin uste ukana nuelarik) irriño eginen zuten, eta ere hor izanen ahal ziren emazte batzuek, Montmorency-ko, Mouchy-ko, Sagan-go dukesek, Zuanen adixkide minak izanak zirenak eta behin ere Forcheville ikusia etzutenak, mundura zoazen aroan ezpaitzen oraino han onhartua. Baina hori da hain zuzen orduko munduak, egungo aurpegi aldatuak eta ile zuri batzuez ordaindu ile horiak bezala, izaiterik etzuelakotz haien multzoa egun oroz ttipitzen ari zen jenden orhoitean baizik. Bloch, gerla demboran, « atherat-zetik », han itxura txarra zuen lehenagoko bere ingurunetara joaitetik gelditua zen. Aldiz, etzen liburu batzuen argiratzetik gelditua, hartaz trabatua ez izaiteko, heien erretorika zentzugabekoaren barreatzera ari bainintzan orai, berezitasunik gabeko liburuak, baina jende gazter eta munduko ainitz emazter adimenduko goratasun guti hedatu baten, halako jeinu baten iduripena emaiten zauetenak. Haren lehengo mundutarkeriaren eta oraikoaren arteko hauste oso baten ondotik zuen beraz, gizarte bermoldatu batean, bere biziko aldi berri, ohoratu, loriazko bateko, gizon handi agertzea egina. Jende gaztek etzakiten alabaina munduan hastapenak adin hartan egin zituela, are gutiago nun Saint-Loup-ekin ibiltzetik gogoan atxikiak zituen izen gutiek bere oraiko ospe handiari halako gibelatze mugagabeko baten emaitera uzten baitzuten. Dena den mundu handian aro guzietan distiratu duten antzeko gizon hetarik bat iduri zuen, eta nehoiz bertze nunbait bizi izana zela etzen gogoari emaiten.

Gizaldi berrietako jendek Guermantes-ko dukesa gauza gutitako bazadukaten andere jokari batzu ezagutzen zituelakotz, eta b., familiako an-

dere orai zahartuek ohi ez bezalako norbait zela uste zuten beti, alde batetik bazazkitelakotz zuzenki haren jaiotzea, heraldikako lehentasuna, Forcheville-ko Andereak royalties deituko zituenekin adixkidantza minak, baina ere familiara jitea gutiesten zuelakotz, han aspertzen baitzen eta jakina baitzen ehoiz etzaitekeela hari egon. Antzokian eta politikan zituen adixkidantzek, gainera gaizki ezagunek, etzuten haren bekantasuna, beraz ospea, handitzen baizik. Hala nola nun, politikako eta ederlandeko munduan jende guti argi batentzat zadukatelarik, Estatuko azpi-segeretariekin eta izarrekin dabilan Saint-Germain bazter-hiriko halako arnegatu bat, Saint-Germain bazter-hiri hortan berean, arratsaldi eder bat emaiten baldin bazen, erraiten baitzen: « Balio dea ere Oriane-ren gomitatzea? Ezta jinen. Azkenean itxurako, baina ezta ametsik egin behar. » Eta, hamarrak eta erdi hirian, jantzi distiratu batean, bere begi idorrez andere gusi guziak gutiesten zituela iduri, Oriane sartzen baldin bazen, halako erdainu maiestatedun batekin alhartzean geldituz, oren batez egoiten bazen, arratsaldia emaiten zuen andere handi zaharrarendako besta bat zen, antzoki buruzagi batendako Sarah Bernhardt, emanen zuela uste etzen laguntza doi-doia hitzamana zuena, ethorria izan baliz eta, maitagarritasun eta lañotasun ezin handiagoeekin, hitzeman zatiaren orde, bertze hoge erranak ukan balitu baino handiagoa. Oriane horren han izaitteak, gabinetetako buruzagiak gainetik behera mintzatzen zizazkona eta hala ere (izpirituak derama mundua) hetarik gero eta gehiago ezagutzea bilatzen zuena, ezarria zuen alharguntsaren arratsaldia, han andere ezin aphainagorik baizik etzelarik alta, season bereko (Forcheville-ko Andereak erranen zuen bezala) bertze alharguntsen arratsaldi guzietarik, baina hetara Oriane desarrañatuko etzenetarik urrun eta gorago.

Germantes-ko printzeari mintzatzea bururatua ukan nuen orduko, Bloch-ek hartu ninduen eta Germantes-ko dukesaren ganik nitaz ainitz mintzatzen entzuna zuen andere gazte bati eta egun hartako emazte aphainenetarik bat zenari atzineratu. Haren izena, bada, osoki ezezaguna zizatan, eta Germantes guziena etzizakokeen hari biziki ohikoa, Amerikarsa bati galdegin baitzaukon Saint-Loup-eko Andereak hor zen jende distiratuen guziarekin zer gatik iduri zuen hain etxekotua. Amerikarsa hori, bada, Farcy-ko kondearekin ezkondua zen, Forcheville-tarren ahaide guti ezagutua eta hauek harendako munduan zen handien guzia

itxuratzen zutena. Ihardetsi zuen beraz lañoki: « Forcheville jaioa delakotz baizik ezpaliz ere. Handiena den guzia da. » Hala ere Farcy-ko Andereak, Forcheville izena Saint-Loup-ena baino goragoa zela xintxoki uste zuen batean, bazakien bederen azken hau zer zen. Baina Bloch-en eta Guermantes-ko dukesaren adixkide xoragarriak batere etzakien eta, aski xoriburu izanez, Saint-Loup-eko Anderea nolaz zen etxeko nagusiaren, Guermantes-ko printzearen ahaide galdegiten zaukon nexka gazte bati gogo onez ihardetsi zuen: « Forcheville-tarretarik », nexka gazteak betidanik jakina ukan balu bezala bere adixkide bati erran zaukon xehetasuna, hau, jite gaixtokoa izanez eta zaintsua, oilar bat bezala gorritu baitzen Gilberte etzela Forcheville-tarretarik Guermantes-tarren jendakian jaun batek erran zaukon lehen aldian, hala nola nun jaunak uste ukan baitzuen huts egina zuela, hutsa bere gain hartu eta laster hedatu. Auhariak, munduko bestak, Amerikarsarendako halako Ecole Berlitz bat ziren. Izenak entzuten zituen eta aitzinetik haien balioa, zabaldura zuzena ezagutua ukan gabe errepikatzen. Gilberte-ri Tansonville Forcheville-ko jaun bere aitaren aldetik heldu zizakonez galdegiten zuen norbaiti, argitu zizakon etzela batere alde hortarik, senarraren familiako lur bat zela, Tansonville Guermantes-ko auzo zela, Marsantes-ko Anderearena, baina, azkarki bahitua izanez, Gilberte-rendako dotetzat berrerosirik izana. Azkenik noizpateko zahar batek Sagan-darren eta Mouchy-tarren adixkide Zuan aiphatua ukanik, eta Bloch-en adixkide Amerikarsak nik nola ezagutua nuen galdeginik, Guermantes-ko dukesaren etxean ezagutua nuela erran zuen, enetako baserriko auzoa, aitatxiren adixkide gaztea itxuratzen zuela jelostu gabe. Mota hortako hutsak gizon aiphatuenez eginak izan dira eta bereziki larriak bezala hartzen dira mundu konserbadore orotan. Saint-Simon-ek, Luis XIV-garrena « batzuetan, jenden aitzinean, arrazoiingabeke-ria arruntenetara eror-razi zuen » jakitate gabekoa zela erakutsi nahiz, eztitu jakitate gabe hortaz bi behazun baizik emaiten, Erregek, Renel Clermont-Gallerande familiakoa zela ez jakinez, ez eta Saint-Herem Montmorin-goa, gutiko gizon batzuer bezala egin zauela. Bederen, Saint-Herem-i doakonaz, Errege etzela hutsean hil jakiteko zoriona badugu, La Rochefoucauld-eko Jaunaz « biziki berant » argitua izan baitzen.

Iragan hurbilena hoin laster estaltzen duen ahazte bizi horrek, jakin-gabe hoin hedatu horrek ondorioz jakitate ttipi bat are baliodunagoa egiten

du nun guti hedatua baita, jenden ethorkiari doakonean, haien egiazko izarari, horrelako familiarekin ongi edo gaizki ahaidetu diren maitasuneko, diruko ala bertze arrazoiner, gogo konserbadorea nagusi den gizarte guzietan jakitate estimatua, ene aitatzik Combray-ko edo Parisko burjesiaz hein gorenean zuen jakitatea, Saint-Simon-ek hainbaterano eztimatzen zuena nun Conti-ko printzearen adimendu mirazkoa goraiphatzen duen orduan, jakitatez mintzatzea ere baino lehen, edo izaitekotz jakitatetan lehenbizikoa baliz bezala, « izpiritu biziki eder bat » izanik goresten baitu, « argia, zuzena, zorrotza, hedatua, irakurtze mugagabekoa, ezer ahazten etzuen, ethorkiak bazazkiena, hetako ameskeriak eta egiak, lerroaren, mereximenduaren arau jendetasun hautukoa, odoleko printzek eginbide duten eta gehiago egiten eztuten guzia emanez; hortaz argibide emaiten zuen ere, eta haien jabetze zuzenkontrakoez. Liburu eta solasaldietako ixtorioak eskaintzen zaukon jaoitzeaz, ofizioez eta bertze gauzez eman ahal zezakeen gogo hobekoenaren emaitetua. » Gutiago distiratu, Combray-ko edo Parisko burjesiari zagokoa guzia, aitatzik etzakien zuzentasun gutiagorekin, eta etzuen gutiago ahogozorekin jastatzen. Ahoxuri horiek, maitale horiek gutituak ziren jadanik, Gilberte etzela Forcheville, Cambremer-ko Anderea ez Méséglise, ez eta andere gazterena Valentinois bat bazakitenak. Gutituak, ez ariztokrazia handiengan bilduak ere behar bada (eztira baitezpada debotak, ez ere katolikoak, Leienda Urrezatua edo XIII-garren mendeko eliza-berinetan jakintsunenak), usu bigarren maileko ariztokrazia batean, ainitz hurbiltzen eztuenaz gutiziatuangoan eta are gehiago haren ikhertzeko asti baduenean nun gutiago ikusten baitu; baina atseginez elgarretaratzen direnak, batzu eta bertzen ezagutza eginez, Liburu-maitalen Lagunartea edo Reims-ko Adixkideak bezalako batzorde batzuetako auhari aho-gozagarri batzu emanez, hetan ethorkiak jastatzen diren auhariak. Emazteak eztira hor onhartuak, baina senarrek etxeratzean badiote bereari: « Auhari atsegingarri bat egin dut. Bazen han La Raspelière-ko Jauna xoratuak atxiki baigitu alaba hoin pollit hori duen Saint-Loup-eko Anderea eztela batere Forcheville sortua argituz. Elhebarri bat osoa da. »

Bloch-en eta Guermantes-ko dukesaren andere adixkidea etzen bakarrik aphaina eta xoragarria, adimenduna zen ere, eta solasaldia harekin gozagarri zen, baina neke egina zizatan etzelakotz bakarrik ene solaskidearen

izena enetako berria, baina hetaz mintzatu zizatan eta orai gizarteko zola bazegiten jende ainitzena. Egia da, bertze aldetik, ixtorio erraiten entzun nahi baininduen, aiphatu nauzkonetan ainitzek etzaukotela batere jeus erraiten, oro ahazpenera eroriak ziren, bederen jende baten distira bereziaz baizik distiran izanak etzirenak eta arixtokraziako familia aiphatu zenbaiten izen ethorkizko eta iraunkorrik etzutenak (andere gazteak bekan baitzakien haien titulu zuzena, bezperan auhari batean makur entzuna zuen izen batean hutsezko jaiotze batzu bazirela ustez), eta gehienak etzituen behin ere erraiten entzunak, mundura joaiten ez hasia izanez (ez bakarrik oraino gazte zelakotz, baina Frantzian berriki danik bizi zelakotz eta munduan ez berehala onharturik izana) nihaur handik atheraia nintzanetik zenbait urte berantago baizik. Eztakit Leroi Anderearen izena ene ezpainetarik nola erori zen, eta halabeharrez, ene solaskideak, Guermantes-ko Anderearen adixkide zahar, haren ondoan galant izan zenbaiti esker, aiphatzen entzuna zuen. Baina ez zuzenki, andere gazte handi-usteak ihardetsi zautan doinu gutiesletik ikusi nuen bezala: « Ba, Leroi Anderea nor den badakit, Bergotte-ren adixkide zahar bat », doinu bat « etxera jin zadin behin ere nahi ukanen enuen norbait » erran nahi zuena. Biziki ontsa hartu nuen Guermantes-ko Anderearen adixkide zaharrak, Guermantes-tarren izpirituaz bete munduko gizon egiazko bezala, hortako ezagugarrietan bat arixtokraziakoekin ibiltzeari balio handiegirik ez emaita baitzen, zozoegi eta sobera Guermantes-tarren kontrako aurkitua zuela: « Leroi Anderea goientasun guziekin, Dukesa guziekin ibiltzen zena » erraitea, eta erran nahiago ukana zuen: « Aski jostagarri zen. Eta Bergotte-ri egun batez hau ihardetsi dauko. » Bakarrik, eztakiten jendendako, solasetikako xehetasun horiek Gazeteriak jende xeheri emaiten dauzkonak balio dituzte aldikatuz sinesten baitu, egunkariaren arabera, Loubet Jauna eta Reinach Jauna ohoinak direla edo herritar handiak. Ene solaskidearendako, Leroi Anderea lehen arako Verdurin Andere mota bat izana zen, distira gutiagorekin eta haren multxo ttipia Bergotte bakarrean mugatua izanen zena. Andere gazte hori, bertzela ere, halabehar hutsez, Leroi Anderearen izena entzuna duen azkenetarik bat da. Gaurregun nehork eztaki gehiago nor den, gainera osoki zuzen den gauza. Haren izena ezta ageri ere Villeparisis-ko Anderearen hilondoko Orhoitzapenen aurkibidean, haren gogoia Leroi Andereak hainbat atxikia zuelarik. Markestsa ezta bert-

zela ere Leroi Andereaz mintzatu, gutiago hau bizi zeno haren aldera guti maitagarri izana zelakotz, hil ondoan nehor huntaz axola etzaitekeelakotz baino, eta ixil hori idazlearen literaturoko arteziak baino gutiago du gorromio mundutarrak manatua. Bloch-en andere adixkide aphainarekilako ene solasaldia xoragarria izan zen, baina gure bi hiztegien arteko ezperdintasun horrek nekea egiten zuen eta aldi berean ikaskarria. Urtek badiragatela jakin dezakegu, gaztaroak lekua zaharraroari uzten daukola, fortuna eta tronu azkarrenak erortzen direla, omena iragankor dela, mundu oso higikor horren, Aroak deramanaren ezagutzeko eta hala erraiteko argazkiaren hartzeko dугun arak, kontra moldez, geldi-gelditzen du. Hala nola nun gazte ezagunak ditugun jendeak beti gazte ikusten baititugu, zahar ezagutuak ditugunak gerotik behatuz iraganean zaharraroko bertutez aphaintzen, miliardun baten indarrean eta errege baten laguntzan garbiki fidatzen baigira, arrazoinamendutik jakinez, baina ez egiazki sinetsiz, bihar botereaz gabetu ihesle batzu izan daitezkeela. Eremu hertsia eta mundutarkeria hutsezko batean, neke mota bereko baina batzunagoetara sartzea bademan problema errex batean bezala, andere gaztearekilako gure solasaldian, mundu berezi batean hogei-ta bortz urte lehenago bizi izanak girelako ondorioa zen ezin elgar aditzeak, Ixtorioaren ezagutzeko iduripena bazematan eta ene baitan azkartzen ahalko zuen.

Gainera, aithortu behar da egiazko izanaren ez jakite hori, iraganik ezpaliz bezala hamar urtetarik dohatsuak orai duten itxuran agerr-arazten dituen, Amerikarsa berriki leihorreratu bati debakatzen daukona Charlus-ko Jaunak Parisen lerro handiena ukana zuela Bloch-ek oraino batere etzuelarik, eta Zuan, Bontemps Jaunarendako hainbat indar bazegiena, adixkidantza handienarekin harturik izana zela ikustea, ez jakite hori eztela bakarrik berriki ethorri direnen baitan, baina beti lagunarte hurbil batzuetan ibili direnengan, eta jakitate gabea, azken hauen baitan bertzerenean bezala, Aroaren eragin bat dela ere (baina aldi huntan jende bakoitzan egiten dena eta ez gizarteko mailean). Dudarik gabe, ingurumenez, bizi motaz aldatzen ahal gira, gure orhoitak, gure nortasun berdinen haria atxikiz, lotzen dauko, arotaldi jarraikietan, berrogei urte lehenago bazen ere haien artean bizi izan giren jenden orhoitzapena. Guermantes-ko printzearen etxean Bloch-ek bazakien beteginki hemezortzi urtetan han bizi izana zen ingurumen judu

xumea, eta Zuanek, Zuan Anderea gehiago maite ukan etzuenean, baina Zuan Andereak zenbait demboraz hara joaitea, Erret-karrikako thera bezala, aphain zela uste ukana zuen Colombin haren beraren etxean thea zerbitzatzen zuen emazte bat, Zuanek bazakien biziki ontsa munduan zuen balioa, Twickenham-ez orhoitzen zen, Colombin-en etxera Broglie-ko dukesarenera baino joan nahiago ukaiteko zituen arrazoinenez dudarik batere etzuen, eta bazakien beteginki bera mila aldiz gutiago « aphain » izana baliz ere, horrek etzuela Colombin-en etxera edo Ritz hotel-era joanez miko bat gehiago hala eginen, ordainduz jende guzia hara joan daitekeenaz geroz. Bloch-en eta Zuanen adixkideak hek ere judu multzo ttipiaz edo Twickenham-eko gomitez orhoit ziren dudarik gabe, eta horrela adixkidek, Zuanen eta Blochen « ni » berezi, gutixago ageri batzuek bezala, bere orhoitean etzuten oraiko Bloch aphaina lehengo Bloch sordesetik berexten, Colombin-en etxeko Zuan azken egunetakoa Buckingham-Palace-ko Zuanetik. Baina adixkide horiek bizian zerbait moldez Zuanen auzoak ziren; horien biziak marra aski hurbil bat iragana zuen orhoita hortaz aski betea izan zadintzat; baina Zuanen ganik urrunduago batzuen baitan, ez bereziki urrunago gizarte moldean baina etxekotasunean, horrek ezagutza ahulago egina baitzuen eta aurkintzak biziki bekanak, gutiago ziren orhoitzapenek ideiak dudazkoagoak utziak zituzten. Bada, mota hortako arrotz batzuen baitan, hoguei-ta hamar urteren buruan ezta gehiago begien azpian den jendea balioz alda dezakeenik eta iraganean iraun-araz ahal dezonik jeus zuzenez orhoitzen. Zuanen biziko azken urtetan, jende batzu entzuenak nituen, mundukoak alta, hartaz mintzo zizezteenean, erraiten, haren omenaren arrazoina hori izana baliz bezala: « Colombin-en etxeko Zuanez mintzo zira? » Entzuten nituen orai bizkitartean jakinduru izan behar ukanen zuten jende batzu, Bloch-ez mintzatzean erraiten: « Bloch-Guermantes delakoa? Guermantes-tarren etxekotua? » Bizi bat zatitzen duten huts horiek eta, oraia hartarik berexiz, aiphatzen den gizon batetik bertze bat egiten, gizon ezperdin bat, bezperako izaite bat, oraiko bere ohiduren bilgune bat baizik ezten gizon bat (berak aldiz bere baitan deramalarik iraganari lotzen duen biziko jarraipena), huts horiek Aroari dagozko bada ere, baina eztira gizarteko gertaldi bat, baina orhoiteko bat. Ordu berean behazun bat ukan nuen jenden itxura guretako aldatzen duten

ahazpen horiez, mota aski bertzelako batekoa egia erran baina are ohargarriagoa. Guermantes-ko Anderearen iloba gazte bat, Villemandois-ko markesa, lehenago enetako ozarrerria hisitu batekoa izana zen, ordaintzez eremana baininduen haren aldera egonara hain laidagarri baten hartzera nun ixilean bi etsai bezala bilakatuak baiginen. Goizaldi hortan Guermantes-ko prinzesaren etxean Aroaz gogoetan nindagolarik, bere burua eni aitzinera-arazi zautan haren gurasoak ezagutuak nituela uste zuela erranez, ene artikulu batzu irakurriak zituela eta enekin ezagutza egin edo berregin nahi. Adinarekin, ainitz bezala, ozarretik serio bilakaturia zela erraitea egia da, etzuela burgoikeria bera, eta bertze aldetik, nitaz mintzo zirela, artikulu ontsa arin batzuez alta, han bazabilan ingurumenean. Baina haren bihotz oneko eta aitzin-urhatsetako arrazoin horiek etziren gaineragarriak baizik izan. Nagusia, edo bederen bertzeak jokoan sartzera utzi zituen, izan zen, ala nitaz orhoitzapen gaixtogo bat ukanez, ala hark ene ihardokitzer nik haren jaukitaldier baino oharpen gutiago jarraikia emana ukanik, harendako orduan hura enetako zen baino ttipiagoko norbait nintzalakotz, gure etsaigoa osoki ahatzia zuela. Ene izenak orhoit-arazten zaukon gehien-gehienik ikusia nindukeela, edo enetarik norbait, bere izaba baten etxean. Eta ez jakinez zuzen bere burua atzinera-arazten zuenez ala berriz egiten, bere izabaz mintzatzen lehia zuen, ezpaitzuen haren etxean ikusia nindukeela dudan emaiten, han usu nitaz mintzo zirela orhoituz, baina ez gure liskarrez. Izen bat, hori da ainitzetan guretako norbaitez gelditzen den guzia, ez hil denean bakarrik, baina bizian ere. Eta hartaz ditugun ideiak hain dira nahasiak edo bitxiak, eta hark gutaz dituenekin hain guti dira arautzen, nun harekin buruz buru gudukatzer girela abantzu osoki ahatzia baitugu, baina orhoit gira bazituela, haurrean, Champs-Élysées-etan zango-galtxoin hori bitxi batzu, eztuelarik alta, nahiz hortaz segurtatzen dugun, hetan gurekin jostatu delako orhoitzapenik batiere.

Bloch sartua zen hiena bat bezala jauzika. Gogatzen nuen: « Due-la hoge urte sartuko etzen saloin batzuetara jiten da. » Baina hoge urte gehiago bazituen ere. Heriotzera hurbilago zen. Horrek zertan aitzinatzen zuen? Urrunagotik eta gaizki argitua, gaztaro alaia baizik (ala han irauten zuelakotz, ala nik hartan gogoratzen) enakusan aurpegi bateko zehargian, hurbildik, han zen, antzoki-gibelunean, guzia thinduztatua, tauladara sart-

zeco ordua iguritzen zuen Shylock zahar baten aurpegi abantzu laztagarria, antsia osoan, jadanik ahapeka lehen neurtitzaren errepikatzen ari. Hamar urteren buruan, haien ahulkkeriak onhar-arazia ukanen zuen saloin horietan, besapekoan bermatuz sartuko zen, « nagusi » bilakatua, La Trémoille-tarren etxera joan behar ukaitea bortxu-lan bat bezala aurkituz. Horrek zertara aitzinatuko zuen?

Gizartean egin aldakuntzetarik egia handi batzu eta ene laneko zati bati indar emaiteko gai zirenak are gehiago athera nezazkeen nun ezpaitziren batere, lehen orduan sinestera ekharria izanen ahal nintzan bezala, beriziki gure adinekoak. Nihaur doi-doia heldua, Bloch bera gaurregun zen baino berriago, Guermantes-tarren ingurunean sartua nintzanean, han jende oso ki bertzelako batzuer beha egona nintzatekeen, ingurune horren barneko izanak balire bezala, berriki bilduak eta hetarik berexten enituen zaharrago batzuekako bitxiki berriak iduri zutenak eta hek berak, edo haien aitak, edo aitabitxiak betidanik Bazter-hirikideak ziren orduko dukek onhartuak izanik, lehenago han heldu berri batzu izanak zirenek. Etzuen beraz mundu handiko gizon izaiteko gaitasunak gizalde hori hoin distiratu egiten, baina berrogei-ta hamar urte berantago orok berdin iduri zuten jendetarik mundu handiko jende batzu egiten zituen gizalde horrek guti edo aski osoki bere-tuak izaiteak. Bere handitasun guziaren emaiteko, eta gainera arrazoinekin, Luis XIV-garrenaren aroan Guermantes-tarrek, abantzu errege lerrokoak, orai baino itxura handiagoa baitzegiten, Guermantes izena hara urruntzen nuen iraganean, ordu huntan ohartzen nindakon gertaldia berdin egiten zen. Etzirena orduan ikusi behazunez Colbert familiarekin ahaidetzen, hori gaurregun, egia erran, biziki noble iduritzen zaikularik, La Rochefoucauld batendako Colbert andere baten ezkontzea hautu handi bat iduritzen denaz geroz? Baina ezta Colbert-tarrak, orduan burjes xoilak, noble zirelaketz Guermantes-tarrak haiekin ahaidetu zirela, Guermantes-tarrak haiekin ahaidetu zirelaketz ziren hek noble bilakatu. Haussonville izena etxe horren oraiko jabearekin gelditzen baldin bada, bere aiphamena behar bada Staël-go Andearen ganik jaustetik hartuko du, Iraultza aitzinean Haussonville-ko Jauna, erresumako lehen jaunetarik bat, Broglie-ko Jaunaren ondoan Staël-go Anderearen aitaren ez ezagutzeaz hantzen zelarik, eta ez hari aitzineratu ahalaz Broglie-ko Jaunak berak egin zezakeen baino gehiago, egun batez

haien semek ezkonduko zituztela batek Corinne-ren idazlearen alaba, bertzeak alababixia batere gogoan ukan gabe. Guermantes-ko dukesak erraiten zautanetik ohartzen nintzan mundu hortan titulurik gabeko gizon aphain baten itxura eginen ahal nuela, baina betidanik arixtokraziako batasunean sartua dela gogotik uste denarena, Zuanek behin egina zuena, eta hura baino lehen Lebrun Jaunak, Ampère Jaunak, Broglie-ko dukesaren adixkide horiek oro, hastapenean bera biziki guti mundu handikoa zelarik. Guermantes-ko Anderearen etxean auhaldua nintzan lehen aldietan, zenbat enituzkeen Beaucerfeuil-ko Jauna bezalako gizon batzu ofensatu, gutiago ene han izaitiaz beraz haren iragana bazegiten eta gizarteaz zuen iduriari bere moldea bazemakoten orhoitzapenez osoki jakingabea nintzala erakusten zuten ohar batzuez baino! Bloch-ek egun batez, zahar-zaharturik orai haren begietan agertzen zen Guermantes-ko saloinaren orhoitzapen azki zahar bat ukanen zuenean, hara sartze batzuen eta jakingabe batzuen aitzinean ustegabetze bera, omore gaixto bera sendituko zuen. Eta bertzalde, Norpois-ko Jauna bezalakoen fagoreak zirela uste ukanak nituen artezia eta zuhurtziazko gaitasun hek bilduak ukanen zituzkeen eta bere inguruan hedatuko, ororen artean gehinik baztertzen zituztela iduri zauzkunen baitan berriz moldatzen baitira eta jartzen. Bertzela ere, Guermantes-tarren etxean onhartua izaiteko ukana nuen aldia bereziki ohi ez bezalako zerbait iduritua zizatan. Baina neure baitatik eta artekorik gabe inguratzen ninduen gunetik jalgitzen baldin banintzan, banakusan gizarteko gertakari hori etzela lehenik iduritua zizatan bezain bakarra, eta sortua nintzan Combray-ko ibarretik, aski ainitz zirela oro har ene arau berean haziak zituen meta ubil beraren gainean goitituak ziren ur xirrixtak. Dударik gabe, gertaldiek baitute beti berezi den zerbait eta jitek nork berekotik, molde osoki ezperdin batean zen Legrandin (ilobaren ezkontza bitxiaren bidez) bere aldian ingurumen hortan sartua, Odette-ren alaba horrekin ahaidetua, eta ginen Zuan bera, eta azkenean ni hortara ethorriak. Ni neure bizian hetsia egona bainintzan eta hori kampotik ikustean, Legrandin-enak berdinek jeus etzuela iduritzen zizatan eta kontrako bide batzu hartuak zituela, halaber ur-erreka batek, bere ibarraren zolan, baztertuz doan bertze erreka bat ezpaitu ikusten, hau bizkitartearen bere bideko baztertzeak izanik ere, ibai berean sartzen delarik. Baina zuzenezuzenean, jende bat heriora ereman duten zuhurtzia-gabe hutsegingarriez

eta sendimenduzko arrazoinenez axolatzen ezten eztaiztikariak badagien, eta bakarrik urteka hiltzen diren jendeak zenbatzen dituen bezala, ikusten zen ingurumen beretik abiatu jende batzu, hetarik gehienek erakusteak ixtorio hunen hastapenean leku handi bat hartu baitu, bertze osoki ezperdin batera helduak zirela; eta itxura badu, Parisen urteka ezkontza andana arteko bat egiten baita, bertze edozein ingurumen burjes aberats eta ikasiek Zuan, Legrandin, ni edo Bloch bezalako jende multzo arau berdintsua emanen zuela, gero « mundu handiko » itsasora sartzen aurkitzen zirenak. Eta bertzela ere hor ezagutzen ziren, ezen Cambremer-ko konde gazteak mundu guzira mires-arazten baldin bazuen bere ikustate handiaz, aphaintasun neurtuaz, horietan ezagutzen nuen - haren so urdin ederrean eta heltzeko gutizia suharrean bezala - jadanik haren osaba Legrandin berex-arazten zuena, erran nahi da ene gurasoen adixkide zahar azkarki burjes bat, nahiz itxuraz arixtokrata.

Onezia, jite Bloch-ena baino lehenbizian saminago batzu azkenean eztitu dituen ontze xoilak, gure kontra artegatu juje baten aldeko baten baino gehiago, gure auzigaia ona bada, beldur izan behar eztugula egiten duen justiziako sendimendu hura bezain hedatua da. Eta Bloch-en semalababixiak onak eta begiratuak izanen ziren abantzu sortzez. Bloch etzen behar bada oraino hortan. Baina ohartu nintzan hark, joaitea galdegina etzaukon norbaiten ikustera joaiteko bi oren burdinbide egitera bere ustez bortxatua zena alegia egiten zuena lehenago, orai hainbat gomit ukaiten zituelarik ez bakarrik barazkaltze 'ta auhaltzera, baina hemen eta han hamabortz egunen iragaitera, ainitz etzituela onhartzan, eta hori erran gabe, horiek ukanik eta eza emanik espantu egin gabe. Begirantza, egintzetan, elhetan, gizarteko izanararekin eta adinarekin jina zizakon, halako gizarteko adin batekin, erran badaiteke. Dudarik gabe Bloch lehenago begirantza gabea zen oneziako eta aholkuko ahalgabea bezainbat. Baina akats batzu, gaitasun batzu gutiago dira jende berezi bati edo bertzearti lotuak, bizian holako edo halako ordu gizarteko aldetik ikusiari baino. Abantzu jendetarik kampokoak dira, hauk heien argi-petik iragaiten baitira ekhigeldi aldakor, aitzinetik jarri, orotako, ezin hutsegin batzuen azpitik bezala. Erremedio batek urdaileko samintasuna ttipitzen ala handitzen, hortako izertzea sustatzen ala eztitzen duenez jakitea bilatzen duten medikuek, ondorio ezperdinak ukaiten dituzte, ez haren izertzetarik urdail-ur apur bat hartzen duten urdailaren araura, baina hori

erremedio baten lixeritzeko ordu guti edo aski aitzinatuan hartzen duten araura.

Horrela, bere iraupeneko ordu orotan, Guermantes izenak, bere baitan, bere inguruan onhartzen zituen izen guzien bilduma bat bezala ikusirik, galtze batzu jasaiten zituen, gauza berri batzu biltzen, dodoia botoindu eta jadanik zimeltzen ari direnen ordaintzera doazen lore batzu, meta iduriz berdin batean ordu oroz elgarrekin nahasten diren baratzek bezala; salbu jinberriak oraino ikusiak eztitutzenendako eta bere orhoitean gehiago izaiterik ez tutenen iduri zuzena badatxikatenendako.

Goizaldi horrek biltzen zituen edo haien orhoitzapena gogoratzen zautan jendetan, batek baino gehiagok bazematzatan aldizka enetako ukanak zituen itxurak, ene aitzinean jalgia zen gertaldi jarraiki, ezperdin, kontrakoez, ene biziko itxura molde guziak eta itxurapeneko ezperdintasunak agerr-arazten zituen, hala nola lurrean mendixka ala jauregi batek, noiz eskunetik, noiz ezkerretik agertzean, iduri baitu lehenik oihan baten gainean dela, gero ibar batetik jalgitzen, eta badoan bidean horrela bidaia-riari bidez aldatze batzu erakusten baitauzko eta goratasun ezperdin batzu. Gero eta gorago iganez, aurkitzen nituen azkenean jende ber baten itxura batzu aroko arte hain luze batez bereziak, ni hain ezperdin batzuek begiratuak, berek erran-nahi hain ezperdinak zituztenak, nun haiekilako ene adixkidantzen iragana biltzen nuela uste nuenean, behin ezagunak nituen hek berak zirela gogoan ukaitetik gelditua nintzanean ere, eta, etimologia bati bezala, enetako ukana zuten erran-nahi hastapeneko bati haien lotzeko oharpen phindar ustegabeko bat behar nuenean, ohiki bazterrera uzten bainituen. Zuan Andereñoak igortzen zautan, elhorri gorrauxten hesiko bertze aldetik, gerotik behatuz haren erran-nahia zuzendu behar ukana nuen so bat, gutiziazkoa baitzen. Zuan Anderearen maitaleak, Combray-ko goronikaren arabera, hesi horren beraren giblean so egiten zautan orduan emana naukon erran-nahia hark ere etzuen aire idor batekin, eta geroztik hainbat aldatua zenarekin bertzela ere, nun Balbec-en Casino-ko ondoan iragarki bati so zagon jaunean ezpainuen batere ezagutua, eta, hamar urtetarik aldi batez, hartaz orhoitzea gertatzen baitzizatan neure baitan erranez: « Baina Charlus-ko Jauna zen, jadanik, zein bitxi den! » Guermantes-ko Anderea Percepied medikuaren ezkontzan, Zuan Anderea arrosa-kolorez jantzia ene

osababixiaren etxean, Cambremer-ko Anderea, Legrandin-en arreba, hain aphaína nun andere harendako gomendio bat eman zezakun othoitz ginezan beldur baitzen, horiek, eta ere Zuan, Saint-Loup eta bertzeak hunkitzen ziztuzten hainbat bezala, bertze hainbertze iduri ziren; eta batzuetan jostatzen nintzan, berraurikitzen nituenean, jende horiekin guziekin nituen adixkidantzetako alharzean aitzin-marrazkitako ezartzen, baina iduri baten itxura baizik ezpaitzizaztan alabaina, ez jendeak berak ene baitan ezarria, eta jeusek gehiago hari lotzen etzuen. Ezta bakarrik jende batzuek orhoita badutela eta bertze batzuek ez (Turkiako embaxadores eta bertze batzu hartan bizi diren ahazpen jarraikirano joan gabe, horrek uzten baititu beti - aitzineko berria zortzi egun barne ezeztatua denean, edo ondokoak haren haizatzeko dohaina baduenean - erraiten zaien kontrako berriari leku baten emaitera), baina, orhoiteko berdintasunean ere, bi jende ez tira gauza berez orhoitzen. Batek oharpen guti emana ukanen dauko bertzeak hartaz urriki handi atxikiko duen egintza bati, eta aldiz bertzeak abantzu gogoari eman gabe joaitera utzia ukanen duen elhe bat seinale onhargarri eta berezi bezala airera hartua ukanen. Hutsezko aitzin-asmu bat eman denean ez huts egina ukaiten den abantailak aitzin-asmu hortaz orhoitzeko iraupena laburtzen du eta eztela emana izan biziki laster baieztatza uzten. Azkenik, abantailnahi barnatuago batek, gutiago irabazinahi batek, orhoitak berezkatzen ditu, hala nola nun orhoitzen zazkon egintzak abantzu osoki ahatziak dituen poetak iduripen iheskor bat atxikitzen baitu. Hortarik guzitik dathor hogeï urtez leku batean ez izan ondoan, uste zen aiherkunde batzuen orde, barkamendu batzu aurkitzen direla, nahigabekoak, ohargabekoak, eta ordainez (eman dugun iduripen gaitza guk ere gure aldian ahatzia dugulakotz) haien arrazoina ezin argitua dela. Gehienik ezagutu ditugun jenden ixtorioan berean, egunak eta urteak ahatziak ditugu. Eta Guermantes-ko Andereak Bloch lehen aldian ikusia zuela hogeï urte bederen bazelakotz, sortzez haren mundukoa zela zin eginen zuen eta bi urte zituenean Chartres-ko dukesaren altzoan leriaturik izana.

Eta bere bizian zehar zenbat aldiz ziren jende horiek ene aitzinera itzuliak, biziko gertaldi bereziek jende berak aitzineratzen zituztela iduri baitzuten, baina molde ezperdin batzuetan, helburu ezperdin batzuetako! Eta jende horietako bakoitzaren biziko haria hetarik iragana zen neureko or-

duen ezperdinasunak nahasiak zituen azkenean horietan urrunduenak iduri zutenak, biziak marrazki ezperdinenen egiteko hari andana mugatu bat bai-zik ezpalu bezala. Ene iragan guzietan, behazunez, zer da ene osaba Adolphe-ri ene ikustaldiak baino, marexalaren gusi Villeparisis-ko Anderearen iloba baino, Legrandin eta haren arreba baino, korroilan Françoise-ren adixkide barneko-motx egilea baino gehiago berexirik? Eta gaurregun hari horiek oro bilduak ziren bilbearen egiteko, hemen Saint-Loup senar-emazterena, hor Cambremer senar-emazte gazterena, Morel-ez ez mintzatzeko, eta bertze hainbertzerena, horien bateratzak gertaldi baten moldatzea egina baitzuen, gertaldia batasun osoa zela iduritzen baitzizatan, eta jende bakoitza bakarrik zati osatzale bat. Eta ene bizia jadanik aski luzea zen ezkaintzen zauztan jendetarik bat baino gehiagorendako, une kontrakoetako ene orhoitzapenetan, haren osatzeko, bertze bat ediren nezantzat. Haren omeneko seinale bat zen leku batean hemen ikusten nituen Elstir-en margazkier ere, gainera eman nezezkeen Verdurin-darren, Cotard-tarren orhoitzapen zaharragoak, solasaldia Rivebelle-ko ostatuan, Albertine ezaguna nuen goizaldia, eta hainbat bertze. Horrela erretaula baten zati bat erakusten zakon ederlan maitale bat orhoitzen da zein elizatan, zein erakustokietan, zein bilduma berezietan diren bertzeak banakatuak (berdin ere saltzetako kataloger jarraikiz edo zaharki saltzaletan ibiliz berak duenaren gauza biritxia eta harekin parela badagiena du azkenean hatzemaiten); bere buruan berriz egin dezake erretaulazpia, aldare osoa. Gindel bati goiti doan untzi batek soka errepikan eta kontrako aldetan joiten duen bezala, jenderik etzen, ez abantzu gauzarik ere ene bizian leku bat ukanik, han jokaldi ezperdin batzu aldizka jokatuak etzituenik. Adixkidantza mundutar xoil bat, gauza bat berdin, urte zenbaiten buruan orhoitean berraurkitzen banuen, banakusan bizia etzela haren inguruan hari ezperdin batzuen irutetik gelditua, azkenean urtetako balusa eder ezin imitatuaz feldrotzen baitzuten, baratze zaharretan ur-hodi xoil bat esmeraldazko magina batez inguratzen duenaren berdina.

Jende horien itxurak etzuen bakarrik ametsetako batzu zirelako ideia emaiten. Haien berentzat, bizia, gaztaroko eta maitasuneko loan jadanik hartua, gero eta gehiago amets bilakatua zen. Aiherkundeak ere ahatziak zituzten, herrak ere, eta hor zen jendea zuela hamar urte etzaukotela elherik emaiten segur izaiteko, une berezi batera hel egin behar ukanen zuten, baina

hartan nortaz laidoztaturik izanak giren gehiago eztakigun amets bat bezain nahasira. Amets horiek orok egiten zituzten politikako biziaren itxura kontra moldekatuak, minixterio berean ikusten baitziren erahiltzez edo tradimenduz elgar salaturik izanak ziren jende batzu. Eta amets hori agure batzuen baitan herioa bezain dorpe bilakatzen zen, amore egina zuten eguner jarraitkitzen zizezteen egunetan. Egun horietan, ezer etzaitekeen gehiago galdegin Errepublikako presidentari, oro ahazten zuen. Gero egun zenbaitez phausatzera uzten zen, egiteko publikoez orhoitzea berriz itzultzen zizakon, amets batena bezain ustegabekoa.

Batzuetan jende hori, geroztik ezaguna nuenetik hain bertzelakoa, etzen iduri bakar batean agertzen. Urtez eta urtez zizatan Bergotte agure ezti hauteko bat iduritua, nintzan nihaur Zuanen xapel hautsaranaren aitzinean agerpen batez bezala paralisatua senditua, haren emaztearen soin-gaineko ubelarenean, saloinerano bere arrazako izenak Guermantes-ko dukesa inguratzen zuen mixterioarenean: ethorki abantzu alegietakoak, gero hain ohikoak bilakatu adixkidantzetao mithologia xoragarria, baina iraganean zeru zabalean bezala luzatzen zutena, izar adardun baten buztan dirdiratuak badigorran bezalako argi bizi batekin. Eta mixterioan hasiak etzirenek ere, Souvré-ko Anderearekin ene adixkidantza bezala, hain idorra eta orai osoki mundutarra, hastapenean bazatzikaten bere lehenbiziko irriñoa, gozoagoa, eztiagoa, eta itsas-bazterrean arratsalde bateko betetasunean, Parisen uda leheneko egun azken, zaldi-karrosez, errauts airatuez, eta ura bezala higitu iguzkiz harrabostun batekoan hain leunki marrazkitua. Eta behar bada Souvré-ko Andereak etzuen balio handirik ukanen ingurune hortarik berezia izan baliz, hala nola, bere baitako edertasun handirik gabe - Salute-a behazunez -, diren lekuan hain miragarriki emaiten duten eraikuntza batzu, baina « bata bertzearekin » balio zerbaitekoak estimatzen nituen orhoitzapen andana batekoa zen, hor Souvré-ko Andereak bera zuzenean zenbateko zen nihauri galdez egon gabe.

Jasanak zituzten gorputzeko, gizarteko aldapenek ere baino gehiago, gauza batek ustegabetu ninduen, hori zen elgarrendako zuten ideia ezperdinari zoakona. Legrandin-ek Bloch gaitzesten zuen eta nehoiz etzaukon elherik emaiten. Biziki maitagarri izan zen harekin. Etzen hori batere Bloch-ek hartua zuen lerro handiagoren gatik, aldi hortan ohartua izaita merezi

elukeena, gizarteko aldapenek ekhartzen baitituzte nahitez arau berean jasanak dituztenen artean lerroko aldapen batzu. Ez; hori da jendek - jendek, erran nahi da guretako diren hark - gure orhoitean eztutelakotz margazki baten berdintasuna. Bagoaz zenbait aldiz bertze batzuekin haien nahasterano: « Bloch, Combray-tik zethorren norbait da », eta Bloch erraitean ni zuten erran nahi. Kontrako aldera, Sazerat Anderea segur zen Filipe II-garrenaz ixtorioko thesia bat (Bloch-ek egina zen) enea zela. Aldizkatze horietarano joan gabe, eginak zaizkitzun zikinkeriak ahazten dira, egilearen hutsak, eskua tinkatu gabe elgar utzi ginuen azken aldia, ordainez zaharragoko batez orhoitzen da, orduan elgarrekin ontsa ginenaz. Eta aldi zaharrago horrekin zoazen Legrandin-en arak Bloch-ekin zuen gixakotasunean, ala iragan berezi bateko orhoita galdua zuelakotz, ala utzia bezala estimatzen, Aroaren eragina den ere barkamendu, ahazpen, axolagabe nahasketa batean. Batzuek bertzez ditugun orhoitzapenak, maitasunean ere, eztira berdinak bertzela ere. Albertine ikusia nuen gure lehenbiziko aurkintzetan errana naukon eta osoki ahatzia nuen horrelako elhe batez miragarriki orhoitzen. Bertze gauza batez, ene buruaren barnean harri bat bezala betiereko sartuaz, etzuen orhoitik batere. Gure bi biziak, hetan, guneka, neurri berdinean, baina ez batzu bertzeren aitzinean, lore untzi batzu ezarriak diren ibilbide haiek bezalakoak ziren. Arrazoin are azkarragoz da hartzen ahal, guti ezagutzen diren jende batzuen dako, doi-doia dela nor diren orhoitzen, edo lehenago uste zenetik bertze zerbaitez, zaharragoa izanik ere, da hetaz orhoitzen, haien erdian aurkitzen diren jendek gogora-arazia duten zerbaitez, berrikitan baizik ezagutzen ezituztenek, lehenago etzituzten gaitasun batzuez eta izanara batez aphainduak, baina ahazkor denak berehala onhartzen dituenek.

Dudarik gabe biziak, jende horiek aldi bat baino gehiagotan ene bidean ezarriz, gertaldi berezi batzuetan aitzineratuak zauztan horiek, alde orotarik hek inguratuz, hetaz nuen ikuspena hertsitua baitzuten, eta haien izantzaren ezagutzea debekatua baitzautaten. Guermentes-tarrak ere, enetako amets hain handiaren gaia izanak zirenak, hetarik batera lehenik hurbildua nintzanean, agertuak zizaztan bata amatxiren andere adixkide ohi baten itxuran, bertzea Casino-ko baratzetan eguerditan aire gozagaitz batekin so egina zautan jaun batenean. (Ezen gure 'ta jenden artean bada gertakizuneko ipura bat, Combray-ko ene irakurtzetan hautemaitezko bat

badela hartua nuen bezala, gauzetako egiak eta gogoak elgar osoki hunki dezaten debekatzen duena.) Hala nola nun haien ezagutzea ezpaitzen ehoiz enetako gero baizik, hek izen bati eratzikiz baizik, Guermantes-tarren eza-
gutzea bilakatua. Baina behar bada horrek berak zautan bizia poetikoagoa egiten, begi zorrotzekilako, xori mokoarekilako arraza mixteriozkoa, arraza arrosa-kolore, urreztatu, ezin hurbildua hain usu, hain errexki, gertaldi itsu eta ezperdin batzuen eraginaz ene behamenera, enekin solastatzera, enekin etxekotasunera ere eskainia izana zela gogatzekak, hainbaterano nun, Ster-
maria-ko Anderea ezagutu nahi ukana nuenean edo Albertine-ri zaia batzu egin-arazi, ene adixkide zerbitzura ekharriener bezala, Guermantes-tarrer bainauen hel egina. Eiki, haien etxera joaiteak aspertzen ninduen, gero eza-
gunak nituen munduko bertze jende batzuenera bezainbat. Eta ere, Guer-
mantes-ko dukesarendako, Bergotte-ren orrialde batzuetako bezala, haren xoramena etzizatan urrundik baizik ikuskarri eta haren ondoan nintzanean ezeztatzen zen, ene orhoitean baitzatzen eta ene idurimenean. Baina azke-
nean, hala ere, Guermantes-tarrak, Gilberte bezala, munduko bertze jendeak ez bezalakoak ziren, bere erroak han amets gehiago banegien eta jendetan sineste gehiago nuen ene biziko iragan batean barnago sartzen zituztelakotz. Ordu huntan batekin eta bertzearekin solastatzean, aspergarriki eskuan ni-
tuenak, ederrenak aurkituak eta ezin hurranduenak uste ukanak nituen ene haurzaroko asmuak ziren bederen, eta konsolatzen nintzan, bere liburuetan nahasten den sal-crosle bat bezala, haien jabe izaiteko abantaila ene gutiziak estimatuak zituen balioarekin nahasiz.

Baina bertze jende batzuendako, haiekilako ene adikidantzen ira-
gana amets sutsuago batzuez hantua zen, itxaropenik gabe moldatuez, hetan orduko ene bizia, oso-osoan haier emana, hain aberaski zabaltzen baitzen, nun doi-doia bainezakeen har amets horien onhartzea nolaz zen haien mix-
terioa, sukarra eta eztitasuna eginak zituenetik ezer aurkitzen ahal enuen etxekotasun ezpaiko eta gutietsi baten xerrenda hertsu eta hitsa.

« Arpajon-go markeksa zer bilakatzen da? galdegin zuen Cambre-
mer-ko Andereak. - Baina hila da, ihardetsi zuen Bloch-ek. - Arpajon-go kondesarekin nahasten duzu jaz hila baita. » Agrigente-ko prinzesa solasal-
dian sartu zen; senar zahar biziki aberats eta izen handi baten jabearen al-

hargun gaztea, eskontzaz ainitz galdegina zen eta hortarik segurtasun handi bat hartua zuen. « Arpajon-go markesta ere duela nunbait han urte bat hila da. - Ha! urte bat, ezetz ihardesten dautzut, egin zuen Cambremer-ko Andereak, musikako arratsaldi batera haren etxean izana niz, urte bat baino gutiago da. » Bloch etzaitekeen, munduko maitale ordainduak baino gehiago, eztabadan baliagarriki barne izan, jende zaharren heriotze horiek oro hetarik urrunegi baitziren, ala urteren ezperdintasun gaitzekoaz, ala zeharka hartaratzen zen bertzelako gizarte batera berriki jiteaz (Bloch bezala), beheiti ari zen orduan, ohikoa etzizakon iragan baten orhoitzapenak ezin argi zezakeen ilunabar batean. Eta adin eta ingurumen bereko jendendako, herioak bere erran-nahi bitxitik zerbait galdua zuen. Bertzela ere, egun oroz hainbertze jende hil-urranen berriak galdegiten ziren, eta hetarik batzu sendatuak ziren bertze batzu «eroriak» zirelarik, nun ezpaitzen zuzen orhoitzen haren ikusteko aldirik nehoiz etzen horrelakoa bulharreko minetik jalgia zenez ala zendua. Eskualde zahartu horietan herioa ainizten zen eta gutiago segur bilakatzen. Arrazoin ezperdin batzuen gatik, heriotzeari ohartzeko gaizki jarriak izanez hori biziarekin nahasten zuten bi gizaldi eta bi gizarteren gurutzatze hortan, lehenbizikoa mundutartua zen, jende bat guti edo aski ezagun-arazten zuen gertaldi bat bilakatua, hartaz mintzatzeko hartzen zen doinuak gertaldi horrek harendako guzia bururatzen zuela erran nahi zuela iduri ukan gabe. « Baina ahazten duzu, horrelakoa hila da » erraiten zen, « Ohorezko aiphamena ukana du », « Akademiako da » erranen zen bezala, edo - eta hori berdin zen bestetan izaitea debekatzen zuenaz geroz - « neguaren iragaiteko Hegora joana da », « mendiak manatuak zazko ». Bederen, gizon ezagun batzuendako, hiltzean uzten zutenak laguntzen zuen haien bizia bururatua zela orhoitzen. Baina munduko jende laño biziki zahartuendako, hilak zirenez ala ez erraiteko nahasten zen, ez bakarrik haien iragana gaizki ezagutzen edo ahatzia zelakotz, baina etzirelakotz jeusetan ethorkizunari lotuak. Eta eritasunen, ez hor izaitearen, baserrira erretiratzearen, munduko jende zaharren heriotzearen artean berexkuntza baten egiteko bakoitzak zuen nekeak, duda-mudan zirenen axolagabea bezainbat, aithortzen zuen zenduen ezteustasuna.

« Baina hila ezpaldin bada, zerk egiten du eztela nehoiz ikusten, ez eta haren senarra ere? galdegina zuen jostatzea maite zuen mutxurdin batek.

- Baina erranen daunat, egin zuen haren amak, berrogei-ta hamar urtekoa izanik ere (*) ezpaitzuen besta bat huts egiten, zahartuak direlakotz: adin hortan ezta gehiago atheratzen. » Iduri zuen ilherria baino lehen bazela zaharren hiri hetsi bat osoa, lambroan argiak beti phiztuak. Sainte-Euverte-ko Andereak eztabada moztu zuen Arpajon-go Anderea hila zela erranez, bazuela urte bat, eritasun luze batetik, baina Arpajon-go markesta hila zela ere gerotik, biziki laster, « molde osoki ezteus batean », hortik bizi horien guzien idurikoa zen heriotzea, eta nehor ohartu gabe iragana zela argitzen baitzuen ere, eta gauzak nahasten zituztenak desenkusutzen baitzituen. Arpajon-go Anderea zinez hila zela entzutean, mutxurdinak igorri zaukon amari behako asaldatu bat, beldur baitzen haren « adin bereko » emazte baten hiltzeak « ama jo zezan »; uste zuen amaren heriotzeaz mintzatzen aitzinetik entzuten zuela argipen hunekin: « Arpajon-go Anderearen heriotzeaz azkarki joa izana zen. » Baina mutxurdinaren amari, aldiz, adin bereko norbait « joaiten » zen aldi oroz, zein gehiagoka batean burkide seinalatu batzuer nagusitua zizaiela iduritzen zizakon. Bere biziak konzienzia oraino gozagarriki har zezakeen ara bakarra haien heriotzea zen. Mutxurdina ohartu zen ama, Arpajon-go Anderea handik zahar akhituak biziki guti jalgitzen diren egoitzetan hetsirik zagola erraiteaz etzelarik khexatua iduritu, oraino gutiago hala izana zela markesta haratagoko herrian, handik gehiago jalgitzen eztenean sartua zela ikasteaz. Amaren axolagabeari ohartze horrek jostatu zuen mutxurdinaren gogo pikokaria. Eta bere adixkider irri egin-arazteko, ixtorio urragari bat egiten zuen amak eskuak thorratuz hau errana zuen molde, zion, alaiatz: « Jainkoa, Arpajon-go Andere gaixo hura hila dela egia da bada. » Bizi izaiteaz bozkariatzeako heriotze horren beharrik etzutenak ere, zorionean ezarri zituen. Ezen bertzerendako heriotze oro bizi izaitearen errexe bat da, eskerron erakusteko arrangura baztertzen du, eta ikustaldi batzuen egiteko eginbidea. Verdurin Jaunaren heriotzea etzen Elstir-ez horrela harturik izana.

(*) Itxura badu hemen Proust-ek « berrogei-ta hamar urte » ezarri duela « lauretan hoge »-en orde. (Itzultzailearen oharra).

Andere bat jalgi zen, bertze goizaldi batzu baitzituen eta arratsalde askariz bi erreginen etxera joan behar. Lehenago ezagutua nuen lilitto mundutar handi bat zen, Nassau-ko prinzesa. Ezpaldin bazizakon kaizua ttipitua (horrek emaiten zaukon, lehenago zen baino goratasun ontsa gu-

tiagoan jarria zuen buruaren gatik, oin bat hilobian ukaitea deritzotenaren itxura), zahartua zela doi-doia zen erranen ahal. Sudur austriarrarekilako Marie-Antoinette bat gelditua zen, so ezin goxoagoarekin, aurpegi lila-kolore bat egiten zaukoten mila larru-thindu xoragarriki batueri esker usaindondua, begiratua. Bazen haren baitan abiatzera bortxatua izaiteko, itzuliko zela xamurki hitzemaiteko, trebeki bazter egiteko itxura nahasi eta xamur hura, hetan igurikatua zen jende hoberenekilako bilkura andanaren ondorioa. Abantzu tronu bateko mailetan sortua, hirur aldiz ezkonduzik izana, diruzain handi batzuez ordainduzik, luzaz eta aberaski, bere buruari eskainiak zauzkon mila jostaldiak gainera, ekhartzen zituen arinki bere zaia, begi miragarri biribilak eta aurpegi thinduztatua bezala malba-kolorearen azpian, iragan ezin zenbatu horren orhoitzapen apur bat nahasiak. Ene aitzinetik baitzoan, angeles aran ihes eginez, agurtu nuen. Ezagutu ninduen, eskua tinkatu zautan eta begi-ñiñi biribil malba-koloreak nitan itzatu zituen hau erran nahi zuen itxura batekin: « Zenbat dembora den eztugula elgar ikusi! Bertze aldi batez hortaz mintzatuko gira. » Eskua indarrekin tinkatzen zautan, ez orhoituz zuzen karrosan, Guermares-ko dukesaren etxera ninderaman arrats batez, gure artean maitaldi bat izana zenez ala ez. Zer gerta ere izana etzen zerbait gogoan zuela iduri ukan zuen, neke etzizakon gauza marrubi tarta batendako xamurtasunezko itxura bat hartzen zuenaz geroz, eta hartzen, musika bururatu baino lehen joaitera bortxatua baldin bazen, behin betikoa izanen etzen uzte bateko itxura etsitua. Bertzela ere enekilako maitaldiaz ez segur, haren esku tinkaldi ebaskakoa etzen luzatu eta hitzik etzautan erran. So egin zautan bakarrik, erran dutan bezala, « Zein aspaldi den! » erran nahi zuen, eta haren senarrak berriz hartan iragaiten ziren ara batean, ordainduak zuten gizonak, bi gerla, eta haren begi izar iduriek, opala batean moldatu erloi astronomika bat iduri, agertu

zituzten jarraikian ordu oroz berredireiten zituen iragan hain urrunduko oren ospetsu hek oro, beti desenkusa bat zen egunon bat erran nahi zautzunean. Gero, ni utzi eta, athe aldera trostan abiatu zen, nehor etzadin harendako desarraña, mintzatua ezpaldin bazizatan presatua zela eni erakusteko, eni esku tinkatzen galdu minutaren irabazteko, harekin bakarrik arratsaldaskaldu behar zuen Espainiako erreginaren etxean zuzen

izaitekotan. Athe ondoan lasterretan abiatuko zela uste ukan nuen ere. Las-terrez zoan alabaina bere hilobira.

Guermantes-ko prinzesa entzuten zen itxura gogo-berotu batekin eta hortz-ordeak bazegion burdineria harrabots batekin errepikatzen: « Ba, hori da, batasun eginen dugu! batasun eginen dugu! Maite dut gazteria hoin adimendun hori, hoin partialier hori, ha! zer muxikaria ziren! » Eta bere begi-tako bakun lodia lotzen zuen bere begi biribilean, erdi-jostatua, erdi-desen-kutzen alaitasuna ez luzaz atxiki ahalaz, baina « partialier izaitera », « batasun egitera » bururano deliberatua zen.

Andere lodi batek egunon erran zautan, hortako iraupen laburrean gogoeta ezperdinenak metatu baitziren ene gogoan. Ephe batez ihardesteko dudan egon nintzan, beldurrez eta, jendeak ez nik baino hobeki ezagutuz, bertze norbait nintzala uste ukana zezan, gero aldiz haren segurtasunak, az-karki harekin adixkideturik izana nintzan norbait izan zadin beldurrez, ene irriñoako amultsutasuna handiegi-arazi zautan, ene soek haren aurpegian aurkitzen enuen izenaren bila jarraitzen zuten batean. Bere soak etsami-nalariaren aurpegira badematzan eta bere orhoitean bilatzea hobe lukeen ihardespena han aurkituko duela debaldetan uste duen bakalorea-gai bat iduri, horrela, irriño banegion batean, ene soak andere lodiaren aurpegian lotu nituen. Zuan Anderearena zela iduritu zizatan, beraz ene irriñoa erres-petuz nahasi zen, ene duda gelditzen hasten ari zen batean. Orduan entzun nuen andere lodia eni erraiten, zekunda baten buruan: « Amarendako hart-zen nauzu, gero eta gehiago haren eite ukaiten hasten ari niz alabaina. » Eta ezagutu nuen Gilberte.

Robert-ez ainitz mintzatu ginen, Gilberte-ek adeizko doinu batekin aiphatzen zuen, miretsia eta aditua zuela eni erakustera atxikia zen izaite go-ren bat izana baliz bezala. Elgarri orhoit-arazi ginuen behin gerlaz agertzen zituen gogoetak (Doncières-en eta berantago erakusten entzunak nauzkon thesiak Tansonville-en usu berriz erranak baitzauzkon) ainitzetan, eta oro har gauza andana handi batean, azken gerlaz baieztaturik gertatuak ziren.

« Eztezazuket erran Doncières-en erraiten zauztan gauzetan tti-pienak zenbatetarano joiten nauen orai, eta gerla demboran ere. Entzu-nak dauzkotan azken elheak, berriz ez ikusteko elgar utzi dugularik, Hin-denburg-i goaitan zagola ziren, jeneral napolendarra, gudu napoleondarreko

motetarik batean, helburutzat bi etsaien berextea duenean, behar bada, zuen gaineratua, Angelesak eta gu. Bada, urte bat doi-doia Robert hil ondoan, handizki miresten zuen eta armadako haren ideietan ageriki eragin handi zuen kritikalaria batek, Henry Bidou Jaunak, bazion Hindenburg-en jaukitaldia 1918-ko ephailean, « bi etsai lerrokatuen berexteko metan bildua den etsai baten gudutaldia » zela, « Emperadoreak 1796-an Apennin-ean ongi egina duen manubra eta 1815-ean Belgikan huts-egina. » Ordu zenbait lehenago Robert-ek ene aitzinean gudutaldiak erkidatzen zituen idazleak nahi ukan duenaren jakitea beti errex ezten idazki batzuekin, bidenabar egitura berak aldatua dauenekin. Bada, 1918-ko jaukitaldi aleman hortako, ara hortan argituz Robert etzateken Bidou Jaunarekin bat izanzen. Baina bertze kritikalaria batzuek uste dute Hindenburg-en ongi-heltzeak Amiens-ko aldera, gero haren gelditze bortxatuak, Flandres-etan haren ongi-heltzeak, gero berriz gelditzeak dituztela egin, oro har ustegabetarik, Amiens-ez, gero Boulogne-ez, aitzinetik finkatuak etzituen helburu batzu. Eta bakoitzak ixtorio bat bere moldera berregin baitezake, badira batzu jaukitaldi hortan Paris-era zimizta bezalako aitzinatze baten iragartzea badakusatenak, bertze batzu armada anelesaren suntsitseko mustur ukhaldi ordenurik gabeko batzu. Eta buruzagiak eman manuak holako edo halako ideiaren kontra baldin badoaz ere, kritikalarier geldituko zaie beti Mounet-Sully-k Coquelin-i bezala erraiteko aldia, hunek segurtatzen zuelarik Le Misanthrope etzela jokatu nahi zuen antzerti trixte 'ta dramatika (ezen Molière-ek, haren aroko lekukoen arabera, molde jostakin batean emaiten baitzuen eta irri egin-arazten): « He bada, Molière-ek huts egiten baitzuen. »

« Eta airekoez, orhoit zirea hau erraiten zuenean (hain erranaldi ederrak bazituen): « Armada bakoitzak ehun begiekilako Argus bat izan behar du »? Ondikotz! eztu bere erranen egiaztatzea ikusi ahal ukan. - Baina bai, ihardetsi nuen, Somme-ko gudutaldian, ikusi du bada etsaiaren itsutzetik hasi direla hari begiak ireiziz, haren airekoak eta hari hartu balonak suntisituz. - Ai! ba, egia da. » Eta Adimenduarendako baizik bizi etzen ordutik, apur bat jakintsun-nahia bilakatua baitzen: « Eta hark bazion bide zaharretara itzultzen ari zirela. Badakizua Mezopotamiarako armada-itzuliek gerla hortan (hori, orduan, Brichot-en artikuluetan irakurria zukeen) noiz nahi orhoit-arazten dutela, aldatzerik gabe, Xénophon-en Erretirada? Eta, Tigre-

tik Euphrate-ra joaiteko, armadako buruzagi angelesak « belonak » erabili dituzte, unti luze ‘ta hertsu batzu, herri hortako gondolak, Kaldear zaharrenek jadanik bazerabiltzatenak. » Elhe horiek bazemataten bada iraganeko geldi horren sendimendua, leku batzuetan, berezia duen halako dorpetasun batez mugarik gabe gelditzen den, hala nola nun ezpaitaiteke berriz zen bezala ediren. Baina aithor dut Robert-en ganik ez urrun Balbec-en eginak nituen irakurtaldien gatik, gehiago hunkia nintzala, Frantziako baserrian Sévigné-ko Anderearen phezoinaren berraurkitzeaz bezala, Orientean, Kout-el-Amara-ko setioaz (Kout-Emira, « Vaux-le-Vicomte eta Bailleau-l’Evêque erraiten dugun bezala », erranen zuen Combray-ko erretorak bere etimologiako egarria ekhialdeko hizkuntzetarano hedatua ukan balu), Mila eta bat Gauetan hainbat aiphatzen den Bassorah-ren izen horren ikustean Bagdadeko ondora berrituztzen, aldi bakoitz, Bagdad utzi ondoan edo hara berriz sartu aitzin, unti hartzeko edo uzteko, hara baitoa, Townshend jenerala eta Gorring jenerala baino ontsa lehenago, Khalifen demboran, Simbad Itsas-turia.

« Bada gerlaren alderdi bat, ene ustez, ikusten hasia zuena, erran naukon, hori da gizatiarra dela, maitasun bat edo herra bat bezala bizitzen dela, elhaberri bat bezala khondatua izan laitekeela, eta ondorioz, hau edo hori baldin badoa gerla-moldakuntza jakitate bat dela errepikatuz, horrek ez-tuela gerla zer den hartzeko jeusetan laguntzen, gerla etzelakotz joka-moldekoa. Etsaiak eztitu gure xedeak ezagutzen maite dugun emaztea bila dabilan helburua badakigun baino gehiago, eta xede horiek eztazkigu behar bada guhaurek. Alemanek, 1918-ko ephaileko jaukitaldian, xedetzat Amiens-en hartzea zutena? Eztakigu batere. Berek etzakiten behar bada, eta gertaldiak duke, Amiens-i buruz sartaldera aitzinatzeak, haien xedea jarri. Gerla jakitatezkoa dela uste ukanez, erakutsi behar lizateke hala ere Elstir-ek itsasoa itxuratzen zuen bezala, bertze burutik, eta lilluramenduetarik abiatu, apurka apurka zuzentzen diren ustetarik, Dostoievsky-k bizi bat khondatuko zuen bezala. Bertzela ere, segurregi da gerla eztela joka-moldekoa, baina izaitekotz medikuntzakoa, operatzaleak baztertuko zituela uste ukan zezakeen uste-gabeko behargabeak badituena, hala nola Iraultza errusoa.»

Solasaldi hortan guzian, Gilberte Albert-ez mintzatua zizatan bere senar zenduari baino gehiago adixkide zaharrari zoakola iduri zuen adei bate-

kin. Iduri zuen erraiten zautala: « Zenbat miresten zinuen badakit. Sinetsazu bada hura zen izaite goienaren endelgatzen jakina dutala. » Eta bizkitartean haren orhoitzapeneko gehiago segurki etzuen maitasuna zen oraino behar bada orai zuen biziko berezitasun batzuen emaile urruna. Horrela Gilberte-ek adixkide ezin berexitzat Andrée zuen orai. Nahiz hau sartzen hasia zen, oroz gainera bere senarraren antzeari eta berak zuen adimenduari esker, ez segurki oraino Guermantes-tarren ingurunean, baina behin han zabilan mundua baino ezin aphaingo batean, jendea ustegabetua izan zen Saint-Loup-eko markestsak haren adixkide hoberena izaitea onhartzen zuelakotz. Gauza horrek, Gilberte-ren baitan, edergintzako bizi bat zela uste zuenera ixuri baten seinalea iduri ukan zuen, eta gizartean egiazko jauste batena. Argibide hori egiazkoa izan daiteke. Bertze bat ethorri zizatan alta gogora, beti azkarki hartua bainintzan nunbait bilduak ikusten ditugun iduriak orotara, bertze iduri multzo, bigarrenetik ezin gehiago urrundu, aski ezperdin nahiz araukide baten leinurua, edo zerbait moldez ondorioa direlako ideiaz. Arrats oroz gogoan nuen Andrée, haren senarra eta Gilberte elgarrekin ikusten baldin baziren, hori zela behar bada, hainbat urte lehenago, Andrée-ren geroko senarra Rachel-ekin bizitzen ikusi ahal izana zelakotz, eta gero Andrée-rendako hunen uzten. Itxura badu Gilberte-ek, orduan bizi zen mundu urrunduégian, goregian, ezer etzuela hortaz jakina. Baina berantago ikasia zukeen, Andrée igana izan zenean eta bera aski jautsia elgar ikusi ahal ukaiteko. Orduan ospe handi bat ukana zukeen Gilberte-ren baitan, Robert-i hautetsia zaukon gizonak, alta dudartik gabe gustagarriak, Rachel harendako utzia zuen emazteak.

Horrela behar bada Andrée-ren ikusteak Gilberte-ri orhoitzen zaukon Robert-endado ukana zuen maitasuna izana zen gaztaroko ixtorioa, eta eman-arazten ere Andrée-rendako errespetu handi bat, Gilberte-ek bera izana zen baino gehiago Robert-ez maitaturik izana zela sendi zuen Rachel hark hainbat maitatua zuen gizon bat beti Andrée-ren amoros baitzen. Izan daiteke aldiz orhoitzapen horiek ezer etzutela egiten senar-emazte antzedun horiendako Gilberte-ek zuen hautespenean, eta hortan ikusi behar zirela bakarrik, ainitzek bazegiten bezala, ikasteko eta zirtziltzeko gostuak, munduko emazten baitan beti ezin berexiak. Gilberte-ek behar bada Robert ahatzia zuen nik Albertine bezainbat, eta baldin bazakien ere Rachel zuela edergileak

Andrée-rendako utzia, nehoiz etzuen gogoan, ikusten zituenean, haiendako zuen gustuan gauza horrek egiterik batere ukana zuela. Ene lehenbiziko argipena gerta zaitekeena etzenez bakarrik ala egia zen, etzen barne zirenen lekukotasunari esker baizik deliberatzen ahalko, horrelako alditan gelditzen den bide bakarra, bere segetutzko erranetan gogo-argitasunetik eta zintzotasunetik ezartzen ahal balute. Lehena bada hor bekan aurkitzen da eta bigarrena nehoiz. Zer nahi den Rachel-en ikustea, orai jokari aipatu bat bilakatu, etzizakokeen Gilberte-ri ontsa goxagarri izaiten ahal. Nahigabetua izan nintzan beraz goizaldi hortan neurtitz batzu erraiten zituela jakitean, eta, zuten iragarria, Musset-en Orhoitzapena eta La Fontaine-ren alegia batzu.

« Baina nolaz zira hoin jende aintzekilako goizaldi batzuetara jiten? galdegin zautan Gilberte-ek. Zure berraurkitzea hau bezalako metakatzeko handi batean, etzinitutan horrela itxuratzen. Eiki, zure ikusteari banindagon ene izabaren tralala handi batetik bertze non nahi, izaba badenaz geroz », gaineratu zuen doinu xorrotx batekin, ezen Saint-Loup-eko Andere izanez Verdurin Anderea familiara sartua zen baino apur bat lehenagotik, betidanikako Guermentes batentzat zadukan bere burua eta Verdurin Anderea esposatuz bere osabak egina zuen ezkontza gaitzaz damutua, eta, egia da, familian bere aitzinean mila aldiz trufatzen entzuna zuenaz, naturalki han etzenean baizik etzirelarik hura esposatuz Saint-Loup-ek egina zuen ezkontza gaitzaz mintzatua. Are gehiago erdainu zuen bertzela ere hala-hulako izaba horrendako erakustera emaiten nun, jende adimendunak ohiko aphaintasunetik ihes egitera bulzatzen dituen gaizkirako ixuri motaz, jende adinekoek orhoitzapen ukaiteko duten beharraz ere, bere aphaintasun berriari iragan baten emaitera indar egiteko, Guermentes-ko prinzesak maite baitzuen Gilberte-ek mintzatzean erraitea: « Erranen dautzut eztela enetako ezagutza berri bat, haur horren ama handizki ezagutu dut; oizu, ene andere gusi Marsantes-en adixkide handi bat zen. Ene etxean du Gilberte-ren aita ezagutu. Saint-Loup gaixoaz den bezainbatean, haren familia guzia aitzinetik ezagutzen nuen, haren osaba bera ene etxekotu mina zen Raspelière-an ». « Ikusten duzu Verdurin-darrak etzirela batere erromes batzu, erraiten zautaten Guermentes-ko prinzesaz horrela mintzatzen entzuten zuten jendek, Saint-Loup-eko Anderearen familiako adixkide batzu ziren betidanik. » Bakarra nintzan behar bada, aitatxiren ganik, Verdurin-darrak alabaina etzirela erromes batzu banakiena.

Baina etzen zuzenki Odette ezagutua zutelakotz. Nehork gehiago ezagutzen eztituen iraganeko ixtorioak errex bermoldatzen dira, hara nehor ehoiz joana ezten herrietako bidaienak bezala. «Azkenean, bururatu zuen Gilberte-ek, batzuetan zure bolizko dorretik jalgitzen zirenaz geroz, ene etxean bilkura ttipi batzu, hara izpiritu gustagarri batzu gomita nezazkeenak, etzaizkizuna egokiago izanen? Hemen bezalako mekanikeria handi hauk zuretako biziki guti eginak dira. Ene izaba Oriane-kin solastatzen ikusten zinindutan, nahi diren gaitasun guziak baditu, baina kalterik eztaukogu eginen, eztea hala, ezte la gogatzale hoberenetan barne aithortuz. »

Gilberte enezakeen oren batez geroztik nituen gogamenez jakinduru ezar, baina uste ukan nuen, libertimendu hutsezko gauza batean, ene atseginak laguntzen ahal zituela, ezpaitzizatan alabaina Guermantes-ko dukesarekin Saint-Loup-eko Anderearekin baino gehiago literaturaz mintzatzea izan behar zutela iduritzen. Eiki, biharamunetik beretik bakartasunean bizitzeko gogoia nuen, nahiz aldi huntan helburu batekin. Etxean ere, laneko orduetan jenderik enuen utziko ene ikustera jiten, ene lanaren egiteko eginbidea ontsa ikasia edo ona ere izaitekoa baino lehen baitzoan. Hisituko ziren dudarik gabe, aspaldidanik ezipaininduten ikusia, berraurkitu berria baininduten eta sendatua nintzala uste baitzuten, bere eguneko edo biziko lana bururatua edo gelditua zutenean jinez, eta orduan nitaz nik lehenago Saint-Loup-ez ukana nuen behar hura bera ukanez; zeren, hek jakin gabe delibero laudagarrienak hartuak nituen orduan aitamek erasiatzen nindutenean jadanik Combray-n ohartua nintzan bezala, gizoner emanak zezteen barneko kadranak eztira guziak oren berean zuzen ezarriak: batek atsedenekoa joiten du bertzeak lanekoa badagien ordu berean, batek jujeak eman zigorrarena ogendunaren baitan urrikiarena eta barnez hobetzearena aspalditik joa denean. Baina ikustera jiten zizaztaner ala bila-araziko nindutener, berandu gabe hetaz jakinduru izan behar nuen baitezpadako gauza batzuetako, hitzarraldi presatu, behar-beharrezko bat banuela nihaurekin ihardesteko kuraia ukanen nuen. Bizkitartean, nahiz iduri guti den gure egiazko niaren eta bertzearen artean, biek duten izen eta gorputz beraren gatik, eginbide errexenen sakrifizioa, atseginena ere egin-arazten dautzun abantailnahi gabea, bertzer norberekoi-tasuna iduritzen zaie.

Eta bertzela ere, enintzana ikusten enindutelakotz zinkurina eginen

zutenetarik urrun haiendako lan egiteko bizi izanen, haiekin eginen ahal nuen baino barnatukiago hetaz artzeko, nor ziren berer agerr-araztearen, ziren bezala egitearen bilatzeko? Zertako baliatua izanen zen, urtez eta urtez oraino, arratsaldiak galduak ukanak nitzan haien elhetako oiharzun doi-doia ixilduaren gainean nihauren soinu berdin debaldekoaren lerra-arazten, barneratze oro baztertzen duen munduan ibiltzeko atsegin agorrarendako? Etzena hobe, egiten zituzten jestuen, erraiten zituzten elhen, haien biziaren, jitearen, horien guzien uztaiduraren erakustera entsea nindadin eta horietako legearen agerr-araztera? Zorigaitzez, bertzeren lekuan jartzeko ohiduraren kontra gudukatu beharko nuen, horrek lan baten gogatzeta laguntzen baldin badu, egitea gibelatzen baitu. Ezen, jendetasun goren batez, baderama ez bakarrik nork bere atseginaren baina eginbidearen ere bertzer sakrifikatza, noiz ere, bertzeren lekuan jarritz, eginbide hori, zein ere izan dadin, gudugunean zerbitzurik batere egin eztezakeen norbaitendako, han baliagarri den giblean egoitea baliz ere, agertzen baita, egiazki hala etzelarik, gure atsegina bezala.

Eta adixkiderik, solastatzerik gabeko bizi hortaz dohakabe nintzala uste ukaitetik ontsa urrun, handiener uste ukaitea gertatu zaien bezala, ohartzen nintzan adixkidantzan higitzen diren gogo-berotzeko indar horiek guziak halako ez zuenean izaite bat direla jeusetara ezteraman adixkidantza berezi bat nahi duena eta hartara gure eremaiteko gai ziren egiatik baztertzen dena. Baina azkenean, atsedeneko eta gizartean izaiteko arte batzu behar ukanen nituenean, sendi nuen, munduko jendek idazlentsat baliagarri direla uste duten adimenduzko solasaldi batzu baino lehen, nexka gazte loratu batzuekilako maitasun arin batzu hautuko hazkurri bat izanen zirela, arrosez baizik hazten etzen zaldia bezalako ene idurimenari azken beltzean haizu uzten ahal naukona. Bapatez berriz agiantzatzen nuena, Balbec-en hartaz amets egina nuena zen, Albertine, Andrée eta haien adixkideak, oraino eza-gutu gabe, ikusiak nituenean itsas-aitzinean iragaiten. Baina ondikotz! ordu berezi hartan hain azkarki gutzizaten nituenen berraurkitzea enuen gehiago bilatzen ahal. Egun huntan ikusiak nituen jendeak oro, eta Gilberte bera, aldatuak zituen urte guzien lanak bizi geldituak ziren guziez eginak zituen segurki, hil ezpaliz Albertine-ez egina ukanen zuen bezala, emazte batzu orhoitzen nintzanetik ezperdinegiak. Nihaurez horietara heldu behar izaitez

min nuen, izaiteak aldatzen dituen aroak ezpaitu hetaz atxikia dugun iduria bermoldatzen. Ezer ezta jenden bertzelakatze eta orhoitzapenaren gelditasun horien arteko kontra-izana baino mingarriago izaiten, gogoan hartzen dugunean gure orhoitean hainbat frexkotasun atxikia duenak bizian eztezakeela gehiago hori ukan, guharen baitan hain eder iduritzen zaikunera, ezkaitezkeela kampoan hurbil, haren berrikusteko gutizia, alta hain nork berea, sustatzen duenera, adin bereko bertze izaite batean, erran nahi da bertze norbaitetan, bilatuz baizik. Hori da, ainitzetan jelostu ahal izana nintzan bezala, gutiziatzen den jende baten baitan bakarra iduritzen dena eztelakotz hark berea duena. Baina aro iraganak bazematan hortaz phorogu bat osoa-go, bilatu nahi nituenaz geroz, neure oldez, hogeï urte ondotik, ezagunak nituen nexken orde, orai bertzek galdua zuten gartzetasun hori orduan bazutenak. (Bertzela ere ezta bakarrik gure haragiko gutizien atzartzea egia den jeusekin eztoana aro galdua eztelakotz gogoan hartzen. Batzuetan gertatzen zizatan uste ukana nuenaren kontra bizi geldituak, amatxi, Albertine, mirakulu zenbaiten bidez, ene ondora jin zaiten agiantzatzea. Gauza bat nuen bakarrik ahazten, hori da, zinez bizi baldin baziren, Albertine-ek ukanen zuela orai Cottard Andereak Balbec-en eskainia zautan itxura, eta amatxik, lauretan hogeï-ta hamar urtez gehiago ukanez, Jainko Aitari bizarra emaiten zakon edo XVII-garren mendean Homeroren gizandiak, haien zahartasunaz axolatu gabe, aitorenseme jantziarekin itxuratzen ziren bezain nola nahika, harekin oraino asmatzen nuen begitarte eder, ezti eta irriñodun-etik ezer etzautala erakutsiko.)

Gilberte-ri so nindagon, eta enuen « Berrikusi nahi nuke » gogoan ukan, baina nexka gazte-gazte batzuekin ni gomitatuz beti laket izanen zizatala erran naukon, behardunak ahal baliz, eskaintza ttipi batzuekin atsegin eman nezeentzat, haier gainera ezer galdegin gabe ene baitan lehenagoko ametserien, trixtezien berriz sortaraztea ezpada, eta behar bada, itxura gutiko egun batez, musu kasto bat. Gilberte-ek irriño egin zuen eta gero bere buruan serioski bila zabilala iduri ukan.

Elstir-ek maite baitzuen, bere aitzinean, bere emaztean, usu margoztatua zuen edertasun Venezia-koaren ikustea haragiturik, oinazetik emaiten ahal zautaten emazte ederretara ezthetizkako norberekoitasun zerbaitez

erakharria izaiteko desenkusa emaiten nuen nihuri, banuen ere aurkituko ahal nituen geroko Gilberte-ren, geroko Guermantes-ko dukesen, geroko Albertine-ren aldera idolatriako sendimendu zerbait, eta horiek, baziduritan, gogoa sustatuko ahal zautaten, aro zaharreko gizaiduri harbizizko eder batzuen artean dabilan zizelatzale bati bezala. Gogatu behar ukanen nuen alta hartan mainan zauden mixterioaz nuen sendimendua hetarik bakoitza baino lehenagokoa zela eta beraz, nexka gazte batzu ezagun-araz zezaztan Gilberte-ri galdegin baino lehen, hobeki egina ukanen nuela jeusek haier eratxikitzen ezkituen leku hetara joaitea, haien eta gure artean ezin iragan zerbait senditzen denetara, han, bi urhatsetan, ondartzan, mainura joanki, hetarik ezinez bereziak sendi girenara. Horrela zen ene mixterioko sendimendua eman ahal izana jarraikian Gilberte-ri, Guermantes-ko dukesa-ri, Albertine-ri, hainbat bertzeri. Ez ezaguna, eta abantzu ezin ezaguna, ezaguna bilakatua zatekeen, etxekoa, orobat ala mingarri, baina izana zenetik zerbait gozagarri bazatxikana. Eta egia erran, bere urthaskarien ukaiteko piatunak ekhartzen dauzkun egutegi horietan bezala, ene urtetarik bat etzen bere aitzin-marrazkian etzuen, edo egunetan artekatua, gutiziatuak ukana nuen emazte baten iduria: ainitzetan iduri are gehiago nahi bezalakoa nun batzuetan emazte hori ezpainuen ehoiz ikusia, behazunez, Putbus Anderearen gelari zenean Orgeville-ko Andereñoa zen, edo haren izena egunkari bateko agerbide mundutarrean ikusia nuen nexka gazte bat, « balzari xoragarri multzoaren » erdian. Ederra zela asmatzen nuen, maitatzen, eta soin bat ezin ederragoa hari moldatzen, bere goratasun guziaz haren familiako ontasunak han zirela Jauregiatako Urtekarian irakurria nuen probinziako eskualde baten gainean egonki. Ezagunak nituen emazterentzat, eskualde hori bikuna zen bederen. Bakoitza goititzen zen, ene biziko une berezi batean, lekuko jainko gerizatze bat bezala zutitua, lehenik ene bizia guziek zatikatzen zuten eta hura hetan asmatu nahi ukana nuen eskualde amestu hetarik baten erdian; gero orhoitzapenaren aldetik ikusirik, hetan ikusia nuen eta orhoitzen zauztan lekuez inguratua, han estekan gelditua; ezen gure bizia ibiltzale baldin bada gure orhoita barnetiarra da, eta ethengabe oldez abiatzen ahal gira, gure orhoitzapenek, hek, handik berexten giren lekuetan itzatuak, jarraikitzen dute han bere bizi etxekoiaren antolatzen, bidariak hiri batean eginak zituen

ephe bateko adixkide hek eta handik badoanean uztera bortxatua denak bezala, hek ezpaitira joaiten, han baitituzte bere eguna eta bizia bururatuko hura oraino han baliz bezala, elizaren oinean, portuaren aitzinean eta ibilbideko zuhaz-pean. Hala nola nun Gilberte-ren itzala luzatzen baitzen ez bakarrik han asmatua nuen Ile-de-France-ko eliza baten aitzinean, baina ere Meséglise-ko aldean parke bateko bidexkan, Guermantes-ko Anderearena han mulko ubel eta gorrail batzu khilo-aran goititzen ziren bide heze batean, edo oinbide paristar bateko urre goiztiarrean. Eta bigarren jende hori, jaioa zena ez gutzitatik, baina orhoitetik, etzen, emazte horietan bakoitzarendako, bakarra. Ezen bakoitza, aldi bat baino gehiagotan ezaguna nuen, aro ezperdin batzuetan, enetako hura bertze bat zenetan, nihurt bertze bat nintzanetan, bertze margo bateko amets batzuetan mainan. Bada urte bakoitzeko ametsak manatuak zituen legeak bazaduzkan haien inguruan bilduak han ezagutua nuen emazte baten orhoitzapenak: ene haurzaroan Guermantes-ko dukesari zagokon guzia, behazunez, bildua zen, indar erakhartzale batez, Combray-ko inguruan, eta sarri auhaltzera gomitatuko ninduen Guermantes-ko dukesari zagokon guzia sendipeneko une osoki ezperdin batean; Guermantes-ko dukesa bat baino gehiago bazen, arrosa kolorez jantzi andereaz geroztik Zuan Andere bat baino gehiago izanak ziren bezala, urtetako ether margorik gabeaz berexiak, eta hetan enezakeen batetik bertzera jauzi egin etherrak berexten duen bertze borobil batera joaiteko borobil bat utzi behar ukana banu baino gehiago. Ezpaitzen bakarrik berexia, baina ezperdina, dembora hain ezperdin batzuetan ukanak nituen ametsez, loratze berezi batez aphaindua, bertze borobil batean berriz aurkituko eztenaz; hala nola nun ez Forcheville-ko Anderearen etxera, ez eta Guermantes-ko Anderearenera auhariz enintzala joanen gogatu ondoan, ezpainezakeen neure baitan erran, hainbat ninduen horrek bertze mundu batera eremana ukanen, bata etzela Brabant-eko Jenofebatik jausten zen Guermantes-ko dukesatik bertze norbait, eta bertzea arrosa-kolorezko Anderetik, neure baitan gizon jakinduru batek hori baieztatzen zautalakotz baizik, izar-hedoiezko Esnebide bat izar ber eta bakar baten zatikatzearen ondorioa dela baieztatuko zautan jakintsun baten burupe berarekin. Horrela Gilberte, galdegiten naukolarik alta, nihurt ohartu gabe, bera lehenago izana zen bezalako adixkide batzuen ukaitera utz nindezan,

etzen gehiago enetako Saint-Loup-eko Anderea baizik. Haren ikustean enituen gehiago gogoan behin ene maitasunean ukana zuen egitatea, hark ere ahatzia zuena, Bergotte-rendako ene miresmena, enetako xoilki berriz bere liburuen egilea bilakatua zen Bergotte-rendako, orhoitu gabe (orhoitzapen bekan eta osoki berexi batzuetan ezpada) gizonari aitzineratua izan nintzane-ko bihotz-pilpiraz, harekin solastatzeak eman nahigabeaz, ustegabeaz, larru xuriekilako saloinean, brioletez betean, hara hain goizik ekhartzen baitzi- ren, hainbat bazter-mahietara, hainbat argi. Lehenbiziko Zuan Andereñoa bazegiten orhoitzapen guziak oraiko Gilberte-tik ekhenduak ziren alabaina, bertze mundu bateko indar erakartzalez ontsa urrun atxikiak, harekin bat egiten zuten Bergotte-ren erranaldi baten inguruan, eta elhorrixuri usain ba- tez mainatuak.

Gaurrengungo Gilberte zatiak ene galdea entzun zuen irriño egi- nez. Gero, gogoetatzen hasiz, itxura serio bat hartu zuen. Eta hortaz zorion nuen, segurki gozagarri izanen ahal etzizakon jende multzo bati ohartzera ezpaitzuen uzten. Hor ikusten zen Guermantes-ko dukesa solasaldi han- ditan nor zen batere asmatu ahal gabe - hori batere enakien - hari beha nindagokon atso zahar ezin itsusiago batekin. Alabaina, Rachel-ekin ari zen Guermantes-ko dukesa orai solasean, erran nahi da jokariarekin, omenduna bilakatua, baitzoan, goizaldi hortan, Victor Hugo-ren eta La Fontaine-ren neurtitz batzuen erraitera. Ezen dukesak, Parisen lehenbiziko lerroa sobera luzaz hartzen zuela jakinez (ohartu gabe horrelako lerroak izaiterik eztuela hortan sinestea baduten jenden gogoan baizik eta jende berri ainitzek, ehon ikusten ezpaldin bazuten, besta aphain edozeinetako agerbidean haren izena ez irakurtzen, lerrorik batere etzuela uste ukanen zutela), etzuen gehiago, ikustaldi ahal zuen bezain bekan eta artekatu batzuetan baizik, Saint-Ger- main bazter-hiria ikusten, hiltzerano aspertzen baitzuen, zion, eta aldiz hart- zen baitzuen ezin goxoagoa aurkitzen zuen holako eta halako andere jokari batekin barazkaltzeko atsegin arina. Bazabilan ingurune berrietan, uste zuen baino ontsa gehiago ber-bera gelditua, beti errexxi aspertzea adimenduko nagusitasun bat zela uste ukaiten jarraikitzen zuen, baina hori mintzoari zer- bait erlats bazemakon bortiztasun batekin erraiten zuen.

Guermantes-ko Andereari erran naukon Charlus-ko Jauna aurkitua

nuela. Zen baino gehiago « jautsia » iduritzen zizakon, munduko jendek ezperdintze batzu egiten baitituzte, adimenduari doakonaz, ez bakarrik haien baitan berdintsua den munduko jende batzuetan, baina jende ber baten baitan ere haren biziko ordu ezperdin batzuetan. Gero gaineratu zuen: « Beti ene amaginarrebaren potreta izana da; orai hori ohargarriago da oraino. » Eite horrek ohigabekorik ezer etzuen. Jakina da alabaina emazte batzuek zerbait moldez bere burua bertze norbaitetara igortzen dutela zuzetasun handienarekin, den huts bakarra setsuan da. Hortaz felix culpa ezin erran daitekeen hutsa, setsuak nortasunean ikardokitzen baitu, eta gizon baten baitan emetasuna faxoineria bilakatzen da, begirunea minberatasuna eta b. Hala ere, aurpegian, bizardun baliz ere, mateletan, matel-bizarren azpian odolgorrituak izanik ere, badira ama baten potretaren gainera emangarri diren marra batzu. Charlus zahar guti da hartan urinezko eta irrisa erhautsezko loditasunen azpian, bere betiereko gaztaroan emazte eder baten zati batzu ustegaberekin ezagun daitezkeen hondamen bat eztenik. Ordu hartan, Morel sartu zen; dukesa apur bat ustegabetu ninduen amultsutasunekoa izan zen harekin: « Ha! familiako aharretan eztut alderdirik hartzen, erran zuen. Eztituzua aspergarri aurkitzen, familiako aharrak? » Brichot-ez mintzo nindakolarik: « Hogei urtez aski nardatua nau », eta Cambremer-ko Andereak baitzion: « Schopenhauer-ek musikaz diona berrirakurrazu », erranaldi hori oharr-arazi zukun erranez bortiztasunekin: « Berrirakurrazu nagusi-lan bat da! Ha! ez, hori, bada, etzaiku egin behar. » Albon zaharrak irriño egin zuen Guermantes-ko izpiritu moldetarik baten ezagutzean. Gilberte, aro berrikoagoa, sorgor gelditu zen. Nahiz Zuanen alaba izan, oilo batek xitatu ahate bat bezala, « lakixtagoa » zen, bazion: « Zein hunkigarri aurkitzen dutan hori! badu sendikortasun bat xoragarria. »

Ezen hogei urtekako aldi horietan lagunkideria multzokatu horiek barreatzen baldin baziren eta hek ere urrundu, gero berriz agertu behar zuten izar berrien erakharr-indarraren araura bermoldatzen, krixtailtze batzu, gero krixtailtze batzuez jarraiki phorroskatze batzu gertatuak ziren jenden ari-man. Guermantes-ko Anderea jende andana bat izana baldin bazen enetako, Guermantes-ko Anderearendako, Zuan Anderearendako eta b., horrelako jendea Dreyfus afera aitzinean aldi bateko hautetsia izana zen, gero Dreyfus

aferatik landa buru-bero bat edo zozo bat, aferak haiendako jenden balioa aldatua baitzuen eta alderdiak bertze moldez lerrokatuak baitzituen, gero horiek oraino barreatuak eta berreginak. Hortan azkarki baliatzen dena eta bere eragina adimenduko ahaidegoer emaiten dauena, iragan aroa da, gure aihergoak, erdainuak ahatz-arazten baitauzku, eta gure aihergoak eta erdainuak argitzen zituzten arrazoinak berak. Cambremer-ko Andere gaztearen aphaintasuna ikhertu baliz, gure etxeko saleroslearen, Jupien-en alaba zela aurkituko zen, eta distiratu bilakatzeko horri gaineraturik izana zaitekeena, haren aitak Charlus-ko Jaunari gizon batzu hornitzen zauzkola. Baina horrek guziak batean antolaturik ondorio dirdiratu batzu emanak zituen, ithurburu jadanik urrunduak etzirelarik bakarrik berriki ethorri ainitzez ez ezagunak, baina ere ezagunak zituztenek ahatziak baitzituzten, gogoan ukanez oraiko distira, iragan ahalgeak baino ainitzez gehiago, izen bat beti orai duen erranahian hartzen baita. Eta saloinetako aldakuntza horien balioa aro galduaren eta orhoiteko gertakari baten ondorioa zirela ere zen.

Dukesa zalantzan zagon oraino, Guermantes-ko Jaunaren aharraldi baten beldurrez, Balthy eta Mistinguet-en aitzinean, xoragarri aurkitzen baitzituen, baina adixkidetzat segurki Rachel baitzuen. Gizaldi berriek hortik ondorioztatzen zuten Guermantes-ko dukesa, zuen izena ukanik ere, behin ere osoki handimandieriakoa izana etzen hala-hulako norbait zela. Egia da, haiekilako etxekotasun mina bertze bi andere handiez kontraktua zizakon errege batzuentzat, bazkariz haien ukaiteko nekea Guermantes-ko Andereak hartzen zuela oraino. Baina alde batetik, bekan ethortzen dira, gutiko jende batzu ezagutzen dituzte, eta dukesak, ohidura zaharraren aldera Guermantes-tarrek zuten sineskeriaz (ezen aldi berean jende ikustatedunek dukesa nardatzen zuten eta ontsa ikasia izaiteari atxikia zen), ezarr-arazten zuten: « Haren Maiestateak Guermantes-ko dukesari manatu dauko, onhartu du » eta b. Eta mundura berriki helduek, erranbide horiek ezpaitzazkiten, dukesaren izanara are gehiago aphala zela ondorioztatzen zuten. Guermantes-ko Anderearen ikus-moldean, Rachel-ekilako etxekotasun horrek erran-nahi ukan zezakeen huts egina ginuela Guermantes-ko Anderearen aphaintasunaren kondentatzetan gogo-falsu eta gezurti zela uste ginuenean, Sainte-Euverte-ko Anderearen etxera joaitea onhartzen etzuen orduan etzela

horrela ari adimenduaren izenean baina handi-ustearenean, ezpaitzuen hura zozo aurkitzen, markestsak, nahi zuenera ez oraino heldurik, handi-ustea zela agertzera uzten zuelakotz baizik. Baina Rachel-ekilako etxekotasun horrek erran-ahal zezakeen ere adimendua, dukesaren baitan, egiazki, bierartekoa zela, ez askietsia eta, berantean, munduaz akhitua zenean, egintzez gutiziatua, adimenduko egia zuzenen jakingabe osoaren gatik, eta bere baitan « zein jostagarri izanen den » dioten andere biziki behar bezalako batzuer bere arratsaldia molde egia erran nardagarri batean burura-arazten dauen burueriazko gogo izpi baten gatik, norbaiten iratzartzera joaiteko trufa egiten baitute, hari zer erran jakin gabe, haren ohe ondoan ephe batez bere arratsaldiko jantzitan egoiten, gero, biziki berant dela oharturik, azkenean etzatera joaiten.

Gaineratu behar da gutiz geroz dukesa aldakoiak Gilberte-ren aldera zuen aihergoak Rachel-en onhartzean atsegin zerbait harr-arazten ahal zaukola, horrek uzten baitzuen ere Guermantes-tarren errankizunetarik baten goraki emaitera: ainitzegi zirela batzu bertzeren aharretan sartzeko (abantzu doluaren hartzeko), « egitea eztago eni » erraitearekin nor bere gain egoitea dena, Charlus-ko Jaunaren aldera hartu behar izana zen politikak azkartua zuena oraino, hunek, jarraiki balizako, mundu guziarekin samurtuko baitzinituen.

Rachel-ez den bezainbatean, neke handi bat hartua baldin bazuen egiazki Guermantes-ko dukesarekin adixkidantzan izaiteko (dukesak haute-maiten jakina etzuen nekea alegiako erdainu, ikustategabe deliberatu batzuen artetik, hauek gogoia hartua baitzaukoten eta jokari hain guti handi-uste batez ideia gora bat emana), hori munduko jendek ordu batetik hara bizi arinean gogortuener eman-arazten daueten lilluramenduari lotua zatekeen orotako molde batean, bizi arineko horiek berek munduko jender emaiten dauetenaren ara berdinekoa dena, politikan elgar gudukatu diren jendalden artean elgarren alderako jakin-nahia eta batasun egiteko nahikaria direnaren molde bereko itzultze bikuna. Baina Rachel-en gutiziak arrazoin bereziago bat ukan zezakeen. Guermantes-ko Anderearen etxean, Guermantes-ko Anderearen ganik zuen lehenago bere laido izigarriena ukana. Rachel-ek etzuen apurka ahatzia ez barkatua, baina hortarik dukesak haren begietan

hartua zuen ospe berezia etzen ehoiz ezabatuko. Solasaldia, Gilberte hartarik nahi nuelarik baztertu, moztua izan zen bertzela ere, etxekandereak bilatzen baitzuen errepikatzeke ordua zuen jokaria eta laster, dukesa utzirik, tauladan agertu baitzen.

Anartean bada Parisko bertze buruan gertatzen zen ikuskizun bat ontsa bertzelakoa. Berma-k, erran dutan bezala, jende batzu the hartzera gomitatuak zituen semeari eta alababixiari besta egiteko. Baina gomitak etziren jitera lehiatzen. Rachel-ek neurtitz batzu Guermantes-ko prinzesaren etxean erraiten zituela ikasirik (Berma azkarki ofentsatzen zuen gauza, harendako Rachel, berak, Berma-k, lehen jokagaia emaiten zuen atzertietan, Saint-Loup-ek tauladako jantziak ordaintzen zauzkolakotz itxuratzale izaitera uzten zen emagaldut bat baizik etzen jokari handia: eskandala are handiagoa nun gomitak Guermantes-ko izenean zirelako berria ibilia baitzen Parisen, baina Rachel-ek zuela, egiazki, prinzesaren etxean gomitatzen), Berma-k leial batzuer hisirekin berridatzia zauen haren arratsaldaskarian huts egin etzezaten, baitzakien Verdurin ezaguna zuten Guermantes-ko prinzesarekin adixkide zirela ere. Bada, orenak bazoazen eta nehor etzen Berma-ren etxera jiten. Bloch-ek, jin nahi zuenez galdegina baitzizakon, xintxoki ihardetsia zuen: « Ez, nahiago dut Guermantes-ko prinzesaren etxera joan. » Ondikotz! hori zen bakoitzak bere golkoan deliberatua zuena. Berma-k, munduan guti ibiltzera bortxatzen zuen eritasun hilgarri batez joa, bere izanara larritzen ikusia zuen, noiz ere, alabaren aberaskeriako beharrer hornitzeko, haren senar eri eta auherrak ezin ase zezazkeen beharrak, berriz jokatzen hasia izan baitzen. Bere egunak laburtzen zituela bazakien, baina irabazi handiak ekhartzen zauzkon alabari atsegin eman nahi zaukon, hastiatzen baina lausengatzen zuen suhiari, alabak itsuki maite zuela jakinez beldur baitzen, samurr-arazten baldin bazuen, gaixtakeriaz, haren ikusteaz gabe zezan. Berma-ren alabak, haren senarra arthatzen zuen medikuaz segetetuki maitatua, bere bururari sinets-araztera utzia zaukon Phèdre-ko agerraldi horiek etzirela amarendako biziki lanjerosak. Medikua horren erraitera zerbait moldez bortxatua zuen, errana zaukonetik, eta axolatzen etzen kontrako arrazoinetan hori baizik ez atxikirik; alabaina, medikuak errana zuen Berma-ren agerral-

dietan etzuela behargabe handirik ikusten. Emazte gazteari laket izanen zizakola senditua zuelakotz errana zuen, behar bada eria zer nahi den ezin sendagarri zela bazakielakotz ere, eta erien martiraren laburtzeko etsia gogotik hartzen delakotz laburtzera deramana guhauri baliagarri zaikunean, behar bada ere horrek Berma-ri atsegin emaiten eta beraz on egin behar zaukolako gogamen zozoaz, baieztatua iduritua zizakon gogamen zozoa, Berma-ren haurren ganik egongia bat ukanik eta hortako bere eri guziak utzirik, hirian hil-urrana iduri zuen bezain tauladan biziz ohigabekoa aurkitua zuenean. Eta alabaina gure ohidurek uzten gituzte neurri handi batean, uzten dituzte ere gure soin-alderdiak lehenik ezina dela idurituko zen bizi batez akomeatzen. Nork eztu ikusi zaldi heztokiko nagusi zahar bihotzeri bat haren bihotzak minuta batez ihardokiko zauela uste ahal izanen etzen zalukeria batzuen egiten? Berma etzen tauladako gutiago ohitu bat, eta hortako beharrer haren soin-alderdiak hain beteginki arautuak ziren nun eman baitzezakeen ikuslariendako ezin hautemangarri zen zuhurtzia batekin ariz, osoki zainetako eta asmuzko gaitz batez bakarrik uhertua zen osagarri on baten lillura.

Hippolyte-ren aithormeneko agerraldiaren ondotik, Berma-k sendi bazuen ere iraganen zuen gau izigarria, mireslek indar osoan esku-zartatzen zuten, sekula baino ederrago zela erranez. Oinaze lastagarri batzuetan etxeratzen zen, baina alabari billet urdinen ekhartzeaz zorionean, karrikako ume zahar baten haurkeriaz bazuen bere galtzerdietan haien ezartzeko ohidura, eta handik burgoiki atheratzen zituen, irriño baten, musu baten esperanzan. Zorigaitzez billet horiek etzituzten suhia eta alaba bere hotel amarenari lotuan edertze berri batzuen egitera baizik ekhartzen: hortik ethengabeko mailu ukhaldiak tragedialari handiak hainbat behar ukanen zuen loa hausten zutenak. Modako aldakuntzen araura, eta X... edo Y... Jaunaren gostura jartzeko, etxean ukanen zutelako itxaropenean, barne bakoitza aldatzen zuten. Eta Bermak, oinazea eztituko zaukon bakarra, loa itzuria zela sendituz, berriz ez lokhartzera etsitzen zen, ez segetuzko gaitzespen bat gabe herioa aitzinatzen, azken egunak beltzak bilakatzen zauzkoten aphainkeria horiendako. Horren gatik zituzkeen apur bat gaitzesten, min egiten daukunarendako mendekio naturala eta baztertzeko ahalik gabe girena. Baina ere bere baitan zuen jeinuaz jakina zelakotz, gaztaro lehenetik modako lege horien

ezteustasuna ikasia ukanik, zen hura beti errespetatua zuen, haren itxura bera zen Tradizioneari leial gelditua, gauzak eta jendeak hogei-ta hamar urte lehenago bezala juja-arazten baitzauskon, eta behazunez Rachel, ez gaurregun zen modako jokaria bezala, baina ezaguna zuen emagalduxka bezala. Berma etzen hale ere bere alaba baino hobea, haren baitan zituen alabak hartuak, ethorkiz eta mireste naturalegi batek eragingarriago egiten zuen behazunaz, norberekoitasuna, trufa urrikigabea, bera ohartu gabeko abretasuna. Bakarrik hori guzia, Berma-k alabarendako sakrifikatua zuen eta bera hortaz liberatua zen. Bertzela ere, Berma-ren alabak etxean langile batzu gelditu gabe ukan ezpalitu, ama berdin akhituko zuen, gaztaroko indar erakhargarri, abre 'ta arinek zaharraroa, eritasuna akhitzen dituzten bezala, haier jarraiki nahiz lehertzen baitira. Egun oroz barazkari berri bat zen, eta Berma hartaz alabaren gabetzeaz berekoia aurkituko zen, barazkarian ez izaiteaz ere, ezagutza berri eta hara beharritik ontsa nekez jin-arazi behar ziren batzuen ekharrarazteko ama ospetsuaren han izaiteari baitzauden. Ezagutza horier berer kampoan besta bateko « hitzemaiten » zizeen, jendetasunezko jestu baten egitekotan. Eta ama gaizoa, bere baitan jarria zuen herioarekin buruz-buru egoiteaz gogoa larriki hartua, goizik jeikitza bortxatua zen, atheratzera. Gehiago oraino, ordu berean Réjane-ek, bere antzearen lilluramendu osoan, atzerrian gaitzeko arrakasta ukan zuten agerraldi batzu eman baitzituen, suhiari iduritu zizakon Berma-k etzuela bere burua itzaltza utzi behar, nahi ukan zuen familiak ospe nasai bera bil zezan, eta amaginarreba bortxatu zuen morfinaz sistatu behar izaiten zen itzuli batzuen egitera, horrek giltxurrinak zituen izanararen gatik hil-arazten ahal baitzuen.

Aphaintasuneko, gizarteko omeneko, biziko erakharpen ber hori, Guermantes-ko prinzesaren etxeko besta egunean, pompa hurrupari bat izana zen eta hara ekharriak zituen mekanika baten indarrarekin, Berma-ren ohitu leialenak ere, haren etxean aldiz eta ondorioz huts osoa zen eta herioa. Gizon gazte bat, Berma-ren etxeko besta, hura ere, distiratua izanen zenez segur izan gabe, ethorria zen. Berma-k ikusi zuenean orena joaiten eta mundu guziak uzten zuela gogoan hartu, arratsaldaskaria zerbitza-arazi zuen eta mahi inguruan jarri ziren, baina ehortzetako aphairu bateko bezala. Jeusek etzuen gehiago Berma-ren aurpegian haren argazkiak, ortzegun gizen batez, hainbat

hunkia ninduenaz orhoit-arazten.

Aldi

huntan itxura Erekteion-go harbizi batena zuen bada. Haren zaingorri gogortuak erdi harrituak ziren, ikusten ziren jadanik xingola luze zizeldurazko batzu mateletan ibilki, burdinarako gogordura batekin. Begi hil-urranak hein batean bizi ziren, maska hezurtu izigarri horrekin kontramoldez, eta ahulki dirdiratzten zuten harrien artean lokhartu suge batek bezala. Bizkitartean gizon gaztea, jendetasunez mahian jarria baitzen, ethengabe orenari beha zagon, Guermantes-tarren etxeko besta distiratuak erakharria izanez. Berma-k etzuen gaizkiko hitz bakar bat utzia zuten adixkide 'ta Guermantes-tarren etxera joanak zirela etzuela jakinen xintxoki uzte zutenen aldera. Bakarrik murmurikatu zuen: « Rachel bat Guermantes-ko prinzesaren etxean besta baten emaiten, gauza horien ikusteko Parisera jin behar da. » Eta jaten zituen, ixilki eta urritasun ospetsu batekin, bixkotx debekatu batzu, ehortzetako zeremonia batzuer obeditzeko itxurarekin. Arratsaldaskaria are gehiago trixtea zen nun suhia erotua baitzen Rachel-ek, berak eta emazteak biziki ontsa ezagutzen zutenak, ez hek gomitaturik. Haren bihotzmina are handiagoa izan zen nun gizon gazte gomitatuak errana baitzaukon Rachel aski ontsa ezagutzen zuela hari galdatu ahal ukaiteko, Guermantes-tarren etxera berehala joaiten bazen, gomita zitzan ere, azken orduan, senar-emazte ari-negiak. Baina Berma-ren alabak sobera bazakien amak Rachel zer hein ttipi baino ttipiangoan ezartzen zuen, eta lehenagoko emagaldu ohiari gomitatze bat eskatuz etsipenez hila ukanen zuela. Beraz mutiko gazteari eta senarrari gauza ezina zela errana zauen. Baina mendekatzen zen arratsaldaskari hortan atseginen gutizia, jenatzale hori zen amak hetaz gabetua zuelako nahigabea erakusten zuten faxoinkeria batzu eginez. Hunek alabaren muturrak alegia ikusten ezpalitu bezala egiten zuen eta noiztenka elhe amultsu bat emaiten zaukon gizon gazteari, ethorria zen gomit bakarrari. Baina oro Guermantes-tarretara zeraman aire turrusta, eta nihaur ere eremana ninduen izan zen berehala azkarrena, zutitu zen eta abiatu, uzten zuela Phèdre edo herioa, bietarik zein zen sobera jakin gabe, bere alaba eta suhiarekin, ehortzetako azken bixkotxen jaten.

Hasi berria zen jokariaren mintzoaz moztuak izan ginen. Hunen jo-

koa adimenduna zen, aitzinetik adi-arazi nahi baitzuen jokariak erraiten ari zuen poesia errepikatze hori baino lehenago izaitea bazuen gauza oso bat zela eta haren zati bat baizik entzuten ezkinuena, jokaria, bide batean iragaitean, ephe zenbaitz gure beharriaren menean gertatua izana baliz bezala.

Abantzu jende guziak ezagutzen zituen poesia batzuen iragartzeak atsegin eman zuen. Baina jokaria ikusi zenean, hasi baino lehen, itxura galdu batekin begiez alderdi orotan bilatzen, itxura othoizle batekin eskuen goititzen eta hitz bakoitzean auhen bat bezala egiten, bakoitza jenatua senditu zen, agerian sendimenduen ezartze hortaz abantzu gaitzitua. Nehork etzuen bere baitan egina neurtitz erraitea hori bezalako zerbait izan zaitekeela. Emeki emeki jartzen da, erran nahi da eragozpeneko lehen sendipen hori ahazten dela, ontsa dena berexten dela, erraiteko molde ezperdin batzu gogoan erki-datzen direla, nork bere buruari erraiteko: hau hobeki da, hori gutiago ongi. Baina lehen aldian, auzi xoil batean bezala abokat bat aitzinatzen ikusten denean, airera toga handik berriz erortzen den beso baten goititzen, doinu mehaxatzale batean hasten, nehor ezta auzoer so egitera ausartzen. Uste baita hori irriegangarri dela, baina orenen buruan miragarri da behar bada, eta segurtatua izaitea igurikatzen da.

Hala ere, entzuleak baldituak izan ziren emazte haren ikustean, soinu bakar bat emana ukan baino lehen, belhaunen gurtzen, besoen luzatzen, ezin ikusia zen norbait leriatur, zango makurra bilakatzen, eta bapatez, neurtitz biziki ezagun batzuen erraiteko, doinu othoizle baten hartzen. Guziak elgarri beha zauden, zer itxura har ez sobera jakinez; gazteria gaizki ikasi batzuek irri ero bat iretsi zuten; bakoitzak igortzen zaukon ebaska auzoari aphairu aphainetan, zertako den eta nola erabil jakina ezten tresna berri bat badelarik ondoan, otharrain xardexka, azukar arraspa eta b., gomit ohartuago bati emaiten den behako gordea, hark, itxarotzen denaz, zuk baino lehen erabiliko baitu eta hark bezala egiteko ahala emanen baitautzu. Horrela egiten da ere ezagutzen ezten baina ezagutzen dela iduri ukan nahi den neurtitz bat norbaitek erraiten duenean, uzten baitzako fagore bat bezala, athe baten aitzinean urhatsa uzten den moldean, jakinduruago den bati, norena den erraiteko plazerra. Berdin, jokariaren entzutean, bakoitzak igurikatzen zuen, burua beheiti eta begia ikherka, bertze batzuek egin zezaten irri egiten ala

kritikatzen, nigar egiten ala esku zartatzen abiatzea. Forcheville-ko Ande-reak, berriz Guermantes-tik espesuki jina, handik dukesa nunbait han kamporatua baitzen, aurpegi behakor, thiratu, abantzu argiki gozagaitz bat hartua zuen, ezagulea zela erakusteko eta etzela mundutar bezala jiten, ala bertze zerbaitez mintzatuko ahal zizazkon jende literaturan gutiago sartu batzuen-dako etsaitasunez, ala bere persona guziko indarren tinkatzeaz « maite » zue-nez ala ez jakitekotan, ala behar bada, hori « ohargarri » zela aurkitzen zuen batean, neurtitz zenbaiten erraiteko moldea, bederen, etzuelakotz « maite ». Egonara hori hartu behar ukanen zuen izaitekotz, iduri zen, Guermantes-ko prinzesak. Baina bere etxean gertatzen baitzen, eta aberats bezain zikoitz bilakatua, Rachel-i bortz arrosa baino gehiago ez emaitera deliberatua, esku-zartatzea egiten zuen. Gogo-berotzea phizten zuen eta laudorioa sustatzen noiz nahi arte-oihu xoratu batzu eginez. Hor zuen bakarrik bere burua berriz Verdurin aurkitzen, iduri baitzuen neurtitzak bere atsegin bereziko entzuten zituela, berari bakarrik irakurtzera ethor zaiten gutizatu zuela, eta izan zaiten hor halabeharrez bortz ehun jende, bere adixkideak, bere atseginaren ikusle izaitera gordeka bezala jitea haizu utzia zauenak.

Anartean ohartu nintzan, neure alderako amodiozko gozaldirik batre gabe, zaharra baitzen eta itsusia, jokaria begi-klikkan ari zizatala, begirune zerbaitekin bertzela ere. Errepikaldi osoan utzi zuen irriño hertsatu eta sarkor bat begietan pilpiratzen, eneganik jin zadin agiantzatuko zuen baimen baten phizkailua iduri zuena. Bitartean andere zahar batzuek, poesiako errepikaldietan guti ohituak, bazioten auzo bati: « Ikusi duzu? » jokariaren jestu joko ospedun, tragediakoari, eta nola izenda etzakitenari aieru eginez. Guermantes-ko dukesak duda arin hori senditu zuen eta garhaipena ereman: « Miragarri da » oihukatuz poema baten erdi-erdian, bururatua uste ukan zuena behar bada. Gomit bat baino gehiagok nahi ukan zuen oihu hori behako baieztatzale batez azpimarratu eta buru gurtze batez, gutiago errepikatzailea aditzen zutela erakusteko dukesarekin adixkidantzan zirela baino. Poema bururatua izan zenean, jokariaren ondoan baiginen, hau entzun nuen Guermantes-ko Anderearen eskertzen eta aldi berean, dukesaren ondoan ene izaiteaz baliatuz, ene aldera itzuli zen eta egunon garaziadun bat igorri zautan. Orduan hartu nuen ezagutzen nukeen norbait zela, eta Vaugoubert-

eko Jaunaren semearen behako gartsuen kontramoldera, huts egiten zuen norbaiten egunonarendako hartuak baintuen, jokariaren baitan gutiziazko so batendako hartua nuena, etzela nitaz ezagun-arazia eta agurtua izaitera sustatze begiratu bat baizik. Harenari agur irriñodun batez ihardetsi naukon. « Segur niz enuela ezagutzen, erran zaukon errepikariak dukesari. - Baina ba, erran nuen segurtamenekin, biziki ontsa ezagutzen zitut. - He bada! nor niz? » Jeus eta jeusik enakien eta ene egonara eragozkarri bilakatzen ari zen. Zorionez, La Fontaine-ren neurtitz ederrenetan hainbat segurtasunekin erraiten zituen emazte horrek ezpazuen, ala oneziaz, ala zozotasunez, ala eragozpenez, eni egunon erraiteko nekea baizik gogoan ukana, neurtitz eder beretan Bloch-ek etzuen poesia bururatu orduko, atheraldi bat entseatzen duen setiatu batek bezala jauzi egin ahal ukaitea baizik gogoan ukana, eta, auzoen gorputzaren ezpada bederen oinen gainetik iraganez, errepikariaren gorestera jitea, ala eginbideko ideia falsu batez, ala bere buruaren erakusteko gutiziaz. « Hemen Rachel-en ikustea zein bitxi den! » erran zautan beharria. Mirazko izen horrek hautsi zuen berehala atso zikintsu horren itxura ez ezagunak Saint-Loup-en ohaideari emana zaukon enkantamendua. Nor zen jakin orduko, osoki ezagutu nuen. « Ontsa eder da », erran zaukon Rachel-i, eta hitz xoil horiek erranik, nahi zuena egina baitzuen, berriz abiatu zen eta hainbat neke ukan zuen eta hainbat harrabots egin bere lekura berriz joaiteko nun Rachel-ek bortz minuta baino gehiago igurikatu behar ukan baitzuen bigarren poesia errepikatu baino lehen. Hau bururatua ukan zue-nean, Bi Urzoak, Morienvaigo Anderea Saint-Loup-eko Anderearen gana hurbildu zen, biziki leteraduna zela baitzakien aski orhoitu gabe bazuela aitarene izpiritu artex irkaiztuna: « La Fontaine-ren alegia da bada, ez? » galdegina zaukon, ontsa ezagutua zuela ustez baina ez osoki segur izanez, ezen La Fontaine-ren alegiak biziki gaizki ezagutzen zituen eta, gainera, munduan erraiten etziren gauza haurrendako egin batzu baizik etzirela uste zuen. Horrelako arrakastaren ukaiteko jokariak La Fontaine-ren alegien iduriko lana egina zukeen, gogatzin zuen andere onak. Bada, Gilberte-ek nahi gabean ideia hortan sarr-arazi zuen, ezen, Rachel ez maite ukanez eta molde hortako erranaran alegietarik jeus etzela gelditzen erran nahiz, hau erran zuen bere aitarena zuen molde artexegi hartan eta erran nahi zuenaz jende xintxoak

dudan uzten zituenean: « Laurden bat errailearen asmukoa da, laurden bat erokeria, laurden bat erran-nahirik batere gabea, gaineratekoa La Fontaine-rena », horrek utzi baitzuen Morienvaigo Anderea entzun berria zena etzela La Fontaine-ren Bi urzoak erraitera, baina gehien-gehiarik hartan laurden bat La Fontaine-rena zen antolamendu bat, horrek nehor ezpaitzuen ustegabetu, jende horien jakingabe ohigabekoa ikusirik.

Baina, bere adixkidetarik bat berantean ethoririk, Bloch-ek ukan zuen behin ere Rachel entzuna zuenez hari galdatzeko bozkarioa, jokariak zuen erranararen erakuspen ohigabeko baten egitekoa, gauzak gehiegituz eta bertze norbaiti erranara modernixta horren erakustean eta agertzean haren entzutean batere senditua etzuen atsegin bitxi bat bapatean aurkituz. Gero Bloch-ek, bihotz-hunkidura handiegitu batekin, mintzo-doinu mehe batean Rachel goretsi zuen eta bere adixkidea hari aitzineratu hunek erran baitzuen kehor etzuela hura bezainbat miresten; eta Rachel-ek, lerro handiko emazte batzu ezagutzen baitzituen orai eta ohartu gabe kopiatzen, ihardetsi zuen: « Oi! zure onesmenaz biziki lausengatua niz, biziki ohoratua. » Bloch-en adixkideak galdegin zaukon Berma-z zer uste zuen. « Gaixo emaztea, azken miserian omen da. Ezta izana eztut erranen antzerik gabe, ezpaitzen ororen buruan egiazko antze bat, ezpaitzuten itsuskeria batzu baizik maite, baina azkenean baliagarri izana da, segurki; bertzek baino molde biziago batean jokatzen zuen, eta gero jende gozo bat zen, emailea, bertzendako hondatu da. Eta aspaldi baitu orai eztuela sos bat irabazten, publikoak eztuelakotz aspaldi danik egiten duena batere maite... Bertzela ere, gaineratu zuen irriz, erranen dautzut ene adinak enuela haren entzutera utzi, erran gabe doa, azken-azken demboretan baizik eta nihurtzeko sobera gazte nintzanean. - Neurtitzak etzituen biziki ontsa erraiten? » menturatu zuen Bloch-en adixkideak Rachel-en lausengatzeko, hunek ihardetsi baitzuen: « Ho! hori, ehoiz eztu baten erraiten jakin; hitz laxoa zen, xinatarra, volapuka, nahi dena, neurtitza salbu. »

Baina ohartzen nintzan diragan aroak eztuela baitezpada ederlanean aitzinatzea ekhartzen. Eta XVII-garren mendeko idazle bat, ez Frantziako Iraultza, ez jakitateko aurkintzak, ez Gerla ezagunak eztituena, oraiko idazle bat baino handiago izan daitekeen bezala, eta behar bada ere Fagon

Du Boulbon bezain mediku ona zen bezala (jeinuaren goientasunak hemen jakitateko eskasa ordainduz), berdin ere Berma, dioten bezala, Rachel baino ehun mailez gorago zen, eta aroak, hau Elstir-ekin batean jokari lehenaren lerroan ezarritz, bierarteko bat handiegitua zuen eta jeinu bat konsekratua.

Saint-Loup-en ohaide ohiak Berma-z gaitzerraiten bazuen ezta uste-gabetu behar. Hori gazte zenean ere eginen zuen. Orduan egina ukan ezpalu ere, orai egina ukanen zuen. Munduko emazte bat, adimendu gorenekoa, onezia handienekoa, jokari bilaka dadila, harendako berri den ofizio hortan antze handi batzu erakuts ditzala, ondorio onik baizik ez ukan, jendea uste-gabetuko da, luzaz berantago haren ondoan aurkitzen baldin bada, ez haren beraren mintzararen entzuteaz, baina andere jokariaren, hauen gaixtakeria bereziaren bere lagun aldera, gizakiari, hunen gainetik iragan direnean, « antzokiko hogeita hamar urtek » ekhartzen daukotenaren.

« Nahi dena erran daiteke, miragarri da, badu horrek orrazea, badu nortasuna, adimendun da, nehork eztitu neurtitzak horrela erran », egin zuen dukesak Gilberte-ek gaitzerran zezan beldurrez. Hau bertze multzo batera urrundu zen izabarekin auzi bati ihes egiteko. Guermantes-ko Andreak, biziko beherapenean, sendituak zituen bere baitan jakin-nahi berri batzu atzartzen. Munduak hari ikastekorik jeus etzuen gehiago. Han lehenbiziko lekua zuelako ideia lurraren gainetik zeru urdinaren goratasuna bezain ageria zizakon. Ezin khordokatua zen izanara baten azkartzeko beharretan zela etzuen uste. Aldiz, irakurtzean, antzokira joaitean, irakurtze horien, ikuskarri horien luzamen baten ukaitea agiantzatuko zuen; lehen, iranja-edaria hartzen zen baratze ttipi hertsian, mundu handian zen hautekoen guzia etxekoki heldu zen bezala, arrastiriko haize goxo usainonduen eta hazi-irinezko lanhoen artean, haren baitan mundu handiko gostuaren begiratzera, berdin orai bertze gutizia batek bazemakon literaturan eztabada berezi batzuetako arrazoinen jakiteko nahia, idazlen ezagutzekoa, andere jokariaren ikustekoa. Haren gogo akhituak bertze hazkurri bat galdatzen zuen. Batzu eta bertzen ezagutzeko, behin kartak haiekin aldizkatu nahiko etzituen eta dukesaren ukaiteko itxaropenean holako aldizkariaren buruzagiarekilako etxekotasuna balia-arazten zuten emazte batzuetara hurbildu zen. Andere jokari lehenik gomitatuak ingurumen ohigabeko batean zen bakarra zela uste ukan zuen,

hori bigarrenari bierartekoagoa iduritu baitzizakon han aitzinatua zuena nor zen ikusi zuenean. Dukesak, arrats zenbaitez errege batzu etxean ukaiten zituelakotz, uste zuen haren izanaran ezer etzela aldatua. Egiatzki, hura, odol zinez nahaste gabe bateko bakarra, Guermantes jaioa izanez « Guermantes-Guermantes » izenpe zezakeena etzuenean « Guermantes-ko dukesa » egiten, hura bere andere koinater ere zerbait baliosago zela iduritzen zizeena, Moises uretik salbatu bat, Krixto Egiptotik itzuri bat, Templotik ihes egin Luis XVII-garren bat bezala, garbiko garbiena, lerrotik Villeparisis-ko Anderearen erortea egina zuen izpirituko hazkurriaren behar ondorezkoari orai amor emanez agian, bera Villeparisis-ko Andere bat bilakatua zen, haren etxean emazte handi-usteak holako edo halakoaren aurkitzeaz beldur zirena, eta hartaz gizon gaztek, gertatua zena ikusiz aitzinean zer izana zen jakin gabe, uste baitzuten dupatara, urte gutiago on batekoa zela, lerrotik jautsi Guermantes bat.

Baina idazle hoberenak, zaharrarora hurbiltzean edo emaitza soberakin baten ondotik, antze ukaitetik gelditzen direnaz geroz ainitzetan, munduko emazteak desenkusa daitezke, ordu batetik hara, izpiritu ukaite-tik gelditzeaz. Zuanek etzuen Guermantes-ko dukesaren izpiritu gogorrean Laumes-ko prinzesa gaztearen « urtua » berraurkitzen. Azkenera, den gutieneko indarrak akhitua, Guermantes-ko dukesak zozokeria ainitz erraiten zuen. Eiki, noiz nahi eta goizaldi hortan berean aldi andana batez, ezaguna nuen emaztea bilakatzen zen berriz eta munduko gauzez izipiriturekin mintzatzen. Baina horren ondoan, usu gertatzen zen elhe phindartsu horrek so eder baten azpian, eta hainbat urtez Parisko gizon goren-gorenak bere izpirituzko erret-pordoinaren menean atxikiak zituenak, oraino diridira zezan, baina hala erraiteko hutsik. Hitz baten sartzeko ordua jiten zenean, lehengo zekunda andana berean gelditzen zen, zalantzan iduri zuen, gogoa alha zuela, baina orduan igortzen zuen hitzak ezer etzuen balio. Zenbat jende guti zen bertzela ere hortaz ohartzen! Eginaren jarraipenak izpirituko iraupenean sinets-arratzen zauen, bixkotxeriako marka bati sineskeriaz atxiki jender etxe ber bateko bixkotxãnoen ekharr-araztea gertatzen zaien bezala, tzarrak bilakatuak direla ohartu gabe. Jadanik, gerla demboran, dukesak ahultze horren seinale batzu emanak zituen. Norbaitek « kultura » hitza erraiten baldin ba-

zuen, gelditzen zuen, irriño egiten, bere so ederra phizten, eta igortzen: « KKKKultura », horrek irri egin-aratzen baitzauden Guermantes-tarren izpiritu hor berraurkitzen zela uste zuten adixkider. Eta segurki Bergotte xoratua zuen molde bera zen, doinu bera, irriño bera, hark ere, erranaldi mozte berak atxikiak zituelarik, arte-oihu berak, phundu geldikari berak, izenlagun berak, baina deusen erraiteko. Baina jin berriak ustegabetzen ziren eta batzuetan, jostagarri eta « bere ahal guzien jabe » zen egun batez ethorriak ezpaziren bazioten: « Zein zozoa den! »

Dukesa, bertzela ere, akomeatzen zen behar zen heinean bere zirtziltzearen atxikitze eta hetarik ospe arixtokratika bat hartzen zuen familiako jendetarano hedatzera ez uzteko. Antzokian, ederlanaren gerizatzaile ofizioaren egiteko, minixtro bat gomitatzen bazuen edo margolari bat eta hunek edo horrek xintxoki galdatzen baldin bazaukon andere koinata edo senarra etzituenenez hor, dukesak, ausartziako itxura handiekin uzkurra, ozarki ihardesten zuen: « Batere eztaikit. Etxetik jalgitzen nizan orduko, ene familia zer ari den eztaikit gehiago. Politikako gizon guziendako, edergile guziendako, alhargun niz. » Horrela zuen aberats berri lehiatuegiak Marsantes-ko Anderearen edo Basin-en ganik esker gaixto batzu bere buruari - eta dukesari berari erasia batzu - eman-araz zezazkon baztertzen.

« Zure ikusteak zenbat atsegin badematan eztezauzuket erran. Jainkoa, noiz ote zindutan azken aldian ikusi?... - Ikustaldiz hain usu aurkitzen zindutan Agrigente-ko Anderearen etxean. - Naturalki hara usu ninduan, gaixo maitea, Basin-ek ordu hartan maite baitzuen. Orduko haren adxikide onaren etxean ninduten gehienik beti aurkitzen erraiten zautalakotz: « Hari ikustaldi baten egitera joaitea etzazula huts egin. » Orogen buruan, apur bat behar ez bezalako iduritzen zizatan, bera behin ase ondoan egitera igortzen ninduen « lixeritzeko bisita » hori. Aski laster hortara jarria nintzan azkenean, baina aspergarriena zena bereak hautsiak zituenean adixkidanza batzuen atxikitze bortxatua nintzala zen. Horrek beti Victor Hugo-ren neurtitza gogora-arazten zautan:

Eramak zoriona, 'ta utz eni griña.

Poesia berean bezala, irriño batekin sartzen nintzan hala ere, baina zinez etzen zuzen, bere ohaiden aldera arin izaiteko zuzenbidea utzi behar

ukanen ninduen, ezen bazterrera utzi guziak metatuz, arratsalde bakar bat enuen azkenean enetako. Bertzela ere, aro hura ezti iduritzen zata oraikoa-
ren ondoan. Jainkoa, berriz ene trompatzen hasia dela, horrek enindezake
lausenga baizik gaztetzen nauelakotz. Baina haren lehenagoko moldea ho-
besten nuen. Bada, sobera dembora bazen eninduela trompatu, nola egin
etzen gehiago orhoitzen! Ha! baina ezkira elgarrekin gaizki hala ere, mintzat-
zen gira, elgar aski maite dugu ere », erran zautan dukesak, osoki bereziak zi-
rela hartua enezan beldurrez, eta biziki eri den norbaitez erraiten den bezala:
« Baina oraino biziki ontsa mintzo da, goizean oren batez irakurraldia egina
daukot ». Gaineratu zuen: « Hor zirela erranen daukot, ikusi nahiko zitu. »
Eta dukearen ondora joan zen, hura, kanape batean andere baten ondoan
jarria, hunekin solasean ari baitzen. Abantzu ber hura zela miretsi nuen eta
bakarrik zuriago, beti berdin maiestateduna eta berdin ederra. Baina bere
emaztea solastatzera jiten ikustean itxura bat hain haserretua hartu zuen nun
dukesak ezpaitzuen gibelatzea baizik egin ahal ukan. « Hartua da, zer ari den
eztakit, sarri ikusiko duzu », erran zautan Guermantes-ko Andereak, akomea
nindadin nahiago ukanez. Bloch gutara hurbildurik eta hor zen dukesa ga-
zte bat nor zen galdeginik bere Amerikarsaren izenean, Bréauté-ko Jaunaren
iloba zela ihardetsi nuen, izen hortan Bloch-ek, jeus ezpaitzaukon erraiten,
argipen batzu galdegin baitzituen. « Ha! Bréauté, egin zuen Guermantes-
ko Andereak eni mintzatuz, hortaz orhoitzen zira, zein zahar den, zein ur-
run den! He bada, handi-uste bat zen. Ene amaginarrebaren etxeko ondoan
bizi ziren jende batzu ziren. Horrek gogoia elezauzuke eratzik, Bloch Jauna;
ttipi hunendako jostagarri da, hori guzia lehenago enekin batean ezagutu
baitu », gaineratu zuen ni erakutsiz, eta hitz horietaz iragana zen aro luzea
molde ainitzez eni sendi-araziz. Guermantes-ko Anderearen adixkidantzak,
aburuak hainbat ziren ordutik berrituak nun gibeletik behatuz bere Babal
xoragarria handi-uste bat bezala baitzadukan. Bertze aldetik, etzen bakarrik
hau aroan gibelatua gertatzen, baina, munduan ene hastapenetan Parisko
jende gotorrenetarik bat zela uste ukana nuenean ohartua enindakon gauza,
beti bere ixtorio mundutarrari lotua geldituko zena Colbert Luis XIV-garre-
naren erreinuari bezala, bazuen hark ere bere ezagugarri probinziarra, dukesa
zaharraren baserriko auzo bat zen, harekin Laumes-etako prinzesa hortako

adixkidantzan sartua zena. Alta Bréauté hori, bere izpirituaz murrizturik, urte hain urrunduetara baztertua nun desmodatua baitzen (horrek dukesaz osoki ahatzia zela phorogatzen baitzuen) eta Guermantes-ko ingurunetara, dukesaren eta ene arteko lokarri bat zen, ehoiz sinetsiko enuen gauza Opéra-Comique-an lehen arratsean bere urpeko ziloan bizi zen itsas-jainko bat iduritua zizatanean, ezaguna nuela dukesa orhoit zelakotz, beraz dukesaren beraren adixkidea nintzala, haren mundu beretik jalgia ezpada, bederen han ziren jende ainitz baino biziki lehenagotik haren mundu berean bizi nintzana, hortaz orhoit zelakotz eta bizkitartean ez aski osoki eni orduan baitzepadakoak idurituak zizaztan xehetasun batzu ahatziak ukanik, enintzala Guermantes-era joaiten eta Percepied Andereñoaren ezkontzako mezara jiten zen demboran enintzala Combray-ko burjes ttipi bat baizik, eninduela gomitatzen, Saint-Loup-en othoitz guziak izan arren, Opéra-Comique-an haren agertzeari jarraiki zizakon urtean. Hori eni baitzepadakoa iduritzen zizatan, ordu hartan baitzizatan hain zuzen Guermantes-ko dukesaren bizia hartan sartuko enintzan Parabisu bat bezala iduritzen. Baina hari, bere betiko bizi bierarteko bera bezala iduritzen zizakon, eta, ordu batetik haste haren etxean usu auhaldua nintzanez geroz, hori baino lehen ere haren izaba eta ilobaren adixkide bat izana, etzakien gehiago zuzen gure etxekotasuna noiz hasia zen eta adixkidantza hori urte zenbait goizegi has-araziz bazegien arogabe izigarriaz etzen ohartzen. Ezen horrek egiten zuen Guermantes ize-neko Guermantes-ko dukesa, ezin ezaguna, ezagutua nuela, silaba urreztatuekilako izenean onhartua izan nintzala, Saint-Germain bazter-hirian, xoil-xoilki auhaltzen izana nintzalarik enetako jadanik bertze bat bezalakoa baizik etzen andere baten etxean, eta zenbait aldiz gomitua ninduen, ez Nereiden itsaspeko erreinuan jaustera, baina bere andere gusiaren egongian arratsaldiaren iragaitera.

« Bréauté-z xehetasun batzu nahi badituzu, etzuen hortako balio handirik, gaineratu zuen Bloch-i mintzatuz, galdegizkizu ttipi horri (hura ehun aldiz balio du); berrogei-ta hamar aldiz harekin ene etxean auhaldu da. Eztea hala ene etxean duzula ezagutu? Zer nahi den ene etxean duzu Zuan ezagutu. » Eta Bréauté-ko Jauna haren etxetik bertze nunbait ezaguna ahal nuela uste ukan ahal zezan, beraz mundu hortara joaiten nintzala duke-

sa ezagutu baino lehen, ustegabetua nintzan, Zuan haren etxean ezaguna nuela uste zuela ikusteaz bezainbat. Gilberte-ek Bréauté-z « Baserriko auzo zahar bat da, Tansonville-en harekin mintzatzeaz atsegin dut » zionean baino gezur gutiagorekin, Tansonville-en, lehenago, etzelarik haiekin ibiltzen, Guermantes-tarretarik osoki bertze zer bait alabaina orhoitzen zautan Zuan ez erranen ahalko nuen: « Arratsean usu ikustera jiten zizaikun baserriko auzo bat zen », « Zuri nola erran enanike. Goientasunez mintzatua zenean oro errana zuen gizon bat zen. Bazen ixtorio andana aski irriegin garri bat Guermantes-tar jende batzuek, ene amaginarrebaz, Varambon-go Andreez Parme-ko prinzesaren ondoan izan zen baino lehen. Baina nork daki gaurregun Varambon-go Andreea nor zen? Tipi horrek, ba, hori guzia ezagutu du, baina guzia bururatu da, izenak berak izaiterik eztuen jende batzu dira eta gainera irautea merezi eluketenak ere. » Eta ohartzen nintzan, iduriz gauza bakun hori den mundua izanik ere, eta hor alabaina gizarteko harremanak tinkienik bilduak izaitera heltzen baitira eta oro gurutzatzen baita, probintzia batzu gelditzen direla, edo bederen Aroak batzu egiten dituela, izenez aldatzen direnak, gehiago ezin adigarri direnak itxura aldatua denean baizik hara ethortzen direnendako. « Zozokeria ezin sinetsiko gauza batzu erraiten zituen andere on bat zen », egin zuen berriz dukesak, aroaren eragin bat den ezin adigarriaren poesia horrendako sorgor, gauza orotan jostagarri dena agerr-arazten baitzuen, Meilhac-en arako literaturari, Guermantes-tarren izpirituari berdingarria. « Ordu batez, bazuen eztularen kontra dembora hartan emaiten ziren pastilla batzuen noiz nahi iresteko bitxikeria eta (gaineratu zuen hoin izen bitxiak berak irri eginez, lehen hain ezaguna, orai mintzo zizeen jendez hain ez ezaguna) Géraudel pastillak zeritzeetenak. « Varambon-go Andreea, erraiten zaukon ene amaginarrebak, noiz nahi horrela Géraudel pastillak iretsiz urdailean min egingen duzu. - Baina Andere Dukesa, ihardetsi zuen Varambon-go Andreak, nola nahi duzu horrek urdailean min egin dezan hats-hodietara joaiten denaz geroz? » Eta gero hark zuen erraiten: « Dukesak badu behi bat hain ederra, hain ederra nun beti gereñotako hartzen baita. » Eta Guermantes-ko Andreea gogotik jarraikiko zen Varambon-go Andreearen ixtorio batzuen erraiten, ehunka ezagutzen ginituenak, baina sendi ginuen bada izen horrek etzuela Bloch-en orhoit jakingabea

Varambon-go Anderea, Bréauté-ko Jauna, Agrigente-ko printzea aiphatzen ziren orduko guretako jeikitzen ziren idurietarik batere atzartzen eta, hortako bereko, gehiegia zela banakien baina adigarria baziduritan xoramendu bat sustatzen baitzuen behar bada haren baitan, ez batere nihaurek jasana nuelakotz, guhauren hutsek eta irrieginarriek bekan baitute, aldean bertze zilatuak ditugunean ere, bertzerenen aldera barkakorrago gure bilakatzeko eragina.

Aro urrundu hortako izaitea, baliorik gabea bertzela ere, hainbaterano zen galdua nun norbaitek nitarik ez urrun galdegina ukanik Tansonville-ko lurra Gilberte-ri bere aita Forcheville-ko Jaunaren ganik heldu zizakonez, norbaitek ihardetsi baitzuen: « Ez batere! Bere senarraren familiatik heldu zako. Hori guzia Guermantes-ko aldetik da. Tansonville Guermantes-ko ondo-ondoan da. Marsantes-ko Andearena zen, Saint-Loup-eko markesaren amarena. Bakarrik azkarki bahitua zen. Beraz ezkongai jaunari dotetzat emana zako eta Forcheville-ko Andereñoaren fortunak berrerosi du. » Eta bertze aldi batez, aro hartako gizon izpiritudun bat zela adi-arazteko Zuanetz mintzo nindakon norbaitek erran zautan: « Ho! ba, Guermantes-ko dukesak haren hitz batzu erran dauzta; haren etxean ezagutua zinuen jaun zahar bat zen, eztea hala? »

Iragana hainbat zen aldatua dukesaren gogoan (edo ere neurean ziren berexkuntzak hainbat ziren harenean betidanik ez izanak nun enetako gertakari izana zena hura ohartu gabe iragana baitzen) Zuan haren etxean ezaguna nuela uste ukan baitzezakeen eta Bréauté-ko Jauna bertze nunbait, horrela urrunegi ere bazeraman munduko gizon baten iragana eni eginez. Ezen bildu berria nuen iragan aroaren ezagutza hori, dukesak ere bazuen, eta ere, zen baino laburrago zela uste ukaiteko enea izana zen lilluraren kontrako batekin, hark, aldiz, gehiegitzen zuen, goregi igan-arazten, bereziki enetako izen bat, gero ene maitasunaren gaia izana zen orduaren, eta munduko edozein emazte baizik izana etzen orduaren arteko berexkuntzaren marra mugagabe hartaz axolatu gabe. Enintzan bada haren etxean izana enetako bertze norbait zen bigarren une hortan baizik. Baina ezperdintasun horietarik etzen haren begietan, eta bi urte lehenago haren etxean izana nintzala etzizakon bitxiago idurituko, orduan bera bertze norbait zela ezpaitzakien, bertze lastai

bat zuena, eta berarendako, enetako bezala, jarraipen hausterik erakusten etzuen norbait baitzen.

Erran naukon: « Horrek orhoit-arazten dauta Guermantes-ko prinzesaren etxean izana nizan lehen arratsaldia, gomitatua enintzala uste bainuen eta athera igorriko nindutela, eta zaia gorri-gorri bat eta oinetako gorri batzu baitzinituen. - Jainkoa, zein zahar den, hori guzia », erran zuen Guermantes-ko dukesak, enetako horrela iragan aroko sendimendua azkartuz. Urrunera beha zagon gogo-ilundurarekin, eta bizkitartean zaia gorrian bereziki gelditu zen. Nolakoa zen erakuts zezatan galdegin naukon, gozagarriki egin zuena: « Orai holakorik elaitake gehiago batere ezar. Dembora hartan ezartzen ziren gauza batzu dira. - Baina ez ote zen pollit? » erran naukon. Bere hitzez bere kontra abantail baten emateaz beldur zen beti, bera ttipi zezan zerbaiten erraiteaz. « Baina ba, eni pollit iduritzen zizatan. Ezta ezartzen ezpaita ordu huntan gehiago modan. Baina berriz eginen da, moda guziak berriz jiten dira, zaietan, musikan, margazkian », gaineratu zuen indarrekin, filosofia horrek berezitasun zerbait bazuela uste baitzuen. Bizkitartean zahartzeko trixteziak itzuli zaukon irriño batek kontrakatu zuen bere akhidura: « Oinetako gorriak zirela segur zira? Urre kolorekoak zirela uste nuen. » Hori ezin hobeki gogoan nuela segurtatu nuen, baieztatzea haizu uzten zautan gertaldia erran gabe. « Hortaz orhoitzeaz gixakoa zira » erran zautan doinu xamur batekin, haien edertasunaz orhoitzeari emaztek gixakotasuna baite-ritzote edergilek bere lanen miresteari bezala. Bertzela ere, iragana den bezain urruna izana gatik, emazte bat burukoa denean dukesa zen bezala, ezin da ahatzia izan. « Gogoan duzua, erran zautan haren zaiatz eta oinetakoez nuen orhoitzapenaren eskertzez, etxera eremana zitugula, Basin-ek eta nik? Nexka gazte bat bazinuen gauerdi ondoan ikustera jin behar zizaizuna. Basin gogotik irriz ari zen ikustaldi batzu oren hortan egiten zizaizkizula gogatzean. » Alabaina arrats hartan Albertine ikustera jina zizatan Guermantes-ko prinzesaren arratsaldi ondotik, dukesa bezain ontsa orhoit nintzan, ni orai Albertine orobat zizatana Guermantes-ko Andereari izanen zizakon bezainbat, haien etxean haren gatik sartu ahal enintzan nexka gaztea Albertine zela jakina ukan balu. Hori da hil gaixoak gure bihotzetarik jalgi direnetik luzaz berantago, haien erhauts orobatekoak jarraikitzen duelakotz iraganeko ger-

taldietan nahasia izaiten. Eta, hek gehiago maitatu gabe, gertatzen da ordu batez han izan ziren gambara baten, bidezka baten, bide baten gogoratzean, bortxatuak girela, bazadukaten lekua betea izan dadintzat, hetaz aieru egitera, hetaz urriki ukan gabe ere, hek izendatu gabe ere, ezagutuak izan diton onhartu gabe ere. (Guermantes-ko Andereak etzakien batere arrats hartan jin behar zuen nexka gaztea nor zen, ehoiz etzuen jakina eta etzen hartaz mintzo oren eta gertaldiko bitxikeriaren gatik baizik.) Horiek dira bizi-iraupearen molde azkenak eta guti gutiziagarriak.

Dukesak Rachel-ez eman zituen jujamenduak berenaz bierartekoak baldin baziren, gogoa eratziki zautaten, hek ere orratzetan oren berri bat erakusten baitzuten. Ezen dukesak etzuen Rachel-ek baino osokiago galdua hunek haren etxean iragana zuen arratsaldiko orhoitzapena, baina orhoitzapen horrek etzuen haren baitan aldakuntza ttipiogo bat jasana. « Erranen dautzut, egin zautan, haren entzutea are gehiago zaitala ohargarri, eta oihukatzen entzutea, nun hatzemana baitut, estimatua, goraphatua, onharrarazia nehork ezagutzen etzuen eta mundu guzia hartaz trufatzen zen ordu batean. Bai, gaixoa, horrek ustegabetuko zitu, baina bere burua publikoan entzun-arazia duen lehen etxea, enea da! Bai, ene gusi berria bezalako jende diotenaz aitzin-guardiakoek gosez hiltzera utziko zutenean haren entzutea onhartu baino lehen, erran zuen irkaitzez Guermantes-ko prinzesa erakutsiz, hau, Oriane-rendako, Verdurin Anderea gelditzen baitzen, ohargarria aurkitua nuen eta irabazi bat eskain-arazia naukon jokatzera ene etxera jiteko handimandieriaz badagigun hoberen guziaren aitzinean. Baderraket, hitz apur bat zozo eta handinahiegi batez, antzeak ondarrean ezpaitu nehoren beharrik, abia-arazi dutala. Erran gabe doa, ene beharrik etzuen. » Ezesteko jestu bat hasi nuen, eta ikusi Guermantes-ko Anderea kontrako aburuaren onharzera prest-presta zagola: « Bai? Antzeak laguntza bat behar duela uste duzu? argira eman dezakeen norbaitena? Azkenean arrazoin duzu behar bada. Bitxi da, erraiten dautazu hain zuzen lehenago Dumas-ek erraiten zautana. Aldi hortan ezin gehiago lausengatua niz zerbaitetako baldin baniz, den bezain gauza gutiko, ez ageriki horrelako artixta baten antzean, baina aiphamenean. » Guermantes-ko Andereak nahiago zuen antzea handitsu bat bezala berainik jalgitzen delako ideia utzi, harendako ohoragarriago zelakotz, baina ere

zenbait demboraz geroz, jin berri batzu etxean hartuz, eta gainera akhitua izanez, aski umil bilakatua zelakotz, bertzeak galdekatuz, zuten aburua haier galdeginez berak bat moldatu ahal ukaiteko. « Eztautzut erraite beharrik, egin zuen berriz, mundua deitzen den entzuleria adimendun horrek etzuela hortan jeus-jeusik hartzen. Goraki oihu egiten zen, irri egiten. Erraiten ahal nauen: « Berezi da, ohargarri, nehoiz oraino egina izan ezten zerbait da », eninduten sinesten, nehoiz deusetan sinetsi enauten bezala. Jokatzen zuen gauza bezala da hori, Maeterlinck-en zerbait zen, orai biziki ezaguna da, baina ordu hartan mundu guziak trufatzen zuen, he bada, nik hori miragarri aurkitzen nuen. Ustegabetzen niz ere, gogoratzen zautanean, ni bezalako baseritar batek, bere probinziako nesken erakaskuntza baizik ukan eztuenak, gauza horiek lehen aldian maitatuak ukan ditzan. Zergatik zen erraitea enuen bada jakinen, baina gustatzen zizatan, hunkitzen ninduen; oizu, Basin, sendikor batenik jeus eztuena, horrek egiten zautan ondorioaz joa izana zen. Errana zautan: « Eztut gehiago nahi arrazoingabekeria horiek entzun ditzazun, horrek eritzen zitu. » Eta egia zen, emazte idor batendako hartzen bainaute, eta, ondarrean, zain meta bat bainiz. »

Ordu hartan ustegabeko zerbait gertatu zen. Mutil jantzi bat jin zen Berma-ren alabak eta suhiak mintzatzea galdegiten zaukotela Rachel-i erraitera. Ikusi da Rachel-i gomitatze baten galdatzeko haren senarrak zuen gutiziari Berma-ren alabak ihardukia zuela. Baina mutiko gazte gomitatua joan ondoan, senar-emazte gazten asperra amaren ondoan handitua zen, bertze batzu jostatzen zirelako gogamenak toleatzen zituen, hots, odol apur batez thu eginez, Berma bere gambarara baztertua zen ephe batez baliatuz, soineko aphainago batzu tarrapataka jantziak zituzten, karrosa bati hel egina eta Guermantes-ko prinzesaren etxera jinak ziren gomitatuak izan gabe. Rachel-ek, gauza hortaz aieru ukanez eta segetutuki lausengatua, doinu burgoi bat hartu zuen eta mutil jantziari etzaitekeela desarraña erran, hitz bat izkiriba zezaten bere ohi ez bezalako urhatsaren arrazoina zer zen erraiteko. Mutil jantzia itzuli zen karta bat ekharriz hartan Bermaren alabak zirrimarratua baitzuen berak eta senarrak etzutela Rachel-en entzuteko gutiziari iharduki ahal ukana eta sartzera utz zitzan eskatzen zaukotela. Rachel-ek estakurua-

ren ñuñukeriaz eta bere garhaipen osoaz irriño egin zuen. Lastimatua zela ihardets-arazi zuen, baina errepikaldiak bururatuak zituela. Jadanik, senar-emazten igurikatzea luzatua zen aitzin-gambaran, mutil-jantziak bi galdatzale gibelera igorriez nausatzen hasten ari ziren. Laido baten ukaiteko ahalgeak, Rachel haren amaren ondoan zen ezteusaz orhoitzeak, ereman zuten Berma-ren alaba lehenik atsegin behar xoil batek mentura-arazia zaukoten urhats baten jarraikitza ondorano. Rachel-i galdegin-arazi zaukon zerbitzu bat bezala, entzun behar ezpazuen ere, eskuaren tinkatzeko baimena. Rachel printze italiar batekin solasean ari zen, bildua, zioten, haren arrakasta handiak zuen gozagarriaz, adixkidantza mundutar batzuek horren ethorkia apur bat gordetzen baitzuten; Berma omendunaren haurrak orai oinetan ezartzen zauzkon izanaretako itzulaldia neurtu zuen. Gertaldi hori jende guziari molde jostagarri batean erran ondoan, senar-emazte gazter erran-arazi zauen sar zaitezen, othoitz-arazi gabe egin zutena, Berma-ren gizarteko izanara aldi bakar batez hondatuz osagarria egina zaukoten bezala. Rachel-ek hori gogoan hartua zuen, eta zuen amultsutasun goratik eginak emanen zauela munduan, hari ezak eginen zuen baino onezia gehiagoko aiphamena, senar-emazte gazter aphaltasun gehiagokoa. Onhartu zituen beraz, alegia-eginekin besoak zabalik, agerian den eta bere handitasunaren ahazten badakien gerizatzale baten itxurarekin: « Baina uste dut bada! bozkario dut. Prinzesa loriatua izanen da. » Hark zuela gomitatzen uste zutela antzokian ez jakinez, Berma-ren haurrer sartzea ezetsiz, hauek dudan izan zaiten beldur izana zen behar bada, ez haren gogo onaz, hori ontsa berdin izanen baitzizakon, baina zuen eraginaz. Asmuz Guermantes-ko dukesa urrundu zen, norbaitek mundua bilatzen zuela iduri zuen arau, dukesaren estimuan aphaltzen baitzen. Ordu huntan etzuen gehiago Rachel-en onezia baizik gogoan eta Berma-ren haurrer bizkarra itzuliko zauen aitzineratuak izan balizako. Bitartean Rachel-ek bere buruan moldatzen ari zuen biharamunean antzoki-gibelunetan hartaz Berma aurdikiko zuen erranaldi garaziaduna: « Nahigabetua izana niz, lastimatua, zure alabak aitzin-gambaran igurikatua ukanik. Gogoan hartu banu! Karta kartaren gainean igortzen zautan bada. » Berma-ri ukhaldi horren emaitiaz loriatua zen. Gibelera egina ukanen zuen behar bada hiltzeko ukhaldi bat izanen zela jakina ukan balu. Bitima egitea maite da, baina bere

ogenean zuzenki jarri gabe, hek bizitzera utziz. Bertzela ere haren ogena nun zen? Zenbait egun berantago irri eginez erranen zuen: « Hori azkarxko da, nehoiz hura enetako izana den baino gixakoagoa izan nahi ukana dut haren haurrendako, eta erahila ukaiteaz gutitan salatuko ninduten. Dukesa lekuko hartzen dut. » Badiduri jokarien sendimendu gaixto guziak eta antzokiko biziaren alegiazko guzia haien haurretara iragaiten direla lan hisitua hauen gogoan amarenean bezala aldaragarri bat izan gabe; emazte tragedialari handiak, jokutzen zituzten antzertietan hainbat aldiz gertatzen zizaien bezala, haien inguruan moldatu diren etxeko zimarkuen bitima hiltzen dira ainitzetan.

Dukesaren bizia etzen bertzela ere azkarki zorigaitzekoa izan gabe eta bertzalde ondorioa arau berdinean Guermantes-ko Jauna zabilan munduaren bere lerrotik jauts-araztea zuen arrazoin baten gatik. Hau, adin aitzinatuak aspaldidanik eztitua, eta nahiz oraino azkar, Guermantes-ko Anderearen trompatzetik gelditua zena, Forcheville-ko Andereaz amoratua zen atxikimendu horren hastapenak nehork ontsa jakin gabe. Forcheville-ko Andereak orai zukeen adina gogoan ukaiten zenean, hori ohigabekoa iduritzen zen. Baina emazte arin baten bizia gazte-gazterik hasia zukeen. Eta gero badira emazte batzu hamar urtetarik bizitze berri batean berredireiten direnak, amore berri batzuekin, hilak zirela uste zelarik batzuetan, harendako senarrak uzten duen emazte gazte baten etsipena eginez. Baina adixkidantza hunek hainbertzetaranoko neurriak hartuak zituen nun agureak, azken maitasun hortan, lehenago ukanak zituenen ara berreginez, bere maitalea preso bezala baitzadukan hainbaterano nun, Albertine-rendako nuen maitasunak, aldapen handi batzuekin, Zuanek Odette-rendako zuena errepikatua bazuen, Guermantes-ko Jaunaren maitasunak Albertine-rendako ukana nuena gogoratzen baitzuen. Behar zuen harekin barazkaldu, auhaldu, dukea beti haren etxean zen; Odette hortaz aphaintzen zen hura gabe nehoiz Guermantes-ko dukearekin adixkidantzan izanen etziren eta hunen ezagutzeko, apur bat errege baten, haren maitalearen ezagutzeko emazte arin baten etxera joaiten den bezala, hara jiten ziren adixkide batzuen ondoan. Eiki, Forcheville-ko Anderea aspaldidanik munduko emazte bat bilakatua zen. Baina az-

kenera berriz ordaindua izaiten hasiz, eta haren etxean hala ere norbait gotor zen agure hoin burgoi batez, bere burua ttipitzen zuen hari aket zaizkidion barneko jantzi batzuen, maite zuen janariaren bilatzea baizik ez eginez, hetaz mintzatua zizakola erranez bere adixkideak lausengatuz, zigarretak igortzen zauzkon Duke Handiari aiphatua zaukola ene osaba bitxiari erraiten zaukon bezala; hitz batez munduan hartua zuen lerro guzia izana gatik, eta gertaldi berri batzuen indarraz, ene haurzaroan ezaguna nuen andere gorraxtaz jantzia bilakatzer ari zen berriz. Eiki, urteak eta urteak baziren Adolphe osaba hila zela. Baina gure inguruan bertze jende batzuek zaharren ordainkatzeak berriz bizi beraren hastea debekatzen daukua? Gertaldi berri horiek, diru gosez onhartuak zituzkeen, eta ere, alaba bat ezkontzeko zuenean munduan arrakasta aski ukanik, baina Gilberte-ek Saint-Loup ezkondua ukan zueneko bazterra utzia, senditu zuelakotz Guermantes-ko dukeak, harendo guzia egiten zuenak, dukesa andana bat ekharriko zaukola bere adixkide Oriane-ri gaixtakeria baten egiteaz loriatuak; behar bada azkenik dukesaren khexuaren gatik jokoan gostu harturik huni nagusitzeaz emazte-etsaigo bateko sendimenduak zori ondun egiten baitzuen. Forcheville-ko Anderearekilako adixkidanza horrek, ukanak zituen adixkidantza zaharragoen imitatze bat baizik etzenak, Guermantes-ko dukeari gal-araziak zauzkon, bigarren aldikotz, Jockey-ko buruzagigoa eta Ederlanetako Akademiakide libre izaiteko alki bat, Charlus-ko Jaunaren biziak, agerian Jupien-enari lotuak, Batasuneko buruzagigoa gal-arazia zaukon bezala eta Paris Zaharreko adixkiden Lagunartekoa ere. Horrela bi anaiak, bere gustuetan hain ezperdinak, estimuaren galtzera helduak ziren auhertasun ber baten, nahikaria eskas ber baten gatik, hau sendigarri zena, baina gozagarriki, haien aitabixi Guermantes-ko dukearen baitan, baina, bi semabitxietan, gostu natural bat eta hala eztenarendako hartzen den bertze bat eremanak zituena gizartetik haien baztertzer a.

Heriotzerano Saint-Loup-ek bere emaztea leialki hara eremana zuen. Etzirena bi-biak aldi berean Guermantes-ko Jaunaren eta Odette-ren ondoreak, hau bertzela ere dukearen ondore gehiena izanen zatekeelarik ? Bertzela ere, Courvoisier iloba biziki behakor batzu ere, Marsantes-ko Andere, Trania-ko prinzesa, hara bazoazen ondore izaiteko itxaropenean, horrek Guermantes-ko Andereari egiten ahal zaukon bihotzminaz axolatu gabe,

Odette-ek, dukesaren erdainuez xixtatua, huntaz gaitzerraiten zuelarik.

Guermantes-ko duke zaharra etzen gehiago atheratzen, egunak eta arratsaldeak harekin eremaitan baitzituen. Baina egun huntan, ephe batez haren ikustera ethorri zen, bere emaztearen aurkitzeko nahigabea izan arren. Enindakon ohartua eta enukeen ezagutuko, argiki erakutsia ukan ezpalautate. Etzen orai hondakin bat baizik, baina handizki ederra, eta hondakin bat baino gutiago ere, ekaitzean harroka bat izan daitekeen gauza erromantiko ederra. Inguratzen ari zuten oinazearen, pairatzeko haserrearen, herioaren gorapeneko aitzinamenduaren uhainez joa, haren begitarteak, mokhor bat bezala phorroskatuak, bazatxikan beti miretsia nuen ara, arkudura; higatua zen, hetaz laneko gabinet baten aphaintzeaz zorion sobera dugun aro zaharreko buru eder andeatuegi hetarik bat bezala. Iduri zuen bakarrik lehen baino aitzinagoko aro batekoa zela, ez bakarrik bere ara behin distiratuagoan hartua zuen gogor eta hautsia zenaren gatik, baina xorroxtasunezko eta alaitasunezko itxurari jarraikia zizakolakotz itxura nahigabeko, ohargabeko bat, eritasunak, herioaren kontra gudukatzeak, ihardokitzeak, bizitzeko nekeak egina. Zaingorriek malgutasun guzia galdurik begitarte lehenago idekiari emana zaukoten zizeldurazko gogortasun bat. Eta berak hortaz aieru ukan gabe, dukeak garhondoko, matelako, bekokiko itxura batzu agertzen zituen, hetan gizonak, minuta bakoitzari amorratuki lotzera bortxatua bezala, iduri baitzuen tragedietako haize-ukhaldi batean bultzakatua, haren adats handizki eder gutiago beteko xerlo zuriak ari zirelarik bere haginaz aurpegiko arkaitz hartuaren zartatzen. Eta ordu arteo bertze margo batekoak izanak ziren harroker guzia hondatuko dauen galernaren hurbiltzeak bakarrik emaiten dezteen leinuru bitxi, berezi hek iduri, gogoan hartu nuen matela zut higatuen urdinabar berunezkoa, xerlo goitituen urdinabar hagunkatu abantzu zuria, doi-doia ikusten zuten begier utzia zizeen argi ahula, margo batzu zirela ez egarik gabeak, kontrako moldera sobera egiazkoak, baina ametsetakoak iduri, eta zahartzeko, herio hurranduko argitze bere margo laztagarri iragarletan ezin imitatuari hartuak.

Dukea etzen ephe guti baizik egon, aski Odette, guzia maitale gazteagoer emana, hartaz trufatzen zela hartua ukan nezantzat. Baina, gauza bi-

txia, hark lehenago antzokiko errege baten ibilara hartzen zuenean irriegin-garri zenak, hartua zuen orai itxura bat egiazki handia, bere anaiak bezalatsu, zahartzeak, gaineragarri zen guziaz arinduz, hari iduri-arazten baitzuen. Eta, bere anaiak bezala, hark, lehenago urguluduna bertze molde batean bazen ere, abantzu errespetuduna iduri zuen, nahiz bertze ara batean. Ezen anaia-
ren erorpena etzuen jasana, hau behin gutietsiko zituenen agurtzera jautsia eri ahazkor baten jendetasunarekin. Baina biziki zahar zen, eta jalgitzeko athea iragan nahi ukan zuenean eta mailadia jautsi, zahartasunak, gizonen-dako izanara urrikalgarriena baita segurki eta bere gorenetik egozten dituen tragedia greketako erregeren molde berdinenean, zahartasunak, hebain ahul-
duen bizia bilakatzen den gurutzebidean gelditzera, izerdia zarion bekokia-
ren xahutzera, ihes egiten zuen mail bat haztamuka begiez bilatzera bortxa-
tuz, urhats gaizki segurtatuendako, begi lanhoztatuendako bermagailu bat behar ukanen zuelakotz, berak jakin gabe bertzer eztiki eta herabeki othoiez hori galdatzen zaelako itxura emanez, zahartasunak egina zuen, adeigarri ere baino gehiago, othoizle.

Odette gabe ezin egonez, zahartasunak eta hezueriak nekez handik jeiki-arazten zuten jargia berean beti haren etxean emana, Guermantes-ko Jaunak dukeari aitzineratuak izaitez, hari elhe emaitiaz, gizarte zaharraz, Villeparisis-ko markestsaz, Chartres-ko dukeaz mintzatzen haren entzuteaz sobera askietsiak ziren adixkide batzuen onhartzera uzten zuen.

Horrela, Saint-Germain bazter-hirian, Guermantes-ko duke 'ta dukesaren, Charlus-ko baroinaren lerro iduriz ezin hartu hek bere ezin bor-
txatua galdua zuten, gauza oro mundu huntan aldatzen baita, ohartua etzi-
zakon gogo-barneko gertakari baten egintzaz: Charlus-ko Jaunaren baitan Verdurin-darren esklabo bilakatua zuen Charlie-ren maitasuna, gero gaizot-
zea; Guermantes-ko Anderearen baitan berrikeriako eta ederlaneko gustu bat; Guermantes-ko Jaunaren baitan maitasun bakarkari bat bizian jadanik berdinak ukanak zituen bezalakoa, baina adineko ahuleziak bortxatzaleago egiten zuena eta haren ahulezier dukesaren saloineko larderiak, dukea ez-
paitzen gehiago hara agertzen eta bertzela ere saloinaren arrakasta gutitua baitzen, etzaudelakotz bere ezestea, bere berrerospen mundutarra gehiago kontra emaiten. Horrela da mundu huntako gauzen itxura aldatzen; hor-

rela imperioetako ertune, eta fortuneen kalastra, eta lerroetako legea, behin betikoa iduri zuen guzia beti eta beti bermoldatua izaiten, eta bizi izana den gizon baten begiek aldakuntza osoena ikus dezakete hain zuzen ezin eginena iduritzen zizakon lekuan.

Noiztenka, ikuskarri horren itxura desmodatua, zahartua egiten zuen « bildumatzale » baten antolamenduan Zuanek bildu margazki zaharren soaren azpian, hain « Erretate-berrituko » duke horrekin eta hain « Bigarren Imperioko » emazte arin horrekin, dukea, maite zuen barneko jantzi bat soinean, andere gorraztaz jantziak kalaka batez mozten zuen; dukea batean gelditzen zen eta behako abre bat hartan itzatzen zuen. Ohartua zatekeen, hark ere, dukesak bezala, zozokeria batzu erraiten zituela batzuetan; uste zukeen, agure baten lilluramenduan, elhea mozten zaukona Guermantes-ko Anderearen izpiritu joko ordu gaitzeko bat zela, eta bera Guermantes-ko hotolean zela, abre gatinaztatu batzuek ephe batez oraino Afrikako desertuetan direla usten duten bezala. Eta burua bapatez goitituz, abre batzuenen dirdira zuten bere begi ttipi biribil eta horiez, hartan itzatzen zuen Guermantes-ko Anderearen etxean, hau sobera mintzo zenean, izitua ninduten behako heta-rik bat. Horrela zaukon dukeak ephe batez so egiten andere gorraztaz jantzi ausartari. Baina hunek, hari ihardokiz, etzuen begietarik uzten, eta ikusler luzeak iduritzen zizezteen ephe zenbaiten buruan, abre zahar heziak, etzela dukesaren etxean sartzea atheko lastaiak markatzen zuen Zahara hartan librorik orhoituz, baina Forcheville-ko Anderearen etxean Landare-Baratzeko kaiolan, horia ala zuria zenez erran etzaitekeen khima nasai bat erortzera uzten zuen burua soingainetan sartzen zuen, eta bere ixtorioa berriz hasten. Forcheville-ko Andereak zer erran nahi zuen eta bertzela ere gehienetan zentzu handirik etzuen hartua etzuela iduri zuen. Auhariz harekin adixkide batzuen ukaitera haizu uzten zuen, lehengo bere amoretan bildu bitxikeria batez, eta Zuanekin horren beraren ukaiten ohitua zen Odette-ren ustegabetzekoa etzenaz, eta hunkitzen ninduenaz, ni, Albertine-rekilako ene bizia gogoratuz, nahi zuen baitezpada jende horiek goizik erretira zaiten Odette-ri gauon erraiten azkena izaiteko. Hura joana izan orduko, bertze batzuetara bazoala erraitea eztu balio. Baina dukea etzen hortaz dudatzen edo nahigo zuen etzela dudatzen iduri ukan: zaharren soa laburtzen da beharria gorra-

gotzen zaien bezala, gogo-argitasuna iluntzen, akhidurak berak haien begirantzari gelditaldi bat egin-arazten. Eta adin batean Molière-ren jokagai batera - ez ere Alcmène-ren maitari olympiarrera baina Géronte irriegingarrira - da Jupiter nahi ala ez aldatzen. Bertzela ere, Odette-ek Guermantes Jauna trompatzen zuen, eta ere arthatzen, gozagarririk gabe, handitasunik gabe. Jokagai hortan bertze guzietan bezala bierartekoa zen. Ez biziak etzaukolakotz ainitz aldiz jokagai ederrik eskaini, baina jokutzen etzakien.

Eta egiazki, ondotik ikusi nahi ukan nuen aldi oroz enintzan hortara heldu, ezen Guermantes-ko Jaunak, bere osagarriko eta bekaizkeriko galde zorrotzak aldi berean akomeatu nahiz, etzauzkon jei-egunak baizik uzten, dantzaldi batzu ez izaitekotan oraino. Bortxaz hetsirik egoite hori zintzotasunekin aithortu zautan, arrazoin andana baten gatik. Nagusia zen, nahiz enituen artikulua batzu baizik idatziak edo entsegu batzu baizik argitaratuak, idazle ezagun bat nintzala uste zuela, horrek erran-arazten baitzaukon ere xintxoki, haren ikusteko Akazietako ibilbidera nindoan aroaz orhoituz, eta berantago haren etxera: « Ha! egun batez idazle handi bat izanen zela asmatu ahal ukan banu! » Bada, idazleak xehetasun eta berri ukaiteko emazten ondoan gustatzen direla erraiten entzunik, amodiozko ixtorio erran-arazten, eni gogo eratxik-arazteko orai enekin berriz emazte arin xoil bilakatzen zen. Erraiten zautan: « Oizu, behin bazen gizon bat nitaz osoki hartua zena eta nik ere eroki maite nuena. Bizi xoragarri bat ginuen. Amerikara bidaia bat egin behar zuen, joan behar nuen nik ere. Abiatzeko bezperan, iduritu zizatan beti hein hortan egonen ahal etzen maitasun bat ttipitzera ez uztea ederrago zela. Joaiten nintzala segur zen azken arratsaldi bat ukan ginuen, gau bat eroa, haren ondoan banituen mugagabeko bozkarioak eta berriz ikusiko enuela senditzeko etsipena. Goizean berean izana nintzan ezagutzen enuen bidari bati ene billetaren emaiten. Nahi zautan bederen erosi. Ihardetsi naukon: « Ez, onhartzean hainbateko zerbitzua egiten dautazu, dirurik eztut nahi. » Gero bertze ixtorio bat zen: « Egun batez Champs-Élysées-etan nintzan, Bréauté-ko Jauna, aldi batez baizik ikusia enuena, halako hisiarekin so egiten hasi zizatan nun gelditu bainintzan eta galdegin bainaukon zergatik zen horrela eni so egitera ausartzen. Ihardetsi zautan: « So egiten dautzut xapel bat irriegingarria duzulakotz. » Egia zen. Gordetxe batzueki-

lako xapel ttipi bat zen, ordu hartako modak ezin itsusiagoak ziren. Baina sumindua nintzan, erran naukon: « Horrela mintza zaikitan eztut onhartzen. » Euria hasi zen. Erran naukon: « Enezazuke barka karrosa bat baldin bazinu baizik. - He bada, badut hain zuzen eta lagunduko zitut. - Ez, nahi dut bada zure karrosa, baina zu ez. » Karrosara igan nintzan, hura euri-pean abiatu zen. Baina arratsean badathor ene etxera. Maitasun ero bateko bi urte ukan ginituen. Zaugi aldi batez enekin thearen hartzera, Forcheville-ko Jaunaren ezagutza nola egina dutan erranen dautzut. Orogen buruan, erran zuen itxura gogoilun batekin, bizia kalostraturik eremana dut maitasunik ezpaitut ukan nitaz izigarriki bekaizti ziren gizon batzuekin baizik. Eniz Forcheville-ko Jaunaz mintzo, oro har bierarteko bat baitzen eta behin ere eztut zinez jende adimendunik baizik maitatu ahal ukan. Zuan Jaunaz den bezainbatean, eroki maite nuelakotz zen, eta uste dut dantza eta mundua eta gainerateko guzia uzten ahal dela maite zituen gizon bati atsegin eman ahal dezan edo bakarrik grinak hartarik bazter hal ditzanarendako. Gaixo Charles, hain adimenduna zen, maite nuen gizon mota xuxen. » Eta egia zen behar bada. Zuan gustatua zizakon ordu bat izana zen, hain zuzen bera « haren gostukoa » etzena. Egia erraiteko, « haren gostukoa », berantago ere, nehoiz etzen izana. Bizkitartean Zuanek orduan hainbat eta hain mingarriki maitatua zuen. Hura berantago kontra-moldeko gogo hortaz ustegabetua zen. Eztateke kontra-molde bat, gizonen bizian « gostukoak eztituzten » emazte batzuek eman oinazen araua zein handia den gogoan hartzen baldin badugu. Horrek arrazoin ainitz badu behar bada; lehenik, « zure gostukoak » eztirelakotz hastapenean maitatu gabe nor bera maitatzera uzten delakotz, hortik « gure gostukoa » izanen zen emazte batekin gertatuko etzen ohidura bat bizian hartzera uzten da, eta hura, gutiziatua zela sendituz, liskartuko zen, hitzarraldi bekanik baizik etzaukun onhartuko, etzaukun gure biziko oren orotan jartze hori ukanen, horrek, berantago, maitasuna jiten baldin bada eta hark huts egin dezan gertatzen, nahasmendu bateko, berririk gabe uzten gituen bidaia bateko, ezpaitauku atxikimendu bakar bat eremaiten baina mila. Gero, ohidura hori sendimendukoa da zolan gorputzeko gutizia handirik etzelakotz, eta maitasuna sortzen baldin bada, burumunak dira ontsa gehiago alhan: behar baten orde bada elhaberri bat. « Gure gostukoak

» eztiren emaztez ezkira mesfidatzen, gure maitatzera uzten ditugu, eta gero maitatzen baldin baditugu, bertzeak baino ehun aldiz gehiago maite ditugu, haien ondoan gutizia aseko satifamendua ukan ere gabe. Arrazoin horien eta bertze ainitzen gatik, gure bihotzmin gotorrenak « gure gostukoak » eztiren emazte batzuekin ukaiten baditugu, eztago bakarrik gure zoriona gutienik gustatzen zaikun moldean baizik egiten eztuen halabeharraren nausa horri. « Gure gostukoa » den emazte bat bekan da lanjerosa, ezpaigitu nahi, lasterrez askiesten baigitu, lasterrez uzten, ezpaita gure bizian jartzen; eta maitasunean lanjerosa dena eta oinaze emaila, ezta emaztea bera, egun orotako haren hor izaitea da, ordu oroz badagienaren jakiteko nahia; ezta emaztea, ohidura da.

Haren ganik hori gixako eta noble zela erraiteko ahulezia ukan nuen, banakien alta zenbat falsu zen eta haren zintzotasuna gezurrez nahasia zela. Gogoan nerabilan, maitaldi batzu erraiten zauztan arau, Zuanek jakina etzuen guzia, hainbat oinazkatuko zuena bere sendikortasuna jende hortan ezarria zuelakotz, eta segur izaiterano asmatzen zuena, hark gizon bat edo emazte bat, ez ezaguna eta gustatzen zizakona, ikusten zuenean zituen soetarik bakarrik. Orogen buruan, erraiten zituen bakarrik ipuinetako gai batzu zirela uste zuenaren eni emaitako. Huts egiten zuen, ez etzituelakotz betidanik ene idurimeneko erresalbuak nasaiki zuzkituak ukan, baina molde ontsa nahigabekoago batez, eta berak jakin gabe biziko legeak haren ganik agerr-arazten nituen nihauren egintza batez.

Guermantes-ko Jaunak etzituen bere ihurzuriak dukesarendako baizik atxikitzen, hunen adixkidantza libroer Guermantes-ko Jaunaren oharraraztea ezpaitzuen Forcheville-ko Andereak huts egiten. Dukesa azkarki zorigaitzean zen beraz. Egia da Charlus-ko Jaunak, aldi batez hortaz mintzatua bainindakon, lehenhiziko hutsak etzirela haren anaiaren aldetik izanak ziola, dukesaren garbitasuneko leienda maitaldi artexki gorde andana ezin zenbatu batez egina zela egiazki. Nehoiz enuen hortaz mintzatzen entzuna. Abantzu mundu guziarendako Guermantes-ko Anderea emazte osoki bertzelako bat zen. Beti ezin gaitzerrana izana zelako ideiak zuen izpiritu guzietan manatzen. Bi ideia horien artean zein zen egiaren, jendetan hirur laurdenek abantzu beti eztakiten egia horren arabera ezezakeen delibera. Orhoit nintzan

bada Guermantes dukesaren behako urdin eta ibiltzale batzuez Combray-ko elizuntzian, baina, zinez, bi ideietarik bat etzen hetaz ezetsia, eta batak eta bertzeak erran-nahi ezperdin bat emaiten ahal zauen eta berdin onhargarria. Ene erotasunean, haurra nintzalarik, ephe batez eni igorri maitasunezko so batzuendako hartuak nituen. Geroztik gogoan hartua nuen etzirela andere-nagusi baten, elizako berinetakoa bezalakoaren so onginahiak baizik, bere menpekoendako. Behar zena orai ene lehenbiziko ideia zela ona sinetsi, eta, dukesa berantago nehoiz ezpazizatan maitasunaz mintzatua, bere izabaren eta ilobaren adixkide batekin bere burua irriskutan ezar beldurrez zela, halabeharrez Combray-ko San-Hilarion aurkitu haur ez ezagun batekin baino gehiago?

Dukesa ephe batez zoriondun izana ahal zen bere bizi iragana gorriago zela senditzeaz ni ere hartan barne izana nintzalakotz, baina Bréauté-ko Jaunaren probinziartasunaz egin nauzkon galde batzuetan, ordu hartan Sagan-ko Jaunetik edo Guermantes-ko Jaunetik guti berexia bainuen, munduko emazte baten ikuspegia hartu zuen berriz, erran nahia da mundutar-tasuna erdainatzen zuenarena. Mintzo zizatan batean, dukesak hotela ikus-arazten zautan. Salon ttipiago batzuetan etxekotu min batzu aurkitzen ziren musikaren entzuteko baztertzea hautetsia zutenak. Imperioko saloin ttipi batean, han jantzi beltz bakar batzu entzuten baitzauden kanape batzuetan jarriarik, Minerba batez jasana zen miraila zut baten ondoan kadera luze bat ikusten zen, zuzenean ezarria, baina barnean ohako bat bezala uztaitua, hartan andere gazte bat hedatua baitzagon. Haren egonarako guriak, dukesaren sartzeak ezpaitzaukon desarraña-arazi ere, Imperio modako zaia zeta gorri-argizkoarekin kontra emaiten zuen: haren aitzinean petenta lore gorrienak histuko ziren, marrazki eta lili batzuek oihal nakaratuan luzaz sartu-rik egonak zirela iduri zuten, haien hatza barnera emanik gelditzen baitzen. Dukesaren agurtzeko bere buru eder beltzarana arinki gurtu zuen. Nahiz egun argi zen, erridau handiak hets zitzaten galdegina baitzuen, musika-rendako bildutasun gehigoren ukaitekotan, oinen ez behartzeko, hiruzango baten gainean handik argi ahul bat hortzadarkatzen zen unti baten barnea phiztua zuten. Ene galdeari erantzunez, Guermantes-ko dukesak erran zautan Saint-Euverte-ko Anderea zela. Jakin nahi ukan nuen orduan ezaguna

nuen Saint-Euverte-ko Anderearendako nor zen. Guermantes-ko Andereak erran zautan haren ilobabitxietarik baten emaztea zela, La Rochefoucauld jaioa zelako ideia onhartzen zuela iduri ukan zuen, baina berak Saint-Euverte batzu ezagutuak zituela ukhatu. Orhoit-arazi naukon, Laumes-etako prinzesa zenean Zuan berraurkitua zuen arratsaldia (omenez baizik jakina enuena, egia erran). Guermantes-ko Andereak erran zuen ehoiz etzela arratsaldi hortan izana. Dukea beti apur bat gezurtia izana zen eta gehiago bilakatu. Saint-Euverte-ko Anderea harendako saloin bat zen - demborarekin aski eroria bertzela ere - arnegatzea maite zuena. Enintzan hisitu. « Ez, ene etxean artetik ikusi ahal duzuna, izpiritua bazuelakotz, aiphatzen duzunaren eta harekin adixkidantzan enintzanaren senarra da. - Baina senarrik etzuen. - Zuk hori uste ukan duzu berexiak zirelakotz, baina hura baino ontsa gozagarriago zen. » Azkenean hartu nuen abantzu nun nahi aurkitzen nuen gaitzeko gizon bat, ezin gehiago handia, ezin gehiago azkarra, ile zuri-zuri batzuekin, nun nahi aurkitzen nuena eta haren izena nehoiz jakina enuena Saint-Euverte-ko Anderearen senarra zela. Aitzineko urtean hila zen. Ilobaz den bezainbatean, eztakit urdaileko eritasun baten gatik, zainetako baten, flebita baten, haurrukaite hurbil, berri ala gaizki egin baten gatik zuenez musika hedaturik entzuten nehirendako higitu gabe. Itxura gehienekoa, bere zeta gorri ederrez urgoi, bere kadera luzean Récamier moldeko iduripen baten emaita uste zuela zen. Etzen ohartzan bazegiela enetako Saint-Euverte izen horren zabaltze berri baten hastapena, hainbateko artean, Aroaren urruna eta jarraipena erakustera emaiten zituena. Saint-Euverte izena eta Imperioko estiloa petenta lore koloreko zeta gorrietan lilitzen ziren untzixka hartan Aroa zuen lariatzen. Imperioko estilo hori, Guermantes-ko Andereak bazion beti hastiatua zuela; horrek erran nahi zuen orai zuela hastiatzen, egia zena, modari jarraikitzen baitzen, nahiz gibelamendu zenbaitekin. Gutxi ezagutzen zuen David-ez mintzatuz adigaitz izaiterano joan gabe, gazte-gaztean uste ukana zuen ohiki aiphatuetan aspegarriena Ingres Jauna zela, gero bapatez Edergintza berriko nagusietan zapoetsuena, Delacroix-ren hastiatzerano. Mireste hortarik gaitzespenerano zein mailetarik itzulia zen jakiteak guti balio du, horiek gostuko berexkuntza batzu direnaz geroz, ederlaneko kritikak emazte gorenaren solasak baino hamar urte lehenago agertzen ditue-

nak. Imperioko estiloa kritikatu ondoan, Saint-Euverte-tarrak bezain jende ezteusez eta Bréauté-ren alde probinziarra bezalako ñukukeriez eni mintzaturik desenkusatu zen, horrek gogoa zergatik eratxikitzen zautan gogatzetik urrun baitzen, Saint-Euverte-La Rochefoucauld-eko Anderea, bere urdaileko onaren ala Ingres-en arako ondorio baten bila, haren izenak, haren senarrarenak, ez haren aitamen ospetsuagoak, xoratua nindutela aieru ukaitetik urrun zen bezainbat, eta ofiziotzat ikusten naukola, berezitasunez betea den lan huntan, Aroaren leriatzekoa.

« Baina nola mintzatzen ahal nizaizu zozokeria horietaz, horrek gogoa nolaz hartzen ahal dautzu? » egin zuen dukesak. Erranaldi hori erdi ahapeka emana zuen eta zer zion nehork etzuen entzun ahal ukana. Baina mutiko gazte bat (gogoa geroztik eratxiki zautana Saint-Euverte-rena baino izen enetako ontsa etxekotuago batez) itxura sumindu batekin jeiki zen eta bildutasun gehiagorekin entzuteko urrunago joan. Ezen Sonate à Kreutzer zen joiten ari, baina egitarauan huts eginik, Palestrinarena bezain ederra, baina hartzeko zaila errana zaukoten Ravel-en musika bat zela uste zuen. Lekuz aldatzeko bere indarrean, erdi-ilunaren gatik, bulego ttipi bat jo zuen, eta hori etzen egin jende ainitzi burua itzul-arazi gabe haiendako gibelara so egiteko jestu xoil horrek apur bat hausten baitzuen « erlisionerekin » Sonate à Keutzer-aren entzuteko toleamendua. Eta Guermantes-ko Anderea eta ni, eskandala ttipi horren emailak, barnez aldatzera lehiatu ginen. « Bai, ezteuskeria horiek nolaz eratxik dezakete zure mereximendua duen gizon bat? Arestian bezala da, Saint-Loup-eko Giberte-rekin solastatzen ikusten zindutanean. Etzen hori zuretako gai dena. Emazte hori zuzen-zuzena deus ezta enetako, ez emazte bat ere, muduan ezagutzen dutan ez egiazkoena eta burjesena da (ezen Adimentasunaren zaintzeari ere dukesak nahasten zauzkon zen arixtokrataren ustekeriak). Bertzela ere hau bezalako etxe batzuetara jin behar zinueka? Egun huntan oraino onhartzen dut, Rachel-en errepikaldi hori bazelakotz, gogoa eratxik-arazten ahal dautzu. Baina den ederra izanik ere, jende mota horren aitzinean ezto den guzia emaiten. Harekin bakarrik barazkal-araziko zitut. Zer jende den orduan ikusiko duzu. Baina den guzia baino ehun aldiz goragoa da. Eta barazkal-ondoan Verlaine-tik erranen dautzu. Zer diozun erranen dautazu. Baina hau bezalako mekanikeria handi

batzuetara, ez, jiten zirela ezin sinetsia zait. Ikas-lan batzuen egiteko ezpada baderen... », gaineratu zuen dudaz eta mesfidanzazko itxura batekin, eta gehiegi menturatu gabe ezpaitzakien zuzen-zuzenki zertaz eginak ziren aieru egiten zauen itxura gutiko egintza motak. Goraipatu zauzta oroz gainetik egun guzidez X... et Y... han zituen bere bazkal-ondoak. Ezen heldua zen lehenago gaitzesten zituen (nahiz hori ukhatzen zuen orai) emazte « saloindun »-ez gogamen huntara: haien nagusitasun handia, hautuko seinalea, haren arabera, etxean « gizon guzien » ukaitea zela. Erraiten baldin banaukon holako andere handi « saloindunak », bizi zenean, etzuela Howland Andereaz ongirik erraiten, dukesa ene xintxotasunaren aitzinean irri karkailaz hasten zen: « Naturalki, bertzeak gizon guziak etxean zituen eta hunek haien erakhar-araztea bilatzen. »

« Ez ote duzu uste, erran naukon dukesari, Saint-Loup-eko Anderearendako mingarri dela, egin berria duen bezala, bere senarraren ohaide ohiaren entzutea? » Ikusi nuen Guermantes-ko Anderearen begitartean entzuna dena arrazoinamendu batzuez gogoeta guti gozagarri batzuer lotzen duen marra zeharkatu hura moldatzen. Arrazoinamendu ixilak, egia da, baina erraiten ditugun gauza larri guziek eztute nehoiz ihardespenik ukaiten ez elhez, ez izkirioz. Zozoek bakarrik dute izkiribatze hutsa egin duten eta behargabe bat gelditzen den eskutitz bati hamar aldiz jarraikian ihardespen bat debaldetan eskatzen; ezen eskutitz horier ehoiz ezta egintza batzuez baizik ihardetsia izaiten, baina zuzentasun gabea dela uste den andere eskutitzlariak aurkitzen zituenean zure izenetik deitzeko orde « Jauna » erraiten dautzu. Rachel-ekilako Saint-Loup-en atxikimenduari ene aieru egiteak hain larririk jeus etzuen eta Guermantes-ko Anderea etzuen zekunda batez baizik gaitzitu ahal ukana Robert-en adixkidea izana nintzala orhoit-araziz eta behar bada dukesaren etxeko arratsaldiak Rachel-i emanak zauzkon nahigabez haren segeretuen ukailea. Baina dukesa etzen bere gogoetetan hisitu, marra zeharkatua ezeztatu zen, eta Saint-Loup-eko Andereaz egin nuen galdeari Guermantes-ko Andereak ihardetsi zuen: « Erranen dautzut, uste dut are gehiago berdin zakola nun Gilberte-ek ezpaitu nehoiz bere senarra maite ukan. Itsusi txar bat da. Maite ukan ditu lerroa, izena, ene iloba izaitea, bere iztiletik atheratzea, gero ezpaitu berriz hartara sartzeko ideiaz bertze-

rik ukan. Erranen dautzut bihotzmin ainitz emaiten zautala Robert gaixo haren gatik, adimendu gorenkoa ezpazen ere, hortaz biziki ontsa ohartua zelakotz, eta gauza andana batez ere. Ezta hori erran behar ene iloba delakotz hala ere, trompatzen zuelako lekukotasun segurrik eztut, baina ixtorio andana bat izana da. Baietz, badakitala diotzut, Méséglise-ko aitzindari batekin, Robert-ek gudukatu nahi ukana du. Baina hortako guziko da Robert engaiatu, gerla familiako bere griñetarik liberatze bat bezala agertu zako; ene gogamena nahi baduzu, ezta hila izan, bere burua hil-arazi du. Andereak eztu bihotzminik batere ukan, ustegabetu ere nau bere axolagabearen alegia-eginean ahalgegabe arraro batez, horrek bihotzmin ainitz eman baitauta, Robert gaixoa ontsa maite nuelakotz. Horrek behar bada ustegabetuko zitu gaizki ezagutzen bainaute, baina hartaz gogatzeta gertatzen zata oraino: nehor eztut ahazten. Eztauta nehoiz ezer erran, baina guzia asmatzen nuela ontsa hartua zuen. Baina dakusagun, senarra den gutienik maitatua ukan balu, omore hotz horrekin jasan lezakea hura urtez eta urtez, erran daiteke beti nehoiz eztela gelditu segur bainiz, gerla zenean ere, maitale erotua izana den emaztearen saloin berean izaitea? Baina zintzurrera jauz lakidioke! » egin zuen dukesak, Rachel gomita-araziz eta Gilberte-ek Robert maitatua ukan balu ezin huts egina zela uste zuen aharraldia gertagarri eginez, bera abreki ari zela behar bada ahatziz. « Ez, ikusasu, bururatu zuen, urde zikin bat da. » Horrelako erran-molde bat Guermantes-ko Andereari egingarri zizakon Guermantes-tar gozagarrien mundutik andere jokarien artera jausten zelako maldaren gatik, eta ere hori xertatzen zuelakotz gordintasunez betea zela uste zuen XVIII-garren mendeko ara batean, azkenik oro haizu zizakola uste zuelakotz. Baina erran-molde hori Gilberte-rendako sendi zuen herrak emanarazten zaukon, haren joiteko beharrak, egiazki ezpada, bederen iduriz. Eta aldi berean dukesak uste zuen horrela Gilberte-ren alderako edo izaitekotz kontrako eginara guzia, munduan, familian, onhargarri egiten zuela, Robert-en abantailaz eta ondoreaz den bezainbatean ere.

Baina emaiten diren jujamenduek ukaiten baitute batzuetan jakinak eztiren eta uste ukanen ahal etziren egintzetarik itxurazko baieztatze bat, Gilberte-ek, amaren ethorkitik apur bat baitzukeen (eta errextasun horren aiduru ninzatekeen bada ohartu gabe egona, nexka gazte-gazte batzu eza-

gun-araz zitzatan hari galdegitean), athera zuen, gogoetatu ondoan, egina nuen galdetik, eta dudarik gabe abantaila familiarik jalgi etzadintzat, uste ukan ahalak nituen guziak baino ondorio bat ausartago bat; erran zautan: « Onhartzen baduzu, nexka baten bila joanen niz zuri ezagun-arazteko. Hantxetan da Mortemart ttipiarekin eta bertze muttiko baliogabeko batzuekin solasean. Segur niz adixkide gixako bat izanen dela zuretako. » Galdegin naukon Robert alaba baten ukaiteaz zorionean izana zenez: « Ho! hartaz biziki burgoi zen. Baina egiazki, uste dut hala ere zituen gostuekin, erran zuen xintxoki Gilberte-ek, mutiko bat hautetsiko zuela. » Alaba horrek, zituen izenak eta fortunak erret-printze bat ezkonduko zuelako itxaroa baitzezaketan amari eta Zuanen eta haren emaztearen igaiteko lan guzia koronatu zuela, berantago senar bezala leteretako gizon ez ezagun bat hautatu zuen, handi-ustekeriarik batere ezpaitzuen, eta familia hori abiatua zena baino hein ahalago batera berriz jauts-arazi. Ezin nekeago izan zen orduan senar-emazte guti ezagun horien gurosaoek lerro handi bat ukana zutela gizaldi berrier sinets-araztea. Zuan eta Odette-ren izenak mirakuluz berphiztu ziren jenden uzteko huts egiten zinuela zuri ikastera, etzela batere familia bat hain ustegabegarria. Eta uste zen Saint-Loup-eko Andereak egina ahal zuen ezkontza hoberena egina zuela oro har, haren aitarena Odette-rekin jeus etzela, debaldetan goitizera entseatuz, harena aldiz, ikuspegi batean bederen, /zerbait/* izana zela, XVIII-garren mendean jaun handi batzu, Rousseau-ren dizipuluak, edo iraultza-aitzintzaleak, naturarekin bizitzera eta bere eskubiden uztera bultzatu ahal zituzten theorien /araura/*.

* Marra arteko hitz horiek ezarri dira esku-idazki andeatuan argiratzalek (Gallimard 1954) zen bezala hartu zuen erranaldi horren osatzeko (Itzultzalearen oharra).

Elhe horien ustegabekoa eta eman zautaten atsegina ontsa laster ordainduak izan ziren, Saint-Loup-eko Andereak bertze saloin batera ur-runtzen zen batean, nik ikusia ukan ere gabe Saint-Loup-eko Andereñoak, hark ere, bere moldean, emaiten zautan iragan Aroaren ideia hortaz. Jende gehienak bezala, bertzela ere, etzena oihanetan bidegurutzetako « izarrak » diren bezala, hara batzera ethortzen baitira bide batzu, gure biziko ere, gune

ezperdinenetarik jinak? Enetako ainitzak ziren, Saint-Loup-eko Andereñoa zeramatenak eta haren inguruan arraikatzen zirenak. Eta oro baino lehen hainbertze ibilaldi eta amets han eginak nituen bi « alde » handiak haren baitan bururatzen ziren - Saint-Loup-eko Robert haren aitaren ganik Guer-mantes-ko aldea, Gilberte amaren ganik « Zuanen etxeko aldea » zen Mésé-glise-ko aldea. Batek, nexka gaztearen amatik eta Champs-Élysées-etarik, ba-ninderaman Zuanerano, Combray-ko ene arratsetara, Méséglise-ko aldera; bertzeak, haren aitatik, han itsaso iguzkituaren ondoan Zuan berriz ikusten nuen Balbec-eko ene arratsaldetara. Bi bide horien artean zeharbide batzu jartzen ari ziren jadanik. Ezen Saint-Loup ezaguna nuen Balbec egiazko har-tara, elizez, eliza persiarraz oroz gaineratik Zuanek errana zautanaren gatik nuen zati handiz hainbat joan nahi ukana; eta bertze aldetik, Saint-Loup-eko Robert, dukesaren ilobatik, nintzan, hori ere Combray-n, Guer-mantes-ko aldera heltzen. Baina ene biziko bertze une ainitzetara zeraman oraino Saint-Loup-eko Andereñoak, Andere gorraxtaz jantzira, haren amatxi bait-zen eta ene osababitiaren etxean ikusia bainuen. Hemen zeharbide berri, ezen osababiti horren gambara mutila, egun hartan sarr-arazia ninduena eta berantago, argazki baten emaitzaz, Andere gorraxtaz jantzia nor zen jakitera utzia, ez bakarrik Charlus-ko Jaunak, baina Saint-Loup-eko Andereñoaren aita-berak maitatua zuena, harengatik hunen ama zorigaitzean ezarria zuen mutiko gaztearen aita zen. Eta etzena Saint-Loup-eko Andereñoaren aita-txi, Zuan, Vinteuil-en musikaz mintzatua zizatan lehenbizikoa, Albertine-ez mintzatua zizatan lehenbizikoa Gilberte izana zen bezala? Bada, Albertine-ri Vinteuil-en musikaz mintzatzean nuen haren andere adixkide handia nor zen aurkitua eta heriora eremana zuen eta hainbat bihotzmin egina zautan bizi hura harekin hasia. Saint-Loup-eko Andereñoaren aita zen ere Alber-tine-ren itzul-arazteko egin ahalaren egitera joana zena. Eta orduan zen ere hasia ene bizi mundutar guzia, ala Parisen Zuanen edo Guer-mantes-tarren saloiean, ala kontra-molde osoan Verdurin-darren etxean, horrela lerro be-rean ezarr-arazten zuela, Combray-ko bi alderdien, Champs-Élysées-en on-doan, La Raspelière-ko zabaltza ederra. Bertzela ere, zein jende ditugu eza-gutu, haiekilako gure adixkidantzaren erraiteko, bat bertzearen ondotik gure biziko une ezperdinen guzietan haien ezartzera bortxatzen ezkituztenak?

Saint-Loup-en bizi bat nik erakutsirik ene biziarekin zer ikus bazuten leku guzietan iraganen zen, bera gehienik kampo izana zen bizi horren zatietan ere, hala nola ene amatxi edo Albertine. Bertzela ere, ziren bezain kontrakoak izanik ere, Verdurin-darrak Odette-ri lotuak ziren hunen iraganetik, Saint-Loup-eko Robert-i Charlie-ren ganik; eta haien etxean zer egitatea etzuen ukana Vinteuil-en musikak! Azkenik Zuanek maitatua zuen Legrandin-en arreba, Legrandin-ek Charlus-ko Jauna ezagutua, eta Cambremer gazteak hunen alabaizuna ezkondua. Eiki, gure bihotzez ari baldin bada bakarrik, biziak moztu dituen « mixteriozko hariez » mintzatzean poetak arrazoin ukana du. Baina gehiago egia da oraino jenden artean, gertakarien artean hariak ethengabe iruten dituela, elgarrekin gurutzatzen, bilbearen azkartzeko bikuntzen, hala nola nun gure iraganeko den gutieneko unearen eta bertze guzien artean orhoitzapenetako sare aberats batek ezpaitu komunikabide-tako hautua baizik uzten.

Erran daiteke, hartaz ohargabeen ez baliatzea baldin banuen bilatzen baina zer izana zen orhoitzea, ordu hartan baliagarri zizazkun gauzetan bakar bat etzela gauza bizidun bat izana etzenik, eta guretako berezia zen bizi bat bizi zuena, guk baliatzeko gero industriako gai xoilera aldatua. Saint-Loup-eko Andereñoari ene aitzineratzea Verdurin Anderearen etxean gertatuko zen: Saint-Loup-eko Andereñoari haren ordezkotako bat izan zedin galdatzera nindoakon Albertine-rekin gure bidaiak zenbat xoragarriki nituen berriz gogoan - tramu ttipian, Derville aldera, Verdurin Anderearen etxera joateko, Albertine-rendako ene maitatsuna baino lehenago Saint-Loup-eko Andereñoaren aitaxi eta amatxirena lotua eta hautsia zuen Verdurin Andere hori bera! Gure inguru guzian baziren Albertine-ri aitzineratua nindaukon Elstir haren margazki batzu. Eta ene iragan guzien hobeki nahastekatzeko, Verdurin Andereak Gilberte-ek bezala Guermantes bat ezkondua zuen.

Guti ezagutua ere dugun norbaitekin ukan ditugun harremanak ezkinezazke erran, gure biziko leku ezperdinenak elgarri jarraik-arazi gabe. Horrela jende bakoitzak - eta nihurtar horietatik bat nintzan - iraupena neurtzen zuen enetzat ez bakarrik bere inguruan, baina bertzerenean egin zuen itzulitik, eta bereziki eni buruz bat bertzearen ondotik hartuak zituen lekue-tarik. Eta dudarik gabe, besta hortan berriz hatzeman berria nuenaz geroztik,

Aroak ene bizia haien arau moldatzen zuen eremu ezperdin horiek guziek, bizi bat khondatu nahiko zuen liburu batean, ohiki erabiltzen den zikologia lauaren orde, eremuetako zikologia mota bat erabili beharko zela eni gogora eman-araziz, edertasun berri bat gaineratzen zaueten liburutegian bakarrik gogoetatzen nintzano ene orhoitak egiten zituen berphizte horier, orhoitak, iragana - oraia zen orduan zen hura bera - aldatu gabe oraian sartuz, bizia haren arau egiten den Aroko neurri handi hori ekhentzen baitu hain zuzen.

Gilberte ikusi nuen aitzinatzen. Ni, Saint-Loup-en ezkontza, orduan nindadukaten gogoetak eta goiz huntan berdinak zirenak atzokoak zizaztana, ustegabetua izan nintzan haren ondoan hamasei urte inguruko nexka gazte baten ikustez, haren kaizu gorak neurtzen zuela ikusi nahi ukana enuen urruntasun hura. Aro margo gabea eta ezin hartua, hala erraiteko ikus eta hunki ahal nezantzat, haren baitan gauzatua zen, nagusi-lan bat bezala orhatua zuen, nitan arau berdinean, ondikotz! etzuelarik bere lana baizik egina. Bizkitartean Saint-Loup-eko Andereñoa ene aitzinean zen. Begiak barnatuki sartuak zituen eta xorrotzak, eta sudur xoragarria ere moko moldean arinki aitzinerat emana eta makotua, ez behar bada Zuanena bezala baina Saint-Loup-ena bezala. Joa izan nintzan haren sudurra, bere amaren eta amatxirenaren eredura bezala egina, azpian zuen marra ezin ederragoan baina laburregian zuzen gelditzen zela ikustez. Gauza hoin berezi batek mila gizaidurien artean bat ezagun-araziko zuen, eta miretsi nuen nola natura nexka ttipiarendako, amarendako bezala, amatxirendako bezala, behar zen orduan itzulia zen, zizelkari handi eta berezi gisa, zizel ukhaldi azkar eta baitzepadako horren emaitera. Guermantes zenaren arima itzalia zen; baina xori airatuaren buru xoragarri begi xorrotzekilakoa ethorria zen Saint-Loup-eko Andereñoaren soingainetan jartzera, horrek luzaz amets-egin arazten baitzauen haren aita ezagutua zutener. Ontsa ederra aurkitu nuen: itxaropenez oraino betea, arraia, galduak nituen urtez berez moldatua, ene Gaztaroaren idurikoa zen.

Ondarrean Aroko ideia horrek azken balio bat bazuen enetako, akulu bat zen, hasteko ordu zela erraiten zautan, ene bizian zehar zenbait aldiz, argi zimizta labur batzuetan, Guermantes-ko aldean, karrosan Villeparisis-ko Anderearekilako ene bidaietan senditua nuenera heldu nahi baldin

banuen, eta bizia bizi ukana izaiteko gai zela estima-arazia zautanera. Zenbat gehiago zizatan holakoa iduritzen, ilunbetan eremaiten den bizi hori argiratu izan zaitekeela uste bainuen orai, egiazki zenera ekharria, ethengabe falsutzen den bizi hori, ororen buruan liburu batean erakutsia! Horrelako liburu bat idatz ahal lezakeena zenbat zoriontsu izanen zen, gogatzan nuen, zer lana haren aitzinean! Bizi hortaz ideia baten emaiteko, ederlan gorenetan eta ezperdinenetan ziren erkapenak hartu beharko; ezen idazle horrek, bertzela ere nortasun bakoitzaren izari guziaren erakusteko horren alderdi kontrakoenak agerr-araziko zituenak, bere liburua ximenki prestatu beharko zuen, indarrak beti eta beti elgarretara bilduz, jaukitaldi bateko bezala, akhidura bat bezala jasan, lege bat bezala onhartu, eliza bat bezala eraiki, osabide bat bezala jarraiki, traba bat bezala garhaitu, adixkidantza bat bezala irabazi, haur bat bezala sobera hazi, mundu bat bezala kreatu, bere argipena bertze mundu batzuetan baizik eztuketen eta haien aitzin-sendimendua bizian eta ederlanean gehienik hunkitzen gituen den mixterioak bazterrera utzi gabe. Eta liburu handi horietan, zati batzu badira abiatuak izaiteko dembora baizik ukan eztutenak, eta nehoiz bururatuak izanen eztatezkeenak, eraikitza-learen langaiko zabaltasunaren beraren gatik. Zenbat kathedrale handi diren ez bururatuak gelditzen! Eraikuntza hori hazten da, zati ahulak azkartzen zazko, begiratzen da, baina gero bera da handitzen, horrek dauku hilobia erakusten, erran-merranen kontra horrek du zaintzen eta zenbait demboraz ahazpenaren kontra. Baina nihauren baitara itzultzeko, xumekiago nuen ene liburua gogoan, eta irakurriko zutenak, ene irakurleak nituela gogoan erraitea elizateke ere zuzen. Ezen, ene ustez, etziren ene irakurleak izanen, baina bere buruen irakurleak, ene liburua ezpaita Combray-ko betordegileak erosle bati eskaintzen zauzkon berina loditzale hetako mota bat baizik; hari esker bere baitan irakurtzeko bidea emanen dauetana, ene liburua. Hala nola nun ezpainauen ene goreslea ala nitaz gaitzerraitea galdeginen, baina bakarrik zinez hori denez bada erran dezataten, bere baitan irakurtzen dituzten hitzak bada idatziak ditutanak berak direnez (gauza hortan gerta daitezkeen aburu kontrakoak ezpaitira, bertzela ere, nik huts egina ukaitetik ethorriko beti, baina batzuetan irakurlearen begiak bere baitan ontsa irakurtzeko ene liburua egoki izanen zizaienak ez izaitetik). Eta, eginen nuen lana hobe-

ki, eta gehiago gauzetan itxuratzen nuen arau ordu oroz erkapenez aldatuz, gogatzten nuen ene zurzurizko mahi handian, Françoise eni beha, gure ondoan bizi diren jende handi-nahirik gabeko guziek baitute gure lanez halako asmu bat (eta Albertine aski ahatzia nuen Françoise-ri haren kontra egina zuen guzia barkatua ukaiteko), haren ondoan lan eginen nuela, eta abantzu hark bezala (bederen hark lehenago bezala: orai hain zahartua, tuntik etzuen ikusten); ezen, gainerateko orstaki bat ixkilimaz hemen lotuz, ene liburua eraikiko nuen, handi-nahiki kathedrake bat bezala erraitera eniz ausartzen, baina xoil-xoilki zaia bat bezala. Ene paperxka guziak, Françoise-ek zion bezala, ondoan ukanen enituelarik, eta behar nuenak zuzen huts eginen zautanean, Françoise-ek ene zaintsueria adituko zuen bada, hariaren lumeroa eta behar ziren botoinak ezpaldin bazituen etzezakeela jos baitzion beti; eta gero ene bizitik bizi izan bortxaz, literaturako lanaz halako adimen asmuzko bat bildua zuelakotz, jende adimendun ainitzena baino zuzenagoa, are gehiago zozoena baino. Horrela Figaro-arendako ene artikulua egina nuenean lehenago, egiten ezten lan batek, asmatzen ere ezten batek, eta eztugun ohidura batek ere duten nekea handiegitzen duen urrikalmendu mota harekin, mutil nagusi zaharrak zintzoki idazleak urriki zituelarik « Zer buru haustea dakekeen hori » erranez, « Horrela urtzintz egiteak zenbat akhitzen zitukeen » diotzuten jende bezala, Françoise-ek aldiz ene zoriona asmatzen zuen eta ene lana errespetatzen. Gaitzitzen zen bakarrik ene artikulua Bloch-i aitzine-tik erran nezon, hark aitzin nindezan beldurrez, eta erranez: « Jende horiek guziak, aski mesfidarik eztuzu, kopiari batzu dira. » Eta Bloch-ek alabaina gibelera estakuru bat bazemon bere buruari, ontsa iduritzen zizakon zerbait abiatua nuela erraiten baldin banindakon: « Ori, bitxi duk, abantzu berdina den zerbait hasia diat, irakurri beharko deat. » (Etzautan oraino irakurri ahalko, baina arratsean berean idatziko zuen.)

Françoise-ek paperxkak zeritteen paper horiek batzu bertzer lotu bortxaz, han edo hemen urratzen ziren. Beharrez Françoise-ek eninduen horien azkartzen lagundu ahalko, bere zaietako zati higatuetan betatxu batzu ezartzen zituen bezala, edo sukaldeko leihoan, nik moldizkitzalea bezala berinagilea igurikatuz, berina hautsi baten lekuan egunkari zati bat lotzen zuen bezala? Françoise-ek erranen zautan, biphia jarria den zura iduriko ene kaier

higatuak erakutsiz: « Dena jana da, behazu, horra dentela baizik ezten orrialde mutur bat » eta josle batek bezala mihatzen zuela: « eztut uste berreginen ahal dutala, galdua da. Damu da, zure ideia ederrenak dira behar bada. Combray-n dioten bezala, biphia bezain ontsa artzen badakiten horratzale-rik ezta. Oihal hoberenetan jartzen dira beti. »

Bertzela ere, izaiteak (gizaki ala ez) liburu batean iduripen ainitzez eginak baitira, nexka gazte andana batean, eliza andana batean, zonata andana batean harturik, zonata bakar baten, eliza bakar baten, nexka gazte bakar baten egiteko baliatzen baitira, enuena ene liburua eginen Françoise-ek « behiki modakoa », Norpois-ko Jaunaz estimatu hura bazegien bezala, eta haren jelera hainbat behiki zati hautatu eta gaineratuek aberasten zutena? Eta Guermantes alderako ene ibilaldietan hainbat gutiziatua nuen hura eginen nuen azkenean, eta ezin egina zela uste ukana nuena, etxera sartzean, ama besarkatuko gabe etzatera nehoiz jarriko nintzala ezin zela uste ukana nuen bezala edo, berantago, Albertine-ek emazteak maite zituelako ideia, harekin bizitzen azkenean jarria nintzan ideia han zela ohartu ere gabe; ezen gure beldur handienak, gure itxaropen handienak bezala, eztira gura ahalak baino azkarrago, eta lehenak garhaitzen ahal ditugu azkenean eta bertzeak gauzatzen.

Bai, lan hortan, moldatu berria nuen Aroko ideia horrek has nindadin ordu zela erraiten zuen. Ordu handi zen; baina, eta horrek saloin hortan sartu orduko nitaz jabetua zen antsia onhar-arazten zuen, begitarte thinduztatuek aro galduko gogamena emana ukan zautatelarik, ordu zena oraino, eta nihaur ere gai nintzana oraino? Gogoak baditu haier beha egoitea ordu batez baizik emana etzakon eskualde batzu. Harroka eta zuhatz erridau batek ikustea gordetzen daukon aintzira baten gainaldeko bide bati goiti doan margolari bat bezala bizi izana nintzan. Ozka batetik ikusten du, oso osoa aitzinean du, pinzelak hartzen ditu. Baina margotzen ar eztaitekeen gaua badathor jadanik, eta eguna hartan berriz jeikitzen eztena. Lehenik, ezer hasia etzenaz geroz, khexu izaiten ahal nintzan, uste banuen ere, ene adinaren gatik, urte zenbait banituela oraino aitzinean, ene orenak minuta zenbaiten buruan jo baitzezakeen. Gorputz bat banuelakotik abiatu behar zen alabaina, erran nahi da lanjer bikun batez mehatxatua nintzala, kampokoaz eta

barnekoaz. Enintzan oraino hizkuntzako errextasunez baizik horrela mintzo. Ezen barneko lanjerra, burumunetako odol-galtzea bezala, kampokoa da ere, soinekoa baita. Eta soin baten ukaitea, mehatxu handia da izpirituarendako, bizi gizatar eta gogatzalearendako, huntaz dudarik gabe gutiago erran behar baita ihizien eta gorputzeko biziaren betegintze mirakuluzko bat dela, betegingabe bat dela baino, korailondoetan zelula bakuneko guzien izaitea bezain eskasa oraino, balenaren gorputzarena bezain eta b., izpirituko biziaren antolamenduan. Soinak gogoa gaztelu batean hesten du; laster gaztelua alde orotarik setiatua da eta azkenean behar da gogoak amor eman dezan.

Baina, gogoa mehatxatzen duten bi lanjer moten berextean bakarrik egoiteko, eta kampokotik hasteko, orhoitzen nintzan ainitzetan jadanik, ene bizian, gertaldi zenbaitek nitan gorputzeko egintza oro gelditua zuen adimenduko sustaldi ordu batzuetan, behazunez Rivebelle-ko ostatutik, erdi moxkorra, karrosan abiatzen nintzanean ondoko kazino zenbaitetara joaiteko, gertatua zizatala neure baitan garbi-garbiki orai gogoan nuen gauzaren senditzea, eta, ez bakarrik gauza hori oraino han sartua izan etzadin, baina ene soinarekin batean suntsitua izan zadin halabehar baten menean zela gogoan hartzea. Orduan hortaz guti axolatzen nintzan. Ene alaitasuna etzen zuhurra, ez khexua. Bozkario hori zekunda batez burura zadin eta ezteusera joan, hortaz axola guti nuen. Orai etzen berdin, sendi nuen zoriona ezpaitzen iraganetik berexten gituen zainetako tinkaldi osoki geure baitako batetik jiten, baina aldiz iragan hori hartan bermoldatzen, oraikotzen zen ene gogoaren zabaltze batetik, emaiten baitzautan ere, baina ondikotz! ephe bateko, betikotasuneko balio bat. Hau utzi nahiko nauen ene thesoraz aberastu ahalko nituener. Eiki, luburutegian senditua nuena eta gerizatu nahi, atsegin zen oraino, baina etzen norberekoia, edo bederen norberekoitasun bertzerendako erabilgarri batekoa zen (naturako bertzetara emana izaite emankor guziak molde berekoi batean hedatzen baitira, norberekoia ezten bertzetara emana izaite gizatarra agorra baita, hori da adixkide zorigaitzun baten hartzeko, ofizio publiko baten onhartzeko, hedalaneko artikulu batzuen idazteko bere lanetik gelditzen den idazlearena.) Enuen gehiago Rivebelle-tik itultzetako axolagabe hura, nitan banekharren lanaz handitua sendi nintzan (gomendatua izanen zizatan zerbait baliosez eta beratzez bezala eta haien-

dakoako begiratu zen eta neureak etziren eskuetara osorik eman nahiko nuenaz). Idazlan baten ekharle nintzala senditzeak, orai, hartan herioa aurkitua ukanen nuen ixtripu bat enetako lotsagarriago egiten zuen, lan hori beharrezkoa eta iraunkorra iduritzen zizatan neurrian arrazoingabea ere, ene gutiziarekin, gogoko oldearekin kontramoldean, baina horren gatik ez gutiago gertagarri, ixtripuak, gauzazko arrazoin batzuek eginak izanez, hain zuzen gerta daitezkeenaz geroz nahikaria osoki ezperdin batzuek, ezagutu gabe suntsitzen dituztenak, hastiagarri egiten dituzten orduan. Banakien biziki ontsa ene burumunak minagune aberats bat zirela, hartan mina balios mota ainitzez gaitzeko hedamena bazena. Baina haien baliatzeko astia ukanen ote nuen? Horren egiteko gai zen jende bakarra nintzan. Bi arrazoinen gatik: ene herioarekin itzaliko zen ez bakarrik minaki horien atheratzeko gai zen langile bakarra, baina ere minagunea bera; bada, sarri, etxera sartuko nintzanean, hartuko nuen beribilak bertze bat jo zezan aski izanen zen ene gorputza suntsitua izan zadintzat eta ene izpirituak, bizia handik joanen baitzen, ordu hartan berean betiereko utzi behar ukan zitzan, liburu batean segurkiago haien ezartzeko astirik ez ukanik, bere mami daldaratuaz, gerizatzaleaz, baina beratzaz antsiarekin tinkan zaduzkan ideia berriak. Bada, gertaldi bitxi batez, lanjerraren beldur arrazoinetako hori nitan sortzen zen, herioaren ideia, gutiz geroztik, orobat bilakatua zizatan ordu batean. Nihaur baizen ez gehiago izaiteko beldurrak behin lazta emana zautan, senditzen nuen maitasun berri bakoitzean, Gilberte-rendako, Albertine-rendako, horiek maite zituen egun batez izanen etzelako ideia jasan enezakeelakotz, heriotze mota bat izanen baitzen. Baina berritzearen bortxaz, beldur hori naturalki konfianxazko jabbaldura batera aldatua zen.

Burumunetako makurra etzen beharrezkoa ere. Horren seinaleak, buruan halako huts baten bidez enetzat sendigarri eta gehiago uhalabeharrez baizik berraurkitzen enituen gauza guzien ahazteaz, soineko batzuen altxatzean bilatu behar zela ere ahazia ginuen bat aurkitzen denean bezala, nitaz egiten zuen bere burdin-khutxa lehertuak aberastasunak arauka ihes egitera uzten dituen diru metatzale bat bezalakoa. Aberastasun horien galtzea deitoratu zuen ni bat izan zen dembora zenbaitez, eta laster senditu nuen orhoitak erretiratzean ni hori ere bazeramala.

Heriotzearen ideiak dembora hartan maitasuna, ikusi den bezala, ilundua baldin bazautan, bazen aspaldi maitasunaren orhoitzapenak herioaren beldur ez izaiten laguntzen ninduela. Ezen hartzen nuen hiltzea etzela zer-bait berri, baina aldiz ene haurzaroaz geroztik ainitzetan hila nintzala jadanik. Aldi gutienik zahartuaren hartzeko, enintzana Abertine-ri neure biziari baino gehiago atxikia izana? Neure burua orduan asma nezakeena harendako maitasun hori hartan jarraik zadin gabe? Bada enuen gehiago maite, enintzan gehiago hura maite zuena, baina maite etzuen bertze norbait, bertze bat bilakatua nintzanean haren maitatzetik gelditua nintzan. Bada bertze bat bilakatua izaiteaz, gehiago Albertine-ren ez maitatzeaz enuen sofritzen; eta segurki egun batez gorputzik ez ukaitea etzizatan edozein moldez egun batez gehiago Albertine-ren ez maitatzea iduritua zizatan bezain gauza trixtea iduritzen ahal. Eta bizkitartean, haren ez maitatze hori zenbat berdin zizatan orai! Heriotze jarraiki horiek, suntsitu behar zuten niarentzat hain beldur-garriek, behin gertatu ondoan eta beldur zena haien senditzeko gehiago hor etzenean hain orobatekoek, hain eztiak, gutiz geroztik gogoan harr-arazia zautaten herioaz izitzea zenbat guti zuhur izanzen zen. Bada orai gutiz geroztik orobat bilakatua zizatarik nintzan haren beldur izaiten berriz hasten ari, bertze molde batean egia da, ez enetako, baina ene liburuarendako, haren zabaltzeko, zenbait demboraz bederen, hainbat lanjerrek mehatxatzen zuten bizi hau baitezpadakoa baitzen. Victor Hugok erraiten du:

Jin behar du belarrak eta haurrak hil behar.

Nik diot ederlaneko lege abrea jendeak hil daiten dela eta oinaze guziak agortuz guhaur ere hil gaiten, ez ahazpeneko belarra baina betiereko bizikoa jin dadintzat, lan emankorretako belar usua, gizaldiak ethorriko baitira, azpian lo daudenez axolatu gabe, alaiki « belarrean bere barazkariaren » egitera.

Sarri Champs-Élysées-etan gaindi etxera itzuliko nintzanean, nork erran zezakeen enintzala amatxik ukan zuen gaitz beraz joa izanen, harendako azkena izanen zen ibilaldi baten egitera enekin jina zen arratsalde batez, bera hortaz jelostu gabe, erloieriaren erresorta abia-araziak orena joren duen heinera, jakina eztuenera heldua den orratzaren jakinbean, gurea den jakingabe hortan? Izan daiteke jadanik prestatzen ari den oreneko lehen jo-

taldi aitzineko minuta abantzu osoa jadanik iragana ukaiteko beldurra, ene burumunetan abiatzen hasia lizatekeen ukhaldiaren beldur hori, gertatuko zenaren ezagutze ilun bat bezalakoa zela, zain gorriak amor emaitera doazen burumunetako izanara irangankorraren leinuru bat bezala konzien zian, hori ezpaita zaurituek duten herioaren onhartze bapateko hura baino ezin gertatuagoa, er raiten baitute, nahiz medikuak eta bizitzeko gurak trompatu nahi dituzten, izanen dena ikusiz: « Hiltzera noa, prest niz » eta bere emazteari goraintziak idazten.

Eta alabaina ene liburua hasia ukan nuen baino lehen gertatu zen gauza bitxia izan zen hor, nehoiz uste ukanen enuen molde batean. Athera nintzan arrats batez, lehenago baino itxura hobea aurkitu zautaten, ene ile guziak beltzak atxikiak ukaiteaz ustegabetu ziren. Baina mailadiaren jaustean hirur aldiz erortzer nintzan. Etzen bi orenetako atheraldi bat baizik izana; baina sartua izan nintzanean, senditu nuen orhoitik enuela gehiago, ez gogoetarik, ez indarrik, ez izaiterik batere. Ikustera jin balizatate, errege izendatzeko, preso hartzeko, arrastatzeko, hitzik erran gabe, begiak berriz ideki gabe egitera utziko nintzan, itsas-joak hein gorenean hartu jende batzu bezala eta, untziz itsaso Kazpienaren iragaitean, itsasora egotziko direla eraiten bazaie ezpaitira ihardokitzen hasten ere. Garbiki erraiteko enuen eritasunik batere, baina sendi nuen enintzala gehiago jeusetako gai, zaharrer gertatzen zaien bezala, bezperan erneak, eta, izterra hautsirik edo janondo gaixto bat ukanik, herio hemendik goiti ezin hutsegin batera prestatze guti edo aski luze bat baizik ezten bizi bat zenbait demboraz oraino bere ohean ereman baitezakete. Nietarik batek, lehenago hiriko auhariak deritzeeten abre aphairu hetara zoanak, hetan, zuriz jantzi gizonendako, emazte erdi buluzi eta lumaztatuendako balioak hain baitira uzkailliak nun behin onhartua ukan eta auhaltzera jiten ezten norbaitek, edo errekan baizik ethortzen eztenak, huts bat egiten baitu auhari hortan, berriki gertatu heriotzeak bezala, arinki aiphatzen diren moralaren kontrako egintzak baino ogendunagoa, eta hara ez joaiteko desenkusa bakarra heriotzea edo eritasun larri bat baita, hilurran dela ordu deno jakin-arazi baldin bada, hamalaurgarren baten gomitatzeko, ni horrek nitan bere estakuruak atxikiak zituen eta orhoitzapena galdua. Bertze nia aldiz, bere lana asmatua zuena, orhoit zen. Molé Ande-

rearen ganik gomit bat ukana nuen eta Sazerat Anderearen semea hila zela ikasia. Haien ondotik, mihia amatxik bere agonian bezala estekatua, hitz bat erran, edo esnerik irets enezakeen oren hetarik baten erabiltzera deliberatua nintzan Molé Andereari ene desenkusen eta Sazerat Andereari doluminen igortzen. Baina ephe zenbaiten buruan egin behar nuela ahatzia nuen. Zorionezko ahazpena, ene lanaren orhoita atzarria baitzen eta emana zizatan bizi egoiteko orena erabiliko baitzuen ene lehenbiziko oinarrien jartzen. Zorigaitzez, idazteko kaier baten hartzean, Molé Anderearen gomitatzeko karta ene ondoan lerratzen zen. Berehala ni ahazkorrak baina bertzearen gainean lehentasuna bazuenak, hirian auhaldutik diren abre arranguratu haien guzien baitan gertatzen den bezala, kaierra baztertzen zuen, Molé Andereari izkiriartzen (hunek bertzela ere biziki estimatuko bainindukeen, jakina ukan balu, haren gomitari ihardestea ene eraikile lanaren aitzinean ezarria ukanik). Bapatez, ene ihardespeneko hitz batek gogoratzen zautan Sazerat Andereak semea galdua zuela, izkiribatzen naukon ere, gero ontsa ikasia eta sendikorr nintzala erakusteko behar alegiazkoari egiazko eginbide bat sakrifikaturik, indarrak gabe erortzen nintzan, begiak hesten nituen, zortzi egunez nekez baizik bizirik ez egon beharrean. Alta, ene eginbide debaldeko guziak, haier egiaren sakrifikatzera prest bainintzan, minuta zenbaiten buruan burutik joaiten baldin bazizaztan, ene eraikuntzaren ideiak eninduen ephe batez uzten. Enakien hartan fededun batzuek apurka apurka egia batzuen ikasten eta harmonia batzuen, egitura osoaren aurkitzen jakinen zuten eliza bat izanzen zenez, ala, irla bateko hegian druiden arako eraikuntza bat bezala, betikotz ibiltzalerik gabeko zerbait geldituko. Baina hari ene indarren emaitera deliberatua nintzan, urrikitan bezala baitzoazen eta, inguruko guzia bururaturik, « ehortzetako athea » hetsia ukaiteko astia eni utzi ahal ukaiteko bezala.

Berehala lehen-lan batzu erakutsi ahal nituen. Nehork ezer etzuen hetan aditu. Gero temploan grabatu nahi nituen egietako ene ikuspenaren aldekoenak ere goretsi ninduten hek « mikrozkopaz » agerian ezarririk, aldiz « telezkopa » bat nuelarik erabilia gauza batzuen ikusteko, ttipi-ttipiak alabaina, baina urrun handi batean jarriak zirelaketz, eta hetan bakoitza mundu bat baitzen. Nun ere lege handiak bilatzen baintuen, xehetasun mihatzele deitzen ninduten. Bertzela ere, zertako nuen hori egiten? Errexta-

suna ukana nuen, gaztean, eta Bergotte-ek ene ikasle orrialdeak « beteginak » aurkituak zituen. Baina lan egiteko orde auherkerian bizi izana nintzan, atseginetako galbidetan, eritasunean, arthamenetan, bitxikerietan, eta ene lana hiltzeko bezperan hasten nuen, neure ofiziotik ezer jakin gabe. Enuen gehiago sendi jendekilako ene eginbeharrer ihardukitzeko indarra, ez ene gogamenaren eta lanaren alderako eginbider, are gutiago bienekoer. Lehen-bizikoendako, idazteko ziren eskutitzen ahazteak eta b., ene lana apur bat errexten zuten. Baina bapatez, gogamenen elgarretaratzeak ilabete baten buruko berriz ekhartzen zuen ene orhoitzpenetako urrikia, eta ene ezinaren sendimenduaz lehertua nintzan. Hortaz ez axolatua izaiteaz ustegabetua izan nintzan, baina hori da, mailadiaren jaustean ene zangoak hainbat daldaratuak ziren egunetik, orotaz axolagabea bilakatua nintzalakotz, enuelakotz gehiago atsedena baizik gutiziatzen, askenean jinen zen atsedean handiaren aiduru. Etzen hori ene lanarendako, baziduritan, ukan behar zen mirestea heriotze ondora urruntzen nuelakotz, oraiko jende hoberenen aburua orobat zizatalakotz. Ene heriotze ondokoek nahi zutena gogatzten ahalko zuten, enintzan hortaz gehiago axolatzen. Egiazki, ene lana baldin banuen gogoan eta ez ihardetsi behar nauen eskutitzak, etzen hori, ene auhertasuneko demboran eta gero mailadiko barandari lotu behar ukana nuen egunerano ene lanekoan bezala, bi gauzen artean ezperdintasun handiago bat ezartzen nuelakotz. Ene orhoitaren antolemandua, arrangurena, ene lanari lotua zen, behar bada, ukan eskutitzak berehala ahatziak ziren batean, ene lanaren ideia buruan nuelakotz, beti bera, betiereko bilakaldian. Baina hori ere nardagarritua zizatan. Ama hiltzera doanak oraino, pikuren eta bixikadoren artetik, gelditu gabe haren arthatzeko akhidura bere gain hartu behar duen seme bat bezala zen enetako. Maite du oraino behar bada, baina hori eztaki haren arthatzeko duen eginbide gaindigarritik baizik. Neure baitan idazlearen indarrak etziren gehiago lanaren behar berekoien heinean. Mailaldeko egunetik, munduan deus, bozkario bat ere, jin zadin jenden adixkidantzatik, lanaren aitzinatzetik, ospearen itxaropenetik, etzizatan gehiago iguzki hits handi bat bezala baizik heltzen, hain hitsa nun ezpaitzuen gehiago ene berotzeko, bizi-arazteko, eni edozein gutiziaren eman-arazteko ahalik; eta, zen zurpaila izanik ere, hetsi nahiago zuten ene begiendako argiegia zen, eta murru aldera

itzultzen nintzan. Iduritzen zata, ene ezpainen mugimendua senditzen nuen bezainbatean, aho izkina ttipi-ttipi bateko irriño bat banukeela andere batek izkiriartzen zautanean: « Ene eskutitzari ihardespenerik ez ukaitez biziki uste-gabetua izana niz. » Hala ere, horrek haren eskutiza orhoit-arazten zautan, eta ihardesten naukon. Entseatu nahi nuen, eskergabea nintzala uste ukan etzezaten, oraiko ene gixakotasunaren ezartzera jendek enetako ukana ahal zuten gixakotasunaren heinean. Eta ene izaite hil-urranaren gainera biziko akhidura gizonaz goragokoen emaitzez lehertua nintzan. Orhoitaren galtzeak apur bat laguntzen ninduen ene eginbeharretan mozte batzu eginez; ene lanak horiek ordaintzen zituen.

Herioaren ideia hori nitan behin betiko jarri zen maitasun bat egiten den bezala. Ez herioa maite nuelakotz, hastiatzen nuen. Baina, noiztenka hura naski gogoan ukanik oraino maite ezten emazte bat bezala, orai ene gogamena burumunetako gune barnatuenari hain osoki eratxikia zen nun gauza bat ezpainezakeen gogoan ukan gauza horrek lehenik herioaren gogamena zeharkatua ukan gabe, eta deusetan ari ezpanintzan ere eta atsedean osoan banindagon, herioaren ideiak bazegitan kompainia bat niaren ideia bezain ezin gelditua. Eztut uste, erdi-hil bat bilakatua nintzan egunean, ixtripuek zutela hori nabaritua, mailalde baten jausteko ezinak, izen batez orhoitze-koak, jeikitze-koak zutela emana, arrazoinamendu oharkabeko batez berdina, herioaren ideia, jadanik nunbait han hila nintzalakoa, baina izaitekotz guzia elgarrekin jina zela, huts egin gabe gogoaren miraila handi horrek egia berri bat itxuratzen zuela. Enuen bizkitartean ikusten nituen gaitzetarik heriotze osora, abisatua izan gabe, nola iragan zaitekeen. Baina orduan bertzeak nituen gogoan, egun oroz hiltzen direnen eritasun eta heriotzearen artegune gabea guri ohigabekoa iduri izan gabe. Uste nuen ere barnetik ikusten nituelakotz bakarrik (itxaropeneko enganioen bidez ere baino gehiago) zizaztala aldixartze batzu banazka harturik ez hilgarriak iduritzen, nahiz neure heriotzean sinesten nuen, burura helduak direla gehienik segur direnek errex sinesten duten bezala hitz batzu ezin ahozka badezazkete, horrek odol-ukhaldi batekin, elhe-galtzearekin eta b. ikusterik jeus eztuela, baina mihiaren akhidura batetik dathorrela, motelduraren iduriko zaintsueria batetik, janondo gaixto bati jarraiki zakon ezindura batetik. Dudarik gabe ene liburuak, ene

haragizko izaitea bezala, azkenean egun batez hilen ziren. Baina hiltzera etsitu behar da. Nor bera hamar urteren buruan, liburuak ehun urteren buruan gehiago izanen eztiarelako gogamena onhartzen da. Betiereko iraupena etzaie gizoner baino gehiago laner hitzeman.

Nik, bertze zer bait nuen idatzi behar, luzeagoa, eta jende bat baino gehiagorendako. Idazteko luzea. Egunaz, lo egitera nintzan gehien-gehienik entseatzen ahalko. Lan egiten banuen, gauaz izanen zen. Baina gau ainitz behar ukanen nuen, behar bada ehun, behar bada mila. Eta antsian biziko nintzan ez jakiteaz ene zortearen Nagusiak, Sheriar soltana baino gutiago urrikaldun, goizean ene ixtorioa geldituko nuenean, ene heriotzeko erabakia gibelatu nahiko zuenez bada eta ondoko arratsean jarraipena berriz har nezan onhartu. Ez banuelakotz, edozertan, Mila eta bat Gauak, Saint-Simon-en Orhoitzapenak baino gehiago, hek ere gauaz idatziak, berregin nahi ukaiteko burujopea, ez eta maitatuak nituen liburuetarik edozein baino gehiago, haurreko ene xintxotasunean, ene maitasuner bezala haier sineskeriarekin atxikia, hetarik bertzelakoa lizatekeen lan bat laztarik gabe ezin asmatuz. Baina, Elstir-ek Chardin bezala, ezin da ukhatuz baizik maite dena berregin. Mila eta bat Gauak bezain liburu luze bat izanen zen behar bada, baina osoki bertzelakoa. Dudarik gabe, lan batez amartua denean, zer bait berdin-berdin egin nahi lizateke, baina ordu bateko maitasuna sakrifikatu behar da, nork bere gostua ez gogoan ukan, baina zure hautespenak galdegiten eztaukitzun eta hetaz gogoetatzea debekatzen dautzun egia bat. Eta hari baldin bazako bakarrik jarraikitzen da batzuetan utzia izan denaren edireitea gertatzen, eta dira, hek ahatziz, bertze aro bateko « Ipuin arabak » eta « Saint-Simon-en Orhoitzapeak » idatziak ukaiten. Baina ordu zena oraino enetako? Etzena berantegi?

Banion neure baitan ez bakarrik: « Ordu dea oraino? » baina « On niza? » Eritasunak, konzienziako buruzagi garratz batek bezala, mundura hil-araziz, zerbitzu egin zautan (« ezen ogi bihia ereina denean ezpaldin bada hiltzen, bakarrik egonen da, baina hiltzen bada, fruituak emanen ditu »), eritasunak, auhertasunak errextasunaren kontra gerizatu ukana ninduen ondoan, auhertasunaren kontra zainduko baininduen behar bada, ene indar-

rak higatuak zituen eta, aspaldidanik ohartua nintzan bezala, Albertine-ren maitatzetik gelditua nintzan orduan bereziki, ene orhoiteko indarrak ere. Bada gero barnatu, argitu, adimenduaren ordain batzuetara aldatu behar ziren iduripen batzuen berregitea orhoitaren bidez, etzena arestian liburutegian asmatua nuen bezala ederlandeko beharrezkoak zirenatarik bat, abantzu haren izantza bera? Ha! François le Champi-ren ikustean gogoratua nuen arratsaldian oraino oso ziren indarrak orai ere baldin banitu! Amak amor emana zuen arratsaldi hartara zen igaiten, amaxiren heriotze luzearekin, ene borondateko beherapena, osagarrikoa. Oro erabakirik izana zen, amaren aurpegian ene ezpainen ezartzeko biharamunaren igurikatzea gehiago ezin jasanetz, deliberoa hartua ukan nuenean, ohetik jauzi egina ukan, eta joana nintzanean, gau-athorran, ilargi xuria handik sartzen zen lehioan jartzera Zuan jauna joaiten entzuna ukanen nuen arteo. Ene gurasoek lagundua zuten, baratzeko athea entzuna nuen idekitzen, joiten, berriz hesten...

Orduan, bapatez gogatu nuen ene lanaren egiteko indarra oraino baldin banuen, egun huntan berean - lehen Combray-n egun batzuek nitan eragin ukana zuten bezala - ene lanaren ideia eta ez egin ahal ukaiteko beldurra aldi berean emanak zautzan goizaldi hunek, oro baino lehen markatuko zuela, huntan, segurki lehenago Combray-ko elizan aitzinetik senditua nuen moldea, eta ohiki ezin ikusia gelditzen zaikuna, Aroarena.

Eiki, gure sentsuetako bertze huts ainitz izaiten da, ikusi da ixtorio huntako gertaldi batzuek hori phorogatua zautatela, guretako munduaren itxura egiazkoa makurtzen baitute. Baina azken beltzean, emaitera entseatuko nintzan erakus-molde zuzenagoan, soinuaren lekua aldatu gabe utziko ahal nuen, zuten ithurburutik berextetik begiratuko nintzan, adimenduak gero haren ondoan ezartzen baititu, nahiz gambararen erdian ezтики euriaren kanta-araztea eta korroilan erauntsian gure tisanaren irakitaldiaren jauts-araztea elizatezkeen oro har margolarien hain usu egina dutena baino baldigarriagoak izan behar, gutarik biziki hurbil edo biziki urrun, zabaleko itxurapenaren legeak, margoen indarrak eta soaren lehen lillurak agerr-arazten daukuten heinean, bela bat edo mendizorrotz bat margotzen dutenean, arrazoinamenduak gero urruntasun zenbait aldiz gaitzeko batzuetara lekuz aldatuko duena. Nahiz hutsa larriago den, jarraikiko ahal nintzan, egiten

den bezala, badiragan emazte baten aurpegian marra batzuen ezartzen, su-durraren, matelen eta bidarraren lekuan gehien-gehienik gure gutizien leinurua hartan jostatuko lizatekeen gune huts bat baizik elizatekeelarik alta izan behar. Eta aurpegi ber bati eratxiki behar zazkon ehun masken prestatzeko - gauza jadanik ontsa baliosagoa - astia ezpaldin banuen ere, ikusten duten begien eta hauek haren itxurak irakurtzen dituzten sentsuaren araura baizik ezpaliz ere, eta, begi berendako, adineko aldamenak hogeita hamar urtez gordetzen dituzten itxaropenaren ala beldurraren ala aldiz maitasunaren eta ohiduraren araura; azkenean hasten ezpaldin banintzan ere - Albertine-rekilako ene atxikimendua aski zelarik alta hori gabe oro alegia eta gezurrezkoa dela eni erakusteko - jende batzuen itxuratzen ez kampoan, baina den gutieneko haien egintzek nahasmen hilgarri batzu ekhar dezazketen gure baitan, eta ere gure sendikortasuneko tinkaldiaren ezperdintasunen araura zero moraleko argiaren alda-arazten, edo, haren azpian gauza bat hain ttipi den gure segurtasuneko zoharra uhertuz, irriskuko hedoi xoil batek ephe batez horren handitasuna gehitzen duenean; aldakuntza horiek eta bertze ainitz (horien beharra, gauzak diren bezala erakutsi nahi badira, ixtorio huntan zehar agertu ahal baita) ekhartzen ahal ezpaldin banituen berriz oso-osoa marrazkitzeko zen mundu baten erakus-moldean, enuen bederen gizonaren hor erakustea huts eginen ez bakarrik bere soinaren baina bere urteren izaria baduena bezala, lekuz aldatzen denean - lan gero eta gehiago izigarria eta azkenean garhaitzen duena - berekin horiek herrestan ereman behar dituen.

Bertzela ere, Aroan leku bat ethengabe luzatua hartzen dugula, mundu guziak senditzen du, eta orotakotasun horrek enindezakeen bozkaria baizik, argitzea bilatu behar nuena egia denaz geroz, bakoitzak hartaz aieru baduen egia. Aroan leku bat badadukagula ezta bakarrik mundu guziak senditzen, baina leku hori, den lañoenak nunbait han neurtzen du eremuan dadukagun lekua neurtuko luen bezala, ohartasun berezirik gabeko jende batzuek, ezagutzen eztituzten bi gizonen ikustean, biak muxtatz belztunak ala bizarrik gabe, bi gizon direla diotenaz geroz bata hogeita-bat urtekoa, bertzea berrogei-ta hamarrekkoa. Dudarik gabe estimatze hortan ainitz aldiz huts egiten da, baina egin ahal dela uste ukaiteak erran nahi du adina zerbait neurgarri bezala asmatzen zela. Muxtatz beltzekikako bigarren gizonari, ho-

gei urte gehiago gaineratuak zazko egiazki.

Aro airatuko ideia horren, gutarik bereziak izan ezturen iragan urterenaren hoin azkarki agerian ezartzeko xedea baldin banuen orai, hori da ordu huntan berean, Guermantes-ko printzearen hotelean, Zuan jaunaren laguntzean ene gurasoen urhatsen harrabots hura, azkenean Zuan Jauna joana zela eta ama iganen zela iragartzen zautan xilintxa ttipiaren tirrinta jauzkari, burdintsu, ezin ixildu, oihukari eta hotx hura entzun nituelakotz oraino, hek berak entzun nituelakotz, alta iraganean hain urrun jarri hek. Orduan, entzunak nituen orenaren eta Guermantes goizaldiaren artean nahitez jartzen ziren gertakari guzietz gogoetatzean, laztatua izan nintzan xilintxa harek zuela bada oraino nitan joiten uste ukaiteaz, haren tirrintaren garrasier ezer alda ahal nezeen gabe, nola gelditzen ziren gehiago ez ontsa orhoituz, berriz horren ikasteko, berriz ontsa entzutekotan, ene inguruan maskek bazaduzkaten solasen ez entzuteko indar egin behar ukan nuenaz geroz. Hurbilagotik haren entzutera entseatzeko, neure baitara nintzan berriz jaustera bortxatua. Tirrinta hura beti hor baitzen beraz, eta ere, haren eta oraiko orduaren artean, banakharrela enakien iragan mugarik gabe hedatu hura guzia. Joa zuenean, bizi nintzan jadanik, eta geroztik, berriz tirrinta haren entzuteko, behar zen jarraipen hausterik izana etzadin, izaitetik, gogatzetik, nintzalako konzienziaren ukaitetik ephe batez gelditua izana enindadin, iragan ephe hura oraino eratxikia zizatanaz geroz, oraino hartarano itzul ahal nindaitekenaz geroz, neure baitan barnago jautsiz bakarrik. Eta iraganeko orenak horrela badaduzkatelakotz dauete maite dituztener giza-soinek hoinbertze kalte egiten ahal, haiendako jadanik ezabatu bozkario eta gutizien hainbertze orhoitzapen badadukatelakotz, baina haier beha dagoenarendako hain bortizki mingarriak, eta hartaz bekaizti, haren suntsitzea agiantzatu ahal ukaiterano bekaizti den gorputz maite-maitea aroko eremuan hedatzen duenarendako. Ezen hil ondoan Aroa gorputzetik joaiten da, eta ohoitzapenak, hain orobatekoak, hain histuak, izaiterik gehiago eztuenaren baitan - lo ikusten nuen eta hila zen Albertine - ezabatuak dira eta oraino oinazkatzen dutenaren baitan laster hala izanen, baina huntan ere azkenean suntsituko baitira gorputz bizi baten gutiziak eztituelarik gehiago begiratu.

Akhidura eta laztako sendimendu bat banuen aro hain luze hori,

gelditze bat gabe, nik bizi ukana nuela, gogatua, emana, ene bizia zela, ni-haur zela senditzean, baina ere minuta oroz nihauri estekaturik atxiki beharko nuela, jasaiten ninduela, ni, haren hegi burzoragarrian hupatua, higi enindaitekeela hura lekuz aldatu gabe. Combray-n baratzeko xilintxaren hotsa, hain urruna eta bizkitartean barnekoa, entzuten nuen urtea, banuela enakien gaitzeko neurri hortan ezagugarri bat zen. Burzoroa nuen, neure azpian, neure baitan alta, goratsunez lekoak banitu bezala, hainbertze urteren ikusteaz.

Orai hartua nuen zergatik Guermantes-ko dukea, bere kaderan jarria hari so egitean, ni beherago nintzanak baino hainbat urte gehiago ukana gatik zein guti zahartua zen miretsia nuelarik, jeikia izan zen eta zutik egon nahi ukan zuen orduko, haien baitan azkarrik bere gurutze burdineriazkoa baizik ezten eta aphezgai bizkor batzu hetara lehiatzen diren arxapezpiku zahar batzuenak bezalako bere zango durdurikarietan nola zalantzatua zen, eta zergatik etzen orsto bat bezala daldaran baizik aitzinatua, lauretan hogei eta hirur urtetako hegi guti ibilgarriaren gainean, gizonak makola bizidun batzuetan hupatuak balire bezala, ethengabe handitzen zirenetan, batzuetan ezkiladorre batzu baino goragoetan, azkenean urhatsa neke 'ta lanjeros bilakatzen zautenetan, eta handik bapatez erortzen zirenetan. (Hortako zena adin bateko gizon batzuen begitarte, gutienik dakienaren begietan, gizon gazte batenarekin hainbertzetarano ezin nahasia eta halako hedoi baten seriostrasunetik baizik ez agertzen?) Neureak jadanik ene urhatsen azpian hain gora izaiteaz laztatzen nintzan, etzizatan iduritzen ukanen nuela oraino jadanik hain urrun jausten zen iragan horren luzaz atxikitzeko indarra. Bederen, ene lanaren bururatzeko aski luzaz utzia balizata, enuen hutseginen lehenik hartan gizonen erakustea (horrek izaite izigarri batzuen itxura eman behar balaue ere) leku hain gotor baten atxikitzen, mundu osoan emana zaienaren ondoan hain hertsia, leku bat aldiz neurririk gabe hedatua - aldi berean hunkitzen dituztenaz geroz, urtetan murgildu zigante batzuek bezala, aroaldi hain urrundu batzu, haien artean jartzera hainbat egun jin baitira - , Aroan.

BURURAPENA